

KLASIKOAK, S.A. lukro-asmorik gabeko elkarteak argitaratu du
obra hau, elkartearen sustatzaile eta partaideak honako erakunde hauek izanik:

BBV Fundazioa

•

Bilbao Bizkaia Kutxa — BBK

•

Gipuzkoa Donostia Kutxa — KUTXA

•

Caja VITAL Kutxa

•

Euskal Herriko Unibertsitatea — UPV/EHU

•

Deustuko Unibertsitatea

ARRAZOIMEN HUTSAREN KRITIKA

IMMANUEL KANT

Arrazoimen hutsaren kritika



Jatorrizko izenburua:
Kritik der reinen Vernunft
Euskaratzailea: Ibon Uribarri
Berrikuslea: Joxe Azurmendi
Hitzaurregilea: Burkhard Tuschling

Lehen argitalpena: 1999ko ekainean

© Itzulpenarena: Ibon Uribarri
© Klasikoak, 1999.
Begoñako Andra Mari, 16 • 48006 Bilbo
Tel.: 94 • 416 14 89 / Fax: 94 • 416 63 48

Erabat debekaturik dago, Copyright-titularren idatzizko baimenik gabe, legeek ezarritako zigorraren pean, zatika edo osorik obra hau birsortzea edozein bitartekoz edo prozeduraz, erreprografia eta trataera informatikoa barne direla, baita beronen aleak alokapen edo mailegutza publikoaren bidez banatzea ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia 1999-VI-1

ISBN: 84-88303-39-4
Lege gordailua: BI.-1499-99

Fotokonposaketa: L&A Diseinua
Begoñako Andra Mari, 10 • 48006 Bilbo

Inprimaketa: Gestingraf L. B. A.
Ibarsusi Bidea, 3 • 48004 Bilbo

Diseinua eta Maketa: A.I.C.
Infante Don Juan Etorbidea, 26 • 20008 Donostia

HITZAURREA

I

Arrazoimen hutsaren kritikaren egitura eta gai nagusiak

Arrazoimen hutsaren kritika bi zatik osatzen dute aurkibideak diotenaren arabera: osagaien irakaspen transzendentalak eta metodoaren irakaspen transzendentalak. Bitariko zatiketa honek, ordea, ez du ukitzen liburuaren mamia, aurkibide berak erakusten duen moduan: osagaien irakaspenera (73-525 orr.) orrietan aurki daiteke eta metodoaren irakaspenera (529-611 orr.) orrietan¹. Lehen zatiak 700 orrialde inguru betetzen ditu, bigarrenak, berriz, 150 besterik ez. Filosofikoki esanguratsuagoa beste zatiketa bat da, sentimena adimenaren aurrean jartzen duena, edo sentimena adigaiaren aurrean, edo bestela esanda, sentimena pentsatzearen aurrean jartzen duen zatiketa. Jatorria Filosofiaren hasieran bertan duen zatiketa honek gaurkotasun berezia zuen Kantengan, Descartes, Spinoza, Leibniz eta beren *eskolen* Metafisika, eta John Locke, George Berkeley eta, last but not least, David Humearen enpirismo ingelesaren arteko aurkakotasunean adierazten baitzen. Aurkakotasun hau Kantek osagaien irakaspeneraren barnean jasotzen du, zeinak *Estetika transzendental* izena duen sentimenaren eta begiespenaren teoria batekin hasiz *Logika transzendental* izena jasotzen duen pentsatzearen edo adimenaren teoria batekin jarraitzen duen. *Estetika transzendentalaren* arabera espazioa eta denbora ez dira objektu absolutuak, ezta berbaitango gauzen arteko harremanak ere, baizik gure formak, hau da, subjektu ezagutzailea den gizakiaren formak, hots, objektuak gugandik at espazioan diren moduan eta denboran aldatzen diren moduan begiesten dituzten formak. Teoria hau Kantek jadanik 1770ean garatu zuen eta bere katedraren irekiera-hitzaldian *De mundi sensibilis atque intelligibilis forma et principiis* izenburupean aurkeztu zuen sentsuen munduaren formaren eta printzipioen teoria gisa, geroago pentsatu zuen *Arrazoimen hutsaren kritika* baten proiektuarekin zerikusirik izan gabe. Lan hau historikoki ez ezik sistematikoki ere *Arrazoimen hutsaren kritikaren* benetako muinera iristeko aurre-jolasa edo prestaketa da, hau da, pentsatzearen forma hutsen irakaspenera den *Logika transzendentalera* iristeko prestaketa, eta honen bitartez guk:

* Sentimenean ematen zaigun anizkuntzia determinatua den zerbait gisa, hau da, objektu gisa aditzen dugu.

* Horrela, objektu gisa determinatutako anizkuntzia beste anizkuntziekin bateratzen dugu adimenaren erregelen arabera, hura objektu enpiriko edo agerpenen mundu bihurtzearen, hau da, izadi bihurtzearen, izadia legezko sistema batean biltzen diren objektuen elkarketa den aldetik.

* Objektu hauen osoki absolutua inferitzen dugu arrazoimenaren bidez determinatutako batasun absolutu gisa.

Logika transzendental bera ere, bestalde, bitan zatitzen da. Hau lehenik *Analitika transzendental* da, «egiaren Logika» bat, beraz; bigarrenik, *Dialektika transzendental* da, eta Kantek Dialektikaz itxuraren Logika ulertzen du, eta itxura honen aurkikuntza, kritika eta gaingipena dira *Dialektika transzendentalaren* egitekoak².

Sailkaketa honen arabera honela uler daiteke laburki Kantengatik Filosofia transzendental: Analitika transzendental pentsatzearen forma hutsen teoria positiboa da, hau da, egiazkoak ez ezik, egiazko ezagutza ororen baldintzak ere badiren formen teoria. Forma hauek adimen hutsaren adigaiak eta judizioak dira, hots, *adimenaren adigai hutsak* edo *kategoriak* eta *adimen hutsaren oinarri-esakuneak* izendatzen direnak. Aditzearen forma huts gisa aurkezten diren hauek sentimenean emandako anizkuntzia determinatzen dute, honela hau objektu gisa edo objektuen mundu gisa aditzearen. Oinarritzko adigai hauetatik gainera *adimen hutsaren oinarri-esakuneen sistema* ere erator daiteke, eta oinarri-esakune hauen bidez mundu honen oinarritzko egiturak legeen sistema baten gisa ulertzen ditugu eta izadia osotara kausa mekanikoen arabera eta legeen arabera konplutuki determinatuta ezagutzen dugu.

Analitika transzendentaleak adimen hutsaren adigaiak eta judizioak barnebiltzen ditu, zeinak sentimenarekin, begiespenarekin eta esperientziarekin halako molde jar daitezkeen harremanean, non adigaien eta judizioen Logika egia-
 Logika bihurtzen baita; baina harreman hau ezinezkoa gertatzen zaie arrazoimen hutsaren *adigaiei*, *judizioei* eta *inferentziei*,
 zeren hauek ezin baitute loturarik lortu sentimenean emana den anizkunkiarekin, ezta objektu begiesgarriekin edo
 hautemangarriekin ere, edo ezta objektu enpirikoekin ere eskuarki. Izan ere, arrazoimen hutsaren *adigaiak* edo «*ideiak*»³
 begietsi ezin den, hauteman ezin den eta esperientzian eman ezin den Zerbaiten adigaiak baitira. Horrelako Zerbaiten lehenengo
 adibidea giza *arima* da, bigarrena *mundua*, osoki absolutu gisa, eta hirugarrena *Jainkoa*. Arrazoimen hutsak arimaren adigaitik
 abiatuta arimaren substantziatasuna, batasuna eta hilezkortasuna inferitzeko egiten duen saialdiak inferentzia okerren sistema
 bat sortzen du⁴. Munduaren mugatasuna edo mugagabetasuna, materiaren zatigarritasuna edo zatiezintasuna, eta munduko
 kausalitate osoa edo munduaren lehen sortzaile bat frogatzeko saialdiek arrazoimen hutsa antinomia batean nahasten dute
 munduaren kontzeptuari dagokionez, antitekika edo kontraesanen sistema batean nahasten dute, beraz⁵. Azkenik, Jainkoaren
 izatea frogatzeko saialdia itxurazko jakintza kaskala besterik ez dela gertatzen da⁶; arrazoimenaren printzipio espekulatiboetatik
 abiatzen den Teologia kritikari menperatzen zaio halabeharrez. Kasu hauetan guztietan (Psikologia metafisiko edo
 arrazionalen, Kosmologia metafisiko edo arrazionalen eta, azkenik, Teologia metafisiko edo arrazionalen) arrazoimen-
 inferentzien Logika edo Dialektika hau itxuraren Logika bat da. Helburutzat itxurazko jakintza hori argitara ekartzea eta
 gainditzea duen Kanten *Dialektika transzendentala* aldi berean ordu arteko Metafisika ororen gaitzespena da. Horrela,
Arrazoimen hutsaren kritikaren zati positiboak, hots, *Estetika transzendentalea* eta, bereziki, *Analitika transzendentalea*,
 «zientzia gisa agertu nahi duen etorkizuneko edozein Metafisikaren»⁷ aurrekariak edo propedeutika garatzeko egitasmoa
 jasotzen du; aitzitik, Kant deuseztailearen *Dialektika transzendentala* ordu arteko Metafisika ororen ezeztapena da, Metafisika
 hau itxurazko jakintza soila den heinean.

Arrazoimen hutsaren kritikaren gai, interesgune, tesi eta asmo nagusien gainbegirada hau honela laburtzen dut
 bukatzeko: *Arrazoimen hutsaren kritika* *Estetika transzendentalean* espazioa eta denbora beren baitan existitzen diren
 gauzak edo gauzen arteko harremanak ez direla, baizik gizakiok gauzak begiesteko ditugun formak edo moduak direla dio;
Analitika transzendentalean *Arrazoimen hutsaren kritika* pentsatzearen forma hutsak, adimenaren adigaiak eta oinarri-
 esakuneak daudela dioen irakaspena da, zeinek sentsuen arabera ematen zaigun anizkunkia determinatzen duten, honela guk
 hau objektu determinatu gisa⁸, legeen multzo gisa, izadi gisa eta agerpenak diren objektuen mundu gisa begiesteko eta
 aditzeko; horrekin batera, Analitikaren irakaspenak zera dio: gure pentsatzearen eta begiestearen forma hauek ez direla
 esperientziaren baldintzak soilik, esperientzia gizakien ezagutza-modu bat den aldetik, baizik esperientziaren objektuen
 ahalgarritasunaren baldintzak berak direla. Azkenik, *Arrazoimen hutsaren kritika* *Dialektika transzendentalean* arrazoimena
 epaitzen duen eta esperientziaren eta sentsuen bidez ematen zaigun anizkunkiaz goiti doazen adigaiak eta inferentziak itxurazko
 jakintza gisa azaltzen dituen epaitegia da, hau da, giza arimari dagozkion inferentzia okerren sistema gisa azaltzen dituen;
 bestalde, munduaren adigaiari dagokion antinomia gisa, non arrazoimena munduaren mugei, hasierari eta amaigabetasunari
 buruzko kontraesanetan gertatzen den; gainera, Jainkoaz diharduen itxurazko zientzia gisa, Jainkoaren existentzia frogatzeaz
 harrotzen den Teologia espekulatiboa den heinean, hori egiatan ezinezkoa izaki.

Arrazoimen hutsaren kritika hau, beraz, Kanten «esperientziaren teoria» da⁹, «esperientziaren Metafisika»¹⁰,
Metafisikaren arazoarekin eta arazoekin jardunaldia¹¹, eta beraz, Kantek *arrazoimenaren eta sentimenaren mugak*¹²
 determinatzeko egiten duen saialdia. Liburua 1781ean agertu zen lehenengo aldiz eta 1787an berriz hobetutako argitaraldi
 batean, bai egileak, baita publikoak ere lana zailagintzat eta ilunegintzat jo zutelako. Ordutik aurrera *Arrazoimen hutsaren kritika*
 200 urte luzeetan behin eta berriz argitaratua izan da eta munduko hainbat hizkuntzatarata itzulua izan da, orain lehenengo aldiz
 euskarara.

Zer da, bada, liburu zail, sakon eta ilun hau hain jatorri eta interes ezberdinak dituzten hainbat gizakirentzat hain
 erakargarria bihurtzen duena? Lehen erantzun bat hau izan liteke: liburu honekin Kantek Filosofia ez ezik, izadiaren eta
 munduaren ulermena, hots, gure mundu-ikuskerarekin hankaz gora jarri duela eta horrekin batera honi oinarritzapen irmoa eman
 diola. Nola ulertu behar da paradoxa hau?

II

Filosofiaren iraultza kopernikarra

Kantek berak bere Filosofia eta bereziki *Arrazoimen hutsaren kritika* iraultza-ekintza gisa ulertu zuen, eta horrela aurkeztu zien bere irakurle eta garaikideei¹³. Orduan, galdekizuna berriro ere agertzen zaigu: nolako iraultza da hau? Zer esan nahi du «iraultza» hitzak hemen oro har? Eta zer da hemen iraultzen dena batez ere? Zein dira iraultza honen emaitzak? Galdekizun hauei erantzun asko eman dakizkieke, adibidez, ondorengoak:

*Iraulia dena –eta honek hankaz gora jarria esan nahi du– Metafisika bera da. Iraultza honen emaitza positiboa Metafisikaren oinarritzapen berri baten saialdia da, hots, *idealismo transzendental* edo *kritiko* baten printzipioetan funtsatzen diren *Izadiaren Metafisikaren*¹⁴ eta *Ohituren Metafisikaren*¹⁵ oinarritzapen-saialdia. Honek galdekizun berri batera bidaltzen gaitu: zer dira printzipio *transzendentalak* eta zer da *idealismo transzendental*? Iraultza honen emaitza negatiboa ordu arteko metaphysica generalis edo Ontologia, h. d., izatearen irakaspena, *adimen hutsaren analitika* apalago batez ordezkatzeko ekintza da¹⁶. Ordu arte dena menperatzen zuten Metafisikaren hiru eremu nagusiek, Psikologia arrazionalak, Kosmologia arrazionalak eta Teologia arrazionalak, arrazoimen hutsaren inferentzia okerretan oinarrituak daudela dioen epaia jasotzen dute, eta gainera, ezinezkoak direla dioen epaia ere bai, bereziki Kantek *arrazoimenaren printzipio espekulatiboetatiko Teologia orori* egiten dion kritikarentzat balio duen epaia.

*Beste erantzun bat, hain abstraktua ez den erantzuna, hau litzateke: Kantek gure ezagutzaren eta izatearen adigaiak irauli ditu. Espazioa eta denbora, adibidez, Kanten aurretik, edo objektu absolutuak ziren, hots, espazio eta denbora absolutuak ziren, edo gauzen arteko harremanak ziren, egoera, urrunera eta antzekoen gisa. Kanten arabera ez dira ez bat ez bestea, baizik beste zerbait, erabat berria den zerbait, hots, formak dira, guk objektuak gugandik at espazioan eta gudan denboran begiesteko ditugun formak, eta objektuak berak espazioan determinatutako objektu gisa (adibidez, hiru dimentsiotako, bi dimentsiotako edo dimentsio bakarreko objektuak) eta beren aldaketak denboran determinatutako aldaketa gisa begiesteko formak. Hala ere, Kantek ez ditu espazioa eta denboraren adigaiak soilik irauli, baizik gauzen oinarritzko adigaiak berak ere bai, *objektu* edo *gauzaki* baten adigaia oro har, eta bereziki *izadiaren* adigaia, non guk begietsi, hauteman, ikertu eta ezagutu nahi eta ahal ditugun gauza guztiak bateratzen diren. Horrela, begiespenen kantitatea eta kualitatea, beren substantziatasuna edo iraunkortasuna, beren kausazko harremana, kausa eta efektua diren aldetik, eta, azkenik, beren arteko elkarreragina gauzen oinarritzko adigaiak dira¹⁷, ez gauzak beren baitan diren aldetik, hau da, beraiek begiesteko eta aditzeko gure eratik beregainki, baizik guretzat diren moduan soilik, hau da, agerpenak diren heinean, errepresentazioak diren heinean. Honek esan nahi du adigaiok direla guk zerbait gauza gisa pentsatzeko baliabidea, eta beraz, handitasun determinatu edo kantitate gisa, substantzia edo akzidente gisa, kausa edo efektu gisa, elkarreragin osoan dauden substantzia gisa pentsatzeko baliabidea direla, eta adigai hauei esker sentsuen bidez ematen zaigun anizkunkia objektu gisa determinatzen dugu eta horren bitartez zerbait oro har lehendabizikoz *gauza* gisa, *objektu* gisa sortzen dugu.

*Hala eta guztiz ere, Kantek adigaiak soilik ez ditu iraultzen; hauekin batera judizioak ere iraultzen ditu, gizaki guztiek adigaiok beraietan erabiltzen baitituzte: adigai hauek judizioetan elkarlotzea gure errepresentazioen multzoan ordena eta legezko batasuna sortzeko eta horrela errepresentazio subjektibo soilak direnetatik abiatuta esperientzia objektiboa eta edonorentzat baliogarriak diren esperientziaren judizioak sortzeko baliagarriak dira. Gure errepresentazioen anizkunkia elkarlotzen duten oinarritzko erregela hauek, beraz, gure kontzientziaren eta autokontzientziaren batasunean aldi berean legeak dira, gure adimenak izadiaren *lege orokor* eta *transzendental* gisa ezartzen dituenak¹⁸. David Humek izadiaren legeen apriorizko ezagutzaren deuseztapenari emandako erantzuna diren lege hauek izenburu hauekin aurkezten dira: *begiespenaren axiomak* eta *hautemapenaren aitzinapenak*, zeinek Matematikak Natur Zientzietarako duen balioa oinarritzen duten, Matematika begiespenen Matematika den aldetik; eta gainera, *esperientziaren* hiru *analogiak*, izadiko substantziaren kantitate osoaren gordeketa, kausalitatearen legea eta izadiko substantzia ororen arteko elkarreragina a priori frogatu behar duten analogiak.

Honela iraultzen ditu Kantek Filosofiaren oinarritzko adigaiak, eta gainera Matematika eta Natur Zientziaren adigaiak, baita oro har zientzia guztienak ere, printzipio metafisiko zaharren ordeztu printzipio eta adigai transzendental berriak ezartzen dituen heinean. Ezagutza iraultzen du, beraz, giza ezagutzaren osagaiak eta funtsezko emaitzak oro har, baina hauekin batera objektuen, gauzen, izadiaren izatea, ez hauek beren baitan diren moduan, baina bai guretzako objektuak diren aldetik, objektu enpirikoak, alegia, eta beraz, agerpenen mundu oso bat iraultzen du, eta adimenak berak eskuratzen ditu agerpen hauen oinarritzko adigaiak eta oinarritzko legeak, zeinen indarrez geuk sortzen, gauzatzen eta produzitzen ditugun objektu hauek, baita mundu hau ere, agerpenen mundua den heinean:

«Izadia deitzen diogun agerpenen ordena eta erregularitasuna geuk sortzen dugu...» (171 or.).

Hain ausarta, mutiria, kitzikatzaila, «gehiegizkoa» bada ere, baita «zentzugabea bada ere esatea: adimena bera dela izadiaren legeen iturburua, eta beraz, izadiaren batasun formalaren iturburua, hain zuzena eta gaiari, hots, esperientziari egokia da era berean halako baieztapena» (173 or.). Hau da Kanten *kopernikar biraketa* deitzen zaionaren funtsezko unea. Izan ere, Kant berak *Arrazoimen hutsaren kritikaren* bigarren argitaraldiko aitzinsolasean Metafisikaren bere iraultza eta Kopernikok sortutako astronomiaren iraultza alderatzen baititu:

«Ene iduriko, orain direna bat-batean buruturiko iraultza baten bitartez bihurtu ziren Matematika eta Natur Zientzia hain onurazkoa suertatu zaien pentsakeraren eraldaketaren funtsezko puntuaz gogoetatzeko adibide aski ohargarriak lirateke, baita haiek imitatzeko ere, saialdi gisa bederen, arrazoimenaren ezagutzak diren hauek Metafisikarekin duten analogiak baimentzen duen neurrian. Gaurdaino gure ezagutza orok objektuen arabera ibili behar zuela onartzen zen; halere, auresuposizio honi jarraiki, objektuoi buruzko gure ezagutza heda zezaketen adigaien bidez zerbait a priori erabakitzeke egin diren saialdi guztiek porrot egin dute. Horregatik, saia gaitezen behin ikusten ea ez ote dugun aurrerapauso handiagorik emango Metafisikaren arazoetan objektuek geure ezagutzaren arabera ibili behar dutela suposatuz –objektuen apriorizko ezagutza irrikagarri baten ahalgarritasunarekin hobeto bateratzen den suposizioa–, ezagutza hau guri objektuak eman aurretik hauetaz zerbait finkatzeko gai izan behar duena izaki. Hemen *Kopernikoren* lehen pentsamenduekin bezala gertatzen da: izarren armada osoa ikuslearen inguruan jiraka zebilela suposatuz zeruko higiduren azalpenean aurrera egin ezin zuenez gero, orduan saiatu zuen ea ez litzatekeen hobe izango ikuslea jirarazi eta, alderantziz, izarrak geldirik utziko balitu. Metafisikan ere antzeko zerbait egiten saia gaitezke...» (41-42 orr.).

Kanten kopernikar biraketa honek hainbat alde ditu. Izan ere, *hasteko* Kantek jakintzaren garapena sail guztietan –Logikatik hasi eta Matematikatik igaroz Fisikaraino eta Kimikaraino– «hastamuska soilik» ibiltzetik «zientziaren ibilera segurura» doan igarobide gisa ulertzen du, aurretik marraztutako egitasmoaren eta metodo segurtatuaren arabera igarobide gisa. *Bigarrenik*, igarobide hori ia kasu guztietan gizaki bakan baten burutazioari egozten dio, eta beraz, bere burua hartzen du Filosofian halako iraultza sortu duen pertsona bakantzat, Talesek Matematikan edo Kopernikok Astronomian egin zuten bezala. *Hirugarrenik*, kopernikar biraketa pentsakeraren iraultza gisa ulertzen du, honela gauzen mundua bere bereizgarritasunean geuk sortu bagenu bezala hautemateko eta aditzeko, eta horrekin batera, geu ere judizio askearen eta kritikoaren eta autodeterminazio askearen subjektu gisa ulertzeko.

III

Iraultza honen historiaurrea eta aurrebaldintzak

Nola lortu zuen Kantek kopernikar biraketa honen ideia, hots, mundua gure begieste hutsaren eta pentsatze hutsaren formen bidez sortutako agerpenen mundu gisa ulertzen duen ideia?

Immanuel Kant, 1724an jaioa, izadiaren filosofo gisa hasi zen lanean. Horrela, 1746ko bere lehen lanean orduan gaurkotasun handia zuen gatazkan sartu zen¹⁹, indar hil eta bizien arteko gatazkan hain zuzen; 30 urte bete zituenean *Izadiaren historia orokorra eta zeruaren teoria* idatzi zuen²⁰, hurrengo urtean eterrari buruzko lantxo²¹, eta hurrengoan oraindik materia dinamikoaren teoria bat, laburrean *Monadologia physica* izenburua duen teoria. Metafisikaz nahiko berandu jardun zuen lehenengo aldiz, 1755 urtean, eta gainera kritikoki ere hasi zen, nahiz ez ondoren *Arrazoimen hutsaren kritikan* egin zuen bezain zorrozki. Metafisikari buruzko lehen lan honen izenburuak erakusten du Kanten norabidea: ezagutza metafisikoen lehen printzipioen oinarritzapen berri bat da bere asmoa²². Hemen leibniziar-wolffiar eskolari atxiki zaio, bere heziketan ikasi zuen Filosofiari, beraz, baina jadanik zentzu kritiko zehatz batean atxiki zaio. Gorago jadanik aipatu den *Monadologia physicare* izenburu osoak erakusten du²³ zein den Kant gaztearen jarrera kritikoaren bereizgarritasuna: bere *monadologia physicarekin* Metafisika eta Geometria, hau da, leibniziar Filosofia eta newtondar Natur Zientzia batzen saiatzen da modu eredugarrian. Kantek bere bizitza osoan zehar atxiki zuen jarrera hau, baina jarrera berak Kanten garapenean zehar hainbat aldaketa jaso zituen, berak aipatzen duen moduan²⁴. Aldaketa hauen artean garrantzitsuena 1760ko hamarkadan gertatzen da, David Humeren eszeptizismo erradikalaren eraginpean dagoen unean eta Metafisikari bizkarra ematen dion unean. Horrela, 1766an egoera hau adierazten duen *Espiritu-ikusle baten ametsak, metafisikaren ametsen eskutik argituak* lana idazten du. 1769/1770 inguruan itzultzen da Kant indarberritua aurreko proiektura: zientzia, hau da, newtondar Natur Zientzia bereziki edo zientzia enpirikoa oro har, eta Metafisika bateratzera. Hala ere, jadanik 1765eko abenduaren 31n Lamberti «Metafisikaren

metodo propioa eta, ondorioz, Filosofia osoa» landu behar zuen idazkia iragarri bazion ere, eta ondoren 1772an *Sentimenaren eta arrazoimenaren mugak* izenburuarekin *arrazoimen hutsaren kritika* gisa aurkeztu zuen lana hiru hilabete barru bukatuko zuela uste izan bazuen ere, lana bera, *Arrazoimen hutsaren kritika*, hamaika urte beranduago soilik argitaratu zen Rigan azkenik 1781ean.

Garapen honen testuingurua ikusita berriro galdetzen bada ea nola lortu duen Kantek Kopernikoren ereduaren arabera «pentsakeraren iraultza» bat abiaraztea, zeina «arrazoimen espekulatibo hutsaren zeregina den, horrela ordu arteko Metafisikaren jardunbidea aldatzeko eta bera iraultzeko»²⁵, orduan Kanten kokalekua, Locke eta Humeren enpirismoa eta eszeptizismoa eta Leibnizek eta Wolffek sortutako pentsatzearen eta ezagutzaren oinarritzapen metafisikoaren artean dagoen kokalekua, bere pentsamenduaren honelako garapenaren emaitza da: hasiera batean Kantek Natur Zientzia eta Metafisika bateratzeko, hau da, Newton eta Leibniz bateratzeko egiten duen saialdiak porrot egiten du erabat. Hasieran, Hume burutzen duen Metafisikaren kausalitate-legearen oinarritzapenaren deuseztapena da egia Kantentzat. Hala ere, hasiera-hasieratik legeen bilkura bat den izadiari buruz filosofatu duen Kantek, zeinentzat Newtonen Mekanikak eredu nagusia izaten dirauen, ezin du utzi Natur Zientzia enpirismoaren edo eszeptizismo erradikalaren eskutan. Ezin da, ezinezkoa da eguneroko eguzkiaren agertzea sinesmen soilaren kontua izatea. «Gertatzen den orok zerbait auresuposatzen du, zeinari erregela baten arabera jarraiki zaion»²⁶; hau Humeren aurka frogatzea, hots, Hume kausalitate-legearen apriorizko frogaren bidez errefusatzea da Kanten helburu nagusia.

Areago, *Arrazoimen hutsaren kritika* «Humeren arazoaren egikaritzapena da bere zabalpen ahalbait handienez»²⁷. Kantek Hume ondorengoa erakutsiz errefusatu nahi du: kausalitatearen legeak –«Aldaketa guztiak kausa eta efektuaren elkarketaren legearen arabera gertatzen dira»²⁸– eta izadiaren beste oinarritzko legeak –«Begiespen guztiak handitasun hedatuak dira» (195 or.); «Agerpen guztietan errealkiak handitasun intentsiboa du, hau da, maila bat du» (198 or.); «Agerpenen aldaketa orotan substantziak irauten du eta bere kantitatea ez da gehitzen, ezta gutxitzen ere izadian» (208 or.); «Substantzia guztiak elkarrekin osoan aurkitzen dira, espazioan aldi berean hautemanak diren heinean» (227 or.)– esperientziaren ahalgarritasunaren eta esperientziaren objektuen ahalgarritasunaren baldintza gisa balio dute²⁹, hau da, orokorki balio dute. Honek esan nahi du esperientzia orotarako balio dutela, zientzia enpiriko orotarako salbuespenik gabe. Izan ere, guretzat objektu enpirikoa den edo noizbait izan daitekeen oro lege horien bitartez determinatua baitago. Esperientzia – baita Hume Metafisikaren aurka erabili zuen esperientzia ere– baldintza horien arabera soilik da ahalgarria, hau da, enpirikoak ez diren legeen arabera, eta beraz, esperientzia orotan oinarri determinatzaile gisa barnebilduak dauden legeen arabera.

IV

Kanten iraultzaren ondorioak

Lortu ahal du Kantek bere pentsakeraren iraultzaren bidez Humeren eszeptizismoa errefusatzea, hau da, banako agerpenak eta agerpenen osotasuna adimen hutsaren legeen bitartez determinatutako izadi Baten eta agerpenen mundu Baten gisa ulertzea? Hasiera-hasieratik zalantzan jarri zen bere asmoen lorpena, besteren artean Maimonen edo Schulzeren aldetik. Agian Jacobik adierazi du modu zehatzenean Kanten egitasmoa ulertzeko zailtasuna. Honen arabera bera behin eta berriro nahastu izan duena honako hau izan da: berbaitango gauzek edo objektu transzendentalak sentsuen gain inpresioa egiten dutela dioen auresuposizio *gabe* ezin dela Kanten sisteman sartu, baina era berean auresuposizio *horrekin* ezin dela bertan geratu³⁰. Arazo hauek zirela eta, Fichte eta Schelling azkar aldendu ziren Kantengandik, hasiera batean idealismo *transzendental* kritikoaren jarraitzaile gisa lan egin zuten arren. «Kantek emaitzak eskura eman dizkigu, oinarriak jartzea da oraindik egiteko geratzen dena», idazten dio Schellingek Hegeli 1795eko urtarrilaren 6an. Filosofia kritikoa edo transzendental oinarri sendoen edo egiazko premisen gainean oinarritzeko eta Kanten emaitzak hortik eratortzeko saialdian bi filosofo hauek, eta ondoren Hegelek, orain *alemaniar idealismoa* deitzen zaiona garatu zuten: nia edo oinarritzko subjektibitate, subjektu-objektutik, adigai absolututik eta ideia absolututik abiatzen diren sistema berriak, Kanti jarraituz baina era berean honen jatorrizko jarrera klasikoa errotik aldatuz objektuen munduaren, izadiaren eta askatasunaren dedukzioaren ikuspegi berriak garatu zituzten sistemak.

Kantek sortu zuen Filosofiaren iraultzak porrot egin du, beraz, Kantek ez baitu lortu bere helburua, hots, zientzia bat osatzen duen Metafisikaren oinarritzapen berria sortzea, alegia, betiko berdin iraun beharko lukeen Metafisikaren oinarritzapena.

Guztiarekin ere, Kantek pentsakeraren iraultza bat sortu du Filosofian: Kanten arabera Metafisika ezin da ordu arte bezala dogmatikoki kritikarik gabe aurkeztu, oro har oraindik ere ahalgarria bada eta aurkeztua izan bada. Galdu ez dena, bereziki, mundu-ikuskeraren kopernikar iraultzak osatzen duen funtsezko erdigunea da. Objektutasuna eta objektibitatea munduaren pentsatzearen eta begiestearen gure formek sortzen dutela Kanten ondorengo Filosofia gehienek auresuposizioa da, auresuposizio eztabaidagarria den arren, eta hainbat modutan eraldatua izan den arren. Kanten ondoren kopernikar iraultza honetara jo gabe filosofatzea XX. mende honen bukaeran ere apenas da egingarria edo ezinezkoa da erabat. Hau da *Arrazoimen hutsaren kritikaren* sekretua. Bere argiketan sakontzea irakurleari dagokion lana da, orain euskaraz ere bai.

Oharrak

1 Arrazoimen hutsaren kritika ohiko moduan aipatzen da 1781eko argitaraldiaren orrien zenbakiei aurretik A hizkia gehituz eta 1787ko bigarren argitaraldiaren orrialde-zenbaketari aurretik B hizkia erantsiz.

2 Ikusi bereziki 107 or.: «Logika transzendentalaren bigarren zatiak, beraz, itxura dialektiko horren kritika izan behar du eta Dialektika transzendental izena du, ez itxura hori dogmatikoki iradokitze antze gisa (...), baizik eta, adimenaren eta arrazoimenaren kritika den aldetik, bere erabilera hiperfisikoari begira honen handiuste oinarrigabeen itxura faltsua azalarazteko eta honela oinarri-esakune transzendental soilen bidez lortzen omen duen asmakuntzaren eta hedapenaren bere uzia juzgageta soilera eta adimen hutsak itxurapen sofistikoen aurka duen babesera behetitzeko».

3 Kantek hitzari ematen dion zentzuan. Ikusi 290 or. eta hurrengoak, 295 or. eta hurrengoak eta, bereziki, 298 or.; ikusi gainera, 1783ko Prolegomenoak, §§ 125-131 paragrafoak.

4 Kantek arrazoimen hutsaren paradoxismoak izendatzen dituenak, 306 or. eta hurrengoak.

5 Ikusi 367-368 orr.: «Antitetikak, beraz, ez du jarduten inolaz ere baieztapen aldebakarez, baizik arrazoimen-ezagutza orokorrak hartzen ditu aintzat, baina beraiek elkarrekin duten aurkakotasunari eta beren kausei dagokienez besterik ez. Antitetika transzendental arrazoimen hutsaren antinomiaren azterketa da, bere kausena eta bere emaitzarena».

6 «Beharrezko zerizan baten izatearen frogaz guztietako itxura dialektikoaren aurkikuntza eta argipena», 475 or..

7 Zientzia gisa agertu nahi duen etorkizuneko edozein Metafisikaren- tzat prolegomenoak, Immanuel Kant, 1783.

8 Pentsatzearen forma hutsaren funtzio honi buruz, hots, sentsumenean emandako begiespenaren anizkuntza objektuen begiespena lortzeko determinatzen duen formari buruz ikusi Arrazoimen hutsaren kritikaren lehen argitaraldiko adigai hutsen dedukzioa «Adigaiko berrezagutzaz», 158 or. eta hurrengoak, edo ikusi kategorien definizioa 130-131orr. eta dedukzioa 115-124 orr. ataletako testuinguru osoa.

9 Hermann Cohen, Kants Theorie der Erfahrung, 2. argitaraldia, Berlin, 1885.

10 H.J. Paton, Kant's Metaphysics of Experience, London/New York, 1936/1951.

11 Martin Heidegger, Kant und das Problem der Metaphysik, 3. argitaraldia, Frankfurt, 1965.

12 Horrela dio liburuaren jatorrizko izenburuak. Ikusi Kantek Marcus Herz-i 1772ko otsailaren 21ean idatzitako eskutitza, Errege Akademia- ren argitaraldian X 12928 eta hurrengoak, Arrazoimen hutsaren kritika, 40 or. eta P.F. Strawson, The Bounds of Sense, London, 1966.

13 Ikusi bereziki, Arrazoimen hutsaren kritika, B XI-XII: «... iraultza baten eraldaketari egotzi behar zaio ...».

14 Ikusi Natur Zientziaren hastapen metafisikoak, Immanuel Kant, 1786, eta Opus postumum deitzen zaien eskuizkribuak, hots, 1786 eta 1796 arteko hausnarketak eta 1796 eta 1804 artean idatzitako egitasmoen multzoa.

15 1797an agertu zen bere lehen zatia, Zuzenbidearen irakaspenaren hastapen metafisikoak, eta 1798an agertutako Bertutearen irakaspenaren hastapen metafisikoak.

16 253 or.

- 17 Ikusi bereziki Analitikaren 10. atala, A 76/ B 102 eta hurrengoak eta «Adimenaren adigai hutsen dedukzio» osoa; gainera, «Adimen hutsaren oinarri-esakuneen sistema», bereziki begiespenaren axiomak (195 or.), hautemapenaren aitzinapenak (198 or.) eta esperientziaren hiru analogiak (218 or. eta hurrengoak).
- 18 Gure adimenak izadiari ezartzen dizkion lege orokor eta transzendentalek arazoak ikusi ondoren aipatzen diren A 125eko eta 127ko testuak, eta gainera, Juzgamenaren kritikako zenbait testu, Errege Akademiaren argitaraldian V 179; 180; 196.
- 19 Pentsamenduak indar bizien egiazko estimazioak, eta Leibniz jaunak eta beste mekanikariek gatazka honetan erabili dituzten frogak juzgaketan, gorputzen indarrei buruzko atariko zenbait kontsiderazioekin batera oro har.
- 20 Izenburu osoak honela dio: Izadiaren historia orokorra eta zeruaren teoria edo mundu-erakin osoaren sorkuntzari eta jatorri mekanikoari buruzko saiakuntza newtondar printzipioen arabera.
- 21 1755eko De igne idazkia.
- 22 Principiorum primorum cognitionis metaphysicae nova dilucidatio, 1755.
- 23 Metaphysica cum geometria iunctae usus in philosophia naturali, cuius specimen I. continet monadologiam physicam.
- 24 Ikusi Johann Heinrich Lamberti 1765eko abenduaren 31n idatzitako eskutitza, Errege Akademiaren argitaraldian X 5531.
- 25 440 or.
- 26 626 or. Hau da kausalitate-legearen adierazpena A argitaraldian.
- 27 Prolegomena, Errege Akademiaren argitaraldian 403 or.
- 28 213 or. Hau da kausalitate-legearen adierazpena B argitaraldian.
- 29 Esperientziaren ezagutzaren ahalgarritasun-baldintzak eta esperientziaren ezagutzaren objektuen zatearen ahalgarritasun-baldintzen arteko identitateaz ikusi bereziki A 111 eta hurrengoak, eta 192 or. eta hurrengoak.
- 30 Friedrich Heinrich Jacobi, Werke, II 304.

Bibliografia

Jatorrizko testuaren irakurketarako gomendatzen den testua eta itzulpena egiteko ere erabili dena 1998an Jens Timmermannek *Meiner argitaletxearentzat* egin duen argitaraldi hobetua da.

Lexikoak:

Schmid, Carl Christian Erhard: *Wörterbuch zum leichten Gebrauch der Kantischen Schriften*, Jena, 1798 (Darmstadt, 1980).

Ratke, Heinrich: *Systematisches Handlexikon zu Kants «Kritik der reinen Vernunft»*, Leipzig, 1929 (Hamburg, 1972).

Iruzkinak:

Vaihinger, Hans: *Kommentar zur «Kritik der reinen Vernunft»*, Stuttgart, 1881/1892 (Aalen, 1970).

Cohen, Hermann: *Kommentar zu Immanuel Kants «Kritik der reinen Vernunft»*, Leipzig, 1907 (Hildesheim/New York, 1978).

Erdmann, Benno: *Die Idee von Kants «Kritik der reinen Vernunft»*, Berlin, 1917.

Smith, Norman Kemp: *A Commentary to Kant's «Critique of Pure Reason»*, London, 1918 (1979).

Vleeschauwer, Herman Jean de: La déduction transcendentale dans l'œuvre de Kant, Antwerpen/ Paris/Den Haag, 1934-37 (New York, 1976).

Paton, Herbert J.: Kant's Metaphysics of Experience. A commentary on the First Half of the «Kritik der reinen Vernunft», London, 1936 (1965).

Heidegger, Martin: Phänomenologische Interpretation von Kants «Kritik der reinen Vernunft», Frankfurt/M., 1977.

Ikerketa orokorrak eta ikerketarako materialak:

Allison, Henry E.: Kant's Transcendental Idealism. An Interpretation and Defense, New Haven /London, 1983.

Erdmann, Benno: Kant's Kritizismus in der ersten und zweiten Auflage der «Kritik der reinen Vernunft», Leipzig, 1878 (Hildesheim, 1973).

Cohen, Hermann: Kants Theorie der Erfahrung, Berlin, 1871 (1918).

Kopper, J./Malter, R. (arg.): Materialien zu Kants «Kritik der reinen Vernunft», Frankfurt/M., 1975 (1980).

Kopper, J./Marx, W. (arg.): 200 Jahre «Kritik der reinen Vernunft», Hildesheim, 1981.

Tuschling, B. (arg.): Probleme der «Kritik der reinen Vernunft», Berlin/New York, 1984.

Kopper, Joachim: Die Stellung der «Kritik der reinen Vernunft» in der neueren Philosophie, Darmstadt, 1984.

Malter, Rudolf: «Main Currents in the German Interpretation of the Critique of Pure Reason since the beginning of Neokantianism», Journal of the History of Ideas, 42 (1981), 531-551.

Uribarri, Ibon: Immanuel Kant. Bizitza eta Filosofia, Donostia, 1997.

Atal ezberdinen ikerketa bereziak:

Estetika:

Rohs, Peter: Transzendente Ästhetik, Meisenheim/Gl., 1973.

Smyth, Richard A.: Form of Intuition. An Historical Introduction to the Transcendental Aesthetic, The Hague/Boston, 1978.

Analitika

Reich, Klaus: Die Vollständigkeit der Kantischen Urteilstafel, Berlin, 1932 (Hamburg, 1986).

Baum, Manfred: Die transzendente Deduktion in Kants Kritiken, Köln, 1975.

Henrich, Dieter: Identität und Objektivität. Eine Untersuchung über Kants transzendente Deduktion, Heidelberg, 1976.

Hoppe, Hansgeorg: Synthesis bei Kant, Berlin/New York, 1983.

Brandt, Reinhard: Die Urteilstafel, Hamburg, 1990.

Vuillemin, Jules: Physique et Métaphysique Kantienne, Paris, 1955.

Prauss, Gerold: Erscheinung bei Kant. Ein Problem der «Kritik der reinen Vernunft», Berlin, 1971.

Prauss, Gerold: Kant und das Problem des Ding an sich, Bonn, 1974.

Nagel, Gordon: The Structure of Experience. Kant's System of Principles, Chicago/London, 1983.

Dialektika

Gäbe, Lüder: Die Paralogismen der reinen Vernunft, Marburg, 1954.

Bittner, Rüdiger: Über die Bedeutung der Dialektik Immanuel Kants, Heidelberg, 1970.

Sullivan, Roger J.: Kant's Moral Theory, Cambridge, 1989.

Heimsoeth, Heinz: Transzendente Dialektik. Ein Kommentar zu Kants Kritik der reinen Vernunft, Berlin, 1966-71.

Alquié, Ferdinand: La critique kantienne de la métaphysique. Un commentaire de la «Dialectique transcendentale», Paris, 1968.

Burkhard Tuschling

Immanuel Kant
Königsbergen irakaslea
Riga,
Johann Friedrich Hartknochek
argitaratua
1781¹
Baco de Verulamio

Instauratio magna. Praefatio

«De nobis ipsis silemus: De re autem, quae agitur, petimus: ut homines eam non Opinionem, sed Opus esse cogitent; ac pro certo habeant, non Sectae nos alicuius, aut Placiti, sed utilitatis et amplitudinis humanae fundamenta moliri. Deinde ut suis commodis aequi ... in commune consulant ... et ipsi in partem veniant. Praeterea ut bene sperent, neque Instaurationem nostram ut quiddam infinitum et ultra mortale fingant, et animo concipiant; quum revera sit infiniti erroris finis et terminus legitimus»².

Berorren gorentasunari, Zedlitz-eko baroia, erregeren estatu-ministroa

Jauna!

Zientzien hazkuntza norberari dagokion mailan sustatzea *Zure Gorentasunaren* alde lan egitea da; izan ere, zure interes hau zientzia haiei era estuenean lotua baitago, ez babesle gisa duzun zure kargu bikainaren bidez, baizik maitale eta ezagutzaile argitu batek haiekin duen harreman estuagoa dela eta. Horregatik, nire eskumendean dagoen baliabide bakarra darabilt nire esker onak bihurtzeko *Zure Gorentasunak* ni ohoratzeko izan duen konfiantzagatik, zeregin honetan lagundu ahal banezake bezala³.

Zure Gorentasunak lan honen lehen argitaraldiarekin izandako begiramendu ongile berari eskaintzen diot bigarrena ere, eta honekin batera, nire literatura ekimenen beste alderdi guztiak⁴, eta mirespen sakonenarekin

Königsbergen,
1787ko apirilaren 23an⁵

Zure gorentasunaren
zerbitzari mendekoena
Immanuel Kant

Egilearen hitzaurrea lehenengo argitaraldiari⁶

Giza arrazoimenak patu berezi hau du bere ezagutzen sail batean: baztertu ezin dituen galdekizunek zirikatzen dutela; izan ere, arrazoimenaren izaera berak ezarri dizkio galdekizunok, baina berak ezin ditu erantzun, giza arrazoimenaren ahalmen oro gainditzen baitute.

Arrazoimena ez da bere erruz gertatzen estualdi honetan. Bera esperientzian ezinbestean erabiltzen diren eta aldi berean honek askiro egiaztatzen dituen oinarri-esakuneetatik abiatzen da. Hauei esker gero eta gorago doa baldintza urrunagoetara (bere izaerak berekin dakarren legez). Baina honela bere zeregina betiko osagabe geratuko dela ohartuz, galdekizunak ez baitira inoiz amaitzen, esperientziazko erabilera enpiriko oro gainditzen dituzten oinarri-esakuneetara ihestera behartua gertatzen da, nahiz eta hauek itxuraz hain susmogabeak diren, ezen gizakien arrazoimen arrunt bera ere hauekin ados baitago. Horrela, ordea, iluntasunetan eta kontraesanetan nahasten da, eta hauetatik abiatuta oinarrian nonbait ezkutuko errakuntzek egon behar dutela ondoriozta dezake, hauek aurkitu ezin dituen arren, zeren erabiltzen dituen oinarri-esakuneek ez baitute esperientziaren ezein frogarrik berrezagutzen, esakuneok esperientzia ororen mugaz goiti baitoaz. Gatazka amaigabe hauen borroka-lekuak, bada, Metafisika izena du.

Aspaldi batean Metafisika zientzia guztien *erregina* deitzen zen, eta nahia egitatetzat hartuz gero, ederki mereziko luke ohorezko izen hori, bere gaiaren garrantzi bikaina dela eta. Egun boladan dagoen doinuak, ordea, hari erdeinu egitea dakar berekin, eta emagina kexu da, baztertua eta abandonatua, *Hekuba* bezala: «*modo maxima rerum, tot generis natisque potens nunc trahor exul, inops*»⁷ Ovid. Metam.

Hasieran Metafisikaren nagusigoa *despotikoa* zen *dogmatikoen* eskumendean. Nolanahi ere, lege-emateak bere baitan antzinako basakeriaren aztarnak zituenenez, pixkanaka *anarkia* oso batera endekatu zen barneko gerrak zirela eta, eta *eszeptikoek*, lurraren laborantza iraunkor oro gorrotatzen duten nomada antzekoek, hiritar batasuna zatikatzen zuten noizean behin. Hauek, ordea, zorionez gutxi izaki, ezin izan zuten galarazi dogmatiko haiek beti batasuna berriro osatzen saiatzea, hau elkarrekin adostutako planen arabera egiten ez zuten arren. Garai berriagoan bazirudien une batez giza adimenaren *Fisiologia* batek (*Locke* sonatuarenak) gatazka hauen guztien amaiera ekarri behar zuela eta uzi haien legezkotasuna erabat erabakiko zela; hala ere, ustezko erregina haren jaiotza esperientzia arrunta den jendailatik eratorria zen arren, eta horrenbestez, bere handiusteak bidezki susmagarria izan behar zuen arren, nolanahi ere, *genealogia* hori egitatean faltsuki egotzi zitzaionez, hark oraindik ere bere uziak baieztatzen jarraitu zuen, eta horren bitartez dena berriro ere *dogmatismo* zaharkitu eta harjotura itzuli zen eta zientzia hau ekidin nahi izan genion gutxiespenean hondoratu zen. Orain, bide guztiak (uste denez) alferrik saiatu eta gero, kaosaren eta gauaren amak diren nekea eta *axolagabekeria* osoa nagusitzen dira zientzien artean, baina aldi berean beren eraldaketa eta argiztapen hurbil baten jatorria ere bai, edo honen aurreaioa behinik behin, baldin eta gaizki aplikatutako ardura batek zientziok ilun, nahasi eta erabilgaitz bihurtu baditu.

Alferrikakoa da giza izaerari *axolagabe* izan ezin zaizkion gaien ikerkuntzen aurrean *axolagabekeriaren* itxurak egin nahi izatea. *Axolagabeak omen diren* haiek ere eskolaren hizkuntza doinu herrikoian eraldatzearen bidez mozorrotzeko asmoa duten arren, zerbait pentsatzearekin batera beti itzultzen dira berriro nahitaez baieztapen metafisikoetara, hauek hainbeste arbuiatzeaz harrotzen baziren ere. Hala eta guztiz ere, arreta eta gogoeta merezi duen fenomeno da zientzia ororen loraldiaren erdian agertzen den eta, hain zuzen, lortu ahal izango balira gutxien uko egingo genieken zientziekin zerikusia duen axolagabekeria hori. Ez da nabarmenki azalkearen emaitza, itxurazko jakintza batean geratu nahi ez duen garai baten *juzgamen*⁸ helduarena baizik, eta bere zereginen artean zailena arrazoimenari egiten zaion eskakizun bat da, hots, norberaren ezagutzari berriro ekiteko, eta gainera, zilegiak diren bere uziak segurtatuko dizkion auzitegia ezartzeko, oinarrigabeko handiusteei bukaera eman ahal izango dien auzitegia, alegia, eta hau ez botere-hitz baten bidez, baizik bere betiereko lege aldagaitzen bidez ezartzeko, eta auzitegi hau *arrazoimen hutsaren kritika* bera baino ez da.

Hala ere, honetaz ez dut ulertzen liburuen eta sistemen kritika bat, arrazoimenaren ahalmenaren kritika baizik oro har, honek *esperientzia orotatik beregainki* bila ditzakeen ezagutza guztiei dagokienez, eta beraz, oro har Metafisika baten ahalgarritasunari edo ahalezintasunari buruzko erabakia eta bere iturburuen nahiz hauen hedapenaren eta mugen determinazioa ere ulertzen dut kritikaz, hau dena, ordea, printzipioetatik abiatuta.

Geratzen zen bide bakar hau da nik urratu dudana eta bertan arrazoimena esperientziarik gabeko erabileran orain arte bere baitan zatikatu zuten oker guztien konponketa aurkitu izanaz ilarraintzen naiz. Bere galdekizunak ez ditut sahiestu giza arrazoimenaren ahalmen eza aitzakiatzat hartuz; aitzitik, haiek printzipioen arabera konplutuki espezifikatu ditut eta, arrazoimenak

bere buruarekin zuen gaizki-ulertzearen gunea aurkitu ondoren, bere gogobete osorako konpondu ditut. Galdekizun haiei ihardespena ez da, noski, dogmatiko gogoberoaren jakin-nahiak nahiko lukeen modukoa gertatu; izan ere, jakin-nahi hau ezingo litzateke aztikerien bitartez baino gogobete, eta nik ez dakit ezer honetaz. Nolanahi ere, ez zen hau gure arrazoimenaren izaeraren determinazioaren asmoa, eta Filosofiaren eginbeharra sasi-interpretaziotik sortutako itxurapena gainditzea zen, horrek hainbeste goraipatzen eta maitatzen diren lilurakeriak apurtuko baditu ere. Jarduera honetan barrena xehetasunari eskaini diot nire aditasun handiena eta zera esatera ausartzen naiz: hemen konpondu ez den edo bere konponketarako giltza bederen eman ez den arazo metafisiko bat bera ere ez dagoela. Egitatean, arrazoimen hutsa hain da batasun betegina, non, bere printzipioa arrazoimenari bere izaeraren arabera ezartzen zaizkion galdekizun guztien arteko bat bakarrari dagokionez askieza balitz, orduan hura baztertu egin beharko bailitzateke, zeren, hainbestez, printzipioak ez bailuke beste galdekizun guztiei konfiantza osoz erantzuteko mailarik.

Hau esatean irakurlearen aurpegian erdeinuarekin nahastutako sumindura hautematen dudala dirudit antzaz hain uzi hanpurutsu eta harroak direnei dagokienez, nahiz eta uzi hauek *arimaren* izaera bakuna edo *munduaren hasiera* baten beharrezkotasuna frogatzea nahi duten programa arruntenen edozein autoreren uziak baino neurrituagoak diren alde handiz. Izan ere, autore honek giza ezagutza esperientzia ahalgarriaren muga guztiez goiti hedatuko duela agintzen du, eta nik apalki aitortzen dut horrek nire ahalmena beteki gainditzeko duela; horren orde, arrazoimena bera eta bere pentsatze hutsa soilik dira nire autugaia, eta hauen ezagupen xehea ez dut nigandik urrun bilatu behar, nigan aurkitzen baititut, eta Logika arruntak ere jadanik honen adibidea ematen dit, alegia, bere ekintza bakun oro osoki eta sistematikoki zenba daitekeela; baina hemen galdekizuna hau da: ea behin esperientziaren ekai eta laguntza oro kenduz gero, arrazoimenaren bidez zenbat lortzeko itxaropena izatea sori zaidan.

Nahikoa esan dugu honekin, beraz, ezagutzaren izaera berak –ez ausazko asmo batek– gure azterketa kritikoaren *materiatzat* ematen digun helburu *bakoitzaren* lorpenaren *osotasunaz* eta *helburu hauen guztien* lorpenaren *xehetasunaz*.

Gainera, *ziurtasuna* eta *nabaritasuna* ditugu, azterketaren formari dagozkion bi puntuak, hain ekintza labaina egitera ausartzen den autoreari bidezki egin ahal zaizkion funtsezko eskakizuntzat hartu behar direnak.

Ziurtasunari dagokionez, neure buruari irizpide hau ezarri diot, alegia, honelako kontsiderazioetan ez dela zilegi *iritzirik* izatea, eta bertan hipotesi baten antzekoa dirudien oro merkantzia debekatua dela, salmentan ezin jar daitekeen merkantzia, merke bada ere, baizik aurkitu ahala bahitu egin behar dena. Izan ere, a priori finkatuta egon behar duen edozein ezagutzak iragartzen du behar-beharrezkotzat hartua izan dadila nahi duela eta apriorizko ezagutza huts ororen determinazioa, are gehiago, ziurtasun apodiktiko (filosofiko) ororen izari-araua, eta beraz, adibidea bera izan behar duela. Irakurleari dagokio osorik neure agindu hau lan honetan bete dudan juzgatzea, egileari dagokiona oinarriak aurkeztea besterik ez baita, ez bere epaileengan duen eraginaz juzgatzea. Baimen bekio egileari, ordea, oinarrien ahultzearen nahigabeko kausa ez izatearren, mesfidantza sor dezaketen pasarteak norberak oharraraztea, nahiz eta pasarte hauek bigarren mailako helburua soilik ukitu, horrela irakurlearen ez bai txikienak puntu honetan bere judizioaren gain helburu nagusiari dagokionez izan lezakeen eragina garaiz saihesteko.

Ez dut ezagutzen nik Analitika transzendentalaren bigarren atalburuan *adigai hutsen dedukzioaren* izenburupean egindakoa baino azterketa garrantzitsuagorik adimena deitzen diogun ahalmena oinarritzeko eta aldi berean bere erabileraren erregela eta mugak determinatzeko; neke handiena sortu didatenak ere izan dira, nahiz eta hau alferrikakoa ez izatea itxaroten dudan. Aski sakona den kontsiderazio honek, ordea, bi alde ditu. Bata, adimen hutsaren objektuei buruzkoa da eta adigaien baliotasun objektiboa a priori erakutsi eta ulergarria bihurtu behar du; horregatik da funtsezkoa nire helburuetarako. Bestea, adimen hutsa bera bere ahalgarritasunaren arabera eta oinarrian dituen indar-ezagutzaileen arabera kontsideratzetik, eta beraz, bera harreman subjektiboan kontsideratzetik abiatzen da, eta argiketa hau nire helburu nagusirako garrantzi handikoa den arren, dena dela, ez da bere funtsezko zatia; zeren galdekizun nagusia beti ere honek baitirau: ea adimenak eta arrazoimenak esperientzia orotatik aske zer eta zenbat ezagut dezaketen, eta ez *pentsatzeko ahalmena* bera nola ote den ahalgarri. Azken hau, nolabait esateko, efektu jakin baten kausaren bilaketa denez, eta horrenbestez, hipotesi baten antzeko zerbait duenez bere baitan (nahiz eta egitatean horrela ez duen jokatzeko, beste une batean azalduko dudan moduan), orduan hemen itxuraz gertatzen da ezen, *iritzi bat ematera* ausartzen naizela, eta beraz, irakurleari ere aske izan behar zaiola bestelako *iritzia izatea*. Irakurleari oharpen hau egin behar diot honi buruz, alegia, aurretik nire dedukzio subjektiboak beregan nik itxaroten nuen uste osoa sortu ez balu, nolanahi ere, hemen bereziki nire autugaia den dedukzio objektiboak bere indar osoa hartzen duela, eta edonola ere horretaz 92 eta 93 orrialdeetan⁹ esaten dena aski izan daiteke.

Azkenik, *nabaritasunari* dagokionez, irakurleak zera eskatzeko eskubidea du: lehenik, *nabaritasun diskurtsiboa* (logikoa) *adigaien bitartez*, gero, ordea, *nabaritasun intuitiboa* (estetikoa) ere bai *begiespenen bitartez*, h. d., adibideen edo bestelako azalpenen bidezkoa in concreto. Lehenengoaz askiro arduratu naiz. Nire egitasmoaren funtsari zegokion hori, baina, bestalde, hain zorrotza ez, baina bidezkoa baden bigarrenko eskakizunari ezin erantzun izatearen beharbadako kausa ere izan da. Nire lanaren aurrerabidean honi buruz nola jokatu erabaki ezinik ibili naiz ia etengabe. Adibideak eta azalpenak beti beharrezkoak iruditzen zitzaizkidan, eta benetan lehen egitasmoan zenbait pasartetara egokiro ere isurtzen ziren. Hala ere, nire eginkizunaren tamaina eta landu beharreko gaien kopurua berehala ikusi nuen eta idazketa lehor, *eskolastiko* soil honekin lana jadanik aski hedatuko zela ohartzen nuenez, asmo *herrikoian* soilik behar diren adibideekin eta azalpenekin puztutzea zuhurra ez zela neritzon, batik bat lan hau inolaz ere ezingo litzatekeelako erabilera herrikoirako aproposa bihurtu, eta zientziaren benetako ezagutzaileek arindura hau hain beharrezkoa ez dutelako, nahiz eta beti ere atsegina den; hemen, ordea, kaltegarria ere izan zitekeen. *Terrason* abadeak badio, bai, liburu baten tamaina orrien kopuruaren ordezkari hura ulertzeko behar izandako denboraren arabera neurtuz gero, orduan zenbait liburuz zera esan daitekeela: «*laburragoak izango liratekeela, hain laburrak ez balira*». Bestalde, ordea, kontua ulergarritasuna bada, hau da, luzea izan arren printzipio batean lotua dagoen ezagutza espekulatiboaren osokiaren ulergarritasuna bada, orduan arrazoiz on beraz esan daiteke: *zenbait liburu nabariagoak bihurtuko liratekeela, hain nabariak izan nahi ez balute*. Izan ere, nabaritasunaren baliabideek *zati-tati* laguntzen dute, baina gehienetan *osokian* arreta galtzea dakarte, irakurleari osokiaren gainbegiradara behar bezain azkar iristen uzten ez dioten heinean, eta bere kolore nabarrekin sistemaren artikulazioa edo atal-egitura ezkutatzen eta ezagugaitza bihurtzen duten heinean, bera izan arren garrantzitsuena sistemaren batasunaz eta irmotasunaz juzgatu ahal izateko.

Irakurlearentzat erakargarri handia izan daitekeela uste dut bere ahaleginak egilearenekin bateratzea, baldin eta aurkeztutako egitasmoaren araberrakoa lan handi eta garrantzitsu bat konplutuki eta iraunkorki osatzeko asmoa badu. Hala ere, zientzia guztien artean Metafisikari besterik ez zaio sori halako osaketa agintzea hemen honetaz emango ditugun adigaien arabera, eta gainera, denbora laburrean eta neke gutxi baina bateratuaren bidez, eta horrenbestez, ondorengoei dena beren asmoen arabera era *didaktikoan* antolatzea baino ez zaie geratuko, baina horregatik edukia deus ere ez da ugaltzen. Izan ere, ez baita *arrazoimen hutsaren* eskutik datorkigun gure jabego ororen *inbentarioa* baino, sistematikoki ordenatutako inbentarioa. Hemen ezerk ezin digu itzuri, zeren arrazoimenak osoro bere baitatik sortzen duena ezin baitzaio berari ezkutatu, aitzitik, arrazoimen berak dakar argitara bere printzipio komuna aurkitu ahala. Ezaguera honetako batasun beteginak baldintzatugabeko osotasun hori egingarria ez ezik, beharrezkoa ere bihurtzen du, eta gainera, adigai huts soiletatik abiatuta egiten du hau, esperientziako ezerk bertan eraginik izan ezin duela, ezta esperientzia determinatu batera gidatuko lukeen begiespen *bereziak* ere, honela osotasun hori hedatu eta ugaltzearen. «*Tecum habita et noris, quam sit tibi curta supellex*»¹⁰. Persius.

Halako arrazoimen (espekulatibo) hutsaren sistema neuk ematea itxaroten dut Izadiaren *Metafisika* izenburupean, luzeran erdia ere izan gabe aurretik bere ahalgarritasunaren iturburu eta baldintzak erakutsi beharko dituen eta erabat landugabeko lurra garbitu eta zelaitu beharko duen *Kritika* honen edukia baino askoz aberatsagoa izan beharko lukeen sistema. Hemen, nire irakurlearengandik *epaile* baten egonarria eta alderdikeria eza itxaroten dut; han, berriz, *laguntzaile* baten onginahia eta laguntza; izan ere, sistemaren *printzipioak* *Kritikan* beteki aurkeztu badira ere, sistemaren xehetasunari gainera adigai *eratorririk* ez faltatzea ere badagokio, a priori gutxi gorabehera taxutu ezin direnak, baizik pixkanaka bilatu behar direnak, eta, halaber, *Kritikan* adigaien *sintesi* osoaosatzen denez, orduan hori sisteman *analisiaren aldetik* ere gertatzea eskatzen da, hau guztia erraza eta lana baino gehiago denbora-pasa izaki.

Inprimaketaz ohar batzuk egitea besterik ez zait geratzen. Bere hasiera pixka bat atzeratu zenez, liburuaren erdia baino ez nuen jaso berrikusteko, eta bertan zentzua nahasten ez duten hutsegiteak soilik topatu ditut, hau izan ezik, 379 orrian behetik hasita 4. lerroan «*espezifikoa*» irakurri behar dela «*eszeptikoa*»-ren ordezkari¹¹. Arrazoimen hutsaren antinomia, 425 orritik 461 orriraino¹², taula baten gisara egokitu da, *tesiari* dagokiona ezkerrean, *antitesiari* dagokiona eskuinean doalarik beti, eta hau esakunea eta aurkako esakunea errazatu ahal izateko antolatutako nuen honela.

Egilearen hitzaurrea

bigarren argitaraldiari

Berehala jakin daiteke emaitzaren arabera ea arrazoimenaren zereginari dagozkion ezagutzen landualdia zientzia baten ibilera seguruari jarraiki zaion ala ez. Zuzemen eta prestaketa anizkunak egin ondoren helburura iritsi ahala aurrera egin ezinik gertatzen baldin bada, edota helburua betetzeko maiz itzuli egin behar baldin badu, beste bide bat urratzeko; halaber, ezinezkoa gertatzen bada lankideak ados jartzea asmo komunera iristeko moduz, orduan beti ere uste oso hau atxiki daiteke: halako estudio batek oraindik inolaz ere ez duela zientzia baten ibilera segurua urratu, baizik eta itsumustuka ibiltze bat besterik ez dela, eta arrazoimenaren merezimendua da bide hori ahalbait aurkitzea, lehenago ongi gogoetatu gabe onartu eta helburuan barnebildu ziren zenbait gauza alferrikakotzat joz baztertu behar dituen arren.

Logika antzina-antzinatik abiatu zela aipatutako ibilera segurutik zeran ikusten da: *Aristotelesengandik* hasi eta gaur egun arte atzeranzko urrats bat bera ere egiteko beharrik ez duela izan, zientziaren segurtasunari baino gehiago dotoretasunari dagozkion eta ezinbestekoak ez diren sotiltasun batzuen baztertzea edota azaldutakoaren determinazio nabariagoa hobekuntzat hartu nahi ez badira behintzat. Ohargarria da berebat Logikak orain arte ez duela aurreranzko urrats bat bera ere egin ahal izan, eta beraz, itxura guztien arabera erabat bukatua eta osatua dagoela. Izan ere, egungo autore batzuek hura hedatzea pentsatzen bazuten, alde, indar ezagutzaile ezberdinei buruzko atal *psikologikoak* (irudimenaz, zolitasunaz), alde, ezagutzaren jatorriari edota objektuen ezberdintasunaren araberako zenbait ziurtasun-motari buruzko atal *metafisikoak* (idealismoaz, eszeptizismoaz, eta abar), eta alde, aurreiritziei buruzko atal *antropologikoak* eratxikiz (hauen kausaz eta konponbidez), orduan hori zientzia honen izaera berezia ez ezagutzean errotzen da. Zientziak ugaltu ez ezik, itxuragabetu ere egiten dira beren arteko mugak nahasi nahi direnean; Logikaren muga, ordea, oso zehazki determinatzen da, pentsatze ororen erregela formalak xeheki aurkeztu eta hertsiki frogatu baino egiten ez duen zientzia baita (pentsatzea apriorizkoa nahiz enpirikoa dela ere, edozein jatorri edo objektu duela ere, edota gure gogamenean beharbadako oztopoak edo berezko oztopoak aurkitzen dituela ere).

Logikak bere zedarriztapenari besterik ez dio zor lortu duen abantaila hori, eta horregatik zaio zilegi, eta eginbeharra ere badu, ezagutzaren objektu denez eta beren arteko bereizketaz abstraitzea, eta adimena, beraz, Logikan bere buruaz eta formaz baino ez da arduratzen. Askoz ere zailagoa gertatu behar zaio arrazoimenari, berezkoa denez, zientziaren bide segurutik abiatzea bere buruarekin soilik ez ezik, objektuekin ere jardun behar duenean; horregatik, Logikak propedeutika gisa zientziaren ataria besterik ez du osatzen, nolabait esateko, eta solasgaia ezagupenak direnean, Logika bat auresuposatzen da hauek juzgatzeko, noski, baina ezagupenon bereganatzea zientzia izena propioki eta objektiboki duten jakintzetan bilatu behar da.

Zientziotan arrazoimenak egon behar duen heinean, beraietan zerbait a priori ezagutu behar da, eta beren ezagutza hori bi eratan lotzen zaio bere objektuari: edo objektua eta beronen adigaia *determinatzeko* besterik ez (beste nonbaiten emana izan behar zaigun adigaia), edota bera *erreal*a *bihurtzeko*. Lehena, arrazoimenaren *ezagutza teoretikoa* da, bigarrena, *ezagutza praktikoa*. Bi ezagutzetan zati *hutsa* dena, hots, arrazoimenak bere objektua erabat a priori determinatzen duen zatia, bere aldetik azaltu behar da lehendabizi, zati honetatik gutxi nahiz asko barnebildu, eta ondoren soilik beste iturburuetatik datorren zatia, biak ez nahastearren; izan ere, tratu ustela gertatzen da, sartzen dena itsu-itsuan gastatzen bada, zeren geroago estualdian gertatzean ezin baita bereizi diru-sarreraren zein kopuruk jasan dezakeen gastua eta hau zenbatean murriztu behar den.

Matematika eta *Fisika* beren *objektuak* a priori determinatu behar dituzten arrazoimenaren bi ezagutza teoretikoak dira, eta lehenengoak era huts-hutsean egiten du hori, bigarrenak, berriz, alde behintzat era hutsean, eta beraz, arrazoimenaz gain beste ezagutza-iturburu arabera ere bai.

Matematikak giza arrazoimenaren historiaren lehenengo garaitik hasita urratu zuen greziar herri miresgarriaren baitan zientzia baten bide segurua. Nolanahi ere, ez da pentsatu behar arrazoimena bere buruaz baino arduratzen ez den Logikari bezain erraza egin zitzaionik errege-bide hori aurkitzea edo, hobeto esanda, norberak urratzea; zera sinesten dut nik, aitzitik: itsumustuka aritu dela luze (bereziki egiptiarren artean oraindik), eta eraldaketa hura *iraultza* bati egotzi behar diogula, gizon bakar baten zorioneko burutazioak saialdi batean gauzatu zuen iraultza, eta ordutik aurrera hartu behar zen ildoaz ezin zen huts egin eta zientziaren ibilera segurua betiko eta urrunera amaigabeetaraino ere urratu eta erakutsi zen. Gaur egun, ez pentsakeraren iraultza horren historia, Esperantza Oneko lurmutur ospetsuaren aurkikunde baido garrantzitsuagoa izan zena, ezta hori bideratu zuen zorionekoaren historia ere ez zaizkigu ezagunak. Guztiarekin ere, *laertziar Diogenesek* helarazi digun kondairak, alegia, demostrazio geometrikoen osagai txikiak eta iritzi arruntarentzat frogarik behar ez dutenen ustezko aurkitzailea aipatzen duen kondairak erakusten du matematikariek bide berriaren aurkikuntzaren lehen aztarnek eragindako aldaketaren oroitzapenari hain aparteko garrantzia eman ziotela, non ahaztezina bihurtu baitzen. Argi bat piztu zitzaion *hiruki aldeakidea* demonstratu zuen lehenengoari (*Tales* nahiz bestela izena duela ere); izan ere, aurkitu baitzuen ezen, ez zitziola figuran ikusten zuenari edo honen adigai hutsari jarraiki behar, bertatik, nolabait esateko, haren berekitasunak ikasteko, baizik eta hauek sortarazi egin behar zituela berak adigaien arabera a priori pentsatutakoaren eta aurkeztutakoaren bidez (eraiketaz), eta ez ziola ezer egotzi behar gauzari, zerbait a priori seguru jakitearren, berak adigaiaren arabera gauzan ezarritakotik halabeharrez ondorioztatzen zena izan ezik.

Natur Zientziak, aldiz, askoz luzeago behar izan zuen zientziaren bide zabala aurkitu arte; izan ere, mende bat eta erdi besterik ez dira igaro Verulamgo *Baco* burutsuak egin zuen proposamen hark aurkikuntza hori, alde, bultzatu, eta alde, lehendik bere atzetik zebiltzanez gero, batik bat suspertu zuenetik, eta aurkikuntza hau ere lehenago jazo zen pentsakeraren iraultza azkar baten eskutik soilik argi daiteke. Hemen, Natur Zientzia printzipio *empirikoetan* oinarritzen den heinean besterik ez dut hartu nahi aintzat.

Galileok berak aukeratutako pisua zuten bolak plano makurretik eraitsi zituenean, edota *Torricellik* ur kopuru batek zuen pisua, alde aurretik ezaguna zitzaion pisua, aireari eutsarazi zionean, edo baita geroago ere *Stahlek* metalak kare bihurtu zituenean eta hau berriro metalean, honi zerbait kenduz eta atzera emanez¹³; orduan argi bat piztu zitzaion natur zientzialari guztiei. Arrazoimenak bere egitasmoaren arabera sortzen duena baino besterik ez duela aditzen ulertu zuten, arrazoimenak lege iraunkorren arabera bere judizioaren printzipioen bidez aurrea hartu behar duela izadia bere galdekizunei erantzutera behartuz, baina izadiari gidaritza bereganatzen utzi gabe, nolabait esateko; izan ere, bestela, aurretik ezin egitasmorik gabe burutzen diren beharbadako behaketa horiek ezin baitira beharrezko lege batean bildu, azken hau izaki arrazoimenak beti ere bilatzen duena eta behar duena. Arrazoimena honela hurbildu behar zaio izadiari: esku batean printzipioak dituela, zeinen arabera soilik har daitezkeen legetzat elkarrekin ados dauden agerpenak, eta beste eskuan printzipio haien arabera asmatutako esperientua duela, horrela izadiak irakats diezaion, noski, baina ez irakasleak dioten guztia entzuteko prest dagoen ikaslearen gisara, baizik lekukoak egiten zaizkien galdekizunak ihardestera behartzen dituen izendatutako epailearen gisara. Honela, bada, Fisikak ere bere pentsakeraren onerako iraultza hura burutazio honi soilik zor dio: arrazoimenak berak izadiari ezarritakoari jarraiki bilatu behar duela (ez asmatu) izadiak ikasi behar duena, zeinaz arrazoimenak bere kabuz ezer ezin ezagut lezakeen. Honi esker ezarri da Natur Zientzia lehen-lehenik zientziaren ibilera seguruan, hainbeste mendetan itsumustuka soilik ibili ondoren.

Erabat bakartutako arrazoimen-ezagutza espekulatiboa den eta adigai hutsei esker (ez Matematika bezala adigaiak begiespenari aplikatuz) esperientziaren irakatsi ororen gainetik goratzen den *Metafisikak*, non arrazoimenak, beraz, bere buruaren ikaslea izan behar duen, ez du orain arte zientzia baten ibilera segurua urratu ahal izateko patu aproposik izan, beste zientzia guztiak baino zaharragoa izan arren, eta berak iraungo lukeen arren, beste guztiak osotara dena suntsituko lukeen basakeriaren leizera amilduko balira ere. Izan ere, bertan arrazoimena behin eta berriz gertatzen da aurrera egin ezinean, baita esperientziarik arruntenak baieztatzen dituen legeak (uste duen moduan) a priori aditu nahi dituztenean ere. Bertan, hamaika aldiz aurkitzen gara itzulera-bidea hartzeko beharrean, bideak nahi dugun lekura ez daramala dakusagulako, eta bere jarraitzaileen baieztapenei buruzko adostasunari dagokionez, hain urrun dugu oraindik Metafisika adostasun horretatik, ezen, aitzitik, borroka-leku baten itxura hartu baitu, zeinak itxuraz benetan norbere indarrekin jolas-borrokari ariketak egiteko eginkizuna betetzen duen, nahiz eta bertan orain arte borrokalari bat bera ere ez den gai izan lurralde txikiak ere konkistatzeko, ezta bere

garaipenaren gainean jabego iraunkorrik eraikitzeko ere. Beraz, Metafisikaren jardunbidea gaurdaino itsumustuka aritze hutsa baino ez da izan ezbairik gabe eta, okerreana dena, adigai soilen artean itsumustuka aritzea.

Zer dela eta ez da Metafisika, orainokoa, zientziaren bide segurua aurkitzeko gai izan? Ezinezkoa ote al da? Zergatik zigortu du izadiak, beraz, gure arrazoimena bide hura bilatzeko grina antsiatu batekin, bere kontu garrantzitsuenetako bat bailitzan? Are gehiago, zein arrazoi gutxi dugun guk, geure arrazoimenean konfiantzarik izateko, gure jakin-nahiaren puntu garrantzitsuenetako batean bertan behera utzi ez ezik, gainera itxuretan gerarazten eta, azkenik, iruzurtzen gaituenean! Edo orain arte bideari dagokionez soilik huts egin baldin badugu, zein iragarpen erabil dezakegu, berriro ere bilatzeari ekinez gero, geure aurrekoak baino arrakastatsuagoak izango garela itxaroteko?

Ene iduriko, orain direna bat-batean buruturiko iraultza baten bitartez bihurtu ziren Matematika eta Natur Zientzia hain onurazkoa suertatu zaien pentsakeraren eraldaketaren funtsezko puntuaz gogoetatzeko adibide aski ohargarriak lirateke, baita haiek imitatzeko ere, saialdi gisa bederen, arrazoimenaren ezagutzak diren hauek Metafisikarekin duten analogiak baimentzen duen neurrian. Gaurdaino gure ezagutza orok objektuen arabera ibili behar zuela onartzen zen; halere, auresuposizio honi jarraiki, objektuoi buruzko gure ezagutza heda zezaketen adigaien bidez zerbait a priori erabakitzeke egin diren saialdi guztiek porrot egin dute. Horregatik, saia gaitezen behin ikusten ea ez ote dugun aurrerapauso handiagorik egingo Metafisikaren arazoetan objektuek geure ezagutzaren arabera ibili behar dutela suposatuz –objektuen apriorizko ezagutza irrikagarri baten ahalgarritasunarekin hobeto bateratzen den suposizioa–, ezagutza hau guri objektuak eman aurretik hauetaz zerbait finkatzeko gai izan behar duena izaki. Hemen *Kopernikoren* lehen pentsamenduekin bezala gertatzen da: izarren armada osoa ikuslearen inguruan jiraka zebilela suposatuz zeruko higiduren azalpenean aurrera egin ezin zuenez gero, orduan saiatu zuen ea ez litzatekeen hobe izango ikuslea jirarazi eta, alderantziz, izarrak geldirik utziko balitu. Metafisikan ere antzeko zerbait egiten saia gaitezke objektuen *begiespenari* dagokionez. Begiespena objektuen antolaerari egokitu beharko balitzaio, orduan ez dut ikusten nola jakin litekeen zerbait antolaera horretaz; objektua (sentsuen objektua den aldetik) gure begiespen-ahalmenaren antolaerari egokitzen bazaio, berriz, orduan ederki errepresenta dezaket nik horren ahalgarritasuna. Halere, begiespen hauek ezagutza bihurtu behar badute, beraietan ezin gera naitekeenez gero, baizik eta haiek errepresentazioak diren heinean beren objektua den zerbaiti lotu behar dizkiodanez eta hauek begiespenen bitartez determinatu behar ditudanez gero, orduan onar dezaket: edo determinazio hori gauzatzeko erabiltzen ditudan *adigaiok* ere objektuaren arabera ibiltzen direla, eta honela estualdi berarekin egiten dut topo, hots, ea nola jakin daitekeen hauetaz zerbait a priori; edo bestela objektuok adigaion arabera ibiltzen direla onartzen dut, edo gauza bera denez, *esperientzia*, objektuak bertan besterik ezagutu ezin diren heinean (emanak diren objektuak diren aldetik), adigaion arabera ibiltzen dela, eta kasu honetan berehala aurkitzen dut argibide bat, zeren esperientzia bera adimena eskatzen duen ezaguera bat baita eta niri objektuak eman aurretik adimenaren erregela suposatu behar baitut neure baitan, eta beraz, a priori. Aipatutako erregela a priori adierazten da adigaietan, eta esperientziaren objektu guztiak, beraz, halabeharrez ibili behar dira adigaien arabera eta hauekin bat ere egin behar dute. Bestalde, esperientzian ezin eman daitezkeen eta halabeharrez arrazoimenaren bidez baino ezin pentsa daitezkeen objektuei dagokienez (arrazoimenak pentsatzen dituen moduan behintzat), esan dezagun hauek pentsatzeko saialdiek (izan ere, pentsagarriak izan behar baitute) guk pentsamoldearen metodo eraldatutzat onartzen dugunaren frogarri bikaina eskuratzen dutela, hots, gauzez guk beraietan ezarritakoa baino ez dugula ezagutzen a priori¹⁴.

Saialdi honek desiratzen genuen emaitza du eta zientziaren ibilera segurua agintzen dio Metafisikari bere lehenengo zatian, honek bertan apriorizko adigaiez jarduten baitu; hauei dagozkien objektuak esperientzian beraiei egokiturik emanak izan daitezke. Izan ere, ederki azal daiteke apriorizko ezagutzaren ahalgarritasuna pentsakeraren aldaketa honen arabera eta, are gehiago, esperientziaren objektuen multzoa den izadiaren oinarrian dautzan apriorizko legeak froga gogobetegarriez horni daitezke, bi gauzok orain arteko jardunbide-erarekin ezinezkoak izaki. Hala ere, a priori ezagutzeko gure ahalmenaren dedukzio honetatik emaitza arrotz bat ondorioztatzen da Metafisikaren lehenengo zatian, itxura guztien arabera bere bigarren zatia ukitzen duen Metafisikaren helburu orokorrerako kaltegarria den emaitza, hots, gure ezagumenaren indarrez ez garela inoiz esperientzia ahalgarriaz goiti iristeko gai izango, azken hau izan arren, hain zuzen, zientzia honen kontu funtsezkoena. Hemen datza, ordea, gure apriorizko arrazoimen-ezagutzaren lehen balioztapen hark zuen emaitzaren egiaren aurkako etsaminaren esperientzia, hots, gure ezagutza agerpenei buruzkoa baino ez dela, berbaitango gauzak, oster, bere baitan erreala izan arren, guretzat ezezagun dirauela. Izan ere, halabeharrez esperientziaren eta agerpen guztien mugaz goiti joatera bultzatzen gaituena *baldintzatugabekia* da, arrazoimenak berbaitango gauzetan dagoen baldintzatuki ororentzat halabeharrez eta eskubide osoz eskatzen duena, honen bidez baldintzen ilara osatua ere eskatuz. Gure esperientzia-ezagutza objektuen arabera ibiltzen dela

onartzean, hauek berbaitango gauzak diren heinean, baldintzatugabekia *kontraesanik gabe ezin pentsa* daitekeela gertatzen baldin bada; alderantziz, gauzen gure errepresentazioa gauzak emanak zaizkigun moduan hauen arabera ez dabilela onartzean, gauzok berbaitango gauzak diren heinean, baizik eta objektuok, aitzitik, agerpenak diren aldetik gure errepresentazio-eraren arabera dabiltzala onartzean *kontraesana desagertzen dela* gertatzen baldin bada, eta ondorioz, gertatzen baldin bada, badintzatugabekia ez dugula gauzetan guk ezagutzen ditugun heinean aurkitu behar (guri emanak zaizkigun heinean), baina bai berbaitango gauza gisa ezagutzen ez ditugun heinean, orduan hasieran saialdia baino ez zena, oinarritua dagoela nabarmentzen da¹⁵. Halere, arrazoimen espekulatiboari sentsuez goitikoaren arloan aurrerapena ukatu zaion ondoren, oraindik saia dezakegu ea ez ote dugun haren ezagutza praktikoan daturik aurkitzen baldintzatugabekiaren arrazoimen-adigai transzendente hura determinatzeko, eta honela, Metafisikaren desirari jarraiki, esperientzia ahalgarri guztiaren mugaz goiti iristeko gure apriorizko ezagutzaren bidez, zentzu praktikoan soilik gerta badaiteke ere. Eta honelako jardunbide bati esker arrazoimen espekulatiboak leku egiten du bederen halako hedapen batentzat, nahiz eta lekua berehala utzi egin behar duen, eta guri bera arrazoimenaren datu praktikoez betetzeko aukera geratzen zaigu ahal dugun heinean, eta arrazoimenak berak horretaratzen gaitu¹⁶.

Arrazoimen huts eta espekulatiboaren kritika honen zeregina Metafisikaren orainoko jardunbidea eraldatzeko saialdi honetan datza, geometrialarien eta izadiaren ikertzaileen arabera Metafisika- ren iraultza osoari ekinez. Metodoaren tratatu bat dugu hau, ez zientzia beraren sistema, baina zientziaren ingerada taxutzen du bere mugari eta barneko atal-egitura osoari begira. Izan ere, bereizgarri hau dauka arrazoimen espekulatiboak bere baitan: bere ahalmena taxutu ahal eta behar duela pentsamenaren objektuak aukeratzeko duen moduaren ezberdintasunaren arabera, eta bere buruari zereginak ezartzeko moduen zerrenda osoa eman eta, honela, Metafisikaren sistemaren ingerada taxutu ahal eta behar duela; zeren, lehenengoari dagokionez, apriorizko ezagutza objektuei ezin baitzaie subjektu pentsatzaileak bere burutik hartzen duena baino esleitu, eta bigarrenari dagokionez, arrazoimenak ezagutzaren printzipioen berezko batasun erabat bakartua osatzen baitu, non osakide bakoitza –gorputz organizatu batean gertatzen den legez– beste guztiengatik dagoen bertan, baita beste guztiak harengatik ere, eta ez dago harreman *bakar* batean segurtasunez onar daitekeen printzipiorik, aldi berean honek arrazoimenaren erabilera huts osoarekin duen harreman *betea* aztertzen ez bada. Halere, ezohiko zori ona du Metafisikak, objektuez arduratzen diren beste arrazoimen-zientziek ez duten zori ona (izan ere, *Logikak* oro har pentsatze hutsaren formaz baino ez du jarduten), alegia, kritika honen bidez zientziaren ibilera segurura helduz gero, orduan gai izango dela berari dagokion ezagutzen arlo osoa besarkatzeko, eta beraz, bere lana buru dezakeela eta ondorengoei eskain diezaiekeela, hauek ezer gehitu ezin zaion ondore gisa erabil dezaten, zeren bere autugaia printzipioak eta hauen erabilaren zedarritzapena besterik ez baita, printzipio horiek determinatzen dituzten zedarritzapenak hain zuzen. Horregatik, oinarritzko zientzia denez, osotasun hau bilatzera behartua dago, eta beraz, hau esan ahal izan behar da: «*nil actum reputans, si quid superesset agendum*»¹⁷.

Hala ere, zein altxor mota da, galdetuko da, Metafisika hori, halako kritika baten bidez hain garbitua, baina aldi berean egoera aldaezin batera ekarria, ondorengoei uztea pentsatzen duguna? Lan honi gainbegirada azkar bat emanez gero, bere onura *negatiboa* besterik ez dela sinestuko da agian, hots, inoiz esperientziaren mugaz goiti joaten ez ausartzea arrazoimen espekulatiboaren eskutik, eta egitatean hori da bere lehen onura. Baina hau laster bilakatzen zaigu *positiboa*, baldin eta kontuan hartzen badugu, arrazoimen espekulatiboak bere mugaz goiti ausartzeko dituen oinarri-esakuneen ezinbesteko emaitza ez dela arrazoimenaren erabilera *hedatzea*, baizik eta, zehazkiago aztertzen bada, erabilera *estutzea*, oinarri-esakune horiek benetan sentimenaren mugak –esakuneok benetan honi dagozkionean– gauza oroz goiti hedatu eta horrela arrazoimenaren erabilera (praktiko) hutsa baztertzea mehatxatzen duten heinean. Horregatik, Metafisika zedarritzatzen duen kritika bat *negatiboa* da hainbestez, baina aipatutako erabilera zedarritzatzeko eta suntsitzeko mehatxua egiten duen oztopoa aldi berean deuseztatzen duenez gero, egitatean garrantzizko onura *positiboa* du arrazoimen hutsaren behar-beharrezko erabilera praktiko (moral) bat badagoelako uste osoa lortu ahala, eta arrazoimena erabilera honetan sentimenaren mugez goiti hedatzen da nahitaez, horretarako arrazoimen espekulatiboaren laguntzaren beharrik izan gabe, baina haren aurkako eraginaren aurrean babesa behar duela bere buruarekin kontraesanean ez gertatzearen. Kritikaren zerbitzu honi bere onura *positiboa* ukatzea poliziak balio positiborik ez duela baieztatzea adina litzateke, bere zeregin nagusia hiritarren artean elkarrenganako beldurra sortzen duen bortizkeria eragozteko besterik ez delako, honela hiritar guztiak beren egitekoak lasaitasunez eta segurtasunez burutzeko gai izan daitezen. Kritikaren zati analitikoan frogatzen da espazioa eta denbora sentsuzko begiespenaren formak baino ez direla, beraz, gauzen existentziaren baldintzak besterik ez direla, hauek agerpenak diren heinean; horrez gain, ez dugula adimenaren adigairik, ezta gauzen ezagutzarako batere osagairik ere, adigaiok dagokien begiespena eman dakiekeen heinean izan ezik, eta ondorioz, ezin ezagut dezakegula objektua berbaitango gauza gisa, baizik begiespen enpirikoaren objektua den

heinean besterik ez, h. d., agerpen gisa; hemendik ondorioztatzen da, noski, arrazoimen-ezagutza espekulatibo ahalgarri oro *esperientziaren* objektuetara zedarritzatu behar dela. Hala eta guztiz ere, oharrarazi behar den eragozpen honekin beti: objektu beroiek berbaitango gauzen gisara *ezagutu* ezin ditugun arren, *pentsatu ahal izan behar ditugula*¹⁸. Izan ere, bestela esakune burugabe hau izango genuke ondorioztat, alegia, agerpenik balegokeela agertzen den ezer egon gabe. Halere, demagun egin gabe dagoela geure kritikaren bidez beharrezkoa bihurtu dugun gauzen bereizkuntza, hau da, esperientziaren objektu gisa, batetik, eta berbaitango gauza gisa, bestetik; orduan kausalitatearen oinarri-esakuneak, eta beraz, baita kausalitatea determinatzen duen izadiaren mekanismoak ere, gauza guztientzat balio beharko luke, gauzok kausa arazleak diren aldetik. Zerizan berberari buruz ezingo nuke esan, beraz, kontraesan nabarmenean gertatu gabe, adibidez, giza arimari buruz, bere nahimena askea dela, baina izadiaren beharrezkotasunari menperatzen zaiola aldi berean, h. d., ez dela askea; zeren arima *esanahi berean* hartu baitut esakune biotan, hots, oro harrezko gauza gisa (berbaitango gauza gisa), eta aurretik kritikarik egin gabe ezingo nuke honela baino hartu. Hala ere, kritikak huts egin ez badu objektua *bi esanahietan* hartzen irakatsi digunean, hots, agerpen gisa edo berbaitango gauza gisa; bere adimenaren adigaien dedukzioa zuzena baldin bada, eta beraz, kausalitatearen oinarri-esakuneak gauzak lehenengo zentzuan begitatzten baditu, hots, esperientziaren objektuak diren heinean, objektu berak, aldiz, bigarren esanahian, oinarri-esakune hari menperatu gabe, orduan guk nahimen berbera agerpenean bertan (ekintza ikusgarrietan) izadiaren legearen arabera kotzat hartuko dugu halaberharrez, eta hainbestez, *ez-asketzat*, eta hala ere, bestalde, berbaitango gauza bati dagokionez, ez dugu izadiaren legeari menperatuta pentsatuko, *askea* balitz bezala baizik, horrela hemen ezein kontraesanik sortu gabe. Neure arima azken alde honetatik kontsideratuta ezein arrazoimen espekulatiboren bitartez ezin *ezagut* badezaket ere (are gutxiago behaketa enpirikoaren bitartez), eta beraz, ezta askatasuna ere sentsuen munduko eraginak egozten dizkiodan zerizan baten berekitasun gisa, zeren halako zerizana bere existentziaren arabera determinatuta ezagutu beharko bailitzateke, ez, ordea, denboran (ezinezkoa dena, nire adigaiaren oinarrian ezin baitut ezein begiespen ezarri); orduan, hala ere, askatasuna *pentsa* dezaket, h. d., bere errepresentazioak ez du bere baitan kontraesanik barnebiltzen, bi errepresentazio-eren arteko gure bereizkuntza kritikoa (sentsuzkoa eta intelektuala) eta bertatik ondorioztatzen den adimenaren adigaien zedarritzapena, eta beraz, adigaiotatik isurtzen diren oinarri-esakuneak ere onetsiz gero. Demagun, orain, Moralak halaberharrez askatasuna (zentzu hertsienean) auresuposatzen duela gure nahimenaren berekitasun gisa, arrazoimenean ditugun eta askatasunaren auresuposizio gabe ezin-ezinezkoak liratekeen jatorrizko oinarri-esakune praktikoak arrazoimenaren apriorizko *datu* gisa erantsiz, eta demagun, bestalde, arrazoimen espekulatiboak askatasuna ezin pentsa daitekeela frogatu zuela, bada, orduan auresuposizio hark, Moralarenak, alegia, leku egin beharko lioke halaberharrez besteari, bere aurkakoak ageriko kontraesan bat barnebiltzen duenari, eta ondorioz, *askatasunak* eta, berekin batera, etikotasunak (izan ere, hauen aurkakoek ez dute kontraesanik barnebiltzen, aurretik askatasunik suposatu ez baldin badugu) leku egin beharko liokete *izadiaren mekanismoari*. Halere, Moralerako askatasunak bere buruarekin kontraesanik ez izatea besterik behar ez dudanez, eta gehiago aditu behar gabe gutxienez pentsagarria gertatzen denez, eta izadiaren mekanismoaren (beste ikuspegi batetik begiratutako) ekintza berari oztoporik jartzen ez dionez gero, orduan etikotasunaren irakaspenak bere lekua segurtatzen du, baita izadiarenak ere; hau, ordea, ez zatekeen gertatuko, kritikak aurretik berbaitango gauzei buruzko gure ezinbesteko ezjakintasuna irakatsi ez baligu eta teoretikoki *ezagut* dezakegun oro agerpen soiletara zedarritzatu ez balu. Arrazoimen hutsaren oinarri-esakune kritikoen onura positiboari buruzko argiketa hau bera *Jainkoaren* eta gure *arimaren izaera bakunaren* adigaiei begira ere erakuts daiteke, baina hau alde batera uzten dut orain laburtzearren. Nik ezin ditut, beraz, *Jainkoa*, *askatasuna* eta *hilezkortasuna suposatu* ere egin neure arrazoimenaren beharrezko erabilera praktikoaren mesedetan, baldin eta aldi berean arrazoimen espekulatiboari neurritz gainera ikuskeren handiustea *kentzen* ez badiot, zeren horietara iristeko egitatean esperientzia ahalgarriaren objektuetara soilik heda daitezkeen oinarri-esakuneez baliatzen baita arrazoimena, nahiz eta, dena dela, oinarri-esakune hauek esperientziaren objektua ezin izan daitekeenari aplikatzean benetan hau agerpen bihurtzen duten eta honela arrazoimen hutsaren *hedapen praktiko* oro ezinezkotzat jotzen duten. Nik, beraz, *jakintza* ezeztatu behar izan nuen, honela *sinesmenarentzat* leku egin ahal izateko, eta Metafisikaren dogmatismoa, h. d., arrazoimen hutsaren kritikarik gabe Metafisikan aurrera egiteko aurreiritzia da moralitasunari aurkakotzen zaion sinesmen-ezaren benetako iturburua, beti ere oso dogmatikoa dena. – Beraz, arrazoimen hutsaren kritikaren arabera egindako Metafisika sistematiko baten jarauntsia ondorengoei uztea oso zaila ez bada ere, gutxietsi behar ez den oparia da; aski da arrazoimenaren landualdia zientziaren ibilera segurutik abiatzen ikustea eta kritikarik gabeko bere joan-etorri itu eta zabunkariarekin alderatzea, edota jakinduriaren egarri den gazteriaren denbora-erabilera hobea ikustea, goizik ohiko dogmatismoaren eskutik hainbeste sustapen jasotzen duen gazteriarena, hain zuzen, honela ulertzen ez dituen eta ez berak ezta munduan beste inork ere inoiz adituko ez dituen gauzei buruz erosoki arrazoikerietan aritzeko, baita pentsamendu eta iritzi berriak asmatzeko ere, eta hainbestez, zientzia zehatzen ikasketa arbuiatzen duen gazteriaren denbora-erabilera; hala ere, aintzat

hartu behar da batik bat zein abantaila neurrigabea daukan etikotasunaren eta Erlijioaren aurkako objektzio guztien auzia era *sokratikoan* behin betiko bukatzeak, hots, aurkakoaren ezjakintzaren froga argienaren bitartez. Izan ere, beti izan baita munduan Metafisikaren bat, baita izango ere, eta arrazoimen hutsaren Dialektika bat ere bai orobat, azken hau berezkoa baitzaio arrazoimenari. Beraz, Filosofiaren lehenengo egitekoa, eta behinena, bere errakuntzen iturburua itxi eta horrela eragin kaltegarri guztiak behin betiko bere baitatik urrutiratzea da.

Zientzien arloan funtsezko aldaketa hau gertatu den arren, eta arrazoimen espekulatiboak bere orainoko ustezko jabegoa *galdu* behar izan duen arren, hala ere, beti izan duen egoera abantailatsu berberan dirau giza egiteko orokorre dagokion guztiak, baita munduak gaurdaino arrazoimen hutsaren irakaspenetatik lortutako onurak ere, eta galera horrek *eskolen monopolioan* baino ez du eragiten, inolaz ere ez, ordea, *giza interesean*. Dogmatikorik amorratueneri galdetzen diot ea ondoko frogak eskoletatik irten ondoren inoiz publikoarenganaino heltzeko eta beronen uste osoan eragin txikiarik izateko gai izan diren: heriotzaren ondoren gure arimak duen iraupenaren froga substantziaren bakuntasunaren bidez, edo nahimenaren askatasunaren froga, mekanismo orokorraren aurka beharrezkotasun objektiboa eta subjektiboaren arteko bereizkuntza sotil baina baliogabea eginez, edota Jainkoaren izatearen froga zerizan oroerrealaren adigai baten bidez (aldakorra denaren beharbadakotasunaren eta lehen higiarazle baten beharrezkotasunaren adigaiaren bidez). Baina horrelakorik gertatu ez bada eta giza adimen arruntaren espekulazio sotilerako ezgaitasuna dela-eta inoiz gertatuko denik ezin itxaron badaiteke; aitzitik, arimaren iraupenari dagokionez, gizaki orok mundu honetako gauzeekin inoiz ez gogobetetzeko duen joera ohargarriak soilik sortu behar badu *heriotzaren ondorengo bizitzaren* itxaropena (mundu hau bere determinazio osoaren egokierarentzat askieza den aldetik), bestalde, nahimenaren *askatasunari* begira, betebeharren aurkezpen argi soila izan bada grinaren uzi guztiei kontrajarririk askatasunaren kontzientzia sortarazi duena, eta azkenik, Jainkoaren izateari dagokionez, izadian edonon azaltzen den ordena zoragarria, edertasuna eta ardura izan badira *munduaren sortzaile* jakitsu eta handi batean sinesmena sortu dutenak, arrazoimen-oinarrietan funtsatzen diren heinean publikoaren artean hedatzen diren hiru uste oso izaki hauek, bada, orduan jabego hau ukitugabe geratu ez ezik, berak entzutea ere irabazten du, orain eskolei irakasten baitzaiei giza egiteko orokorre buruzko puntu batean, (begiramen handiena merezi digun) jendetzaren eskueran dagoen batean, hain zuzen, ikuskera garaia eta hedatuagoaren handiusteri ez izatea, eta beraz, eskuarki ulergarriak diren eta zentzu moralean gogobetegarriak diren froga-oinarrien landualdira zedarritzatzea. Aldaketa hau, beraz, eskolen uzi harroei buruzkoa baino ez da, zeren eskolok honetan ere (bidezki, beste puntu askotan bezala) halako egien zaindari eta ezagutzaile bakartzat har ditzaten nahiko bailukete, nahiz eta publikoari egia hauen erabilera besterik ez dioten erakusten, hauen gakoa, ordea, beraientzat gordez («quod mecum nescit, solus vult scire videri»)¹⁹. Hala eta guztiz ere, filosofo espekulatiboek duten uzi bidezkoago batez arduratuko gara. Honek baino ez du irauten beti ere publikoari onurazkoa zaion zientzia baten jagole, berak ez jakin arren, hots, arrazoimenaren kritikaren zientziak; izan ere, kritikak ezingo du inoiz herrikoia izan, ezta horren beharrik ere; zeren egia onuragarrien aldeko argumentu landuak herriari buruan sartzen ez zaizkion era berean honi ez baitzaizkio inoiz aurkako objektzio sotilak ere bururatzen; aitzitik, eskolak, espekulaziora iristen diren gizaki guztiek bezala, ezinbestean bi alderdi hauekin topo egiten duenez gero, *orduan eskola* behartua dago lehenago edo geroago herritarren artera ere iritsiko den *eskandalua arrazoimen espekulatiboaren* eskubideen azterketa zehatzaren bidez aurretiaz behin betiko eragotzera, hots, *metafisikariak* (eta azken batean, apaizak ere bai, *metafisikariak* diren aldetik) kritikarik gabe nahitaez gatazketan nahastetik eta hauek gero gainera beren irakaspenak geurtatzetik sortzen den eskandalua. Kritika da eskuarki kaltegarriak izan daitezkeen *materialismoari*, *fatalismoari*, *ateismoari*, librepentsalarien *sinesgogortasunari*, *gogoberotasunari* eta *sineskeriari* erroak ebaki diezazkiokeen bakarra, baita azkenik *idealismoari* eta *eszeptizismoari* ere, zeinak eskolentzat diren arriskutsuak batik bat eta nekez heltzen diren publikoarenganaino. Gobernuek, berriz, jakintsuen egiteko arduratzea komenigarritzat jotzen badute, orduan hobeto egokitzen zaio zientziaz eta gizakiez duten ardura zuzenari honelako kritika baten askatasunaren alde egitea – kritika arrazoimenaren lanak irmo finkatzeko bide bakarra denez– eskolena despotismo barreagarria sustatzea baino, beren armiarma-sareak desegin ahala arrisku publikoaz iskanbila ozena sortzen duten eskolena, hain zuzen, publikoak inoiz jaramonik egin ez dien arren, eta beraz, galera horretaz inoiz damurik ezin izan duen arren.

Kritika ez zaio kontrajartzen arrazoimenak zientziaren gisako ezagutza hutsean duen *jardunbide dogmatikoari* (arrazoimenak beti izan behar baitu dogmatikoa, hots, apriorizko printzipio seguruetatik abiatuta hertsiki frogatu behar baitu), baizik eta *dogmatismoari*, h. d., printzipioei jarraiki zaion adigaietatiko ezagutza hutsaz (filosofikoaz) soilik baliaturik aurrera egiteko handiusteari, arrazoimenak aspalditik egiten duen moduan, nola eta zein eskubidez horretaratu den aztertu gabe. Beraz, dogmatismoa *arrazoimenaren ahalmenari alde aurretiko kritikarik egiten ez dion* arrazoimenaren jardunbide dogmatikoa

da. Kontrajartze honek, horregatik, ez du azalergia berritsuaren alde hitz egiteko beharrik herrikoitasunaren handigurazko izenpean, ezta Metafisika oro bazterten duen eszeptizismoaren alde ere; aitzitik, kritika hau aldeztetik egiten den beharrezko prestakuntza da, honela Metafisika zehatz bat sustatu ahal izateko, hots, zientzia den aldetik eskakizunik hertsienaren arabera dogmatikoa eta sistematikoa izan behar duen, eta beraz, eskolak egiten duen moduan gauzatu behar den Metafisika (era ez-herritarrean), zeren utziezina gertatzen baita eskakizun hau, Metafisikak bere zeregina erabat a priori, eta beraz, arrazoimen espekulatiboaren gogobete osorako gauzatzea agintzen duenez. Kritikak agintzen duen egitasmoaren gauzapenean, beraz, h. d., Metafisikaren etorkizuneko sisteman, filosofo dogmatiko guztien buru izan zen *Wolff* sonatuaren metodo zehatzari jarraiki behar gatzazkio, alegia, zientziaren ibilera segurua bihurtzeko moduaren adibidea eman zuen lehenari (adibide horri esker gaurdaino Alemanian itzali ez den zehaztasun-espirituaren sortzaile bihurtu zela) printzipioen legezko finkapenaren bitartez, adigaien determinazio nabariaren bitartez, frogetan zehaztasuna bilatuz eta ondorioztapenetan jauzi ausartiak saihestuz, eta horregatik zatekeen *Wolff* pertsona bereziki egokia Metafisika zientzia baten egoera horretara eramateko, aurretik arloa organoaren kritikaren bitartez prestatzea otu balitzai, hots, arrazoimen hutsaren kritikaren bitartez; gabezia hau ez zaio berari soilik leporatu behar, garaiko pentsamolde dogmatikoari baizik gehienbat, eta filosofoek, haren garaikideek zein aurreko denek, ez dute elkarrizkeria aurpegiratu beharrik. *Wolff*en irakaspidea eta aldi berean arrazoimen hutsaren jardunbidea bera ere arbuatzen dituztenek *zientziaren* gergiluetatik askatzeko asmoa besterik ez dute, eta lana jolas, ziurtasuna iritzi eta Filosofia filodoxia bihurtzeko asmoa.

Bigarren argitaraldi honetan ez dut aukera galdu nahi izan zailtasunak eta alde ilunak ahalbait zuzentzeko, bidezkoa denez, hauek direla-eta liburu honen juzgaketan zenbait sasi-interpretazio sortu baitzazkie, neure erruz agian, gizon buruargi batzuei. Bestalde, ez dut alda litekeen ezer aurkitu, ez esakuneetan eta berauen frogatze-oinarrietan, ezta egitasmoaren forman eta osotasunean ere; hori, aldeztetik, lana publikoari aurkeztu aurretik etsamina luzepean ezartzei egotzi behar zaio, aldeztetik, gaia beraren antolaketari, hots, arrazoimen espekulatibo huts baten izaerari, arrazoimenak egiazko atal-egitura bat daukalako, non dena organo bat den, hots, dena bertan batengatik dagoen eta bat hori denarengatik, eta beraz, ahultasun txikiaren nahitaez agertzen zaigun erabileran, hutsegite (errakuntza) nahiz gabezia izaki. Aldaezintasun horri eutsiko dio nire sistemak aurrerantzean ere, espero dudanez. Konfiantza hau izateko eskubidea ez dit neure hutsak erakusten ematen, baizik eta emaitza berdina duen esperimenduak eragiten duen ebidentziak besterik ez, osagai txikienetatik abiatuz arrazoimen hutsaren osokiraino edota osokitik (izan ere, osoki hau emana baita arrazoimenak bere alde praktikoa duen azken asmoaren bitartez) atzera zati bakoitzera itzultzean zati txikiaren ere aldatzeko saiakerak berehala kontraesanak sortarazten dituen heinean, sisteman ez ezik, giza arrazoimen orokorrean ere bai. Oraindik badago zereginik, ordea, *aurkezpenari* dagokionez, eta alde honetan saiatu ditut hobekuntzak bigarren argitaraldian, aldeztetik, Estetikako gaizki-ulertzeak, batik bat denboraren adigaiari dagokionez, aldeztetik, adimenaren adigaien dedukzioaren iluntasunak, aldeztetik, adimen hutsaren oinarri-esakuneen frogetako ebidentzia gogobetegarriari buruz omen zeuden gabeziak, eta aldeztetik, Psikologia arrazionalen sartutako paralogismoen sasi-interpretazioak baztertu beharko lituzketen hobekuntzak. Honaino besterik ez dira hedatzen aurkezpen-eran egindako aldaketak (hots, Dialektika transzendentalaren lehenengo atalburuaren amaieraraino soilik)²⁰, zeren denbora laburregi izan baitut, eta gainerakoan ez baitut etsaminatzaile aditu eta inpartzialengan gaizki-ulertzerik aurkitu, eta etsaminatzaile hauek merezi duten laudorioz aipatu ezin ditudan arren, beren kabuz ikusiko dute zuzendutako pasarteetan egin zizkidaten oharrei lotu natzailela. Zuzenketa honekin batera galera txiki bat jasango du irakurleak, ezinbestekoa gertatzen zena liburua lodiarekin bihurtu ezean, hots, osokiaren osotasunerako funtsezkoak ez diren zenbait gauza kendu edo laburbildu behar izan ditudala, irakurle batzuek hauek peituko dituzten arren, bestela ere erabilgarriak diren heinean, eta espero dudanez orain ulergarriagoa den nire aurkezpen honi leku egitearren gertatu da hori, hots, esakuneei eta berauen frogatze-oinarriei begira funtsean deus ere aldatu ez den aurkezpenari, nahiz eta bere azalpenaren metodoa aurreko argitaraldian erabilitakotik han-hemenka hainbeste urruntzen den, ezen tartekapen soilen bitartez ezin izan baitut konpondu. Nahi izanez gero lehen argitaraldiarekin alderatuz osa daitekeen galera txiki hau, hala ere, ulergarritasun handiago batek kitatuko du gehienbat, espero dudanez. Zenbait idazki publikotan eskerroneko atseginez oharatu dudanez (zenbait libururen berriematean nahiz tratatu berezietan), Alemanian ez da zehaztasun-espiritua hil oraindik, baizik eta ixilarazi egin dute epe laburrez jeinuzko pentsamendu-askatasunaren aldeko modazko oihuek, eta eskolaren gisakoa den baina horregatik soilik iraunkorra, eta hainbestez, behar-beharrezkoa den arrazoimen hutsaren zientziara daraman kritikaren arantzaz betetako bideak ez die galarazi buru argitsu eta ausart batzuei haren jakitun bihurtzea. Meritu handiko gizon horiek ikuskeraren sakontasuna aurkezpen argi baten trebetasunari lotzen diote zoriontsuki (ez baitakit ni trebetasun horren jabe naizen) eta haien esku uzten dut aurkezpenari begira tarteka oraindik ere zenbait gabezia dituen nire lan hau osatzea; izan ere, ez baitago errefusatu izateko arriskurik, ez ulertu izatekoa baizik. Nik neuk ezin izango dut aurrerantzean

gatazketan murgildu, arreta handiz gogoan hartuko ditudan arren lagun zein aurkakoengandik datozen iradokizun guztiak, honela etorkizunean sistemaren gauzapenean erabiltzearren propedeutika honen arabera. Lan hauek egin artean zahar samarra bihurtu naizenez (65 urte beteko ditut hil honetan), denbora aurreztuz jokatu beharko dut, neure egitasmoa burutuko badut, hots, izadiaren Metafisika eta ohituren Metafisika arrazoimen espekulatibo nahiz praktikoaren kritikaren zuzentasunaren egiaztapen gisa, eta lan honetaz jabetu diren merituzko gizonengandik itxaron beharko dut hasieran ia nahitaezkoak ziren iluntasunak argi ditzaten, baita egitasmo osoaren aldeztaille bihur daitezen ere. Azalpen filosofiko oro puntu bakanetan beti ere erasogarria gerta daitekeen arren (ezin baita azalpen matematikoetan bezain korazaturik azaldu), sistemaren atal-egitura, aldiz, batasun gisa kontsideratuta ez dago inolaz ere arriskuan, eta gutxi dira sistema doiesteko joera dutenak sistema berria denean, are gutxiago, ordea, horretarako gogorik daukatenak, berrikuntza guztiak desagokitzat jotzen ohi dituzten horietakoak baitira. Bereziki azalpen aske gisa zertutako idazki orotan gertatzen den bezala banakako pasarte batzuk testuingurutik atera eta elkarrekin alderatzen badira, itxurazkoak baino ez diren kontraesanak agertu ahal izango dira eta hauek argi kaltegarria jaurtitzen dute idazkiaren gainera beste norbaiten juzgaketaz fidatzen denaren begietan, baina ideia bere osotara bereganatu duenak aise konpontzen daki kontraesan hauek. Dena dela, teoria bat berez tinkoa baldin bada, orduan hasieran arrisku handiarekin mehatxu egiten zioten eraginek eta aurkako eraginek teoriaren koskak ezabatzeko balioko dute denborak aurrera egitearekin batera, baita denbora laburrean teoriari behar duen dotoretasuna emateko ere, baldin eta inpartzialak, adimentsuak eta egiazki herrikoiak diren gizonek hartaz jarduten badute.

Königsbergen, 1787ko apirilean

I

Ezagutza hutsa eta enpirikoaren arteko bereizketaz

Ez dago zalantzan jartzetik gure ezagutza oro esperientziarekin hasten dela; izan ere, zeren indarrez iratzarriko litzateke bestela ezagumena ariketarako, gure sentsuak ukitzen dituzten objektuen bidez ez bada, zeinek, aldeez, berenez errepresentazioak sortzen dituzten, aldeez, gure adimen-ekimena higitzen duten errepresentazioak alderatzeko, elkarlotzeko edo bereizteko eta, horrela, sentzuen zirraren ekai soila esperientzia izena duen objektuen ezagutza batean bihurtzeko? *Denboraren arabera*, beraz, ezein ezagutza ez doa gudan esperientziaren aurretik, eta honekin hasten da dena.

Hala ere, gure ezagutza guztia *esperientziarekin* hasten bada ere, ez da dena *esperientziatik* sortzen. Izan ere, baliteke gure esperientzia-ezagutza bera ere zirraren bidez jasotzen dugunaren eta (sentsuzko zirraren bitartez suspertua besterik ez den) gure ezagumen berak sortzen duenaren elkartukia izatea, eta orduan gehiketa hau oinarritzko ekai hartatik ez dugu bereizten, harik eta ariketa luzeak hori oharrarazi eta bere banaketarako trebe bihurtzen gaituen arte.

Beraz, gutxienez azterketa zehatzagoa behar duen eta lehen begiradan berehala konpondu ezin den galdekizuna da ea halako esperientziatik eta sentzuen zirrara orotatik beregaina den ezagutza badagoen. Halako *ezagutzei apriorizkoak* deitzen zaie eta ezagutza *enpirikoetatik* ezberdintzen dira, beren iturburuak a posteriori, hots, esperientzian dituzten ezagutzetatik.

Adierazpen hori ez da oraindik nahikoa determinatua aurkeztutako galdekizunaren zentzu osoa egokiro ezaugarritzeko. Izan ere, esperientziaren iturburuetatik eratorritako zenbait ezagutzaz esaten ohi da a priori haien gai garena edo eskura ditugula, ez baititugu zuzenki esperientziatik eratortzen, baizik benetan esperientziatik atera dugun erregela orokor batetik. Horrela, bere etxearen oinarriak azpijan dituen norbaitez honakoa esaten da: a priori jakin zezakeela eroriko zela, h. d., benetan erortzearen esperientziaren zain egoteko beharrik ez zuela. Nolanahi ere, hau ezin zuen erabat a priori jakin. Izan ere, gorputzak pisuak direla, eta ondorioz, euskarria kenduz gero, erortzen direla, lehendik izan behar zitzaion ezaguna esperientziaren bitartez.

Datorrenean, beraz, apriorizko ezagutzaz ez dugu ulertuko esperientzia hau edo beste hartatik beregainki gertatzen dena, baizik eta erabat esperientzia orotatik beregainki gertatzen dena. Hauei ezagutza enpirikoak kontrajartzen zaizkie, edo a posteriori baino ez, h. d., esperientziaren bidez ahalgarriak diren ezagutzak. Apriorizko ezagutzen artean hutsak izena dute ezer enpirikoa nahasturik ez dutenak. Horrela, adibidez, «aldaketa bakoitzak bere kausa du» esakunea apriorizko esakunea da, baina ez hutsa, zeren aldaketa esperientziatik baino ezin lor daitekeen adigaia baita.

II

Apriorizko ezagutza jakin batzuk ditugu eta adimen arruntak ere baditu beti halakoak

Hemen kontua ezagutza hutsa ezagutza enpirikotik seguru ezberdindu ahal izateko ezaugarria da. Esperientziak irakasten digu bai zerbait honela edo hala antolatua dagoela, baina ez bestela antolatua ezingo lukeela izan. Aurkitzen bada, beraz, *lehenik*, aldi berean bere *beharrezkotasunarekin* batera pentsatzen den esakune bat, orduan hau apriorizko judizioa da; horrez gain, ez bada era berean beharrezko esakune gisa balio duen beste batetik eratortzen, orduan absolutuki apriorizkoa da. *Bigarrenik*, esperientziak ez die bere judizioei inoiz egiazkoa edo hertsia den *orokortasuna* ematen, baizik ustezkoa edo alderagarria soilik (indukzioaren bitartez), eta hau halako moldez ematen die, non zera esan behar baita: orain arte hautemandakoaren arabera erregela honen edo haren salbuespenik ez dela aurkitu. Judizio bat, beraz, orokortasun hertsian pentsatzen bada, h. d., balizko salbuespenik baimendu gabe, orduan ez da esperientziatik eratorria, baizik eta absolutuki a priori balio du. Orokortasun enpirikoa, beraz, kasu gehienetan balio duenetik kasu denetan balio duenera egiten den baliotasunaren hautazko goraketa da, «gorputz guztiak pisuak dira» esakunean gertatzen den bezala, adibidez; aitzitik, orokortasun hertsia judizio bati funtsean dagokionean, orduan honek bere ezagutza-iturburu berezia erakusten du, hots, apriorizko ezagutzaren ahalmena. Beharrezkotasuna eta orokortasun hertsia dira, beraz, apriorizko ezagutza baten ezaugarri seguruak eta elkarrekin bereiztezinki lotuak daude gainera. Halere, erabilera beren zedarritasun enpirikoa erakustea noizbehinka judizioen

beharbadakotasuna erakustea baino errazagoa denez, edo batzuetan argigarriagoa denez judizio bati egozten diogun orokortasun zedarrigabea bere beharrezkotasun gisa erakustea, orduan gomendagarria da aipatutako bi irizpideak –bakoitza bere baitan hutsezina izaki– zein bere aldetik erabiltzea.

Erraza da giza ezagutzan benetan beharrezkoak eta zentzu hertsian orokorrak diren judizioak, eta beraz, apriorizko judizio hutsak badaudela erakustea. Zientzietatiko adibide bat nahi bada, Matematikako esakune orori begiratu besterik ez zaio egin behar; adimenaren erabilera arruntetiko adibidea nahi bada, orduan «aldaketa orok kausa bat izan behar du» esakunea baliagarria izan daiteke; azken honetan, kausaren adigaiak hain nabarmenki barnebiltzen du efektuarekin duen elkarloturaren beharrezkotasunaren adigaia eta erregelaren orokortasun hertsiaaren adigaia, ezen erabat galduko bailitzateke, *Humek* egin zuen legez kausaren adigaia gertatzen dena eta bere aurretiaz denaren uztarketa sarritik eta bertatik sortzen den errepresentazioak lotzeko ohituratik (eta beraz, beharrezkotasun subjektibo soiletik) eratorri nahiko balitz. Gure ezagutzak dituen apriorizko oinarri-esakune hutsen errealtatea frogatzeko halako adibideen beharrik gabe ere erakuts dezakegu esakune hauek esperientzia beraren ahalgarritasunerako ezinbestekoak direla, eta beraz, a priori aurkez ditzakegu. Izan ere, nondik nahiko luke esperientziak bere ziurtasuna jaso, bera jarraiki zaien erregela guztiak beti ere enpirikoak, eta beraz, beharbadakoak balira? Horregatik, hauek zailki hartu ahal izango dira lehen oinarri-esakunetzat. Nolanahi ere, hemen gure ezagumenaren erabilera hutsa egitate gisa eta bere ezagugarria aurkeztu izatearekin askiets gaitezke. Hala ere, judizioetan ez ezik, adigaietan ere azaltzen da hauetako batzuen apriorizko jatorria. Utz ezazue «gorputz» esperientzia-adigaitik pixkanaka bertan enpirikoa den guztia alde batera: kolorea, gogortasuna edo biguntasuna, pisua, sarrezintasuna bera; orduan hark (honenbestez erabat desagertu denak) betetzen zuen *espazioak* dirau oraindik eta hau ezin duzue desagerrarazi. Era berean, objektu gorpuzdun edo gorpuzgabeko batez duzuen adigai enpirikotik esperientziak irakasten dizkizuen berekitasun guztiak alde batera uzten badituzue, orduan hari ezin diozue, dena dela, hura *substantzia* gisa edo substantzia bati *atxikitako* zerbaít gisa pentsatzeko erabiltzen duzuen berekitasuna kendu (nahiz eta adigai honek oro harrezko objektu bat izatea baino determinazio gehiago barnebildu). Aitortu egin behar duzue, beraz, adigai horretan jazartzen zaizuen beharrezkotasunak sinestarazita, adigai honek zuen apriorizko ezagumenean duela bere egoitza.

III

*Filosofiak ezagutza ororen ahalgarritasuna, printzipioak eta hedapena a priori determinatzen dituen zientzia baten premia du*²¹

Aurreko guztia baino garrantzitsuagoa da ezagutza jakin batzuk esperientzia ahalgarri ororen alorra ere uztea eta adigaien bitartez, alegia, esperientzian beraiei egokitzen zaien ezein objektu eman ezin den gisako adigaien bitartez, gure judizioen hedapena itxuraz bere muga oroz goiti hedatzea.

Eta gure arrazoimenaren ikerkuntzak, bere garrantziagatik adimenak agerpenen arloan ikas dezakeen guztia baino askoz bereziagotzat eta azken asmoari begira bikainagotzat jotzen ditugun ikerkuntzak, sentsuen munduaz goiti doazen azken ezagutza hauetan dautza, non esperientziak ez gida-haririk, ezta zuzenketarik ere ezin duen eman, eta horregatik, beraz, edozertara ausartzen gara, erratzeko arriskua izan arren, hain premiazko azterketak ezbairaren batengatik, edo gutxiespenagatik, edota axolagabekeriagatik ez uztearren. Arrazoimen hutsaren ezinbesteko arazo horiek *Jainkoa*, *askatasuna* eta *hilezkortasuna* dira. Eta Metafisika izena du bere gertakuntza guztiak aldean eramanik azken asmo gisa arazo hauek konpontzea duen zientziak, eta bere jardunbidea hasieran *dogmatikoa* da, h. d., halako ekintza handiaren egikaritza konfiantzaz onartzen duena arrazoimenaren ahalmenaren edo ahalezintasunaren alde aurretiko etsaminarik egin gabe²².

Berezkoa dirudi esperientziaren lurra utzi ahala ezin dela berehala eraikin bat antolatu gure ezagutzak nondik datozen jakin gabe eta jatorri ezezaguneko oinarri-esakuneetan funtsatuz, aurretik azterketa arretatsuaz bere oinarritzapena segurtatu ezean; eta beraz, berezkoa dirudi alde aurretik honako galdekizunak egin behar direla, alegia, ea adimena ezagutza hauetara guztietara nola iristen den eta ea hauek zein hedapen, baliotasun eta baliagarritasun duten. Egitatean, ezer ez da berezkoagoa, «berezkoa» hitzaz zera ulertzea baino: bidezki eta arrazoiz gertatu beharko lukeena; aitzitik, honetaz eskuarki gertatzen dena ulertzen bada, orduan ezer ez da berezkoagoa eta ulergarriagoa azterketa hori denbora luzez landugabea geratu izanaren beharra baino. Izan ere, ezagutza hauen zati bat, ezagutza matematikoak alegia, aspalditik da konfiantzaren jabe, eta horren

bidez itxaropen onuragarria iragartzen du besteentzat ere, hauek izaera erabat ezberdinekoak diren arren. Horrez gain, esperientziaren eremuaz goiti gaudenez, seguru gaude esperientziak ez gaituela errefusatuko. Bere ezagutzak hedatzeko irrika hain da handia, non kontraesan argi bat aurkitzeak soilik gera baitezake bere aurrerapena. Hala ere, hau saihesta daiteke, baldin eta bere asmakizunak arretaz egiten badira behintzat, asmakizun izateari utzi gabe. Matematikak honen adibide distiratsua ematen digu: noraino irits gaitezkeen apriorizko ezagutzan esperientziatik beregainki. Berak objektuez eta ezagutzez jarduten du, baina hauek begiespenean aurkez daitezkeen heinean soilik. Halere, egoera hau aise ezikusten da, zeren aipatutako begiespen bera a priori eman baitaiteke, eta beraz, adigai huts soil batetik apenas bereizten baita. Arrazoimenaren boterearen halako frogak suspertzen duen hedapenerako joerak ez du inolako mugarik. Hegaldi askean airea bereizi eta bere kontrajarpena sentitzen duen uso arinak aierik gabeko espazioan hegan hobeto egin ahal izango lukeela errepresenta lezake. Era berean, Platonek sentsuen mundua utzi zuen honek adimenari hain zedarri hertsia ezartzen dizkiolako, eta hartaz haraindi ausartu zen ideien hegoen gainean adimen hutsaren lurralde hustuan barrena. Ez zuen ohartzen bere ahalegin guztiekin ere ez zuela biderik egiten, izan ere, ez zuen euskarririk, nolabait esateko, eustazpi gisa bertan eutsi eta bertan bere indarrak aplikatu ahal izateko, horrela adimena higiaraztearren. Giza arrazoimenak espekulazioan duen patu arrunta da, ordea, bere eraikina ahalbait azkarren egitea eta ondoren soilik aztertzea lehen-lehenik ea bere oinarria ondo ezarria zegoen. Orduan, era guztietako aitzakiak bilatzen dira bere sendotasunaz ziurtasuna lortzeko, edo baita halako etsamina berantiar eta arriskutsua saihesteko ere. Baina hau da eraiketan zehar ardura eta susmo orotatik libratzen gaituena eta itxurazko oinarritzotasunarekin balakatzten gaituena: gure arrazoimenaren zereginen zati handi bat, agian handiena, guk jadanik objektuez ditugun adigaien *analisi*a dela. Honek ezagutzen kopuru handia ematen digu, zeinak, gure adigaietan (nahiz eta oraindik era nahasian) jadanik pentsatuta dagoenaren argiztapen edo azalpenak baino ez izan arren, formaren arabera bederen ikuskera berritza hartzen diren, nahiz eta materia edo edukiaren arabera dauzkagun adigaiak hedatu beharrean xehetu besterik ez dituzten egiten. Jardunbide honek aurrerabide seguru eta onuragarria duen apriorizko ezagutza ematen duenez gero, orduan arrazoimenak itxura honen bidez era guztiz ezberdineko baieztapenak sartzen ditu ezkutuan berak ohartu gabe, eta arrazoimenak hemen adigai jakinei arrotz-arrotzak zaizkien besteak gaineratzen dizkie, a priori gaineratu ere, hori nola egin dezakeen jakin gabe eta arazo hau aintzat hartu ere egin gabe. Horregatik, bi ezaguera hauen bereizketa jorratu nahi dut hasiera-hasieratik.

IV²³

Judizio analitikoen eta sintetikoen arteko bereizketaz

Subjektuak predikatuarekin duen hartueman pentsatzeko ditugun judizio guztietan (baieztaleak soilik hartuz, ondoren ezeztaleei aplikazioa erraza baita) hartueman bi eratara gerta daiteke. Edota B predikatua A subjektuari dagokio, A adigai horretan (ezkutuan) barnebilduta dagoen zerbait gisa; edo B erabat A adigaitik at geratzen da, berekin elkarloturan badago ere. Lehenengo kasuan, judizioari *analitikoa* deitzen diot, bigarreanean, *sintetikoa*. Judizio analitikoak (baieztaleak), beraz, predikatuak subjektuarekin identitatezko elkarlotura duenean ditugu, elkarlotura hori identitaterik gabe pentsatzen duten judizioek, aldiz, judizio sintetiko izena jaso behar dute. Lehenengoak, *azalpen-judizioak*, bigarrenak, *hedapen-judizioak* dei daitezke, zeren haiek predikatuaren bitartez ez baitiote ezer gehitzen subjektuari, baizik eta analisiari esker subjektuaren adigaia jadanik bertan pentsatuta dauden (nahasiki bada ere) azpi-adigaietan xehetzen baitute; aitzitik, bigarrenak subjektuaren adigaiari bertan pentsatua ez zegoen predikatu bat gehitzen diote, bertatik ezein analisisen bitartez lortu ezin izango zen predikatua. Adibidez, «gorputz guztiak hedatuak dira» badiot, orduan hau judizio analitikoa da. Izan ere, nik ez dut gorputzarekin lotzen dudana adigaiak goiti joan behar hedadura berekin elkarlotuta dagoela aurkitzeko, baizik eta adigai hori analizatu besterik ez dut egin behar, h. d., bertan pentsatzen dudana anizkunkiaz kontziente bihurtu besterik ez dut egin behar predikatu hori bertan aurkitzeko; beraz, judizio analitikoa da. Aitzitik, «gorputz guztiak pisuak dira» badiot, orduan predikatua oro harrezko gorputz baten adigai soillean pentsatzen dudana zerbaiten erabat bestelakoa da. Halako predikatuaren eransketak, beraz, judizio sintetiko bat sortzen du.

Esperientzia-judizioak, halakoak diren aldetik, osotara sintetikoak dira. Izan ere, burugabea litzateke judizio analitikoa esperientzian oinarritzea, zeren ez baitzait sori nire adigaitik irtetea judizioa egiteko, eta beraz, esperientziaren lekukorik ez baitut behar horretarako. «Gorputz bat hedatua da» a priori irmo dagoen esakunea da, eta ez da ezein esperientzia-judiziorik. Izan ere,

esperientziara jo aurretik jadanik nire judizioaren baldintza guztiak nire adigaian ditut, eta bertatik atera dezaket predikatua kontraesanaren oinarri-esakunearen arabera, eta horren bitartez, aldi berean, esperientziak inoiz irakatsiko ez lidakeen judizioaren beharrezkotasunaz kontziente bihur naiteke. Aitzitik²⁴, oro harrezko gorputz baten adigaian pisuaren predikatua biltzen ez badut ere, hark esperientziaren objektu bat ezaugarritzen du bere zati baten bitartez, eta honi lehen zatiari dagozkion esperientzia beraren beste zatiak ere gehitu diezazkioket. Nik gorputzaren adigaia alde aurretik analitikoki ezagut dezaket adigai honetan pentsatutako ezaugarrien bitartez, hedadura, sarrezintasuna, tankera, eta abarren bitartez. Nire ezagutza hedatuz gero eta gorputzaren adigai hori lortzeko erabili dudana esperientziari atzera begiratzuz gero, orduan aipatutako ezaugarriekin batera elkarlotua aurkitzen dut beti pisua ere,²⁵ eta beraz, hau predikatu gisa adigai hari *sintetikoki* eranstean diot. Beraz, pisuaren predikatua eta gorputzaren adigaia arteko sintesiaren ahalgarritasuna esperientzian oinarritzen da, zeren bi adigaiok, bata bestean barnebilduta ez badaude ere, osotasun baten zati gisa, hots, begiespenen lotura sintetikoa den esperientziaren zati gisa elkarri egokitzen baitira, nahiz eta ausaz besterik ez izan.

Hala ere, judizio sintetikoetan baliabide hori erabat falta da. A adigaiaz goiti joan nahi badut B beste adigai bat harekin lotua balego bezala ezagutzeko, zer da nik euskarritzat erabiltzen dudana eta sintesia ahalbidetzen duena? Hemen ez baitaukat ondoren esperientziaren arloan aztertze abantailarik. Esakune hau har dezagun: «gertatzen den guztiak bere kausa du». Gertatzen den zerbaiten adigaian izate bat pentsatzen dut, bere aurretik denbora bat igaro dela, eta abar, eta hortik judizio analitikoak lor daitezke. Halere, kausa baten adigaia adigai hartatik at dago erabat eta gertatzen denetik ezberdina den zerbait iragartzen du, eta ez dago, beraz, gertatzen denaren errepresentazio honetan barnebildua. Nola esan dezaket, orduan, oro har gertatzen denaz beretik erabat ezberdina den zerbait, eta nola ezagut dezaket kausaren adigaia hari dagokiola, eta gainera halabeharrez dagokiola, benetan bertan barnebilduta ez egon arren? Zer da hemen $X = \text{ezezagunkia}$, adimenaren euskarria dena honek A adigaitik at B predikatu arrotza aurkitu duela uste duenean, hots, adigai hartatik at egon arren harekin elkarlotua dagoela estimatzen duen predikatua aurkitu duela uste duenean? Ezin izan da esperientzia, zeren aipatutako oinarri-esakuneak bigarren errepresentazio hau lehenari eranstean baitio, orokortasun handiarekin ez ezik, baita beharrezkotasuna adieraziz ere, eta beraz, a priori eta adigai hutsen bitartez. Hortaz, gure apriorizko ezagutza espekulatiboaren azken asmo osoa halako oinarri-esakune sintetikoetan, h. d., hedapenezko oinarri-esakuneetan funtsatzen da; izan ere, oinarri-esakune analitikoak erabat garrantzitsuak eta beharrezkoak dira, baina eskuratze benetan berria den sintesi seguru eta zabalerako behar den adigaia nabaritasuna lortzeko besterik ez²⁶.

V

Arrazoimenaren zientzia teoretiko orotan apriorizko judizio sintetikoak barnebiltzen dira printzipio gisa

1. *Judizio matematikoak sintetikoak dira osotara*. Badirudi esakune hau giza arrazoimenaren analizatzaileen oharrei orain arte itzuri egin zaiela, eta beren susmoei zuzenki kontrajartzen zaiela ere bai, nahiz eta kontraesan ezin den eran ziurra eta ondorioetan oso garrantzitsua den. Izan ere, matematikariaren inferentzia oro kontraesanaren oinarri-esakunearen arabera gertatzen dela aurkitu zenez gero (ziurtasun apodiktikoaren izaerak eskatzen duena), orduan oinarri-esakuneak ere kontraesanaren esakunetik abiatuta ezagutzen direla uste izan zen; eta horretan erratzen zuten; izan ere, esakune sintetikoa kontraesanaren esakunearen arabera adi daiteke, baina inolaz ere ez bere baitan, baizik eta beste esakune sintetikoa aurreuposatzen baldin bada besterik ez, hura orduan honetatik abiatuta ondorioztatu ahal izateko.

Aldez aurretik zera ohartu behar da: benetako esakune matematikoak beti apriorizko judizioak direla, eta ez enpirikoak, esperientziatik lortzen ez den beharrezkotasuna baitakarte aldean. Hau onartu nahi ez bada, orduan nire esakunea *Matematika hutsera* zedarritzaten dut; bere adigaiak aldean dakar apriorizko ezagutza huts soilak barnebiltzen dituela, eta ez enpirikoak.

Hasiera batean pentsa zitekeen « $7+5=12$ » esakunea zazpi eta bosten batuketa baten adigaitik kontraesanaren esakunearen arabera ondorioztatzen den esakune analitikoa besterik ez dela. Hala eta guztiz ere, zehatzago kontsideratzen bada, orduan zera aurkitzen da, 7 eta 5en batuketaren adigaiak ez duela bi zenbakiok beste bakar batean bateratzea besterik barnebiltzen, eta honen bitartez ez dela pentsatzen zein den biak biltzen dituen zenbaki bakar hori. Hamabi zenbakiaren adigaia ez dago inolaz ere jadanik pentsatua zazpi eta bosten bateratzea pentsatzen dudanean, eta halako batuketa ahalgarri baten nire adigaia luze analizatu arren, ez dut bertan inoiz hamabia aurkituko. Adigai hartatik irten behar da bietako bati dagokion

begiespena laguntzat hartuz, adibidez, bost hatzak, edo bost puntu (*Segnerrek* bere Aritmetikan egiten duen legez), eta horrela, pixkanaka begiespenean emandako bosta zazpiaren adigaiari gehituz. Izan ere, lehenik 7 zenbakia hartzen dut, eta 5aren adigaia osatzeko nire eskuko hatzak begiespen gisa laguntzat hartzen baditut, orduan 5 zenbakia eratzeke lehendik bildutako banakoak 7 zenbakiari gehitzen dizkiot pixkanaka nire irudi hartan, eta horrela, 12 zenbakia agertzen dela dakusat. 7a 5ari gehitu behar zitzaiola batuketa baten ($=7+5$) adigaian pentsatu dut, baina ez batuketa hori 12 zenbakia denik. Esakune aritmetikoa, beraz, beti da sintetikoa; hau are era nabariagoan ohartzen da zenbaki handiagoak hartuz gero, orduan garbi argitzen baita gure adigaiaren analisiaren bitartez soilik batuketa inoiz ezin dugula aurkitu begiespenaren laguntzarik gabe, gure adigaiak nahi ditugun moduan jiratu eta bihurtu arren.

Era berean, Geometria hutsaren ezein oinarri-esakune ere ez da analitikoa. «Bi punturen arteko lerro zuzena motzena da» esakune sintetikoa da. Izan ere, *zuzenkiaren* nire adigaiak ez du handitasunik barnebiltzen, baizik eta kualitate bat besterik ez. Motzenaren adigaia erantsi egiten da osorik eta ezin da lerro zuzenaren ezein analisisen bitartez lortu. Begiespenaren laguntza onartu behar da hemen, beraz, sintesia honen bitartez baino ez baita ahalgarria.

Geometrialariek auresuposatzen dituzten oinarri-esakune gutxi batzuk besterik ez dira benetan analitikoak eta hauek kontraesanaren esakunean funtsatzen dira; hala ere, esakune identikoak diren aldetik metodoaren kateari baino ez zaizkio baliagarri, eta ez printzipio gisa, adibidez, « $a=a$ », «osokia bere buruaren berdina da», edo « $(a+b)>a$ », h. d., «osokia bere zatia baino handiagoa da». Hauek ere adigai hutsen arabera balio duten arren, begiespenean aurkez daitezkeelako soilik onartzen dira Matematikan. Adierazpenaren esangura bikoitza baino ez da eskuarki judizio apodiktiko horien predikatua jadanik gure adigaian dagoela, eta beraz, judizioa analitikoa dela sinestarazten gaituena. Adigai bati, beraz, predikatu jakin bat gainpentsatu behar diogu, eta beharrezkotasun hau adigaiei atxikia dago jadanik. Hala ere, kontua ez da adigaiari zer *gainpentsatu behar* diogun, baizik eta bertan ilunki bada ere *benetan zer pentsatzen* dugun, eta orduan, zera azaltzen da: predikatua adigai haiei benetan halabeharrez lotzen zaiela, baina ez adigaian bertan jadanik pentsatuta bezala, adigaiari erantsi behar zaion begiespenaren bitartez baizik.

2. *Natur Zientziak (Physica) apriorizko judizio sintetikoak barnebiltzen ditu bere baitan printzipio gisa*. Esakune pare bat besterik ez dut aurkeztu nahi adibide gisa: «mundu gorpuzdunaren aldaketa orotan materiaren kantitateak aldagaitz dirau», edota «higiduraren igorpen orotan efektuak eta aurkako efektuak beti elkarren berdinak izan behar dute». Bi esakune hauen beharrezkotasuna, eta beraz, beren jatorria apriorizkoa dela ez ezik, esakune sintetikoak direla ere argia da. Izan ere, materiaren adigaian ez dut bere luze-laburra pentsatzen, baizik bere presentzia espazioan besterik ez honen beteketaren bitartez. Beraz, benetan materiaren adigaiak goiti noa, berari bertan pentsatu ez nuen zer bait a priori gainpentsatzearren. Esakunea ez da, beraz, analitikoa, sintetikoa baizik, eta, hala ere, a priori pentsatua da, eta horrela gertatzen da Natur Zientziaren zati hutseko gainerako esakuneetan.

3. *Metafisikak apriorizko ezagutza sintetikoak barnebildu* beharko lituzke, orain arte zientzia saiatu soiltzat baino ez bada hartzen ere, nahiz eta giza arrazoimenaren izaeraren arabera ezinbestekoa izan, eta bere autugaia ez da inolaz ere gauzez a priori egiten ditugun adigaiak analizatzea eta horren bitartez analitikoki azaltzea, baizik eta gure ezagutza a priori hedatu nahi dugu eta horretarako adigai jakin bati bertan barnebildua ez zegoen zer bait eransten dioten oinarri-esakuneak erabili behar ditugu, zeinak apriorizko judizio sintetikoen bitartez hain urrun doazen, ezen esperientzia bera ere ezin baitzaigu jarraiki, adibidez, «munduak lehen hasiera bat izan behar du» esakunean eta antzekoetan, eta horrela, Metafisika apriorizko esakune sintetiko soilaz osatzen da *bere helburuaren arabera* bederen.

VI

Arrazoimen hutsaren arazo orokorra

Asko irabazten da hainbat azterketa arazo bakar baten formulapean bildu ahal izanez gero. Izan ere, horrekin norbere zeregina erraztu ez ezik, hau zehazki determinatzen den heinean, gure asmoa ere gogobete dugun ala ez dugun etsaminatu nahiko lukeen edonorena ere errazten da. Arrazoimen hutsaren benetako arazoa, hortaz, galdekizun honetan jasotzen da: *nola dira ahalgarriak apriorizko judizio sintetikoak?*

Orain arte Metafisikak ziurtasun-ezaren eta kontraesanaren hain zalantzazko egoeran iraun izana arrazoi honi baino ez zaio egotzi behar, hots, arazo hau bera eta agian judizio *analitiko*en eta *sintetiko*en arteko bereizketa lehenago ez pentsatu izateari. Metafisikaren iraupena edo hondamena arazo honen konponketan edo berak argitzea eskatzen duen ahalgarritasuna egitatean halakorik ez dela dioen froga gogobetegarrian funtsatzen da. *David Hume* izan zen arazoari gehien hurbildu zitzaion filosofoa, baina inolaz ere ez zuen askiro determinatu eta bere orokortasunean pentsatu, baizik eta efektuaren eta bere kausaren elkarloturaren (*principium causalitatis*) esakune sintetikoan besterik ez zen geratu, eta apriorizko esakunea halakoa ezin-ezinezkoa zela erakutsi izana uste zuen, eta bere inferentzien arabera Metafisika deitzen dioguna benetan esperientziatik datozen eta beharrezkotasunaren itxura ohituragatik jaso duten arrazoimenaren ustezko ikuskeren lilurakeria soilik litzateke; inoiz ez litzateke Filosofia oro deuseztatzen duten baieztapen hauetara iritsi izango, gure arazoa bere orokortasun osoan izan balu begi-bistan, zeren orduan aditu ahal izango bailuke bere argumentuen arabera Matematika hutsa ere ezinezkoa litzatekeela, honek, noski, apriorizko esakune sintetikoak barnebiltzen baititu, eta hainbestez, bere adimen sendoak halako baieztapen bat egitea galaraziko lioke.

Goragoko arazoaren konponketak aldi berean arrazoimenak objektuen apriorizko ezagutza teoretikoa bere baitan barnebiltzen duen zientzia ororen oinarritzapenean eta egikaritzan duen erabilera hutsaren ahalgarritasuna barnebiltzen du, h. d., galdekizun hauen ihardespena:

Nola da ahalgarria Matematika hutsa?

Nola da ahalgarria Natur Zientzia hutsa?

Benetan badauden zientzia hauetaz ea *nola* ote diren ahalgarriak baino ezin galde daiteke egokiro; izan ere, ahalgarriak izan behar dutela beren errealitateak frogatzen du²⁷. *Metafisikari* dagokionez, berriz, orain arte izan duen zorigaitzeko aurrerabideak eta orain arte aurkeztu den Metafisika oroz bere funtsezko helburuari dagokionez benetan badagoela ezin esateak bere ahalgarritasuna zalantzatan jarrarazten dio edonori arrazoi.

Dena dela, *ezaguera* hau zentzu jakin batean benetan badagoela onartu behar da, eta Metafisika, zientzia gisa ez bada ere, berezko joera gisa erreala da (*metaphysica naturalis*). Izan ere, giza arrazoimena geldiezinki doa bere premia propioak bultzatuta, asko jakitearen hantustearen bidez higiarazia izan gabe, arrazoimenaren ezein esperientzia-erabilerak, eta beraz, bertatik lortutako printzipioek erantzun ezin dituzten galdekizunetarak, eta horrela, garai orotan izan da Metafisikaren bat benetan gizaki guztiengan, eta honek beti iraungo du, beraiengan arrazoimena espekulazioa arte hedatzen den heinean. Eta orain Metafisikaz ere galdetzen da: *Nola da ahalgarria Metafisika berezko joera gisa?*, h. d., nola sortzen dira giza arrazoimenaren izaera orokorretik arrazoimenak bere buruari egiten dizkion galdekizunak, bere premiak bultzatzen duela hura hauek ahalbait hobekien erantzutera?

Berezko galdekizun hauek erantzuteko unean, adibidez, ea munduak hasiera bat duen ala betitik den, eta abar, orainoko saialdi guztiek ezinbesteko kontraesanak aurkitu dituztenez gero, Metafisikara jotzeko berezko joerak soilik ezin gaitu gogobete, h. d., beti ere Metafisikaren bat (hau dena dela ere) sortzen duen arrazoimen hutsak ezin gaitu gogobete, baizik eta objektuen jakintzaz edo ezjakintzaz ziurtasuna lortu ahal izan behar da, h. d., edo bere galdekizunen objektuez edo beraiez juzgatzeko arrazoimenaren ahalmenaz ala ahalezintasunaz erabakia lortu ahal izan behar da, eta beraz, edo gure arrazoimen hutsa konfiantzaz hedatu ahal izan behar da edo berari zedarri determinatu eta seguruak ezarri ahal izan behar zaizkio. Goragoko arazo orokorretik segitzen den azken galdekizuna hau izango litzateke bidezki: *nola da ahalgarria Metafisika zientzia gisa?*

Arrazoimenaren kritikak, beraz, azkenean halabeharrez gidatzen du zientziara; kritikarik gabeko bere erabilera dogmatikoak, aitzitik, oinarrigabeko baieztapenetara, zeinei era berean itxurazkoak direnak kontrajarri ahal baitzaizkie, eta beraz, *eszeptizismora*.

Zientzia honek ezin du luzera ikaragarri handikoa izan, zeren ez baitu amaigabeki anizkunak diren arrazoimenaren objektuekin zerikusirik, baizik eta bere buruarekin besterik ez, beraz, bere altzotik sortzen diren arazoekin, beretik ezberdinak diren gauzen izaerak aurkeztu beharrean norbere izaerak aurkezten dizkion arazoekin; izan ere, esperientzian aurkeztu ahal zaizkion objektuei begira duen ahalmen propioa aldeztu aurretik osoki ezagutu duenez gero, erraza izan behar zaio esperientziaren muga oroz goiti saiatutako erabileraren hedapena eta mugak konplutuki eta seguru determinatzea.

Beraz, orain arte Metafisika *dogmatikoki* eraikitzeke egin diren saialdi guztiak gertatugabekotzat jo ahal eta behar dira; izan ere, helburua ez da oraindik puntu batean edo bestean analitikoa dena, hots, gure arrazoimenean a priori dautzan adigaien analisi soilik, baizik eta benetako Metafisikarako prestaketa besterik ez, hots, bere ezagutza a priori sintetikoki hedatzeko

prestaketa, eta beraz, analisi soilak hau ezin du lortu, gure adigaietan barnebildua dagoena baino ez baitu erakusten, ez, ordea, adigai horietara a priori iristeko modua, ondoren oro harrezko ezagutza ororen objektuei begira duen erabilera balioduna ere determinatu ahal izatearren. Ez da pairamen asko jasan behar uzi hauek denak uzteko, zeren arrazoimenak bere buruarekin dituen kontraesanek, ukaezinak eta metodo dogmatikoan saihestezinak ere badirenek, aspalditik kendu baitiote orain arteko Metafisikari bere izen ona. Irmotasun gehiago beharko da barneko zailtasun eta kanpoko kontrajarpenen aurrean etsitu gabe orain artekoari kontrajarria den beste trataera baten bitartez azkenean zientzia hau hazkuntza oparo eta emankorrera ekartzeko, giza arrazoimenarentzat ezinbestekoa den zientzia, hain zuzen, bere enbor berri guztiak moztuak izan daitezkeen arren, erroak ezin erauzi zaizkion zientzia²⁸.

VII

Arrazoimen hutsaren kritika izeneko zientzia berezi baten ideia eta sailkaketa

Aurreko guztiaren emaitza *arrazoimen hutsaren kritika* dei daitezkeen zientzia berezi baten ideia da. Izan ere²⁹, arrazoimena da ezagutzaren *printzipioak* a priori eskura ematen dituen ahalmena. Horregatik, arrazoimen hutsa da zerbait erabat a priori ezagutzeko printzipioak barnebiltzen dituena. Arrazoimen hutsaren *organona* ezagutza huts oro a priori lortu eta benetan sor dezaketen printzipioen multzoa litzateke. Halako organon baten aplikazio xeheak arrazoimen hutsaren sistema bat eraikiko luke. Hau, ordea, gogoz bilatzen denez eta oraindik ikusteko dagoenez ea hemen gure ezagutzaren hedapena oro har ahalgarria den eta zein kasutan den ahalgarria, orduan arrazoimen hutsaren zientzia, bere jatorri eta mugen juzgaketa soilaren zientzia, arrazoimen hutsaren sistemarako *propedeutikatzat* har daiteke. Halakoak arrazoimen hutsaren *irakaspena* ez, baizik *kritika* izena jaso beharko luke, eta bere onura benetan negatiboa besterik ez litzateke izango espekulazioari begira, hots, ez litzateke gure arrazoimenaren hedapenerako baliagarria izango, baizik eta hau argitzeko eta bera errakuntzetatik askatzeko besterik ez, hau asko irabaztea izaki jadanik. *Transzendental*a deitzen diot objektuez ez, baina oro har beraiek ezagutzeko gure eraz diharduen ezagutza orori, hau a priori ahalgarria den heinean. Honelako adigaion *sistema Filosofia transzendental*a deituko litzateke. Hau, ordea, hasiera batean gehiegizkoa da. Izan ere, halako zientzia batek ezagutza analitikoaz gain sintetikoa ere a priori osorik barnebildu beharko lukeenez gero, orduan hedapen handiegia luke gure asmoari dagokionez, zeren analisisa gure autugai bakarra osatzen duten apriorizko sintesiaren printzipioak bere hedapen osoan aditzeko behar-beharrezkoa den bezain urrun besterik ezin luza baitezakegu. Azterketa honetaz dihardugu orain, benetan irakaspen transzendental ez, baina kritika dei diezaiokeguna, zeren bere asmoa ez baita ezagutza beraren hedapena, baizik eta ezagutzaren zuzenketa besterik ez, eta ezagutza ororen balio edo balioezaren frogarria a priori eman beharko bailuke. Halako kritika, beraz, organon baterako prestaketa da ahalbait eta hau lortuko ez balitz, bere kanon baterako prestaketa bederen, eta horrela, berari jarraiki egun batean agian arrazoimen hutsaren Filosofiaren sistema osoki aurkeztu ahal izango da analitikoki nahiz sintetikoki, bere ezagutzen hedapenaz nahiz mugapen soilaz osatzen bada ere. Izan ere, aldeztu aurretik jakin daiteke hau ahalgarria dela eta, areago, bere hedapena hain handia ezin dela izan, ezen halako sistema bat erabat osatzea ezin itxaron daitezkeen, hemen objektua ez baita gauzen izaera agortezina, baizik eta gauzen izaerari buruz juzgatzen duen adimena, eta gainera bere apriorizko ezagutzari begira besterik ez, eta objektu honen hornidura gugandik landa bilatu beharrik ez dugunez gero, orduan ezin zaigu ezkutatu, eta uste guztien arabera hornidura hau osoro hartuta aski txikia da, honela bere balioa edo balioeza juzgatu eta balioztapen zuzena egin ahal izateko. Are gutxiago itxaron behar da hemen liburuen eta arrazoimen hutsaren sistemen kritika bat, arrazoimen hutsaren ahalmen berarena baizik. Hau oinarrian datzanean baino ez dugu izango sail honetako lan zahar eta berrien eduki filosofikoa balioztatzeko frogarri segurua; bestela, historiografo eta epaile ezgaiek besteen oinarrigabeko baieztapenak orobat oinarrigabeak diren beren baieztapenen bidez juzgatzen dituzte³⁰.

Filosofia transzendental zientzia baten ideia da eta arrazoimen hutsaren kritikak zientzia honen plan osoa arkitektonikoki, h. d., printzipioen arabera zirriboratu behar du eraikina osatzen duten zati guztien osotasunarekin eta segurtasunaren berme osoarekin. Bera arrazoimen hutsaren printzipio ororen sistema da³¹. Kritika honek jadanik Filosofia transzendental izena ez izatearen arrazoi sistema osoa izatekotan giza ezagutza osoaren apriorizko analisi xehea barnebildu beharko lukeela besterik ez da. Gure kritikak, hala ere, aipatutako ezagutza hutsa osatzen duten funtsezko adigaien zenbaketa jarri behar du begi-bistan. Halere, adigai hauen analisi xehea eta beraietatik eratorritakoen laburpen osoa alde batera utz dezake, aldeztu, analisi hau helburugabea litzatekeelako, analisiak ez baititu sintesiak aurkitzen dituen eragozpenak, hots, benetan kritika

osoa sortarazi duten eragozpenak, alde, planaren batasunaren aurka legokeelako halako analisiaren eta eratorketaren osotasunaren erantzukizunari buruz aritzea, benetan bere asmoari begira alde batera utz daitekeenean. Analisiaren osotasun hau eta etorkizunean eman behar diren apriorizko adigaien eratorketa osatzea erraza da, baldin eta aurretiaz eskueran badaude sintesiaren printzipio xehe gisa eta funtsezko asmo honi begira ezer falta ez bada.

Beraz, arrazoimen hutsaren kritikari Filosofia transzendentalak osatzen duen guztia dagokio eta bera Filosofia transzendentalaren ideia osoa da, baina ez oraindik zientzia bera; zeren analisiari dagokionez apriorizko ezagutza sintetikoaren judizio osorako beharrezkoa den bezain urrun besterik ez baitoa.

Halako zientziaren sailkaketan begiramendu berezia eskaini behar zaio bertan zerbait enpirikoa barnebiltzen duten adigaiak inolaz ere sartzeari; edo apriorizko ezagutza osorik hutsa izateari. Horregatik, moralitasunaren oinarri-esakune gorenak eta bere oinarrizko adigaiak apriorizko ezagutzak izan arren, hala ere, ez dagozkio Filosofia transzendentalari, zeren esakune hauek osotara jatorri enpirikoa duten atsegina eta ezatsegina, irrika eta joera, eta abarren adigaiak egiatan beren arauen oinarrian ezartzen ez badituzte ere, dena dela, etikotasun hutsaren sistemaren sorkuntzan halabeharrez jaso beharko bailituzkete eginbeharraren adigaian gaintitu beharreko oztopo gisa edo eragingarri bihurtu beharko ez lukeen bizigarri gisa³². Horregatik, Filosofia (Philosophie) transzendentalak arrazoimen espekulatibo huts soilaren Filosofia da (Weltweisheit). Izan ere, praktikoa den guztiak, eragileak dituen heinean, ezagutzaren iturburu enpirikoei dagozkien sentimenduekin baitu zerikusia.

Orain oro harrezko sistema baten ikuspuntu orokorretik aurkezten dugun zientzia honen sailkaketa egitekotan, honek, lehenik, arrazoimen hutsaren *osagaien irakaspen* bat, bigarrenik, *metodoaren irakaspen* bat barnebildu behar du. Atal nagusi hauetako bakoitzak bere azpisailak izango lituzke, beren oinarriak hemen oraindik aipatu ezin badira ere. Badirudi hau besterik ez dela aipatu behar sarrera edo atariko oharpen gisa: giza ezagutzaren bi enbor daudela, zeinak agian komuna zaien baina ezezaguna zaigun erro batetik sortzen diren, hots, *sentimena* eta *adimena*, eta lehenaren bitartez objektuak *ematen* zaizkigula, bigarrenaren bitartez hauek *pentsatuak* direla. Hala ere, sentimenak guri objektuak eman ahal izateko baldintzak diren apriorizko errepresentazioak barnebildu behar dituen heinean, sentimena Filosofia transzendentalari dagokio. Sentsuen irakaspen transzendentalak osagaien zientziaren lehen zatian kokatu beharko litzateke, zeren giza ezagutzari objektuak eman ahal izateko baldintzak objektuok pentsatzeko baldintzen aurretik baitoaz.

I

OSAGAIEN IRAKASPEN TRANSZENDENTALA

Osagaien irakaspen transzendentalaren Lehen zatia Estetika transzendental

§ 1³³

Ezagutza objektuei edozein modutan eta edozein baliabideren bidez lotzen zaiela ere, *begiespena* da haiei zuzenki lotzen zaiena eta pentsamendu orok baliabide gisa bilatzen duena. Hau, ordea, objektua ematen zaigun heinean gertatzen da; eta hau, gizakientzat bederen, objektuak gogamena modu jakin batean afektatuz besterik ez da ahalgarri. Objektuengatik afektatuak garen moduaren arabera errepresentazioak lortzeko gaitasunak (harmena) *sentimena* izena du. Sentimenaren bitartez, beraz, objektuak *ematen* zaizkigu, eta berak baino ez dizkigu eskuratzen *begiespenak*; adimenaren bitartez, berriz, objektuak *pentsatuak* dira, eta bertatik *adigaiak* sortzen dira. Pentsatze orok, ordea, zuzenki (directe) nahiz zeharka (indirecte) ezaugarri jakinen bitartez azkenean begiespenetara jo behar du, eta beraz, gudan sentimenera, zeren guri ezin baitzaizkigu objektuak beste inolako eran eman.

Objektu batek errepresentazio-gaitasunean duen eragina *sentsazioa* da, hark afektatzen gaituen heinean. Objektuari sentsazioaren bitartez lotzen zaion begiespena *enpirikoa* deitzen da. Begiespen enpiriko baten objektu indeterminatuak *agerpena* izena du.

Agerpenean sentsazioari dagokionari bere *materia* deitzen diot, agerpenaren anizkunkia hartueman jakinetan ordenatu ahal izatea eragiten duenari, berriz, agerpenaren *forma* deitzen diot. Sentsazioak era berean sentsazio izan ezin duen zerbaitetan ordenatzen eta forma jakin batean antolatzen direnez gero, orduan agerpen ororen materia a posteriori baino ez zaigu ematen, beretzako forma, ordea, gogamenean prest izan behar da osotara a priori, eta ondorioz, sentsazio orotatik bereizita kontsidera daiteke.

Hutsa deitzen diot (adiera transzendentalean) sentsazioari dagokion ezer aurkitzen ez diodan errepresentazio orori. Hortaz, sentsuzko begiespenen forma hutsa oro har gogamenean aurkitzen da, non agerpenen anizkunkia hartueman jakin batzuetan begiesten den. Sentimenaren forma huts honek berak ere *begiespen hutsa* izena du. Horrela, gorputz baten errepresentaziotik bertan adimenak pentsatzen duena kentzen bada, hots, substantzia, indarra, zatigarritasuna eta abar kentzen bada, halaber, sentsazioari dagokiona ere kentzen bada, hots, sarrezintasuna, gogortasuna, kolorea, eta abar, orduan oraindik ere begiespen enpiriko horri dagokion zerbait geratzen zaigu, hots, hedadura eta tankera. Hauek begiespen hutsari dagozkio, zeina a priori dagoen gogamenean sentimenaren forma soil gisa, baita sentsuen edo sentsazioaren objekturik gabe ere.

Sentimenaren apriorizko printzipio ororen zientziari *Estetika transzendental* deitzen diot³⁴. Beraz, osagaien irakaspen transzendentalaren lehen zatia osatzen duen zientzia batek izan behar du, alegia, pentsatze hutsaren printzipioak barnebiltzen dituen zientziari, hots, Logika transzendental izena duenari kontrajartzen zaion zientziak izan behar du.

Estetika transzendentalean, beraz, lehenik, sentimena *bakartuko* dugu, bertatik adimenak bere adigaien bitartez pentsatzen duena baztertuz, begiespen enpirikoa besterik ez dena gera dadin. Bigarrenik, bertatik sentsazioari dagokion oro erauziko dugu, begiespen hutsa eta agerpenaren forma soil besterik ez dena gera dadin, hau baita sentimenak a priori eskura dezakeen gauza bakarra. Azterketa honetan sentsuzko begiespenaren bi forma huts daudela aurkituko da, apriorizko ezagutza hutsaren bi printzipio, hots, espazioa eta denbora, eta hauek jardungo dugu orain.

Estetika transzentalaren

Lehen atala

Espazioaz

§ 2

*Adigai honen argiketa metafisikoa*³⁵

Kanpoko sentsuaren bitartez (gure gogamenaren berekitasun baten bitartez) objektuak errepresentatzen ditugu gugandik at eta osotara espazioan baleude bezala. Bertan, objektuen tankera, handitasuna eta elkarrekiko hartuemanak determinatzen dira edo determinagarriak dira. Gogamenak bere burua edo bere barneko egoera begiesteko baliabidea den barneko sentsuak ez du benetan arimaren begiespenik eskaintzen, arima objektu bat balitz bezala; hala eta guztiz ere, bere barneko egoeraren begiespena ahalbidetzen duen forma determinatu bakarra da, eta horrenbestez, barneko determinazioei dagokien guztia denborazko hartuemanetan errepresentatzen da. Denbora ezin da kanpoan begietsi, espazioa gudan dagoen zerbait gisa begietsi ezin daitekeen bezala. Zer dira, bada, espazioa eta denbora? Benetako zerizanak al dira? Gauzen determinazioak besterik ez al dira, ala gauzen hartuemanak ere bai, begietsiak izan gabe ere gauzei beren baitan legozkien modukoak, edo begiespenaren formari soilik datxekzion, eta beraz, gure gogamenaren antolaera subjektiboari datxekzion modukoak al dira, hots, bere gabeziak predikatu horiek ezein gauzari ere ezin egotzi ahal izatea eragingo lukeen antolaerari? Honi buruz ikasteko, lehendabizi espazioaren adigaia argitu nahi dugu³⁶. *Argiketa*z (expositio), ordea, zera ulertzen dut: adigai bati dagokionaren errepresentazio nabaria (xehea ez izan arren); argiketa hau *metafisikoa* da adigaia *a priori emana* bezala aurkezten duena barnebiltzen badu.

1. Espazioa ez da kanpoko esperientzietatik jasotako ezein adigai enpirikorik. Izan ere, sentsazio jakin batzuk nigandik kanpora dagoen zerbaiti lotu ahal izateko (h. d., nik espazioan dudan lekuan ez dagoen zerbaiti), halaber, haiek bakoitza bestearen kanpo eta ondoan, eta beraz, ezberdin gisa ez ezik, leku ezberdinetan ere errepresentatu ahal izateko espazioaren errepresentazioak jadanik horren oinarrian egon behar du. Hortaz, espazioaren errepresentazioa ezin da kanpoko agerpenen hartuemanetatik mailegatu esperientziaren bidez, baizik eta kanpoko esperientzia hori bera aipatutako errepresentazioaren bidez besterik ez da ahalgarria lehen-lehenik.

2. Espazioa kanpoko begiespen ororen oinarrian datzan apriorizko eta beharrezko errepresentazioa da. Ezin da inoiz errepresentatu espaziorik ez legokeela, nahiz eta ederki pentsa daitekeen bertan ezein objekturik ez dagoela. Beraz, espazioa agerpenen ahalgarritasunaren baldintza gisa hartzen da eta ez beren menpean dagoen determinazio gisa, eta apriorizko errepresentazioa da, halabeharrez kanpoko agerpenen oinarrian datzan errepresentazioa³⁷.

3.³⁸ Espazioa ez da oro harrezko gauzen hartuemanen ezein adigai diskurtsiborik, edo esaten denez, orokorrik, begiespen hutsa baizik. Izan ere, lehendabizi espazio bakarra errepresenta daiteke eta espazio askoz hitz egiten denean, espazio bat eta berberaren zatiak ulertzen dira horretaz. Zati hauek ere ezin dira dena besarkatzen duen espazio bakarraren aurretik izan, nolabait esateko, bere zati osagarri gisa (haren elkarketa hauetatik abiatuta ahalgarria izan dadin), baizik eta *bertan* besterik ezin dira pentsatu. Espazioa funtsean batua da, bertako anizkunkia eta honekin batera oro harrezko espazioen adigai orokorra zedarriztaperetan baino ez da funtsatzen. Espazioaren adigai ororen oinarrian (enpirikoa ez den) begiespen bat datzala ondorioztatzen da hortik. Horrela, oinarri-esakune geometriko guztiak, adibidez, «hiruki batean bi alde batera hirugarrena baino handiago dira», ez dira lerroaren eta hirukiaren adigai orokorretatik eratortzen, begiespenetik baizik, eta gainera a priori ziurtasun apodiktikoarekin eratortzen dira.

4.³⁹ Espazioa handitasun *jakin* amaigabe gisa errepresentatzen da. Adigai bakoitza errepresentazio ahalgarri ezberdinen kopuru amaigabearen barnebilduta dagoen errepresentazioa balitz bezala pentsatu behar da (beren ezaugarri komuna den

aldetik), eta beraz, hauek *bere menpean* barnebiltzen dituela pentsatu behar da; baina ezein adigai ere ezin da pentsatu, adigaia den aldetik, errepresentazioen kopuru amaigabea *bere baitan* barnebilduko balu bezala. Hala eta guztiz ere, horrela pentsatzen da espazioa (izan ere, espazioaren zati guztiak amaigaberaino aldi berean baitira). Beraz, espazioaren jatorrizko errepresentazioa apriorizko *begiespena* da, eta ez adigaia.

§ 340

Espazioaren adigaiaren argiketa transzendentala

Argiketa transzendentalaz beste ezagutza sintetikoaren ahalgarritasuna a priori aditzea ahalbidetzen duen adigai baten argipena ulertzen dut, adigai hau oinarri-esakune bat den heinean. Asmo honetarako zera eskatzen da: 1) benetan halako ezagutzak adigai jakinetatik segitzea, 2) ezagutza horiek adigai horren argipen-era jakin baten auresuposiziopean baino ez izatea ahalgarriak.

Geometria espazioaren berekitasunak sintetikoki eta, hala ere, a priori determinatzen dituen zientzia da. Zer izan behar du, bada, espazioaren errepresentazioak halako bere ezagutza ahalgarria izan dadin? Jatorriz begiespena izan behar du; izan ere, adigai soil batetik abiatuta ezin da adigaiaz goiti doan esakunerik lortu, hau izan arren Geometrian gertatzen dena (sarrera V). Halere, begiespen honek a priori, h. d., objektu baten hautemapen ororen aurretik egon behar du gudan, eta beraz, begiespen hutsa izan behar du, eta ez begiespen enpirikoa. Izan ere, esakune geometrikoak apodiktikoak dira osotara, h. d., beren beharrezkotasunaren kontzientziari lotuta daude, adibidez, «espazioak hiru dimentsio besterik ez ditu»; halako esakuneak, ordea, ezin dira judizio enpirikoak edo esperientzia-judizioak izan, ezta beraietatik abiatuta inferitutako esakuneak ere (sarrera II).

Nola egon daiteke, beraz, kanpoko begiespen bat gogamenean, baldin eta objektuen aurretik badoa eta bertan objektuen adigaia a priori determinatu badaiteke? Nabarmenki begiespenak egoitza gogamenaren antolaera formala den subjektuan besterik ez duen heinean soilik, honela objektuengatik afektatua izateko eta horren bitartez haien *errepresentazio zuzena*, h. d., *begiespena* lortzeko, eta beraz, kanpoko *sentsuaren* forma den heinean soilik oro har.

Beraz, gure argipenak soilik bihurtzen du ulargarria *Geometriaren ahalgarritasuna*, hau apriorizko ezagutza sintetikoa den aldetik. Hau lortzen ez duen beste argipen modu oro ezagugarri horren bidez bereiz daiteke gure modutik era seguruenean, hark itxuraz gurearen nolabaiteko antza duen arren.

Aurreko adigaietatiko inferentziak

a) Espazioak ez ditu berbaitango gauzen berekitasunak errepresentatzen, ezta beren arteko hartuemanen dauden gauzak ere, h. d., ez du objektu beraiei datxekien eta begiespenaren baldintza subjektiboaz abstraitu ondoren iraungo lukeen determinaziorik errepresentatzen. Izan ere, ez determinazio absolutuak, ezta erlatiboak ere, ezin dira begietsi hauei lotuak dauden gauzen izatearen aurretik, eta beraz, a priori.

b) Espazioa kanpoko sentsuen agerpen ororen forma besterik ez da, h. d., kanpoko begiespena ahalbidetzen duen sentimenaren baldintza subjektiboa. Objektuen bitartez afektatuak izateko subjektuaren harmenak halabeharrez objektu horien begiespenen aurretik joan behar duenez gero, orduan uler daiteke nola izan daitekeen emana agerpen ororen forma benetako hautemapenaren aurretik, eta beraz, a priori gogamenean, eta nola barnebil ditzakeen berak begiespen huts gisa –non objektu guztiak determinatu behar diren– objektuon hartuemanen printzipioak esperientzia ororen aurretik.

Hortaz, gizakiaren ikuspuntutik baino ezin dugu hitz egin espazioaz, izaki hedatuez, eta abarrez. Kanpoko begiespenak lortu ahal izateko ditugun baldintza subjektiboak alde batera utziz gero, hots, objektuen bidez afektatuak izateko baldintzak baztertuz gero, orduan espazioaren errepresentazioak ez du esanahirik. Predikatu hau gauzei egozten zaie, baina hauek guri agertzen zaizkigun heinean besterik ez, h. d., sentimenaren objektuak diren heinean. Sentimena deitzen diogun harmen honen forma iraunkorra hartueman ororen beharrezko baldintza da; bertan gugandik kanpora objektuak begiesten dira, eta objektu horietaz abstraitzen bada, orduan espazioa izena duen begiespen hutsa da. Sentimenaren baldintza bereziak gauzen

ahalgarritasunaren baldintzak ez, baizik beren agerpenaren baldintzak soilik bihur ditzakegunez, orduan lasai esan dezakegu espazioak kanpoan agertu ahal zaizkigun gauza guztiak besarkatzen dituela, baina ez gauza oro bere baitan, begietsiak izan ala ez izan arren, edo subjektua edozein izan arren. Izan ere, beste zerizan pentsatzaileen begiespenez ezin dugu juzgatu ea gure begiespena zedarritzatzen duten eta guretzat orokorki balio duten baldintza berberei lotzen zaizkien. Subjektuaren adigaiari judizioaren zedarritzapena gehitzen badiogu, orduan honek baldintzatugabeki balio du. «Gauza guztiak bata bestearen ondoan dira espazioan» esakuneak gauza hauek gure sentsuzko begiespenaren objektutzat hartzeko zedarritzapenarekin balio du. Hemen adigaiari baldintza hau gehitzen badiot eta hau badiot: «gauza guztiak kanpoko agerpen gisa bata bestearen ondoan daude espazioan», orduan erregela honek orokorki eta zedarritzapenik gabe balio du. Gure argiketek, hortaz, bi gauza hauek irakasten dizkigute: batetik espazioaren *errealitatea* (h. d., baliotasun objektiboa) kanpotik gure objektu gisa ager daitekeen orori begira, baina aldi berean espazioaren *idealtasuna* ere bai arrazoimenaren bidez beren baitan, h. d., gure sentimenaren antolaera aintzat hartu gabe kontsideratzen diren gauzei dagokienez. Beraz, espazioaren *errealitate enpirikoa* baieztatzen dugu (kanpoko esperientzia ahalgarri orori dagokionez), baina aldi berean bere *idealtasun transzendental*a ere bai, h. d., esperientzia ororen ahalgarritasunaren baldintzak alde batera utzi eta espazioa berbaitango gauzen oinarrian datzala onartu ahala hau ezer ez dela baieztatzen dugu.

Ez dago, ordea, espazioaz gain subjektiboa den eta *kanpoko* zerbaiti lotzen zaion beste errepresentaziorik a priori objektiboa izena jaso dezakeenik. Izan ere, hauetako bakar batetik ere ezin dira esakune sintetikoak a priori eratorri espazioaren begiespenetik erator daitezkeen bezala (§ 3). Horregatik, hauek, zehazki hitz eginez, ez dute ezein idealtasunik, nahiz eta espazioaren errepresentazioarekin bat egiten duten sentsu-eraren antolaera subjektibokoak izateari dagokionez, adibidez, ikusmenarenak, entzumenarenak, sentimenduarenak izateari dagokionez kolore, doinu eta beroaren sentsazioen bidez, baina hauek sentsazioak besterik ez direnez gero, eta ez begiespenak, orduan ez dute objekturik ezagutarazten beren baitan eta are gutxiago a priori⁴¹.

Ohar honen asmoa espazioaren idealtasuna oso askiezek diren adibideen bidez argitzeko ateraldia saihestea da, zeren koloreak, gustamena, eta abar, gauzen antolaera ez, baina gure subjektuaren aldaketa soil gisa kontsideratzen baitira bidezki, hots, gizaki ezberdinetan ere ezberdinak izan daitezkeen aldaketa gisa. Izan ere, kasu honetan jatorriz agerpena baino ez dena, adibidez, arrosa bat, adiera enpirikoan berbaitango gauza bera da, begirada bakoitzari koloreari dagokionez ezberdina ager dakioken arren. Aitzitik, espazioan dauden agerpenen adigai transzendentalak kritikoki oharrarazten du espazioan begiesten den ezer ez dela berbaitango gauza, eta espazioa gauzei beren baitan berea litzaikeen forma bat ez dela, aitzitik, guri berbaitango gauzak ez zaizkigula inolaz ere ezagunak eta guk kanpoko objektuak deitzen diegunak gure sentimenaren errepresentazio soilak direla, zeinaren forma espazioa den, baina egiazko korrelatua, h. d., berbaitango gauza bera ez den ezagutzen eta ezin den ezagutu errepresentazio hauen bitartez; korrelatu honetaz ez da, ordea, inoiz galdetzen esperientzian.

Estetika transzendentalaren Bigarren atala

Denboraz

§ 4

*Denboraren adigaiaren argiketa metafisikoa*⁴²

1. Denbora ez da esperientziaren batetik jasotako adigai enpirikorik. Izan ere, aldiberekotasuna edo segida ez lirateke hautemango denboraren errepresentazioa oinarrian ez balego. Bere auresuposiziopean besterik ezin errepresenta daiteke zerbait denbora bat eta berean (aldi berean) edo denbora ezberdinetan dela (bata bestearen ondoren).

2. Denbora begiespen ororen oinarrian dagoen beharrezko errepresentazioa da. Oro harrezko agerpenei begira ezin da denbora bera ezeztatu, nahiz eta agerpenak berak denboratik erauz daitezkeen. Denbora, beraz, a priori emana da. Bertan besterik ez da ahalgarria agerpenen errealitate oro. Hauek osotara desagert daitezke, baina denbora ezin da ezeztatu (haien ahalgarritasunaren baldintza orokorra baita).

3. Apriorizko beharrezkotasun honetan oinarritzen da era berean denborazko hartuemanen oinarri-esakune apodiktikoen edo oro har denboraren axiomen ahalgarritasuna. Berak dimentsio Bakarra dauka: denbora ezberdinak ez dira aldi berean, baizik bata bestearen ondoren (espazio ezberdinak bata bestearen ondoren ez, baina aldi berean diren moduan). Oinarri-esakune hauek ezin dira esperientziatik atera, izan ere, honek ezingo luke ez orokortasun hertsirik, ezta ziurtasun apodiktikorik ere eman. Guk hau baino ezin dugu esan: horrela irakasten du hautemapen orokorrak; ez, ordea: horrela jokatu behar du. Oinarri-esakune hauek esperientziak ahalbidetzen dituzten erregela gisa balio dute oro har, eta esperientzien aurretik irakasten digute, ez hauen bitartez.

4. Denbora ez da adigai diskurtsiboa edo orokorra, deitzen zaion moduan, baizik eta sentsuzko begiespenaren forma hutsa. Denbora ezberdinak denbora beraren zatiak baino ez dira. Objektu bakarraren bitartez besterik eman ezin daitezkeen errepresentazioa, ordea, begiespena da. Gainera «denbora ezberdinak aldi berean ezin dira izan» esakunea ezingo litzateke adigai orokor batetik eratorri. Esakunea sintetikoa da eta ezin da sortu adigaietatik soilik abiatuz gero. Beraz, denboraren begiespenean eta errepresentazioan dago barnebildua zuzenean.

5. Denboraren amaigabetasunak hau besterik ez du esan nahi: denboraren handitasun determinatu oro bere oinarrian datzan denbora bakarraren zedarritzapen gisa baino ez dela ahalgarria. Horregatik, *denbora* jatorrizko errepresentazioa zedarritik gabe emana izan behar da. Zatiak berak eta objektu baten handitasun oro zedarritzapenen bitartez determinatuta besterik ezin badaitezke errepresentatu, orduan errepresentazio osoa ezin da adigaiaren bitartez eman (izan ere, hauek azpi-errepresentazioak baino ez dituzte barnebiltzen), baizik eta begiespen zuzenak egon behar du beren oinarrian.

§ 5⁴³

Denboraren adigaiaren argiketa transzendentala

Orain 3 zenbakira jo dezaket, bertan benetan transzendentala dena argiketa metafisikoaren artikuluan aipatu baitut laburra izatearren. Hemen zera gaineratzen dut oraindik: aldaketaren adigaia eta honekin batera higidurarena (lekuaren aldaketa gisa) denboraren errepresentazioan eta bere indarrez baino ez direla ahalgarriak; errepresentazio hau (barneko) apriorizko begiespena ez balitz, ezein adigaik, edozein izanda ere, ezingo lukeela aldaketa baten, h. d., kontraesankorki kontrajarritako predikatuen loturaren ahalgarritasuna ulergarria bihurtu objektu bat eta berean (adibidez, izatea leku batean eta gauza beraren ez-izatea leku berean). Denboran besterik ezin daitezke egon kontraesankorki kontrajarritako determinazio biak gauza batean, hots, *bata bestearen ondoren*. Beraz, denboraren gure adigaiak apriorizko hainbat ezagutza sintetikoren ahalgarritasuna argitzen du, ondo emankorra den higiduraren irakaspen orokorrak erakusten duen legez.

§ 6

Adigai hauetatiko inferentziak

a) Denbora ez da berez den zerbait edo gauzei determinazio objektibo gisa datzekien zerbait, eta beraz, beren begiespenaren baldintza subjektibo ororen abstrakzioa egin ondoren oraindik geratuko litzatekeen zerbait; izan ere, lehen kasuan, objektu errealik gabe ere erreala litzatekeen zerbait legoke. Bigarren kasuari dagokionez, denborak ezingo luke gauzei atxikitako determinazio edo ordena gisa objektuen aurretiaz izan beren baldintza gisa, ezta a priori esakune sintetikoen bitartez ezagutua eta begietsia izan ere. Azken hau gertatzen da, ordea, denbora benetan gudan eman ahal daitezkeen begiespen guztien baldintza subjektiboa besterik ez bada. Izan ere, orduan barneko begiespenaren forma hori objektuen aurretik, eta beraz, a priori, errepresenta daiteke.

b) Denbora ez da barneko sentsuaren forma, h. d., geu eta geure barneko egoera begiesten duen forma baino. Izan ere, denborak ezin du kanpoko agerpenen determinaziorik izan; ez dagokio tankera bati, edo kokapen bati, eta abarri, aitzitik, berak determinatzen du errepresentazioen arteko hartuemanak gure barneko egoeran. Eta beraz, barneko begiespen horrek ezein tankerarik ematen ez duenez gero, gabezia hori analogien bidez osatzen saiatzen gara, eta denboraren jarraipena amaigabearaino luzatzen den lerroaren gisara errepresentatzen dugu, non anizkunkiak dimentsio bakarrekoa den ilara bat osatzen duen, eta lerro honen berekitasunetatik abiatuta denborarenak inferitzen ditugu, bat izan ezik, hots, lerroaren zatiak aldi berean direla, denboran, berriz, bata bestearen ondoren. Hemendik abiatuta argitzen da era berean denboraren errepresentazioa bera begiespena dela, bere hartueman guztiak kanpoko begiespen batean adieraz baitaitezke.

c) Denbora oro harrezko agerpen ororen apriorizko baldintza formala da. Espazioa kanpoko begiespen ororen forma huts gisa kanpoko agerpenetara baino ez da zedarriztatzen apriorizko baldintza den aldetik. Aitzitik, errepresentazio oro bere baitan, kanpoko gauzak objektutzat izan edo izan ez arren, gogamenaren determinazioa den aldetik barneko egoerari dagokionez; barneko egoera hau, ordea, barneko begiespenaren baldintza formalei, eta beraz, denboraren baldintzei dagokionez gero, orduan denbora agerpen ororen apriorizko baldintza da oro har, eta gainera, barneko agerpenen (gure arimaren) baldintza zuzena da, eta horrela zeharbidez kanpoko agerpenena ere bai. A priori esan badezaket kanpoko agerpen oro espazioan dagoela eta espazioaren hartuemanen arabera a priori determinatuta dagoela, orduan barneko sentsuaren printzipioaz erabat orokorki esan dezaket agerpen guztiak oro har, h. d., sentsuen objektu guztiak denboran daudela eta halaberharrez denborazko hartuemanetan daudela.

Geure burua barnetik begiesten dugun eraz eta begiespen honen bitartez kanpoko begiespen oro ere indar errepresentatzailean jasotzeaz abstraitzen badugu, eta beraz, objektuak beren baitan izan daitezkeen moduan hartzen baditugu, orduan denbora ez da ezer. Agerpenei begira besterik ez du baliotasun objektiboa, hauek jadanik *gure sentsuen objektu* gisa onartzen ditugun gauzak baitira; baina ez du objektiboa izaten jarraitzen gure begiespenaren sentimenaz, eta beraz, guri berezia zaigun errepresentazio-eraz abstraitzen badugu eta *berbaitango gauzez* hitz egiten badugu. Denbora, beraz, gure (giza) begiespenaren baldintza subjektiboa besterik ez da (beti sentsuzkoa den begiespenaren baldintza, h. d., gu objektuez afektatuak garen heinean), eta bere baitan, subjektutik at, ez da ezer. Eta halaberharrez da era berean objektiboa agerpen orori begira, eta beraz, guri esperientzian agertu ahal zaizkigun gauza orori dagokionez. Ezin dugu esan gauza guztiak denboran daudela, zeren oro harrezko gauzen adigaiaren beren begiespenaren era guztiez abstraitzen baita, hau izaki denbora objektuen errepresentazioei egokitzeko benetako baldintza. Baina adigaiari baldintza hau gaineratzen bazaio eta esaten bada gauza oro agerpena den aldetik (sentsuzko begiespenaren objektu gisa) denboran dagoela, orduan oinarri-esakuneak a priori jasotzen du bere zuzentasun objektiboa eta orokortasuna.

Gure baieztapenek, hortaz, denboraren *errealitate enpirikoa*, h. d., gure sentsuei inoiz eman dakizkiekeen objektu guztiei begira baliotasun objektiboa irakasten dute. Eta gure begiespena beti sentsuzkoa denez gero, orduan ezin zaigu inoiz esperientzian denboraren baldintzapean ez dagoen objekturik eman. Alderantziz, denborari errealitate absolutuaren uzi oro ukatzen diogu, hots, gauzei erabat atxikitzea baldintza edo berekitasun gisa, baita gure sentsuzko begiespenaren formaz arduratu gabe ere. Berbaitango gauzei dagozkien berekitasun horiek ezin zaizkigu inoiz sentsuen bidez eman. Honetan datza, beraz, denboraren *idealtasun transzendental*a, zeinaren arabera sentsuzko begiespenaren baldintza subjektiboez abstraituz gero, orduan denbora ezer ez baita, eta bera objektuei beren baitan (gure begiespenarekin hartuemanik izan gabe) ezin baitzaie atxiki subsistente edo inherente gisa. Ezin da, ordea, idealtasun hori sentsazioaren subreptzioekin alderatu, espazioarena ere ezin zen moduan, zeren bertan predikatu horiei datxekizkien agerpen beraiez auresuposatzen baita errealitate objektiboa dutela, eta hau hemen, aitzitik, erabat desagertzen da, enpirikoa den heinean izan ezik, h. d., objektua bera agerpen soiltzat hartzen den heinean; honi dagokionez lehen ataleko goragoko oharra kontsulta daiteke.

§ 7

Azalpena

Aho bateko objekzioa jaso dut gizon adimentsuengandik denborari errealitate enpirikoa onartu baina absolutua eta transzendental ukatzen dion teoria honen aurka, eta hortik abiatuta ulertu dut halako kontsiderazioetara ohitua ez dagoen irakurle orok ere berezko eran topatu beharko duela objekzio bera. Honela dio: aldaketak errealak dira (hau gure errepresentazio

propioen aldakuntzak frogatzen du, kanpoko agerpen oro bere aldaketekin batera ukatu nahi izan arren). Guztiarekin ere, aldaketak denboran besterik ez dira ahalgarriak, eta ondorioz, denbora zerbait erreala da. Erantzunak ez du zailtasunik. Argumentu osoa onartzen dut. Denbora bada zerbait erreala, hots, barneko begiespenaren forma erreala. Barneko esperientziari begira, beraz, denborak errealtate subjektiboa du, h. d., nik errealki daukat nire baitan denboraren eta bertan gertatzen diren nire determinazioen errepresentazioa. Bera ez da erreala, beraz, objektu gisa, baizik neure burua bera objektutzat hartzeko errepresentazio-era gisa. Nik neure burua begietsi ahal izango banu edo beste zerizan batek ni sentimenaren baldintzarik gabe begietsi ahal izango banindu, orduan guk orain aldaketa gisa errepresentatzen ditugun determinazio beraiek ezagutza bat emango ligukete, non ez denboraren errepresentazioa, ezta aldaketarena ere ez ziren gertatuko. Beraz, bere errealtate enpirikoak gure esperientzia ororen baldintza dirau. Errealtate absolutua besterik ez da gorago aipatutakoaren arabera onartu ezin zaion gauza bakarra. Denbora gure barneko begiespenaren forma besterik ez da⁴⁴. Bertatik gure sentimenaren baldintza berezia kentzen bada, orduan denboraren adigaia ere desagertzen da eta ez datxkie objektuei beren baitan, baizik eta haiek begiesten dituen subjektuari besterik ez.

Hau da objektzioa hain aho batekoa izatearen kausa, eta espazioaren idealtasunaren irakaspenaren aurka ezer argigarriarik aipatzen ez dakitenen aldetik gainera. Ez zuten itxaroten espazioaren errealtate absolutua apodiktikoki erakutsi ahal izatea, zeren kanpoko objektuen errealtatea ezein froga hertsiren gai ez dela dioen idealismoa kontrajartzen baitzitzaien; aitzitik, gure barneko sentsuaren (norbera eta bere egoeraren) objektuaren froga argia da zuzenki kontzientzian. Hura itxura soila izan zitekeen, baina hau, haien iritziz, zerbait erreala da modu ukaezinean. Ez zuten pentsatu, ordea, biak errepresentazioaren gisako beren errealtatea ezeztatu beharrik gabe ere agerpenari besterik ez dagozkiola, zeinak beti bi alde dituen, bata, objektua bere baitan kontsideratzen duena (bera begiesteko era alde batera utziz, horregatik, ordea, bere antolaerak beti problematikoa dirauela), bestea, objektuaren begiespenaren forma begiztatzen duena, eta hau objektuan bere baitan ez, baina hura agertzen zaion subjektuan bilatu behar da, benetan eta halabeharrez objektuaren agerpenari dagokion arren.

Denbora eta espazioa, beraz, ezagutzaren bi iturburu dira, eta hauetatik a priori ezagutza sintetiko ezberdinak sor daitezke, eta Matematika hutsak ematen du bereziki honen adibide distiratsua espazioaren eta bere hartuemanen ezagutzari begira. Beraz, biak batera hartuta sentsuzko begiespen ororen forma hutsak dira, eta horren bidez apriorizko esakune sintetikoak ahalbidetzen dituzte. Halere, apriorizko ezagutzaren iturburu hauek (sentimenaren baldintzak besterik ez direlako) beren mugak determinatzen dituzte agerpen gisa baino kontsideratzen ez diren objektuei lotzen zaizkien heinean eta berbaitango gauzak aurkezten ez dituzten heinean. Agerpenek besterik ez dute osatzen beren baliotasunaren alorra, eta hauetaz goiti joanez gero, ez da beren erabilera objektiborik agitzen. Espazioaren eta denboraren errealtate honek esperientzia-ezagutzaren segurtasuna ukitugabe uzten du gainerakoan; izan ere, ziur gara honetaz, forma horiek halabeharrez berbaitango gauzei edo gauza horien gure begiespenari soilik atxikitzen bazaizkie ere. Aitzitik, espazioaren eta denboraren errealtate absolutua baieztatzen dutenak, hau subsistente gisa nahiz inherente gisa onartzen badute ere, ezin dira bat etorri esperientziaren printzipioekin. Izan ere, lehenengoa erabakitzen badute (arrunki izadiaren ikertzaile matematikoei hartzen duten alderdia dena), orduan berez betikoak diren eta amaigabeak diren bi ezigauza onartu behar dituzte, han daudenak (ezer erreala izan gabe, ordea) horrela beren baitan erreala den guztia jasotzeko besterik ez. Bigarren alderdia hartuz gero (honetakoak dira zenbait izadiaren ikasle metafisiko), hauentzat espazioa eta denbora esperientziatik abstraitutako baina bereizketan nahastuta errepresentatutako agerpenen hartuemanak dira (bata bestearen ondoan edo atzean) eta orduan hauek apriorizko irakaspen matematikoei beren baliotasuna edo beren ziurtasun apodiktikoa bederen eztabaidatu behar diote gauza errealei begira (adibidez, espazioan), hau inolaz ere ez baita gertatzen a posteriori, eta iritzi honen arabera espazioaren eta denboraren apriorizko adigaiak irudimenaren sorkariak baino ez dira, eta beren iturburu benetan esperientzian bilatu behar da, eta horrela, honen hartueman abstraituetatik abiatuta irudimenak beren orokorkia barnebiltzen duen arren, hau ezin da gertatu izadiak hartueman haiei elkarlotu dizkien murriztapenik gabe. Lehenengoei hainbeste lortzen dute, ezen agerpenen alorra baieztapen matematikoentzat askatzen baitute. Aitzitik, asko nahasten dira baldintza horien bitartez adimenak alor horretaz goiti joan nahi duenean. Bestalde, bigarrenek espazioaren eta denboraren errepresentazioek bidean oztoporik ez egitea lortzen dute, objektuez hauek agerpenak diren aldetik ez, baizik adimenarekin hartuemanen soilik juzgatu nahi dutenean; ezin dute, ordea, ez apriorizko ezagutza matematikoaren ahalgarritasunaren oinarriarik eman (egiazkoa eta objektiboki baliogarria den apriorizko begiespena falta zaion heinean), ezta esperientzia-esakuneak baieztapen haiekin halabeharrez adostu ere. Bi zailtasunak gainditzten dira sentimenaren jatorrizko bi forma hauen benetako antolaeraren gure teorian.

Azken batean, argia da Estetika transzendentalak bi osagai hauek, hots, espazioa eta denbora, besterik ezin barnebil ditzakeela, sentimenari dagozkion beste adigai guztiek zerbait enpirikoa auresuposatzen baitute, bi osagaiak batzen dituen

higidura berak ere bai. Izan ere, honek higigarria den zerbaiten hautemapena auresuposatzen du. Espazioan, ordea, ez dago ezer higigarrikirik bere baitan kontsideratzen bada; horregatik, higigarrikiak *espazioan esperientziaren bitartez soilik* aurki daitekeen zerbait izan behar du, eta beraz, datu enpirikoa izan behar du. Era berean, Estetika transzendentalak aldaketaren adigaia ezin du bere apriorizko datuen artean jaso; izan ere, denbora bera ez da aldatzen, denboran dagoen zerbait baizik. Beraz, horretarako izateren baten hautemapena eta bere determinazioen segidaren hautemapena behar dira, eta beraz, esperientzia behar da.

§ 8

Ohar orokorrak Estetika transzendentalari

I.⁴⁵ Hasteko, oro har sentsuzko ezagutzaren oinarrizko antolaerari buruzko gure iritzia zein den ahalbait nabariaren argitzea beharrezkoa izango da, honela bere sasi-interpretazio oro saihestearren.

Zera esan nahi genuen, beraz, gure begiespen oro agerpenen errepresentazioa besterik ez dela; begiesten ditugun gauzak ez direla beren baitan guk begiesten ditugun modu berean, eta beren hartuemanak ez daudela beren baitan guri agertzen zaizkigun eran antolatuta, eta guk geure subjektua edo baita oro harrezko sentsuen antolaera subjektiboa ere ezeztatzen badugu, orduan espazioan eta denboran dauden objektu guztien antolaera, hartuemanak eta espazioa eta denbora berak ere desagertuko liratekeela, eta agerpen gisa ezin dutela beren baitan existitu, baizik eta gure baitan besterik ez. Guretzat erabat ezezaguna dirauen gauza da berbaitango objektuei eta gure sentimenaren harmen guztitik bereizitako objektuei zer gerta lekieken. Ez dugu hauek hautemateko era baino ezagutzen, gure bereizgarria dena, eta hau zerizan bakoitzari halabeharrez ez badagokio ere, bai, ordea, gizakiei. Hau baino ez da gure autugaia. Espazioa eta denbora dira bere forma hutsak, oro harrezko sentsazioa bere materia. Haiek a priori baino ezin ditugu ezagutu, h. d., benetako hautemapen ororen aurretik, eta horregatik, begiespen huts izena dute; hau, ordea, gure ezagutzen honek aposteriorizko ezagutza, h. d., begiespen enpirikoa deitzea eragiten duena da. Haiek gure sentimenari datxezkio erabat halabeharrez, gure sentsazioak edozein eratakoak izanda ere; hauek oso ezberdinak izan daitezke. Gure begiespen hau bere nabaritasun maila gorenera ekarri ahal bagenu ere, horrekin ez ginateke berbaitango gauzen antolaerara gehiago hurbilduko. Izan ere, dena dela, gure begiespenaren era baino ez genuke ezagutuko osorik, h. d., gure sentimena, eta hau beti subjektuari jatorriz atxikitako espazioaren eta denboraren baldintzapean ezagutuko genuke; objektuen agerpenen ezagutza argigarrienaren bidez, hau da, guri emana zaigun ezagutza bakarraren bidez ere ez litzaiguke inoiz ezaguna bihurtuko objektuak beren baitan izan litezkeena.

Horregatik, sentimenaren eta agerpenaren adigaien irakaspen osoa erabilgaitza eta hutsala bihurtzen duen faltsuketa da gure sentimen osoa gauzen errepresentazio nahasia besterik ez dela esatea, gauzei beren baitan dagokiena baino barnebiltzen ez duen sentimena, hain zuzen, kontzienteki bereizi ezin ditugun ezaugarri eta azpi-errepresentazioen pilaketan besterik ez izan arren. Errepresentazio nabaria eta ez-nabariaren arteko bereizketa bereizketa logikoa baino ez da eta ez du edukia ukitzen. Zalantzarik gabe adimen sendoak erabiltzen duen *zuzenbidearen* adigaiak espekulazio sotilenak bertatik abiatuta gara dezakeenaren berdin-berdina barnebiltzen du, nahiz eta erabilera arrunt eta praktikoa pentsamendu honen errepresentazio anizkunez kontziente izan gabe. Horregatik, ezin da esan adigai arrunta sentsuzkoa denik eta honek agerpen soil a barnebiltzen duenik, izan ere, zuzenbideak ezin du inolaz ere agertu, baizik eta bere adigaia adimenean datza eta ekintzei beren baitan dagokien antolaera (moral a) aurkezten du. Aitzitik, *gorputz* baten errepresentazioak begiespenean ez du gauza bati bere baitan legokiokkeen ezer barnebiltzen, baizik eta zerbaiten agerpena besterik ez, eta horregatik afektatuak izateko erak eta gure ezagutza-gaitasunaren harmen honek sentimena izena du eta, hala ere, berbaitango gauzen ezagutzatik lurra zerutik bezain ezberdin dirau, baita hura (agerpena) bere oinarriraino ikuskatu ahal izango balitz ere.

Filosofia leibniziar-wolffiarrak, beraz, gure ezagutzaren izaeraren eta jatorriaren azterketak erabat zuzengabea den ikuspuntuaren menpean jarri ditu, sentimenaren eta alderdi intelektualaren arteko bereizketa bereizketa logiko soiltzat hartzen duen heinean, nabarmenki transzendental a denean eta nabaritasuna edo ez-nabaritasunaren formari ez ezik, bere jatorriari eta edukari ere dagokienean, eta ondorioz, lehenengoaren bitartez berbaitango gauzen antolaera ez soilik ez-nabari ki, baizik eta inolaz ere ez dugu ezagutzen, eta gure antolaera subjektiboa alde batera utzi ahala objektu errepresentatua, sentsuzko

begiespenak esleitu zizkion berekitasunekin batera, ez da inon aurkitzen, ezin da gainera aurkitu ere egin, bere antolaera subjektiboak bere forma agerpen gisa determinatzen duen heinean.

Agerpenen artean ederki bereizten dugu bestela, batetik, bere begiespenari funtsean datxekiona eta giza sentzu bakoitzarentzat oro har balio duena, eta bestetik, berari beharbada besterik ez zaiona tokatzen, oro har sentimenaren harremanari ez, baina sentzu hau edo haren kokapena edo organizazio bereziarentzat soilik balio duen heinean. Eta orduan, lehenengoari objektua bere baitan aurkezten duen ezagutza deitzen zaio, bigarrenak, ostera, bere agerpena baino ez du aurkezten. Bereizketa hau, ordea, enpirikoa besterik ez da. Bertan geratzen bagara (arrunki gertatzen den legez) eta begiespen enpiriko hura ez bada hartzen berriro agerpen soil gisa, halako moldez, non bertan berbaitango gauza bati dagokion ezer topatzerik ez baitago, bada, orduan gure bereizketa transzendentalak galtzen da, eta hainbestez, berbaitango gauzak ezagutzen ditugula uste dugu, nahiz eta edonon (sentsuzko munduan) agerpenak besterik ez izan gure autugaia, baita beren objektuen ikerkuntza sakonenean ere. Horrela, ortzadarra eguzki-euriagatik gertatzen den agerpena dela esango genuke, euria, ordea, berbaitango gauza dela, eta hau zuzena da, baldin eta euria fisikoki soilik ulertzen badugu, esperientzia orokorrean, sentsuekiko egoera edozein izanda ere, begiespenean horrela determinatua dagoenez, eta ez bestela. Oro har enpirikoa dena hartzen badugu eta galdetzen badugu, giza sentsuekin duen adostasuna aintzat hartu gabe, ea honek ere objektu bat bere baitan errepresentatzen duen (ez euri tantak, izan ere, hauek agerpen gisa objektu enpirikoak dira jadanik), orduan errepresentazioak objektuarekin duen harremanaz egiten den galdekizuna transzendentalak da, eta tanta horiek agerpenak ez ezik, beren tankera biribila bera, baita beraiek non erortzen diren ere (espazioa), ez dira ezer beren baitan, aitzitik, gure sentsuzko begiespenaren modifikazioak edo oinarritzapenak besterik ez dira, baina objektu transzendentalak ezezaguna dirau guretzat.

Gure Estetika transzendentalaren bigarren egiteko garrantzitsua da honek zenbait fabore ez dituela bereganatzen itxurazko hipotesi gisa soilik, baizik eta organon gisa balio behar duen teoria bati inoiz eska dakioken bezain ziurra eta eztabaiaezina ere badela. Ziurtasun hau osorik argigarria bihurtu ahal izateko, bere baliotasuna begi-bistakoa bihur dezakeen edozein kasu hautatu nahi dugu, § 3an aipatutakoaren argitasun gehiagorako baliagarria izan daitekeena⁴⁶.

Beraz, espazioa eta denbora beren baitan objektiboak eta berbaitango gauzen ahalgarritasunaren baldintzak direla onartuz gero, orduan zera azaltzen da lehenik: bie buruzko esakune sintetiko eta apodiktiko ugari gertatzen direla a priori, bereziki guk hemen lehentasunez adibide gisa aztertuko dugun espazioaz. Geometriaren esakuneak apriorizko esakune sintetikoak direnez eta ziurtasun apodiktikoaz ezagutuak direnez gero, orduan zera galdetzen dut: nondik lortzen dituzue halako esakuneak, eta zertan eusten da gure adimena halako egia behar-beharrezkora eta orokorki baliadunera iristeko? Begiespenen bitartez ala adigaien bitartez izan behar du, ez dago beste biderik; biak edo a priori edo a posteriori ematen dira. Azkenek, hots, adigai enpirikoek eta, halaber, hauen oinarri diren begiespen enpirikoek ezin dute ezein esakune sintetikorik eman, enpirikoa baino ez den bat izan ezik, h. d., esperientzia-esakunea, eta beraz, inoiz beharrezkotasun eta orokortasun absolutua izan ezin dezakeen esakunea, hau izaki, ordea, Geometriako esakune orean bereizgarria. Lehenengoa eta bakarra den baliabideari dagokionez, hots, adigai soilen bitartez edo apriorizko begiespenaren bitartez halako ezagutzetara iristea, argi dago adigai soilen bitartez ezein ezagutza sintetikorik ezin lor daitekeela, analitikoak besterik ez direnak baizik. «Bi lerro zuzenen bidez ezin da ezein espaziorik inguratu, eta beraz, ezein figura ez da ahalgarri» esakunea har ezazue eta hau lerro zuzenaren adigaia eta bi zenbakiaren bitartez eratortzea saia ezazue; edo har ezazue orobat «hiru lerro zuzenen bitartez ere figura bat ahalgarria da» esakunea, eta era berean adigai hauetatik abiatuta eratortzea saia ezazue. Zuen ahalegin oro alferrikakoa izango da eta begiespena ihestera behartuak izango zarete, Geometriak ere beti egiten duen legez. Objektu bat ematen diozue zeuen buruari begiespenean; zein eratakia da hau, ordea, apriorizko begiespen hutsa ala begiespen enpirikoa? Azkenengoa balitz, orduan hortik ez zen inoiz orokorki baliogarria den esakunerik segituko, are gutxiago apodiktikoa den esakunerik; izan ere, esperientziak ezin du inoiz halakorik eman eskura. Beraz, objektua a priori begiespenean eman behar diozue zeuen buruari, eta zeuen esakune sintetikoak hauetan oinarritu behar dituzue. Baldin eta zeuengan a priori begiesteko ahalmenik ez balego; baldintza subjektibo hori formaren arabera ez balitzateke aldi berean (kanpoko) begiespen honen objektua ahalbidetzen duen apriorizko baldintza orokorra; objektua (hirukia) berbaitango zerbait balitz, subjektuarekin harremanik ez duen zerbait, bada, orduan nola esan ahal zenezaketan hirukia eraikitzeo baldintza subjektiboan datzana era berean hirukiari bere baitan ere halabeharrez legokiokeela? Izan ere, zuek ezingo zeniekete zuen adigaiei (hiru lerroen adigaiei) ezer berria gehitu (figura), eta hau halabeharrez objektuan topatu beharko litzateke, objektua zuen ezagutzaren aurretik emana baitago, eta ez honen bitartez. Beraz, baldin eta espazioa (eta era berean denbora ere bai) zeuen begiespenaren forma hutsa ez balitz, alegia, baldintza subjektibo hau gabe bere baitan ezer ez liratekeen gauzak zeuentzako kanpoko objektuak bihurtzeko apriorizko baldintza bakarra barnebiltzen duen forma ez balitz, orduan ezingo zenukete a priori ezer erabaki sintetikoki kanpoko objektuez. Beraz,

ahalgarrria edo egia-itxuraduna ez ezik, ezbairik gabe ziurra ere bada espazioa eta denbora gure begiespen ororen baldintza subjektiboak direla, esperientzia ororen (kanpokoaren zein barnekoaren) beharrezko baldintzak diren aldetik, eta horregatik, hauei dagokienez objektu oro agerpen soil da, eta ez berez emana den gauza, eta horregatik, agerpenei buruz asko esan daiteke a priori formari dagokionez, inoiz ez, ordea, deus ere agerpen hauen oinarrian leudekeen berbaitango gauzei buruz.

II. Kanpoko eta barneko sentsuen, eta beraz, sentsuen objektu ororen idealtasunaren teoria egiaztatzeko, objektuok agerpenak diren aldetik, ondoren datorren oharra baliagarria izan daiteke bereziki, alegia, gure ezagutzan begiespenari dagokion guztiak (beraz, atsegina eta ezatseginarenean sentimendua eta nahimena salbuetsita, ez baitira ezagutzak) hartueman soil hauek baino ez dituela barnebiltzen: lekuena begiespen batean (hedadura), lekuen aldaketena (higidura), eta aldaketa hauek determinatzen dituzten legeen (indar higitzaileen) hartueman soilak. Lekuan present dagoena edo lekuaren aldaketaz gain gauza beraietan ekiten duena ez da horren bitartez emana. Halere, hartueman soilen bitartez ez da, noski, berbaitango gauza bat ezagutzen, eta beraz, kanpoko sentsuen bitartez hartuemanen errepresentazioak baino ematen ez zaizkigunez gero, orduan honek bere errepresentazioan objektu batek subjektuarekin duen hartueman jaso dezakeela juzgatu behar da, eta ez objektuari bere baitan dagokion barneko zerbait. Gauza bera gertatzen zaio barneko begiespenari. Barneko sentsuan *kanpoko sentsuaren* errepresentazioek gure gogamena betetzen duten benetako ekaia osatu ez ezik, gainera denborak barnebiltzen ditu jadanik segidaren, aldiberekotasunaren eta segidarekin aldi berean denaren (iraunkorkiaren) hartuemanak, eta denbora honetan ezartzen ditugu errepresentazio hauek, hots, esperientzia hauen kontzientziaren aurretik doan eta errepresentazioak gogamenean ezartzeko eraren oinarrian datzan baldintza formala den denboran. Zerbait pentsatzeko ekintza orori errepresentazio gisa aitzinatu ahal zaiona begiespena da, eta honek hartuemanak besterik ez baditu, begiespenaren forma da, eta honek gogamenean zerbait ezartzen den heinean besterik ez duenez errepresentatzen, orduan gogamena bere ekimenagatik afektatua izateko modua besterik ezin du izan, hots, bere errepresentazioaren ezartze honegatik, eta beraz, bere buruagatik afektatua izateko modua, h. d., barneko sentsua da bere formari dagokionez. Sentsu baten bitartez errepresentatua izan daitekeen oro beti da agerpena hainbestez, eta barneko sentsu bat, edo ez litzateke inolaz ere onartu beharko, edo bere objektua den subjektua bere bitartez agerpen gisa baino ezingo litzateke errepresentatu, eta ez berak bere buruaz juzgatuko lukeen moduan, baldin eta bere begiespena autoekimena besterik ez balitz, h. d., intelektuala balitz. Zailtasun osoa honetan datza: nola begiets dezakeen subjektu batek bere burua barnetik; baina zailtasun hori teoria orori komuna zaio. Norberaren buruaren kontzientzia (apertzepzioa) niaren errepresentazio bakuna da, eta horren bitartez subjektuan dagoen anizkunki oro *berezko ekimenaren indarrez* emana izango balitz, orduan barneko begiespena intelektuala izango litzateke. Gizakian kontzientzia honek subjektuan aldeztu aurretik ematen den anizkunkiaren barneko hautemapena eskatzen du, eta hau berezkitasunik gabe gogamenean emateko moduak, bereizketa hau dela eta, sentimen izena jaso behar du. Norberaz kontziente bihurtzeko ahalmenak gogamenean datzana bilatu (atzeman) beharko balu, orduan gogamena afektatu behar du, eta horrela baino ezin du sortu bere buruaren begiespena, baina honen formak, aldeztu aurretik gogamenean datzanak, anizkunkia gogamenean biltzeko era determinatzen du denboraren errepresentazioan, izan ere, bere burua ez baitu begiesten zuzenki berezko ekimenaren indarrez errepresentatuko balu bezala, barnetik afektatua izango balitz bezala baizik, eta ondorioz, agertzen den moduan, ez bera den moduan.

III. Bai kanpoko objektuen, bai gogamena beraren begiespenak biak espazioan eta denboran gure sentsuak afektatzen dituzten moduan, h. d., agertzen diren moduan errepresentatzen dituela badiot, orduan honek ez du esan nahi objektu hauek *itxura* soilak liratekeenik. Izan ere, agerpenean objektuak eta beraiei egozten dizkiegun antolaerak errealki emanak balira bezala begitatzten dira, baina objektu hau *agerpen* gisa *berbaitango* objektutik ezberdintzen da, antolaera hauek subjektuaren begiespen-eraren menpean besterik ez dauden heinean objektu jakinak subjektuarekin duen erlazioan. Horrela, ez dut esan nahi gorputzak nigandik at daudela baino ez *dirudiela*, edo nire arima nire autokontzientzian emana dela baino ez *dirudiela*, zera baieztatzen dudanean: haien izatearen baldintzak diren espazioaren eta denboraren kualitatea, nik hauek ezartzen ditudan heinean, nire begiespen-eran datzala eta ez objektu hauetan beren baitan. Nire errua litzateke agerpenari dagokiona itxura soil bihurtuko banu⁴⁷. Hau ez da gertatzen, ordea, gure sentsuen begiespen ororen idealtasunaren gure printzipioaren arabera; aitzitik, errepresentazio-forma haiei *errealitate objektiboa* egozten bazaie, orduan ezin da saihestu horren bitartez dena *itxura* soil bihurtzea. Izan ere, espazioa eta denbora beren ahalgarritasunaren arabera berbaitango gauzetan aurkitu behar diren antolaeratzat hartzen baldin badira, eta pentsatzen baldin bada zein burugabekeriatan nahasten garen, gauza existente oro ezeztatu arren, bi gauza amaigabek irauten badute, substantziak ez direnak, ezta benetan substantziari inherenteak ere, eta hala ere, existitzen direnak, eta gainera gauzen existentziaren beharrezko baldintzak izan behar duten gauzak, bada, orduan ezin zaio *Berkeley* onari gorputzak itxura soilera behehitu zituela aurpegiratu, eta geure existentzia bera ere, honela berez dirauen –

denboraren gisako— ezgauza baten errealitatearen menpean legokeen existentzia, hainbestez denborarekin batera itxura soila bihurtu beharko litzateke; halako burugabekeriaren erantzukizuna, ordea, ez du orain arte inork beregain hartu nahi izan.

IV. Natur Teologian guretzat begiespenaren objektua ezin izan daitekeen objektua ez ezik, berez inolaz ere sentsuzko begiespenaren objektua ezin izan daitekeen objektu bat ere pentsatzen dugunez gero, orduan arretaz baztertu behar dira bere begiespen orotatik denbora eta espazioaren baldintzak (izan ere, halakoa izan behar du bere ezagutzak, eta ez beti ere zedarriak dituen *pentsatzea*). Halere, zein eskubiderekin egin daiteke hau, aurretik biak berbaitango gauzen formak bihurtu badira, eta gainera, apriorizko gauzen existentziaren baldintza gisa, gauza berak ezeztatu arren, oraindik irauten duten formak bihurtu badira; izan ere, oro harrezko izate ororen baldintzak diren aldetik Jainkoaren izatearen baldintzak ere izan beharko lukete. Espazioa eta denbora gauza ororen forma objektiboak bihurtu nahi ez badira, orduan hauek gure kanpoko zein barneko begiespen-eraren forma subjektiboak bihurtzeko aukera baino ez da geratzen, eta forma honi sentsuzkoa deitzen zaio *jatorrizkoa ez izateagatik*, h. d., bere bitartez objektuaren begiespenaren izatea ematen ez delako (hau, aditzen dugun heinean, jatorrizko zerizanari dagokio); aitzitik, objektuaren izatearen menpean dago, eta beraz, subjektuaren errepresentazio-gaitasuna honen bitartez afektatua izateari esker besterik ez da ahalgarria.

Ez da beharrezkoa espazioaren eta denboraren begiespen-era gizakien sentimenera zedarritzatzea; baliteke izaki pentsatzaile amaidun orok honetan halabeharrez gizakiarekin bat egin behar izatea (nahiz eta hau ezin dugun erabaki), baina ez dio sentimen izateari uzten orokortasun horregatik, zeren eratorria baita (*intuitus derivativus*), ez jatorrizkoa (*intuitus originarius*), eta beraz, ezta begiespen intelektuala ere; hau, lehen aipatu dugunetik abiatuz gero, jatorrizko izakiari soilik dagokiola dirudi, inoiz ez bere izatean eta begiespenean menpekota den zerizanari (bere izatea objektu jakinekin harremanean determinatzen duen begiespenean, alegia); hala ere, azken ohar hau gure teoria estetikoaren azalpen gisa baino ez da hartu behar, ez froga-oinarri gisa.

Estetika transzendentalararen ebazpena

Hemen dugu, beraz, Filosofia transzendentalararen arazo orokorra konpontzeko, alegia, «*nola dira esakune sintetikoak ahalgarriak?*» galdera erantzuteko eskatzen diren zatietako bat, hots, apriorizko begiespenak, espazioa eta denbora, zeinetan adigaian ez, baina berari dagokion begiespenean a priori aurki daitekeena eta harekin sintetikoki lot daitekeena aurkitzen dugun, baldin eta judizioan a priori adigai jakinez goiti joan nahi badugu, nahiz eta arrazoi honegatik judizio hauek sentsuen objektuetara baino ez diren iristen eta esperientzia ahalgarriaren objektuentzat baino ezin dezaketen balio⁴⁸.

Bigarren zatia
Logika transzendentalSARRERA
Logika transzendental baten ideia

I

Logikaz oro har

Gure ezagutza gogamenaren bi oinarritzko iturburuetatik sortzen da; lehen, errepresentazioak jasotzeko ahalmena da (zirraren harmena), bigarrena, errepresentazio horien bitartez objektu bat ezagutzeko ahalmena (adigaien berezkotasuna); lehenaren bitartez objektu bat *ematen* zaigu, bigarrenaren bitartez hau errepresentazio harekin hartuemanean *pentsatu* egiten dugu (gogamenaren determinazio soil gisa). Begiespenak eta adigaiak dira, beraz, gure ezagutza ororen osagaiak, eta ondorioz, adigaiak ezin dezakete ezagutzarik sortu moduren batetan dagozkien begiespenik gabe, ezta adigai gabeko begiespenek ere. Biak hutsak edo enpirikoak dira. *Enpirikoak* dira beraietan sentsazioa barnebiltzen bada (objektuaren presentzia erreala auresuposatzen duena); *hutsa*, aldiz, errepresentazioan ezein sentsaziorik ez bada nahasten. Azken honi sentsuzko ezagutzaren materia dei dakioke. Horregatik, begiespen hutsak zerbait begiestea ahalbidetzen duen forma besterik ez du barnebiltzen eta adigai hutsak oro harrezko objektu baten pentsatzearen forma. Hala ere, begiespen edo adigai hutsak soilik izan daitezke a priori ahalgarriak, enpirikoak a posteriori besterik ez.

Gogamenak nolabait afektatua den heinean errepresentazioak jasotzeko duen *harmenari sentimena* deitzen badiogu, orduan norberak errepresentazioak sortzeko ahalmena edo ezagutzaren *berezkotasuna adimena* da. Gure izaerak berekin dakar *begiespena sentsuzkoa* soilik izan daitekeela, h. d., honek gu objektuen bidez afektatuak garen era baino ez duela barnebiltzen. Aitzitik, sentsuzko begiespenaren objektua *pentsatzeko* ahalmena *adimena* da. Ezin da bietako berekitasun bat hobetsi. Sentimenik gabe ez litzaiguke objekturik emango eta adimenik gabe ezingo lirake pentsatu. Edukirik gabeko pentsamenduak kaskalak dira, adigairik gabeko begiespenakitsuak dira. Horregatik, adigaiak sentsuzkoak bihurtzea (h. d., beraiei begiespenean objektua gehitzea) bezain garrantzitsua da begiespenak adimenezkoak bihurtzea (h. d., adigaiak meneratzea). Bi ahalmen edo gaitasunek ezin dituzte beren funtzioak elkar trukatu. Adimenak ezin du begiestsi eta sentsuek ezin dute pentsatu. Biak bateratzen direnean soilik sor daiteke ezagutza. Ezin dira horregatik, ordea, beren ekarpenak nahasi, baizik eta bakoitza bestetik arretaz banantzeko eta bereizteko arrazoï ona dugu. Horregatik, oro harrezko sentimenaren erregelen zientzia, h. d., Estetika, oro harrezko adimenaren erregelen zientziatik ezberdintzen dugu, h. d., Logikatik.

Logika, berriz, bi asmoen arabera kontsidera daiteke, adimenaren erabilera orokorraren edo bereziaren Logika gisa. Lehenengoak pentsatzearen erregela behar-beharrezkoak barnebiltzen ditu, eta bera gabe adimenaren erabilera oro ezinezkoa litzateke, eta adimenera igortzen du honen objektuen ezberdintasunari arretarik emateke. Adimenaren erabilera bereziaren Logikak objektuen era jakin bati buruz zuzenki pentsatzeko erregelak barnebiltzen ditu. Hura osagaien Logika dei daiteke, hau, berriz, zientziaren baten organona. Lehenengoa gehienetan eskoletan erabiltzen da zientzien propedeutika gisa, nahiz eta giza arrazoimenaren ibileraren arabera azkena lortzen dena izan, zientzia aspalditik jadanik bukatua dagoenean eta bere zuzenketarako eta betegintzarrerako azken ukitua besterik behar ez duenean. Izan ere, objektuak maila aski garaian ezagutu behar dira, beren zientzia bideratzeko eraren erregelak eman nahi baldin badira.

Logika orokorra, hortaz, Logika hutsa edo aplikatua da. Lehenengoan, gure adimena erabiltzeko baldintza enpiriko oroz abstraitzen dugu, adibidez, sentsuen eraginaz, irudimenaren jolasaz, oroimenaren legeez, ohituraren botereaz, grinez, eta abarrez, eta beraz, aurreiritzien iturburuez eta oro har ezagutza jakinak sortu dituen edo amarruz sartu ahal izan zaizkigun kausa oroz, zeren adimenari besterik ez baitagozkie bere aplikazioaren egoera jakin batzuen menpean, eta hauek ezagutzeko esperientzia behar baita. *Logika orokor* baina *huts* baten autugaia apriorizko printzipio soilak dira, eta *adimena* eta

arrazoimenaren *kanon* bat da, baina bere erabileraren alde formalari begira besterik ez, edukia edozein izanda ere (enpirikoa edo transzendental). *Logika orokor* batek, ordea, *aplikatua* izena du Psikologiak irakasten dizkigun baldintza subjektibo-enpirikopeko adimenaren erabileraren erregelekin zerikusia duenean. Logika orokorrak, beraz, printzipio enpirikoak ditu, orokorra den arren objektuen bereizketarik gabe adimenaren erabilerara jotzen duen heinean. Eta horregatik, ez da oro harrezko adimenaren kanona, ezta zientzia berezien organona ere, baizik eta adimen arruntaren katartikoa besterik ez.

Logika orokorrean, beraz, arrazoimenaren irakaspenera osatu behar duen zatia zehatz-zehazki bereizi behar da Logika aplikatua osatzen duen zatitik (nahiz eta Logika aplikatua beti ere orokorra izan). Lehenengoa soilik da benetan zientzia, nahiz eta laburra eta lehorra izan, adimenaren osagaien irakaspeneraren eskolak egiten duen moduko aurkezpenak eskatzen duen legez. Hemen, beraz, logikariek bi erregela izan behar dituzte begi-bistan:

1. Orokorra den aldetik, Logikak adimenaren ezagutzaren eduki oroz eta bere objektuen ezberdintasunaz abstraitzen du, eta bere autugaia pentsatzearen forma soilak besterik ez da.

2. Hutsa den aldetik, Logikak ez du ezein printzipio enpirikorik, eta beraz, ez du ezer hartzen Psikologiatik (noizbehin pentsatu den legez), eta honek, beraz, ez du eraginik adimenaren kanonean. Logika hutsa irakaspenera demostratua da eta bertan denak a priori ziur-ziurra izan behar du.

Nik Logika aplikatua deitzen diodana (hitzaren esanahi arruntaren aurka, zeren esanahi honen arabera ariketa jakinak barnebildu beharko bailituzke, hauentzako erregelak Logika hutsak ematen dituela) adimenaz eta bere erregelez in concreto egiten den erabileraren errepresentazioa da, hots, erabilera hau oztopa edo susta dezakeen subjektuaren beharbadako baldintzen menpean, osotara enpirikoki besterik ezin eman daitezkeen baldintzen menpean, hain zuzen. Arretaz jarduten du bere oztopoez eta ondorioez, errakuntzaren sorreraz, zalantza, kezka eta uste osoaren egoerez, eta abarrez, eta hauei dagokienez Logika orokorra eta hutsak Moral hutsaren gisara jotzen du, zeinak nahimen aske baten beharrezko lege etikoak soilik barnebiltzen dituen benetakoa bertutearen irakaspenera dagokionez, eta honek lege horiek sentimendu, grina eta irriken oztopoean kontsideratzen ditu, gizakiak hauen menpean daudela gehiago edo gutxiago, eta ezin du inoiz egiazko zientzia demostratua eskuratu, Logika aplikatu haren antzera printzipio enpirikoak eta psikologikoak behar baititu.

II

Logika transzendentalaz

Logika orokorrak ezagutzaren eduki oroz abstraitzen du, azaldu dugunez, h. d., objektuarekin duen harreman oroz, eta forma logikoa baino ez du kontsideratzen ezagutzek elkarrekin duten hartuemanean, h. d., pentsatzearen forma oro har. Hala ere, begiespen hutsak eta enpirikoak daudenez gero (Estetika transzendentalak erakutsi duenez), orduan objektuen pentsatze hutsaren eta enpirikoaren arteko bereizketa ere ederki egon daiteke. Kasu honetan, ezagutzaren eduki oroz abstraitzen ez duen Logika bat legoke; izan ere, objektu baten pentsatze hutsaren erregela soilak barnebilduko lituzkeen Logikak eduki enpirikoa izango lukeen ezagutza oro baztertuko luke. Horrez gain, objektuen gure ezagutzaren jatorria begiztatuko luke, hau objektuei egotzi ezin zaien heinean; aitzitik, Logika orokorraren autugaia ez da ezagutzaren jatorri hau, baizik eta honek errepresentazioak adimenak haiek beren arteko hartuemanetan pentsatzean erabiltzen dituen legeen arabera kontsideratzen ditu, hasiera-hasieratik a priori guran edo enpirikoki emanak izanda ere, eta Logika orokorrak, hortaz, errepresentazioei eman dakiekeen adimenaren formaz besterik ez du jarduten, haien jatorria edozein izanda ere.

Eta hemen bere eragina datozen kontsiderazioetara luzatzen duen eta begi-bistan izan behar den ohar bat egiten dut, hots, apriorizko ezagutza orok ez duela transzendental (h. d., ezagutzaren ahalgarritasuna edo bere erabilera a priori) deitu beharrik, baizik eta errepresentazio jakin batzuk (begiespenak edo adigaiak) a priori aplikatu daitezkeen eta nola aplikatu daitezkeen edo ahalgarriak diren ezagutarazten duten ezagutzek besterik ez. Horregatik, ez espazioa, ezta bere determinazio geometrikoren bat ere, ez dira a priori errepresentazio transzendentalak, baizik eta errepresentazio hauek inolaz ere jatorri enpirikoa ez dutela dioten ezagutzak, eta hauek esperientziaren objektuei a priori lotzeko ahalgarritasunak besterik ez du jasotzen transzendental izena. Halaber, espazioaren erabilera oro harrezko objektuei dagokienez transzendental izan liteke; hala ere, sentsuen objektuetara zedarritzatzen bada, orduan enpirikoa izena du. Transzendental eta enpirikoaren arteko bereizketa, beraz, ezagutzen kritikari soilik dagokio, eta ez du zerikusirik ezagutzak bere objektuarekin duen harremanarekin.

Beraz, objektuei a priori lotzen zaizkien adigaiak agian badi-rela itxaroten dugunez, aldeztu aurretik adimen eta arrazoimen hutsaren ezagutzaren zientzia baten ideia sortzen dugu objektuak erabat a priori pentsatzeko, baina ez adigaiok hutsak edo sentsuzkoak diren begiespenak balira bezala, baizik eta pentsatze hutsaren ekintzak diren aldetik, eta beraz, adigaiak direnak, nahiz eta ez jatorri enpirikokoak, ezta estetikoak ere ez izan. Ezagutza horien jatorria, hedapena eta baliotasun objektiboa determinatuko litzukeen halako zientziak *Logika transzendentala* izena beharko luke, adimenaren eta arrazoimenaren legeak soilik baitira bere autugaia, baina apriorizko objektuei lotzen zaizkien heinean besterik ez, eta ez Logika orokorraren gisa ezagutza enpirikoei eta arrazoimen hutsaren ezagutzei lotuz bereizketarik gabe.

III

Logika orokorraren sailketaz Analitikan eta Dialektikan

Logikariak estualdian jartzen omen zituen galdekizun zahar eta sonatua, haiek, edo dialektiko txiro bati heldu behar izatera, edo beren ezagutza-gabezia eta beren antze osoaren hutsaltasuna berrezagutu behar izatera behartzen zituen galdekizuna, hau da: *Zer da egia?* Egiaren izen-definizioa, hots, ezagutza bere objektuarekin bat etortzea, hemen onartu eta aurreuposatu egiten da; baina eskatzen dena ezagutza bakoitzaren egiaren irizpide orokorra eta segurua jakitea da.

Jadanik azkartasunaren eta ikuskeraren froga handia eta berezia da arrazoizko galdekizuna zein den jakitea. Izan ere, galdekizuna bere baitan burugabea bada eta behargabeko erantzunak eskatzen baditu, orduan bera egiten duena lotsatzeaz gain beste eragozpena ere badauka, alegia, entzule babesgabea erantzun burugabeetara desbideratzea eta halako irudi barregarria ematea: batek akerra jezten duela, besteak azpian baheari eusten dion bitartean (antzinakoek zioten legez).

Egia ezagutza bere objektuarekin ados jartzean baldin badatza, orduan horren bitartez objektu hori besteetatik bereizi behar da; izan ere, ezagutza bat faltsua da bera lotzen zaion objektuarekin ados ez badago, beste objektuez ederki balio lezakeen zerbait barnebidu arren. Hortaz, egiaren irizpide orokorra objektuen bereizketarik egin gabe ezagutza oroz balioko lukeena litzateke. Hala ere, bertan ezagutzaren eduki oroz abstrahitzen denez gero (bere objektuarekin harremanaz), eta egiak eduki hori zuzenki ukitzen duenez gero, argi dago, hortaz, ezin-ezinezkoa eta erabat burugabea dela ezagutzaren eduki horren egiaren ezaugarriaz galdetzea, eta beraz, ezinezkoa dela egiaren ezagugarri gogobetegarria baina aldi berean orokorra dena eman ahal izatea. Gorago jadanik ezagutza baten edukiar bere materia deitu diogunez gero, orduan zera esan behar da: ezin dela ezagugarri orokorrik eskatu ezagutzaren egiaz materiari dagokionez, hau bere baitan kontraesankorra baita.

Hala ere, argi dago orobat ezagutzaz bere formari dagokionez (eduki oro baztertuz): Logika batek adimenaren erregela orokorrak eta beharrezkoak aurkeztu dituen heinean, erregela beraietan egiaren irizpideak aurkeztu behar dituela. Izan ere, hauek kontraesaten dituen faltsua da, zeren, orduan, adimenak pentsatzearen bere erregela orokorrak, eta beraz, bere burua kontraesaten baitu. Irizpide hauek, ordea, egiaren formari buruzkoak baino ez dira, h. d., pentsatzearen formari buruzkoak oro har, eta hainbestez, erabat zuzenak dira, ez, ordea, gogobetegarriak. Izan ere, ezagutza bat guztiz forma logikoaren arabera bada ere, h. d., honek bere burua kontraesango ez balu ere, orduan beti ere objektuak kontraesan ditzake. Beraz, egiaren irizpide logiko soilak, hots, ezagutza batek adimenaren eta arrazoimenaren lege orokorrekin eta formalekin duen adostasuna, egia ororen *conditio sine qua non* da, eta beraz, baldintza negatiboa da, baina Logikak ezin du haruntzago joan eta formari ez baina edukiar dagokion errakuntza ezin du ezein frogarriren bidez aurkitu.

Logika orokorrak adimenaren eta arrazoimenaren zeregin formal guztiak bere osagaietan xehetzen ditu eta gure ezagutzaren juzgaketak logiko ororen printzipio gisa aurkeztu ditu. Logikaren zati honek, beraz, Analitika izena jaso dezake, eta horregatik, negatiboki bederen, egiaren frogarria osatzen du, aldeztu aurretik ezagutza oro bere formaren arabera erregela hauei dagokienez etsaminatu eta balioztatu behar duen heinean, bere edukiararen arabera aztertu aurretik, horrela ezagutzak objektuari dagokionez egia positiborik barnebiltzen ote duen zehazteko. Hala ere, ezagutzaren forma soilak, honek lege logikoekin bat egin badezake ere, ezagutzaren egia materiala (objektiboa) osatzeko aski ez denez gero, orduan inor ezin da ausartu Logikaren eskutik soilik objektuez juzgatzera eta zerbait baieztatzerako, aldeztu aurretik beraietatik abiatuta Logikatik at ongi oinarritutako informazioa lortu gabe, honela ondoren bere erabilera eta elkarlotura osoki elkartu batean lege logikoen arabera sailatzeko edo, oraindik hobeto, hauek haien arabera etsaminatzeko bederen. Hala eta guztiz ere, gure ezagutza orori adimenaren forma emateko hain itxurazko antzean hain tentagarria den zerbait dago, bere edukiar begira kaskala eta txiroa izan daitekeen arren, ezen juzgatzeko *kanon* soilak den Logika orokor hura, nolabait esateko, baieztapen objektiboen edo gutxienez horren

itxurapenaren benetako sorkuntzarako *organon* gisa erabiltzen baita, eta beraz, horren bitartez egitatean gaizki erabilia baita. Logika orokorrak, ustezko organona den aldetik, *Dialektika* izena du.

Antzinakoek zientzia edo antze honen izendapen hau erabiltzean berari ematen zioten esanahia hain ezberdina izan daitekeen arren, dena dela, beren benetako erabilerak seguru erakusten du beraientzat *itxuraren Logika* besterik ez zela. Beren ezjakintasunari, baita beren asmatutako itxurapenei ere egiaren antza emateko antze sofistikoa zen, Logikak oro har ezartzen duen zehaztasunaren metodoa kopiatzen zuen eta bere topika asmo hutsal oro estaltzeko erabiltzen zuen antzea. Hau aipa daiteke oharpen seguru eta erabilgarri gisa: Logika orokorra *organon gisa kontsideratuz gero*, beti itxuraren Logika dela, h. d., dialektikoa dela. Izan ere, ezagutzaren edukiaz ezer irakasten ez digunez, aitzitik, adimenarekiko adostasunaren baldintza formalak besterik ez dizkigunez irakasten, gainerakoan objektuei begira erabat axolagabeak diren baldintzak, hortaz, hura ezagupenak ustez behintzat hedatzeko eta gehitzeko tresna gisa (organon) erabiltzeko handiustea edozer gauza egia-itxura pixka batekin baieztatzeko edo apetzat ukatzeko hitzontzikeria besterik ez da bihurtzen.

Halako irakaspena ez dagokio inolaz ere Filosofiaren duintasunari. Eta horregatik, Dialektikaren izendapen hori Logikari ematea hobetsi da, hau *itxura dialektikoaren kritika* den aldetik, eta hemen ere hala ulertua izan dadila nahi dugu.

IV

Logika transzendentalaren sailkaketa Analitika eta Dialektika transzendentalean

Logika transzendental batean adimena bakartzen dugu (lehenago Estetika transzendentalean sentimena bakartzen genuen bezala) eta gure ezagutzetatik bere jatorria adimenean soilik duen pentsatzearen zatia ateratzen dugu. Ezagutza huts honen erabilera, ordea, honetan funtsatzen da bere baldintza gisa: guri begiespenean objektuak emanak izatea, ezagutza hauei aplikatu ahal izateko. Izan ere, begiespenik gabe gure ezagutza orori objektuak falta zaizkio, eta beraz, ezagutzak erabat kaskala dirau. Batetik adimenaren ezagutza hutsaren osagaiak eta bestetik objektuak pentsatu ahal izateko beharrezko printzipioak azaltzen dituen Logika transzendentalaren zatia Analitika transzendentala da, eta hau, aldi berean, egiaren Logika bat da. Izan ere, ezein ezagutzak ere ezin du bera kontraesan aldi berean eduki oro galdu gabe, h. d., objekturen batekin duen harreman oro, eta beraz, egia oro galdu gabe. Hala ere, adimenaren ezagutza hutsa eta oinarri-esakuneak bakarrik eta gainera esperientziaren mugez goiti erabiltzea oso erakargarria eta tentagarria denez gero, esperientzia besterik ez izan arren materia (objektuak) eskura eman diezakegun bakarra, zeinari adimenaren adigai huts haiek aplika dakizkiokeen, bada, orduan adimena arrazoikeria hutsen bitartez adimen hutsaren printzipio formal soilen erabilera material bat egiteko eta eman ez zaizkigun eta agian inolaz ere eman ezin zaizkigun objektuez bereizketarik egin gabe juzgatzeko arriskuan gertatzen da. Benetan, beraz, erabilera enpirikoaren juzgaketaren kanona besterik izan beharko ez lukeenez gero, orduan gaizki erabiltzen da, baldin eta erabilera orokor eta zedarrigabe baterako organon gisa onartzen bada eta adimen hutsarekin bakarrik oro harrezko objektuez sintetikoki juzgatzera, baieztatzerara eta erabakitzerara ausartzen bada. Adimen hutsaren erabilera, beraz, dialektikoa litzateke honenbestez. Logika transzendentalaren bigarren zatiak, beraz, itxura dialektiko horren kritika izan behar du eta Dialektika transzendentala izena du, ez itxura hori dogmatikoki iradokitze antze gisa (tamalez ameslan metafisiko anizkunen antze oso arrunta dena), baizik eta, adimenaren eta arrazoimenaren kritika den aldetik, bere erabilera hiperfisikoari begira honen handiuste oinarrigabeen itxura faltsua azalarazteko eta oinarri-esakune transzendental soilen bidez lortzen omen duen asmakuntzaren eta hedapenaren bere uzia juzgaketa soilera eta adimen hutsak itxurapen sofistikoaren aurka duen babesera behetitzeko.

Logika transzendentalarren

Lehen saila

Analitika transzendentala

Analitika honek gure apriorizko ezagutza osoa adimenaren ezagutza hutsaren osagaietan analizatzen du. Hemen, ondoko puntuak lantzen dira: 1. Adigaiak hutsak direla, eta ez enpirikoak; 2. Hauek ez begiespena, ezta sentimenari ere ez dagozkiela, baizik eta pentsatzeari eta adimenari; 3. Funtsezko adigaiak direla, eta beraietatik eratorritakoetatik edo elkartutakoetatik ongi bereizten direla; 4. Beren taula osoa dela eta honek adimen hutsaren alor osoa erabat jasotzen duela. Halere, zientzia baten osotasuna ezin da onartu konfiantzaz saialdien bitartez soilik lortu den agregatu baten taxuketa dela eta; horregatik, hau apriorizko adimen-ezagutzaren *osokiaren ideia*ren bitartez eta bertatik abiatuta determinatzen diren eta bera osatzen duten adigaien sailkapenaren bitartez baino ez da ahalgarria, eta beraz, *sistema batean* duen *bilkuraren bitartez besterik ez*. Adimen hutsa enpirikoa den orotatik ez ezik, sentimen orotatik ere bereizten da osorik. Berez irauten duen, bere burua gogobetetzen duen eta kanpotik letorkeen eransketaz osatu ezin daitekeen batasuna da. Horregatik, bere ezagutza-multzoak ideia batean jasotzen eta determinatzen den sistema osatzen du, zeinaren osotasunak eta artikulazioak aldi berean bertan kokatzen diren ezagutza zati ororen zuzentasuna eta benekotasunaren frogarria eman dezakeen. Logika transzendentalarren zati oso hau bi *liburuz* osatzen da, bata, adimen hutsaren *adigaiak*, bestea, adimen hutsaren *oinarri-esakuneak* barnebiltzen dituen.

Analitika transzendentalarren

Lehen liburua

Adigaien Analitika

Adigaien Analitikaz ez dut ulertzen beren analisisa, ezta azterketa filosofikoez duten jardunbide arrunta ere, hots, azaltzen diren adigaiak beren edukiaren arabera analizatzeko eta argitzeko jardunbidea, baizik eta oraindik gutxi saiatu den *adimenaren ahalmen beraren analisisa*, honen bitartez apriorizko adigaien ahalgarritasuna ikertzeko, hauek adimenean soilik bilatuz, beren jaio-lekua den heinean, eta beren erabilera hutsa analizatuz oro har; izan ere, hau da Filosofia transzental baten zeregin bereizgarria; gainerakoa oro har Filosofian egiten den adigaien landualdi logikoa da. Beraz, adigai hutsei giza adimenean dituzten lehen ernamuin eta prestasunetaraino jarraituko gatzazkie, non adigaiok prest dirauten, harik eta, azkenean, esperientziarekin batera garatu eta, beraiei lotuak dauden baldintza enpirikoetatik aske, adimen beraren bitartez bere araztasunean aurkeztuak diren arte.

Adigaien Analitikaren

Lehen atalburua

Adimenaren adigai huts guztien aurkikuntzaren gida-hariaz

Ezagumena abian jartzean, aukera ezberdinetan adigai ezberdinak nabarmentzen dira, ahalmena ezagugarria bihurtzen duten eta gutxi gorabehera xehea den zerrenda batean bil daitezkeen adigaiak, behaketa luzeagoa edo sarkortasun handiagokoa egin ondoren. Ezin determina daiteke inoiz segurtasunez metodo mekaniko honen arabera, nolabait esateko, azterketa hau non osatuko den. Horrela, noizbehinka aurkitzen diren adigaiak ez dute ezein ordenarik eta batasun sistematikorik, azkenean antzekotasunen arabera parekatzen dira eta bakunenetik hasita elkarketa gehien duenera arte ilaran jartzen dira edukiaren handitasunaren arabera, eta ondorioz, ilarak ez dira batere sistematikoak, nolabait metodikoki eratu badira ere.

Filosofia transzendentalak bere adigaiak printzipio baten arabera bilatzeko abantaila dauka, baita obligantza ere; zeren hauek adimenetik huts-hutsik eta nahasi gabe sortzen baitira, hau batasun absolutua den aldetik, eta horregatik, adigai edo ideia baten arabera bilduta egon behar baitute. Halako bilkura batek, ordea, erregela bat ematen du eskura, eta berari jarraiki adimenaren adigai huts bakoitzari bere kokalekua eta denei osotara beren osotasuna determina dakieke, baina bestela balitz, hau dena apetaren edo beharbadakoa besterik ez denaren menpean legoke.

Adimenaren adigai huts guztien aurkikuntzaren gida-hariaren

Lehen atala

Adimenaren erabilera logikoaz oro har

Adimena lehenago negatiboki besterik ez zen definitu: sentsuzkoa ez den ezagumen gisa. Baina ezin dugu begiespenik izan sentimenetik beregainki. Beraz, adimena ez da begiespenaren ezein ahalmenik. Begiespenetik at, ordea, ez dago adigaien bidezkoa baino beste ezagutzeko erarik. Beraz, halako adimen baten ezagutza, giza adimen batena bederen, adigaien bidezko ezagutza da, ez intuitiboa, diskurtsiboa baizik. Begiespen oro, sentsuzkoa denez, afekzioetan funtsatzen da, adigaiak, berriz, funtzioetan. Funtzioaz, ordea, zenbait errepresentazio komuna den errepresentazio batean ordenatzeko ekintzaren batasuna ulertzen dut. Adigaiak, beraz, pentsatzearen berezkotasunean oinarritzen dira, sentsuzko begiespenak, bestalde, zirrararen harmenean. Adimenak adigai hauek beren bitartez juzgatzeko baino ezin ditu erabili. Begiespena ez den beste ezein errepresentaziok objektuekin zuzenki zerikusirik ez duenez gero, orduan adigai bat inoiz ez zaio lotzen zuzenki objektu bati, bere beste errepresentazio bati baizik (hau begiespena nahiz jadanik adigaia izanda ere). Judizioa, beraz, objektu baten zeharbidezko ezagutza da, eta beraz, bere errepresentazio baten errepresentazioa. Judizio bakoitzean askorentzat balio duen adigaia dago eta asko hauen artean zuzenki objektuari lotzen zaion errepresentazio jakin bat jasotzen du. Horrela, adibidez, «*gorputz oro aldagarria da*» judizioan zatigarriaren adigaia beste adigai ezberdinei lotzen zaie, hauen artean, ordea, hemen bereziki gorputzaren adigaiari, eta hau, berriz, guri azaltzen zaizkigun agerpen jakinei. Beraz, objektu hauek zeharbidez errepresentatzen dira zatigarritasunaren adigaiaren bitartez. Honenbestez, judizio guztiak errepresentazioen arteko batasunaren funtzioak dira, zeren errepresentazio zuzen baten ordean hau eta beste gehiago bere menpean biltzen dituen *goragoko* errepresentazioa erabiltzen baitu objektuaren ezagutzarako, eta horren bitartez ezagutza ahalgarri asko ezagutza batean lotzen dira. Adimenaren ekintza guztiak, ordea, judizioetan bil daitezke, eta ondorioz, *adimena juzgatzeko ahalmen* gisa aurkez daiteke oro har. Izan ere, gorago aipatutakoari jarraiki pentsatzeko ahalmena da. Pentsatzea adigaien bidez lortutako ezagutza da. Adigaiak, ordea, judizio ahalgarrien predikatuak direnez, oraindik indeterminatua dirauen objektuaren errepresentazioari lotzen zaizkio. Horrela, gorputzaren adigaiak adigai haren bitartez ezagutua izan daitekeen zerbait esan nahi du, adibidez, metala. Bere baitan beste errepresentazioak barnebiltzen direlako besterik ez da adigaia, eta errepresentazio hauen bitartez jo dezake objektuetara. Beraz, judizio ahalgarri baterako predikatua da, adibidez, «*metal bakoitza gorputz bat da*». Adigaiak, beraz, osotara aurki daitezke, baldin eta judizioetako batasunaren funtzioak konplutuki aurkez badaitezke. Hau egin daitekeela, ordea, datorren atalak jarriko du agerian.

Adimenaren adigai huts guztien aurkikuntzaren gida-hariaren

Bigarren atala

§ 9

Adimenak judizioetan duen funtzio logikoaz

Judizio baten eduki guztiaz abstraitzen badugu oro har eta arreta adimenaren forma hutsari eskaintzen badiogu, orduan bertako pentsatzearen funtzioa lau izenburupean jar daitekeela aurkitzen dugu, hauetako bakoitzak hiru une biltzen dituela. Egokiro aurkez daitezke ondorengo taulan.

	1.	
		<i>Judizioen kantitatea.</i>
		Orokorra
		Partikularra
		Singularra
2.	3.	
<i>Kualitatea</i>	<i>Erlazioa</i>	
Baieztailea	Kategorikoa	
Ezeztailea	Hipotetikoa	
Amaigabea	Disjuntiboa	
	4.	
		<i>Modalitatea</i>
		Problematikoa
		Asertorikoa
		Apodiktikoa

Sailkaketa hau funtsezkoak ez diren puntu batzuetan logikarien ohiko teknikatik bereizten dela dirudienez gero, orduan datozen oharpenak ez dira alferrikakoak izango gaizki-ulertze arduratsuei aurre egiteko unean.

1. Logikariek bidezki diote arrazoimen-inferentzietan egiten den judizioen erabileran judizio singularrak orokorren era berean trata daitezkeela. Izan ere, hedapenik ez dutenez gero, beren predikatuak ezin zaizkie subjektuaren adigaian barnebilduta dagoen zati bati lotu eta besteetatik at geratu. Adigai honentzat balio du salbuespenik gabe, beraz, adigai hau orokorki baliogarria balitz bezala, alegia, bere esanahi osoaz balio duen predikatuaren hedapena lukeen adigaia. Bestalde, judizio singularra orokorki baliogarria denarekin ezagutza soil gisa alderatzen badugu handitasunari dagokionez, orduan hark honekin batasunak amaigabetasunarekin jokatzeko duen bezala jokatzeko du, eta beraz, bere baitan judizio orokorretik ezberdintzen da funtsean. Beraz, judizio singularra (judicium singulare) bere barneko balioaren arabera ez ezik, oro har ezagutza den aldetik ere beste ezagutzekin alderatuz duen handitasunaren arabera balioztatzen baldin badut, orduan, hala ere, baliogarritasun orokorreko judizioetatik (judicia communia) ezberdintzen da, eta oro harrezko pentsatzearen uneen taula osatuan kokapen berezia merezi du (nahiz eta ez, noski, judizioen elkarren arteko erabilerara zedarritzatzen den Logika batean).

2. Era berean, Logika transzendental batean *judizio amaigabeak baieztaileetatik* bereizi behar dira, nahiz eta Logika orokorrean bidezki haiek hauekin bat egin eta sailkaketaren osakide berezirik ez osatu. Logika orokorrak, beraz, predikatuaren eduki oroz abstraitzen du (nahiz eta ezeztailea izan), eta honetaz besterik ez da arduratzen: ea predikatua subjektuari egozten zaion edo berari kontrajartzen zaion. Logika transzendentalak, ordea, judizioa kontsideratzen du, eta baieztapen logiko honen balioaren edo edukiaren arabera egiten du predikatu ezeztaile soil baten bitartez, eta honek ezagutza osoari begira sortzen duen irabazia ere kontsideratzen du. Arimaz hilgarria ez dela esango banu, orduan judizio ezeztaile baten bitartez errakuntza bat saihestu ahal izango nukeen bederen. «Arima ez da hilgarria» esakunearen bitartez benetan baiezkatu egiten dut forma logikoaren arabera, arima zerizan ez-hilgarrien lurralde zedarrigabea ezartzen dudana heinean. Zerizan ahalgarrien lurralde osoan hilgarriak zati bat barnebiltzen duenez gero, ez-hilgarriak, ostera, bestea, orduan nire esakunearen bitartez hilgarria dena osoro kentzen baldin badut, arima oraindik dirauten gauzen kopuru amaigabearen barne kokatzen dela besterik ez dut esaten. Honen bitartez besterik ez da zedarritzatzen, ordea, ahalgarria den guztia esferaren amaigabea, eta ondorioz, hilgarria dena bertatik bereizi eta arima bere zabaleraren gainerako espazioan ezartzen da. Espazio honek, ordea, kenketa honekin ere beti amaigabe dirau, eta bere zati gehiago ken daitezke arimaren adigaia horregatik deusik ere zabaldu gabe eta era baieztailean determinatu gabe. Hedapen logikoari begira amaigabeak diren judizio hauek, beraz, benetan zedarritzatzaileak dira oro harrezko ezagutzaren edukiari begira, eta beraz, ezin dira aipatu gabe utzi judizioetako pentsatzearen une guztien taula

transzendentalean, zeren hemen aplikatutako adimenaren funtzioa bere apriorizko ezagutza hutsaren alorrean agian garrantzitsua izan baitaiteke.

3. Pentsatzeak judizioetan dituen hartueman guztiak hauek dira: a) predikatuak subjektuarekin duena, b) oinarriak ondorioarekin duena, c) ezagutza sailkatuak eta sailkaketaren osakide batuek elkarren artean dutena. Judizioen lehen eran bi adigai besterik ez daude, bigarrenean, bi judizio, hirugarrenean, elkarren arteko hartuemanean kontsideratutako hainbat judizio. «Benetako justizia betegina baldin badago, orduan iraunkorki gaiztoa denak zigorra jasoko du» esakune hipotetikoak benetan bi esakuneen hartuemana barnebiltzen du: justizia betegina dago eta iraunkorki gaiztoa denak zigorra jasoko du. Hemen erabaki gabe geratzen da ea bi esakuneak beren baitan egiazkoak ote diren. Ondorioa baino ez da judizio honen bitartez pentsatzen dena. Azkenik, judizio disjuntiboak bi edo esakune gehiagoren arteko hartuemana barnebiltzen du, baina ez ondoriozkoa, baizik kontrajarpen logikoarena, baten esferak bestearena baztertzen duen heinean, aldi berean, ordea, komunitatearen hartuemana, biak batera benetako ezagutzaren esfera betetzen duten heinean, eta beraz, ezagutza baten esferen zatien hartueman bat betetzen duten heinean, zati bakoitzaren esfera beste esferaren zati osogarria izaki ezagutza sailkatuaren multzo osorako, adibidez, mundua edo ausa itsuaren bidez da, edo barneko beharrezkotasunaren bidez, edota kanpoko kausa baten bidez. Esakune hauetako bakoitzak munduaren izateari buruzko ezagutza ahalgarriaren esferaren zati bat hartzen du oro har, eta denak batera, esfera osoa. Ezagutza-esfera hauetako batetik kentzeak bestean ezartzea esan nahi du eta esfera batean ezartzeak gainerakoetatik kentzea. Judizio disjuntiboan, beraz, ezagutzen komunitate jakin bat dago, ezagutzen elkarren bazterketaz osatzen dena, baina horren bitartez *osotara* egiazko ezagutza determinatzen dutela, elkar hartuta ezagutza jakin bakar baten eduki osoa osatzen duten heinean. Eta hemen hau besterik ez da oharrarazi behar datorrenari begira.

4. Judizioen modalitatea hauen funtzio berezi-berezia da, bere baitan bereizgarri hau duena, alegia, ez diola ezer gehitzen judizioaren edukari (zeren kantitatea, kualitatea eta hartuemanaz gain ez baitago judizio baten edukia osatzen duen besterik), baizik eta kopularen balioak oro har pentsatzearekin duen harremanarekin baino ez du zerikusia. Judizio *problematikoak* baieztatzea edo ezeztatzea *ahalgarrizat* (apetaz) besterik onartzen ez dituzten judizioak dira. *Asertorikoak*, *errealizat* (egiazkotzat) kontsideratzen dituztenak. *Apodiktikoak*, *beharrezkotzat* jotzen dituztenak⁴⁹. Horrela, bere hartuemanean judizio hipotetikoa osatzen duten bi judizioak (antecedens eta consequens), eta era berean beren elkarrekintzan disjuntiboa osatzen dutenak (sailkaketaren osakideak), osotara problematikoak besterik ez dira. Aurreko adibidean «justizia betegina dago» esakunea ez da asertorikoki esan, baizik eta norbaitek onartzea gerta litekeen apetazko judizio gisa baino ez da pentsatu, eta ondorioa besterik ez da asertorikoa. Horregatik, halako judizioak nabarmenki faltsuak izan daitezke, baina problematikoki hartuta egiaren ezagutzaren baldintzak dira. Horrela, «*mundua ausa itsuaren bidez da*» judizioak, judizio disjuntiboan esanahi problematikoa besterik ez du, hots, norbaitek une batez esakune hau onar lezakeela, eta hala ere, egiazko esakunea bilatzeko balio du (har daitezkeen bide guztien artean faltsua erakusteak laguntzen duen bezala). Esakune problematikoa, beraz, (objektiboa ez den) ahalgarritasun logikoa baino adierazten ez duena da, h. d., halako esakunea onartzeko aukera askea, bere hautazko onarpen soila adimeneari. Esakune asertorikoak errealitatea edo egia logikoa adierazten du, adibidez, arrazoimen-inferentzia hipotetiko batean aurrekaria premisa nagusian problematikoki, premisa txikian, berriz, asertorikoki agertzen dela, eta esakunea jadanik adimenari lotua dagoela erakusten du honen legeen arabera, eta esakune apodiktikoak asertorikoa adimenaren lege horien bitartez determinatua pentsatzen du, eta horregatik a priori baieztatzen du, eta honela beharrezkotasun logikoa adierazten du. Hemen adimenari dena mailaka eransten zaionez gero, lehenik zerbait problematikoki juzgatuz, gero asertorikoki egiazkotzat onartuz, eta azkenik adimenari bereiztezinki lotuta, h. d., beharrezkotzat eta apodiktikotzat baieztatuz, orduan modalitatearen hiru funtzio hauei oro harrezko pentsatzearen beste hainbeste une dei diezaike.

Adimenaren adigai huts guztien aurkikuntzaren gida-hariaren

Hirugarren atala

§ 10

Adigai hutsez edo kategoriez

Logika orokorrak ezagutzaren eduki oroz abstraitzen du, sarri esan den legez, eta errepresentazioak beste nonbaitetik emango zaizkiola itxaroten du, edonondik izanda ere, honela hauek lehenik adigaietan eraldatzeko, analitikoki gertatzen dena. Aitzitik, Logika transzendentalak Estetika transzendentalak eskaintzen dion sentimenaren apriorizko anizkuntia dauka bere aurrean adimenaren adigai hutsei ekaia emateko, zeinak ekairik gabe edukirik gabekoak, eta beraz, erabat kaskalak liratekeen. Espazioak eta denborak apriorizko begiespen hutsaren anizkuntia barnebiltzen dute, baina era berean gure gogamenaren harmenaren baldintzak ere badira, eta honelako baldintzapean soilik jaso ditzake gogamenak objektuen errepresentazioak, eta beraz, hauek beti objektuen adigaia afektatu behar dute. Hala ere, gure pentsatzearen berezkotasunak anizkunki hori aldeztu aurretik nolabait zeharkatua, jasoa eta lotua izatea eskatzen du, bera ezagutza bihurtzearen. Ekintza honi sintesia deitzen diot.

*Sintesi*az, ordea, bere esanahi orokorrean, hainbat errepresentazio elkarri eransteko eta beren anizkuntasuna ezagutza batean biltzeko ekintza ulertzen dut. Halako sintesia *hutsa* da, baldin eta anizkuntia enpirikoki ez, baina a priori emana bada (espazioan eta denboran emana den legez). Gure errepresentazioen analisi oro egin baino lehenago hauek emanak izan behar dira, eta ezein adigai ezin da analitikoki sortu *edukiari dagokionez*. Anizkunki honen sintesiak (enpirikoki edo a priori emana dela ere), ordea, ezagutza bat sortzen du, hasieran zakarra eta nahasia izan daitekeena, eta beraz, analisisa behar duen ezagutza; baina sintesia da benetan osagaiak ezagutzetan bildu eta eduki jakin batzuetan bateratzen dituen; berari eskaini behar diogu, beraz, gure arreta lehenik, gure ezagutzaren lehen jatorriaz juzgatu nahi baldin badugu.

Oro harrezko sintesia irudimenaren efektua da, aurrerago ikusiko dugun legez, arimaren funtzioitsu baina ezinbesteko baten efektua, beraz, eta bera gabe ez guke ezein ezagutzarik izango, nahiz eta funtzio honetaz, dena dela, nekez garen kontziente. Halere, sintesi hori *adigaietan* biltzea adimenari dagokion funtzioa da, eta horren bitartez ematen digu hark lehen-lehenik ezagutza benetako esanahian.

Sintesi hutsak, *orokorki errerepresentatuta*, adimenaren adigai hutsa eskuratzen du. Baina sintesi honetaz a priori batasun sintetikoaren oinarrian funtsatzen dena ulertzen dut; horrela, gure zenbaketa *adigaien arabera sintesia* da (bereziki zenbaki handiagoetan oihartzun dena), batasunaren oinarri komun baten arabera gertatzen baita (adibidez, hamarrekoa). Adigai honen menpean, beraz, anizkunkiaren sintesian dagoen batasuna beharrezkoa bihurtzen da.

Adigai bati hainbat errepresentazio *menperatzen zaizkio* analitikoki (Logika orokorrak lantzen duen zeregina). Hala ere, errepresentazioak ez, baina errepresentazioen *sintesi hutsa* adigaietan biltzea da Logika transzendentalak irakasten duena. Objektu ororen ezagutzaren mesedetan a priori eman behar zaigun lehen gauza begiespenaren *anizkunki* hutsa da; irudimenaren bidezko anizkunki honen *sintesi* da bigarrena, baina honek ez du oraindik ezagutzarik eskuratzen. Sintesi huts honi *batasuna* ematen dioten eta beharrezko batasun sintetiko honetaz soilik osatzen diren adigaiek besterik ez dute osatzen balizko objektuaren ezagutzarako hirugarren unea, eta hauek adimenean funtsatzen dira.

Hainbat errepresentaziori *judizio batean* batasuna ematen dien funtzio berak ematen dio, era berean, hainbat errepresentazioen sintesi soilari batasuna *begiespen batean*, eta funtzio honek adimenaren adigaia izena du orokorrean adierazita. Adimen berbera da, beraz, eta gainera adigaietan batasun analitikoaren eskutik judizio baten forma logikoa bideratzen duen ekintza berberen bitartez, era berean bere errepresentazioetan eduki transzendental sartzen duena begiespenaren anizkunkiaren batasun sintetikoaren bidez, eta horregatik izena dute hauek adimenaren adigai hutsak, a priori objektuetara jotzen dutenak, eta hau ezin du Logika orokorrak egin.

Honela, goragoko taulan judizio ahalgarri orotan zeuden funtzio logikoak adina adimenaren adigai huts sortzen dira, a priori begiespenaren oro harrezko objektuetara jotzen dutenak; izan ere, aipatutako funtzio horiek adimena erabat osorik biltzen dute eta bere ahalmena osoki neurtzen dute. Adigai hauei *kategoriak* deitu nahi diet Aristotelesi jarraiki, gure asmoa jatorriz bere asmo berbera den heinean, egikaritzan asko ezberdintzen bada ere.

Kategorien taula

1.

Kantitatearenak:

Batasuna

Askotasuna

Orotasuna

2.

Kualitatearenak:

Errealitatea

Ukapena

Murritzapena

3.

Erlazioarenak:

Inherentzia eta subsistentzia

(*substantia et accidens*)

Kausalitatea eta menpekotasuna

(*kausa eta efektua*)

Komunitatea (ekilearen eta

jasalearen arteko elkarreragina)

4.

Modalitatearenak:

Ahalgarritasuna- *Ahalezintasuna*

Izatea- *Ez izatea*

Beharrezkotasuna- *Beharbadakotasuna*

Hau da, beraz, jatorriz hutsak diren eta adimenak bere baitan a priori barnebiltzen dituen adigai guztien sintesiaren zerrenda, eta adigai hauen bitartez besterik ez da bihurtzen bera ere adimen hutsa, honek begiespenaren anizkunkia adigai haien bitartez soilik uler dezakeen heinean, h. d., bere objektu bat pentsa dezakeen heinean. Saillaketa hau sistematikoki egin da printzipio komun batetik abiatuta, hots, juzgatzeko ahalmenetik abiatuta (pentsatzeko ahalmena adina dena), eta ez da sortu rapsodikoki edonola ekindako adigai hutsen bilaketari esker, zeinaren zenbaki osoaz inoiz ezin gaitezkeen ziur izan, indukzioaren bidez baino ez baitira inferitzen, ohartu gabe azken era honetara inoiz ez dela ulertzen ea zergatik dauden adimenean adigai huts hauek eta ez beste batzuk. Oinarritzko adigai hauek bilatzea *Aristotelesen* proiektua zen, gizon buruargi baten duineko proiektua. Hala ere, ezein printzipiorik ez zuenez, agertzen zitzaizkion moduan bildu zituen, eta hasieran oinarritzko hamar adigai aurkitu zituen, *kategoriak* (predikamentuak) izendatu zituenak. Jarraian beste bost bilatu zituela uste izan zuen, postpredikamentuen izenarekin gaineratu zituenak. Hala ere, bere taulak oraindik ezosoa zirauen. Horrez gain, sentimen hutsaren zenbait modi daude bertan (quando, ubi, situs, halaber, prius, simul), baita enpirikoa den bat ere (motus), adimenaren jatorri-errolda honi egokitzen ez zaizkionak; gainera, eratorritako adigaiak oinarritzkoekin batera jasotzen dira (actio, passio), eta azken hauetako batzuk, berriz, erabat falta dira.

Hau oharrarazi behar da oraindik azken hauei dagokienez: kategoriek, adimen hutsaren egiazko *jatorri-adigaiak* diren aldetik, *eratorritako adigai* hutsak ere badituztela, Filosofia transzendentalaren sistema batean alde batera utzi ezin direnak, nahiz eta saialdi kritiko soil batean beren aipamen soila egitea aski izan.

Baimen bekit eratorritakoak baina hutsak diren adimenaren adigai hauei adimen hutsaren *predikagarriak* deitzea (predikamentuei kontrajarriz). Behin jatorritzko lehen adigaiak edukiz gero, eratorritakoak eta menpekoak erraz erants daitezke, eta adimen hutsaren jatorri-zuhaitza osorik marraz daiteke. Nire autugaia hemen sistemaren osotasuna ez, baina sistema baterako printzipioak direnez gero, orduan eransketa hau beste jardunaldi baterako uzten dut. Hala ere, asmo hau kasik lor daiteke Ontologiako eskola-liburuak eskuan hartu eta, adibidez, indarra, ekintza eta pairamenaren predikagarriak kausalitatearen kategoriari menperatuz; presentzia eta kontrajarpena komunitatearen kategoriari; sorkuntza, desagerketa, aldaketa, eta abar modalitatearen predikamentuei. Kategoriek apriorizko adigai eratorrien kopuru handia eskuratzen dute sentimen hutsaren modiei lotuz eta elkarren artean lotuz gero, eta adigai hauek oharraraztea eta ahal den heinean beren osotasunean zerrendatzea onuragarria den eta ezatsegina ez den ahalegina litzateke, hemen, ordea, utzigarria dena.

Kategoria hauen definizioak nahita uzten ditut alde batera tratatu honetan, ezagutu ahal baditut ere. Jarraian adigai hauek analizatuko ditut, baina hemen erabiltzen dudan metodoaren irakaspenarentzat aski den mailan besterik ez. Arrazoimen hutsaren sistema batean bidezki eskatu ahal izango litzaidake definizioa, baina hemen azterketaren puntu nagusitik desbideratzea soilik eragingo luke, eta honek zalantzak eta erasoak sortzen dituen bezala, hauek beste jardunaldi baterako utz daitezke funtsezko asmoari ezer kendu gabe. Hala eta guztiz ere, orain arte aipatutako gutxitik nabariki argitzen da hiztegi osoa egitea, horretarako beharrezko argipen guztiekin batera, ahalgarria ez ezik erraza ere balitzatekeela. Kokalekuak hor daude; haiek betetzea besterik ez da geratzen, eta halako topika sistematikoak adigai bakoitzari propioki dagokion kokapena erratzeko zailtzen du eta aldi berean errazki oharrarazten du oraindik hutsa dagoen kokalekua.

§1150

Kategorien taula honetaz kontsiderazio zuzenak egin daitezke, agian arrazoimen-ezagutza ororen forma zientifikoari begira ondorio garrantzitsuak izango lituzketen kontsiderazioak. Taula hau Filosofiaren zati teoretikoan erabat baliagarria dela, areago, ezinbestekoa ere badela adigaietan funtsatzen den *zientzia baten osotarako plana* konplutuki marrazteko eta bera *printzipio determinatuen arabera* matematikoki *sailkatzeko*, hemendik abiatuta argitzen da berenez: aipatutako taulak adimenaren oinarritzko adigai guztiak eta beren sistemaren forma ere adimenean barnebiltzen dituela, eta ondorioz, taulak lortu nahi dugun zientzia espekulatiboaren *une* oro eta bere *ordena* ere erakusten ditu, eta gainera, honen proba beste leku batean eman dut⁵¹. Hemen dira, beraz, ohar horietako batzuk.

Lehenengoak zera dio: adimenaren adigaien lau klase barnebiltzen dituen taula hau lehenik bi sailetan bana daitekeela, lehena, begiespenaren objektuei buruzkoa (hutsei zein enpirikoei buruzkoa), eta bigarrena, objektu hauen existentziari buruzkoa (beren arteko harremanean edo adimenarekin harremanean).

Lehenengo klaseari kategoria *matematikoena* deituko nioke, bigarrenari, *dinamikoena*. Lehenengo klaseak ez du ezein korrelatorik, nabaria denez; hauek bigarren klasean baino ez dira aurkitzen. Bereizketa honek, ordea, adimenaren izaera izan behar du bere oinarria.

2. *oharra*. Beti klase bakoitzeko kategorien zenbakia berbera izateak, hots, hiru izateak, gogoetatza bultzatzen du, zeren arrunki a priori adigaien bidez egindako sailkaketa orok dikotomia bat izan behar baitu. Gainera, honi gehitu behar zaio hirugarren kategoria bere klaseko bigarrenak lehenarekin duen loturatik sortzen dela.

Horrela, beraz, *orotasuna* (totalitatea) ez da askotasuna batasun gisa kontsideratua baino; *murritzapena* ukapenarekin lotua dagoen errealitatea besterik ez; *komunitatea* beste substantziekin elkar determinazioan dagoen substantzia baten kausalitatea da; eta azkenik, *beharrezkotasuna* ahalgarritasunaren bitartez ematen den existentzia besterik ez da. Hala ere, ez da pentsatzen horregatik hirugarren kategoria adimen hutsaren eratorritako adigai soila denik, eta ez oinarritzkoa. Izan ere, hirugarren adigaia sortzen duen lehenaren eta bigarrenaren arteko loturak adimenaren ekintza berezia eskatzen du, lehenengoan eta bigarrengoan egiten denaren berbera ez den ekintza. Horrela, *zenbakiaren* adigaia (orotasunaren kategoriari dagokiona) ez da beti ahalgarria kopurua eta batasunaren adigaiak daudenean (adibidez, amaigabea denaren errepresentazioan), edo *kausaren* adigaia eta *substantziarena* lotzen baldin baditut, horretaz ez da berez ulertzen *eragina*, h. d., ea nola izan daitekeen substantzia bat beste substantzia bateko zerbaiten kausa. Hemendik abiatuta argitzen da horretarako adimenaren ekintza berezia behar dela; eta gauza bera gertatzen da gainerakoekin.

3. *oharra*. Kategoria bakar batez, hots, hirugarren izenburupean aurkitzen den *komunitateaz* soilik gertatzen da funtzio logikoen taulan dagokion judizio disjuntiboaren formarekin duen adostasuna gainerako kategorien kasuan bezain begibistakoa ez izatea.

Judizio disjuntibo orotan esfera (bere menpean barnebildua dagoen guztiaren kopurua) zatietan (menpeko adigaietan) banatutako osoki gisa errepresentatzen dela ohartu behar da adostasun hori segurtatzearen, eta bata besteen menpean barnebildua ezin izan daitekeenez gero, beren artean *koordinatuak* baleude bezala pentsatzen dira, ez *menperatuak*, eta gainera, ez *aldebakarki ilara* batean baleude bezala, baizik eta *elkar* determinatzen direla, *agregatu* batean gertatzen den legez (behin sailkaketaren osakide bat ezarritz gero, orduan gainerako denak baztertzen dira, eta alderantziz).

Gauzen osoki batean antzeko elkarlotura pentsatzen da, ez bata efektu gisa besteari bere izatearen kausa gisa *menperatzen* zaionean, baizik eta aldi berean eta elkarren kausa gisa bestearen determinazioari begira honekin *koordinatzen* denean (adibidez, gorpuzt batean bere zatiak elkar erakarri eta era berean kontrajartzen direla), eta hau kausaren eta efektuaren (oinarriaren eta ondorioaren) arteko hartueman soilean aurkitzen denaren erabat bestelako elkarlotura da, bertan ondorioak bere aldetik berriro oinarria ez baitu determinatzen, eta horregatik, ez baitu osoki bat osatzen berarekin batera (munduak bere sortzailearekin bezala). Adimenaren jardunbidea honek adigai sailkatu baten esfera errepresentatzen duenean gauza bat zatigarri gisa pentsatzeko erabiltzen duen jardunbide bera da, eta lehenengoan sailkaketaren osakideak elkarren artean baztertzen dira, esfera batean lotuak badaude ere, eta era berean adimenak zatiak hauei existentzia (substantzia gisa) gainerako zatietatik baztertuta tokatzen zaiela errepresentatzen ditu, baina, dena dela, osoki batean lotuta daudela.

§ 12

Antzinakoen Filosofia transzendentalean adimenaren adigai hutsak barnebiltzen dituen atalburua aurkitzen da oraindik, kategorien artean jasotzen ez badira ere haien iritziz objektuen apriorizko adigai gisa balio beharko luketen eta kasu honetan kategorien zenbakia handiagotuko luketen adigaiak, hain zuzen, ezinezkoa dena. Eskolastikoen artean sonatua zen esakuneak aurkezten ditu: «*Quolibet ens est unum, verum, bonum*». Egiatan, printzipio honen erabilera ondorioztapenei begira (esakune tautologiko soilak eskuratzen zituzten ondorioztapenei begira) oso txiroa bada ere, halako moldez, non garai berrietan kasik kortesiaz besterik ez baita aurkezten Metafisikan, dena dela, hainbeste denbora iraun duen pentsamenduak, hain kaskala den itxura badu ere, beti merezi du bere jatorriaren azterketa, eta oinarria adimenaren nolabaiteko erregelaren duela dioen susmoa legeztatzen du, faltsuki interpretatua besterik izan ez den oinarria, alegia, sarri gertatzen den legez. Gauzen ustezko predikatu transzendental hauek ez dira oro harrezko *gauzen ezagutza* ororen irizpide eta eskakizun logikoak baino, eta kantitatearen kategoriak ezartzen ditu bere oinarrian, hots, *batasuna*, *askotasuna* eta *orotasunaren kategoriak*, baina hauek berez materialki hartu beharrean, gauza beren ahalgarritasunari zegokion legez, egiatan beren esanahi formalean erabili ziren, ezagutza ororen eskakizun logikoari dagozkiola, eta horrez gain pentsamenduaren irizpidea berbaitango gauzen berekitasun bihurtu zuten, batere zuhurtziarik gabe jokatzuz. Objektuen ezagutza orotan adigaiaren *batasuna* dago, zeinari *batasun kualitatiboa* dei dakioken, honetaz ezagutzaren anizkunkiaren bilkuraren batasuna ulertzen baldin bada, adibidez, antzerki-lan baten gaiaren, hitzaldi baten, fabula baten batasuna. Bigarrenik, *egia* ondorioei begira. Zenbat eta egiazko ondorio gehiago sortu adigai jakin batetik, hainbat eta bere errealtate objektiboaren ezagugarri gehiago izango ditugu. Honi adigai bati oinarri komun gisa dagokion (ez bertan handitasun gisa pentsatzen den) ezaugarrien *askotasun kualitatiboa* dei dakioken. Azkenik, hirugarrenik, *betegintzarrea*, askotasun hori guztia batera adigaiaren batasunean biltzean datzana, eta honekin eta beste inorekin osorik bat egiten ez duena, eta honi *osotasun kualitatiboa* (totalitatea) dei dakioken. Hemendik abiatuta argitzen da oro harrezko ezagutzaren ahalgarritasunaren irizpide logiko hauek handitasunaren hiru kategoriak eraldatzen dituztela, zeinetan batasuna quantum-aren sorketan erabat homogeneouski onartu behar den, baina hemen *homogeneousak ez diren* ezagutza zatiak kontzientzia batean elkarlotzeko asmoz soilik onartzen direla ezagutza baten kualitatearen bitartez, hau printzipioa den aldetik. Horrela, adigai baten ahalgarritasunaren irizpidea (ez bere objektuarena) definizioa da, non adigaiaren *batasunak*, beretik erator daitekeen guztiaren *egiak*, eta azkenik, beretik atera daitekeen guztiaren *osotasunak* adigai osoaren sorketarako beharrezkoa dena osatzen duten; *hipotesi baten irizpidea* ere, onartutako *argipen-oinarria* edo bere *batasunaren* ulergarritasuna (hipotesi laguntzailerik gabe), bertatik eratorritako ondorioen *egia* (beren arteko eta esperientziarekin adostasuna), eta azkenik, ondorioei dagokienez, argipen-oinarriaren *osotasuna* dira hipotesian onartutakora bidaltzen gaituztenak, ez gehiagora, ezta gutxiagora ere, eta a priori sintetikoki pentsatua zegoena a posteriori analitikoki itzultzen digute, eta gainera, biak adostuz. – Beraz, batasuna, egia eta betegintzarrearen adigaien bitartez kategorien taula transzendental ez da batere osatzen, hura akasduna bailitzan, baizik eta beren jardunbidea ezagutza bere buruarekin ados jartzen duten erregela logiko orokorrekin menperatzen zaie, adigai hauek objektuekin duten hartuarena baztertzeko den heinean.

Analitika transzendentalaren

Bigarren atalburua

Adimenaren adigai hutsen dedukzioak

Lehen atala

§ 13

Dedukzio transzendental baten printzipioez oro har

Zuzenbide-irakasleek eskuduntzei eta handiusteei buruz hitz egiten dutenean zuzenbide kontuetan zuzena denaz galdekizuna (quid iuris) egitatea ukitzen duen galdekizunetik (quid facti) bereizten dute, eta bien froga eskatzen dutenez gero, orduan lehenari, eskuduntza edo zuzenbide-uzia aurkezten duenari, *dedukzioa* deitzen diote. Adigai enpirikoen kopuru handia erabiltzen dugu inoren aurkakotasunik gabe, eta dedukziorik egin gabe ere haiei zentzu eta esanahi irudikatua egozte sori zaigu, beren errealtate objektiboa frogatzeko esperientzia beti eskura baitugu. Hala ere, adigai usurpatuak ere badaude, *zoria*, *patua* eta antzekoak, ia tolerantzia orokorrari esker aske dabiltzanak, baina hauei ere quid iuris galdekizuna aplikatzen zaie, eta ez gara estualdi txikian aurkitzen beren dedukzioa dela-eta, ezin baita beren erabileraren eskuduntza nabaria bihurtuko lukeen zuzenbide-oinarri nabaririk aurkeztu, ez esperientziatik abiatuta, ezta arrazoimenetik abiatuta ere.

Giza ezagutzaren ehun nahasia osatzen duten adigai ezberdinen artean, ordea, apriorizko erabilera huts baterako determinatuak dauden batzuk badira (esperientzia orotatik erabat beregainki), eta beren eskuduntza horrek beti ere dedukzio bat behar du; zeren, esperientziatik datozen frogak halako erabilera baten legezkotasunerako aski ez diren arren, jakin egin behar baita nola lotu ahal zaizkien adigai horiek ezein esperientziatik atera ez dituzten objektuei. Horregatik, apriorizko adigaiak objektuei lotu ahal izateko eraren argipenari beren *dedukzio transzendental*a deitzen diot, eta dedukzio *enpirikotik* ezberdintzen dut, adigai bat esperientziaren eta hausnarketaren bitartez lortzeko era erakusten duenetik, hortaz, legezkotasunari ez, baizik eta jabegoaren oinarria den egitateari dagokionetik.

Guk badauzkagu jadanik era guztiz ezberdinekoak diren bi adigai, hala ere, biak objektuei a priori lotzeagatik elkarrekin ados jartzen direnak, hots, espazioaren eta denboraren adigaiak sentimenaren forma gisa eta kategoriak adigai gisa. Hauen dedukzio enpirikoa saiatu nahi izatea alferrikako lana litzateke; zeren hor baitago beren izaeraren bereizgarria, alegia, objektuei lotzen zaizkiela hauen errepresentaziorako esperientziatik ezer atera gabe. Baldin eta beren dedukzio bat beharrezkoa bada, beraz, orduan honek beti ere transzendental izan beharko du.

Hala eta guztiz ere, adigai horietaz, ezagutza oroz bezala, beren ahalgarritasunaren printzipioa ez bada ere, beren sorkuntzaren aldizkako kausa bila daiteke esperientzian, non, hainbestez, sentsuen zirrarek indar ezagutzaile osoa haietarantz abian jartzeko eta esperientzia egikaritzeko lehen aukera ematen duten, eta indar honek bi osagai oso ezberdin barnebiltzen ditu, hots, sentsuetatik datorren ezagutzarako *materia* eta hau ordenatzeko *forma* jakin bat, begiespen eta pentsatze hutsaren iturburu barnekoenetik datorrena, eta materia ematen denean lanean hasten dena, horrela adigaiak sortuz. Gure indar ezagutzailearen banakako hautemapenetatik adigai orokorretara igotzeko lehen ahaleginen azterketak onura handia du ezbairik gabe eta *Locke* sonatuari eskertu behar zaio bertara daraman bidea urratu izana. Hala ere, apriorizko adigai hutsen *dedukzioa* ez da inolaz ere horrela egiten, ez baitago bide horretan, zeren adigai hauek, esperientziatik guztiz beregain izan behar duen bere etorkizuneko erabilerari begira esperientziatikatik jatorria ez den beste jaiotza-agiri erabat ezberdina erakutsi behar baitute. Saiatutako eratorpen fisiologiko honi, benetan dedukzio izena ezin duenari, quaestio facti bati dagokiolako, hainbestez, ezagutza huts baten *jabegoaren* argipena deitu nahi diot. Garbi dago hauen dedukzio transzendental baina ezin daitekeela egon, eta inolaz ere ez enpirikoa, eta azkenengoak, apriorizko adigai hutsei begira saialdi hutsalak besterik ez dira, eta hainbestez, ezagutza hauen izaera guztiz berezia ulertu ez duenak besterik ezin dezake jardun honetaz.

Apriorizko ezagutza hutsaren dedukzio ahalgarriaren era bakarra bide transzendentetik egiten dena dela onartzen bada ere, ez da hortik oraindik argitzen bera behar-beharrezkoa denik. Gorago espazioaren eta denboraren adigaiei dedukzio transzendental baten bitartez beren iturburuetaraino jarraiki gatzazkie eta beren apriorizko baliotasun objektiboa argitu eta determinatu dugu. Noski, Geometria bere urrats seguruak eginez dabil apriorizko ezagutza soilen bitartez, Filosofiari espazioaren oinarritzko adigaiaren legezkotasun jatorri hutsaren ziurtagiririk eskatzeko beharrik gabe. Baina adigaiaren erabilera zientzia honetan kanpoko sentsuen munduari buruzkoa besterik ez da, espazioa izaki bere begiespenaren forma hutsa, eta bertan, beraz, ezagutza geometriko orok, apriorizko begiespenean oinarritzen denez, ebidentzia zuzena dauka eta objektuak ezagutza beraren bitartez a priori (formaren arabera) begiespenean ematen dira. Aitzitik, *adimenaren adigai hutsekin* beraiena ez ezik, espazioaren dedukzio transzendental ere bilatzeko premia ituriezina hasten da, zeren bertan beraiek objektuei buruz begiespenaren eta sentimenaren predikatuen bitartez ez, baizik eta apriorizko pentsatze hutsaren bitartez hitz egiten dutenez gero, orduan beraiek orokorki sentimenaren baldintzarik gabe lotzen baitazazkie objektuei, eta esperientzian oinarritzen ez direnez gero, orduan ezin baitute apriorizko ezein objekturik azalarazi begiespenean, esperientzia ororen aurretik honen gainean bere sintesia oinarritu ahal izateko, eta horregatik, beren erabileraren baliotasunari eta zedarrii susmoa erakarri ez ezik, *espazioaren adigaia* ekibokoa ere bihurtzen dute, sentsuzko begiespenaren baldintzez goiti erabiltzeko joera dutelako, eta honegatik izan da beharrezkoa gorago beren dedukzio transzendental egitea. Orduan, arrazoimen hutsaren alorrean urrats bakarra eman aurretik irakurleak halako dedukzio transzendentalaren ezinbesteko beharrezkotasunaren uste osoa lortu behar

du; zeren, bestela, itsu baitabil, eta askotan, erratu ondoren abiatu zeneko ezjakintzara berriro itzuli behar baitu. Era berean, ordea, aurretiaz zailtasun itzuriez in hau nabariki aditu behar du irakurleak, iluntasunaz kexarik izan ez dezan gauza sakonki estalia badago, edo oztipoen gaindipenaz ez dadin azkarregi nekatu, zeren kontua edo arrazoimen hutsaren ikuskerak izateko uzi oro bere alor preziatuenean, eta beraz, esperientzia ahalgarri ororen mugez goitiko alorrean osoki uztea, edo azterketa kritiko hau guztiz osatzea baita.

Gorago espazioaren eta denboraren adigaez ahalegin arinez egin ahal izan dugu ulergarri hauek, apriorizko ezagutzak direnez, nola lotu behar zaizkien halabeharrez objektuei eta nola ahalbidetzen duten hauen ezagutza sintetikoa esperientzia orotatik beregainki. Izan ere, objektu bat sentimenaren halako forma hutsen bitartez soilik ager daitekeenez, h. d., begiespen enpirikoaren objektua izan daitekeenez gero, orduan espazioa eta denbora, apriorizko agerpenak direnez, objektuen ahalgarritasunaren baldintzak barnebiltzen dituzten begiespen hutsak dira eta beraietan sintesiak baliotasun objektiboa du.

Adimenaren kategoriek, aitzitik, ez dituzte aurkezten objektuak begiespenean eman ahal izateko baldintzak eta, hala ere, objektuak ager daitezke halabeharrez adimenaren funtzioei lotzeko beharrik gabe eta honek, beraz, haien baldintzak a priori barnebildu gabe. Horregatik, beraz, hemen sentimenaren alorrean aurkitzen ez genuen zailtasun hau azaltzen da: ea nola duten *baliotasun objektiboa pentsamenduaren baldintza subjektiboa*, h. d., nola ematen dituzten objektuen ezagutza ororen ahalgarritasun-baldintzak; izan ere, adimenaren funtziorik gabe ere agerpenak begiespenean eman daitezke. Nik, adibidez, kausaren adigaia hartzen dut, sintesiaren era berezi bat adierazten duen adigaia, zeren A baten ondoren erabat ezberdina den B ezartzen baita erregela bati jarraiki. Ez dago argi a priori agerpenek halako zerbait barnebildu behar dutenik (izan ere, esperientziak ezin dira aurkeztu frogara gisa, zeren adigai honen baliotasun objektiboa a priori erakutsi ahal izan behar baita), eta beraz, a priori zalantzaragarria da ea halako adigaia erabat kaskala ez ote den eta ea edonon agerpenen menpean objekturik aurkitzen ote den. Izan ere, sentsuzko begiespenaren objektuek gogamenean dautzan sentimenaren baldintza formalen arabera izan behar dutela honegatik argitzen da: bestela guretzako objekturik ez liratekeelako; baina hauek horretaz gain adimenak pentsatzearen batasun sintetikorako behar dituen baldintzen arabera izan behar dutela dioen inferentziaren ondorioa ez da hain adierazgarria. Izan ere, agerpenak adimenak bere batasunaren baldintza izateko egokitzen ez hartzeko moduan antolatutako izan litezke, eta horrela dena nahastua legoke eta, adibidez, agerpenen ilaran sintesiaren erregelak eskuratuko lukeen ezer ez litzateke agertuko, eta beraz, kausaren eta efektuaren adigaiari legokion ezer ere ez, halako modez, non adigai hau erabat kaskala eta hutsala eta esanahirik gabekoa izango bailitzateke. Dena dela, agerpenek gure begiespenari objektuak eskainiko lizkiokete, izan ere, begiespenak ez du inolaz ere pentsatzearen funtziorik behar.

Azterketa honen nekeetatik zera esanaz libratzea pentsatuko balitz: esperientziak etengabeki agerpenen halako erregulartasunaren adibideak eskaintzen ditu, alegia, kausaren adigaia bertatik bereizteko eta horren bitartez baita aldi berean halako adigaiaren baliotasun objektiboa baieztatze ere aski aukera ematen duten adibideak, orduan ez da ohartzen horrela ez dela sortzen kausaren adigaia, baizik eta, edo erabat a priori adimenaren oinarritu behar dela, edo ameskeria soil gisa erabat utzi egin behar dela. Izan ere, adigai honek hau eskatzen du: A bat honelakoa izatea, ezen bertatik abiatuta bestelakoa den B halabeharrez eta *erregela orokor-orokorren arabera* segitzen baita. Agerpenek zerbait ohiko moduan gertatzeko erregela ahalbidetzen duten kasuak ematen dituzte eskura, baina inoiz ez ondorioa *beharrezkoa* egiten duen erregela; horregatik, kausaren eta efektuaren sintesiak enpirikoki inolaz ere ezin adieraz daitekeen duintasuna du, hots, efektua ez zaiola kausari gaineratu besterik egiten, baizik eta bere *bitartez* ezartzen dela eta *berari* jarraiki zaiola. Erregelaren orokortasun hertsia ere ez da erregela enpirikoen berekitasuna, izan ere, hauek indukzioaren bitartez orokortasun alderagarria baino ezin dute lortu, h. d., erabilgarritasun zabal bat. Adimenaren adigai hutsen erabilera, ordea, erabat aldatuko litzateke, beraiez produktu enpirikoak balira bezala soilik jardun nahiko bagenu.

[§ 14]52

Kategorien dedukzio transzendentalera igarobidea

Bi kasutan besterik ez da ahalgarria errepresentazio sintetikoak eta bere objektuak bat egitea, halabeharrez elkarri lotzea eta, nolabait esateko, elkar topatu ahal izatea: objektuak errepresentazioa edo honek objektua ahalbidetzen duenean. Lehena

badugu, orduan harremana enpirikoa besterik ez da eta errepresentazioa inoiz ez da a priori ahalgarria. Hori da agerpenarekin gertatzen dena bertan sentsazioari dagokionari begira. Bigarrena badugu, errepresentazioak bere baitan objektua *izateari* dagokionez sortzen ez duenez gero (izan ere, hemen solasgaia ez da beren nahimenaren bidezko kausalitatea), orduan errepresentazioa objektuari dagokionez a priori determinatzailea da, baldin eta bere bitartez besterik ez bada ahalgarria *zerbait objektu gisa ezagutzea*. Bi baldintza dira, ordea, objektu baten ezagutza ahalbidetzen dutenak, lehenik, *begiespena*, honen bitartez objektua emana izan dadin, agerpen gisa soilik izan arren; bigarrenik, *adigaia*, bere bitartez begiespen horri dagokion objektua pentsatua izan dadin. Gorago aipatutakotik abiatuta, ordea, argi dago lehenengo baldintza, hots, objektuak begietsi ahal izatea eragiten duen bakarra, egitatean a priori objektuen oinarrian datzala gogamenean beren formari dagokionez. Agerpen orok sentimenaren baldintza formal honekin bat egiten du halaberharrez, zeren beraren bitartez soilik agertzen baitira, h. d., enpirikoki begietsiak eta emanak izan ahal baitira. Hala ere, galde daiteke ea apriorizko adigaiak aldeztu aurretik ez ote doazen zerbait begietsia ez, baina oro harrezko objektu gisa pentsatua izateko baldintza gisa; izan ere, hainbestez, objektuen ezagutza enpiriko oro halaberharrez halako adigaiaren arabera da, zeren beren auresuposizioz gabe ezer ez baita *esperientziako objektu gisa* ahalgarria. Esperientzia orok, ordea, zerbait ematen duen sentsuen begiespenaz gain begiespenean ematen den edo bertan agertzen den objektu baten *adigaia* ere barnebiltzen du; beraz, oro harrezko objektuen adigaiak oinarrian dautza esperientzia-ezagutza ororen apriorizko baldintza gisa, eta ondorioz, kategorien baliotasun objektiboa, hauek apriorizko adigaiak diren aldetik, esperientzia beren bitartez soilik ahalgarria izatean funtsatzen da (pentsatzearen formaren arabera). Izan ere, honenbestez, halaberharrez eta a priori lotzen zaizkie esperientziaren objektuei, zeren oro har beren bitartez besterik ezin baitaiteke pentsa esperientziako objektu bat.

Apriorizko adigai ororen dedukzio transzendentalak, beraz, ondorengo ikerkuntza oro bere arabera antolarazten duen printzipio bat du, eta hau da: adigaiak esperientziaren ahalgarritasunaren apriorizko baldintza gisa ezagutu behar direla (esperientzian aurkitzen den begiespenarena edo pentsatzearena). Esperientziaren ahalgarritasunaren oinarri objektiboa ematen duten adigaiak horregatik dira beharrezkoak. Adigaiak esperientzian aurkitzen dira, baina esperientziaren garapena ez da beren dedukzioa (ilustrazioa baizik), zeren hauek hor oraindik beharbadakoak baino ez bailirateke. Ezagutzaren objektu guztiak esperientzia ahalgarrian gertatzen dira, eta esperientzia ahalgarriarekin duten jatorrizko harreman hori gabe ezingo litzateke inolaz ere ulertu beraiek objektuen batekin duten harremana⁵³.

Locke sonatuak adigai hauek esperientziatik eratorri zituen kontsiderazio honen gabeziagatik, eta berak adigai hutsak esperientzian aurkitu zituelako, eta hain *era inkonsistentean* jokatu zuen, non beraiekin esperientziaren mugaz erabat goiti doazen ezagutzak lortzeko saialdia egitera ausartu baitzen. *David Hume*k berrezagutu zuen adigai horiek jatorria a priori izatea beharrezkoa dela, saialdi hori egin ahal izatearren. Baina inolaz ere argitu ezin zuenez gero, ea nolatan ote zen ahalgarri adimenak bere baitan lotuak ez dauden adigaiak, hala ere, objektuetan halaberharrez lotuak pentsatu behar dituela, eta gainera, ez zitzaionez otu agian adimena bera izan zitekeela adigai horien bitartez bere objektuak jasotzen dituen esperientziaren sortzailea, orduan premiak bultzatuta esperientziatik eratorri zituen adigai horiek (hots, asoziazio sarri baten bitartez esperientzian sortutako beharrezkotasun subjektibotik, azkenean faltsuki objektibotzat hartzen denetik, h. d., *ohituratik*), baina ondoren oso era kontsekuentean jokatu zuen adigai horiekin eta hauek iradokitzen dituzten oinarri-esakuneeekin, hauekin esperientziaren mugez goiti joatea ezinezkotzat adieraztean. Biei otu zitzairen eratorketa *enpirikoa* ezin da bateratu, ordea, guk dauzkagun apriorizko ezagutza zientifikoen errealtatearekin, hots, *Matematika hutsarekin* eta *Natur Zientzia orokorrarekin*, eta beraz, egitateak eratorketa hori errefusatzeko du.

Bi gizon sonatu hauetako lehenengoak ateak ireki zizkion zabal-zabalik *gogoberotasunari*, zeren behin eskuduntza lortu ondoren arrazoimena ez baita neurritasunaren gomendio indeterminatuen bidez zedarriztatzen uzten; bigarrena *eszeptizismoari* eman zitzaion osorik, zeren arrazoimentzat hartzen zen gure ezagumenaren iruzur hain orokorra aurkitu zuela uste baitzuen. – Ea giza arrazoimena bi haitz hauen artean zoriontsuki igaro daitekeen, berari muga determinatuak erakutsi ahal zaizkion eta, hala ere, bere ekintza helburudunaren alor osoa irekia atxiki ahal daitekeen saiatzera goaz orain.

Hau egin aurretik *kategorien argipena* baino ez dut eman nahi oraindik. Hauek oro harrezko objektu baten adigaiak dira, eta beren bidez objektu haren begiespena juzgamenaren *funtzio logikoetako* bati begira *determinatutzat* jotzen da. Horrela, judizio *kategorikoaren* funtzioa subjektuak predikatuarekin duen hartuemanaren zen, adibidez, «gorputz guztiak zatigarriak dira». Adimenaren erabilera logiko soilari begira baino ez zen geratzen indeterminatua bi adigaiaren artean zeini eman nahi zitzaion subjektuaren funtzioa eta zeini predikatuarena. Izan ere, hau ere esan daiteke: «zatigarria den zerbait gorputz bat da». Substantziaren kategoriari esker, ordea, gorputz baten adigaia berari menperatzean bere begiespen enpirikoa esperientzian

beti subjektu gisa besterik ez dela kontsideratu behar determinatzen da, inoiz ez predikatu soil gisa; eta hala gertatzen da gainerako kategoriekin⁵⁴.

Adimenaren adigai hutsen dedukzioaren

Bigarren atala

Adimenaren adigai hutsen dedukzio transzendentala

§ 15

Lotura baten ahalgarritasunaz oro har

Errepresentazioen anizkunkia sentsuzkoa soilik, h. d., harmena besterik ez den begiespenean eman daiteke, eta begiespen honen forma a priori gure errepresentamenean egon daiteke, eta hau subjektua afektatua den era besterik ez da. Baina anizkunki baten lotura (conjunctio) oro har ezin zaigu eman inoiz sentsuen bitartez, eta beraz, ezin du sentsuzko begiespenaren forma hutsean barnebildua egon aldi berean; izan ere, bera indar errepresentatzailearen berezkotasunaren ekintza bat da, eta honi sentimenetik bereiztearren adimena deitu behar zaionez gero, orduan lotura oro adimenaren ekintza bat da, honetaz kontziente izan ala ez izan, begiespenaren anizkunkiaren lotura izan ala adigai batzuen izan, eta lehenengoari dagokionez, sentsuzkoa edo ez-sentsuzkoa izan arren, eta ekintza honi *sintesiaren* izendapen orokorra emango diogu, horren bitartez aldi berean zera oharrarazteko: ezin dugula ezer errerepresentatu objektuan lotua balego bezala, aurretik geuk lotu ez badugu, eta errerepresentazio guztien artean *lotura* dela objektuen bitartez emana ez den bakarra, baizik eta subjektuak antolatua izan behar dena, zeren lotura norberaren ekimenaren ekintza baita. Hemen aise ohartzen da ekintza honek jatorriz batua eta lotura orotarako balio berekoa izan behar duela, eta bere aurkakoa izatea dirudien xeheketak, *analisiak*, beti bera aurreuposatzen duela; izan ere, adimenak aldeztu aurretik ezer lotzen ez badu, orduan ezin du ezer analizatu, zeren *adimenaren bitartez* besterik ezin baitzaio eman indar errerepresentatzaileari lotuta dagoen zerbait.

Hala ere, loturaren adigaiak anizkunkiaren adigaiak eta bere sintesiaren gain bere batasunarena ere badakar aldean. Lotura anizkunkiaren batasun *sintetikoaren* errerepresentazioa da⁵⁵. Batasun honen errerepresentazioa, beraz, ezin da loturatik sortu, aitzitik, berak ahalbidetzen du lehen-lehenik loturaren adigaiak, anizkunkiaren errerepresentazioari gaineratzen zaion heinean. Loturaren adigai ororen aurretik a priori doan batasun hau ez da batasunaren kategoria (§ 10); izan ere, kategoria guztiak judizioetako funtzio logikoetan oinarritzen dira, baina lotura jadanik hauetan pentsatua dago, eta beraz, adigai jakinen batasuna ere bai. Kategoriak, beraz, beti lotura aurreuposatzen du. Batasun hau (kualitatiboa denez, § 12), beraz, are gorago bilatu behar dugu, hots, judizioetako adigai ezberdinen batasunaren oinarri bertan, eta beraz, adimenaren ahalgarritasuna bere erabilera logikoan ere barnebiltzen duen horretan.

§ 16

Jatorriz sintetikoa den apertzepzioaren batasunaz

«*Nik pentsatzen dut*»-ek nire errerepresentazio guztiei lagun egin *ahal* izan behar die; izan ere, bestela nigan pentsaezina litzatekeen zerbait errerepresentatuko litzateke, eta honek errerepresentazioa ezinezkoa litzatekeela adina esan nahi du, edo niretzat ezinezkoa litzatekeela bederen. Pentsatze ororen aurretik emana izan daitekeen errerepresentazioari *begiespena* deitzen diot. Beraz, begiespenaren anizkunki orok «*nik pentsatzen dut*»-ekin beharrezko harremana du anizkunki hori aurkitzen den subjektu berean. Errerepresentazio hau, ordea, *berezkotasunaren* ekintza bat da, h. d., ezin da sentimenari balegokio bezala onartu. Nik

apertzepzio hutsa deitzen diot *enpirikotik* bereiztearren, edo baita *jatorrizko apertzepzioa* ere, zeren bestelako adigaiek lagun egin ezin dioten autokontzientzia baita, berak beste guztiei lagun egin ahal izan behar dien «*nik pentsatzen dut*» errepresentazioa sortzen duen eta kontzientzia orotan bat eta berbera den heinean. Bere batasunari autokontzientziaren batasun *transzendentala* ere deitzen diot, bertatik sortzen den apriorizko ezagutzaren ahalgarritasuna ezaugarritzearren. Izan ere, begiespen jakin batean emanak diren errepresentazio anizkunak ez lirateke osotara *nire* errepresentazioak izango, baldin eta osotara autokontzientzia bati ez balitzaizkio egokituko, h. d., *nire* errepresentazio gisa autokontzientzia orokor batean bildu *ahal* izateko baldintza bakarra bete behar dute halabeharrez (nahiz berehala beraiez kontziente ez banaiz ere), zeren bestela ez bailirateke *nireak* izango inolaz ere. Jatorrizko lotura honetatik hainbat gauza ondoriozta daiteke.

Esate baterako, begiespenean emandako anizkunkiaren apertzepzioaren identitate oso horrek errepresentazioen sintesia barnebiltzen du eta sintesi horren kontzientziaren bitartez baino ez da ahalgarria. Izan ere, errepresentazio ezberdinei lagun egiten dien kontzientzia enpirikoa sakabanatua da berez eta ez du harremanik subjektuaren identitatearekin. Harreman hau ez da, beraz, *nik* errepresentazio bakoitzari kontzientziarekin lagun egitearen bidez sortzen, baizik eta errepresentazio bat besteari *atxiki* eta beren sintesiaz kontziente izatearen indarrez. Beraz, errepresentazio jakin hauen anizkunkia *kontzientzia batean* lotzearen bitartez baino ez da ahalgarri *nik errepresentazio hauetan kontzientzia beraren identitatea* errerepresentatzea, h. d., apertzepzioaren batasun *analitikoa sintetikoa* den baten auresuposizioari esker baino ez da ahalgarria⁵⁶. Begiespenean ematen diren errepresentazio hauek osotara *nireak* direla dioen pentsamenduak *nik* haiek autokontzientzia batean bateratzen ditudala adina esan nahi du, edo bertan batera ditzakedala bederen, eta bera oraindik errepresentazioaren *sintesiaren* kontzientzia ez den arren, azken honen ahalgarritasuna auresuposatzen du, h. d., beren anizkunkia kontzientzia batean jaso ahal baldin bada besterik ez zaie deitzen hauei osotara *nire* errepresentazioak; izan ere, bestela, gogoan ditudan errepresentazioak diren bezain ezberdin eta nabarra litekeen Norbera izango nuke. Begiespenen anizkunkiaren batasun sintetikoa da, beraz, a priori emana den aldetik, apertzepzioaren identitate beraren oinarria, a priori *nire* pentsatze determinatu ororen aurretik doan oinarria. Lotura ez datza, beraz, objektuetan eta ezin da beraietatik atera, adibidez, hautemapenaren bitartez, eta ondorioz, ezin da horren bitartez lehen-lehenik adimenean jaso, baizik eta adimenaren antolaketa besterik ez da, a priori lotzeko eta errepresentazio jakinen anizkunkia apertzepzioaren batasunari menperatzeko ahalmena baino ez den antolaketa, apertzepzioaren oinarri-esakune hau izaki giza ezagutza osoan dagoen oinarri-esakune gorena.

Apertzepzioaren beharrezko batasun honen oinarri-esakune hau berez da identikoa eta, honenbestez, esakune analitikoa da, baina begiespen batean emandako anizkunkiaren sintesia beharrezkotzat adierazten du, hori gabe autokontzientziaren identitate oso hura ezin baitaiteke pentsatu. Izan ere, niaren eskutik, errepresentazio bakuna denez, ez da anizkunkirik eskuratzen; beretik ezberdintzen den begiespenean baino ezin zaigu eman, eta *loturaren* bidez pentsa daiteke kontzientzia batean. Autokontzientziarekin batera aldi berean anizkunki oro emango litzaiokeen adimenak *begietsi* egingo luke; gureak *pentsatu* besterik ezin du egin eta sentsuetan bilatu behar du begiespena. *Nire* Norbera identikoaz kontziente naiz, beraz, begiespen batean emandako errepresentazioaren anizkunkiari begira, zeren osotara *nire* errepresentazioak deitzen baitiet, eta hauek, hainbestez, errepresentazio *bat* osatzen dute. Hau, ordea, neu beren beharrezko sintesiaz a priori kontziente izatea adina da, apertzepzioaren jatorrizko batasun sintetikoa deitzen diodan sintesiaz, beraz, eta niri emandako errepresentazio guztiak batasun honi menperatu behar zaizkio eta errepresentazio hauek bertan bildu behar dira sintesi baten bitartez.

§ 17

Apertzepzioaren batasun sintetikoaren oinarri-esakunea adimenaren erabilera ororen oinarri-esakune gorena da

Hau zen Estetika transzentalari jarraiki begiespen ororen ahalgarritasunaren oinarri-esakune gorena sentimenari dagokionez: bere anizkunki oro espazioaren eta denboraren baldintza formalen menpean dagoela. Ahalgarritasun beraren oinarri-esakune gorena adimenari dagokionez honako hau da: begiespenaren anizkunkia apertzepzioaren jatorrizko batasun sintetikoaren menpean dagoela⁵⁷. Lehenengoaren menpean daude begiespenaren errepresentazio anizkun guztiak, guri *emanak* diren heinean, baina bigarrenaren menpean, kontzientzia batean *lotu* ahal behar diren heinean; izan ere, hau gabe ezer ezin da pentsatu edo ezagutu horren bidez, zeren emandako errepresentazioek ez bailukete apertzepzioaren ekintza izango komunean, hots, «*nik pentsatzen dut*», eta honenbestez, ez bailirateke autokontzientzia batean bilduak izango.

Adimena, orokorki hitz eginez, *ezagutzen* ahalmena da. Hauek errepresentazio jakinek objektu batekin duten harreman determinatuaz osatzen dira. *Objektua*, ordea, bere adigaiaren begiespen jakin baten anizkunkia *bateratzen* duena da. Halere, errepresentazioen bateratze orok kontzientziaren batasuna eskatzen du bere sintesian. Ondorioz, kontzientziaren batasuna besterik ez da errepresentazioen objektuarekin harremana osatzen duena, eta beraz, bere baliotasun objektiboa, eta gainera, haiek ezagutza bihurtzen dituen ere bai, eta horren ondorioz, beregain funtsatzen da adimenaren ahalgarritasuna bera.

Adimenaren lehen ezagutza hutsa, beraz, apertzepzioaren jatorrizko batasun *sintetikoaren* oinarri-esakunea da, eta bertan oinarritzen da adimenaren gainerako erabilera oro, horrez gain aldi berean sentsuzko begiespenaren baldintza guztietatik erabat beregaina den erabilera. Horrela, kanpoko sentsuen begiespenaren forma soila, espazioa, ez da oraindik ezein ezagutzarik; berak begiespenaren anizkunkia a priori ezagutza ahalgarri baterako eman baino ez du egiten. Baina zerbait espazioan ezagutzekotan, adibidez, lerro bat, orduan hau *marraztu* egin behar dut, eta beraz, emandako anizkunkiaren lotura determinatu bat sintetikoki bideratu behar dut, eta ondorioz, ekintza honen batasuna aldi berean kontzientziaren batasuna da (lerro baten adigaiaren), eta horren bitartez ezagutzen da lehen-lehenik objektu bat (espazio determinatu bat). Kontzientziaren batasun sintetikoa, beraz, ezagutza ororen baldintza objektiboa da, objektu bat ezagutzeko behar dudana ezagutzarena ez ezik, begiespen oro ere menperatu behar zaionarena, hau *niretzako objektua bihurtzearen*, zeren, bestela, sintesi hau gabe anizkunkia ez bailitzateke kontzientzia batean bateratuko.

Azkenengo esakune hau analitikoa da, esanda bezala, nahiz eta berak batasun sintetikoa pentsatze ororen baldintza bihurtzen duen; izan ere, *nire* errepresentazio guztiek begiespen jakin batean baldintza baten menpean egon behar dutela besterik ez du esaten, zeinari jarraiki haiek *nire* errepresentazio gisa Norbera identikoan jaso, eta beraz, apertzepzio batean bezala sintetikoki lotuta «*nik pentsatzen dut*» adierazpen orokorraren bitartez bil ditzakedan.

Hala ere, oinarri-esakune hau ez da oro har ahalgarria den adimen bakoitzarentzako printzipioa, baizik eta bere apertzepzio hutsaren bitartez «*banaiz*» errepresentazioan oraindik ezein anizkunkirik ematen ez zaionarentzat besterik ez. Bere autokontzientziaren bitartez begiespenaren anizkunkia emango litzaiokeen adimen batek, alegia, bere errepresentazioaren bitartez aldi berean errepresentazio honen objektuak existiaraziko lituzkeen adimen batek, ez luke anizkunkiaren sintesiaren ekintza berezirik beharko kontzientziaren batasunerako, bai, ordea, begietsi gabe pentsatu besterik egiten ez duen giza adimenak. Halere, giza adimenarentzat nahitaez da lehen oinarri-esakunea, halako moldez, ezen ezin baitu beste adimen ahalgarri baten adigairik sortu, izan dadila *bere burua* begietsiko lukeen batena, edo oinarrian sentsuzko begiespena lukeena, nahiz eta hau espazioaren eta denboraren begiespenetatik ezberdina izan.

§ 18

Autokontzientziaren batasun objektiboa zer ote den

Apertzepzioaren *batasun transzendentala* begiespen batean emandako anizkunki oro objektuaren adigaiaren bateratzen duena da. Horregatik izena du *objektiboa*, eta kontzientziaren *batasun subjektibotik* bereizi behar da, *barneko sentsuaren determinazioa* denetik, hots, halako lotura baterako begiespenaren anizkunkia enpirikoki ematen duenetik. Egoeraren edo baldintza enpirikoen menpean dago ea anizkunkiaz aldi berean edo bata bestearen ondoren izan naitekeen kontziente *enpirikoki*. Horregatik, kontzientziaren batasun enpirikoa bera agerpen bati dagokio errepresentazioen asoziazioaren bitartez, eta erabat beharbadakoa da. Aitzitik, begiespenaren forma hutsa denboran dago, hau anizkunki jakin bat barnebiltzen duen begiespen soila den aldetik oro har, eta kontzientziaren jatorrizko batasunaren menpean dago «*nik pentsatzen dut*» Batekin duen beharrezko harremanaren eskutik, eta beraz, a priori adimenaren sintesi enpirikoaren oinarrian datzan bere sintesi hutsaren eskutik. Batasun hura baino ez da objektiboki balioduna; hemen kontsideratzen ez dugun apertzepzioaren batasun enpirikoak, in concreto baldintza jakinen menpean lehenengotik abiatuta eratorria besterik ez den batasunak, baliotasun subjektiboa baino ez du. Batak hitz jakin baten errepresentazioa gauza bati lotzen dio, besteak, beste gauza bati; eta enpirikoa den zerbaiten kontzientziaren batasuna ez da beharrezkoa eta orokorki balioduna emandakoari begira.

§ 19

Judizio guztien forma logikoa beraietan barnebilduta dauden adigaien apertzepzioaren batasun objektiboak osatzen du

Logikariek oro harrezko judizioaz ematen duten argipenak inoiz ezin izan ninduen gogobete; hauek diotenez bi adigairen arteko hartuemanaren errepresentazioa da. Hemen argipenaren akatsei buruz haiekin gatazkan hasitzeke (xalotasun honek Logikari ondorio eragozgarriak ekarri dizkiola kontuan hartu gabe)⁵⁸ –argipena edonala ere judizio *kategorikoari* dagokiola, baina ez hipotetikoari, ezta disjuntiboari ere (azkenak adigaien arteko hartuemana ez, baina judizio beren artekoa barnebiltzen duen heinean)–, zera besterik ez dut ohartzen: argipenean ez dela determinatzen *hartueman* hori zerk osatzen duen.

Hala ere, ezagutza jakinek judizio orotan duten harremana zehazkiago aztertzen baldin badut, eta hura, adimenari dagokion aldetik, irudimen birproduktiboaren legeen arabera hartuemanetik bereizten badut (baliotasun subjektiboa besterik ez duenetik), orduan aurkitzen dut judizioa ezagutza jakinak apertzepzioaren batasun *objektiboan* biltzeko era besterik ez dela. Hau adierazten du bertan «*da*» hartueman-hitzak, honela errepresentazio jakinen batasun objektiboa subjektibotik bereiztearren. Izan ere, honek errepresentazio haiek jatorrizko apertzepzioarekin eta bere *beharrezko batasunarekin* duten harremana ezaugarritzen du, nahiz eta judizioa bera enpirikoa, eta beraz, beharbadakoa izan, adibidez, «gorputzak pisuak dira». Honekin ez dut esan nahi errepresentazio hauek begiespen enpirikoan *halabeharrez elkarri* egokitzen direnik, baizik eta apertzepzioaren *beharrezko batasunarengatik* egokitzen direla elkarri begiespenaren sintesian, h. d., errepresentazio ororen determinazio objektiboaren printzipioaren arabera, hortik ezagutza sor daitekeen heinean, eta printzipio horiek denak apertzepzioaren batasun transzendentalaren oinarri-esakuneetatik eratortzen dira. Horren bitartez baino ez da sortzen hartueman horretatik *judizio bat*, h. d., *objektiboki balioduna* den eta errepresentazio beren balio subjektibo soila dutenetatik askiro bereizten den hartuemana, adibidez, asoziazioaren legeen arabera. Azken honi jarraiki, «gorputz bat garraiatzen dudanean, pisuaren presioa sentitzen dut» baino ezingo nuke esan, baina ez «gorputza pisua da»; honek bi errepresentazio hauek objektuan lotzen direla, h. d., subjektuaren egoeraren bereizketarik gabe lotzen direla esan nahi du, eta ez direla hautemapenean soilik uztartzen (hau nahi den bezain sarri errepikatzen bada ere).

§ 20

Sentsuzko begiespen oro kategorien menpean dago, hauek haien anizkuntia kontzientzia batean batu ahal izateko baldintzak diren aldetik

Sentsuzko begiespenean emana den anizkuntia apertzepzioaren jatorrizko batasun sintetikoaren menpean dago halabeharrez, zeren honen bitartez baino ez baita ahalgarria begiespenaren *batasuna* (§ 17). Errepresentazio jakinen (izan bitez begiespenak nahiz adigaiak) anizkuntia oro har apertzepzioari menperatzen dion adimenaren ekintza, berriz, judizioen funtzio logikoa da (§ 19). Beraz, anizkuntia oro, begiespen enpiriko Batean ematen den heinean, *determinatua* dago juzgatzeko funtzio logikoetako bati begira, eta honen bitartez ekartzen da kontzientzia batera oro har. *Kategoriak*, ordea, ez dira juzgatzeko funtzio horiek baino, begiespen jakin baten anizkuntia beraiei begira determinatua dagoen heinean (§ 13)⁵⁹. Beraz, begiespen jakin batean dagoen anizkuntia ere halabeharrez dago kategorien menpean.

§ 21

Oharra

Nirea deitzen diodan begiespenean barnebilduta dagoen anizkuntia autokontzientziaren *beharrezko* batasunari balegokio bezala errepresentatzen da adimenaren sintesiaren bitartez eta hau kategoriaren eskutik gertatzen da⁶⁰. Honek zera erakusten du, beraz, begiespen Baten anizkuntia jakinaren kontzientzia enpirikoa apriorizko autokontzientzia hutsaren menpean dagoela, begiespen enpirikoa apriorizkoa den sentsuzko begiespen hutsaren menpean dagoen era berean. – Goragoko esakunean adimenaren adigai hutsen *dedukzioaren* hasiera ezarri da, non, kategoriak *sentimenetik beregainki* adimenean

soilik sortzen direnez gero, bada, begiespen enpiriko baten anizkunkia ematen zaigun eraz abstraitu behar izan dudan, horrela adimenak kategoriaren bitartez begiespenari eransten dion batasunean soilik errepara dezadan. Jarraian (§ 26) begiespen enpirikoa sentimenean ematen den eratik abiatuta erakusten da bere batasuna kategoriak aurreko § 20aren arabera begiespen jakin bati oro har ezartzen diona besterik ez dela, eta beraz, kategoriak gure sentsuen objektu guztiei begira duten baliotasuna a priori argitzean lortzen da lehen-lehenik dedukzioaren asmoa konplutuki.

Puntu batez, ordea, ezin izan nuen abstraitu aurreko frogan, hots, anizkunkia jadanik adimenaren sintesiaren aurretik eta beretik beregainki begiespenarentzat *emana* izateko beharraz; ea hau nola gertatzen ote den, ordea, hemen determinatu gabe geratzen da. Izan ere, begiesten duen adimen bat pentsatu nahiko banu (jainkotiar adimen batek, adibidez, ez lituzke errepresentatuko emanak diren objektuak, baizik eta objektuak bere errepresentazioaren indarrez izango lirateke emanak edo sortuak lehen-lehenik), orduan kategoriak ez lukete ezein esanahirik izango halako ezagutzari dagokionez. Kategoriak bere ahalmen osoa pentsatzeak osatzen duen adimenarentzako erregelak besterik ez dira, h. d., begiespenean beste modu batera eman zaion anizkunkiaren sintesia apertzepzioaren batasunean biltzeko ekintzak osatzen duen adimenarentzako erregelak besterik ez dira, eta adimen honek, beraz, ez du ezer *ezagutzen* berenez, baizik eta ezagutzarako ekaia, hots, berari objektuaren bitartez eman behar zaion begiespena lotzen eta ordenatzen du. Hala ere, gure adimenak apertzepzioaren batasuna a priori kategorien bitartez soilik eta gainera justu era eta zenbaki honetako kategorien bitartez bideratzeko duen bereizgarritasunaz ezin da beste oinarriarik eman, juzgatzeko funtzio hauek eta besterik ez izatearen zergatikoaz edo espazioa eta denbora gure begiespen ahalgarrien forma bakarrak izatearen zergatikoaz eman ezin den bezala.

§ 22

Gauzen ezagutzan kategoriak ez du esperientziako objektuei aplikazioa baino beste erabilerarik

Objektu bat *pentsatzea* eta objektu bat *ezagutzea* ez dira gauza bera. Ezagutzak bi alde ditu, izan ere, lehenik, adigaia, bere bitartez objektu bat oro har pentsatzeko (kategoria), eta bigarrenik, begiespena, bere bitartez hura emana izan dakigun; izan ere, adigaiari berari dagokion begiespena ezingo balitzaio eman, orduan pentsamendu bat izango litzateke formaren arabera, baina ez luke objekturik, eta ezinezkoa litzateke bere bitartez gauza bakar baten ezein ezagutzarik izatea; zeren, nik dakidan heinean, nire pentsamendua bertan aplikatu ahal litzatekeen ezer ez bailegoke eta ezerk ezingo bailuke egon. Guretzat begiespen ahalgarri oro sentsuzkoa da (Estetika), eta beraz, gudan oro harrezko objektu baten pentsatzea adimenaren adigai hutsen bitartez sentsuen objektuei lotzen zaien heinean baino ezin bihur daiteke ezagutza. Sentsuzko begiespena edo begiespen hutsa (espazioa eta denbora) edo espazioan eta denboran sentsazioari esker zuzenki erreala bailitzan errepresentatzen denaren begiespen enpirikoa da. Lehenengoaren determinazioaren bitartez objektuen apriorizko ezagutzak lor ditzakegu (Matematikan), baina beren formari dagokionez besterik ez, agerpenak diren aldetik; erabakitzeke geratzen da ea forma horretan begietsiak izan behar diren gauzak izan daitezkeen. Ondorioz, adigai matematiko oro ez da berez ezagutza, sentsuzko begiespen huts haren arabera guri aurkeztu ahal zaizkigun gauzak daudela aurreuposatu ezean. *Espazioan eta denboran diren gauzak*, ordea, hautemapenak diren heinean baino ez dira emanak (sentsazioaren laguntza duten errepresentazioak), eta beraz, errepresentazio enpirikoaren bitartez. Ondorioz, adimenaren adigai hutsak apriorizko begiespenari aplikatzen zaizkionean (Matematikan gertatzen den legez), hauek ere ezagutza sortzen dute, nahiz eta hau, eta beraz, baita adimenaren adigaiak ere, bere bitartez begiespen enpirikoei aplikatu ahal zaizkienean besterik ez izan. Ondorioz, kategoriak ez dute gauzen ezagutzarik ematen begiespenaren bidez, *begiespen enpirikoari* egindako aplikazio ahalgarriaren bitartez izan ezik, h. d., *ezagutza enpirikoaren* ahalgarritasunerako besterik ez dute balio. Honek, ordea, *esperientzia* izena du. Ondorioz, kategoriak ez dute gauzen ezagutzan erabilerarik, gauzak esperientziaren objektu ahalgarritzat hartzen diren heinean izan ezik.

§ 23

Goiko esakunea garrantzi handikoa da; izan ere, berak determinatzen ditu adimenaren adigai hutsen erabileraren mugak objektuei begira, Estetika transzendentalak gure sentsuzko begiespenaren forma hutsaren erabileraren mugak determinatzen zituen era berean. Espazioak eta denborak sentsuen, eta beraz, esperientziaren objektuez baino ez dute balio, objektuak eman

ahal izateko ahalgarritasunaren baldintzak baitira. Muga horretaz goiti ez dute ezer errepresentatzen; izan ere, sentsuetan soilik dira eta hauetatik at ez dute ezein errealiterik. Adimenaren adigai hutsak zedarritzapen honetatik aske geratzen dira, eta begiespenaren objektuetara hedatzen dira oro har, begiespen hau sentsuzkoa bada behintzat, eta ez intelektuala, gurearen antzekoa izan nahiz ez izan arren. *Gure* sentsuzko begiespenez goiti dihoan adigaiei hedapen zabalago honek ez digu, ordea, ezertarako balio. Izan ere, hainbestez, objektuen adigai kaskalak dira eta hauetaz ezin dugu inoiz juzgatu ahalgarriak diren ala ez diren; pentsamenduaren forma soilak dira, errealitate objektiborik ez duten formak, ez baitaukagu ezein begiespenik ere eskura, haiek barnebiltzen dituen apertzepzioaren batasun sintetiko bakarra honi aplikatzeko, haiek horrela objektu bat determinatu ahal dezaten. *Gure* sentsuzko begiespen enpirikoek baino ezin diete eman zentzua eta esanahia.

Sentsuzkoa ez den begiespen baten objektua emana balitz bezala onartzen bada, orduan, noski, hau berari sentsuzko begiespenekoa den ezer egokitzen ez zaiolako aurreuposizioan datzan predikatu ororen bitartez errepresenta daiteke, beraz, hedatua ez dela edo espazioan ez dagoela, bere iraupena ezein denborarik ez dela, bertan ezein aldaketarik ez dela gertatzen (determinazioen segida denboran), eta abar. Hau, ordea, ez da ezein ezagutzarik oraindik, baldin eta objektuaren begiespena nolakoa *ez den* besterik ez badut erakusten, berak zer barnebiltzen duen esan ezin den artean; izan ere, ez dut inolaz ere aurkeztu nire adimenaren adigai hutsentzako objektu baten ahalgarritasuna, zeren ezin izan baitut berari legokion ezein begiespenik eman, aitzitik, gureak beretzat ez duela balio baino ezin zitekeen esan. Halere, hemen bereziena horrelako zerbaiti behin batean ere kategoria bakar bat ezin aplikatu izatea da, adibidez, substantzia baten adigaia, h. d., subjektu gisa bai baina predikatu gisa inoiz ezin existi daitekeen zerbaiten adigaia; honetaz ez dakit ea pentsamenduaren determinazio honi dagokion gauzarik egon litekeen, begiespen enpirikoak aplikazioaren kasua emango ez balit. Hala ere, ondoren jardungo dugu puntu honetaz.

§ 24

Kategorien aplikazioaz sentsuen objektuei oro har

Adimenaren adigai hutsak adimen soilari esker lotzen zaizkie begiespenaren objektuei oro har, indeterminatua geratu arren begiespena gurea edo beste bat den, sentsuzkoa baldin bada behintzat; baina honegatik dira *pentsamen-forma* soilak, eta beren bitartez ezin da oraindik ezein objektu determinaturik ezagutu. Bertako sintesia edo anizkunkiaren lotura apertzepzioaren batasunari besterik ez zaio lotzen, eta horri esker apriorizko ezagutzaren ahalgarritasunaren oinarria da, adimenean funtsatzen den heinean, eta beraz, transzendentalak ez ezik, sintesi intelektual hutsa ere bada. Hala ere, gudan oinarrian apriorizko sentsuen begiespenaren forma jakin bat datzanez gero, errepresentamenaren harmenean funtsatzen dena (sentimenean), orduan adimenak berezkotasun gisa barneko sentsua determina dezake apertzepzioaren batasun sintetikoaren arabera errerepresentazio jakinen anizkunkiaren bitartez, eta horrela, *sentsuzko begiespenaren* anizkunkiaren apertzepzioaren batasun sintetikoa a priori pentsa dezake, gure (giza) begiespenaren objektu oro halabarharrez menperatzen zaizkion baldintza den aldetik, eta horren bitartez, kategoriek, pentsamen-forma hutsak direnez, errealitate objektiboa lortzen dute, h. d., guri begiespenean eman ahal zaizkigun objektuei aplikatzea lortzen dute, nahiz eta agerpen gisa baino ez izan emanak; izan ere, hauetaz soilik izan dezakegu apriorizko begiespena.

Sentsuzko begiespenaren anizkunkiaren *sintesi* honi, a priori ahalgarria eta beharrezkoa denari, *figuratiboa* dei dakioke (synthesis speciosa), honela bestetik bereizteko, alegia, begiespen baten anizkunkiari begira oro har kategoria soilean pentsatuko litzatekeen eta adimenaren lotura deitzen den sintesitik bereizteko (synthesis intellectualis); biak dira *transzendentalak*, a priori gertatzen direlako ez ezik, beste ezagutzen ahalgarritasuna a priori oinarritzen dutelako ere bai.

Hala ere, sintesi figuratiboak apertzepzioaren jatorrizko batasun sintetikoarekin, h. d., kategorietan pentsatzen den batasun transzendentalekin baino ez badu zerikusia, orduan, lotura intelektual soiletik bereiztearren, sintesi honek *irudimenaren sintesi transzendentalak* izena jaso behar du. *Irudimena* objektu bat *bere presentziarik gabe* ere begiespenean errerepresentatzeko ahalmena da. Gure begiespen oro sentsuzkoa denez gero, orduan irudimena *sentimenari* dagokio, hau baita adimenaren adigaiei dagokien begiespena eman ahal izateko baldintza subjektiboa; baina bere sintesia berezkotasunaren aplikazioa den heinean, determinatzailea dena, ez determinagarria sentsua den legez, eta beraz, sentsua a priori bere formaren arabera apertzepzioaren batasunari jarraiki determina dezakeenez gero, orduan irudimena, hainbestez, sentimena a priori

determinatzeko ahalmena da, eta irudimenak *kategorien arabera* egiten duen begiespenen sintesiak *irudimenaren* sintesi transzendentalak izan behar du, eta bera adimenak sentimenean duen eragina da eta adimenaren lehen aplikazioa da guretzat ahalgarria den begiespenaren objektuei (aldi berean gainerako aplikazioen oinarria). Figuratiboa denez gero, irudimenik gabe adimenaren bitartez soilik gertatzen den sintesi intelektualetik ezberdintzen da. Irudimenari berezkotasuna den heinean, batzuetan irudimen *produktiboa* deitzen diot, eta horrela, *birproduktibotik* bereizten dut; honen sintesia lege enpirikoen menpean, hots, asoziazioaren legearen menpean besterik ez dago, eta horregatik, honek ez du ekarpenik egiten apriorizko ezagutzaren ahalgarritasuna argitzeko, eta beraz, ez dagokio Filosofia transzendentalari, Psikologiari baizik.

* * *

Hau da orain barneko sentsuaren formaren esposizioan (§ 6) edonori ohargarria egin behar zitzaion paradoxa ulargarria bihurtzeko lekua, hots, barneko sentsuak gu geu kontzientziari aurkezten gaituela geure aurrean agertzen garen legez, ez geure baitan garen legez, zeren gu geu barnetik *afektatzen* garen moduan begiesten baikara. Honek kontraesankorra dirudi, gu geuk geurekin pasiboki jokatu beharko genukeen heinean; horregatik da usu Psikologiako sistemetan *barneko sentsua* eta *apertzepzioaren* ahalmenak (guk arretaz bereizten ditugunak) ahalmen berbera balira bezala hartzea.

Adimena eta honek begiespeneko anizkuntia lotzeko, h. d., apertzepziopean biltzeko (honetan funtsatzen baita bere ahalgarritasuna) duen jatorrizko ahalmena dira barneko sentsua determinatzen dutenak. Adimena gizakiongan begiespenen ahalmenik ez denez gero, eta hauek sentimenean ere eman izango balira, dena dela, *bere baitan* ezin ditugunez jaso, nolabait esateko, *bere* begiespen propioaren anizkuntia lotzearen, orduan bere sintesia, baldin eta bera soilik kontsideratzen bada, ez da ekintzaren batasuna baino, eta sentimenik gabe ere honetaz kontziente da, baina honen bitartez adimena sentimena barnetik determinatzeko gai da bere begiespenaren formaren arabera eman dakiokeen anizkunkiari begira. Beraz, ekintza hura aplikatzen dio *irudimenaren sintesi transzendentalaren* izendapenarekin subjektu *pasiboari*, eta subjektuaren *ahalmena* da, eta beraz, bidezki diogu barneko sentsua horren bitartez afektatua dela. Apertzepzioa eta bere batasun sintetikoa, batetik, eta barneko sentsua, bestetik, ez dira gauza bera, zeren hura gehienbat *oro harrezko begiespenen* anizkunkiari lotzen baitzaio, lotura ororen iturburua den aldetik, baita kategorien izenpean oro harrezko objektuei ere sentsuzko begiespen ororen aurretik; aitzitik, barneko sentsuak begiespenaren *forma* soila barnebiltzen du, baina bertan anizkunkiaren loturarik izan gabe, eta beraz, ez du begiespen *determinaturik* barnebiltzen, zeina sintesi figuratiboa deitu diodan irudimenaren ekintza transzendentalaren bitartez (adimenak barneko sentsuan duen eragin sintetikoaren bitartez) burututako anizkunkiaren determinazioaren kontzientziari esker besterik ez den ahalgarria.

Hau gudan hautematen dugu beti. Ezin dugu ezein lerrorik pentsatu pentsamenduan *marraztu* gabe, ezein hirukirik pentsatu hura *deskribatu* gabe, espazioaren hiru dimentsioak inolaz ere ezin ditugu errepresentatu, puntu berean elkarzutak diren hiru lerroak *ezarri* gabe, ezta denbora bera ere, lerro zuzen baten *marrazketan* (denboraren kanpoko errepresentazio figuratiboa izango beharko lukeena) barneko sentsua segidan determinatzeko bitartekoa den anizkunkiaren sintesiaren ekintza soila, eta horren bitartez, bertan ematen den determinazio honen segida ohartu gabe. Higidurak sortzen du lehenengoz segidaren adigaia, subjektuaren ekintza den aldetik (ez objektuaren determinazioa)⁶¹, eta ondorioz, anizkunkiaren sintesiak espazioan, honetaz abstraitzen baldin badugu eta *barneko sentsua* bere formaren arabera baino determinatzen ez duen ekintza ohartzen baldin badugu. Adimenak, beraz, ez du halako anizkunkiaren sintesirik *aurkitzen* bertan, baizik hura *sortu egiten du*, berak hura *afektatzen* duen heinean. Hala ere, galdetzen badut ea nola bereizten den nik pentsatzen dudana nia bere burua begiesten duen niatik (begiesteko beste erak gutxienez ahalgarriak bezala irudika ditzakedan heinean) eta ea nola diren, dena dela, subjektu bera, ondorioz hau esan dezakeedala: «*nik* inteligentzia eta subjektu *pentsatzaile* gisa *neure burua* ezagutzen dut objektu *pentsatu* gisa, eta horrez gain, begiespenean emana naizen heinean, beste fenomeno bat naiz, ez adimenaren aurrean naizen modukoa, neure aurrean agertzen naizen modukoa baizik», orduan honek guztiak ez du ni neu oro harrezko objektu bat, eta gainera, begiespenarena eta barneko hautemapenarena nola izan naitekeen galdetzea baino zailtasun gehiago, ezta gutxiago ere. Halere, garbi frogatzen daiteke benetan horrela izan behar duela, espazioa kanpoko sentsuen agerpenen forma huts gisa onartzen baldin bada, kanpoko begiespenaren ezein objektu ez den denbora lerro baten irudian besterik ezin baitezakegu errepresentatu, guk hura marrazten dugun heinean, eta aurkezpen era hau gabe bere dimentsioaren batasuna ezingo genuke ezagutu, halaber, barneko hautemapen orotarako denbora-luzeraren edo denborazko kokapenen determinazioa

kanpoko gauzek aurkezten diguten aldakorkitik atera behar dugu, eta ondorioz, barneko sentsuaren determinazioak denboran dauden agerpenak direnez, zuzenki kanpoko sentsuen determinazioak espazioan ordenatzen ditugun moduan ordenatu behar ditugu, eta beraz, azkenengoez onartzen baldin badugu beren bitartez kanpotik afektatuak garen heinean soilik ezagutzen ditugula objektuak, orduan barneko sentsuaz gauza bera aitortu behar dugu, alegia, honen eskutik geure burua barnean *gu geu* afektatzen garen moduan begiesten dugula, h. d., barneko begiespenari dagokionez geure subjektu propioa agerpen gisa baino ez dugula ezagutzen, eta ez bere baitan den moduan⁶².

§ 25

Aitzitik, neure buruaz kontziente naiz oro harrezko errepresentazioen anizkunkiaren sintesi transzendentalean, eta beraz, apertzepzioaren jatorrizko batasun sintetikoan, baina ez neu agertzen naizen moduan, ezta ni neure baitan naizen moduan, baizik eta nire *izateaz* soilik naiz kontziente. *Errepresentazio* hau *pentsatze* bat da, ez *begieste* bat. Geure buruaren *ezagutzarako* begiespen ahalgarri bakoitzaren anizkunkia apertzepzioaren batasunean biltzen duen pentsamenduaren ekintzaz gain anizkunki hori ematen duen begiespenaren era determinatua behar denez gero, orduan nire izate propioa ez da agerpena (are gutxiago itxura soila), baina nire izatearen determinazioa⁶³ barneko sentsuaren formaren arabera lotzen dudan anizkunkia barneko begiespenaren ematen den era bereziari jarraiki baino ezin daiteke gertatu, eta beraz, ez dut *ezagutzen* inolaz ere *ni nola naizen*, baizik eta neure buruari nola *agertzen natzaion* besterik ez. Norbere buruaren kontzientzia ez da oraindik inolaz ere norbere buruaren ezagutza, *oro harrezko objektu* baten pentsatzea apertzepzio batean anizkunkiaren loturaren bitartez osatzen duten kategoria guztiak direla ere. Nigandik ezberdina den objektu baten ezagutzarako oro harrezko objektu baten pentsatzeaz gain (kategorian) begiespen bat behar dut, horren bitartez adigai orokor hura determinatzeko, eta era berean, neure buruaren ezagutzarako kontzientziaz edo nik neure burua pentsatzeaz gain nigan dagoen anizkunkiaren begiespen bat behar dut, horren bitartez pentsamendu hori determinatzeko, eta bere lotura-ahalmenaz kontziente den inteligentzia gisa existitzen naiz, baina berak lotu behar duen anizkunkiari begira barneko sentsua deitzen zaion baldintza zedarritzailaren menpean existitzen naiz, eta honek gure adimenaren adigaietatik erabat at geratzen diren denbora-harremanen arabera baino ez du bihurtzen begiesgarria lotura hura, eta horregatik, bere burua begiespen gisa (zeina ezin daitekeen intelektuala eta adimen berak emana izan) berari agertzen zaion moduan baino ezin ezagut dezake, eta ez bere *begiespena* intelektuala balitz bere burua ezagutuko lukeen moduan.

§ 26

Adimenaren adigai hutsen esperientzia-erabilera orokorki ahalgarriaren dedukzio transzendentala

Dedukzio metafisikoan kategorien jatorria a priori azaldu zen pentsatzearen funtzio logiko orokorrekin duten bat egite osoaren eskutik oro har, baina *transzendentalean* kategorien ahalgarritasuna aurkezten da, hauek begiespen baten objektuen apriorizko ezagutzak diren aldetik oro har (§ 20, 21). Orain, beti *gure sentsuei* soilik, eta gainera, ez agerpenaren formaren arabera, baizik beren loturaren legeen arabera *agertu ahal* zaizkien objektuak *kategorien bitartez* ezagutu ahal izateko ahalgarritasuna argitu behar da, eta beraz, nolabait esateko, izadiari legea ezartzeko eta bera ahalbidetzeko ahalgarritasuna ere bai. Izan ere, kategorien erabilgarritasunik gabe ez litzateke argituko ea nola egon behar duen gure sentsuei agertu ahal zaien guztiak a priori adimenetik besterik sortzen ez diren legeen menpean.

Lehenik ohartzen dut *atzematearen sintesiaz* begiespen enpiriko bateko anizkunkiaren elkarketa ulertzen dudala, hots, hautematea, h. d., bere kontzientzia enpirikoa (agerpen gisa) ahalbidetzen duen elkarketa.

Apriorizko begiespenaren *formak* ditugu kanpoko eta barneko sentsuen arabera espazioaren eta denboraren errepresentazioetan, eta agerpenaren anizkunkiaren atzematearen sintesiak beti hauen arabera izan behar du, zeren sintesia bera forma hauei jarraiki besterik ezin baitaiteke gertatu. Baina espazioa eta denbora sentsuzko begiespenaren *forma* gisa ez ezik, *begiespen* gisa ere errepresentatzen dira a priori (zeinak anizkunki bat barnebiltzen duen), beraz, anizkunki honen *batasunaren* determinazioa izanik beraietan (begiratu Estetika transzendentala)⁶⁴. Beraz, begiespen horiekin (ez horietan)

jadanik aldi berean anizkunkiaren *sintesiaren batasuna* ematen da a priori *atzemate* ororen baldintza gisa, gudan nahiz gugandik at, eta beraz, baita *lotura* bat ere, zeinari espazioan eta denboran determinatua bezala errepresentatu behar den guztia egokitu behar zaion. Batasun sintetiko hau, ordea, *oro harrezko begiespen* jakinaren anizkunkiak jatorrizko kontzientzia batean duen lotura baino ezin da izan, kategoriei jarraiki gure *sentsuzko begiespenari* soilik aplikatutako lotura. Ondorioz, hautemapen bera ere ahalbidetzen duen sintesi oro kategorien menpean dago, eta esperientzia elkarlotutako hautemapenen bidezko ezagutza denez gero, orduan kategoriak esperientziaren ahalgarritasunaren baldintzak dira, eta beraz, hauek esperientziaren objektu guztientzat ere a priori balio dute.

* * *

Nik, beraz, etxe baten begiespen enpirikoa bere anizkunkiaren atzematearen bitartez hautemapena bihurtzen baldin badut, adibidez, orduan nigan oinarrian espazioaren eta oro har kanpoko sentsuen begiespenaren *beharrezko batasuna* dauzkat, eta nik etxearen tankera marrazten dut, nolabait esateko, espazioaren dagoen anizkunkiaren batasun sintetiko honi jarraiki. Baina batasun sintetiko berak adimenen du bere egoitza, espazioaren formaz abstraitzen baldin badut, eta oro harrezko begiespen bateko homogeneouskiaren sintesiaren kategoria da, h. d., *handitasunaren* kategoria, zeina, beraz, atzematearen sintesi hari egokitu behar zaion guztiz, h. d., hautemapenari⁶⁵.

Uraren izoztea hautematen badut (beste adibide bat hartuz), orduan elkarrekiko denbora-erlazio batean dauden bi egoera atzematen ditut (isurgaitasuna eta gotortasuna). Baina nik agerpenari barneko *begiespen* gisa oinarrian ezartzen diodan denboran anizkunkiaren *batasun* sintetikoa errepresentatzen dut halaberharrez, eta hau egin gabe erlazio hura ezingo litzateke eman begiespen batean *determinatuta* (denboraren segidari begira). Halere, batasun sintetiko hau *kausaren* kategoria da, *oro har begiespen* baten anizkunkia lotzeko dudari apriorizko baldintza den aldetik, baldin eta nire barneko begiespenaren forma jarraituaz, hots, denboraz abstraitzen badut, eta kategoria honi jarraiki *gertatzen den guztia denboran bere erlazioaren arabera determinatzen dut oro har*, bera nire sentimenari aplikatzen baldin badiot. Beraz, atzematea jazoera honetan *efektuaren eta kausaren hartuemanen* adigaiaren menpean dago, eta beraz, jazoera hau bera ere bai hautemapen ahalgarriari dagokionez, eta horrela gertatzen da gainerako kasu guztietan.

* * *

Kategoriak agerpenei, eta beraz, agerpen ororen multzoa den izadiari (natura materialiter spectata) a priori legeak ezartzen dizkieten adigaiak dira, eta izaditik eratortzen ez direnez eta haren arabera ibiltzen ez direnez gero beren eredu gisa (zeren bestela enpirikoak besterik ez bailirateke), orduan zera galdetzen da: ea nola uler daitekeen izadia berak lege hauei jarraiki ibili behar duela, h. d., ea nola determina dezaketen lege hauek a priori izadiaren anizkunkiaren lotura, lotura hau bertatik hartu gabe. Hemen dator enigma honen konponketa.

Ez da, hortaz, bitxiago agerpenen legeak izadian adimenarekin eta bere apriorizko formarekin, h. d., anizkunkia oro har *lotzeko* bere ahalmenarekin adostu behar izatea agerpen beraiek sentsuzko begiespenaren formarekin adostu behar izatea baino. Izan ere, legeak ez dira existitzen agerpenetan, baizik subjektuarekin erlazioan besterik ez, zeinari agerpenak datxezkion, subjektuak adimena duen heinean, eta era berean agerpenak ez dira beren baitan existitzen, baizik zerizan berarekin erlazioan, berak sentsuak dituen heinean. Berbaitango gauzei beren legezkotasuna halaberharrez legokie, baita beraiek ezagutzen dituen adimen batetik landa ere. Hala ere, agerpenak gauzen errepresentazioak besterik ez dira, eta agerpenok ezezagun diraute beren baitan izan daitezkeenari dagokionez. Baina errepresentazio soil gisa ahalmen elkarlotzaileak ezartzen dituen elkarloturaren legeen menpean baino ez daude. Hortaz, sentsuzko begiespenaren anizkunkia elkarlotzen duena irudimena da, adimenaren menpean dagoena bere sintesi intelektualaren batasunari dagokionez eta sentimenaren menpean atzematearen anizkunkiari dagokionez. Hala ere, hautemapen ahalgarri oro atzematearen sintesiaren menpean dagoenez, bera, ordea, sintesi enpiriko hau, beraz, transzendentalaren menpean dagoenez, eta beraz, kategorien menpean dagoenez gero, orduan hautemapen ahalgarri orok eta baita beti kontzientzia enpirikora irits daitekeen guztiak ere, h. d., izadiaren agerpen orok beren loturaren arabera kategorien menpean egon behar du, eta izadia (oro harrezko izadi soil gisa kontsideratuta) hauen menpean dago, beren beharrezko legezkotasunaren jatorrizko oinarri gisa (natura formaliter spectata gisa). Baina adimenaren ahalmen hutsa ere

kategoria soilen bitartez agerpenei a priori *oro harrezko izadia* funtsatzen duten legeak ezartzera besterik ez da iristen, izadia espazioan eta denboran dauden agerpenen legezkotasuna den aldetik. Lege bereziak, enpirikoki determinatutako agerpenei dagozkien heinean, *ezin dira* hauetatik *osoki eratorri*, nahiz eta denak osotara haien menpean dauden. Esperientzia gehitu behar da *oro har* lege bereziak ezagutu ahal izateko; baina apriorizko lege haiek besterik ez dute irakasten esperientziaz oro har eta bere objektu gisa ezagut daitekeenaz.

§ 27

Adimenaren adigaien dedukzio honen emaitza

Ezin dugu objekturik *pentsatu* kategorien bitartez izan ezik; ezin dugu pentsatutako objekturik *ezagutu* adigai haiei dagozkien begiespenen bitartez izan ezik. Gure begiespen guztiak sentsuzkoak dira eta ezagutza hori enpirikoa da, bere objektua aurretik emana den heinean. Ezagutza enpirikoa, ordea, esperientzia da. Ondorioz, *esperientzia ahalgarriaren objektuena ez den beste ezein ezagutzarik ez zaigu ahalgarri*⁶⁶.

Hala eta guztiz ere, esperientziaren objektuetara baino zedarritzatzen ez den ezagutza hau ez da horregatik esperientziatik lortzen osorik, baizik eta begiespen hutsei eta adimenaren adigai hutsei dagokienez hauek gudan a priori dauden ezagutzaren osagaiak dira. Bi bide besterik ez daude esperientziak bere objektuen adigaiekin duen *beharrezko* adostasuna pentsatu ahal izateko: edo esperientziak ahalbidetzen ditu adigai hauek edo adigai hauek esperientzia. Lehena ez da gertatzen kategoriei dagokienez (ezta sentsuzko begiespen hutsari dagokionez ere); izan ere, apriorizko adigaiak dira, eta beraz, esperientziatik beregainak (jatorri enpiriko baten baieztapena generatio aequivoca moduko zerbait litzateke). Ondorioz, bigarren bidea besterik ez da geratzen (arrazoimen hutsaren *epigenesiaren* sistema, nolabait esateko), hots, kategoriek adimenaren aldetik oro harrezko esperientzia ororen ahalgarritasunaren oinarriak barnebiltzen dituztela. Ea nola ahalbidetzen duten esperientzia, eta ea agerpenei aplikatzean bere ahalgarritasunaren zein oinarri-esakune eskuratzen dituzten, honetaz esan daitekeen gehientsuena juzgamenaren erabilera transzendentalaren ondorengo atalburuak irakatsiko du.

Baldin eta aipatutako bi bide bakarren artean norbaitek tarteko bidea proposatu nahiko balu, hots, kategoriak ez direla *norberak pentsatutako* gure ezagutzaren apriorizko lehen printzipioak, ezta esperientziatik sortzen direnak ere, baizik eta gure existentziarekin batera aldi berean ereindako pentsatzeko joera subjektiboak direla, gure sortzaileak honako moduan antolatu dituenak, ezen beren erabilerak izadiaren legeekin zuzenki bat egiten baitu, esperientzia jarraiki zaien legeekin, alegia (arrazoimen hutsaren *preformazioaren sistema* baten moduko zerbait litzatekeena), bada, orduan hau litzateke erabakigarria aipatu den tarteko bidearen aurka (halako hipotesi batean aurre-determinatutako joeren aurre-suposizioa etorkizuneko judizioetan noraino iritsiko litzatekeen aurrez ezin ikusteaz gain): halako kasuan kategoriei beren adigaiei funtsean dagokien *beharrezkotasuna* faltako litzatiekeela. Izan ere, kausaren adigaia, adibidez, aurre-suposatutako baldintza bati jarraiki zaion ondorio baten beharrezkotasuna adierazten duena, faltua litzateke, baldin eta bera gudan apetaz ereinda dagoen beharrezkotasun subjektiboan funtsatzen bada, hots, errepresentazio enpiriko jakinak hartuemanaren halako erregelari jarraiki lotzeko beharrezkotasunean. Ezingo nuke esan efektua kausarekin dagoela lotua objektuan (h. d., halabeharrez), baizik eta ni hala nagoela antolatua, ezen errepresentazio hau ezin baitut horrela elkarlotua baino pentsatu; hau izaki eszeptikoak gehien desiratzen duena; izan ere, honenbestez, gure judizioen ustezko baliotasun objektiboaren bidez lortutako gure ikuskera oro itxura soila besterik ez litzateke izango, eta beharrezkotasun subjektibo hau (sentitu egin behar dena) berez onartuko ez lukeen jenderik ez litzateke faltako; inolaz ere ezingo genuke inorekin nire subjektua organizatua dagoen eran besterik funtsatzen ez denari buruz eztabaidatu.

Dedukzio honen ulermen laburra

Dedukzioa adimenaren adigai hutsen (eta beraiekin batera apriorizko ezagutza teoretiko ororen) aurkezpena da, esperientziaren ahalgarritasunaren printzipioak diren aldetik; esperientziaren aurkezpena ere bai, ordea, agerpenen

determinazio gisa *oro har* espazioan eta denboran; azkenik, *determinazio* honen aurkezpena da apertzepzioaren *jatorrizko* batasun sintetikotik abiatuta, sentimenaren jatorrizko formak diren espazioarekin eta denborarekin harremanean dagoen adimenaren forma den aldetik.

* * *

Paragrafoetan sailkapena honaino besterik ez da izan *beharrezkoa*, oinarrizko adigaiak baitziren autugaia. Orain beren erabilera aurkeztu nahi denez gero, azalpenak sailkapenik gabe egin dezake aurrera testu jarraituan⁶⁷.

Adimenaren adigai hutsen dedukzioaren

Bigarren atala

Esperientziaren ahalgarritasunaren apriorizko oinarriez

Adigai bat osorik a priori sortzea eta objektu bati lotu behar izatea, objektua esperientzia ahalgarriaren adigaiari ez egokitu arren, esperientzia ahalgarriaren osagaiez ere osatu ez arren, erabat kontraesankorra eta ezinezkoa da. Izan ere, ez luke ezein edukirik izango, berari begiespenik ez bailitzaioke egokituko, objektuak ematen dizkiguten begiespenek oro har esperientzia ahalgarriaren alor edo objektu osoa osatzen duten heinean. Esperientziari lotzen ez zaion apriorizko adigaia adigai baten forma logiko soilak litzateke, baina ez zerbait pentsaraziko lukeen adigaia bera.

Beraz, apriorizko adigai hutsak baldin badaude, orduan hauek ezin dute, noski, ezer enpirikorik barnebildu; halere, esperientzia ahalgarri baten apriorizko baldintza soilak izan behar dute eta honetan baino ezin funtsa daiteke errealitate objektiboa.

Horregatik, jakin nahi bada ea adimenaren adigai hutsak nola diren ahalgarriak, orduan esperientziaren ahalgarritasunak behar dituen eta bere oinarrian dauden apriorizko baldintzak aztertu behar dira agerpenetan enpirikoa den oroz abstraitzen dugunean. Esperientziaren baldintza formal eta objektibo hau orokorki eta askiro adierazten duen adigaia adimenaren adigai hutsa izena du. Behin adimenaren adigai hutsak badituzte, orduan ederki asma ditzaket agian ezinezkoak diren objektuak, edo agian berez ahalgarriak diren baina ezein esperientziatan eman ezin direnak, adigai haien elkarloturan esperientzia ahalgarri baten baldintzari halaberrez dagokion zerbait alde batera utzi zitekeen heinean (espiritu baten adigaia), edo adimenaren adigai hutsak esperientziak bil dezakeena baino urrunago hedatzen direnean (Jainkoaren adigaia). Apriorizko ezagutza orotarako *osagaiak*, ordea, baita hautazko asmazio burugabekoetarako osagaiak ere, ezin dira egiatan esperientziatik hartu (izan ere, bestela ez lirateke apriorizko ezagutzak), baina haiek beti esperientzia ahalgarriaren eta bere objektu baten apriorizko baldintza hutsak barnebildu behar dituzte, zeren, bestela, beren bitartez ezer ezin pentsatzeaz gain, daturik ez izatean, sortu ere ezingo bailitzateke egin pentsatzean.

Esperientzia orotan pentsatze hutsa a priori barnebiltzen duten adigai hauek kategorietan aurkitzen ditugu, eta objektu bat beren bitartez baino ezin dela pentsatu frogatu ahal bada, hau haien dedukzio gogobetegarria eta haien baliotasun objektiboaren legeztapena ere bada. Halako pentsamenduan, ordea, pentsatzeko ahalmen soilak, hots, adimenak baino zerbait gehiagok jarduten duenez, eta honek objektuei lotu behar zaizen ezagumen gisa era berean harreman horren ahalgarritasunari dagokion azalpena behar duenez gero, orduan esperientziaren ahalgarritasunaren apriorizko oinarritzapena osatzen duten iturburu subjektiboak kontsideratu behar ditut, ez beren antolaera enpirikoari, baizik transzendentalari dagokionez.

Haietako errepresentazio bakoitza besteentzat guztiz arrotza balitz, nolabait esateko, bakartua balitz, eta haietatik aldentua egongo balitz, orduan inoiz ez litzateke ezagutzaren gisako zerbait sortuko. Hau elkarren artean alderatzen eta konbinatzen diren errepresentazioen osokiak osatzen du. Beraz, alde batetik, sentuari sinopsia egozten badiogu bere begiespenean anizkuntasuna barnebiltzen duelako, orduan honi beti sintesia ere badagokio, eta *harrenak berezkotasunari* lotuta baino ezin ditzake ahalbidetu ezagutzak. Berezkotasuna da ezagutza orotan halaberrez ematen diren hiru sintesien oinarria: errepresentazioen *atzematearena* begiespenean, errepresentazioak gogamenaren modifikazioak diren aldetik, errepresentazio horien *birproduktzioarena* irudimenean eta beren *berrezagutzarena* adigaian. Hauek, hortaz, ezagutzaren hiru iturburu subjektiboetarako gida ematen dute, adimena bera, eta honen bitartez, esperientzia oro ahalbidetzen duten iturburuetarako, alegia, esperientzia adimenaren produktu enpirikoa den aldetik.

Atariko oharpena

Kategorien dedukzioa hainbeste zailtasunekin lotua dago eta oro har gure ezagutzaren ahalgarritasunaren lehen oinarrietan hain sakon sartzera behartzen du, ezen zuhurrago aurkitu baitut teoria osatu baten gehiegizko luzapena saihestearren eta, hala ere, beharrezko azterketa honetan ezer alde batera utzi gabe, datozen lau zenbakien bitartez irakurlea gehiago prestatzea berari irakaspenak ematea baino, eta hurrenez datorren hirugarren atalean adimenaren osagai hauen

argiketa lehen-lehenik sistematikoki aurkeztea. Horregatik, artean irakurleak ez du beldurrik egoteko beharrik bide berri batetik abiatzean hasieran saihestezina gertatzen den iluntasunaz, izan ere, aipatutako atalean bidea argiztatuko da ikuskera beteraino, itxaroten dudanez.

1

Atzementaren sintesiaz begiespenean

Gure errepresentazioak edonondik sor daitezke, kanpoko gauzen eraginagatik edo barneko kausengatik sortuak direla ere; a priori edo enpirikoki agerpen gisa sortuak direla ere; dena dela, gogamenaren modifikazio gisa barneko sentuari dagozkio, eta hainbestez, azken buruan gure ezagutza oro barneko sentuaren, hots, denboraren baldintza formalen menpean dago, eta haiek osotara denboran ordenatu, elkarlotu eta hartuemanen jarri behar dira. Hau datorrenaren oinarrian ezarri behar den ohar orokorra da.

Begiespen bakoitzak anizkunki bat barnebiltzen du bere baitan, anizkunki gisa errepresentatuko ez litzatekeena, baldin eta gogamenak denbora ez balu bereiziko zirraren segidan; izan ere, *une batean barnebildua den aldetik*, errepresentazio bakoitzak ezin du batasun absolutua baino izan. Beharrezkoa da anizkuntasuna zeharkatzea, eta gainera, biltzea, honela anizkunki hau begiespenaren batasuna bihurtzeko (espazioaren errepresentazioan gertatzen den legez), eta ekintza honi *atzementaren sintesia* deitzen diot, begiespen batekin baitu zerikusia zuzenki, zeinak anizkunki bat eskaintzen duen, nahiz eta bertan ematen den sintesirik gabe inoiz ezin duen sortu anizkunkia, anizkunkia den eta gainera *errerepresentazio batean* barnebilduta dagoen aldetik.

Atzementaren sintesi hau ere a priori, h. d., enpirikoak ez diren errepresentazioetarako erabili behar da. Izan ere, beraiek gabe ezingo genituzke ez espazioaren, ezta denboraren errepresentazioak ere izan a priori, zeren hauek sentimenak bere jatorrizko harmenean eskaintzen duen anizkunkiaren sintesiaren bitartez baino ezin baitira sortu. Beraz, atzementaren sintesi hutsa daukagu.

2

Birprodukzioaren sintesiaz irudimenean

Lege enpiriko soil baten arabera elkartzen dira azkenean elkarren segidan doazen edo elkarri lagun egiten dioten errepresentazioak, eta honen bitartez elkarloturan jartzen dira, eta errepresentazio hauetako batek elkarlotura honi jarraiki objektuaren presentziarik gabe ere gogamenaren igarobidea sortzen du beste errepresentazioetara erregela jarraitu baten arabera. Birprodukzioaren lege honek, ordea, zera auresuposatzen du: agerpen bera benetan halako erregelaren menpean egotea, eta bere errepresentazioen anizkunkian erregela jakinen arabera laguntza edo segida bat egotea; izan ere, hau gabe, irudimen enpirikoak inoiz ez luke lortuko bere ahalmenari egokia zaion jardunik, eta beraz, gogamenaren barnean ezkutatua iraungo luke hilda legokeen eta guretzat ere ezezaguna izango litzatekeen ahalmen baten gisara. Baldin eta zinabrio batzuetan gorria eta besteetan beltza, batzuetan arina eta besteetan pisua balitz, gizakiak batzuetan abere-tankera balu eta besteetan beste tankera hartuko balu, egun luzeenetan lurra batzuetan fruituz eta besteetan izotzez eta elurrez betea balego, orduan nire irudimen enpirikoak inoiz ez luke zinabrio pisua pentsatzeko aukerarik izango, kolore gorriaren errepresentazioa dela eta, edo hitz jakin bati batzuetan gauza bat balegokio eta besteetan bestea, edo baita gauza berbera ere batzuetan honela eta besteetan hala izendatuko balitz, agerpenak berenez menperatuko litzaizkiokeen erregela baten nagusigorik gabe, orduan ezingo litzateke birprodukzioaren sintesi enpirikorik gertatu.

Beraz, agerpenen birprodukzio hori ahalbidetzen duen zerbaitek egon behar du, haien beharrezko batasun sintetikoaren apriorizko oinarria den zerbaitek. Eraitza honetara azkar heltzen gara, gogoan hartzen bada agerpenak berbaitango gauzak ez, baina gure errepresentazioen jolas soilak direla, azkenean barneko sentuaren determinazioak baino ez direnak. Hortaz, erakutsi badezakegu gure apriorizko begiespen hutsenek berek ere ez dutela ezagutzarik sortzen, birprodukzioaren sintesi osoa

ahalbidetzen duen anizkunkiaren halako lotura barnebildu ezik, orduan irudimenaren sintesi hau ere esperientzia ororen aurretik apriorizko printzipioetan oinarritua dago eta esperientzia ororen ahalgarritasunaren oinarrian datzan bere sintesi transzendental hutsa onartu behar da (agerpenen birproduzigarritasunak halabeharrez auresuposatzen duen legez). Nabarmena da, ordea, nire pentsamenduan lerro bat marrazten, edo eguerdi batetik hurrengorako denbora pentsatzen, edo arrunki zenbaki bat errepresentatzen saiatzen baldin banaiz, orduan nire pentsamenduak errepresentazio anizkun horiek bata bestearen ondoren jasotzetik abiatu behar duela. Nire pentsamenduak beti aurreko errepresentazioak ihesten utziko balitu hurrengoetara igarotzean, haiek birproduzitu gabe, orduan inoiz ezingo litzateke errepresentazio osoa sortu, ezta aipatutako pentsamendurik ere, eta are gutxiago sortuko lirateke espazioaren eta denboraren oinarritzko errepresentazio hutsenak eta lehenak.

Atzematearen sintesia, beraz, bereiztezinki lotuta dago birprodukzioaren sintesiarekin. Eta hark oro harrezko ezagutza ororen ahalgarritasunaren oinarri transzendental osatzen duenez gero (ezagutza enpirikoarena ez ezik, apriorizko ezagutza hutsarena ere bai), orduan irudimenaren sintesi birproduktiboa gogamenaren ekintza transzendentalei dagokie, eta hauen adeiez ahalmen honi irudimenaren ahalmen transzendental deitu nahi diogu.

3

Berrezagutzaren sintesiaz adigai

Guk pentsatzen duguna une bat lehenago pentsatzen dugunaren berbera izatearen kontzientziarik izango ez bagenu, errepresentazioen ilarako birprodukzio oro alferrikakoa litzateke. Izan ere, errepresentazio berria genuke oraingo egoeran, hura pixkanaka sortu behar duen ekintzari inolaz ere egokituko ez litzaiokeen errepresentazioa, eta bere anizkunkiak beti ere ez luke osokirik osatuko, kontzientziak baino eman ez diezaiokeen batasuna faltako bailitzaioke. Zenbatzean nire sentsuen aurrean lokan dabilzan batasunak bata besteari pixkanaka gaineratu dizkiodala ahaztuko banu, orduan ez nuke ezagutuko bata eta bestearen hurrenez hurrengo gehiketa horren bidezko kopuruaren sorkuntza, eta beraz, ezta zenbakia ere; izan ere, adigai hau sintesi honen batasunaren kontzientzia besterik ez da.

«Adigai» hitzak berez ohar honetarako gida eman diezaguke. Izan ere, kontzientzia *bakar* hau da anizkunkia pixkanaka begietsita eta ondoren birproduzituta errepresentazio batean bateratzen duena. Kontzientzia hau maiz ahula izan daiteke, eta ondorioz, ez dugu elkarlotzen ekintza berarekin, h. d., zuzenki errepresentazioaren sorkuntzarekin, baizik eta efektuarekin besterik ez, baina bereizketa hauek alde batera utziz, beti ere kontzientzia batek egon behar du, argitasun berezia falta bazaio ere, eta bera gabe adigaiak ezinezkoak dira, baita hauekin batera objektuen ezagutza ere.

Eta hemen beharrezkoa gertatzen da errepresentazioen objektuaren adierazpenaz esan nahi dena ulargarria bihurtzea. Gorago esan dugu: agerpenak ez dira sentsuzko errepresentazioak baino, beren baitan (indar errepresentatzaitetik at) objektutzat hartu behar ez direnak. Zer ulertzen da, izan ere, ezagutzari dagokion, eta beraz, bertatik bereizten den objektuaz hitz egiten denean? Erraza da aditzea objektu hau zerbait oro har balitz bezala = X besterik ez dela pentsatu behar, zeren guk ez baitauek ezagutza horri dagokion eta berari kontrajar diezaiokegun ezer geure ezagutzaz gain.

Hala ere, ezagutza orok bere objektuarekin duen harremanaz dugun pentsamenduak aldean beharrezkotasunik badakarrela aurkitzen dugu, zeren, hain zuzen, pentsamendu hau beharrezkotasun horri kontrajarritzat hartzen baita, eta gure ezagutzak ausaz edo apetaz ez, baizik a priori era jakin batera determinatzen direla ere aurkitzen dugu, zeren objektu bati lotu behar zaizkion ezagutzak euren artean ados jarri behar baitira objektu horri dagokionez, h. d., objektu baten adigaia osatzen duen batasuna eduki behar baitute.

Gure autugaia gure errepresentazioen anizkunkiak baino osatzen ez duenez gero, eta haiei dagokien X hori (objektua) gure errepresentazioetatik bereizitako zerbait izan behar duelako guretzat ezer ez denez gero, orduan argi dago objektua beharrezkoa bihurtzen duen batasuna errepresentazioen anizkunkiaren sintesian ematen den kontzientziaren batasun formula baino ezin daitekeela izan. Beraz, zera diogu: objektua ezagutzen dugula begiespenaren anizkunkian batasun sintetikoa sortu dugunean. Hau, ordea, ezinezkoa da, baldin eta begiespena ezin badaiteke sortu sintesiaren halako funtzio baten bitartez

erregela bati jarraiki, anizkunkiaren birprodukzioa eta hura bateratzen duen adigai bat a priori halabeharrez ahalbidetzen dituen funtzioa, alegia. Horrela, hiruki bat pentsatzen dugu objektu gisa, erregela bati jarraiki egindako hiru lerro zuzenen elkarketaz kontziente garen heinean, eta horrela, beti aurkez daiteke halako begiespen bat erregelaren arabera. *Erregelaren batasun* honek anizkunki oro determinatzen du eta apertzepzioaren batasuna ahalbidetzen duten baldintzetara zedarritzatzen du, eta batasunaren adigai hau objektuaren = X errepresentazioa da, hiruki batean aipatutako predikatuen bitartez pentsatzen dudana objektuaren errepresentazioa.

Ezagutza orok adigai bat eskatzen du, hau hain ezosoa edo iluna bada ere; adigaia, ordea, beti orokorra da bere formari dagokionez eta erregelatzat balio du. Horrela, gorputzaren adigaiak kanpoko agerpenen gure ezagutzarako erregelatzat balio du bere bitartez pentsatzen den anizkunkiaren batasunari jarraiki. Baina adigaia agerpen jakinetan beren anizkunkiaren beharrezko birprodukzioa, eta beraz, batasun sintetikoa bere kontzientzian errepresentatzearen bidez besterik ezin daiteke izan begiespenen erregela. Horrela, gure kanpoko zerbait hautematean, gorputzaren adigaiak hedaduraren errepresentazioa eta berekin batera sarrezintasunarena, tankerarena, eta abarrena, behar ditu.

Beharrezkotasun ororen oinarrian beti baldintza transzendental bat dago. Beraz, kontzientziaren batasunaren oinarri transzendental aurkitu behar da gure begiespen ororen anizkunkiaren sintesian, eta beraz, oro harrezko objektuaren adigaian, eta ondorioz, baita esperientziaren objektu orotan ere, bera gabe ezinezkoa bailitzateke gure begiespenentzako objekturik pentsatzea, zeren hau ez baita bere adigaiaren bidez sintesiaren halako beharrezkotasuna adierazten duen Zerbait baino.

Jatorrizko baldintza transzendental hau *apertzepzio transzendental* besterik ez da. Norbere buruaren kontzientzia barneko hautemapenean enpirikoa baino ez da gure egoeraren determinazioari dagokionez, beti aldakorra da, ezin daiteke ezein Norbera egonkor edo geldikorrik egon barneko agerpenen isuri horretan, eta *barneko sentsua* deitzen zaio eskuarki, edo *apertzepzio enpirikoa*. Zenbaki-identitatea izanik errepresentatu behar dena ezin da identikoa balitz bezala pentsatu datu enpirikoen bitartez. Esperientzia ororen aurretik doan eta bera ahalbidetzen duen baldintza batek izan behar du, hots, halako auresuposizio transzendental baliogarria bihurtu behar duen baldintzak izan behar du.

Ezin da gugan ezagutzarik gertatu, ezta hauen arteko elkarlotura eta batasunik ere, begiespenetako datu guztien aurretiazko kontzientziaren batasunik gabe, eta objektuen errepresentazioak batasun horrekin harremanean baino ez dira ahalbidetzen. Kontzientzia huts, jatorrizko eta aldagaitz horri *apertzepzio transzendental* deritzot. Berak izen hau merezi duela honen bidez argitzen da jadanik: batasun objektibo hutsena ere, hots, apriorizko adigaiena (espazioa eta denbora), begiespenek berekin duten harremanaren bidez baino ez dela ahalgarria. Apertzepzio honen zenbaki-batasuna a priori adigai ororen oinarrian dago, sentimenaren begiespenen oinarrian espazioaren eta denboraren anizkuntasuna dagoen bezala.

Apertzepzioaren batasun transzendental honek, ordea, esperientzia batean batera ager daitezkeen agerpen ahalgarri denetatik abiatuta errepresentazio horien guztien bilkura sortzen du legeen arabera. Izan ere, kontzientziaren batasun hori ezinezkoa litzateke, baldin eta gogamenari ezinezkoa balitzaio anizkunkiaren ezagutzan hura sintetikoki ezagutza batean lotzeko erabiltzen duen funtzioaren identitateaz kontziente bihurtzea. Beraz, norbere identitatearen jatorrizko eta beharrezko kontzientzia, aldi berean, bera bezain beharrezkoa den agerpen ororen adigaien araberrako sintesiaren batasuna da, h. d., hura birproduzigarria bihurtu ez ezik, horren bitartez bere begiespenari objektua ere determinatzen dio erregelen arabera, h. d., zerbaiten adigaia determinatzen du eta bertan elkartzen dira begiespenak halabeharrez; izan ere, gogamenari ezinezkoa litzaioke bere identitatea bere errepresentazioen anizkuntasunean pentsatzea, eta gainera, a priori pentsatzea, bere ekintzaren identitatea begi-bistan ez balu, zeinak atzematearen sintesi oro (enpirikoa dena) batasun transzendental bati menperatzen dion eta bere bilkura apriorizko erregelei jarraiki ahalbidetzen duen lehen-lehenik. Dena dela, oro harrezko *objektu* baten gure adigaia zuzenkiago determinatu ahal izango dugu. Errepresentazio orok errepresentazioa den aldetik bere objektua du eta beste errepresentazioen objektua ere izan daiteke. Agerpenak dira guri zuzenki eman ahal zaizkigun objektu bakarrak eta beraietan zuzenki objektuari lotzen zaionak begiespena izena du. Agerpen hauek, ordea, ez dira berbaitango gauzak, baizik eta errepresentazioak besterik ez, zeinek, gainera, beren objektua duten, guk begietsi ezin dugun objektua, alegia, eta horregatik honi objektu ez-enpirikoa, h. d., transzendental = X dei dakioke.

Objektu transzendental honen (benetan gure ezagutza guztietan beti bera = X denaren) adigai hutsa da oro har gure adigai enpiriko guztietan objektuarekin harremana, h. d., errealtate objektiboa sortzen duena. Adigai honek ezin du ezein begiespen determinaturik ere barnebildu eta ez dagokio ezagutzaren anizkunkian aurki daitezkeen batasun hari baino, objektu batekin harremanean dagoen heinean. Harreman hau, ordea, ez da kontzientziaren beharrezko batasuna baino, eta beraz,

anizkunkiaren sintesiaren batasuna, honela gogamenaren funtzio komunaren bitartez hura errepresentazio batean lotzearen. Baina batasun hau a priori beharrezkotzat hartu behar denez gero (zeren ezagutzak bestela ez bailuke objekturik), orduan objektu transzendentalarekin harremana, h. d., gure ezagutza enpirikoaren errealitate objektiboa lege transzendental honetan funtsatzen da: agerpen orok, bere bitartez objektuak ematen zaizkigun heinean, bere batasun sintetikoaren apriorizko erregelaren menpean egon behar duela, hauen arabera baino ez baita ahalgarria beren hartuemana begiespen enpirikoan, h. d., esperientzian agerpenek apertzepzioaren ezinbesteko batasunaren menpean egon behar dutela, begiespen hutsean ere espazioaren eta denboraren baldintza formalen menpean egon behar duten bezala, eta baldintza hauek ahalbidetzen dutela ezagutza lehen-lehenik.

4

Kategorien ahalgarritasunaren atariko argipena, hauek apriorizko ezagutzak diren aldetik

Esperientzia *bakarra* dago, bertan hautemapen guztiak bilkura osoan eta legezkoan egongo balira bezala errepresentatzen direla, espazio eta denbora bat bakarra dauden era berean, zeinetan agerpenaren forma oro eta izate edo ez izatearen hartueman oro gertatzen den. Esperientzia ezberdinez hitz egiten bada, orduan hauek hautemapen ezberdinak besterik ez dira, esperientzia bat eta berberari dagozkion heinean. Hautemapenen batasun osoak eta sintetikoak osatzen du, beraz, esperientziaren forma, eta bera ez da adigaiei jarraiki egindako agerpenen batasun sintetikoa baino.

Adigai enpirikoen arabera egindako sintesiaren batasuna erabat beharbadakoa litzateke, eta hauek batasunaren oinarri transzendentean oinarrituko ez balira, orduan baliteke agerpenen masalda batek gure arima betetzea, baina hortik ez litzateke inoiz esperientziarik sortuko. Gainera, hainbestez, ezagutzak objektuekin duen harreman oro desagertuko litzateke, zerren lege orokor eta beharrezkoei darraien elkarlotura faltako bailitzaioke, eta beraz, pentsamendurik gabeko begiespena izango litzateke, baina inoiz ez ezagutza, eta honenbestez, ez zen ezer izango guretzat.

Oro harrezko esperientzia ahalgarri baten apriorizko baldintzak aldi berean esperientziaren objektuen ahalgarritasunaren baldintzak dira. Hortaz, zera baieztatzen dut: aipatutako *kategoriak pentsamenduaren baldintzak* baino ez dira *esperientzia ahalgarri batean, espazioak eta denborak* esperientzia ahalgarri batean *begiespenaren baldintzak* barnebiltzen dituzten era berean. Beraz, agerpenentzat oro harrezko objektuak pentsatzeko oinarritzko adigaiak ere badira, eta beraz, a priori baliotasun objektiboa dute; hau izaki guk benetan jakin nahi genuena.

Kategoria hauen ahalgarritasuna, baita beharrezkotasuna bera ere, sentimen osoak, eta beraz, agerpen ahalgarri orok jatorrizko apertzepzioarekin duten harremanean funtsatzen dira, non denak halabeharrez autokontzientziaren batasun osoaren baldintzen arabera izan behar duen, h. d., sintesiaren funtzio orokorren menpean egon behar duen, hots, adigaiei jarraiki egindako sintesiaren menpean, bertan baino ezin froga baitezake apertzepzioak a priori bere identitate osoa eta beharrezkoa. Horrela, kausa baten adigaia ez da *adigaiei jarraiki* egindako sintesia baino (denboraren ilaran ondoren datorrenarena beste agerpenekin), eta bere erregela a priori duen eta agerpenak menperatzen dituen halako *batasunik* izan gabe, ezingo litzateke kontzientziaren batasun osorik eta orokorrik, eta beraz, beharrezkorik egon hautemapenen anizkunkian. Hauek, honenbestez, ez lirateke ezein esperientzian kokatuko, eta ondorioz, ez lukete objekturik eta errepresentazioen jolas itsua baino ez lirateke, h. d., amets bat baino gutxiago.

Adimenaren adigai huts haiek esperientziatik eratortzeko eta beraiei jatorri enpiriko soila egozteko saialdi guztiak erabat hutsalak eta alferrikakoak dira. Ez dut aipatu ere egin behar, adibidez, kausa baten adigaiak beharrezkotasunaren ezaugarria dakarrela aldean, zeina ezein esperientziak ezin duen eman, zerren honek agerpen bati eskuarki beste bat jarraiki zaiola irakasten digun arren, ez baitigu irakasten halabeharrez jarraiki behar zaionik, ezta ere hortik a priori eta erabat orokorki baldintzatik ondoriora inferi daitekeela halabeharrez ondorioztatzen denik. Hala ere, *asoziazioaren* erregela osorik onartu egin behar den erregela da, ondokoa esaten baldin bada: jazoeren ondorio-ilaran dena nolabait erregela honen menpean dagoela, alegia, ez dela inoiz zerbait gertatzen aldezturik beste zerbait ez badoa, hura honi darraiola; eta honetaz galdetzen dut ea hau zertan funtsatzen den izadiaren legea den aldetik, eta ea nola den ahalgarria asoziazioa hau. Anizkunkiaren asoziazioaren ahalgarritasunaren oinarriak anizkunkiaren *afinitatea* izena du objektuan datzan heinean. Beraz, hau galdetzen dut: nola

bihurtzen duzue ulergarria agerpenen afinitate osoa (honen bidez agerpenak lege iraunkorren menpean daudela, eta hauen menpean kokatu *behar* dutela)?

Hau ederki uler daiteke nire oinarri-esakuneen arabera. Agerpen ahalgarri oro, errepresentazioa den aldetik, autokontzientzia ahalgarri osoari dagokio. Errepresentazio transzendental gisa, ordea, zenbaki-identitate honetatik bereiztezina eta a priori ziurra da, ezer ezin baita ezagutzara etorri jatorrizko apertzepzio honen bitartez izan ezik. Identitate hau ezagutza enpiriko bihurtu behar den heinean, halabeharrez agerpenen anizkunki ororen sintesian sartu behar denez gero, orduan agerpenak apriorizko baldintzen menpean daude eta beren (atzematearen) sintesia baldintza hauei egokitu behar zaie osorik. Halere, anizkunki jakin bat (eta beraz, era bakar batean) ezar *dezakeen* baldintza orokor baten errepresentazioak *erregela* izena du, eta anizkunkia horrela ezarri *behar* bada, *legea* izena du. Beraz, agerpen guztiak beharrezko legeei jarraiki osatutako elkarlotura osoan daude, eta beraz, *afinitate transzendental* batean, eta *afinitate enpirikoa* honen ondorioa besterik ez da.

Oso zentzugabea eta arrotza dirudi izadia gure apertzepzioaren oinarri subjektiboen arabera ibiltzeak eta bere legezkotasunari dagokionez hauen menpean egoteak. Halere, izadi hori bere baitan agerpenen multzoa baino ez dela pentsatzen baldin bada, eta beraz, ez berbaitango gauza bat, baizik eta gogamenaren errepresentazioen kopuru bat dela, orduan ez da harritu behar hura gure ezagutzaren errotiko ahalmenean soilik ikustear, hots, apertzepzio transzendentalean ikustear, bera esperientzia ororen objektu, h. d., izadia deitu ahal izatea eragiten duen batasunean; eta guk horregatik batasun hori a priori, eta beraz, beharrezkoa bezala ezagut dezakegula pentsa dezakegu, bidearen erdian alde batera utzi beharko genukeen batasuna, hura *bere baitan* gure pentsatzearen lehen iturburuetatik beregainki emango balitz. Izan ere, ez nuke jakingo nondik hartu behar ditugun izadiaren batasun orokor honen esakune sintetikoak, zeren kasu horretan izadiaren objektu bertatik hartu beharko bailirateke. Hau, ordea, enpirikoki besterik ezin daitekeenez gertatu, orduan hortik ez litzateke beharbadako batasun soila baino segituko, baina honek ez du lortzen izadia aipatzean adierazi nahi den beharrezko bilkurara hurbiltzerik ere.

Adimenaren adigai hutsen dedukzioaren

Hirugarren atala

Adimenak oro harrezko objektuekin duen hartuemanaz eta objektuak a priori ezagutzeko ahalgarritasunaz

Aurreko atalean bereizita eta banaka azaldu duguna orain bateratuta eta bilduta aurkeztu nahi dugu. Oro harrezko esperientzia baten ahalgarritasuna eta bere objektuen ezagutza hiru ezagutza-iturburu subjektiboetan funtsatzen dira: *sentsua*, *irudimena* eta *apertzepzioa*; bakoitza enpirikoki kontsidera daiteke, hots, agerpen jakin batzuei aplikatzean, baina denak apriorizko osagai edo oinarritzapenak ere badira, eta honek ahalbidetzen du erabilera enpiriko hori. *Sentsuak* agerpenak enpirikoki *hautemapenean* aurkeztu ditu, *irudimenak* asoziazioan (eta birprodukzioan), *apertzepzioak* errepresentazio birproduktibo hauen eta errepresentazio hauek ematen dituzten agerpenen arteko identitatearen *kontzientzia enpirikoan*, eta beraz, *berrezagupenean*.

Hala ere, hautemapen guztien oinarrian, hauek errepresentazioak diren aldetik, begiespen hutsa datza a priori (barneko begiespenaren forma, denbora), asoziazioaren oinarrian irudimenaren sintesi hutsa eta kontzientzia enpirikoaren oinarrian apertzepzio hutsa, h. d., norbere buruaren identitate osoa errepresentazio ahalgarri orotan.

Orain errepresentazioen elkarloturaren barneko oinarriari errepresentazioak bateratu behar diren punturaino jarraiki nahi bagatzaizkio, honela bertan lehen-lehenik esperientzia ahalgarri baterako ezagutzaren batasuna lortzeko, orduan apertzepzio hutsetik abiatu behar dugu. Begiespen denak ez dira ezer guretzat eta ez digute batere axolarik, kontzientzian ezin badira jaso, dela zuzenki, dela bertara zeharka isurtzen direla, eta honek soilik ahalbidetzen du ezagutza. Gu geure buruaren identitate osoaz gara kontziente a priori gure ezagutzari egoki dakizkioken errepresentazio guztiei dagokienez, errepresentazio ororen ahalgarritasunaren beharrezko baldintza gisa (zeren hauek nigan zerbait errepresentatzen baitute, baina beste guztiarekin batera kontzientzia bati dagokien heinean besterik ez, eta beraz, bertan gutxienez elkarlotu ahal izan behar duten heinean). Printzipio hau a priori finkatua dago eta gure errepresentazioen (eta beraz, baita begiespenen ere) anizkunki ororen *batasunaren printzipio transzendental*a deitzen zaio. Baina anizkunkiaren batasuna subjektu batean sintetikoa da; beraz, apertzepzio hutsak anizkunkiaren batasun sintetikoaren printzipio bat ematen du eskura begiespen ahalgarri orotan⁶⁸.

Batasun sintetiko honek, ordea, sintesi bat aurreuposatzen du, edo jasotzen du, eta batasun hark a priori beharrezkoa izan behar badu, orduan honek ere apriorizko sintesia izan behar du. Beraz, apertzepzioaren batasun transzendental irudimenaren sintesi hutsari lotzen zaio, ezagutza bateko anizkunkiaren elkarketa ororen ahalgarritasunaren apriorizko baldintza gisa. Halere, *irudimenaren sintesi produktiboa* soilik gerta daiteke a priori; izan ere, *birproduktiboa* esperientziaren baldintzetan funtsatzen da. Beraz, irudimenaren sintesi (produktibo) hutsaren beharrezko batasunaren printzipioa ezagutza ororen eta bereziki esperientziaren ahalgarritasunaren oinarria da apertzepzioaren aurretik.

Hortaz, irudimeneko anizkunkiaren sintesiari transzendental deitzen diogu, baldin eta begiespenen bereizketarik gabe apriorizko anizkunkiaren loturari soilik badagokio, eta sintesi honen batasunak transzendental izena du apertzepzioaren jatorrizko batasunarekin harremanean a priori beharrezkoa bezala errepresentatzen denean. Azken hau ezagutza ororen ahalgarritasunaren oinarrian datzanez gero, orduan irudimenaren sintesiaren batasun transzendental ezagutza ahalgarri ororen forma hutsa da, eta honen bitartez errepresentatu behar da a priori ezagutza ahalgarriaren objektu oro.

Apertzepzioaren batasuna irudimenaren sintesiari dagokionez adimena da, eta batasun hau bera irudimen transzendentalaren sintesiari dagokionez adimen hutsa da. Beraz, adimenean apriorizko ezagutza hutsak daude, zeinek irudimenaren sintesi hutsaren beharrezko batasuna barnebiltzen duten agerpen ahalgarri orori dagokionez. Hauek, ordea, *kategoriak* dira, h. d., adimenaren adigai hutsak, eta ondorioz, gizakien indar ezagutzaile enpirikoak halabeharrez adimen bat barnebiltzen du, zeina sentsuen objektu guztiei –begiespenaren eskutik besterik ez izan arren– eta beren sintesiari lotzen zaien irudimenaren bitartez, eta honen menpean daude agerpen denak, esperientzia ahalgarri baterako datu gisa. Agerpenek esperientzia ahalgarriarekin duten harreman hori beharrezkoa denez gero (zeren hau gabe bere bitartez ezein ezagutzarik ez baikenuke jasoko, eta beraz, ez baitziren gure autua izango), bada, orduan adimen hutsa kategoriei esker esperientzia ororen printzipio formal eta sintetiko dela eta agerpenek *adimenarekin beharrezko harremana* dutela ondorioztatzen da.

Orain adimenak kategorien bidez agerpenekin duen beharrezko bilkura behetik gorantz, hots, enpirikoa denetik abiatuta nahi dugu jarri begi-bistan. Ematen zaigun lehenengo gauza agerpena da, eta honek hautemapena izena du kontzientziarekin lotua badago (gutxienez ahalgarria den kontzientzia batekin hartuemanik izan gabe, agerpena ezingo litzateke guretzat inoiz ezagutzaren objektu bihurtu, eta beraz, ez zen ezer izango guretzat, eta bere baitan ezein errealitate objektiborik ez duenez eta ezagutzan soilik existitzen denez gero, ez litzateke ezer izango). Agerpen orok anizkunkia barnebiltzen duenez, eta beraz, hautemapen ezberdinak banaka eta bananduta aurkitzen direnez gero gogamenean, orduan hautemapenok sentimenean bertan ez duten lotura behar dute. Gutan badago, beraz, anizkunki hori sintetizatzen duen ahalmen ekilea, irudimena deitzen diogun ahalmena, eta hautemapenetan zuzenki aplikatutako bere ekintzari atzematea deitzen diot⁶⁹. Irudimenak, beraz, begiespenaren anizkunkia *irudi* batean bildu behar du; beraz, zirrarak bere ekimenean jaso, h. d., atzeman egin behar ditu aldeztu aurretik.

Argi dago, ordea, anizkunkiaren atzemate honek berak soilik ezin sor dezakeela zirraren ezein irudirik eta bilkurarik, oinarri subjektibo bat ez balego, hots, hautemapen bat ez balego, gogamena bertatik beste batera igarotzen dela eta hemendik hurrengora, eta horrela, bere ilara osoak aurkezten dituela, h. d., enpirikoa besterik ez den irudimenaren ahalmen birproduktiborik ez balego.

Errepresentazioak elkarren artean talka egitean gertatzen den lege bereizketarik egin gabe birproduzituko balira, orduan hau beren bilkura determinaturik ez litzatekeenez gero, baizik eta erregularik gabeko metaketa besterik ez, eta beraz, ezein ezagutzarik sortuko ez zenez gero, orduan beren birproduktzioaren erregela batek izan behar du, honi jarraiki errepresentazio bat irudimenean beste errepresentazio jakin batekin lotzeko, eta ez hirugarren batekin. Erregelen arabera osatutako birproduktzioaren oinarri subjektibo eta *enpirikoari* errepresentazioen *asoziazioa* deitzen zaio.

Asoziazioaren batasun honek, ordea, batere oinarri objektiborik ez balu, eta ondorioz, ezinezkoa balitz irudimenak agerpenak bestela atzematea, atzematearen batasun sintetiko ahalgarri honen baldintzapean izan ezik, orduan erabat beharbadakoa litzateke agerpenak giza ezagutzen bilkura bati egokitzea. Izan ere, hautemapenak asoziatzeko ahalmena berehala bagenu, orduan erabat indeterminatua eta beharbadakoa izaten iraungo luke ea hautemapenak gainera asozagarriak ote diren; eta izango ez balira, orduan hautemapenen kopuru bat eta baita sentimen oso bat ere ahalgarriak lirateke, zeinetan kontzientzia enpiriko asko egongo litzatekeen nire gogamenean, berezita eta neure buruan kontzientzia *bakarrari* egokitzeke izan arren, baina hau ezinezkoa da. Izan ere, nik hautemapen oro (jatorrizko apertzepzioaren) kontzientzia batean batzen dudana heinean besterik ezin dezaket esan hautemapen oroz: ni haietaz kontziente naizela. Beraz, oinarri objektibo batek izan behar du, h. d., irudimenaren lege enpiriko ororen aurretik a priori aditzen den oinarria, eta bertan funtsatzen da agerpen orotara luzatzen den legearen ahalgarritasuna, baita beharrezkotasuna ere, hots, agerpenak osoro beren baitan asozagarriak diren eta birproduktzioan elkarlotura osoaren erregela orokorreki menperatzen zaizkien sentsuen datu gisa ulertzeko legearena. Agerpenen

asoziazio ororen oinarri objektibo honi beren *afinitatea* deitzen diot. Oinarri hau, ordea, apertzepzioaren batasunaren oinarri-esakuneetan baino ezin da aurkitu, nireak izan beharko luketen ezagutza guztiei dagokienez. Honi jarraiki, agerpen denek gogamenera etorri beharko lukete, edo hauek bertan atzeman beharko lirateke, eta ondorioz, apertzepzioaren batasunarekin bat egiten dute, baina hau ezinezkoa litzateke beren elkarloturako batasun sintetikorik gabe, eta beraz, objektiboki beharrezkoa den batasun sintetikorik gabe.

Kontzientzia (enpiriko) ororen batasun objektiboa kontzientzia batean (jatorrizko apertzepzioarenean), beraz, hautemapen ahalgarri ororen beharrezko baldintza ere bada, eta agerpenen afinitatea (gertukoa zein urruna) irudimenean egiten den eta a priori erregeletan oinarritzen den sintesiaren beharrezko ondorioa da.

Irudimena, beraz, apriorizko sintesi baten ahalmena ere bada, eta horregatik ematen diogu irudimen produktiboaren izena, eta agerpenaren anizkunki orori dagokionez bere sintesian beharrezko batasuna lortu besterik nahi ez badu, orduan honi irudimenaren funtzio transzendental dei dakioke. Horregatik da arrotza, nahiz eta orain artekoari jarraiki argigarria izan, irudimenaren funtzio transzendental honen bidez besterik ez izatea ahalgarria agerpenen afinitatea, eta honekin batera, asoziazioa, eta honen bidez, azkenean, legeei jarraiki egindako birprodukzioa, eta ondorioz, esperientzia bera, zeren hau gabe objektuen ezein adigairik ez bailitzateke uztartuko esperientzia batean.

Izan ere, *nia* fixu eta iraunkorrak (apertzepzio hutsarenak) gure errepresentazio guztien korrelatua osatzen du, hauetaz kontziente bihurtzea ahalgarria den heinean. Kontzientzia oro apertzepzio huts orobiltzaileari dagokio, orobat sentsuzko begiespen oro errepresentazio gisa barneko begiespen hutsari, hots, denborari dagokion era berean. Apertzepzio hau da irudimen hutsari gehitu behar zaiona honen funtzioa intelektuala bihurtzeko. Izan ere, irudimenaren sintesia berez ez da sentsuzkoa baino, a priori erabili arren, zeren begiespenean ematen den anizkunkia begiespenean agertzen den gisara lotzen baitu, adibidez, hirukiaren tankera. Anizkunkiak apertzepzioaren batasunarekin duen hartuemanaren bitartez adimenari dagozkion adigaiak sor daitezke, baina irudimenaren bitartez soilik jar daitezke harremanean sentsuzko begiespenarekin.

Beraz, irudimen hutsa daukagu giza arimaren oinarritzko ahalmen gisa eta ezagutza ororen oinarrian datza a priori. Bere bitartez, alde batetik, begiespenaren anizkunkia biltzen dugu, eta bestetik, hau apertzepzio hutsaren beharrezko batasunaren baldintzarekin lotzen dugu. Bi muga urrunenek, hots, sentimenak eta adimenak, halaber, egon behar dute elkartuak irudimenaren funtzio transzendentalari esker; zeren haiek, bestela, agerpenak emango bailiguzkete, baina ezagutza enpirikoaren ezein objekturik ez, eta beraz, esperientziarik ez. Atzemateaz, (birprodukzioaren) asoziazioaz eta, azkenik, berrezagutzaz osatzen den benetako esperientziak (esperientziaren osagai enpiriko soilen artean) azkena eta gorenaren osagai honetan esperientziaren batasun formala, eta honekin batera, ezagutza enpirikoaren baliotasun objektibo (egia) oro ahalbidetzen duten adigaiak barnebiltzen ditu. Anizkunkiaren berrezagutzaren oinarri hauek, *oro harrezko esperientzia baten forma soil*a ukitzen duten heinean, *kategoria* haiek besterik ez dira. Beraietan oinarritzen da, beraz, irudimenaren sintesiko batasun formal oro, eta honen bitartez, baita bere erabilera enpiriko oro ere (berrezagutzan, birprodukzioan, asoziazioan, atzematean) agerpenetara jaitسي arte, zeren agerpenak osagai haiei esker soilik koka baitaitezke ezagutzan eta gure kontzientzian oro har, eta beraz, gudan.

Geuk ezartzen dugu *izadia* deitzen diogun agerpenen ordena eta erregulartasuna, eta hauek ezin izango genituzke izadian aurkitu, geuk edo geure gogamenaren izaerak hasiera-hasieratik ez balitu ezarri. Izan ere, izadiaren batasun horrek agerpenen elkarloturaren beharrezko batasuna izan behar du, h. d., a priori ziurra den batasuna. Nola, ordea, bideratu ahal izango genuke batasun sintetiko bat a priori, halako batasunaren oinarri subjektiboak gure gogamenaren ezagutzaren jatorrizko iturburuetan *a priori* barnebilduta ez baleude eta baldintza subjektibo hauek aldi berean objektiboki baliogarriak ez balira, oro har esperientzian objektu bat ezagutzeko ahalgarritasunaren oinarriak diren heinean?

Adimena hainbat eratan argitu dugu lehenago: ezagutzaren berezkotasunaren bidez (sentimenaren harmenari kontrajarria), pentsatzeko ahalmenaren bidez, baita adigaien ahalmenaren bidez ere, edo gainera judizioen ahalmenaren bidez ere bai, eta argipen hauek argitan ikusiz gero, orduan bakar batean biltzen dira. Orain adimena *erregelen ahalmen* gisa ezaugarri dezakegu. Ezagugarri hau emankorragoa da eta bere izaerari gehiago hurbiltzen zaio. Sentimenak (agerpenaren) formak ematen dizkigu, adimenak, berriz, erregelak. Adimenak beti jarduten du agerpenak aztertzen, beraietan erregelaren bat aurkitzeko asmoz. Erregelei legeak deitzen zaie objektiboak diren heinean (eta beraz, objektuaren ezagutzari halaber, atxikitzen bazaizkio). Esperientziari esker berehala lege asko ikasten baditugu ere, hauek lege gorenaren determinazio bereziak besterik ez dira, eta hauen arteko gorenak (beste denak hauen menpean daudela) a priori adimenetik datoz eta ez dira esperientziatik jasotzen, baizik eta agerpenei beren legezkotasuna ematen diete, eta horren bidez, bada, esperientzia beharrezkoa bihurtu behar dute. Adimena, beraz, ez da agerpenen alderaketaren bitartez erregelak sortzeko ahalmen soil, bera

izadiari dagokionez lege-emailea da, h. d., adimenik gabe ez legoke izadirik, h. d., ez litzateke emango erregelei darraien agerpenen anizkunkiaren batasun sintetikorik; izan ere, agerpenek ezin dute berez gugandik at gertatu, baizik eta gure sentimenean besterik ez dira existitzen. Sentimena, ordea, esperientziako ezagutzaren objektu gisa, berak barnebil dezakeen guztiarekin batera, apertzepzioaren batasunean baino ez da ahalgarria. Apertzepzioaren batasuna, ordea, esperientzia bateko agerpen ororen beharrezko legezkotasunaren oinarri transzendental da. Apertzepzioaren batasun hau bera da erregela errepresentazioen anizkunki bati dagokionez (anizkunkia, beraz, errepresentazio bakar batetik abiatuta determinatzeko), eta erregela hauek sortzeko ahalmena adimena da. Agerpen guztiak, beraz, esperientzia ahalgarriak diren aldetik, a priori adimenean dautza, eta agerpenek beren ahalgarritasun formala adimenetik jasotzen dute eta, halaber, begiespen soilak diren aldetik, sentimenean dautza eta formari dagokionez begiespenari esker soilik dira ahalgarriak.

Izadiaren legeen iturburua, eta beraz, izadiaren batasun formalaren iturburua adimena bera dela esateak hain gehiegizkoa, hain zentzugabea dirudien arren, hala eta guztiz ere, halako baieztapena zuzena da, eta objektuekin,hots, esperientziarekin ados dago. Benetan lege enpirikoek ezin dute enpirikoak diren heinean beren jatorria adimen hutsetik eratorri, orobat agerpenen anizkuntasun neurrigabea sentsuzko begiespenaren forma hutsetik abiatuta askiro ezin uler daitekeen bezala. Halere, lege enpiriko denak adimenaren lege hutsen determinazio bereziak besterik ez dira, eta haiek hauen menpean eta hauen normari jarraiki baino ez dira lehen-lehenik ahalgarriak, eta agerpenek legezko forma hartzen dute, agerpen orok bere forma enpirikoaren ezberdintasuna aintzat hartu gabe ere beti sentimenaren forma hutsaren arabera izan behar duen bezala.

Adimen hutsa da, beraz, kategorietan agerpen ororen batasun sintetikoaren legea, eta horren bitartez, lehen-lehenik jatorriz esperientzia bere formari dagokionez ahalbidetzen duena. Dedukzio transzendentalean, ordea, adimenak sentimenarekin duen hartueman hau eta adimenak honi esker esperientziaren objektu guztiekin duen hartuemana, eta beraz, bere adigai hutsen baliotasun objektiboa a priori ulergarria bihurtzea eta horren bidez adigai hauen jatorria eta egia finkatzea baino ez genuen egin behar.

Adimenaren adigai hutsen dedukzio honen zuzentasunaren eta ahalbide bakarraren aurkezpen laburra

Gure ezagutzaren autugaia diren objektuak berbaitango gauzak balira, orduan ezingo genuke hauen ezein adigairik eduki a priori. Izan ere, nondik hartu beharko genituzke? Objektutik hartuz gero (hemen, hau nola ezagut dezakegun berriro ere aztertu gabe), orduan gure adigaiak enpirikoak besterik ez lirateke, eta ez apriorizko adigaiak. Gugandik hartzen baditugu, guran besterik ez dagoenak ezin du determinatu gure errepresentazioetatik ezberdina den objektuaren antolara, h. d., ezin du oinarritu pentsamenduan daukagunari dagokion gauza bat dagoela, eta ez, aldiz, errepresentazio hori guztia kaskala dela. Alderantziz, gure autugaia agerpenak baino ez baldin badira osotara, ahalgarria ez ezik, era berean beharrezkoa ere bada adigai jakin batzuk a priori objektuen ezagutza enpirikoaren aurretik joatea. Izan ere, agerpenak diren aldetik, objektu bat osatzen dute, guran besterik ez dagoen objektua, zeren gure sentimenaren modifikazio soilak ezin baita gugandik at aurkitu. Agerpen hauek denak, eta beraz, guk landu ahal ditugun objektu denak osotara nigan daudela, h. d., nire nortasun identikoaren determinazioak direla errepresentatzeak determinazioek apertzepzio bat eta berean duten batasuna beharrezkotzat adierazten du. Halere, objektuen ezagutza ororen forma kontzientzia ahalgarriaren batasunaz osatua dago (eta honen bidez, anizkunkia objektu bati bategokio bezala pentsatzen da). Beraz, sentsuzko errepresentazioen (begiespenen) anizkunkia kontzientzia bati egokitzeak era objektuen ezagutza ororen aurretik doa bere forma intelektual gisa eta berak osatzen du oro har a priori objektu ororen ezagutza formala, hauek pentsatuak diren heinean (kategoriak). Ezagutza enpiriko ororen aurretik doaz irudimen hutsaren bidez lortutako objektu hauen sintesia eta errepresentazio ororen batasuna jatorrizko apertzepzioarekin harremanean. Adimenaren adigai hutsak, beraz, honegatik besterik ez dira a priori ahalgarriak eta esperientziarekin harremanean beharrezkoak: gure ezagutzaren autugaia agerpenak baino ez direlako, zeinen ahalgarritasuna guran datzan, zeinen elkarlotura eta batasuna (objektu baten errepresentazioan) guran baino ez den aurkitzen, eta beraz, adimenaren adigai huts hauek esperientzia ororen aurretik doaz, eta hau ahalbidetu behar dute lehen-lehenik formari dagokionez. Eta oinarri honetatik, guztien artean ahalgarria den oinarri bakarretik abiatuta bideratu da era berean kategorien dedukzio hau.

Analitika transzendentalaren

Bigarren liburu-saila

Oinarri-esakuneen Analitika

Logika orokorra ezagutzaren goi-ahalmenen sailkaketarekin zuzenki bat datorren plan baten gainean eraikitzen da. Ahalmen hauek *adimena*, *juzgamen* eta *arrazoimena* dira. Irakaspen hark, beraz, bere Analitikan *adigaiez*, *judizioez* eta *inferentziez* jarduten du, oro har adimenaren izendapen zabalaren barne biltzen diren gogamenaren indar haien funtzioei eta ordenari jarraiki.

Aipatutako Logika formal soilak ezagutzaren eduki oroz abstraitzen duenez (hau hutsa nahiz enpirikoa izanda ere) eta oro har pentsatzearen formaz soilik jarduten duenez gero (ezagutza diskurtsiboaren formaz), orduan berak bere zati analitikoan arrazoimenarentzat kanona ere barnebil dezake, eta bere formak haren arau segurua du, bertan erabilitako ezagutzaren izaera berezia kontsideratu gabe a priori arrazoimenaren ekintzen analisi soilaren bitartez bere uneetan adi daitekeen araua.

Logika transzendental eduki determinatu batera, hots, apriorizko ezagutza hutsera soilik zedarriztatzen denez gero, orduan ezin zaio Logika orokorrari jarraiki sailkaketa honetan. Izan ere, *arrazoimenaren erabilera transzendental* inolaz ere objektiboa ez dela gertatzen da, eta beraz, *egiaren Logikari*, h. d., Analitikari ez dagokiola, baizik eta, *itxuraren Logika* denez, irakatsien eraikin eskolastikoaren zati berezi bat eskatzen duela *Dialektika* transzendental izenpean.

Adimenak eta juzgamenak, beraz, beren erabilera objektiboki baliodunaren, eta beraz, egiazkoaren kanona dute Logika transzendentean, eta honen zati analitikoari dagozkio. *Arrazoimena*, ordea, apriorizko objektuei buruz zerbait erabakitze eta ezagutza esperientzia ahalgarriaren mugez goiti hedatzeko bere saialdietan erabat *dialektikoa* da eta bere itxurazko baieztapenak ez zaizkio inolaz ere egokitzen Analitikak barnebildu beharko lukeen kanon bati.

Oinarri-esakuneen Analitika, beraz, *juzgamenarentzako* kanona besterik ez da izango, eta honek apriorizko erregelentzako baldintzak diren adimenaren adigaiak agerpenei aplikatzen irakasten du. Hau dela eta, *juzgamenaren irakaspenaren* izendapena erabiliko dut, *adimenaren* benetako *oinarri-esakuneak* autugai gisa hartzen ditudan heinean, eta horrela zeregina zehazkiago ezaugarritzen da.

Sarrera

Juzgamen transzendentalaz oro har

Adimena oro har erregelen ahalmen gisa definitzen bada, orduan juzgamen zerbait erregelai *menperatzeko* ahalmena da, h. d., zerbait erregela jakin baten menpean dagoen ala ez dagoen bereizteko ahalmena (casus datae legis). Logika orokorrak ez du ezein araurik barnebiltzen juzgamenarentzat, eta ezin ditu barnebildu gainera. Izan ere, *berak ezagutzaren eduki oroz abstraitzen duenez gero*, orduan ezagutzaren forma soil a digaietan, judizioetan eta inferentzietan analitikoki bereiztea eta, horrela, adimenaren erabileraren erregela formalak sortzea baino beste aukerarik ez zaio geratzen. Hark orain zerbait erregela horiei nola menperatzen zaien erakutsiko nahiko balu orokorrean, h. d., ea nola bereiz daitekeen horien menpean dagoen ala ez dagoen, bada, orduan hau ezingo litzateke beste erregela baten arabera baino gertatu. Honek, ordea, erregela den aldetik, berriro ere juzgamenaren heziketa bat eskatzen du, eta horrela erakusten da adimena erregelen bidezko irakaspenaren eta horniketaren gai dela, juzgamen, berriz, talentu berezia dela, irakatsia izan ezin den, baizik eta erabili baino ezin daitekeen talentua. Horregatik, berezko azkartasuna deitzen zaionaren bereizgarria osatzen du eta ezein eskolak ere ezin du osatu bere gabezia; izan ere, honek adimen murriztu bati beste ikuskera batetik hartutako erregelak eman eta, nolabait esateko, txerta diezazkiokeen arren, dena dela, haiek zuzen erabiltzeko ahalmenak ikasleagan bertan egon behar du, eta asmo horrekin ezar dakioken edo zein erregela ez dago gaizki-erabilera baten aurka segurtatzerik izadiaren halako dohaiaren gabezia gertatzen denean⁷⁰. Mediki batek, beraz, epaile batek edo estatu-arazoetan aditua den batek erregela patologiko, juristiko edo politiko ederrak izan ditzakete buruan, beren maisu zehatzak izatera irits daitezkeen mailan gainera, eta, hala ere, beren aplikazioan erraz

behaztopatzen dira, edo berezko juzgamenaren gabeziagatik (nahiz eta ez adimenaren gabeziagatik), eta orokorra in abstracto ikus badezake ere bere menpean in concreto ea kasurik dagokion ezin bereizteagatik, edo adibideen eta benetako zereginen bidez judizio hauek egiteko askiro hezitua ez izateagatik. Hau da adibideen onura bakar eta handia: juzgamena zorrozten dutela. Izan ere, ikuskeraren zuzentasunari eta zehaztasunari dagokienez, adibideek arrunki haiei kalte egiten diete gehienbat, zeren gutxitan betetzen baitute erregelaren baldintza modu egokian (casus in terminis gisa), eta gainera adimenak egiten duen ahalegina ahultzen baitute maiz, hots, erregelak orokorrean eta esperientziaren egoera berezitik beregainki beren askitasunaren arabera aditzeko ahalegina, eta beraz, azkenean, erregelak formalak izango balira bezala erabiltzera gehiago ohitzen da oinarri-esakuneak balira bezala erabiltzera baino. Horrela, adibideak juzgamenaren eskorgak dira, juzgamenaren berezko talentuaren falta dutenek saihestu ezin dituzten eskorgak.

Logika *orokorrak* juzgamenari araurik eman ezin badio ere, Logika *transzendentalarekin* bestela gertatzen da, eta badirudi honek bere benetako zeregintzat duela juzgamena adimen hutsaren erabileran erregela determinatuen bitartez zuzentzea eta segurtatzea. Izan ere, Filosofia ez da beharrezkoa itxuraz adimenari apriorizko ezagutza hutsaren alorrean hedapena emateko, eta beraz, ez da beharrezkoa irakaspena den aldetik, edo, are gehiago, horretarako desegokia litzateke, zeren orain arteko saialdi guztien bidez berari esker oso lur gutxi edo batere ez baita irabazi, baina guk dauzkagun adimenaren adigai huts gutxien erabileran juzgamenak egiten dituen hanka-sartzeak (lapsus iudicii) saihestearren jotzen da buruargitasun osoa eta etsaminatzeko gaitasuna duen Filosofiara, kritika den aldetik (nahiz eta bere onura negatiboa besterik ez izan).

Filosofia transzendentalak, ordea, bereizgarri hau du: adigai hutsean emandako erregela erakustez gain (edo hobeto, erregelentzako baldintza orokorraz gain), aldi berean, a priori erakuts dezakeela hura zein kasutan aplikatu behar den. Puntu honetan beste zientzia irakasgarriei (Matematika salbuetsita) aldea hartzearen zergatikoa honetan datza: beren objektuei a priori lotu behar zaizkien adigaiez ari dela; eta beraz, beren baliotasun objektiboa ezin dela a posteriori erakutsi, izan ere, honek haien duintasuna erabat ukitugabe utziko luke; aitzitik, hark aldi berean baldintzen ezagugarri orokorrak baina gogobetegarriak aurkeztu behar ditu, hauen menpean adigai haiekin adostasunean dauden objektuak eman ahal izateko, zeren, bestela, haiek batere edukirik gabeak, eta beraz, forma logiko soilak bailirateke, ez adimenaren adigai hutsak.

Juzgamenaren irakaspén transzendental honek bi atalburu barnebiltzen ditu: *lehenak*, adimenaren adigai hutsak erabili ahal izateko sentsuzko baldintzez jarduten du, h. d., adimen hutsaren eskematismoaz; *bigarrenak*, berriz, a priori halako baldintzapean adimenaren adigai hutsetatik segitzen diren eta gainerako ezagutzen oinarrian dautzan judizio sintetikoez, h. d., adimen hutsaren oinarri-esakuneez.

Juzgamenaren irakaspén transzendentalaren

(edo oinarri-esakuneeen Analitikaren)

Lehen atalburua

Adimenaren adigai hutsen eskematismoaz

Objektua adigai bati menperatzen zaion kasu guztietan objektu horren errepresentazioak adigaiarekin *homogeneoa* izan behar du, h. d., adigaiak subsumitu beharreko objektuan errepresentatutakoa barnebildu behar du, izan ere, «objektua adigaiaren baitan barnebiltzen da» adierazpenak hori bera esan nahi du. Beraz, *plater* baten adigai enpirikoa *zirkuluaren* adigai geometriko soilarekin *homogeneoa* da, lehenengoan pentsatutako biribiltasuna bigarrenean begiets daitekeen heinean.

Begiespen enpirikoekin alderatuz (baita oro har sentsuzko begiespenekin ere), adimenaren adigai hutsak heterogeneoak dira erabat, eta inoiz ere ezin dira aurkitu ezein begiespenetan. Nola menpera dakieke, beraz, begiespen hori adigai horiei, eta ondorioz, nola *aplika* dakieke kategoria agerpenei? Inork ez baitu esango sentsuek kategoria bat begiets dezaketetik, adibidez, kausalitatea, eta kausalitate hori agerpenean barnebilduta dagoenik. Berezko eta garrantzizko galdekizun hori bera da, hortaz, juzgamenaren irakaspén transzendental bat beharrezkoa bihurtzen duen arrazoia, *adimenaren adigai hutsak* agerpenei oro har aplikatzeko eraren ahalgarritasuna adieraztearren. Objektua pentsatzeko ahalbidea diren adigaiak eta objektu jakin hori emanda

datorkigun modua in concreto errepresentatzen duten adigaiak ez hain ezberdinak, ezta hain heterogeneoak ere ez diren beste zientzia guztietan ez dago argiketa berezi baten beharrik, adimenaren adigai hutsak objektuei aplikatzen zaizkielako.

Argi dago batetik kategoriarekin eta bestetik agerpenarekin homogeneousa izango den hirugarren bat beharrezkoa dela, kategoria agerpenei aplikatzea ahalbidetzen duena. Ararteko errepresentazio horrek hutsa izan behar du (ezer enpirikorik ez duena) eta, hala eta guztiz ere, batetik *intelektuala* eta bestetik *sentsuzkoa* izan behar du. Halakoa da *eskema transzendentala*.

Oro harrezko anizkunkiaren batasun sintetiko hutsa barnebiltzen du adimenaren adigaiak. Barneko sentsuaren, eta beraz, errepresentazio guztien elkarloturan anizkunkia dagokion baldintza formala den heinean, denborak anizkunki bat barnebiltzen du a priori begiespen hutsean. Denboraren determinazio transzendental bat, berriz, *kategoriarekin* homogeneousa da (beronek determinazio horren batasunaosatzen baitu), *orokorra* den eta apriorizko arau batean funtsatzen den heinean. Era berean, *agerpenarekin* homogeneousa ere bada, *denbora* anizkunkiaren edozein errepresentazio enpirikotan barnebilduta dagoen heinean. Horregatik, kategoria agerpenei aplikatu ahal izango zaie denboraren determinazio transzentalaren bidez, zeinak, adimenaren adigaien eskema den aldetik, agerpenak kategoriei *menperatzea* bideratzen baitu.

Kategorien dedukzioan azaldutakoaren ondoren galdekizun honi erantzuteko unean zalantzarik sortuko ez delakoan nago: ea adimenaren adigai huts horiek erabilera enpiriko soil ala erabilera transzendentala izan dezaketen, h. d., ea adigai horiek, esperientzia ahalgarri baten baldintzak diren heinean, agerpenei besterik ez zaizkien lotzen a priori ala, oro harrezko gauzen ahalgarritasunaren baldintzak diren heinean, berbaitango objektuetara heda daitezkeen (gure sentimenera inolaz ere murriztu gabe). Izan ere, aipatutako dedukzio horretan ikusi dugu adigaiak ez direla inolaz ere ahalgarriak eta hauek ezin dutela ezein esanahirik izan, baldin eta adigai horiei edo gutxienez horiek osatzen dituen osagaiei objektu bat zuzenean ematen ez bazaie, eta beraz, ezin dute inolaz ere berbaitango gauzetara jo (alde batera utziz ea gauza horiek guri emanak izan zaizkigun eta nola eman zaizkigun); horrez gain, ikusi dugu objektuak eman dakizkigukeen era bakarra gure sentimenaren modifikazioa dela; ikusi dugu, azkenik, apriorizko adigai hutsek kategorian adimenak betetako funtzioez gain sentimenaren (batez ere, barneko sentsuaren) baldintza formalak barnebildu behar dituztela a priori, kategoria objektuaren bati aplikatu ahal izateko baldintza orokorra barnebiltzen duten baldintzak, alegia. Sentimenaren baldintza formal eta huts honetara murrizten da adimenaren adigaiaren erabilera, eta berari adimenaren adigai horren *eskema* deitu nahi diogu, eta adimenak eskema horiekin duen jardunbideari adimen hutsaren *eskematismoa*.

Eskema bere baitan beti irudimenaren produktua baino ez da; baina irudimenaren sintesiak begiespen berezi batera ez, baina sentimenaren determinazioaren batasunera jotzen duenez, orduan eskemaren eta irudiaren artean bereizi behar da. Horrela, bost puntu jarraian ezartzen badituzte bost zenbakiaren irudia sortzen da. Baina, aitzitik, oro harrezko zenbaki bat pentsatu baino ez baldin badut egiten, bost zenbakia edo ehun zenbakia dela ere, orduan pentsatze hori kopuru bat (mila, adibidez) adigai jakin bati jarraiki irudi batean errepresentatzeko metodo baten errepresentazioa da, ez, ordea, irudi hori bera, zeina azken kasu honetan nekez aztertu edo alderatu ahal izango nukeen adigaiarekin. Irudimenak adigai bati berorren irudia eskuratzeko duen jardunbide orokor baten errepresentazio horri adigai horren eskema deitzen diot.

Egitatean, gure sentsuzko adigai hutsen oinarrian ez datza ezein irudirik, eskemak baizik. Oro harrezko hirukiaren adigaiari inoiz ez litzaioke hiruki baten ezein irudirik egokituko. Izan ere, irudiak ez luke adigai hau hiruki guztientzat balioduna izatea eragiten duen adigaien orokortasuna lortuko, bai angelu zuzenarentzat, bai angelu zehararentzat, eta baita beste hirukientzat ere balioduna, baizik eta beti esfera horren zati batera zedarriztatua egongo litzateke. Hirukiaren eskema pentsamenduan soilik existi daiteke, eta irudimenaren sintesirako erregela bat adierazten du espazioan dauden tankera hutsei begira. Are gutxiago iristen da inoiz esperientziaren objektu bat edo bere irudi bat adigai enpirikoa izatera, aitzitik, adigai hori beti lotzen zaio zuzenki irudimenaren eskemari, gure begiespena adigai orokor jakin bati jarraiki determinatzen duen erregela den aldetik. «Txakur» adigaiak erregela bat adierazten du, eta horri jarraiki nire irudimena gai da lauoineko abere baten tankera marrazteko orokorrean, tankera hori esperientziak eskainiko didan banakako tankeraren batera edo in concreto aurkez diezakedan edozein irudira ere zedarriztaturik egon gabe. Agerpenei eta beren forma soilari dagokienez adimenaren eskematismoa giza arimaren sakonean dagoen antze ezkutuko bat da, eta bere benetako funtzionamendua nekez ezagutaraziko digu izadiak, bera desestaliz begi-bistan jartzearren. Hau besterik ez da esan dezakeguna: *irudia* irudimen produktiboaren ahalmen enpirikoaren produktu bat dela, sentsuzko adigaien *eskema*, oster, (espazioan dauden figurena bezala) apriorizko irudimen hutsaren produktu eta monograma bat dela, nolabait esateko, eta irudimen honen bidez eta berari jarraiki direla ahalgarriak irudiak lehen-lehenik, baina irudi hauek beraiek izendatzen dituen eskemaren bidez soilik elkarlotu beharko direla

adigaiarekin, eta beraz, beren baitan ez dagozkiola guztiz adigaiari. Adimenaren adigai huts baten eskema, aitzitik, ezin da ezein irudi bihurtu, baizik eta sintesi hutsa besterik ez da, kategoriak adierazten duen adigaien batasunaren erregela baten arabera oro har, eta irudimenaren produktu transzendental bat da, hots, haren formaren baldintzei jarraiki (denbora) oro har barneko sentuaren determinazioarekin zerikusia duen produktua errepresentazio guztiei dagokienez, errepresentazio horiek apertzepzioaren batasunaren arabera adigai batean a priori elkartuta egon behar duten heinean.

Adimenaren adigai hutsen eskema transzendentaletarako eskatzen denaren analisi lehor eta aspergarri batean geratu beharrean, nahiago dugu hau kategorien ordenaren arabera eta beraiekin elkarloturan aurkeztu.

Kanpoko sentuari dagokionez espazioak handitasun (quanta) guztien irudi hutsa osatzen du; denbora, berriz, sentuen objektuen irudia da oro har. *Handitasunaren* (quantitatis) *eskema* hutsa, berriz, adimenaren adigai gisa ulertuz gero, *zenbakia* da, Banakoa eta Banakoaren (homogeneoak) hurrenez hurrengo gehitzearen errepresentazioa osatzen duena. Zenbakia, beraz, begiespen homogeneo baten anizkunkiaren sintesiaren batasuna besterik ez da oro har, begiespenaren atzematean neuk denbora bera produzitzeari esker lortutako batasuna, alegia.

Errealitatea adimenaren adigai hutsean oro harrezko sentazio bati dagokiona da; beraz, bere adigaiak bere baitan izate bat (denboran) iragartzen duen zerbait da; ukapena bere adigaiak ez-izate bat (denboran) errepresentatzen duen zerbait da. Bien arteko kontrajarpena, beraz, denbora beraren barnean duten bereizketan datza, denbora betea edo denbora kaskala den arabera. Denbora, ordea, begiespenaren forma besterik ez denez, eta ondorioz, objektuen forma denez, objektuok agerpenak diren aldetik, bada, orduan objektu horietan sentazioari dagokiona objektu ororen materia transzendental da berbaitango gauza gisa (gauzatasuna, errealitatea). Edozein sentazio maila edo handitasun bat du, eta honen bitartez denbora bera bete daiteke, h. d., barneko sentua neurri handi edo txikiagoan bete daiteke objektu baten errepresentazio berari dagokionez, harik eta ezerezero hurbildu arte (=0= negatio). Beraz, hartueman bat eta bilkura bat da edo, hobeto esanda, errealitate ukapenerako igarobide bat da, errealitate bakoitza errepresentagarria bihurtzen duena quantum bat den aldetik, eta errealitate baten eskema Zerbaiten kantitate gisa, honek denbora betetzen duen heinean, denboraren barneko errealitate horren produkzio jarraitu eta erregular hori bera da, zeren eta, edo batetik, nolabaiteko maila duen sentaziotik jaisten baita, harik eta denboran desagertzen den arte, edo bestetik, mailaka gorantz egiten baitu, pixkanaka bere ukapenetik abiatuta berorren handitasuneraino iritsi arte.

Substantziaren eskema errealkiak denboran duen iraunkortasuna da, h. d., errealitate horren errepresentazioa denboraren determinazio enpirikoaren substratu gisa, eta ondorioz, substratu horrek iraun egiten du gainerako guztia aldatzen denean. (Igarotzen dena ez da denbora, iragankorra den guztiaren izatea da denboran igarotzen dena. Denborari, beraz, iragangaitza eta geldikorra izaki, izatean iragangaitza dena dagokio agerpenean, h. d., substantzia, eta bertan baino ezingo ditugu determinatu denborari jarraiki agerpenen segida eta aldiberekotasuna).

Oro harrezko gauza baten kausaren eta kausalitatearen eskema errealkia da, zeinari, hau behin ausaz ezarriz gero, beti beste zerbait jarraiki zaion. Beraz, anizkunkiaren segidaz osatzen da, segida hori erregela bati menperatzen zaion heinean.

Komunitatearen (elkarrekintzaren) edo substantzien elkarrenganako kausalitatearen eskema, substantzien akzidenteei dagokienez, Bataren determinazioek Bestearen determinazioekin erregela orokor baten arabera duten aldiberekotasuna da.

Ahalgarritasunaren eskema zenbait errepresentazioen sintesiaren eta oro har denboraren baldintzen arteko adostasuna da (adibidez, kontrajarria dena gauza berean segidan baino ezin daitekeela izan, eta ez aldi berean); beraz, gauza baten errepresentazioaren determinazioa da denboraren batetan.

Errealitatearen eskema denbora determinatu batean izatea da.

Beharrezkotasunaren eskema objektu bat denbora orotan izatea da.

Honetatik guztitik kategorია bakoitzaren eskemak barnebiltzen duena eta errepresentagarria bihurtzen duena dakusagu: handitasunarenak denbora beraren produkzioa (sintesia) objektu baten hurrenez hurrengo atzematean; kualitatearenak sentazioaren (hautemapenaren) sintesia berorren errepresentazioarekin edo denboraren beteketa; erlazioarenak hautemapenen elkarlotura denbora orotan (h. d., denboraren determinazioaren erregela bati jarraiki); azkenik, modalitatearenak eta bere kategorienak, denbora bera objektu bat ea denborari badagokion eta nola dagokion zehazten duen korrelatoaren determinazio gisa. Beraz, eskemak *denboraren determinazioak* besterik ez dira, a priori erregela batzuei jarraiki eginak, kategorien ordenaren arabera denboraren alderdi hauek adierazten dituzten erregelak, alegia: *ilara*, *edukia*, *ordena*, eta azkenik, *multzoa*, objektu ahalgarri guztiei begira.

Beraz, hemendik abiatuta argitzen da adimenaren eskematismoa irudimenaren sintesi tranzendentalaren bidez barneko sentsuan begiespenaren anizkunki osoaren batasunean biltzen dela, eta horrela, zeharka, apertzepzioaren batasunean ere bai, funtzio gisa barneko sentsuari baitagokio (harmoniari). Ondorioz, adimenaren adigai hutsen eskemak adigai horiek objektu bati egokitzea, eta beraz, *esanahi* bat sortzea ahalbidetzen duten benetako baldintza bakarrak dira, eta beraz, azkenean, kategoriek erabilera enpirikoa besterik ez dute, a priori beharrezkoa den batasun baten bitartez agerpenak sintesiaren erregela orokor batzuei menperatzeko besterik ez baitute balio (kontzientzia guztien beharrezko bateratzea dela eta jatorrizko apertzepzio batean), eta beraz, agerpen horiek esperientzia baten erabateko elkarloturari egokitzeke.

Gure ezagutza guztiak esperientzia ahalgarriaren osokian dautza, eta egia tranzendental, edozein egia enpirikoren aurretik doan eta berau ahalbidetzen duen egia, esperientzia horrekin harreman orokorra izatean datza.

Begi-bistakoa da, ordea, sentimenaren eskemek kategoriak lehen-lehenik egikaritzen dituzten arren, hala eta guztiz ere, beraiek murriztu ere egiten dituztela, h. d., adimenetik kanpo (hots, sentimenean) dautzan baldintza batzuetara zedarritzatzen dituztela. Horregatik, eskema fenomeno bat besterik ez da, edo objektu baten sentsuzko adigaia kategoriarekin adostasunean. (*Numerus* est quantitas phaenomenon, *sensatio* realitas phaenomenon, *constans* et perdurable rerum substantia phaenomenon, *aeternitas*, *necessitas* phaenomena, eta abar). Baldintza murrizgarria alde batera uzten badugu, lehen zedarritzatutako adigaia hedatu egiten dugula dirudi; horrela, beraz, kategoriek beren esanahi hutsean, sentimenaren baldintzak alde batera utziz, oro harrezko gauzentzat balio behar dute, gauzak *diren gisara*; eskemek, aitzitik, gauzak *agertzen diren gisara* soilik errepresentatzen dituzte, eta beraz, kategoriek askoz ere esanahi zabalagoa dute, edozein eskematik beregaina den esanahia. Egitatean, sentsuzko baldintza guztiak ezabatu ondoren ere adimenaren adigai hutsek esanahi bat gordetzen dute, errepresentazioen batasunaren esanahi logiko soila besterik ez dena, baina adigai horiei ez objekturik, ezta, beraz, objektuaren adigai bat esleitzeko gai izango den esanahirik ere ezin izango zaie eratziki. Horrela, adibidez, substantzia adigaitik iraunkortasunaren sentsuzko determinazioa ezabatuko bagenu, orduan adigai horrek subjektu gisa (beste gauza baten predikatu izan gabe) pentsa daitekeen Zerbait besterik ez luke adieraziko. Ezin dut ezer egin errepresentazio honekin, ez baitit erakusten zein determinazio izan beharko lituzkeen halako lehen subjektua izan beharko lukeen gauzak. Beraz, kategoriak eskemarik gabe adigaiei dagozkien adimenaren funtzioak baino ez dira, baina ez dute ezein objekturik errepresentatzen. Esanahi hori sentimenetik datorkie, zeinak adimena egikaritzen duen, aldi berean murrizten duen heinean.

Juzgamenaren irakaspen tranzendentalaren

(edo oinarri-esakuneen Analitikaren)

Bigarren atalburua

Adimen hutsaren oinarri-esakune guztien sistema

Aurreko atalburuan, juzgamen tranzendental adimenaren adigai hutsak judizio sintetikoetan erabiltzea baimentzen dioten baldintza orokorren arabera besterik ez dugu aztertu. Orain, gure zeregina adimenak zuhertasun kritiko honen arabera benetan a priori sortzen dituen judizioak lotura sistematikoan aurkeztea da, eta honetarako gure kategorien taulak eman behar digu ezbairik gabe berezko gidaritza segurua. Zeren hauek baitira, esperientzia ahalgarriarekin harremanean, adimenaren apriorizko ezagutza huts osoa osatzen dutenak, eta beraiek oro har sentimenarekin duten hartuemanak aurkeztuko ditu adimenaren erabileraren oinarri-esakune tranzendentalak osoki eta sistema batean.

Apriorizko oinarri-esakuneek beren baitan beste judizioen oinarriak barnebiltzen dituztelako ez ezik, ezagutza garaiago eta orokorragoetan oinarritzen ez direlako ere badute izen hori. Berekitasun honek ez ditu frogak batetik askatzen. Izan ere, frogak hau objektiboki egin ezin bada ere, baizik, aitzitik, bere objektuaren ezagutza ororen oinarrian badago ere, orduan honek ez du galarazten oro harrezko objektu baten ezagutzaren ahalgarritasunaren iturburu subjektiboetatik abiatutako frogak lortzea ahalgarria eta beharrezkoa izatea, zeren, bestela, esakuneak amarruz sartutako baieztapen batek sortzen duen susmo handia erakarriko bailuke.

Bigarrenik, kategoriei lotzen zaizkien oinarri-esakuneetara baino ez gara zedarriztatutako. Gure azterketak markatutako alorrean, beraz, ez dira kokatzen ez estetika transzendentaleko printzipioak, zeinen arabera espazioa eta denbora gauza guztien ahalgarritasunaren baldintzak diren, gauzok agerpenak diren aldetik, ezta ere, halaber, oinarri-esakune hauen murrizketa hau: hauek ezin lotu zaizkiela berbaitango gauzei. Era berean, oinarri-esakune matematikoez ez dute sistema honen zatirik osatzen, zeren hauek begiespenetik abiatuta besterik ez baitira lortu, ez adimenaren adigai hutsetik; hala ere, beren ahalgarritasunak hemen aurkituko du lekua halabeharrez, zeren, nolabait esateko, apriorizko judizio sintetikoak baitira, ez beren zuzentasuna eta ziurtasun apodiktikoa frogatzeko, ez baitute honen beharrik, baizik eta halako ezagutza ebidentearen ahalgarritasuna a priori ulergarria bihurtzeko eta deduzitzeko besterik ez.

Judizio analitikoaren oinarri-esakuneek ere hitz egin beharko dugu, eta hau benetan gure jarduna diren sintetikoei kontrajarrita, zeren elkarren aurrean jartze honek azkenen teoria gaizki-ulertze orotatik askatzen baitu, eta haien izaera berezia begi-bistan jartzen baitu nabariki.

Adimen hutsaren oinarri-esakuneen sistemaren

Lehen atala

Judizio analitiko guztien oinarri-esakune gorenaz

Gure ezagutzaren edukia dena dela ere eta bera objektuari edozein modutan lotzen zaiola ere, gure oro harrezko judizio guztien baldintza orokorra, negatiboa besterik ez bada ere, hauek beren burua ez kontraesatea da; hau bete ezean, judizio hauek ez dira ezer beren baitan (baita objektua aintzat hartu gabe ere). Dena dela, gure judizioetan kontraesanik ez badago ere, adigaiak objektuak hauek eskatzen ez duten eran lot ditzake, edo guri halako judizioa baimentzen duen ezein oinarri eman gabe lot ditzake, ez a priori, ezta a posteriori ere, eta horrela, barneko kontraesan orotatik aske izan arren, judizio bat faltsua edo oinarrigabea izan daiteke.

«Ezein gauzari ere ez dagokio bera kontraesaten duen predikatua» esakuneak kontraesanaren esakunea izena du, eta egia ororen irizpide orokor baina negatiboa besterik ez da. Horregatik, Logikari besterik ez dagokio, zeren ezagutzez balio baitu, hauek oro harrezko ezagutzak baino ez diren aldetik, beren edukia aintzat hartu gabe, eta zera dio: kontraesanak ezagutza haiek osorik deuseztatzen eta ezeztatzen dituela.

Hala ere, hau era positiboan erabil daiteke, h. d., faltsutasuna eta errakuntza (hau kontraesanean funtsatzen den heinean) baztertzeko ez ezik, egia berrezagutzeko ere bai. Izan ere, *judizioa analitikoa* bada, orduan baieztalea edo ezeztalea izan daiteke, eta ondorioz, bere egia beti askiro berrezagut daiteke kontraesanaren esakuneari jarraiki. Izan ere, objektuaren ezagutzan jadanik adigai gisa datzanaren eta bertan pentsatzen denaren aurkakoa ukatzea beti zuzena da, adigaia bera, ordean, halabeharrez baieztatu behar dugu, zeren bere aurkakoak objektua kontraesango bailuke.

Horregatik, guk ere *kontraesanaren esakunea ezagutza analitiko ororen printzipio* orokorki eta osoki gogobetegarri gisa onartu behar dugu; baina bere aginpidea eta erabilgarritasuna ez dira iristen egiaren irizpide gogobetegarria izatera baina haruntzago. Izan ere, ezein ezagutzak ere norbere burua deuseztatu gabe berari aurka ezin egiteak esakunea gure ezagutzaren egiaren *conditio sine qua non* bihurtzen du, baina ez bere determinazioaren oinarria. Gure autugaia benetan gure ezagutzaren zati sintetikoa baino ez denez gero, orduan beti arretatsu jokatzeko dugu inoiz oinarri-esakune ukaezin honen aurka ez jokatzearren, baina inoiz ezingo dugu itxaron azalpenik halako ezagueraren egiari dagokionez.

Hala ere, badago sonatua baina eduki orotatik askea eta formala besterik ez den oinarri-esakune honen beste formulaketa bat, zuhurtzia ezagatik eta beharrezkoa ez den era batean bertan sartu den sintesi bat barnebiltzen duen formulaketa. Honela dio: «ezinezkoa da zerbait *aldi berean* izatea eta ez izatea». Hemen, esakuneari bertatik abiatuta berez ulertu behar den ziurtasun apodiktikoa beharrezkoa ez den eran gehitzeaz gain («ezinezkoa» hitzaren bitartez) esakunea denboraren baldintzak afektatzen du, eta hau esatera dator: = B den = A gauza batek ezin du aldi berean ez-B izan; baina biak, B eta ez-B, bata bestearen ondoren izan daitezke. Adibidez, gaztea den gizakia ezin da aldi berean zaharra izan, baina gizaki bera denbora batean gaztea izan daiteke eta beste batean ez, h. d., beste denbora batean zaharra izan daiteke. Halere, kontraesanaren esakuneak, logikoa besterik ez den oinarri-esakunea den aldetik, ez ditu bere adierazpenak denboran dauden

hartuemanetara zedarritzatu behar eta horregatik halako formulaketa oinarri-esakunearen asmoaren aurkakoa da. Gaizki-ulertzea hemendik baino ez dator, alegia, gauza baten predikatua lehendabizi bere adigaitik baztertzen dela eta ondoren bere aurkakoa predikatu honi lotzen zaiola, zeinak ez duen kontraesanik sortzen subjektuari dagokionez, baizik eta harekin sintetikoki lotua izan den predikatuari dagokionez besterik ez, eta gainera, lehen eta bigarren predikatuak denbora berean ezartzen baldin badira besterik ez. «Ezikasia den gizakia ez da ikasia» badiot, orduan «*aldi berean*» baldintzak bertan izan behar du; izan ere, denbora batean ezikasia dena, beste batean ikasia izan daiteke. Baina «ezikasia den ezein gizaki ez da ikasia» badiot, orduan esakunea analitikoa da, zeren (ezikasitasunaren) ezaugarria subjektuaren adigaiaren osagarria baita, eta honenbestez, esakune ezeztaila kontraesanaren esakunetik abiatuta zuzenki argitzen da «*aldi berean*» baldintza gaineratzea beharrezkoa izan gabe. Hau da, izan ere, lehenago esakunearen formulaketa aldatu izatearen arrazoia, horren bidez esakune analitiko baten izaera nabariki adieraztearren.

Adimen hutsaren oinarri-esakuneen sistemaren

Bigarren atala

Judizio sintetiko guztien oinarri-esakune gorenaz

Judizio sintetikoen ahalgarritasunaren argipenari dagokion zereginen Logika orokorrak ez du zeresanik, beren izena ezagutzerik ere ez du behar. Bera, ordea, Logika transzendentalak dituen zereginen artean garrantzitsuena da, baita bakarra ere, solasgaia apriorizko judizio sintetikoen ahalgarritasuna eta era berean beren baliotasunaren baldintza eta hedapena baldin bada. Izan ere, hau osatu ondoren gogobete ahal izango du konplutuki bere helburua, hots, adimen hutsaren hedapena eta mugak determinatzea.

Judizio analitikoan emana zaidan adigaian geratzen naiz, honetaz zerbait erabakitzeko. Baieztaila bada, orduan adigai horri jadanik bertan pentsatutakoa eransten diot; ezeztaila bada, orduan bertatik bere aurkakoa baino ez dut baztertzen. Judizio sintetikoan, berriz, emana zaidan adigaitik abiatu behar dut, bertan pentsatua zenaz erabat ezberdina dena berekin hartuemanen kontsideratzeko, eta hartueman hau inoiz ez da ez identitatezkoa, ezta kontraesanezkoa ere, eta bertan ezin da ez judizioaren egia, ezta errakuntza ere ikusi.

Adigai jakin bat beste batekin sintetikoki alderatzearren bertatik irten behar dela onartuz gero, orduan hirugarren bat behar da, bertan bi adigaien sintesia gerta dadin. Zer da, orduan, hirugarren hau, judizio sintetiko ororen ararteko gisa? Gure errepresentazio guztiak barnebiltzen dituen multzo bat besterik ez da, hots, barneko sentsua eta bere apriorizko forma, denbora. Errepresentazioen sintesia irudimenean funtsatzen da, bere batasun sintetikoa (judizioetarako beharrezkoa dena), berriz, apertzepzioaren batasunean. Beraz, barneko sentsuan, irudimenean eta apertzepzioan bilatu behar da judizio sintetikoen ahalgarritasuna, baita judizio sintetiko hutsen ahalgarritasuna ere, hirurek a priori errepresentazioen iturburuak barnebiltzen baitituzte, eta gainera horrexegatik izango dira beharrezkoak, baldin eta errepresentazioen sintesian soilik funtsatzen den objektuen ezagutza bideratu behar bada.

Ezagutza batek errealtate objektiboa izan behar badu, h. d., objektu bati lotu behar bazaio eta bertan esanahia eta zentzua izan behar badu, orduan objektua eman behar zaigu nolabait. Hau gertatu ezean, adigaiak kaskalak dira, eta beraiei esker pentsatu egiten da, baina, egitatean, pentsatze horren bitartez ez da ezer ezagutzen, baizik eta errepresentazioekin jolastu besterik ez da egiten. Objektu bat emana izatea, honek zuzenki begiespenean aurkeztea esan nahi badu eta ez berriro zeharbidez soilik aurkeztea, ez da bere errepresentazioa esperientziari lotzea baino (esperientzia hau erreala edo ahalgarria dela ere). Espazioa eta denbora beraiek ere, enpirikoa den orotatik hain garbi dauden arren, eta a priori gogamenean errepresentatzen direla hain ziurra izan arren, baliotasun objektiborik gabekoak eta zentzurik eta esanahirik gabekoak lirateke, baldin eta esperientziako objektuetan duten beharrezko erabilera ez balitzateke erakutsiko, eta areago, beren errepresentazioa beti irudimen birproduktiboari lotzen zaion eskema soila da, zeinak esperientziaren objektuak biltzen dituen, hauen gabezia adigai haiek ez bailukete esanahirik izango; eta horrela gertatzen da adigai ororekin, direnak direla ere.

Esperientziaren ahalgarritasuna, beraz, gure ezagutza orori apriorizko errealtate objektiboa ematen diona da. Esperientzia, ordea, agerpenen batasun sintetikoan funtsatzen da, h. d., oro har agerpenen objektuen adigai jarraiki egindako

sintesian, eta honen gabezia ez litzateke ezagutza izango, baizik hautemapenen rapsodia soila, osorik elkarlotutako kontzientzia (ahalgarri) baten erregelei jarraiki ezein testuingurutan kokatuko ez liratekeen, eta beraz, apertzepzioaren batasun transzendentalari eta beharrezkoari ere egokituko ez litzaizkiokeen hautemapenen rapsodia. Esperientziak, beraz, bere formaren printzipioak ditu oinarrian a priori, hots, batasunaren erregela orokorrak agerpenen sintesian, zeinen errealitate objektiboa, baldintza orokor gisa, beti esperientzian erakuts daitekeen, baita bere ahalgarritasunean ere. Hala ere, apriorizko esakune sintetikoak ezinezkoak dira harreman honetatik at, zeren ez baitute hirugarren bat, hots, ez baitute objekturik, bertan bere adigaien batasun sintetikoak errealitate objektiboa erakutsi ahal izan dezan.

Horregatik, oro harrezko espazioaz edo irudimen produktiboak bertan marrazten dituen tankerez a priori judizio sintetikoan hainbeste ezagutzen badugu ere, horretarako benetan esperientziaren beharrik izan gabe, bada, dena dela, ezagutza hau ez litzateke ezer izango, ameskeria batez jardutea besterik ez, baldin eta espazioa kanpoko esperientziaren ekaia osatzen duten agerpenen baldintzat hartuko ez balitz. Horregatik, judizio sintetiko huts haiek, zeharbidez bada ere, esperientzia ahalgarriari edo, are gehiago, esperientzia beraren ahalgarritasunari lotzen zaizkio, eta honen gainean baino ez dute oinarritzen beren sintesiaren baliotasun objektiboa.

Esperientzia, sintesi enpiriko gisa, ahalgarria den heinean beste sintesi guztiei errealitatea ematen dien ezaguera bakarra denez gero, orduan sintesi hau, apriorizko ezagutza gisa, esperientziaren batasun sintetikorako beharrezkoa dena baino gehiago ez barnebiltzearen bidez besterik ez da egiazkoa (bat dator objektuarekin).

Judizio sintetiko ororen printzipio gorena, beraz, hau da: halako objektu bakoitza begiespenaren anizkunkiaren batasun sintetikoaren beharrezko baldintzapean dagoela esperientzia ahalgarri batean.

Honela, apriorizko judizio sintetikoak ahalgarriak dira, apriorizko begiespenaren baldintza formalak, irudimenaren sintesia eta bere beharrezko batasuna apertzepzio transzendental batean esperientzia-ezagutza ahalgarri bati lotzen zaizkionean eta zera diogunean: oro harrezko *esperientziaren ahalgarritasun*-baldintzak aldi berean *esperientziaren objektuen ahalgarritasun*-baldintzak dira, eta horregatik dute baliotasun objektiboa apriorizko judizio sintetiko batean.

Adimen hutsaren oinarri-esakuneen sistemaren

Hirugarren atala

Adimenaren oinarri-esakune sintetiko guztien aurkezpen sistematikoa

Nonbait oro har oinarri-esakuneak egotea adimen hutsari esker baino ez da gertatzen, zeina gertatzen denari begira erregelen ahalmena ez ezik, oinarri-esakuneen iturburua ere baden, eta hauen arabera dena (objektu gisa soilik agertu ahal zaiguna) halaber beharrez erregelen menpean dago, zeren hauen gabezia agerpenei inoiz ez bailitzaieke erantsiko beraiei dagokien objektuaren ezagutzarik. Izadiaren legeek berek, adimenaren erabilera enpirikoaren oinarri-esakune gisa kontsideratzen direnean, aldi berean beharrezkotasunaren adierazpen bat dakarte aldean, eta beraz, a priori eta esperientzia ororen aurretik balio duten oinarrietatik datorren determinazioaren susmoa ere bai. Baina izadiaren lege guztiak daude adimenaren oinarri-esakune garaiagoen menpean, lehenengoek bigarrenak agerpenaren kasu berezietan aplikatu besterik egiten ez dituzten heinean. Oinarri-esakune hauek baino ez dute ematen, beraz, erregela baterako baldintza eta, nolabait esateko, esponentea barnebiltzen duen adigaia; esperientziak, aitzitik, erregelen menpean dagoen kasua ematen du.

Ez dago benetan oinarri-esakune enpiriko soilak adimen hutsaren oinarri-esakunetzat hartzeko edo alderantzizkoa gertatzeko arriskurik; izan ere, azkenak ezaugarritzen dituen adigaien arabera beharrezkotasunak aise saihesten du nahasketa hau, eta, aitzitik, beharrezkotasunaren gabezia edozein esakune enpirikotan hautematen da, honek nahi duen bezain orokorki balio badu ere. Badaude, ordea, bereziki adimen hutsari egotzi nahiko ez nizkiokeen apriorizko oinarri-esakuneak, hauek adigai hutsetatik ez, baina begiespen hutsetatik atera baitira (adimenaren bitartez izan bada ere); adimena, ordea, adigaien ahalmena da. Matematikak ditu halako oinarri-esakuneak, baina beren aplikazioa esperientziari beti ere adimen hutsean funtsatzen da, eta beraz, beren baliotasun objektiboa eta apriorizko ezagutza sintetikoaren ahalgarritasuna ere bai (beren dedukzioa).

Horregatik, nire oinarri-esakuneen artean ez ditut Matematika-rikarenak jasoko, baina bai hauen ahalgarritasuna eta baliotasun objektiboa a priori oinarritzen dutenak, eta beraz, oinarri-esakune hauen printzipiotzat hartu behar direnak eta *adigaietatik* begiespenera doazenak, ez *begiespenetik* adigaietara.

Esperientzia ahalgarrian gertatzen den adimenaren adigai hutsen aplikazioan adigaion sintesiaren erabilera edo *matematikoa* edo *dinamikoa* da; izan ere, aldez, agerpen baten *begiespenera* jotzen du oro har, aldez, bere *izatera*. Begiespenaren apriorizko baldintzak, ordea, beharrezkoak dira esperientzia ahalgarriari begira, baina begiespen enpiriko ahalgarri baten objektuaren izatearenak bere baitan beharbadakoak baino ez dira. Horregatik, erabilera matematikoaren oinarri-esakuneak baldintzagabeki beharrezkoak izango dira, h. d., apodiktikoak; erabilera dinamikoa dutenek, berriz, apriorizko beharrezkotasunaren izaera dakarte aldean, nahiz esperientzia bateko pentsatze enpirikoaren baldintzapean soilik izan, eta beraz, zeharbidez eta arartebidez besterik ez, eta ondorioz, ez dute barnebiltzen aurrekoei berez dagokien ebidentzia zuzen hura (nahiz eta esperientziari orokorki lotzen zaion ziurtasuna ez den kaltetzen). Baina hau oinarri-esakuneen sistema honen amaieran hobeto juzgatu ahal izango da.

Kategorien taulak oinarri-esakuneen taularen berezko jarraibidea eskuratzen digu, oinarri-esakuneak ez baitira kategorien erabilera objektiboaren erregelak baino. Ondorioz, adimen hutsaren oinarri-esakune guztiak hauek dira:

1.

Axiomak

begiespenarenak

2.

Aitzinapenak

hautemapenarenak

3.

Analogiak

esperientziarenak

4.

Postulatuak

pentsatze enpirikoarenak

oro har

Izendapen hauek arretaz aukeratu ditut, oinarri-esakune hauen ebidentziari eta aplikazioari dagozkien bereizketak oharkabe ez uztearren. Halere, berehala argituko da *kantitatearen* eta *kualitatearen* kategorien araberako (bi hauen forma besterik ez badugu kontsideratzen) ebidentziari zein agerpenen apriorizko determinazioari dagokienez hauen oinarri-esakuneak beste bienetatik aipagarriki bereizten direla, guztiak osotara ziurtasun osoaren gai badira ere, lehenengoei ziurtasun intuitiboa duten heinean, bigarrenak, berriz, diskurtsiboa besterik ez duten bitartean. Beraz, haiei oinarri-esakune *matematikoak* eta hauei *dinamikoak* deituko diet⁷¹. Hemen oharrarazi behar da ez ditudala begi-aurrean kasu batean Matematikaren oinarri-esakuneak, ezta bestean Dinamika (fisiko) orokorraren oinarri-esakuneak ere, baizik adimen hutsarenak besterik ez barneko sentsuarekin hartuemanen (bertan emanak diren errepresentazioen bereizketarik gabe). Hauen bitartez jasotzen dute haiek, izan ere, osotara beren ahalgarritasuna. Nik, beraz, gehiago izendatu ditut beren aplikazioari begira edukiari begira baino, eta beraiek kontsideratzera nator orain taulan aurkeztuak izan diren ordena berean.

1

Begiespenaren axiomak

*Hauen printzipioa honako hau da: begiespen oro handitasun hedatua da*⁷².

Froga

Agerpen orok bere formaren arabera begiespen bat barnebiltzen du espazioan eta denboran, a priori beren oinarrian datzan begiespena. Beraz, agerpenak ezin dira atzeman, h. d., kontzientzia enpirikoan jaso, anizkunkiaren sintesiaren bitartez izan ezik, zeinaren bidez espazio eta denbora determinatu baten errepresentazioak sortzen diren, h. d., homogeneous denaren elkarketaren eta anizkunki (homogeneo) honen batasun sintetikoaren kontzientziaren bidez. Baina oro har begiespenean homogeneousoki anizkuna denaren kontzientzia handitasun (quantum) baten adigai da, honen bidez objektu baten errepresentazioa lehen-lehenik ahalbidetzen den heinean. Beraz, objektu baten hautemapena bera, agerpen gisa, sentsuzko begiespen jakinaren anizkunkiaren batasun sintetikoaren bitartez baino ez da ahalgarria, eta honen bitartez homogeneousoki anizkuna denaren elkarketaren batasuna pentsatzen da *handitasun* baten adigai; h. d., agerpen denak handitasunak dira osotara, eta gainera, *handitasun hedatuak*, zeren espazioan eta denboran gertatzen diren begiespenak diren aldetik espazioa eta denbora determinatzen duten sintesi berberaren bidez errepresentatuak izan behar baitira⁷³.

Hedatua deitzen diot handitasunari bere zatiaren errepresentazioak osokiarena ahalbidetzen duenean (eta beraz, halabeharrez honen aurretik joan behar duenean). Ezin dut ezein lerrorik errepresentatu, nahi den bezain txikia dela ere, lerroa pentsamenduan marraztu ezean, h. d., puntu batetik aurrera zati guztiak pixkanaka sortu, eta horrela, lehen-lehenik begiespen hori marraztu ezean. Eta gauza bera gertatzen da denborarekin, nahi den bezain laburra dela ere. Bertan, une batetik bestera doan aurrerabide jarraitua pentsatzen dut, non denbora-zati denak sortzen diren, eta hauen gehiketaren bitartez, azkenik, denboraren handitasun bat ere bai. Agerpen orotan begiespen soil a edo espazioa edo denbora denez gero, orduan agerpen oro, begiespen gisa, handitasun hedatua da, hurrenez hurrengo sintesiaren bidez soilik atzematean ezagut daitekeen heinean (zati batetik bestera doan sintesiaren bitartez, alegia). Ondorioz, agerpen denak agregatuak balitz bezala begiesten dira (aurretik emanak diren zatien kopurua bezala), baina hau ez da gertatzen edozein handitasun-erarekin, baizik guk *hedatuak* bezala errepresentatzen eta atzematzen ditugunekin besterik ez.

Irudimen produktiboaren hurrenez hurrengo sintesi honetan oinarritzen da, tankeren sorketa dela eta, hedaturaren Matematika (Geometria) bere axiomekin, a priori sentsuzko begiespenaren baldintzak adierazten dituzten axiomekin, alegia, eta hauen menpean baino ezin daiteke sortu kanpoko agerpenen baten adigai hutsaren eskema; adibidez, «bi punturen artean lerro zuzen bakarra da ahalgarria»; «bi lerro zuzenek ezin dute espazio bat osatu», eta abar. Axioma hauek egiatan handitasunei (quanta) handitasun gisa soilik dagozkie.

Hala ere, handitasunari dagokionez (quantitas), h. d., gauza bat zein neurritakoa den galdekizunari emandako erantzunari dagokionez, esakune hauetako zenbait sintetikoak eta zuzenki ziurak (indemostrabilia) badira ere, hauek ez dituzte axiomarik benetako adieran. Izan ere, «handitasun berberari handitasun berbera gehitzean, edo kentzean, handitasun berbera lortzen dela» esakune analitikoak dira, handitasun baten eta bestearen sorketaren arteko identitateaz zuzenki kontziente naizen heinean; axiomak, ordea, apriorizko esakune sintetikoak izan beharko lukete. Aitzitik, zenbakien hartuemanen esakune ebidenteak sintetikoak dira, baina ez orokorrak, Geometriako esakuneen gisara, eta arrazoi beragatik axiomak ere ez dira, baizik eta zenbakien formulak dei dakieke. $7+5=12$ izatea ez da esakune analitikoa. Izan ere, nik ez dut 12 zenbakia pentsatzen, ez 7aren errepresentazioan, ezta 5arenean ere, ezta bien elkarketarenean ere (*bien batuketan* pentsatu behar dudala ez da solasgaia orain; izan ere, esakune analitikoetan kontua zera da: ea nik predikatua subjektuaren errepresentazioan pentsatzen dudana). Hala ere, sintetikoa izan arren, esakune singularra da. Hemen (banakoetan) homogeneousoa denaren sintesia besterik kontsideratzen ez den heinean, sintesia era bakarrean gerta daiteke, nahiz eta ondoren zenbakien *erabilera* orokorra izan. «Hiru lerroen bidez, bi batera hartuta hirugarrena baino luzeago izaki, hiruki bat marraz daiteke» badiot, orduan nik hemen irudimen produktiboaren funtzioa baino ez dut, hots, lerroak luzeago edo laburrago marraz ditzakeen eta, halaber, edozein angeluren arabera bil ditzakeen

irudimenaren funtzioa. Aitzitik, 7 zenbakia era bakarrean da ahalgarria, baina 12 zenbakia ere, zeina lehena sarekin sintesian lotuz sortzen den. Halako esakuneak, beraz, ez dira axiomak (bada, hortaz, amaigabeak lirateke), baizik eta zenbaki-formulak deitu behar zaie.

Agerpenen Matematikaren oinarri-esakune transzendental honek hedapen handia ematen dio gure apriorizko ezagutzari. Izan ere, bera baino ez da Matematika hutsa bere zehaztasun osoan esperientziako objektuei aplikagarria bihurtzen duena, eta hori ez litzateke berenez argituko oinarri-esakune hau izan gabe, eta gainera, honek zenbait kontraesan sortu ditu. Agerpenak ez dira berbaitango gauzak. Begiespen enpirikoa (espazioaren eta denboraren) begiespen hutsari esker soilik da ahalgarria; Geometriak hauetaz diotenak, beraz, besteentzat ere balio du aurkako hitzik gabe, eta baztertu egin behar dira sentsuen objektuak espazioan eraikitze erregelen araberrakoa (adibidez, lerro edo angeluen zatigarritasun amaigabea) ezin daitezkeela izan dioten aitzakiak. Izan ere, horren bitartez espazioari eta honekin batera Matematika osoari baliotasun objektiboa ukatzen zaio, eta ondorioz, ezin da jakin ea zergatik eta noraino aplika dakioken bera agerpenei. Espazioen eta denboren sintesia da, begiespen ororen funtsezko forma denez, aldi berean agerpenaren atzematea, eta beraz, kanpoko esperientzia denak ahalbidetzen dituen, eta ondorioz, baina objektuen ezagutza oro ere, eta Matematikak bere erabilera hutsean haietaz frogatzen duenak hauentzat ere balio du halaberharrez. Aurkako objektzio guztiak okerki irakatsia izan den arrazoimen baten trabak dira, era faltsuan sentsuen objektuak gure sentimenaren baldintza formalek askatzen saiatzen den arrazoimenaren trabak, eta arrazoimenak objektu hauek adimenari emanak zaizkion berbaitango objektu gisa errepresentatzen ditu, agerpenak besterik ez diren arren; kasu honetan ezingo genuke, noski, beraiez ezer jakin a priori eta sintetikoki, ezta espazioaren adigai hutsei esker ere, eta adigai hauek determinatzen dituen zientzia bera, hots, Geometria, ezinezkoa bihurtuko litzateke.

2

Hautemapenaren aitzinapenak

Hauen printzipioa honako hau da: agerpen orotan sentsazioaren objektua den errealkiak handitasun intentsiboa du, h. d., maila bat du⁷⁴.

Froga

Hautemapena kontzientzia enpirikoa da, h. d., aldi berean sentsazioa den kontzientzia. Agerpenak, hautemapenaren objektuak diren heinean, ez dira begiespen hutsak (formalak besterik ez), espazioa eta denbora diren lege (izan ere, hauek ezin ditugu beren baitan inolaz ere hauteman). Agerpenek, beraz, begiespenaz gain oro harrezko objektuen baterako materia barnebiltzen dute (espazioan edo denboran existitzen den zerbait errepresentatzeko erabiltzen den materia), h. d., sentsazioaren errealkia errepresentazio subjektibo soil gisa, eta berak soilik eragiten du geu afektatua izateaz eta errepresentazio subjektiboa oro harrezko objektu bati lotzeaz kontziente bihurtzea. Hala ere, kontzientzia enpirikotik hutsera doan aldaketa mailakatua gerta daiteke, eta bertan bere errealkia erabat desagertzen da, eta espazioan eta denboran ematen den anizkunkiaren (apriorizko) kontzientzia formal soil geratzen da; beraz, sentsazio baten handitasunaren sorketaren sintesia ere ahalgarria da bere hasieratik abiatuta, begiespen hutsetik = 0 abiatuta, bere hautazko handitasun bateraino. Sentsazioa bere baitan ezein errepresentazio objektiborik ez denez, eta bertan ez espazioaren begiespena, ezta denborarena ere aurkituko ez direnez gero, bada, hemen berari handitasun hedatua ez bada ere, handitasun bat badagokio (eta gainera bere atzematearen bidez, non kontzientzia enpirikoa hutsetik = 0 izari jakin bateraino haz daitekeen), beraz, *handitasun intentsiboa*, eta honi jarraiki hautemapenaren objektu denei, hautemapenak sentsazioa barnebiltzen duen heinean, *handitasun intentsiboa* egotzi behar zaie, h. d., sentsuaren gain duten eraginaren maila⁷⁵.

Ezagutza enpirikoari dagokiona a priori ezagutzea eta determinatzea ahalbidetzen duen ezagutza orori aitzinapen dei dakioko, eta Epikurok «*τὸ ληψίσις*» bere adierazpena esanahi honetan erabiltzen zuen ezbairik gabe. Halere, agerpenetan inoiz a priori ezagutu ez den zerbait, eta beraz, ezagutza enpirikoaren eta apriorizkoaren arteko benetako bereizketa osatzen duen zerbait dagoenez gero, hots, sentsazioa dagoenez gero (hautemapenaren materia gisa), orduan hau benetan aitzinatu ezin

daitekeen zerbait dela ondorioztatzen da. Aitzitik, espazioan eta denboran emanak diren determinazio hutsei, tankerari eta handitasunari dagokionez, agerpenen aitzinapenak deitu ahal izan diegu, zeren hauek a priori errepresentatzen baitute beti a posteriori esperientzian eman daitekeena. Baldin eta sentsazio bakoitzean, oro har sentsazioa den aldetik (sentsazio berezi bat eman gabe ere), zerbait a priori ezagutu baldin badaiteke, orduan honek ezohiko adieran mereziko luke aitzinapen izena, zeren bitxia baitirudi esperientziari bere materiarekin zerikusia duen hortan aurrea hartzea, hau bertatik baino sortu ezin daitekeenean. Eta hemen horrela gertatzen da benetan.

Sentsazioaren bidez soilik egindako atzemateak une bat besterik ez du betetzen (hots, sentsazio askoren segida aintzat hartzen ez badut). Agerpenean dagoen zerbait denez, hots, bere atzemateak zatietatik abiatuta errepresentazio osora doan hurrenez hurrengo sintesirik ez duen zerbait denez, orduan ez du handitasun hedaturik; aipatu den uneko sentsazioaren gabeziak une hau kaskala balitz bezala errepresentatuko luke, eta beraz, $= 0$. Baina begiespen enpirikoan sentsazioari dagokiona errealitatea da (realitas phaenomenon); bere gabeziari dagokiona ukapena $= 0$. Hala ere, sentsazio bakoitzak murrizketa jasan dezake, eta ondorioz, gutxi daiteke eta pixkanaka desager daiteke. Agerpeneko errealitatearen eta ukapenaren artean, beraz, tarteko sentsazio gertagarri askoren bilkura jarraitua dago, eta hauen arteko tartea beti emandako sentsazio jakina eta hutsa edo ukapen osoaren artekoa baino txikiagoa da. Hau da: errealkiak agerpenean beti du handitasun bat, atzematean aurkitzen ez den handitasuna, ordea, hau sentsazio soilaren bitartez une batean eta ez sentsazio askoren hurrenez hurrengo sintesiaren bitartez gertatzen den heinean, eta beraz, zatietatik osokira ez doan heinean; beraz, errealkiak benetan badu handitasun bat, baina hau ez da hedatua.

Batasun gisa soilik atzematen den eta bertan askotasuna ukapenari $= 0$ hurbiltzearen bidez soilik errepresenta daitekeen handitasunari *handitasun intentsiboa* deitzen diot. Beraz, agerpenean errealitate orok handitasun intentsiboa du, h. d., maila bat du. Errealitate hau kausa gisa kontsideratzen bada (sentsazioarena edo beste errealitate batena agerpenean, adibidez, aldaketa baten kausa), orduan errealitatearen mailari, kausa den heinean, momentua deitzen zaio, adibidez, pisuaren momentua, hain zuzen, mailak bere atzematean hurrenez hurrengo ez, baina unekoa den handitasuna adierazten duelako. Gai hau, ordea, hemen behin behineko eran ukitzen dut, izan ere, kausalitatea ez da gure autugaia oraindik.

Horrela, beraz, sentsazio orok, eta beraz, agerpeneko errealitate orok, nahi den bezain txikia dela ere, maila bat du, h. d., handitasun intentsiboa, beti ere gehiago murrizt daitekeena, eta errealitatearen eta ukapenaren artean errealitate ahalgarrien eta txikiagoak diren hautemapen ahalgarrien bilkura jarraitua dago. Kolore bakoitzak, gorriak, adibidez, maila bat du, nahi den bezain txikia dela ere, inoiz txikiena ez den maila, eta gauza bera gertatzen da eskuarki beroarekin, pisuaren momentuarekin, eta abarrekin.

Zati txikienik (bakunik) ez izatearen handitasunaren berekitasunari jarraitasuna deritzait. Espazioa eta denbora quanta jarraiak dira, ezin baita eman muga batzuen barnean kokatzen ez den, eta ondorioz, era berean espazio edo denbora bat osatzen ez duen beren zatirik (puntuak eta aldiuneak). Puntuak eta aldiuneak mugak besterik ez dira, h. d., espazioaren eta denboraren zedarriztapenaren kokaguneak; baina kokaguneez zedarriztatu edo determinatu behar diren begiespenak auresuposatzen dituzte beti: ezingo genuke espaziorik edo denborarik eratu aldeztetik eman ahal litezkeen kokaguneetatik edo osagaietatik abiatuz gero. Halako handitasunei *jariakorrak* dei dakizkieke, zeren (irudimen produktiboaren) sintesia beren sorketan denboran burutzen den aurrerabidea baita, zeinaren jarraitasuna bereziki jariatzearen adierazpenaren bidez izendatzen ohi den.

Oro harrezko agerpen oro, beraz, handitasun jarraitua da, bai bere begiespenari dagokionez, handitasun hedatua den heinean, baita bere hautemapenari (sentsazioari, eta beraz, errealitateari) dagokionez ere, handitasun intentsiboa den heinean. Agerpenaren anizkunkiaren sintesia moztzen bada, orduan hau agerpen askoren agregatu bat da, eta ez da benetan agerpena quantum gisa, zeina modu jakin bateko sintesi produktiboaren jarraipen soilaren bidez ez, baizik beti ere gelditzen doan sintesiaren errepikapenaren bidez sortzen den. 13 talerori diru-quantum deitzen badiot, orduan zuzenki izendatzen dut horrela, baldin eta zilar fineko marko baten edukia ulertzen badut honetaz; hau, ordea, handitasun jarraitua da eta bertan zati txikienik ez dago, baizik zati bakoitzak beti txikiagoentzat materia barnebiltzen duen diru bat osa lezake. Nik, ordea, izendapen horretaz 13 talero biribil ulertzen baditut, beraz, hainbeste diru (bere zilarrezko edukia edozein izanda ere), orduan okerki izendatzen dut taleroen quantum gisa, baizik eta agregatu deitu behar diot, h. d., diruen kopurua. Guztiarekin ere, zenbaki ororen oinarrian batasunak egon behar duenez gero, orduan agerpena quantum bat da, batasun bat den heinean, eta quantum bat den heinean, beti da jarraitua.

Agerpen oro hedakorki zein intentsiboki hartuta handitasun jarraitua bada, «aldaketa oro (gauza baten igarobidea egoera batetik bestera) jarraitua da» esakunea aise eta ebidentzia matematikoarekin frogatu ahal izango litzateke, baldin eta oro

har kausalitate baten aldaketa Filosofia transzendentalaren mugetatik erabat kanpo geratuko ez balitz eta printzipio enpirikoak aurreuposatuko ez balitu. Izan ere, adimenak ez digu a priori ezein berririk ematen gauzen egoera aldatzen duen kausa bat, h. d., haiek emandako egoera jakin baten aurkakora determinatzen dituen kausa ahalgarria izateaz, horren ahalgarritasuna aditzen ez duelako ez ezik (izan ere, ikuskera hau apriorizko ezagutza gehienetan falta zaigu), baita aldagarritasuna esperientziak besterik irakatsi ezin ditzakeen agerpenen determinazio jakinei dagokielako ere, beren kausa aldaezina denean aurkitu behar den heinean. Hemen, gure aurrean guk erabil dezakegun ezer ez dugunez gero, ezer enpirikoa ez duten esperientzia ahalgarri ororen oinarritzko adigai hutsak izan ezik, orduan ezin dugu oinarritzko esperientzia jakinen gainean eraikitzen den Natur Zientzia orokorra aitzinatu, sistemaren batasuna hautsi ezean.

Hala eta guztiz ere, ez zaizkigu froga-oinarririk falta gure oinarri-esakune honek duen eragin handiaz, bai hautemapenak aitzinatzeke, baita beren gabezia osatzeko ere, hortik sor litezkeen inferentzia faltsu guztiei bidea ixten dien heinean.

Errealitate orok hautemapenean maila bat baldin badu, orduan bera eta ukapenaren artean beti eta maila txikiagoen mailaketa amaigabea gertatzen da, eta era berean sentsu bakoitzak sentsazioaren harmenaren maila jakin bat izan behar baldin badu, orduan agerpenean errealki ororen gabezia osoa frogatuko lukeen ezein hautemapen, eta beraz, ezein esperientzia ere ez da ahalgarria, zuzenki nahiz zeharbidez frogatzen duela ere (inferitzearen edozein bidezidorren bidez izanda ere), h. d., esperientziatik ezin da inoiz espazio edo denbora kaskalaren frogarik lortu. Izan ere, lehenik, errealkiaren gabezia osoa bera ezin da sentsuzko begiespenean hauteman, eta bigarrenik, ezin da banako agerpen batetik eta bere errealitatearen mailaren bereizketatik ondorioztatu, ezta bere argipenerako onartu ere. Izan ere, espazio edo denbora determinatu baten begiespen osoa erabat erreala da, h. d., zati bat bera ere ez da kaskala; hala ere, errealitate bakoitzak bere maila duenez gero, hots, agerpenaren handitasun hedatu aldaezinean ezerezero arte (hutsera) maila amaigabeen zehar gutxi daitekeen maila, bada, errealitate honen maila amaigabe ezberdinak izan behar dute, eta hauek betetzen dute espazioa edo denbora, eta handitasun intentsiboa agerpen ezberdinetan txikiagoa edo handiagoa izan daiteke, begiespenaren handitasun hedatua berbera izan arren.

Honen adibide bat eman nahi dugu. Ia natur zientzialari denek bolumen berean hainbat eratako materiaren kantitatearen bereizketa handiak hautematen dituztenez gero (aldeaz, grabitatearen edo pisuaren momentuaren bitartez, aldeaz, beste materia higituen aurkako kontrajarpenaren momentuaren bitartez), orduan aho batez inferitzen dute hortik abiatuta: bolumen honek (agerpenaren handitasun hedatuak) materia orotan, neurri ezberdinetan izan arren, kaskala izan behar duela. Nork pentsatuko luke, orduan, gehienbat izadiaren ikertzaile matematikoak eta mekanikoak diren hauen artean, beren inferentzia hau aurreuposizio metafisiko batean oinarritzen zutela, bera saihesteaz hainbeste arrandiatzen ziren arren? Hau onartzen baitzuten: espazioan *errealkia edonon berbera* dela (hemen ez ditut sarrezintasuna edo pisua aipatuko, hauek adigai enpirikoak baitira), eta handitasun hedatuaren arabera, h. d., kopuruaren arabera soilik bereiz daitekeela. Froga transzendental ematen diot nik beraiek esperientzian oinarrik aurkitu ezin zioten aurreuposizio honi, eta beraz, metafisikoa besterik ez denari, eta frogak ez du frogatu behar bereizketa espazioaren beteketan, baizik eta erabat ezeztatzen du aurreuposizio haren ustezko beharrezkotasuna, hots, aipatutako bereizketa espazio kaskalak onartuz soilik argi daitekeela, eta frogak adimenari gutxienez bereizketa beste era batera pentsatzeko askatasuna emateko meritua du, baldin eta izadiaren argipenak hemen hipotesiren bat beharko balu. Izan ere, hor dakusagu, espazio berberak materia ezberdinez osoki beteak egon arren, hauetako bakoitzean bere presentzia gabeko punturik ez dela geratzen eta, hala ere, errealki bakoitzak kualitate berberan maila bat duela (kontrajartzearen edo pisatzearen maila), hots, handitasun hedatuaren edo kopuruaren gutxitzerik gabe amaigabeki txikiagoa izan daitekeen maila hutsera igaro eta desagertu aurretik. Horrela, espazio bat betetzen duen dilatazioak, beroak esaterako, eta era berean beste errealitate orok (agerpenean), bere maila amaigabeki gutxi dezake espazio horren zati txikien ere kaskala bihurtu gabe, eta era berean espazioa maila txiki horretan bete dezake beste agerpenak maila handiagoan betetzen duen bezala. Nire asmoa ez da hemen inolaz ere hau benetan materien ezberdintasunei pisu espezifikokoaren arabera gertatzen zaienik baieztatzea, baizik adimen hutsaren oinarri-esakune batetik abiatuta erakutsi nahi dut gure hautemapenen izaerak halako argipena ahalbidetzen duela eta faltsuki onartzen dela, azken hau gainera arranditsuki a priori adimenaren oinarri-esakuneari jarraiki baieztatuz, agerpenaren errealkia mailaren arabera berbera dela, eta agregazioa eta bere handitasun hedatuaren arabera soilik ezberdina.

Hala ere, hautemapenaren aitzinapenak beti bere baitan zerbait harrigarria du gogoeta transzendentalera ohitu eta zuhurra bihurtu den izadiaren ikertzailearentzat, eta ezbaiak sortzen dira adimenak honako esakune sintetikoak aitzinatu ahal izateaz, alegia, errealki orok agerpenean duen mailaren esakunea, eta beraz, sentsazio beraren barneko bereizketaren ahalgarritasunaren esakunea, bere kualitate enpirikoaz abstraitzen baldin bada, eta orduan konponketa merezi duen

galdekizuna da ea hemen adimenak nola adieraz dezakeen zerbait sintetikoki apriorizko agerpenez eta hauek nola aitzina ditzakeen, benetan enpirikoak baino ez direnean, hots, sentsazioaren kontua direnean.

Sentsazioaren *kualitatea* beti enpirikoa besterik ez da eta ezin da inolaz ere a priori errepresentatu (adibidez, koloreak, gustamena, eta abar). Guztiarekin ere, oro har sentsazioei dagokien errealkiak, 0 ukapenari kontrajarriz, bere adigaiak bere baitan izate bat barnebiltzen duen zerbait baino ez du errepresentatzen, eta oro har kontzientzia enpiriko bateko sintesia baino ez du esan nahi. Barneko sentsuan, beraz, kontzientzia enpirikoa Otik edozein maila handiagotara gora daiteke, eta ondorioz, begiespenaren handitasun hedatu berberak (adibidez, gainalde argituak) askoren (gutxiago argituen) agregatu batek bezain sentsazio handia sortzen du. Horrez gain, agerpenaren handitasun hedatuaz erabat abstrai daiteke eta, hala ere, sentsazio soilean une batean Otik kontzientzia enpiriko jakin batera doan goraketa erregularren sintesia errepresenta daiteke. Ondorioz, sentsazio guztiak sentsazioak diren heinean a priori⁷⁶ soilik ematen zaizkigu, baina maila bat izateko duten berekitasuna a priori ezagut daiteke. Bitxia da handitasunez oro har *kualitate* bakarra ezagut daitekeela a priori, hots, jarraitasuna, eta bestalde, *kualitate* oroz a priori *kantitate* intentsiboa soilik ezagut daitekeela, hots, maila bat duela, eta beste guztia esperientziaren egitekoa da.

3 *Esperientziaren analogiak*

Hauen printzipioa honako hau da: esperientzia hautemapenen beharrezko elkarloturaren errepresentazioaren bidez baino ez da ahalgarria⁷⁷.

Froga

Esperientzia ezagutza enpiriko bat da, h. d., hautemapenen eskutik objektu bat determinatzen duen ezagutza. Beraz, hautemapenen sintesi bat da; ez, ordea, hautemapenean barnebilduta dagoen sintesia, baizik eta kontzientzia batean hautemapen horren anizkunkiaren batasun sintetikoa barnebiltzen duena, zeinak sentsuen *objektuen* ezagutzaren funtsa osatzen duen, h. d., esperientziaren funtsa (ez soilik sentsuen begiespenen edo sentsazioaren funtsa). Hautemapenek ausaz baino ez dute egiten bat esperentzian, halako moldez, non ez baitakarte beren arteko elkarloturaren beharrik aldean, eta ezin dute ekarri, zeren atzematea begiespen enpirikoaren anizkunkiaren bateratzea besterik ez baita; baina bertan ez dago berak bateratutako agerpenek espazioan eta denboran duten existentzia lotzeko beharrezkotasunaren ezein errepresentaziorik. Esperientzia, ordea, hautemapenen bidezko objektuen ezagutza denez, eta beraz, anizkunkiak izatean dituen hartuemanak bertan errepresentatu behar direnez gero –anizkunkia objektiboki denboran den bezala, ez, ordea, denboran bateratua den bezala, denbora hori, aldi berean, ezin baita hauteman-, orduan objektuen existentziaren determinazioa oro har hauek denboran lotuz baino ezin gerta daiteke, eta beraz, apriorizko adigai elkarlotzaileen bidez besterik ez. Hauek beti aldean beharrezkotasuna dakartenez gero, orduan esperientzia hautemapenen beharrezko elkarloturaren errepresentazioaren bidez baino ez da ahalgarria⁷⁸.

Hauek dira denboraren hiru modi-ak: *iraunkortasuna*, *segida* eta *aldiberekotasuna*. Horregatik, agerpenek denboran dituzten hartueman guztien hiru erregelak esperientzia ororen aurretik joango dira eta bera ahalbidetuko dute lehen-lehenik, eta erregela hauei jarraiki determinatu ahal izango da modi hauetako bakoitzaren izatea edozein denboraren batasunari begira.

Hiru analogien oinarri-esakune orokorra apertzepzioaren beharrezko *batasunean* funtsatzen da *denbora orotan* ahalgarria den edozein (hautemapenaren) kontzientzia enpirikori begira, eta ondorioz, apertzepzioaren batasuna a priori oinarrian datzanez gero, agerpen guztien batasun sintetikoan funtsatzen da hauek denboran duten hartuemanaren arabera. Izan ere, jatorrizko apertzepzioa barneko sentsuari dagokio (errepresentazio guztien multzoari), eta gainera, berorren formari a priori dagokio, h. d., kontzientzia enpiriko anizkunaren denborazko hartuemanari. Anizkunki hori guztia jatorrizko apertzepzioan bateratu behar da berak denboran dituen hartuemanen jarraiki; izan ere, hori bera da apertzepzioaren apriorizko batasun transzendentalak esan nahi duena, alegia, bere menpean datzala nire ezagutzari (h. d., nire ezagutza bateratuari) egokitu behar

zaion guztia, eta beraz, nireztat objektu bihurtu ahal izango den guztia. Hautemapen guztien denborazko hartuemanen *a priori determinatuta* dagoen *batasun sintetiko* hori denbora-determinazio enpiriko guztiek denbora-determinazio orokorren erregelen menpean egon behar dutela dioen legea da, eta esperientziaren analogiek mota horretako erregelak izan behar dute, eta orain jardungo dugu hauetaz.

Berezitasun hau dute beregan oinarri-esakune horiek, hots, ez dituztela aintzat hartzen agerpenak edo beren begiespen enpirikoaren sintesia, baizik agerpen horien *izatea*, eta izate horri begira, agerpenek elkarren artean duten *hartueman*a besterik ez. Hala ere, agerpenean zerbait atzemateko modua honela egon daiteke a priori determinatuta: agerpen horren sintesiaren erregelak aldi berean begiespen hori a priori ematen duela enpirikoki agertzen den aurreko edozein adibidetan, h. d., bertatik abiatuta bideratu ahal izateko moduan. Agerpenen izatea, ordea, ezin daiteke a priori ezagutu, eta bide horretatik izateren bat inferitu ahal izango bagenu ere, ez genuke determinatuta ezagutuko, h. d., ez ginateke bere begiespen enpiriko hori gainerakoetatik bereiziko lukeena aitzinatzeko gauza izango.

Matematika aplikatzea legeztatzen dutelako gorago matematikoak deitu diedan bi oinarri-esakuneek agerpenetara jotzen zuten beren ahalgarritasun soilaren arabera, eta agerpen horiek sintesi matematiko baten erregelei jarraiki produzitu ahal izateko modua irakasten zuten, bai beren begiespenari zegokionez, baita beren hautemapenaren errealkiari zegokionez ere; horregatik, horietako oinarri-esakune batean zein bestean zenbaki-handitasunak erabil ditzakegu eta hauekin batera agerpenaren determinazioa ere bai, hau handitasuna den heinean. Horrela, adibidez, eguzki-argiaren sentsazioen maila, 200.000 bat ilargiren argitzapenez osatua dagoen maila, a priori elkartu eta zehaztu ahal izango dut, h. d., eraiki ahal izango dut. Horregatik, lehen oinarri-esakune horiei eratzailleak dei diezaiek.

Erabat bestela gertatzen da agerpenen izatea a priori erregelen menpean bildu behar duten oinarri-esakuneekin. Izan ere, horrelako izaterik eraiki ezin dugunez gero, orduan oinarri-esakune horiek izatearen hartuemanari soilik dagozkio eta ezingo dituzte printzipio *erregulatzaileak* baino eskuratu. Hemen, beraz, ezin dugu pentsatu axiometan, ezta aitzinapenetan ere, baizik eta hautemapen bat beste hautemapen batekin denbora-hartuemanen egonik ematen bazaigu (beste hau indeterminatua izan arren), orduan ezingo dugu a priori esan ea *zein* den beste hautemapen hori, ezta *zein handitasun* duen ere, baizik eta azken hautemapen hori ea nola lotzen zaion bere izatearen arabera aurrenekoari halaberharrez denborazko modu horretan. Filosofian analogiek oso gauza ezberdina esan nahi dute Matematikan errepresentatzen dutenaren aldean. Matematikan analogiak bi handitasun-hartuemanen berdintasuna adierazten duten formulak dira, eta *eratzailleak* dira beti, beraz, proportzioaren hiru kide emanda, laugarren bat ere ematen da, h. d., hau eraiki dezaket. Filosofian, berriz, analogia ez da bi hartueman *kuantitatibo*en berdintasuna, bi hartueman *kualitatibo*ena baizik, non hiru kide emanda, hauek laugarren batekin duten *hartueman*a ezagut dezakedan, baina ezin dudana ezagutu eta a priori aurkeztu laugarren osakide *hori bera*. Hala ere, bera esperientzian bilatzeko erregela bat dut eta bera esperientzia horretan aurkitzeko ezaugarri bat. Beraz, esperientziaren analogiak erregela bat besterik ez dira izango, zeinaren indarrez hautemapenetatik esperientziaren batasuna sortuko den (ez, ordea, oro har hautemapena bera sortuko den moduan begiespen enpiriko gisa), eta hau objektuen (agerpenen) oinarri-esakunea denez gero, orduan erregela horiek balio *erregulatzaile*a baino ez dute izango, ez, ordea, *eratzaille*a. Gauza berak balioko du oro har pentsamendu enpirikoaren postulatuez, horiek aldi berean begiespen soilaren (agerpenaren formaren), hautemapenaren (begiespen horren materiaren) eta esperientziaren (hautemapen horien hartuemanaren) sintesiari baitagozkie, hots, postulatu horiek oinarri-esakune erregulatzaile soilak direla eta oinarri-esakune eratzailleak diren matematikoetatik bereizten direla, ez bietan a priori finkatua dagoen ziurtasunean, baizik ebidentziaren eran, h. d., beren izaera intuitiboan (eta beraz, demostratzeko eran ere bai).

Hau da oinarri-esakune sintetiko guztiez oharrarazi duguna eta hemen bereziki adierazi beharrekoa: analogia horiek adimenaren erabilera enpirikoaren oinarri-esakune gisa besterik ez dutela balioa eta esanahia, eta ez erabilera transzendentalaren oinarri-esakune gisa, eta beraz, oinarri-esakune enpirikoak diren heinean soilik froga daitezkeela, eta ondorioz, agerpenak ezin zaizkiela absolutuki kategoriei menperatu, baizik eta beren eskemei besterik ez. Izan ere, oinarri-esakune horien objektuak berbaitango gauzak balira, a priori ezer ere ezingo genuke ezagutu sintetikoki hauetaz. Baina agerpenak besterik ez dira eta hauen ezagutza osoa –apriorizko oinarri-esakune guztiak azkenean beti bertara doaz– esperientzia ahalgarria besterik ez da, eta ondorioz, oinarri-esakune horiek ezin dute agerpenen sintesian ezagutza enpirikoaren batasunaren baldintza baino beste xederik izan; halere, sintesi hori adimenaren adigai hutsaren eskeman besterik ez da pentsatzen, eta bere batasunaren funtzioa, ezein sentsuzko baldintzagatik murriztua ez dagoen funtzioa, kategoriak barnebiltzen du, bere batasuna oro harrezko sintesia den heinean. Oinarri-esakune horien bitartez, beraz, sori izango zaigu agerpenak adigaien batasun logikoarekin eta orokorrekarekin elkartzea, analogia baten arabera besterik ez izan arren, eta horregatik, era

berean, oinarri-esakunean kategoriaz balia gaitzke, baina bere egikaritzan (berau agerpenei aplikatzean) kategoriaren ordeztu bere erabileraren gakoa den bere eskema hartuko dugu edo, are gehiago, kategoriaren ondoan jarriko dugu baldintza murrizgarri gisa oinarri-esakunearen formularen izenpean.

A

Lehen analogia

Substantziaren iraunkortasunaren oinarri-esakunea

*Substantziak agerpenen aldakuntza orotan zehar irauten du, eta berorren quantum-a izadian ez da gehitzen, ezta gutxitzen ere*⁷⁹.

Froga

Agerpen guztiak denboran daude eta bai *aldiberekotasuna*, baita *segida* ere, denboran baino ezin ditugu errepresentatu, hau substratua den heinean (barneko begiespenaren forma iraunkor gisa). Denboran pentsatu behar ditugu agerpenen aldakuntza guztiak, eta hark iraun egiten du eta ez da aldatzen; zeren bertan errepresentatzen baitira segida eta aldiberekotasuna bere determinazio soil gisa. Halere, denbora bera ezin dugu hauteman. Eta ondorioz, oro har denbora errepresentatzen duen substratua hautemapenaren objektuetan, h. d., agerpenetan bilatu beharko dugu, eta bertan hauteman daiteke edozein aldakuntza edo aldiberekotasun agerpenek atzematean beraiekin duten hartuemanari esker. Errealaren guztiaren substratua, h. d., gauzen izateari dagokionaren substratua, ordea, *substantzia* da, eta bertan izateari dagokion guztia substantziaren determinazio gisa soilik pentsa daiteke. Ondorioz, iraunkorkia, hots, agerpenek denboran dituzten hartueman guztiak determinatzea ahalbidetzen duen gauza bakarra, substantzia da agerpenean, h. d., bertan dagoen errealkia, edozein aldakuntzaren substratua den heinean beti berbera dirauena. Substantzia hori, beraz, bere izatean aldatu ezin denez gero, bere quantum-a ere ezingo da gehitu edo gutxitu izadian⁸⁰.

Agerpenaren anizkunkiaren gure *atzematea* hurrenez hurren gertatzen da beti, eta beraz, aldakorra da edonoiz. Ezingo dugu, beraz, honetatik soilik abiatuta inoiz determinatu ea anizkunki hori, esperientziaren objektua den heinean, aldiberekoa ala hurrenez hurrengo den, baldin eta *beti existitzen den zerbait*, h. d., *geldikorra* eta *iraunkorra* den zerbait ez badu oinarrian, zeinaren aldakuntzak edo aldiberekotasunak iraunkorkia existitzen den beste hainbat era besterik ez diren (denboraren modiak). Denbora-hartuemanak, beraz, iraunkorkian baino ez dira ahalgarriak (izan ere, aldiberekotasunarena eta segidarena dira denbora-hartueman bakarrak), h. d., iraunkorkia denbora beraren errepresentazio enpirikoaren *substratua* da, eta bertan besterik ezin da izan denbora-determinazio oro. Iraunkortasunak denbora adierazten du oro har agerpenen izate guztien, aldakuntza guztien eta laguntza guztien etengabeko korrelato gisa. Izan ere, aldakuntzak ez dio denborari eragiten, baizik denboran dauden agerpenei soilik (aldiberekotasunak ere denbora beraren modus bat osatzen ez duen era berean, bere zatiak aldiberean ez, baina guztiak hurrenez hurren izaki). Denbora berari segida bat atxiki nahi izango bagenio, beste denbora bat pentsatu beharko genuke, bertan segida hori ahalgarria izan zedin. *Izateak* denbora-ilararen zati ezberdinetan iraunkorkiaren bidez baino ezin lor dezake pixkanaka *luze-laburra* deitzen zaion *handitasun* bat. Izan ere, izatea segida soilean desagertu eta berriz agertzen da, eta ez du ezein handitasunik. Iraunkorki hau gabe, beraz, ez dago denbora-hartuemanik. Hala ere, denbora bere baitan ezin da hauteman; eta beraz, agerpenetan dagoen iraunkorki hori da denbora-hartueman guztien substratua, eta ondorioz, honek hautemapenen batasun sintetiko ororen ahalgarritasunaren baldintza osatzen du, h. d., esperientziaren baldintza, eta iraunkorki honetan izate oro eta aldakuntza oro denboran geldi dagoen eta irauten duenaren existentziaren modus gisa begitatzten da. Beraz, agerpen guztietan iraunkorkia objektua bera da, h. d., substantzia (phaenomenon); aldatzen den edo alda daitekeen oro, berriz, substantzia hori edo substantzia horiek existitzen diren erari baino ez dagokio, eta beraz, substantzien determinazioei dagokie.

Hau dakusat: garai guztietan filosofoak ez ezik, adimen arruntak ere iraunkortasun hori beti auresuposatu duela eta beti ez bairik gabe onartuko duela agerpenen edozein aldakuntzaren substratu gisa; baina filosofoa zehatzagoa izan da bere adierazpenetan zera dioenean: «munduko aldaketa guztietan *substantziak* irauten du eta *akzidenteak* baino ez dira aldatzen». Hain sintetikoak den esakune honetaz, ordea, inon ez dut froga baten saialdirik ere aurkitzen, are gehiago, noizean behin soilik agertzen da izadiaren lege huts eta erabat apriorizkoen buruan, dagokion moduan. Egitatean, «Substantziak dirau» esakunea tautologikoa da. Izan ere, iraunkortasun hori besterik ez da substantziaren kategoria agerpenei aplikatzeko oinarria, eta zera frogatu beharko genukeen, alegia, agerpen guztietan zerbait iraunkorra badela, eta zera horretan aldagarria dena bere izatearen determinazio bat besterik ez dela. Halere, dogmatikoki, h. d., adigaietatik abiatuta horrelako frogarik inoiz bideratu ezin denez gero, apriorizko esakune sintetikoari soilik baitagokio, eta inoiz pentsatu ez zenez gero halako esakuneak esperientzia ahalgarriarekin harremanean soilik direla ahalgarriak, eta beraz, esperientziaren ahalgarritasunaren dedukzio baten bitartez soilik froga daitezkeela, bada, orduan ez da batere harritzekoa esakunea esperientzia guztien oinarri gisa ezarri izana (ezagutza empirikoan bere premia *sentitzen* baita) eta, hala ere, inoiz frogatu ez izana.

Filosofo bati keak zenbat pisatzen duen galdetu zitzaionean, honela erantzun zuen: «Erretako egurraren pisutik geratu den errautsaren pisua kendu, eta horrela lortuko duzu kearen pisua». Filosofoak, beraz, kontraesanenezkotzat auresuposatzen zuen suan bertan ere materia (substantzia) ez dela galtzen, baizik eta bere forma baino ez dela aldatzen. Era berean «Ezer ere ez da ezerezetik sortzen» esakunea iraunkortasunaren oinarri-esakunearen edo, hobeto esanda, agerpenen subjektu erreala baten betiko izatearen oinarri-esakunearen beste ondorio bat besterik ez da. Izan ere, agerpenetan substantzia deitzen diogun horrek denbora-determinazio guztien berezko substratua osatu behar badu, orduan substratu horretatik soil-soilik abiatuta determinatu ahal izan beharko dugu edozein izate, bai iraganaldian, baita etorkizunean ere. Horregatik, agerpen bati bere izatea denbora orotan auresuposatzen dugulako soilik eman ahal diogu substantziaren izena, eta hau «iraunkortasun» hitzaren bidez ez da ongi adierazten, honek etorkizunari gehiago begiratzen dion heinean. Hala ere, iraupenaren barneko beharrezkotasuna bereizteaz gero lotua dago jadanik beti izanaren beharrezkotasunarekin, eta beraz, adierazpen hori bere horretan utz dezakegu. «Gigni de nihilo; in nihilum nil posse reverti»⁸¹ antzinakoek bereizteaz gero elkarlotzen zituzten bi esakune dira, gaur egun, berriz, gaizki-ulertze bat dela eta, noizean behin bereizten direnak, berbaitango gauzei dagozkielakoan, eta lehenengo esakuneak mundua lehen kausa baten menpean egoteari uko egin diezaiokeelakoan (bere substantziari dagokionean ere bai); alferrikako kezka dena, hemen solasgaia esperientziaren alorreko agerpenak baino ez diren heinean, zeinen batasuna inoiz ez litzatekeen ahalgarria izango, gauza berriak sortzen direla onartuko bagenu (substantziari dagokionez). Izan ere, hainbestez, denboraren batasuna errepresenta dezakeen gauza bakarra galduko litzateke, hots, substratuaren identitatea, eta bertan baino ez dute jasotzen aldakuntza guztiek batasun osatua. Hala eta guztiz ere, iraunkortasun hori gauzen izatea (agerpenean) errepresentatzeko dugun modua besterik ez da.

Substantzia baten determinazioek, substantzia hori existitzen den era bereziak besterik ez direnek, *akzidenteak* izena dute. Substantziaren izatea ukitzen dutenez gero, horiek beti dira errealak. (Ukapenak substantzian zerbaiten ez izatea adierazten duten determinazioak besterik ez dira). Hala ere, errealki horri substantzian izate bereziren bat atxikitzen bazaio (adibidez, higidura, materiaren akzidentea den heinean), orduan izate horri inherentzia deitzen zaio substantziaren izateak bereiztearen, zeinari subsistentzia deitzen zaion bere aldetik. Halere, hortik sasi-interpretazio asko sortzen da eta zehatzagoa eta zuzenagoa da akzidentea substantzia baten izatea positiboki determinatua izateko moduaren bidez izendatzea. Nolanahi ere, ezinbestekoa da, adimenaren erabilera logikoaren baldintzei jarraiki, substantzia baten izatean alda daitekeena bakantzea, nolabait esateko, substantzia berak dirauen bitartean, eta benetan iraunkorkia eta errotikoa denarekin hartuemanen kontsideratzea; horregatik, kategoria hori ere hartuemanen titulupean dago, baina gehiago beren baldintza gisa berorrek hartueman bat barnebilduko balu bezala baino.

Aldaketaren adigaiaren ulermen zuzena ere iraunkortasun horretan oinarritzen da. Sortzea eta iraungitzea ez dira sortzen edo iraungitzen denaren aldaketak. Aldaketa existitzeko era bat da, objektu beraren existitzeko beste erari jarraiki zaiona. Aldatzen den guztia, beraz, *geldikorra* da, bere *egoera* besterik ez da *aldatzen*. Aldakuntza hori izateari utzi edo izaten has daitezkeen determinazioei baino ez dagokienez, orduan honako hau esan dezakegu, itxuraz paradoxala den adierazpen bat erabiliz: iraunkorkia (substantzia) baino ez da aldatzen, aldagarrikiak ez du ezin aldaketarik (*Veränderung*) jasaten, *aldakuntza* (*Wechsel*) baizik, zenbait determinazio desagertu eta beste zenbait agertu egiten baitira.

Beraz, aldaketa substantzietan soilik hauteman dezakegu, eta sortzea edo iraungitzea, absolutuki, iraunkorkiaren determinazio soil bati ez dagozkionean, ezin dira ezin hautemapen ahalgarriak izan, iraunkorki hori bera baita egoera batetik

besterako igarobidea errepresentatzea ahalbidetzen duena, ez izatetik izaterako igarobide gisa, eta beraz, haiek irauten duen zerbaiten determinazio aldakorren gisara soilik ezagut ditzakegu enpirikoki. Demagun zerbait absolutuki sortzen dela; orduan gauza hau ez zen denboraren puntu batek izan behar du. Hala ere, non finkatuko dugu puntu hori, jadanik baden zerbaitetan ez bada? Izan ere, kaskala den aurreko denbora ez baita inolaz ere hautemapenaren objekturik; baina, sortze hori lehendik ziren eta sortze hori gertatzen den unera arte izaten jarraitzen duten gauzei lotzen badiegu, orduan sortze hori jadanik bazen zerbaiten determinazio bat besterik ez da, hura iraunkorkia den aldetik. Gauza bera gertatzen da iraungitzearekin; izan ere, honek agerpen batek izateari uzten dion denboraren errepresentazio enpirikoa auresuposatzen baitu.

Substantziak (agerpenean) denbora-determinazio guztien substratuak dira. Substantzia horietako batzuk sortuko balira eta beste batzuek izateari utziko baliote, denboraren batasun enpirikoaren baldintza bakarra ezabatuta geratuko litzateke eta, honenbestez, agerpenak bi denbora ezberdinekin egongo lirateke harremanean, eta izatea hauetara jariatuko litzateke bata bestearen ondoan, burugabea dena. Izan ere, denbora *Bat bakarra* dago, non denbora ezberdin guztiak segidan ezarri behar diren, ez aldi berean.

Beraz, iraunkortasuna beharrezko baldintza bat da, eta agerpenak, gauzak edo objektuak diren heinean, berari jarraiki baino ez dira determinagarriak esperientzia ahalgarri batean. Beharrezko iraunkortasun horren irizpide enpirikoa, eta berekin batera, agerpenen substantziatasunaren irizpide enpirikoa zein ote den galdetzen bada, ondoren izango dugu aukera horretaz beharrezkoa dena oharrarazteko.

B

Bigarren analogia

Denbora-segidaren oinarri-esakunea kausalitatearen legearen arabera

Aldaketa guztiak kausa eta efektua elkarlotzen dituen legearen arabera gertatzen dira⁸².

Froga

(Aurreko oinarri-esakuneak denbora-segidaren agerpen guztiak osotara *aldaketak* besterik ez direla frogatu du, h. d., irauten duen substantziaren determinazioen hurrenez hurrengo izate eta ez-izate bat, ondorioz, bere ez-izateari jarraiki zaion substantzia beraren izatea edo izateari jarraiki zaion bere ez-izatea, beste hitz batzuekin esanda, substantzian sortzerik edo iraungitzerik ez dagoela frogatu du. Honela ere adieraz daiteke oinarri-esakunea: «*agerpenen edozein aldakuntza (segida) aldaketa bat besterik ez da*»; izan ere, substantziaren sortzeak edo iraungitzeak ez dira bere aldaketak, zeren aldaketaren adigaiak kontrajarritako bi determinazioak dituen subjektu bera auresuposatzen baitu, h. d., existitzen den, eta beraz, iraunkorra den subjektua. – Froga atariko oharpen honen ondoren dator).

Agerpenak elkarren segidan doazela ohartzen dut, h. d., gauzen egoera denbora batean aurreko egoeraren aurkakoa dela. Beraz, benetan bi hautemapen elkarlotzen ditut denboran. Baina elkarlotura hori ez da sentzu soilaren eta begiespenaren lana, baizik irudimenaren ahalmen sintetiko baten produktua, hemen barneko sentzua determinatzen duena denbora-hartuemanari begira. Hala ere, irudimenak bi era ezberdinetan lot ditzake aipatutako bi egoera horiek, bata edo bestea doala denboran aurretik; izan ere, ezin dugu denbora bere baitan hauteman, eta berari dagokionez, hots, enpirikoki, ezin da determinatu, nolabait esateko, ea zer den objektuan aurretik eta ondoren datorrena. Beraz, honetaz besterik ez naiz kontziente: nire irudimenak gauza bat lehenik eta bestea ondoren ezartzen duela, ez, ordea, objektuan egoera bat bestearen aurretik doala; edo, bestela esanda, hautemapen soilaren bidez determinatu gabe geratzen dela ea zein den elkarren segidan doazen agerpenen *hartueman objektiboa*. Hartueman hori era determinatu batean ezagutzekotan bi egoeren arteko hartuemana honela pentsatu

behar dugu: halabeharrez determinatuta geratu behar du zein den lehen ezarri beharrekoa eta zein ondoren ezarri beharrekoa, eta ez alderantziz. Batasun sintetiko baten beharrezkotasuna aldean dakarren adigaiak, ordea, adimenaren adigai huts bat besterik ezin du izan, hautemapenean aurkitzen ez dena, eta hau hemen *kausaren eta efektuaren arteko hartuemanaren* adigai da, eta lehenak bigarrena determinatzen du denboran ondorio gisa, ez, ordea, irudimenean aurretik soilik joan daitekeen (edo inolaz ere hauteman ezin daitekeen) zerbait balitz bezala. Beraz, esperientzia bera, h. d., agerpenen ezagutza enpirikoa, agerpenen segida, eta beraz, aldaketa guztiak kausalitatearen legeari menperatzen dizkiogulako besterik ez da ahalgarria; eta beraz, agerpenak, esperientziaren objektuak diren aldetik, lege honi jarraiki baino ez dira ahalgarriak⁸³.

Agerpenen anizkunkiaren atzematea beti hurrenez hurren gertatzen da. Zatien errepresentazioak elkarren segidan doaz. Ea objektuan ere elkarren segidan doazen, aurreneko puntuan barnebiltzen ez den hausnarketaren bigarren puntu bat da. Edozerri dei diezaiokegu objektu, baita errepresentazio guztiei ere, beraiez kontziente garen heinean; baina agerpenei dagokienez «objektu» hitzaren esanahiaren inguruan gehiago sakondu beharko genuke, ez agerpen horiek (errepresentazio gisa) objektuak diren heinean, baizik objektuak izendatu besterik egiten ez dituzten heinean. Agerpen horiek, errepresentazioak soilik diren aldetik, aldi berean kontzientziaren objektuak diren heinean, ez dira batere bereizten beren atzematetik, h. d., irudimenaren sintesian duten harreratik, eta beraz, zera esan behar da: agerpenen anizkunkia hurrenez hurren sortzen dela beti gogamenean. Agerpenak berbaitango gauzak izango balira, orduan inork ezingo luke bururatu errepresentazioen segidatik abiatuta ea horien anizkunkia nola lotzen den objektuan. Izan ere, geure errepresentazioak besterik ez baitira gure autugaia; ea berbaitango gauzak nolakoak ote diren (haiek gu afektatzeko erabiltzen dituzten errepresentazioak aintzat hartu gabe), erabat gure ezagutzaren esferatik at geratzen den kontua da. Agerpenak berbaitango gauzak ez izan arren, hala eta guztiz ere, ezagutzeko eman ahal zaizkigun gauza bakarrak direnez gero, orduan iragarri egin behar dut anizkunkiari agerpenetan zein motatako denbora-lotura tokatzen zaion, anizkunki horren errepresentazioa, aitzitik, atzematean beti hurrenez hurren gertatzen delarik. Horrela, adibidez, nire aurrean dudan etxe baten agerpenean anizkunkiaren atzematea hurrenez hurren gertatzen da. Orduan, galdekizuna zera litzateke: ea etxe horren anizkunkia bere baitan hurrenez hurrengo den, inork onartuko ez lukeena, noski. Objektu batez ditudan adigaien esanahi transzendentalera igo ahala etxeak berbaitango gauza bat izateari uzten dio, agerpen soil bat bihurtzeko, h. d., bere objektu transzendental ezezaguna den errepresentazio bat bihurtzeko. Zer ulertzen dut, beraz, galdekizun honetaz: nola egongo da lotuta anizkunkia agerpenean bertan (ezer ere ez dena bere baitan)? Hemen, errepresentazio gisa kontsideratzen da hurrenez hurrengo atzematean aurkitzen dena; emana zaidan agerpena, berriz, errepresentazio horien multzoa besterik ez izan arren, errepresentazio horien objektu gisa kontsideratzen da, eta atzematearen errepresentazioetatik abiatuta lortzen dudana adigaiak bat egin behar du honekin. Ezagutzaren eta objektuaren adostasunak egia osatzen duenez gero, berehala ikusten da hemen egia enpirikoaren baldintza formalez soilik galdetu ahal izango dugula, eta agerpena, atzematearen errepresentazioak ez bezala, haietatik ezberdinak diren beren objektu gisa soilik errepresenta daitekeela, baldin eta beste edozein atzematetik bereiziko duen eta anizkunkiaren lotura-era bat beharrezkoa bihurtzen duen erregela baten menpean badago. Agerpenean atzematearen beharrezko erregela horren baldintza barnebiltzen duena objektua da.

Jarrai dezagun orain gure eginkizunarekin. Zerbait gertatzea, h. d., lehendik ez zen zerbait edo egoeraren bat gertatzea, enpirikoki hauteman ezin dugun zerbait da, aurretik egoera hori bere baitan barnebiltzen ez duen agerpen bat ez badago; izan ere, denbora kaskal bati jarraiki zaion errealitatea, eta beraz, aurretik gauzen ezein egoera ez daukan sortze bat ezin daiteke atzeman, denbora kaskala bera ezin atzeman daitekeen bezala. Jazoera baten edozein atzemate, beraz, beste hautemapen bati jarraiki zaion hautemapena da. Hau, berriz, atzematearen edozein sintesitan lehenago etxearen agerpenaren adibidearekin azaldu dudana bezala eratua dagoenez gero, orduan ez da horregatik besteetatik bereizten. Hala ere, bestetik, gertakari bat barnebiltzen duen agerpen batean aurretik doan egoerari A deitzen badiot eta hurrengo egoerari B, atzematean B A-ri jarraiki baino ezin zaiola ohartzen dut, A hautemapenak, berriz, B hautemapenaren aurretik joan behar duela, eta ez bere atzetik. Adibidez, ur-lasterrek ibaian behera daraman ontzi bat ikusten dut. Beherago hartzen duen kokapenaren nire hautemapena ur-lasterrean gorago hartu zuen kokapenaren hautemapenari jarraiki zaio, eta ezinezkoa da agerpen horren atzematean aurrena ontzia behean eta ondoren gorago hautematea. Beraz, hemen hautemapenen segidaren ordena atzematean determinatuta dago eta atzemate hori ordena horri lotuta dago. Etxearen goragoko adibidean nire hautemapenak teilatuaren atzematearekin hasi eta zoruarenarekin buka zirakeen, eta era berean behetik hasi eta goian buka zirakeen, halaber, eskuinetik ezkererako edo ezkerretik eskuinerako begiespen enpirikoaren anizkunkia ere atzeman zezaketen. Hautemapen horien ilaran ez zegoen, beraz, atzematea nonbait hastera behartzen ninduen ordena determinaturik, honela anizkunkia enpirikoki lotzearren. Hala ere, erregela

hori beti aurkitzen da gertatzen denaren hautemapenean, eta berau da elkarren segidan doazen hautemapenen ordena (agerpenen atzematean) *beharrezkoa* bihurtzen duena.

Kasu honetan, beraz, atzematearen *segida subjektiboa* agerpenen *segida objektibotik* eratorri beharko dut, zeren, bestela, aurrenekoa erabat determinatu gabe geratzen baita eta ez baitu agerpen bat beste batetik bereizten. Erabat hautazkoa denez, segida subjektiboak ez du ezer frogatzen bere kabuz anizkunkiak objektuan duen elkarloturaz. Segida objektiboa, beraz, agerpenaren anizkunkiaren ordena hori izango da, eta honen indarrez gauza baten (gertatzen denaren) atzematea beste gauza baten (aurretik doanaren) atzemateari jarraiki zaio *erregela baten arabera*. Honela baino ezingo zait izan zilegi agerpen beraz esatea, eta ez soilik nire atzemateaz, bertan segida bat dagoela, eta honek atzemate hori segida horren arabera soilik antola dezakedala esan nahi du.

Beraz, erregela horren arabera jazoera baten aurretik doan horretan erregela baten baldintzak egon behar du, eta jazoera hori beti eta halabeharrez ondorioztatzen da erregela horri jarraiki; alderantziz, ezin dut jazoeratik itzuli eta aurretik doana determinatu (atzematearen bitartez). Izan ere, ez baitago ondorengo denbora-puntutik itzultzen den agerpenik, eta, hala ere, hau badago harremanean *aurreko denbora-punturen batekin*; aitzitik, denbora jakin batetik ondorengo denbora determinatura doan aurrerabidea beharrezkoa da. Horregatik, ondoren datorren zerbait badagonez gero, orduan aurretiazkoa eta bere ondoren erregela baten arabera, h. d., halabeharrez jarraiki zaion beste zerbaiti lotu behar natzaio; hortaz, jazoerak, baldintzatua den aldetik, baldintzaren baten iragarpen segurua egiten du, eta honek bere aldetik jazoera hori determinatzen du.

Demagun jazoera baten aurretik berari erregela baten arabera jarraiki beharko litzaiokeen ezer ez dagoela; orduan hautemapenaren edozein segida atzematean baino ez litzateke izango, h. d., segida subjektibo bat besterik ez litzateke izango, eta horrela, determinatu gabe geratuko litzateke ea zer den hautemapenetan benetan aurretik joan beharko lukeena eta zer den honen ondoren joan beharko lukeena. Horrela, errepresentazioen jolas bat besterik ez genuke izango, ezein objekturi lotzen ez zaion jolas bat, h. d., gure hautemapenaren bitartez ez litzateke inolaz ere bereiziko agerpen bat bestetik denbora-hartuemanari dagokionez; zeren atzematean segida beti baita berbera eta agerpenean segida bera behar adina determinatuko lukeen ezer ere ez bailegoke, segida hori objektiboki beharrezko segida bihurtzearren. Beraz, ez dut esango hurrenez hurrengo bi egoerak agerpenean elkarren segidan doazenik; baizik atzemate bat beste bati jarraiki zaiola besterik ez, hori *gauza subjektibo* soilak izaki, ezein objekturik determinatzen ez duen zerbait, eta beraz, objekturen bat ezagutzeko baliorik ez duen zerbait (ezta agerpenean ere).

Beraz, zerbait gertatzen dela jakitean, horren aurretik beste zerbait doala eta gertatzen dena zerbait honi erregela baten arabera jarraiki zaiola ari gara auresuposatzen beti. Izan ere, hau egin ezean, objektuaz ez nuke esango bera ondoren datorrenik, zeren eta nire atzematean segida soilak ez baitu baimentzen objektuan segida bat onartzea, segida hori aurretik doan zerbaitekin harremanean determinatuko duen erregela bat izan ezik. Beraz, nire sintesi subjektiboa (atzematearena) objektiboa bihurtzen dut erregela bati jarraiki, zeinaren arabera agerpenak beren segidan, h. d., gertatzen diren moduan aurreko egoeraren bitartez determinatuak diren, eta gertatzen den zerbaiten esperientzia halako auresuposiziopean baino ez da ahalgarria.

Horrek adimenaren erabileraren ibilerari buruz beti egin izan diren ohar guztiak kontraesaten dituela dirudi, zeren ibilera honen arabera erregela bat aurkitzea lortu badugu, hori hautemandako eta aurreko agerpenekin alderaketan bat datozen jazoera askoren segidari esker izan da soilik, eta erregela honen arabera jazoera jakin batzuk beti jarraiki zaizkie agerpen jakin batzuei, eta horrek sortzen du kausaren adigaia egiteko aukera lehen-lehenik. Halako oinarriarekin adigai hori enpirikoa besterik ez litzateke izango, eta beronek ematen duen erregela, zeinaren arabera gertatzen den guztiak kausa bat duen, esperientzia bera bezain beharbadakoa litzateke; bere orokortasuna eta beharrezkotasuna, hainbestez, asmatuak baino ez lirateke, eta hauek ez lukete egiazko baliotasun orokorrik, zeren indukzio soilaren gainean oinarrituta egongo bailirateke, ez, ordea, a priori. Hemen, apriorizko beste errepresentazio huts batzuekin bezala gertatzen da (adibidez, espazioarenak eta denborarenak): errepresentazio horiek esperientziatik jaso ahal izan ditugu adigai argi gisa, esperientzia horretan lehenago ezarri izan ditugulako, eta esperientzia bera lortu badugu, errepresentazio horiei esker izan da lehen-lehenik. Noski, jazoeren ilara determinatzen duen erregelaren errepresentazio horrek duen argitasun logikoa, kausaren adigaia den aldetik, berau esperientzian erabili eta gero soilik da ahalgarria, baina erregela hori agerpenek denboran duten batasun sintetikoaren baldintzatzat kontuan hartu izanak esperientzia beraren oinarria osatu du, eta beraz, bere aurretik zihoan a priori.

Adibide batean frogatu behar da, beraz, objektuari esperientzian ere ez diogula inoiz segidarik atxikitzen (jazoera baten segida, non aurretik ez zen zerbait gertatzen den) eta gure atzematearen segida subjektibotik ez dugula bereizten, oinarritzat balioko digun erregela bat izan ezik, hautemapenen ordena hori –eta ez beste bat– behatzera behartzen gaituena eta, areago, behartze hori dela segida bat objektuan lehen-lehenik errepresentatzea ahalbidetzen duena.

Baditugu guran errepresentazioak, eta hauetaz kontziente izatera irits gaitezke. Hala ere, kontziente izate hori hedatzen bada ere, nahi den bezain zehatza eta puntuala bada ere, dena dela, haiek errepresentazio soilak izaten jarraituko dute, h. d., gure gogamenaren barneko determinazioak denbora-hartueman batean edo bestean. Halere, nola egozten diegu errepresentazio horiei objektu bat, edo nola atxikitzen diegu modifikazio gisa duten errealtate subjektiboaz gain ezezaguna zaigun errealtate objektibo bat? Esanahi objektiboa ezin da izan beste errepresentazio batekiko harremana (objektuaz baieztatu nahi zen horrekiko), izan ere, orduan honako galdekizuna sortzen baita berriz: nola irteten da errepresentazio hori era berean bere baitatik at, gogamenaren egoeraren determinazioa den heinean, berezkoa duen adierazpen subjektiboaz gain adierazpen objektibo bat lortzearen? Aztertzen badugu ea zein antolaera berri ematen dien gure errepresentazioei *objektu batekin duten harremanak* eta ea zein duintasun lortzen duten harreman horren bitartez, orduan zera baino ez dakusagu: harreman horrek, batetik, errepresentazio horien lotura era jakin batean beharrezkoa bihurtzen duela, eta bestetik, haiek erregela bati menperatzen dizkiola, eta gainera, alderantziz, gure errepresentazioei adierazpen objektiboa ematen badiegu, hori beren denbora-hartuemanen ordena jakin bat beharrezkoa izateagatik besterik ez dela.

Errepresentazioen anizkunkia beti segidan doa agerpenen sintesian. Horren bidez ez dugu objektu bat bera ere errepresentatzen; zeren atzemate guztietan gertatzen den segida horren bidez ez baitugu gauza bat bera ere beste batetik bereizten. Aitzitik, segida horretan aurreko egoerarekin hartuemana dagoela hauteman edo auresuposatu ahala, errepresentazioa aurreko egoera horri erregela baten arabera jarraiki zaiola, orduan zerbait jazoera gisa errepresentatzen da, edo gertatzen den zerbait, h. d., denboraren une jakin batean kokatu behar dudako objektu bat ezagutzen dut, zeinari une hori, aurreko egoera kontuan izanik, beste ezein modutan ezin zaion atxiki. Beraz, zerbait gertatzen ari dela hautematen dudanean, errepresentazio horrek barnebiltzen duen aurreneko gauza aurretik zerbait doala da, zeren gertatzen den horrekin harremanean lortzen baitu agerpenak bere denbora-hartuemana, hots, oraindik ez zen unearen aurreko denbora baten ondoren existitzea. Hala ere, agerpenak hartueman horretan denbora-kokapen determinatu hori lortu ahal izango du, baldin eta aurreko egoeran beti zerbait suposatzen badugu, zeinari hura erregela baten arabera jarraiki zaion; hortik segitzen da, batetik, ezin dudala ilara alderantziz jarri, gertatzen dena honi jarraiki zaionaren aurretik ezarri; eta bestetik, behin aurreko egoera jarri gero, jazoera jakin hori hutsegiteke eta halabeharrez jarraiki zaiola segitzen da hortik. Bertatik abiatuta, beraz, gure errepresentazioen artean ordena bat badela segitzen da, non present dagoenak (izatera iritsi den heinean) aurreko egoera bat iragartzen duen, emandako gertakizun jakin horren korrelatua den heinean, eta korrelatu hori oraindik determinatzeko dagoen arren, honek harreman determinatzaile bat du gertakizunarekin, bere ondorioa den heinean, eta korrelatua hau bere buruarekin elkarlotzen du halabeharrez denboraren ilaran.

Beraz, baldin eta aurreko denborak halabeharrez ondorengo denbora determinatzea gure sentimenaren beharrezko lege bat bada (ondorengo denbora horretara ezingo bainaiz iritsi aurrekoaren bitartez ez bada), eta ondorioz, hautemapen guztien *baldintza formal* bat bada, orduan denbora-ilararen *errepresentazio enpirikoaren* ezinbesteko *lege* bat ere bada aurreko denborako agerpenek ondorengo denboran izate guztiak determinatzen dituztela eta ondorengo denborako agerpenak, jazoerak diren aldetik, aurreko denborako agerpenek beren izatea denboran determinatzen duten heinean soilik gertatzen direla, h. d., erregela baten arabera ezartzen duten heinean. Izan ere, *denboren bilkuran dagoen jarraitasun hori agerpenetan soilik ezagut dezakegu enpirikoki*.

Adimena beharrezkoa zaigu esperientzia guztietarako eta beren ahalgarritasunerako, eta honek egiten duen lehenengo gauza ez da objektuen errepresentazioa nabaria bihurtzea, baizik eta oro harrezko objektu baten errepresentazioa ahalbidetzea. Hori, ordea, adimenak agerpenei eta beren izateari denbora-ordena emateari esker gertatzen da, agerpen horietako bakoitzari, ondorioa den heinean, aurreko agerpenei begira a priori determinatutako denbora-kokapen bat atxikitzen dion heinean, eta horrela ez balitz, agerpenak ez lirateke ados jarriko denbora berarekin, zeinak agerpenen zati bakoitzari a priori determinatzen dion bere kokapena. Hala ere, ezin dugu kokapenen horrelako determinaziorik lortu agerpenek (hautemapenen objektua ez den) denbora absolutuarekin duten hartuemanetik abiatuta, aitzitik, agerpenek beroiek determinatu behar dute beren denbora-kokapena elkarren artean eta bera denboraren ordenan beharrezkoa bihurtu behar dute, h. d., jarraian doan zerbait erregela orokor baten arabera jarraiki behar zaio aurreko egoeran barnebildutakoari, eta horrela, hortik agerpenen ilara bat

ondorioztatzen da, zeinak adimenaren bitartez hautemapen ahalgarrien ilaran ordena eta bilkura jarraitua sortu eta beharrezkoa bihurtzen duen, hots, barneko begiespenaren forman (denboran) a priori aurkitzen ditugun ordena eta bilkura berberak, non hautemapen orok bere kokapena izan behar duen.

Zerbait gertatzea, beraz, esperientzia ahalgarri bati dagokion hautemapena da, eta esperientzia hori erreala bihurtzen da agerpena bere denbora-kokapenari dagokionez determinatutzat, eta beraz, hautemapenen bilkuran erregela bati jarraiki beti aurki daitekeen objektutzat hartzen dudana heinean. Denbora-segidaren arabera zerbait determinatzen duen erregela hori honako hau da: «aurretik doan zerbaitetan jazoera beti (h. d., halabeharrez) berari jarraitzea eragiten duen baldintza aurki dezakegu». Oinarri askiaren esakunea, beraz, esperientzia ahalgarriaren oinarria da, hots, ezagutza objektiboaren oinarria honek denboraren ilaran duen hartuemanari begira.

Esakune horren froga-oinarria ondoko puntuotan soilik funtsatzen da. Ezagutza enpiriko guztiei dagokie irudimenaren bidezko anizkunkiaren sintesi bat, beti hurrenez hurrengo den sintesia; h. d., bertan errepresentazioak elkarren ondoren agertzen dira. Hala ere, segida irudimenean ez dago determinatuta ordenari dagokionez (ea zer den aurretik joan behar duena eta zer ondoren joan behar duena), eta hurrenez hurrengo errepresentazioen ilara aurrealderantz edo atzealderantz joango balitz bezala har daiteke. Sintesi hori atzematearen sintesi bat baldin bada (agerpen jakin baten anizkunkiaren sintesia), orduan ordena objektuan dago determinatua, edo, zehazkiago esanda, objektua determinatzen duen hurrenez hurrengo sintesiaren ordena bat dago, zeinaren arabera halabeharrez aurretik joan behar duen zerbaitek egon behar duen eta, behin hori ezarrit gero, honi beste gauza bat jarraiki behar zaion halabeharrez. Beraz, baldin eta nire hautemapenak benetan jazoera baten ezagutza barnebildu behar badu, hots, zerbait benetan gertatzen dela, orduan judizio enpiriko batek egon behar du, bertan segida determinaturik pentsatzen dela, h. d., bestelako agerpen bat aurreuposatzen duela denborari dagokionez, zeinari halabeharrez edo erregela baten arabera jarraiki zaion. Aitzitik, behin aurrekaria jarrit gero, jazoera ondoren halabeharrez ez baletor, orduan jazoera hori gure itxurapenen jolas soil bat bailitzan hartu beharko genuke eta, hala eta guztiz ere, zerbait objektiboa balitz bezala errepresentatuko bagenu, honi amets soila deitu beharko genioke. Horrela, beraz, agerpenen hartuemanak da gure judizio enpirikoaren balio objektiboaren baldintza osatzen duena hautemapenen ilarari begira (agerpenak hautemapen ahalgarriak diren aldetik), eta beraz, bere egia enpirikoaren baldintza, eta horregatik, esperientziaren baldintza ere badena, eta hartueman horren arabera ondorengo (gertatzen dena) bere izatean aurretik doan zerbaitek halabeharrez determinatuta eta denboran erregela baten arabera determinatuta dago, eta beraz, kausak efektuarekin duen hartuemanak da baldintza hori. Horregatik, agerpenen segidan kausa-hartuemanaren oinarri-esakuneak esperientziaren objektu guztien aurretik balio du (segidaren baldintzapean), bera halako esperientziaren ahalgarritasunaren oinarria baita.

Hala ere, konpondu beharko dugun beste eragozpen bat agertzen zaigu hemen. Agerpenen kausa-elkarloturaren oinarri-esakunea beroien segidara zedarritzatuta dago gure formulari, baina oinarri-esakunea erabiltzerakoan ondoko beste agerpenei ere aplikatzerik izango dela eta kausa eta efektua aldeberekoak izan daitezkeela aurkitzen dugu. Adibidez, kanpoan sumatzen ez dugun berotasuna dago gelan. Horren kausaren bila ari naiz eta piztuta dagoen berogailu bat aurkitzen dut. Berogailua, kausa gisa, bere efektuarekin aldi berean da, gelako berotasunarekin, alegia; hemen, beraz, ez dugu kausaren eta efektuaren arteko segidarik denborari dagokionez, baizik biak aldeberekoak dira eta, hala eta guztiz ere, legeak oraindik ere balio du. Izadien aurkitzen ditugun kausa-arazleen kopuru handiena beren efektuekin batera aldi berean izaten da, eta efektuen denbora-segida kausak bere efektu guztia bat-batean sortu ezin eragiten du. Hala ere, efektua sortzen den lehen unean hau beti sortzen da bere kausaren kausalitatearekin batera, zeren kausak zertxobait lehenago existitzeari utziko balio, efektua ez bailitzateke sortuko. Hemen zera ohartu beharrean gaude: denboraren ordena ari garela aintzat hartzen, ez, ordea, bere *igaroaldia*; hartuemanak dirau, denborarik igaro ez den arren. Kausaren kausalitatearen eta bere berehalako efektuaren arteko denbora *desagerkorra* izan daiteke (biak, beraz, aldeberekoak izan daitezke), baina kausak efektuarekin duen hartuemanak determinagarria dirau denboraren ikuspuntutik. Burko bete baten gainean dagoen bola bertan zulo txiki bat sortzearen kausatzat jotzen badut, orduan kausa eta efektua aldeberekoak dira. Hala eta guztiz ere, biak bereizten ditut bien arteko elkarlotura dinamikoaren denbora-hartuemanaren bitartez. Izan ere, bola burkoaren gainean jartzen badut, bere aurreko tankera lauari ondoren zulo txikia jarraiki zaio; burkoak zulo bat duelako (eta ez dakit zergatik duen), ordea, ez da berunezko bola baten izaterik ondorioztatzen.

Beraz, denbora-segida, dena dela, efektuaren irizpide enpiriko bakarra da aurretik doan kausaren kausalitateari dagokionez. Basoa ura haren gainalde horizontalaz goiti igotzearen kausa da, bi agerpenak aldeberekoak izan arren. Izan ere, baso batez lagunduta ontzi handiago batetik ura atera ahala zerbait jarraiki zaio honi, hots, ontzi horretan urak zuen egoera horizontala aldatu egiten da basoaren forma ahurrari egokituz.

Kausalitate horrek ekintzaren adigaira garamatza, honek indarraren adigaira eta azken honen bitartez substantziaren adigaira iristen gara. Apriorizko ezagutza sintetikoaren iturburuai soilik dagokien nire asmo kritikoa adigaien argiketarekin (ez, ordea, hedapenarekin) zerikusia duen analisiarekin nahastu nahi ez dudanez gero, orduan arrazoimen hutsaren etorkizuneko sistema baterako utziko dut adigai horien azalpen xehea, nahiz eta horrelako analisiak hein handi batean jadanik ezagunak zaizkigun mota honetako testuliburuetan aurkitzen diren. Dena dela, ezin diot substantziaren irizpide enpirikoa aipatzeari utzi, substantzia ekintzaren bitartez agerpenen iraunkortasunaren eskutik baino hobeto eta errazago azaltzen baita.

Ekintza, eta beraz, ekimena eta indarra dauden lekuan substantzia ere badago, eta honetan besterik ez dugu bilatu behar agerpenen iturburu agortezin horren egoitza. Hori ongi esana dago; baina, ea substantziaz zer ulertzen dugun azaldu nahi bada, eta gurpil zoroa saihestu nahi bada, orduan erantzuna ez da hain erraza izango. Nola inferitu nahi da berehala ekilearen *iraunkortasuna* ekintzatik abiatuta, beronek substantziaren (phaenomenon) hain funtsezkoa eta hain berezia den ezagugarria osatzen duen arren? Galdekizunak ez du hainbesteko zailtasunik aipatutakoa aintzat hartzen baldin badugu, nahiz eta modu arruntan (bere adigaiekin analitikoki soilik jokatzuz) erabat konponezina izango litzatekeen. Ekintzak jadanik kausalitatearen subjektuak efektuarekin duen hartuemana adierazten du. Hala ere, edozein efektu gertatzen den zerbaitez, eta beraz, segidaren ikuspuntutik denborak ezaugarritutako iragangarrikiaz osatzen denez gero, orduan *iraunkorkia* da aldatzen den guztiaren azken subjektua aldagarriki ororen substratu gisa, h. d., substantzia. Izan ere, kausalitatearen oinarri-esakunearen arabera, ekintzek beti osatzen dute agerpenen edozein aldakuntzaren lehenengo oinarria, eta beraz, ekintzak ezin dira aldi berean aldatzen den subjektuan aurkitu, zeren, orduan aldakuntza hori determinatuko luketen beste ekintza bat eta beste subjektu bat beharko baikenituzke. Ekintzak, beraz, irizpide enpiriko gogobetegarria den heinean, substantziatasuna frogatzen du lehen-lehenik hautemapenak alderatuz, beren iraunkortasunaren bila hasteko beharrik izan gabe, zeina, gainera, bide honetatik abiatuta ezingo genukeen egin adigaiaren hedapenak eta baliotasun orokor hertsia eskatzen duten xehetasun guztiarekin. Izan ere, sortze guztien eta iraungitze guztien kausalitatearen aurreneko subjektuak aldi berean (agerpenen alorrean) ezin duela sortu eta iraungi, beharrezkotasun enpirikora eta izatearen iraunkortasunera, eta beraz, agerpen bat den substantziaren adigaira bidaltzen gaituen inferentzia segurua da.

Zerbait gertatzen denean, sortze soilak da azterketaren gaia bere baitan, sortzen den hori zer izango ote den alde batera utziz. Azterketa lan bat behar du jadanik ez izatearen egoera batetik egoera horren izatera doan igarobide soilak, agerpenean egoera horrek ezein kualitatetik barnebiltzen ez duela onartuz gero. Goragoko A zatian frogatu denez, sortze hori substantziaren egoerari dagokio, eta ez substantzia berari (izan ere, hau ez da sortzen). Sortzea, beraz, aldaketa soilak da, ez, ordea, ezerezetikojatorria. Hau kausa arrotz baten efektutzat hartzen baldin bada, orduan sorkuntza izena jasotzen du, eta hau ezin da agerpenen arteko jazoera gisa onartu, bere ahalgarritasun soilak esperientziaren batasuna ezabatuko bailuke, nahiz eta, gauza guztiak berbaitango gauzatzat hartzen baditugu, eta ez fenomenotzat, eta adimen soilaren objektutzat hartzen baditugu, substantziak izan arren, bada, orduan beren izateari dagokionez kausa arrotz baten menpeko gisa har ditzakegun; honek, ordea, hainbestez, erabat bestelako hitz-esanahia erakarriko luke, eta hau ez litzateke egokia agerpenentzat, esperientziaren objektu ahalgarriak diren heinean.

Ea zerbait nola alda daitekeen oro har; ea nola den ahalgarri denboraren puntu bateko egoera bati egoera kontrajarri bat jarraitzea; honetaz ez dugu a priori adigairik. Horretarako enpirikoki baino eman ezin daitezkeen indar errealean ezagupena behar da, adibidez, indar higitzaileen ezagupena, edo gauza bera dena, halako indarrak iragartzen dituzten hurrenez hurrengo agerpen jakinen ezagupena (higidurak bezala). Hala ere, aldaketa guztien forma, hots, aldaketa egoera berri baten sortze gisa gertatu ahal izateko baldintza bakarra (aldaketaren edukia, h. d., aldatzen den egoera edozein izanda ere), eta beraz, egoeren segida bera (gertatutakoa) a priori kontsidera ditzakegu kausalitatearen legeen eta denboraren baldintzen arabera⁸⁴.

Substantzia bat «a» egoera batetik «b» egoera batera igarotzen denean azken honen denbora-unea aurrenekoaren denbora-unearen ezberdina da, eta azkena aurrenekoari jarraiki zaio. Era berean, bigarren egoera aurrenekotik bereizten da, errealtatea den heinean (agerpenean), aurrenekoan ez baitzen errealtate hori, «b» zerotik bereizten den era berean; h. d., «b» egoera «a» egoeratik bere handitasunagatik soilik bereizten bada, orduan aldaketa «b-a»-ren sortzea da, eta hau ez genuen aurreko egoeran, eta horrela, horri begira aurreko egoera hori = 0 da.

Beraz, ea gauza bat «a» egoera batetik «b» egoera batera nola igarotzen den galdetzen da. Bi uneren artean beti dago denbora bat eta une horiei dagozkien bi egoeren artean beti aurkitzen dugu bereizketa bat handitasun jakin bati dagokionez (izan ere, agerpenen zati guztiak handitasunak dira era berean). Beraz, egoera batetik besterako igarobide guztiak bi uneren artean barnebildutako denbora batean gertatzen dira, aurreneko uneak gauzak abiatzean duen egoera determinatzen duela,

bigarrenak, berriz, gauzak iristean duen egoera determinatzen duela. Beraz, bi uneak aldaketa baten denboraren mugak, eta beraz, bi egoeren arteko egoeraren mugak dira, eta mugak diren heinean, aldaketa osoaren osagarriak dira. Hala ere, aldaketa guztiek dute kausa bat, eta kausa horrek bere kausalitatea adierazten du aldaketa gertatzen den denbora guztian zehar. Kausa horrek ez du bat-batean sortuko aldaketa (berehala edo une batean), denbora batean baizik, eta ondorioz «a» hasierako unetik «b» unean osatzen den arte denbora gehitu egiten den era berean, errealtatearen («b-a») handitasuna ere aurrenekoaren eta bigarrenaren artean barnebildutako bere maila txikiagoetan zehar sortzen da. Beraz, aldaketa kausalitatearen etengabeko ekintza baten bitartez besterik ez da ahalgarria, eta kausalitate horrek, erregularra den heinean, momentua izena du. Aldaketa ez da momentu horietaz osatzen, baizik eta momentu horiek sortzen dute aldaketa hori beren efektu gisa.

Hau da, beraz, aldaketa guztien jarraitasunaren legea, zeinaren oinarria honetan datzan: ez denbora, ezta agerpena denboran ere, ez direla txikiak diren zatiez osatzen, eta, hala eta guztiz ere, gauza bat aldatzen denean, berau aurreneko egoeratik bigarrenarantz doanean bere osagaiak diren zati horietatik guztietatik igarotzen dela. Ez dago *txikiena* den errealkiaren *bereizketarik*, ez agerpenean, ezta denboren handitasunean ere, eta horrela, errealtatearen egoera berria errealtate hori oraindik ez zen aurreko egoeratik sortzen da, bere maila amaigabe bakoitza zeharkatuz, maila hauek elkarren artean duten bereizketa osotara zero eta «a» artean dagoena baino txikiagoa izaki.

Hemen gure autugaia ez da esakune horrek izadiaren ikerketan izan dezakeen onura. Bestalde, izadiak dugun ezagutza itxuraz hainbeste hedatzen duen horrelako esakune bat erabat a priori ahalgarria izateak gure etsamina eskatzen du, nahiz eta begi-bistan dugunak esakune hori erreala eta zuzena dela frogatzen duen, eta horregatik, ahalgarritasun horren inguruko galdekizuna alde batera utzi nahi den. Izan ere, arrazoimen hutsaren bitartez gure ezagutza hedatzeko oinarrigabeko handiusteak hain ugariak dira, non oinarri-esakune orokor gisa hartu behar baitugu erabateko mesfidantza eta horrelako asmoetan ez sinestea eta horiek ez onartzea, baita frogarik argienaren eta dogmatikoenaren aurrean ere, asmo horiek aldean dedukzio zehatz bat sortzeko gauza diren agiriak ekarri ezean.

Ezagutza enpirikoaren gehikuntza oro eta hautemapenaren aurrerapen bakoitza barneko sentsuaren determinazioaren hedatze bat besterik ez dira, h. d., denboran gertatzen den aurrerabide bat, objektuak direnak direla ere, agerpenak nahiz begiespen hutsak. Denboran gertatzen den aurrerabide horrek guztia determinatzen du, baina bera beste ezein gauzak ez du determinatzen bere baitan, h. d., aurrerabide horren zatiak denboran soilik eta beronen sintesiaren bitartez ematen dira, ez dira denboraren aurretik. Horregatik, denboran ondoren datorren zerbaitea doan hautemapeneko edozein igarobide hautemapen horren produkzioaren bidezko denboraren determinazioa da, eta denboraren determinazio hori bere zati guztietan beti handitasun bat denez gero, orduan igarobidea hautemapen baten produkzioa da zerotik hasi eta bere maila determinaturaino maila guztiak zeharkatzen dituen handitasun gisa, horietako bat bera ere ez delarik txikiena. Hortik abiatuta argitzen da aldaketen legea a priori ezagut daitekeela aldaketen formaren arabera. Geure atzematea aitzinatu besterik ez dugu egiten, bere baldintza formala, dena dela, a priori ezagutu behar dugun atzematea, alegia, gudan baitago agerpen jakin ororen aurretik.

Beraz, denborak existitzen den horretatik hasi eta ondoren doan horretarainoko aurrerabide jarraituaren ahalgarritasunaren sentsuzko baldintza a priori barnebiltzen duen era berean, adimena ere apertzepzioaren batasunari esker denbora horretan agerpenen kokapen guztiak etenik egin gabe determinatzeko ahalgarritasunaren baldintza da kausen eta efektuen ilararen bitartez, kausek ezinbestean aldean dakartela efektuen izatea, eta honen bitartez, denbora-hartuemanen ezagutza enpirikoa edozein denboratan balio duen (orokorra den), eta beraz, objektiboki balio duen ezagutza bihurtzen dute.

C

Hirugarren analogia

Aldiberekotasunaren oinarri-esakunea elkarrekintzaren legearen arabera, edo komunitatea

*Substantzia guztiak, espazioan aldi berean hauteman ditzakegun
heinean, elkarrekintza osoan aurkitzen dira⁸⁵.*

Froga

Gauzak *aldiberekoak* dira begiespen enpirikoan gauza baten hautemapena bestearen hautemapenari jarraiki dakiokenean, *eta alderantziz* (agerpenen denbora-segidan gerta ezin daitekeena, bigarren oinarri-esakunean frogatu den legez). Beraz, nire hautemapena aurrea ilargira eta gero lurrera bidera dezaket, edo alderantziz, aurrea lurrera eta gero ilargira, eta beren hautemapenak elkarren ondoren joan daitezkeelako diot aldi berean existitzen direla. Beraz, aldiberekotasuna anizkuntzia denbora berberan existitzea da. Hala ere, denbora bera ezin dugu hauteman, denbora berberan gauzak ezarrita daudelako horrela hortik gauzen hautemapenak elkarren ondoren joan daitezkeela ondorioztatzearren. Irudimenaren sintesiak atzematean halako hautemapen bakoitza hautemapentzat onartuko luke, baldin eta subjektuan badago beste hautemapena bertan ez dagoenean, eta alderantziz, baina objektuak ez lituzke aldiberekotzat onartuko, h. d., bat hor dagoenean bestea ere aldi berean hor dagoenik onartuko, ezta hau beharrezkoa denik ere hautemapenak elkarren ondoren joan ahal izateko. Ondorioz, hautemapenen elkarren segida objektuan oinarritzen dela baieztatu nahi badugu, eta horrela, aldiberekotasuna gauza objektibo bat bailitzan errepresentatu nahi badugu, orduan batzuk beste batzuen kanpoan aldi berean hurrenez hurren existitzen diren gauzen determinazioen adimenaren adigai bat beharko dugu. Halere, substantzien hartueman hau, hots, substantzia batek oinarria beste substantzian duten determinazioak barnebiltzearen hartuemana, eraginaren hartuemana da, eta alderantziz, honek beste substantzian dauden determinazioen oinarria barnebiltzen badu, orduan komunitatearen edo elkarrekintzaren hartuemanaren aurrean izango gara. Beraz, ezin dugu substantziek espazioan duten aldiberekotasuna esperientzian ezagutu, beren arteko elkarrekintza baten aurreuposiziopean izan ezik; hau da, beraz, esperientziaren objektuak diren gauza beren ahalgarritasunaren baldintza⁸⁶.

Gauzak denbora bat eta bakarrean existitzen diren heinean dira aldiberekoak. Nola dakigu, ordea, ea denbora bat eta bakarrean diren? Anizkuntzi horren atzematearen sintesian ordenak axola ez duenean jakiten dugu, h. d., A-tik E-ra, B, C eta D-n zehar igaro gaitezkeenean, edo alderantziz, E-tik A-ra. Izan ere, sintesia denborari dagokionez hurrenez hurrengoak balitz (A-n hasi eta B-n bukatzen den ordenan), orduan ez litzateke ahalgarria izango atzematea E-ren hautemapenean hastea eta atzera eginez A-raino jarraitzea, zeren A iraganaldiari bailegokio, eta beraz, ezingo bailuke atzematearen objektua izan.

Demagun substantzien anizkuntasun batean, hauek agerpenak diren aldetik, hauetako bakoitza erabat bakartua dagoela, h. d., beste substantzietan eragingo lukeen substantziarik edo bere aldetik horien eraginik jasoko ez lukeen substantziarik ez dagoela, bada, orduan zera diot: substantzia horien *aldiberekotasuna* ez litzatekeela ezein hautemapen ahalgarriren objekturik izango eta horietako baten izateak ez gintukeela gidatuko bestearen izatera sintesi enpirikoaren ezein bidetatik. Izan ere, substantzia horiek erabat kaskala den espazio batetik bereizita daudela pentsatzen badugu, orduan substantzia batetik bestera denboran aurrera egiten duen hautemapenak ondorengo hautemapen baten bitartez azken horren izatea determinatu ahal izango luke, baina ezingo luke bereizi ea agerpena objektiboki jarraiki ote zaion aurrenekoari edo, aitzitik, aldiberekoa ote den.

Beraz, izate soilaz gain beste zerbaitek egon behar du honela berorren bitartez A-k B-ri bere denborazko kokapena determinatzeko, eta alderantziz, B-k A-rena, zeren halako baldintzapean pentsatu ahal diren substantziak besterik ezin baitaitezke errepresentatu enpirikoki *aldi berean existitzen direla*. Baina gauza batek besteari denboran bere kokapena determinatzea eragiten duena beste gauza horren edo bere determinazioen kausa da. Beraz, esperientzia ahalgarriren batean aldiberekotasuna ezagutu behar baldin badugu, orduan substantzia bakoitzak (bere determinazioen ikuspuntutik baino ezin baitaiteke izan efektua) bere baitan barnebildu behar du determinazio jakin batzuek beste substantzietan duten kausalitatea eta, aldi berean, azken horien kausalitatearen efektuak ere bai, h. d., substantziek komunitate dinamikoan izan behar dute (zuzenki edo zeharbidez). Hortaz, objektuen esperientzia ahalbidetzen duen guztiak beharrezkoa izan behar du esperientzia horren objektu horiei begira. Beraz, beharrezkoa zaie agerpenean substantzia guztiei, aldiberekoak diren heinean, elkarrekin izatea elkarrekintzazko komunitate osatu batean.

Komunitate hitzak bi adiera ditu gure hizkuntzan, batetik, *communio*, eta bestetik, *commercium*. Hemen azkenengo zentzuan erabiltzen ari gara, komunitate dinamiko baten zentzuan, eta bera gabe tokiko komunitatea bera ere ezingo genuke enpirikoki ezagutu (*communio spatii*). Gure esperientzietatik abiatuta erraz ohar dezakegu espazioaren kokapen guztietan etengabeko eraginek soilik gida dezaketela gure sentsua objektu batetik bestera; gure begiaren eta unibertso gorputzen artean jolasten duen argiak horien eta gure artean zeharbidezko komunitate bat sortzen duela, horren bitartez gorputz horien aldiberekotasuna frogatuz; ezin dugula enpirikoki lekuz aldatu (aldaketa hori hauteman), materiak edonon gure kokapenaren hautemapena ahalbidetzen ez badu, eta materia honek bere aldiberekotasuna bere baitako elkar eraginaren bitartez soilik

erakuts dezakeela, eta horren bitartez objektu urrutien izankidetasuna ere bai (zeharbidez baino ez bada ere). Komunitaterik gabe, edozein hautemapen (agerpenaren hautemapena espazioan) besteetatik bereizita egongo litzateke, eta errepresentazio enpirikoen katea, h. d., esperientzia, hasieratik hasiko litzateke objektu berri bakoitzarekin, aurreko esperientziak honekin ezein elkarketarik edo denbora-hartuemanik izateko ahalbiderik gabe. Horrekin ez dut espazio kaskala errefusatu nahi; izan ere, berau gure hautemapenak iristen ez diren lekuetan izan daiteke, eta beraz, aldiberekotasunaren ezagutza enpirikorik gertatzen ez den lekuan; baina, hainbestez, ez da gure esperientzia ahalgarriaren ezein objekturik.

Orain datorrena aurretik esandakoa azaltzeko baliagarria izango zaigu. Esperientzia ahalgarri batean barnebilduta dauden heinean, agerpen guztiek apertzepzioaren komunitate (communio) baten barnean egon behar dute gure gogamenean, eta objektuak aldi berean existituz elkarlotuta errepresentatu behar diren heinean, hauek beren kokapena denboran elkar determinatu, eta horrela, osoki bat eratu behar dute. Baldin eta komunitate subjektibo horrek oinarri objektibo batean funtsatu behar badu, edo substantzia gisako objektuei lotu behar bazaie, orduan agerpen baten hautemapenak, oinarri gisa, bestearen hautemapena ahalbidetu behar du, eta alderantziz, honela atzemateak diren hautemapenetan beti dagoen segida objektuei ez atxikitze, baizik objektu horiek aldi berean izanik errepresentatu ahal izateko. Hau elkarreragina da, h. d., substantzien benetako komunitate bat (commercium), eta honen gabezia ezinezkoa da aldiberekotasunaren hartueman enpirikoa esperientzian. Commercium horren bidez agerpenek, batzuk besteetatik at egon arren, elkarlotuta dauden heinean elkartuki bat osatzen dute (compositum reale), eta composita horiek era ezberdinetan dira ahalgarriak. Hiru hartueman dinamikoak, beraz, inherentzia, kontsekuentzia eta elkarketarenak dira, eta beraietatik abiatuta sortzen dira gainerako guztiak.

* * *

Horiek dira, beraz, esperientziaren hiru analogiak. Agerpenen izatea denboraren hiru modi-en arabera denboran determinatzen duten oinarri-esakuneak besterik ez dira: denbora berarekin hartuemanean handitasun gisa (izatearen handitasuna, h. d., luze-laburra), denboran den hartuemanean ilara gisa (elkarren segidan) eta, azkenik, denboran den hartuemanean izate ororen multzo gisa (aldiberekotasuna). Denboraren determinazioaren batasun hori erabat dinamikoa da, h. d., denbora ez da hartzen esperientziak izate bakoitzari bere kokapena zuzenki adierazten dion zerbait bailitzan, hori ez baita ahalgarri, zeren denbora absolutuak ez baitu agerpenak alderatu ahal izango dituen hautemapenaren objektu bat osatzen; baizik eta adimenaren erregela da agerpenen izateak denbora-hartuemanen arabera batasun sintetikoa lortu ahal izateko bide bakarra, hots, agerpen bakoitzari denboran duen kokapena a priori eta denbora orotan balio duela determinatzen dion erregela.

Izadiaz zera ulertzen dugu (adiera enpirikoan): agerpenen bilkura beren izatearen arabera beharrezko erregelei jarraiki, h. d., legeei jarraiki. Beraz, lege jakin batzuk dira, eta apriorizkoak gainera, lehen-lehenik izadi bat ahalbidetzen dutenak; lege enpirikoak esperientziaren bidez eta jatorrizko lege horien arabera soilik izan eta aurki daitezke, jatorrizko lege horiek izaki esperientzia bera ahalbidetzen dutenak. Beraz, gure analogia hauek izadiaren batasuna aurkezten dute esponente jakin batzuen menpeko agerpen guztien bilkuran, eta esponente horiek denbora-hartuemanen besterik ez dute adierazten apertzepzioaren batasunari dagokionez (denborak izate oro bere baitan jasotzen duen heinean), zeina erregelen arabera egikaritzen den sintesian besterik ezin den gertatu. Hirurek batera zera diote, beraz: agerpen guztiak izadi batean dautzala eta bertan izan behar dutela, zeren, apriorizko batasun hori izango ez balitz, orduan esperientziaren batasunik ez bailegoke, eta beraz, bertan ezinezkoa bailitzateke objektuen determinazio oro.

Lege transzendental horietan erabili izan dugun froga-eraz eta froga horren berezitasunaz zerbait oharrarazi beharrean gaude, aldi berean sintetikoak eta intelektualak diren esakuneak a priori frogatu nahi diren bakoitzean bete beharreko arau gisa berebiziko garrantzia izan behar duen zerbait. Analogia horiek dogmatikoki frogatu nahi izan bagenitu, h. d., adigaietatik abiatuta frogatu nahi izan bagenu existitzen den guztia iraunkorra denean soilik aurki daitekeela; edozein jazoerak aurreko egoeran zerbait auresuposatzen duela, zeinari erregela baten arabera jarraiki zaion; azkenik, aldi berean den anizkuntian elkarrekin harremanean dauden egoerak erregela baten arabera direla aldi berean (komunitatean daudela), orduan gure ahalegin guztiak alferrikakoak izango lirateke. Izan ere, objektu batetik edo bere izatetik ezin da igaro beste objektu baten izatera edo izateko erara gauza horien adigai soilen bitartez, horietaz egingo den analisisa edozein izanda ere. Zein aukera geratzen zitzaigun, hortaz? Esperientziaren ahalgarritasuna, ezagutza baten ahalgarritasuna den heinean, bertan objektu guztiak eman ahal behar zaizkigula, baldin eta beren errepresentazioak guretzat errealitate objektibo bat eduki behar badu. Funtsezko formatzat agerpen guztien apertzepzioaren batasun sintetikoa duen hirugarren osagai horretan agerpenean dagoen edozein izateren denbora-determinazio osoaren eta beharrezkoaren apriorizko baldintzak aurkitzen genituen, eta honen gabezia denboraren determinazio

enpiriko bera ere ez litzateke ahalgarria izango, eta apriorizko batasun sintetikoaren erregelak ere aurkitzen genituen eta hauen bitartez esperientzia aitzinatu ahal izan genuen. Oinarri askiaren esakunea frogatzeko behin eta berriz egindako saialdiek huts egin badute, metodo horren gabeziagatik eta adimenaren erabilera enpirikoak berorren printzipioak bailiran hartzen dituen esakune sintetikoak dogmatikoki frogatzeko lilurakeriagatik izan da. Isilean gainerako bi analogiez baliatzen ginen arren⁸⁷, inork ez du horietan pentsatu, zeren kategorien gida-haria falta baitzen, hau izaki adimenaren edozein hutsune aurki edo oharrarazi dezakeen bakarria adigaiei nahiz oinarri-esakuneei dagokienez.

4

Pentsatze enpirikoaren postuluak oro har

1. Esperientziaren baldintza formalekin (begiespenaren eta adigaien arabera) adosten dena *ahalgarria* da.
2. Esperientziaren baldintza materialekin (sentsazioarekin) elkartzen dena *erreal* da.
3. Errealkiarekiko bilkura esperientziaren baldintza orokorren arabera determinatua duena *halabeharrez* (existitzen) da.

Azalpena

Modalitatearen kategoriek hau dute berezia: beraiek predikatu gisa atxikitzen zaizkion adigaiari ezin diotela deus ere gaineratu, adigaia objektuaren determinazioa den heinean, baizik ezagumenarekin hartueman soilik adierazten dutela. Gauza baten adigaia jadanik erabat osoa bada, orduan oraindik objektu honetaz galde dezaket ea ahalgarria, edo baita erreal den, edo hau bada ea orduan halabeharrez den. Honen bitartez ez dira determinazio gehiago pentsatzen objektuan, baizik hau baino ez da galdetzen: nola jokatzeko du (bere determinazio guztiekin) adimenari eta bere erabilera enpirikoari, juzgamen enpirikoari eta arrazoimenari dagokienez (esperientziari aplikatzean)?

Honegatik, modalitatearen oinarri-esakunak ahalgarritasuna, errealitatea eta beharrezkotasunaren adigaien argipenak besterik ez dira beren erabilera enpirikoan, eta aldi berean kategoriatik ororen murriztapena dira enpirikoa soilik den erabilerara, erabilera transzendentala onartu eta baimendu gabe. Izan ere, hauek esanahi logiko soilak ez baldin badute, eta *pentsatzearen* forma analitikoki adierazi behar ez badute, baizik *gauzak* eta beren ahalgarritasuna, errealitatea eta beharrezkotasunari badagokio, orduan esperientzia ahalgarrira eta bere batasun sintetikora jo behar dute, ezagutzaren objektuak hemen besterik eman ezin daitezkeenez.

Gauzen ahalgarritasunaren postuluak, beraz, beren adigaiak esperientzia baten baldintza formalekin ados jartzea eskatzen du. Honek, hots, oro har esperientziaren forma objektiboak objektuen ezagutzarako behar den sintesi oro barnebiltzen du. Bere baitan sintesi bat biltzen duen adigaia kaskala balitz bezala hartu behar da, eta ezein objekturi ez zaio lotzen, sintesi hau esperientziari ez badagokio, bai honetatik mailegatua gisa, eta orduan *adigai enpirikoa* deitzen zaio, bai oro har esperientzia (bere forma) honetan funtsatzen dela apriorizko baldintza gisa, eta orduan *adigai hutsa* da, dena dela, esperientziari dagokiona, bere objektua honetan soilik aurki baitaiteke. Izan ere, nondik atera nahi da apriorizko adigai sintetiko baten bitartez pentsatutako objektu baten ahalgarritasunaren izaera, objektuen ezagutza enpirikoaren forma osatzen duen sintesitik abiatuta ez bada? Beharrezko baldintza logikoa da halako adigaietan kontraesanik ez dela egon behar; baina ez da inolaz ere baldintza gogobetegarria adigaiaren errealitate objektiborako, h. d., adigaiaren bitartez pentsatutako objektuaren ahalgarritasunerako. Bi lerro zuzenen artean bildutako figuraren adigaian ez dago kontraesanik, izan ere, bi lerro zuzenen eta beren bateratzearen adigaiak ez dute figura baten ukapenik barnebiltzen; ezintasuna ez da funtsatzen adigaietan beren baitan, baizik beren eraiketan espazioan, h. d., espazioaren baldintzetan eta bere determinazioan; baldintza hauek, ordea, beren errealitate objektiboa dute gainera, h. d., gauza ahalgarriek lotzen zaizkie, hauek beren baitan oro har esperientziaren forma a priori barnebiltzen dutelako.

Eta orain ahalgarritasunaren postulu honen onura zabala eta eragina begi-bistan jarri nahi ditugu. Iraunkorra den gauza errepresentatzen badut, bertan aldatzen den guztia bere egoerari dagokiola, orduan inoiz ezin dut ezagutu halako

adigaitik soilik abiatuta halako gauza bat ahalgarria denik. Edo bera ezartzean beti eta ezinbestean ondoren beste zerbaitek ondorioztatzen den moduan antolatuta dagoen zerbaitek errepresentatzen badut, orduan hau kontraesanik gabe pentsa daiteke horrela; baina hortik abiatuta ezin da juzgatu ea halako berekitasuna (kausalitate gisa) gauza ahalgarri batean badagoen. Azkenik, honela antolatuta dagoen hainbat gauza (substantziak) errepresenta dezaket: baten egoerak bestearenean eragiten duela, eta alderantziz; hala ere, ezin da hautazko sintesi soilak barnebiltzen duten adigai horietatik abiatuta ondorioztatu halako hartuemanak gauzaren bati egokitu ahal zaionik. Beraz, adigai hauek hautemapenen hartuemanak esperientzia bakoitzean a priori adierazten dituztelako soilik ezagutzen da haien errealtate objektiboa, h. d., beren egia transzendentala, eta gainera, noski, esperientziatik beregainki, baina ez oro har esperientzia baten formarekin eta batasun sintetikoarekin duten harreman orotatik beregainki, hauetan baino ezin baitaitezke ezagutu objektuak enpirikoki.

Orain, ordea, hautemapenak eskaintzen digun ekaitik substantzia, indarra eta elkarreraginen adigai erabat berriak sortu nahi izanez gero, esperientzia beretik beren elkarloturaren adibidea hartu gabe, orduan asmakeria soilak gertatuko litezke, eta hauen ahalgarritasunak ez du ezein ezagugarrikerik bere baitan, zeren esperientzia ez baita hartzen maistra gisa, eta era berean, ez baitira adigai horiek bertatik hartzen. Halako adigai asmatuek ezin dute beren ahalgarritasunaren izaera kategoriak bailiran a priori jaso, esperientzia oro beren menpean duten baldintzak bailiran, baizik a posteriori esperientziaren bitartez emanak diren heinean besterik ez, eta beren ahalgarritasuna a posteriori eta enpirikoki ezagutzen da, edo ezin da bestela inolaz ere ezagutu. Iraunkorki espazioan presente dagoen baina hau betetzen ez duen substantzia (materia eta zerizan pentsatzailearen arteko erdiko gauza gisa, batzuek onartu nahi izan duten gauza), dela etorkizuna aurretik *begiesteko* gure gogamenaren oinarritzko indarren bat (ez hori ondorioztatzekoa soilik), dela gizakiekin pentsamenduen komunitatean egoteko bere ahalmen bat (nahi den bezain urrun egonda ere); hauek denak oinarrigabeko ahalgarritasuna duten adigaiak dira, ahalgarritasun hau esperientzia eta bere lege ezagunetan ezin baita oinarritu, eta honen gabezia hautazko pentsamenduen lotura besterik ez dira, zeinak, ezein kontraesanik ez badu ere, hala ere, errealtate objektiboaren eta, beraz, hemen pentsatu nahi diren objektuen ahalgarritasunaren uzirik ez duen. Errealtateari dagokionez, berez dago debekatua halakoa in concreto pentsatzea esperientziaren laguntzarik gabe, zeren hau sentsazioari soilik lot baitakioke, hau esperientziaren materia den heinean, eta ez baitu zerikusirik hartuemanaren formarekin; honekin, edozein kasutan, asmakizunetara jolas genezakeen.

Alde batera uzten dut, ordea, bere ahalgarritasuna errealtatetik abiatuta esperientzian lor daitekeen gauza oro, eta hemen apriorizko adigaien bidezko gauzen ahalgarritasuna baino ez dut kontsideratzen, eta hauetaz oraindik honakoa baieztatzen dut: ez direla berez gertatzen adigai hauetatik soilik abiatuta, baizik beti oro har esperientzia baten baldintza formal eta objektibo gisa besterik ez.

Itxuraz hiruki baten ahalgarritasuna bere baitan ezagut daiteke bere adigaitik abiatuta (ziurki esperientziatik beregaina da); izan ere, egitatean, objektu bat eman diezaiokegu, h. d., bera eraiki dezakegu erabat a priori. Hau, ordea, objektu baten forma besterik ez denez gero, orduan honek beti ere irudimenaren produktua izaten iraungo luke, eta bere objektuaren ahalgarritasunak zalantzarik izaten iraungo luke, horretarako zerbaitek gehiago beharko balitz bezala, hots, halako figura esperientziaren objektu denek oinarritzat hartzen duten baldintzapean soilik pentsatua izatea. Halako gauzaren ahalgarritasunaren errepresentazioa adigai horrekin elkarlotzen duena espazioa kanpoko esperientzien apriorizko baldintza formala izatea eta irudimenean hiruki bat eraikitzeke sintesi eratzailea guk agerpen baten atzematean agerpena esperientzia-adigai bihurtzeko erabiltzen dugun sintesiaren berbera izatea besterik ez da. Eta horrela, handitasun jarraituen ahalgarritasuna, eta gainera, handitasunena oro har, horien adigaiak osotara sintetikoak direnez, ez dira argitzen adigai beraietatik abiatuta, baizik lehen-lehenik beraietatik abiatuta objektuek oro har esperientzian jasotzen duten determinazioaren baldintza formalak diren heinean; eta non nahiko lirakeke bilatu adigaiei egokitzen zaizkien objektuak, objektuak ematen dituen gauza bakarra den esperientzian ez bada? Dena dela, esperientzia aitzinatu gabe ere gauzen ahalgarritasuna ezagut eta ezaugarri dezakegu, baina bertan oro har zerbaitek objektu gisa emateko baldintza formalekin harremanean soilik, eta beraz, erabat a priori, baina esperientziarekin harremanean eta bere muga barnean besterik ez.

Gauzen *errealtatea* ezagutzeko postulatuak *hautemapena* eskatzen du, eta beraz, sentsazioa bere kontzientziarekin batera, baina ez zuzenki bere izatea ezagutu behar dugun objektu berarena; bai, ordea, hautemapen errealekin batekin bilkura esperientziaren analogien arabera, hots, oro har esperientzia bateko elkarlotura errealekin erakusten duten analogien arabera.

Gauza baten *adigai soilean* ezin da bere izatearen izaerarik aurkitu. Izan ere, bera hain osoa izan arren, non ezer ez baitaio falta gauza bat bere barneko determinazio guztiekin pentsatzeko, dena dela, izateak honekin guztiarekin ez du zerikusirik, baizik galdekizun honekin besterik ez: ea halako gauza bat guri emana zaigun bere hautemapena adigaiaren aurretik

etorri ahal izateko moduan. Izan ere, adigaia hautemapenaren aurretik etortzeak bere ahalgarritasun soila adierazten du; adigaiari bere ekaia ematen dion hautemapena, ordea, errealitatearen izaera bakarra da. Gauzaren izatea, ordea, bere hautemapenaren aurretik ere ezagut daiteke alderagarriki a priori, baldin eta hautemapen batzuekin soilik elkartzen bada bere (analogien) elkarlotura enpirikoaren oinarri-esakuneen arabera. Izan ere, hainbestez, gauzaren izatea gure hautemapenekin elkartua dago esperientzia ahalgarri batean, eta analogia haien gida-hariarekin gure hautemapen errealetik gauzara irits gaitezke hautemapen ahalgarrien ilaran. Horrela, gorputz denetan sartzen den materia magnetikoaren izatea erakarritako altzairuen karraskaduren hautemapenaren bitartez ezagutzen dugu, gure organoen antolaeraren arabera ekai honen hautemapen zuzena ezinezkoa den arren. Izan ere, gure sentsuak finagoak balira, beren zakartasuna oro harrezko esperientzia ahalgarriaren autugaia ez denez gero, orduan beren begiespen enpiriko zuzenera iritsiko ginatke esperientzia batean sentimenaren legeen eta gure hautemapenen testuinguruaren arabera. Beraz, gauzen izatearen gure ezagutza hautemapena eta honen lege enpirikoetaranzko joera iristen diren bezain urrun heltzen da. Esperientziatik ez bagara abiatzen edo agerpenen bilkura enpirikoaren arabera jokatzeko ez badugu, orduan alferrik nahi izango dugu gauzaren baten izatea asmatzea edo ikertzea. Izatea zeharbidez frogatzeko erregela hauen aurkako objektzio boteretsua egiten du, ordea, *idealismoak*, eta bere errefusapenak hemen aurkitzen du gune egokia⁸⁸.

* * *

Idealismoaren errefusapena

Idealismoa (idealismo *materialaz* ari naiz) gure kanpoko objektuak espazioan izatea zalantzaraztat eta frogaezinezkotzat soilik edo faltsutzat eta *ezinezkotzat* ere adierazten duen teoria da; *lehena*, *Descartesen idealismo problematikoa* da, baieztapen enpiriko Bakarra adierazten duena zalantzaezintzat, hots, «*banai*z»; *bigarrena*, *Berkeleyren idealismo dogmatikoa* da, espazioa, honi baldintza bereiztezin gisa atxikitzen zaizkion gauza denekin batera, bere baitan ezinezkotzat adierazten duena, eta horregatik, espazioan dauden gauzak ere irudikapen soiltzat adierazten dituen. Idealismo dogmatikoa ezinbestekoa da espazioa berbaitango gauzei dagokien berekitasun gisa hartzen bada; izan ere, hor bera eta berekin batera berak baldintzatzen duen guztia ezigauza bat da. Idealismo honen oinarria, ordea, Estetika transzendentalean ezeztatu dugu. Idealismo problematikoak ez du horrelakorik baieztatzen, baizik eta gugandik kanpoko izate baten esperientzia zuzena frogatzeko ezgaitasuna adierazten du, eta idealismo hau arrazoizkoa eta pentsamolde filosofiko zehatz baten arabera da, hots, frogatzen gogobetegarria aurkitu aurretik ezein judizio erabakigarriarik ez egitea. Eskatzen den frogak, beraz, guk kanpoko gauzei *esperientzia* dugula erakutsi behar du, eta ez soilik *irudikapena*; hau zera frogatu ahal bada soilik gerta daiteke: Descartesek zalantzaezinezkotzat zuen *barneko* esperientzia ere *kanpoko* esperientziaren auresuposiziopean besterik ez dela ahalgarria.

Teorema

Nire izatearen kontzientzia soil nahiz enpirikoki determinatuak espazioan nire kanpoan dauden objektuen izatea frogatzen du.

Froga

Ni neure izateaz kontziente naiz, denboran determinatuta nagoen heinean. Denboraren determinazio orok *zerbait iraunkorra* auresuposatzen du hautemapenean. Iraunkorki honek, ordea, ezin du nigan dagoen ezer izan; zeren nire izatea ere iraunkorki honen bitartez determinatu behar baita denboran lehen-lehenik⁸⁹. Beraz, iraunkorki honen hautemapena nigandik kanpo dagoen *gauza* batetik eta nigandik kanpo dagoen gauza baten *errepresentazio* soiletik abiatuta da ahalgarria. Ondorioz,

nire izatearen determinazioa denboran nik nigandik kanpo hautematen ditudan gauza errealeen existentziaren bitartez besterik ez da ahalgarria. Baina kontzientzia denboran denbora-determinazioaren ahalgarritasunaren kontzientziarekin lotuta dago halaberharrez; beraz, nigandik kanpo dauden gauzen existentziarekin ere lotuta dago halaberharrez denbora-determinazioaren baldintza gisa; h. d., neure izatearen kontzientzia aldi berean nigandik kanpoko beste gauzen izatearen kontzientzia zuzena da.

1. *oharra*. Ohartuko da aurreko frogan idealismoaren jolasa bere aurka bihurtzen dela eskubide gehiagorekin. Idealismoak onartu zuen esperientzia zuzen bakarra barnekoa dela eta kanpoko gauzak hortik abiatuta *inferitu* baino ezin daitezkeela egin, baina hau ez da ziurra gertatzen beti emandako efektuetatik kausa *determinatuak* inferitzen direnean, zeren guk agian faltsuki kanpoko gauzei egozten dizkiegun errepresentazioen kausa gudan egon baitaiteke. Baina hemen frogatu da kanpoko esperientzia benetan zuzena dela⁹⁰, eta gure existentziaren kontzientzia ez, baina bere determinazioa denboran, h. d., barneko esperientzia bere eskutik besterik ez dela ahalgarria. Noski, «*banai*» errepresentazioa, pentsamendu orori lagun egin diezaiokeen kontzientzia adierazten duena, zuzenki subjektu baten existentzia bere baitan barnebiltzen duena da, baina ez da oraindik bere *ezagutzarik*, eta beraz, ezta ezagutza enpirikorik ere, h. d., ez da esperientziarik; izan ere, horri existitzen den zerbaiten pentsamenduaz gain begiespena ere baitagokio, eta hemen barneko begiespena dagokio, eta berari begira, h. d., denborari begira determinatu behar da subjektua, eta honetarako beti ere kanpoko objektuak behar dira, eta ondorioz, barneko esperientzia bera zeharbidez soilik eta kanpokoaren bidez besterik ez da ahalgarria.

2. *oharra*. Honekin guztiz ados dago gure ezagumenaren esperientzia-erabilera oro denboraren determinazioan. Kontua da denbora-determinazio oro kanpoko hartuemanen aldakuntzari dagokionez (higidura) espazioan iraunkorkiarekin harremanean (adibidez, eguzkiaren higidura lurreko objektuei begira) hauteman ahal izateaz gain substantziaren adigaia oinarritu ahal izateko ezer iraunkorrik ez daukagula, hau begiespena den aldetik, *materia* soila izan ezik, eta iraunkortasun hau bera ez da kanpoko esperientziatik sortzen, baizik eta a priori auresuposatzen da denbora-determinazio ororen beharrezko baldintza gisa, eta beraz, barneko sentsuaren determinazio gisa ere auresuposatzen da kanpoko gauzen existentziaren bitartez gure izate propioari begira. «*Nia*» errepresentazioan dudan neure buruaren kontzientzia ez da begiespena, subjektu pentsatzaile baten berezkitasunaren errepresentazio *intelektual* soila baizik. Horregatik, «*nia*» honek ez dauka *iraunkorra* izanik barneko sentsuko denbora-determinazioarentzat baliagarria izango litzatekeen begiespenaren predikatu bat bera ere korrelato moduan; adibidez, *materian sartuezintasuna* den lege, *materia* begiespen *enpirikoa* den heinean.

3. *oharra*. Norbere buruaren kontzientzia determinatuaren ahalgarritasunerako kanpoko objektuen existentzia behar izatetik ez da ondorioztatzen kanpoko gauzen errepresentazio begiesgarri orok aldi berean bere existentzia barnebiltzen duenik, izan ere, hura irudimenaren efektu soila ere izan daiteke (ametsetan eta eroaldian); errepresentazio hori aurretik doazen kanpoko hautemapenen birproduktioari esker baino ez dago, alegia, kanpoko objektuen errealtatearen bitartez soilik ahalgarriak diren hautemapenen birproduktioari esker, azaldu den moduan. Hemen, hau besterik ez zen frogatu behar: barneko esperientzia oro har kanpoko esperientziaren bitartez soilik dela ahalgarria. Ustekoko esperientzia bat edo beste irudikapen soila ez ote den bere determinazio berezien arabera eta esperientzia erreal ororen irizpideekin erkaketa eginez erabaki behar da.

* * *

Azkenik, *hirugarren* postulatuari dagokionez, honek izatean aurkitzen den beharrezkotasun materialaz dihardu, ez adigaien elkarloturako beharrezkotasun formal eta logiko soilaz. Sentsuen objektuen existentziarik ezin daitekeenez osoki a priori ezagutu, baina bai alderagarriki a priori jadanik emandako izate bati dagokionez, eta hala ere, nonbait esperientziaren bilkuran barnebildua egon behar duen existentzia batera iritsi ahal garenez gero, hau hautemapen jakin horren zatia izaki, orduan existentziaren beharrezkotasuna ezin da ezagutu inolaz ere adigaietatik abiatuta, baizik beti hautemana denarekin duen elkarloturatik abiatuta esperientziaren lege orokorren arabera. Hortaz, beste agerpen jakinen baldintzapean ezin da izaterik ezagutu halaberharrez, kausalitatearen legeen arabera kausa jakinetatik sortzen den efektuen izatea izan ezik. Beraz, ez da gauzen (substantzien) izatearen beharrezkotasuna, baizik beren egoerarena guk ezagut dezakeguna, eta gainera, hautemapenean ematen diren beste egoeretatik abiatuta eta kausalitatearen lege enpirikoei jarraiki. Hemendik zera ondorioztatzen da: beharrezkotasunaren irizpidea esperientzia ahalgarriaren legean baino ez datzala; gertatzen den guztia bere kausaren bidez a priori determinatuta dagoela agerpenean. Horregatik, beren kausa emana zaigun *efektuen* beharrezkotasuna soilik ezagutzen dugu izadian, eta beharrezkotasunaren ezaugarria izatean ez da iristen esperientzia ahalgarriaren alorrera baino, eta honetan ere

ez du gauzen existentziaz balio, gauzok substantziak diren aldetik, zeren hauek ezin baitira inoiz efektu enpirikoak bezala edo gertatzen eta sortzen den zerbait bezala begiztatu. Beharrezkotasuna, beraz, kausalitatearen lege dinamikoen arabera agerpenen hartuemanari eta bertan oinarritzen den (kausa baten) izate jakin batetik a priori beste baten (efektuaren) izatea inferitzeko ahalgarritasunari soilik dagokie. «Gertatzen den oro hipotetikoki beharrezkoa da»; oinarri-esakune honek munduko aldaketak lege bati menperatzen dizkio, h. d., beharrezko izatearen erregela bati, eta honen gabezia inolaz ere ez legoke izadirik. Horregatik, «ezer ez da gertatzen ausaz (*in mundo non datur casus*)» esakunea apriorizko izadiaren legea da; halaber, «izadian beharrezkotasuna ez da itsua, baizik baldintzatua, eta beraz, beharrezkotasun ulergarria (*non datur fatum*)». Aldaketen jolasa bi lege hauen arabera *gauzen izaeraren* menpean geratzen da (gauzok agerpenak diren aldetik), edo gauza bera dena, adimenaren batasunaren menpean, eta haiek bertan soilik koka daitezke esperientzia batean, hau agerpenen batasun sintetikoa den aldetik. Bi oinarri-esakune hauek dinamikoak dira. Lehena, benetan kausalitatearen oinarri-esakunearen ondorioa da (esperientziaren analogien artean). Bigarrena, modalitatearen oinarri-esakuneei dagokie, eta kausazko determinazioari gainera adimenaren erregela baten menpean dagoen beharrezkotasunaren adigai gehitzen dio. Jarraitasunaren printzipioak edozein jauzi debekatzen du agerpenen (aldaketen) ilaran («*in mundo non datur saltus*»), eta era berean bi agerpenen arteko zulo edo arrakala oro debekatzen du espazioaren sintesi enpirikoaren multzoan («*non datur hiatus*»); izan ere, hortaz, esakunea horrela azal daiteke: «esperientzia ezin da hutsunea (*vacuum*) aurkezten duen edo hutsunea sintesi enpirikoaren zati gisa baimentzen duen ezer onartu». Izan ere, (munduaren) esperientzia ahalgarriaren alorretik at pentsa daitekeen hutsuneari dagokionez, hau ez dagokio adimen soilaren eskumenari, honek agerpen jakinek ezagutza enpirikorako duen erabileraz baino ez baitu erabakitzen, eta arrazoimen idealaren arazoa da, esperientzia ahalgarriaren esferatik goiti ihesten den eta hau inguratu eta mugatzen duenaz juzgatu nahi duen arrazoimenaren arazoa, alegia, eta horregatik Dialektika transzendentalean kontsideratu behar da. Lau esakune hauek («*in mundo non datur hiatus*», «*non datur saltus*», «*non datur casus*», «*non datur fatum*») eta orobat jatorri transzendentaleko oinarri-esakune oro erraz aurkez ditzakegu beren ordenaren arabera kategorien ordenari jarraiki, eta bakoitzari bere kokalekua erakuts geniezaioke, baina hau irakurle saiatuak norberak egingo du, edo horretarako gida-haria erraz aurkituko du. Esakune guztiek, ordea, honetan besterik ez dute bat egiten, hots, sintesi enpirikoan adimenari eta agerpen ororen bilkura jarraituari, h. d., bere adigaien batasunari kaltetu edo eragingo ahal liekeen ezer ez dutela onartzen. Izan ere, adimenean soilik ahalbidetzen da esperientziaren batasuna eta hemen izan behar dute hautemapen guztiek beren egoitza.

Ea ahalgarritasunaren alorra errealki oro barnebiltzen duena baino handiagoa den eta hau, ordea, bere aldetik beharrezkoa dena baino handiagoa den, galdekizun egokiak eta konponketa sintetikoa dutenak dira, baina, bestalde, arrazoimenaren eskumenari baino ez dagozkionak; izan ere, hau adina esan nahi dute: ea gauza guztiak, agerpenak diren aldetik, osorik esperientzia bakarraren multzoan eta testuinguruan kokatzen diren, hautemapen jakin bakoitza horren zati den, eta beraz, beste agerpenekin ezin daitekeen lotu, edo ea nire hautemapenak esperientzia ahalgarri bat baino gehiagotan koka daitezkeen (beren bilkura orokorrean). Adimenak a priori esperientziari oro har sentimena eta apertzepzioaren erregelak ematen dizkio baldintza subjektibo eta formalen arabera, eta hauek besterik ez dute ahalbidetzen hura. Begiespenaren beste formak (espazioaz eta denboraz gain) eta era berean adimenaren beste formak (pentsatzearen forma diskurtsiboaz edo adigaien bidezko ezagutzaz gain) ahalgarriak balira ere, hauek ezin ditugu asmatu eta ulertu, eta hau egin ahal izango bagenu ere, ezingo litzazkioke esperientziari egokitu, hau objektuak ematen dizkigun ezagutza bakarra den aldetik. Adimenak ezin du erabaki ea oro har gure esperientzia ahalgarri osoari dagozkionez gain beste hautemapenak dauden, eta beraz, materiaren erabat bestelakoa den alorra egon daitekeen, bere autugaia emandakoaren sintesia besterik ez baita. Horrez gain, gure ohiko inferentzien txirotasuna begibistan nabarmentzen zaigu, eta honen bidez ahalgarritasunaren erresuma handia sortzen dugu, (esperientziaren objektuen) errealki oro bere zati txikia izaki. «Errealki oro ahalgarria da» esakunetik ondorioztatzen da berezko eran, konbertsioaren erregela logikoari jarraiki, esakune partikular soil hau: «ahalgarria den zerbait erreala da»; zeinak hau esan nahi duen itxuraz: «ahalgarria den asko dago erreala ez dena». Badirudi ahalgarria denaren kopurua erreala denaren kopuruaren gainetik handi daitekeela, lehenari zerbait erantsi behar baitzaio bigarrena osatzeko. Halere, ahalgarria denari egindako eransketa hori ez dut ezagutzen. Izan ere, oraindik erantsi beharko litzatekeena ezinezkoa izango liteke. Nire adimenari esperientziaren baldintza formalekin bat egiteaz gain zerbait erants dakioke, hots, hautemapen batekin elkarlotura; baina honekin lege enpirikoen arabera elkarlotuta dagoena erreala da, zuzenki hautemana ez den arren. Hala ere, ezin da inferitu emandakotik abiatuta, eta are gutxiago, zerbait ematen ez bazaigu, ea hautemapenean ematen zaidanarekin bilkura osoan dagoen agerpenen beste ilara, eta beraz, dena biltzen duen esperientzia bakarra baino zerbait gehiago izatea ahalgarria ote den; zeren ekairik gabe ezin baita inolaz ere ezer pentsatu. Ahalgarria besterik ez den baldintzapean ahalgarria baino ez dena ez da ahalgarria *zentzu guztietan*. Zentzu honetan hartzen da galdekizuna, ordea, gauzen ahalgarritasuna esperientzia iristen denera baino urrutirago luzatzen ote den jakin nahi denean.

Galdekizun hauek iritzi orokorraren arabera adimenaren adigaiei dagokienean ezein hutsunerik ez uzteko soilik aipatu ditut. Egitatean, ordea, ahalgarritasun absolutua (zentzu orotan balio duena) ez da adimenaren adigai soil, eta honek ezin du inolaz ere erabilera enpirikorik izan, baizik adimenaren erabilera enpiriko ahalgarri orori ihesten dion arrazoimenari besterik ez dagokio. Horregatik, hemen, ohar kritiko soil batekin askietsi behar dugu geure burua eta gaia gainerakoan iluntasunean utzi behar dugu gerorako jardunbide zabalagoaren zain.

Laugarren zati hau eta berekin aldi berean adimen hutsaren oinarri-esakune denen sistema bukatu nahi dudanez gero, orduan modalitatearen printzipioak postulatuak deitu izanaren arrazoia eman behar dut. Hemen adierazpen honi ez diot eman nahi gaur egungo autore filosofiko batzuek eman dioten zentzua, matematikariek ematen diotenaren aurkakoa, alegia, adierazpena benetan hauei dagokienean, hots, postulatuak esakune bat zuzenki ziurtzat hartzea esan nahi duela, legeztapen edo frogarik gabe; izan ere, esakune sintetikoak, nahi den bezain ebidenteak direla ere, dedukziorik gabe onartuko bagenitu, beren adierazpen propioaren ospeagatik onarpen baldintzatugabea barnebiltzen dutela, orduan adimenaren kritika oro galtzen da, eta sinesmen arruntak (ezein berme ez denak) ukatzen ez dituen handiuste ausartenak falta ez direnez gero, orduan gure adimena lilurakeria denei irekia geratzen da eta ezin die bere onarpena ukatu hauen adierazpenei, zeinek, legeztatuak izan gabe ere benetako axiomak balira bezala onartuak izatea eskatzen duten hauen konfiantzazko tonu berean. Gauza baten adigaiari apriorizko determinazioa eranstean bazaio sintetikoki, orduan halako esakune bati froga bat ez bada ere bere baieztapenaren zuzentasunaren dedukzioa bederen nahitaez erantsi behar zaio.

Modalitatearen oinarri-esakuneak ez dira, ordea, objektibo-sintetikoak, zeren ahalgarritasuna, errealitatea eta beharrezkotasunaren predikatuek ez baitute ezertan ere ugaltzen beren aplikazioan adigaia objektuaren errepresentazioari zerbait erantsiz. Hala eta guztiz ere, beti ere sintetikoak direnez gero, orduan hori subjektiboki besterik ez dira, h. d., gauza (errealki) baten adigaiari, zeinez bestela ezer ez duten esaten, beren jatorria eta egoitza den indar ezagutzailea halako moldez gaineratzen diote, non, adigaia adimenean esperientziaren baldintza formalekin elkarlotzen baldin bada, bere objektuari ahalgarria baiteritzaio; non hautemapenarekin elkartzen bada (sentsazioarekin, sentsuen materia den heinean), eta honen eskutik adimenaren bidez determinatua bada, orduan objektua erreala baita; non hautemapenen bilkuraren bitartez adigaiaren arabera determinatua badago, orduan objektuari beharrezkoa baiteritzaio. Modalitatearen oinarri-esakuneek, beraz, adigai batez bera sortzen duen ezagumenaren ekintza besterik ez dute adierazten. Matematikan, ordea, postulatu bat geure buruari lehenik objektu bat emateko eta gero bere adigaia sortzeko sintesia barnebiltzen duen esakune praktikoa da, adibidez, lerro jakin baten bidez puntu jakin batetik gainazal batean biribil bat deskribatzearen, eta halako esakunea ezin da frogatu, zeren berak eskatzen duen jardunbidea halako figuraren adigaia sortzeko baliabidea bera baita. Ondorioz, guk eskubide berberaz postula ditzakegu modalitatearen oinarri-esakuneak, zeren gauzez dugun adigaia ez baitute ugaltzen⁹¹, baizik hau oro har indar ezagutzailearekin lotzeko era baino ez baitute erakusten.

* * *

Ohar orokorra oinarri-esakuneen sistemari⁹²

Oso ohargarria da ezein gauzaren ahalgarritasuna ezin aditu izatea kategoriatik soilaren bitartez, baizik beti begiespen bat behar izatea eskura, honela bertan adimenaren adigai hutsaren errealitate objektiboa azaltzearen. Har ditzagun, adibidez, erlazioaren kategoriak. Ezin da aditu adigai soilen bitartez ea nola 1. zerbait *subjektu* gisa soilik, ez beste gauza baten determinazio soil gisa existitzen den, h. d., *substantzia* izan daitekeen, edo 2. zerbait delako, beste zerbaitekin izan behar duen, eta beraz, zerbait oro har kausa izan daitekeen, edo 3. gauza asko existitzen badira, hauetako bat han egoteagatik besteetan zerbait ondorioztatzen den, eta alderantziz, eta honela substantzien komunitate bat gerta daitekeen. Honek berdin balio du beste kategoriez, adibidez, ea nola gauza bat beste askorekin batera berdina izan daitekeen, h. d., handitasun bat izan daitekeen, eta abar. Begiespena falta den heinean, ezin da jakin ea kategorien bitartez objektu bat pentsatzen den, edo ea hauei oro harrezko objektuen bat egokitu ahal zaien, eta horrela egiaztatzen da berez ez direla ezein *ezagutzarik*, begiespen jakinak ezagutzak bihurtzeko *pentsamen-forma* soilak baizik. – Horregatik gertatzen da, orobat, kategoriatik soiletatik abiatuta ezein esakune sintetikorik ezin dela sortu. Adibidez, «izate orotan substantzia dago, h. d., subjektu gisa eta ez predikatu soil gisa existi daitekeen zerbait»; edo, «halako gauza bat quantum bat da, eta abar, eta bertan ez dago adigai jakin batetik irteteko eta beste batekin elkarlotzeko baliabidea dezakeen ezer». Horregatik, ez da inoiz lortu era berean adimenaren adigai huts soiletatik abiatuta

esakune sintetiko bat bera ere frogatzea, adibidez, «beharbada existitzen den guztiak kausa bat du» esakunea. Harreman hau gabe beharbadakoa denaren existentzia inolaz ere *ezingo genukeela ulertu*, h. d., a priori adimenaren bitartez halako gauza baten existentzia ezingo genukeela ezagutu frogatzea baino gehiago ezin da egin; hortik ez da ondorioztatzen bera gainera gauzen ahalgarritasunaren baldintza denik. Horregatik, kausalitatearen oinarri-esakunearen gure froga berriro begiratu nahi bada, orduan esperientzia ahalgarriko objektuez soilik frogatu ahal izan genuela ohartuko da: gertatzen den guztiak (edozein jazoera) kausa bat auresuposatzen duela eta, gainera, esperientziaren ahalgarritasunaren printzipioa, eta beraz, *begiespen empirikoan emandako* objektuaren *ezagutzaren* printzipioa den heinean soilik froga dezakegula, eta ez adigai soiletatik abiatuta. «Beharbadakoa den orok kausa bat izan behar du» esakunea edonori adigai soiletatik abiatuta argi zaiola ukatu ezin daitekeen arren, halako moldez ulertzen da, non beharbadakoa denaren adigaiak jadanik modalitatearen kategoria ez (bere ez-izatea *pentsa daitekeen* zerbait gisa), baina erlazioarena barnebiltzen baitu (beste baten ondorio gisa soilik existi daitekeen zerbait den aldetik), eta horrela, noski, ondokoa esakune identikoa da: «ondorio gisa besterik ezin existi daitekeenak kausa bat du». Egitatean, beharbadako izatearen adibideak eman behar baditugu, beti *aldaketetara* jotzen dugu eta ez soilik *aurkakoaren pentsamenduaren* ahalgarritasunera⁹³. Aldaketa, ordea, kausa baten bitartez soilik ahalgarria den jazoera da, eta bere ez-izatea, beraz, ahalgarria da berez, eta orduan, beharbadakotasuna zerbait kausa baten efektu gisa soilik existitu ahal izatean ezagutzen da; horregatik, gauza bat beharbadakotzat onartzen baldin bada, orduan esakune analitikoa da honek kausa bat duela esatea.

Oraindik ere ohargarriagoa da, ordea, gauzen ahalgarritasuna kategorien arabera ulertzeko, eta beraz, hauen *errealitate objektiboa* azaltzeko begiespenak ez ezik, bereziki *kanpoko begiespenak* behar izatea. *Erlazioaren* adigai hutsak hartzen baditugu, adibidez, zera aurkitzen dugu: 1) *Substantziaren* adigaiari egokituz begiespenean zerbait *iraunkorra* emana izateko (eta horrela, adigai honen errealitate objektiboa azaltzeko) *espazioan* gertatzen den begiespena (materia) behar dugula, zeren espazioa soilik baitago determinatua modu iraunkorrean, denbora, aitzitik, eta beraz, barneko sentsuan dagoen guztia, etengabe darion bitartean. 2) *Aldaketa kausalitatearen* adigaiari dagokion begiespen gisa aurkezteko higidura hartu behar dugu adibidetzat, espazioan gertatzen den aldaketa den heinean, eta gainera, horren bitartez soilik zaigu begiesgarria aldaketa, eta bere ahalgarritasuna ezein adimen hutsak ere ezin du ulertu. Aldaketa, gauza berberan izateari dagokionez, elkarren aurka kontraesankorki ezarrita dauden determinazioen lotura da. Arrazoimenak ezin du ulergarria bihurtu adibiderik gabe, ezta adigarria bihurtu ere begiespenik gabe, ea nola ote den ahalgarri egoera batetik gauza berari aurka egiten dion beste egoera ondorioztatzea ezein arrazoimenek adibiderik gabe, eta begiespen hau puntu batek espazioan egiten duen higidurarena da, eta puntu hau leku ezberdinetan izateak soilik (kontrajarritako determinazioen ondorio gisa) bihurtzen digu begiesgarria lehen-lehenik aldaketa; izan ere, ondoren barneko aldaketa pentsagarria egitearren, denbora barneko sentsuaren forma gisa kanpoko begiespenaren bidez egin behar dugu errepresentagarria lerro baten tankeraren bitartez eta barneko aldaketa lerro horren marrazketaren bitartez (higiduraren bitartez), eta beraz, geure buruaren existentzia jarraitua hainbat egoeratan kanpoko begiespenaren bitartez; honen benetako oinarria hau da: aldaketa orok begiespenean zerbait iraunkorra auresuposatzen duela, honela norbere burua ere aldaketa gisa hautemana izateko, baina barneko sentsuan ezin dela ezein begiespen iraunkorrik egon. – Azkenik, *komunitatearen* kategoria bere ahalgarritasunaren arabera ezin da inolaz ere arrazoimen soiletik abiatuta ulertu, eta gainera, ezinezkoa da adigai honen errealitate objektiboa begiespenik gabe aditzea, bereziki kanpoko begiespenik gabe espazioan. Izan ere, nola pentsatu nahi da, substantzia asko existitzen baldin badira, baten existentziatik elkarerraginean dagoen bestearenean zerbait (efektu gisa) ondorioztatu ahal izateko ahalgarritasuna, eta beraz, lehenengoan zerbait dagoelako horregatik besteetan ere zerbait egoteko beharraren ahalgarritasuna, azkenaren existentziatik abiatuta soilik ulertu ezin daitekeen zerbait? Izan ere, hau da komunitaterako eskatzen dena, baina bere subsistentziagatik osorik bakartzen diren gauzen artean ez da inolaz ere ulergarria. Horregatik, *Leibnizek* munduko substantziei komunitatea egotzi zienean, hauek adimenak soilik pentsatzen dituen moduan hartzen zituenez, jainkotasun bat behar izan zuen ararteko gisa; izan ere, arrazoiz iruditzen zitzaizkion ulertezinak beren izatetik soilik abiatuta. Guk, ordea, komunitatearen ahalgarritasuna ederki bihur dezakegu ulergarria (substantzien komunitatea, hauek agerpenak diren heinean), komunitatea espazioan, beraz, kanpoko begiespenean errepresentatzen badugu. Izan ere, honek jadanik a priori barnebiltzen ditu bere baitan kanpoko hartueman formalak hartueman errealean ahalgarritasunaren baldintza gisa (eraginean eta kontraeraginean, eta beraz, komunitatean). – Era berean, erraz azal daiteke gauzen ahalgarritasuna, hauek *handitasunak* diren aldetik, eta beraz, handitasunaren kategoriaren errealitate objektiboa kanpoko begiespenean soilik aurkez daitekeela, eta honen bitartez soilik aplika dakiogekela ondoren barneko sentsuari. Ez luzatzearren, ordea, irakurlearen gogoetari utzi behar diot honen adibideak aurkezteko lana.

Ohar oso honek garrantzi handia du, gure aurreko idealismoaren errefusapena baieztatzearen ez ezik, batik bat guri gainera halako ezagutza baten ahalgarritasunaren zedarriak erakusten dizkigulako, solasgaia barneko kontzientzia soiletik eta kanpoko begiespen enpirikoen laguntzarik gabeko gure izaeraren determinaziotik abiatutako *norbere buruaren ezagutza* denean.

Atal oso honen azken ondorioztapena, beraz, hau da: adimen hutsaren oinarri-esakune guztiak ez direla esperientziaren ahalgarritasunaren apriorizko printzipioak baino, eta apriorizko eskakuntza sintetiko denak azken honi besterik ez zaizkiola lotzen, are gehiago, beren ahalgarritasuna bera harreman honetan funtsatzen dela osorik.

Juzgamenaren irakaspen transzendentalaren

(oinarri-esakuneen Analitikaren)

Hirugarren atalburua

*Oro harrezko objektu oro fenomenoetan eta noumenoetan
ezberdintzeko oinarriaz*

Orain adimen hutsaren lurraldea zeharkatu eta bere zati bakoitza arretaz begiratu ez ezik, neurtu eta gainera bertako gauza bakoitzari bere kokalekua ere determinatu diogu. Lurralde hau, ordea, uharte bat da eta izadiak berak muga aldaezinetan itxi du. Egiaren lurraldea da (izen erakargarria), itxuraren benetako egoitza den itsaso zabala eta ekaiztsu batez inguratua, non lainoak eta azkar urtzen diren izotzak lur berriak iragartzen dituzten iruzurretan eta hauek, aurkikuntzen gogoz dagoen itsasgizona itxaropen hutsalekin etengabe iruzurtuz, erabat utzi ezin dituen baina bete ere ezin dituen abenturetan nahasten duten. Itsaso honetara abiatzera ausartu aurretik, ordea, onuragarria izango da lehenago uztera goazen lurraldearen mapari so egitea, hedapen osoan aztertu eta bertan zerbait aurkitzea itxarotuz ziur izatearren, eta lehenengoz galdetzea ea ez geundkeen gustura lurraldeak barnebiltzen duenarekin, edo behar izanez gero, gustura egon beharko genukeen, inon ez baldin badago bestela non kokatu ahal ginatekeen lurrik; bigarrenik, ea zein titulupean jabetzen garen lurralde honetaz eta ea gure lurraldetzat atxiki dezakegun asmo etsai ororen aurka. Galdekizun hauek Analitikan zehar askiro erantzun ditugun arren, beren konponketei gainbegirada laburtzaile batek uste osoa indar dezake konponketen hainbat une puntu batean bateratzeari esker.

Ikusi dugu, hain zuzen, adimenak bere kabuz esperientziatik mailegatu gabe sortzen duen guztia, dena dela, esperientzian soilik erabiltzeko baino ez duela. Adimen hutsaren oinarri-esakuneak a priori eratzaileak direla (matematikoak bezala) edo erregulatzaileak besterik ez direla ere (dinamikoak bezala), ez dute ezer barnebiltzen, nolabait esateko, esperientzia ahalgarriko eskema izan ezik; izan ere, honek bere batasuna batasun sintetikotik soilik jasotzen du, zeina adimenak ematen dion jatorriz eta berenez irudimenaren sintesiari apertzepzioarekin harremanean, eta agerpenek, jadanik a priori ezagutza ahalgarri baterako datuak diren heinean, honekin harremanean eta bateratuta egon behar dute. Adimenaren erregela hauek a priori egiazkoak izateaz gain egia ororen iturburua ere, h. d., gure ezagutzak objektuekin duen adostasuna ere barnebiltzen duten arren beren baitan, guri objektuak eman ahal zaizkigun ezagutza ororen multzoa osatzen duen esperientziaren ahalgarritasunaren oinarria beren baitan barnebiltzeari esker, dena dela, ez zaigu aski iruditzen egia dena soilik aurkeztea, baizik jakiteko irrikan gaudena ere bai. Beraz, azterketa kritiko honen bitartez ez badugu adimenaren erabilera enpiriko soilen hain ikerkuntza soilik gabe ere berez erabiliko genukeena baino ikasten, orduan bertatik lortzen den abantailak ez dirudi ahaleginari eta prestaketari erantzuten dionik. Honi, ordea, hau erantzun dakioke: ez dagoela gure ezagutzaren hedapenerako ozarkeria kaltegarriagorik aurretik bere abantaila jakin nahi duena baino, hots, edozein ikerkuntza egin aurretik eta abantaila honen adigai txikiarena ere egin ahal izan aurretik, bera begien aurrean izan arren. Hala ere, badago benetan halako ikerkuntza transzendentalaren ikasle zailenari eta gogogabekoenari ere ulargarria eta aldi berean interesgarria izan dakiokeen abantaila, hots, bere erabilera enpirikoaz besterik jarduten ez duen adimenak eta bere ezagutza propioaren jatorriei buruz gogoetatzen ez duenak benetan oso ongi ekin dezakeela, baina gauza bat ezin duela lortu, hots, norbere buruari bere erabileraren mugak determinatzea eta bere esfera osoaren barne edo kanpo egon daitekeen guztia jakitea; izan ere, horretarako guk egin ditugun azterketa sakonak behar dira. Ezin badu bereiztu, ordea, ea galdekizun jakin batzuk bere ikuseremuan dauden ala ez dauden,

orduan inoiz ez dago bere uziez eta bere jabetzaz seguru, baizik eta hainbat zuzenketa lotsagarri hartu beharko ditu aintzat bere eremuaren mugak etengabe gaintitzen baditu (ezinbestekoa denez) eta lilurakeria eta itxurapenen artean galtzen bada.

Beraz, uste osoz ezagutu ahal bada adimenak bere apriorizko oinarri-esakune guztien eta bere adigai guztien erabilera enpirikoa soilik egin dezakeela, eta inoiz ez erabilera transzendentala, orduan hau ondorio garrantzitsuak dituen esakunea da. Adigai baten erabilera transzendentala oinarri-esakuneraren batean hau da: *oro harrezko* gauzei eta hauek *beren baitan* direnari lotzen zaiela, baina erabilera enpirikoa *agerpenei* besterik ez, h. d., *esperientzia* ahalgarri baten objektuei. Beti ere azkena baino ezin daitekeela gertatu, ordea, datorrenetik dakusagu. Adigai bakoitzari lehenik (pentsatzearen) adigai baten forma logikoa izatea eskatzen zaio oro har, eta gero, bigarrenik, berari objektu bat emateko ahalgarritasuna, zeinari bera lotuko zaion. Objektu hau gabe ez du zentzurik, eta edukiari dagokionez erabat kaskala da, nahiz beti ere balizko datuetatik abiatuta adigai bat sortzeko forma logikoa gorde dezakeen. Adigai bati objektua begiespenean baino ezin bazaio eman, eta begiespen hutsa objektua baino lehenago a priori ahalgarria bada, orduan adigai honek bere objektua, eta beraz, bere baliotasun objektiboa begiespen enpirikoaren bitartez soilik jasotzen du, bera horren forma soila izaki. Beraz, adigai guztiak, eta beraiekin batera oinarri-esakune guztiak, a priori izan badaitezke ere, begiespen enpirikoei lotzen zaizkie, h. d., *esperientzia* ahalgarrirako datuei. Hau gabe ez dute baliotasun objektiborik, baizik jolas soilak dira, irudimenaren edo adimenaren jolasak hurrenez hurren beren errepresentazioekin. Har ditzagun Matematikaren adigaiak, adibidez, eta gainera, lehenik bere begiespen hutsean. «Espazioak hiru dimentsio ditu», «Bi puntuen artean lerro zuzen bakarra izan daiteke», eta abar. Oinarri-esakune hauek denak eta zientzia haren objektuaren errepresentazioa erabat a priori gogamenean sortzen badira ere, ez lukete ezein esanahirik izango beren esanahia beti agerpenetan (objektu enpirikoetan) erakutsiko ez bagenu. Horregatik, adigai bakartua *sentsuzkoa bihurtzea*, h. d., berari dagokion objektua begiespenean erakustea eskatzen da gainera, zeren hau egin gabe, adigaiak zentzurik gabe (esaten den legez), h. d., esanahirik gabe geratuko bailirateke. Matematikak eskakizun hau tankeraren eraiketaren bitartez betetzen du, zeina sentsuei presente zaien agerpena den (nahiz a priori sortutakoa izan). Handitasunaren adigaiak, zientzia berberan, bere sustapena eta zentzua zenbakian bilatzen du, honek, ordea, hatzetan, abakoaren boletan edo begi-bistan aurkeztzen diren marra eta puntuetan. Adigaiak beti ere a priori sortua dirau adigai horietatik sortutako oinarri-esakune sintetiko eta formulekin batera; baina bere erabilera eta balizko objektuekin harremana ezin da azkenean *esperientzia* baino bilatu, eta honen ahalgarritasunak (formaren arabera) haiek barnebiltzen ditu a priori.

Kategoria guztiekin eta beraietatik eratorritako oinarri-esakuneekin hau bera gertatzen dela, ordea, hemendik argitzen da: hauetako bat bera ere ezin dugula definitu, h. d., bere objektuaren ahalgarritasuna ezin dezakegula ulergarria bihurtu berehala sentimenaren baldintzetara, eta beraz, agerpenen formetara jo gabe, eta ondorioz, hauetara zedarritzatuak izan behar dute beren objektu bakar gisa, zeren baldintza hau kentzen baldin bada, esanahi oro, h. d., objektuarekin harremana kentzen baita, eta orduan, ezin baita ezein adibideren bidez ulergarria bihurtu ea halako adigaien bidez benetan zer adierazten den⁹⁴.

Inork ezin du argitu handitasunaren adigaia oro har, honela izan ezik agian: gauza baten determinazioa dela, zeinari esker pentsa daitekeen gauza honek Bata zenbat aldiz ezarria duen. Halere, «zenbat aldiz» hau errepikapen jarraituan oinarritzen da, eta beraz, denboran eta (homogeneoaren) sintesian bertan. Errealitatea, ukapenari kontrajarriz, denbora bat pentsatzen bada soilik argi daiteke (izate ororen multzo gisa), betea edo kaskala den denbora. Iraunkortasuna (denbora orotan izatea dena) alde batera uzten badut, orduan substantziaren adigaian ez da subjektuaren errepresentazio logikoa baino geratzen, eta hau subjektu gisa soilik (eta ez predikatu gisa) gertatzen den Zerbait errepresentatzearen bidez egikaritzen dudala uste dut. Guztiarekin ere, abantaila logiko hau gauzaren bati egokitu ahal izateko baldintzarik ez jakiteaz gain, horrekin ezin dut ezer egin eta bertatik ezin da ezein ondorioztapenik atera, zeren horren bitartez adigaiaren erabilaren ezein objekturik ez baita determinatzen, eta beraz, ezin baita jakin ea honek edonon zerbait esan nahi duen. Kausaren adigaiaz ez dut kategoria hutsean hau baino gehiago aurkituko (denbora alde batera uzten badut, non zerbait beste zerbaiti erregela baten arabera jarraiki zaion): zerbaiten izatetik abiatuta bestearen izatea inferitu ahal izatea eragiten duen zerbait dela, eta horren bitartez kausa eta efektua inolaz ere ezin bereizteaz gain inferitu-ahal-izate honek berehala nik ezagutzen ez ditudan baldintzak eskatzen dituenaz gero, orduan adigaiak ez lukeela ezein determinaziorik izango objektuen bati egokitzeke eraz. «Beharbada den orok kausa bat du» ustezko oinarri-esakuneak aski pisutsua dirudi, bere duintasuna bere baitan balu bezala. Baina zera galdetzen dut: zer ulertzen duzue beharbadakotzat? Eta erantzuten baduzue: bere ez-izatea ahalgarria den gauza hura, orduan gustura jakin nahiko nuke nondik ezagutu nahi duzuen ez-izatearen ahalgarritasun hori, agerpenen ilaran segida bat eta bertan ez-izateari jarraiki zaion izate bat (edo alderantziz), eta beraz, aldakuntza bat errepresentatzen ez baduzue; izan ere, gauza baten ez-izateak bere burua ez kontraesatea baldintza logiko batera jotze apala besterik ez da, eta adigairentzat beharrezkoa da, baina inolaz ere ez da nahikoa

ahalgarritasun errearentzat; orobat, existitzen den substantzia bakoitza pentsamenduan ezeztatzeko dezaket neu kontraesan gabe, baina hortik inolaz ere ezin dut inferitu izateari begira duen beharbadakotasun objektiboa, h. d., bere ez-izatearen ahalgarritasuna bere baitan. Komunitatearen adigaiari dagokionez, erraza da hau ulertzea: substantziaren kategoria hutsak eta kausalitatearen objektua determinatzen duen argipenik baimentzen ez dutenez gero, orduan elkarrenganako kausalitateak substantzien arteko harremanean (commercium) ere ez duela egingo. Ahalgarritasuna, izatea eta beharrezkotasuna inork ezin izan ditu argitu tautologia nabarmenen bitartez izan ezik, beren definizioa adimen hutsetik abiatuta soilik sortu nahi ezean. Izan ere, *adigaiaren* ahalgarritasun logikoa (honek bere burua kontraesaten ez duenez) *gauzen* ahalgarritasun transzendentalaren (adigaiari objektu bat dagokionez) ordeztatzeko itxurapenak aditua ez dena soilik iruzur eta gogobete dezake⁹⁵.

Hemendik segitzen da modu kontraesanezinean adimenaren adigai hutsek *inoiz* erabilera *transzendentalik* ezin dezaketela izan, baizik *beti empirikoa* dena besterik ez dutela, eta adimen hutsaren oinarri-esakuneak esperientzia ahalgarriaren baldintza orokorrekin harremanean soilik lotzen zaizkiela sentsuen objektuei, baina inoiz ez oro harrezko gauzei (hauek begietsi ahal izateko era aintzat hartu gabe).

Ondorioz, Analitika transzendentalak emaitza garrantzitsu hau du: adimenak a priori ezin duela inoiz oro har esperientzia ahalgarri baten forma aitzinatzea baino lortu, eta agerpena ez dena esperientziaren objekturik izan ezin daitekeenez gero, orduan sentimenaren zedarrak inoiz ezin dituela gainditu, objektuak hauen barnean soilik eman ahal baitzaizkigu. Bere oinarri-esakuneak agerpenen aurkezpenaren printzipio soilak dira, eta oro harrezko gauzez irakaspen sistematiko batean apriorizko ezagutza objektiboa ematea uste duen Ontologiaren izen harroak (adibidez, kausalitatearen oinarri-esakunea) adimen hutsaren Analitika soil apalagoari utzi behar dio bere lekua.

Pentsatzea begiespen jakin bat objektu bati lotzeko ekintza da. Begiespen honen era inolaz ere emana ez bada, orduan objektua transzendental besterik ez da eta adimenaren adigaiak ez du transzendental ez den beste erabilerarik, hots, anizkunki baten pentsatzearen batasuna oro har. Sentsuzko begiespenaren, hots, eduki dezakegun begiespen bakarraren baldintza oroz abstraitzen duen kategoria huts baten bitartez ez da ezein objekturik determinatzen, baizik oro har objektu baten pentsatzea adierazi besterik ez da egiten era ezberdinetan. Adigai baten erabilerari juzgamenaren funtzio bat dagokio, ordea, eta honen bitartez menperatzen zaio objektu adigaiari, eta beraz, zerbait begiespenean eman ahal izateko baldintza gutxienez formala dagokio. Juzgamenaren baldintza (eskema) falta bada, orduan menperaketa oro desagertzen da; izan ere, ez da adigai menpera dakiekeen ezer ematen. Beraz, kategorien erabilera transzendental soil, egitatean, ez da ezein erabilerarik, eta ez du ezein objektu determinaturik, ezta formaren arabera objektu determinagarria denik ere. Hemendik honakoa ondorioztatzen da: kategoria hutsa ere ezein apriorizko oinarri-esakune sintetikorako aski ez dela, eta adimen hutsaren oinarri-esakunek erabilera empirikoa besterik ez dutela, inoiz ez transzendental. Esperientzia ahalgarriaren alorretik at inon ezin da apriorizko oinarri-esakune sintetikorik egon.

Gomendagarria izan daiteke, hortaz, norbera honela adieraztea: kategoria hutsek sentimenaren baldintza formalik gabe esanahi transzendental soil dute, baina ez dute erabilera transzendentalik, zeren hau bere baitan ezinezkoa baita, kategoriei erabileraren baten baldintzak (judizioetan), hots, ustezko objektuen bat adigai horiei menperatzeko baldintza formalak falta zaizkien heinean. Beraz, erabilera empirikorik ez dutenez (kategoria huts soilak diren aldetik) eta erabilera transzendental izan ezin dutenez gero, orduan ez dute ezein erabilerarik sentimen orotatik bakartzen badira, h. d., ezein balizko objekturi ezin zaizkio aplikatu; aitzitik, adimenaren erabileraren forma hutsak besterik ez dira oro harrezko objektuari eta pentsatzeari begira, baina beren bitartez soilik ezin dute objektu bat pentsatu edo determinatu.

Dena dela, hemen zailki saihesta daitekeen iruzur bat dago oinarrian. Kategoriak beren jatorriaren arabera ez dira oinarritzen sentimenean, *begiespenaren formek* egiten duten legez, hots, espazioak eta denborak; eta beraz, sentsuen objektu oroz goiti doan aplikazioa baimentzen dute itxuraz. Baina, bestalde, hauek beren aldetik *pentsamenduen formak* baino ez dira, begiespenean ematen den anizkunkia kontzientzia batean a priori bateratzeko ahalmen logiko soil barnebiltzen duten formak, eta eduki dezakegun begiespen bakarra kenduz gero, orduan sentsuzko forma huts haiek baino esanahi gutxiago eduki dezakete, hauen bitartez gutxienez objektu bat ematen baita, baina gure adimenari berezkoa zaion anizkunkiarekin lotura-erak, aitzitik, ez baitu ezer esan nahi, objektua eman diezagukeen begiespena ez bada gaineratzen. – Hala eta guztiz ere, objektu jakinei, agerpenak diren aldetik, sentsuen zerizanak deitzen badiegu (phenomena), beraiek begiesteko dugun era berbaitan duten antolaeratik bereizten dugun heinean, orduan honek jadanik bere baitan jasotzen du, nolabait esateko, haien aurrean, edo zerizan hauek beren antolaeraren arabera ezartzea, bertan begietsi ezin diren arren, edo baita gure sentsuen objektuak ez

diren beste gauza ahalgarriak ere, adimenaren bitartez soilik pentsatutako objektutzat hartuta, eta hauei adimen-zerizanak (noumena) deitzen diegu. Hala ere, zera galdetzen da: ea gure adimenaren adigaiak esanahirik duten azken hauei begira, eta haiek hauen ezaguera bat izan daitezkeen.

Hasiera-hasieratik hemen gaizki-ulertze handi bat sor dezakeen bikoiztasun bat agertzen da: adimenak, berak objektu bati harreman batean soilik fenomeno deitzen dionean, aldi berean harreman honetatik at *objektu baten berbaitango* errepresentazioa sortzen duenez, eta ondorioz, halako objektuak *adigaiak* bihur ditzakeela errepresentatzen duenez, eta adimenak kategoriak baino ematen ez dituenz gero, orduan adimenak objektua azkenengo esanahian bederen adimenaren adigai huts hauen bitartez pentsatu ahal behar du, baina horren indarrez huts egiten du adimen-zerizan baten adigai *indeterminatua*, oro har gure sentimenetik at datzan zerbait den aldetik, guk adimenaren bitartez eraren batean ezagut dezakegun zerizan baten adigai determinatutzat hartzean.

Noumenoaz *gure sentsuzko begiespenaren objektua ez den* gauza bat ulertzen badugu, gure begiespen-eraz abstraitzen dugun heinean, orduan hau noumenoa da adiera *negatiboan*. Baina honetaz *sentsuzkoa ez den begiespenaren objektua* ulertzen badugu, orduan begiespen-era berezi bat onartzen dugu, hots, intelektuala, gurea ez dena, ordea, eta bere ahalgarritasuna ere ezin dugu ulertu, eta hau noumenoa litzateke esanahi *positiboan*.

Sentimenaren irakaspena aldi berean noumenoaren irakaspena da adiera negatiboan, h. d., adimenak gure begiesteko erarekin harremanik izan gabe, eta beraz, agerpen gisa ez ezik, berbaitango gauza gisa ere pentsatu behar dituen gauzen irakaspena, baina hauek horrela bakartzean adimenak aldi berean bere kategoriak inolaz ere ezin dituela erabili ulertzen du hauek kontsideratzeko era honetan, zeren hauek begiespenaren batasunarekin harremanean espazioan eta denboran soilik dutenez gero esanahia, orduan batasun hau ere espazioaren eta denboraren idealtasun soilari esker soilik determinatu baitezake a priori lotura-adigai orokorren bitartez. Denboraren batasun hori ezin topa daitekeenean, eta beraz, noumenoan, kategorien erabilera oro osorik amaitzen da, baita esanahia oro ere; izan ere, kategoriei egokitu beharko litzaiekeen gauzen ahalgarritasuna bera ere ezin da ulertu inolaz ere; horregatik, aurreko atalburuaren ohar orokorrean hasiera bertan esandakoa besterik ezin dut aipatu. Guztiarekin ere, gauza baten ahalgarritasuna ezin da inoiz haren adigaiak bere burua ez kontraesateko egitatetik abiatuta soilik frogatu, hark berari dagokion begiespenaren bermea izan ezik. Beraz, kategoriak agerpen gisa kontsideratzen ez diren objektuei aplikatu nahi badizkiegu, orduan sentsuzkoa ez den beste begiespena jarri beharko genuke oinarrian, eta hainbestez, objektua noumenoa litzateke *esanahi positiboan*. Hala ere, halako begiespena, hots, begiespen intelektuala, erabat gure ezagumenetik at datzanez gero, orduan kategorien erabilera ere inolaz ezin daiteke esperientziaren objektuen mugatik irten, eta sentsu-zerizanei noski adimen-zerizanak dagozkie, eta gure sentsuen begiespen-ahalmenarekin harremanik ez duten adimen-zerizanak egon daitezke, baina gure adigaiak, gure sentsuzko begiespenarako pentsamen-forma soilak diren aldetik, ez dira inolaz ere hauetaraino iristen; beraz, guk noumeno deitzen diogun hori esanahi *negatiboan* besterik ez da ulertu behar noumenoa balitz bezala⁹⁶.

Ezagutza enpiriko batetik (kategorien bidezko) pentsatze oro kentzen badut, orduan ez da geratzen ezein objekturen ezagutzarik; izan ere, begiespen soilaz ezer ez da pentsatzen, eta nigan dagoen sentimenaren afekzio horrek ez du osatzen halako errepresentazioak objekturen batekin duen harremanik. Alderantziz, begiespen oro alde batera uzten badut, orduan pentsatzearen forma geratzen da, h. d., begiespen ahalgarri baten anizkunkiari objektu bat determinatzeko era. Horregatik, kategoriak sentsuzko begiespena baino urrunago iristen dira, zeren kategoriek oro harrezko objektuak pentsatzen baitituzte, hauek eman daitezkeen (sentimenaren) era berezia aintzat hartu gabe. Haiek, ordea, horren bitartez ez dute objektuen esfera handiagorik determinatzen, zeren ezin baita onartu hauek eman daitezkeenik sentsuzkoa ez den beste begiespena auresuposatu gabe; inolaz ere ez zaigu zilegi, ordea, holakorik egitea.

Adigai batek bere baitan kontraesanik barnebiltzen ez badu, gainera adigai jakinen mugapen gisa beste ezagutzekin elkartzen bada, baina bere errealtate objektiboa inolaz ere ezagutu ezin badaiteke, orduan adigai honi problematikoa deitzen diot. *Noumeno* baten adigaia, h. d., ez sentsuen objektu gisa, baizik eta berbaitango gauza gisa (adimen hutsaren bitartez besterik ez) pentsatu behar den gauzaren adigaia ez da inolaz ere kontraesankorra; izan ere, sentimenaz ezin da baieztatuta bera begiespenaren era ahalgarri bakarra denik. Gainera, adigai hau beharrezkoa da sentsuzko begiespena berbaitango gauzetara ez hedatzeko, eta beraz, sentsuzko ezagutzaren baliotasun objektiboa zedarritzatzeko (izan ere, begiespenaren eskueran ez dagoen gainerako horri noumeno deitzen zaio, ezagutza haiek beren eremua adimenak pentsatzen duen guztira ezin dutela luzatu erakustearren). Azkenean, ordea, halako noumenoaren ahalgarritasuna ezin da inolaz ere aditu, eta agerpenetik at geratzen den hedapena kaskala da (guretzat), h. d., guk *problematikoki* gehiago hedatzen den adimena dugu, baina ezein begiespenik ere

ez, ezta inolaz ere sentimenaren arlotik at objektuak ematen dizkigun eta adimena sentimenaz goiti *asertorikoki* erabiltzea ahalbidetzen duen begiespen ahalgarri baten adigairik ere. Noumenoaren adigaia, beraz, *muga-adigai* soila da, sentimenaren handiustea zedarritzatzen duena, eta beraz, erabilera negatiboa baino ez du. Guztiarekin ere, ez da izan hautaz asmatua, baizik sentimenaren zedarritzapenarekin lotuta dago, honen hedapenetik at ezer positiborik ezarri ezin duen arren.

Objektuen sailkaketa fenomenoetan eta noumenoetan, eta munduarena sentsuen eta adimenaren munduan, ezin da inolaz ere onartu esanahi positiboan, nahiz eta adigaiek, dena dela, sentsuzkoetan eta intelektualetan sailkaketa onartzen duten; izan ere, azkenengoei ezin zaie ezein objekturik determinatu eta beraiek, hortaz, objektiboki balioduntzat jo. Sentsuak alde batera uzten badira, nola bihurtu nahi da ulergarria gure kategoriek (noumenoentzat geratzen diren adigai bakarrak izango lirakeenak) oraindik nonbait zerbait esan nahi dutela, objekturen batekin duten harremanerako pentsatzearen batasuna baino zerbait gehiago behar denez, hots, begiespen ahalgarria behar denez, kategoriak berari aplikatu ahal izateko? Noumeno baten adigaia, problematikoki soilik hartuta, onargarria izan ez ezik, ezinbestekoa ere bada sentimenari zedarriak ezartzeko adigai gisa. Halere, hainbestez, ez da *objektu inteligible* berezia gure adimenarentzat, baizik objektu hau egokituko litzaiokeen adimen bera da arazoa, hots, bere objektuak diskurtsiboki kategorien bitartez ez, baizik intuitiboki sentsuzkoa ez den begiespen batean ezagutzea, eta honen ahalgarritasunaren errepresentaziorik ere ezin dugu izan. Honela, gure adimenak hedapen negatibo bat jasotzen du, h. d., bera ez da sentimenagatik zedarritzatua, baizik, aitzitik, berak zedarritzatzen du sentimena berbaitango gauzei (ez agerpen gisa kontsideratuta) noumeno deituz. Norbere buruari ere berehala mugak ezartzen dizkio, ordea, haiek ezein kategoriaren bitartez ere ez ezagutzeko, hots, haiek Zerbait ezezagun baten izenpean baino ez pentsatzeko mugak.

Autore berrietan «mundus sensibilis» eta «mundus intelligibilis»⁹⁷ adierazpenen erabat bestelako erabilera aurkitu dut, antzinakoetan zuen zentzutik erabat baztertzen dena eta, noski, zailtasunik sortzen ez badu ere, hitzontzikeria baino eskaintzen ez duena. Zentzu honi jarraiki, batzuek gustukoa dute agerpenen multzoari, begietsia den heinean, sentsuen mundua deitzea, baina beren bilkura adimenaren lege orokorren arabera pentsatzen den heinean, adimenaren mundua deitzea. Zeru izartuaren behaketa besterik azaltzen ez duen astronomia teoretikoak lehena aurkezten du, kontenplatiboak (munduaren sistema kopernikarraren arabera, edo baita Newtonen grabitazioaren legeen arabera argitua), aitzitik, bigarrena, hots, mundu inteligiblea. Halere, halako hitzen bihurketa galdeketa temati bat saihesteko ihespide sofistikoa besterik ez da, bere zentzua gure erosotasunaren mesedetan aldatuz. Dena dela, agerpenei dagokien ez adimena eta arrazoimena erabil ditzakegu; baina ea hauek oraindik erabilerarik baduten galdetzen da objektua agerpena ez denean (noumena), eta zentzu honetan hartzen da objektua, bere baitan inteligible gisa soilik, h. d., adimenari soilik emana zaionean eta sentsuei emana balitz bezala inolaz ere pentsatzen ez denean. Galdekizuna zera da, beraz, ea adimenaren erabilera enpirikoaz gain (mundu-eraikinaren newtondar errepresentazioan ere bai) noumenoak objektutzat dituen erabilera transzendental bat ahalgarria ote den, ezeztatuz erantzun dugun galdekizuna.

Beraz, «sentsuek objektuak aurkezten dizkigute *hauek agertzen diren moduan*, adimenak, berriz, *beraiek diren moduan*» badiogu, orduan azken hau ez da esanahi transzendentalean hartu behar, baizik enpirikoan besterik ez, hots, hauek esperientziaren objektu gisa agerpenen bilkura osoan errepresentatuak izan behar diren moduan eta ez hauek esperientzia ahalgarriarekin duten harremanetik at, eta ondorioz, sentsuekin dutenetik at, eta beraz, adimen hutsaren objektu gisa. Izan ere, honek guretzat beti ezezaguna iraungo du, eta gainera ezezaguna izaten jarraituko du ea halako ezagutza transzendental (berezia) nonbait ahalgarria den, gure kategorია arrunten menpean dagoenaren modukoa behinik behin. *Adimenak* eta *sentimenak loturan soilik* determina ditzakete guran objektuak. Guk banantzen baditugu, orduan begiespenak adigairik gabe edo adigaiak begiespenik gabe ditugu, bi kasuetan, ordea, ezein objekturi lotu ezin zaizkion errepresentazioak ditugu.

Argiketa hauen guztien ondoren norbaitek oraindik kategoriei erabilera transzendental soila ukatzeko unean zalantza egiten badu, saia ditzala hauek baieztapen sintetikoren batean. Izan ere, baieztapen analitikoak adimena ez du aurrera bultzatzen, eta bere autugaia jadanik adigaian pentsatua dena besterik ez denez gero, orduan erabakitzeke uzten du ea berak bere baitan objektuekin harremana ote duen, edo oro har pentsatzearen batasuna soilik adierazten duen (honek objektu bat emana izateko eraz osoki abstraitzen duela), zeren adimenari aski batzaio bere adigaian zer datzan jakitea; adigaiak nora jotzen duen axolagabe zaio. Beraz, saia dezala oinarri-esakune sintetiko eta ustez transzendentalean bat, hauen modukoa: «den guztia edo substantzia gisa edo bere menpean dagoen determinazio gisa existitzen da»; «beharbada den oro beste gauza baten efektu gisa existitzen da, hots, bere kausa», eta abar. Zera galdetzen dut, ordea: ea nondik hartu nahi dituen esakune sintetiko horiek, adigaiek ez badute balio esperientzia ahalgarrian, berbaitango gauzetan baizik (noumenoetan)? Non dago hemen esakune sintetiko bat lortzeko beti behar den hirugarren osagaia, honela bertan ezein kidetasun logiko (analitiko) ez duten adigaiak

elkarlotzeko? Inoiz ez du bere esakunea frogatuko eta, are gehiago, ezingo du orobat halako baieztapen hutsaren ahalgarritasuna legeztatu adimenaren erabilera enpirikoa aintzat hartu gabe eta horren bitartez judizio hutsak eta sentsuetatik aske daudenak osoki ukatu gabe. Orduan, objektu inteligible huts soilen adigaiak ez du bere aplikazioaren oinarri-esakunerik, ezin baita objektu hauek emateko erarik asmatu, eta beraientzako leku bat gordetzen duen pentsamendu problematikoa espazio kaskalaren moduan besterik ez da baliagarria oinarri-esakune enpirikoak zedarriztatzeko, baina ez du ezagutzaren beste objekturen bat bere baitan barnebiltzen eta erakusten oinarri-esakune horien esferatik at.

Eranskina

*Adimenaren erabilera enpirikoa transzendentalarekin
nahastean sortzen den hausnarketa-adigaiaren anfibologiaz*

Gogoetaren (reflexio) autugaia ez dira objektuak berak, beraietatik zuzenean adigaiak jasotzeko, baizik gogamenaren egoera da, non geu lehenengoz adigaietara iritsi ahal izateko baldintza subjektiboak aurkitzeko egoeran jartzen garen. Gogoeta errepresentazio jakinek gure ezagutza-iturburu ezberdinekin duten hartuemanaren kontzientzia da, eta honen bitartez baino ezin determina daiteke zuzenki beren arteko hartuemana. Gure errepresentazioaren ondorengo landualdi oro baino lehenago egin beharreko galdekizuna hau da: zein ezagumenetan bateratzen dira? Adimena ala sentsuen bitartez al dira elkarlotuak edo alderatuak? Zenbait judizio ohituraz onartzen dira, edo joeraz lotzen dira; baina aurretik ezein gogoetarik egiten ez denez, edo behinik behin ondoren ere kritikoki ez datorrenez gero, orduan honek beren jatorria adimenean izan duten judizioentzat balio du. Judizio guztiek ez dute *azterketa* bat behar, h. d., egiaren oinarriari arreta eskaintzea; izan ere, zuzenki ziurrak badira, adibidez, «bi punturen artean lerro zuzen bakarra egon daiteke», orduan beraietan ezin da beraiek adierazten dutena baino egiaren ezaugarri hurbilagorik iragarri. Dena dela, judizio guztiek, baita alderaketa guztiek ere, *gogoeta* bat behar dute, h. d., adigai jakinak zein indar ezagutzaileri egokitzen zaizkion bereiztea. *Gogoeta transzendental*a deitzen diot oro harrezko errepresentazioen alderaketa hau bera egiten duen indar ezagutzailearekin batzen duen, eta honen bidez, zera bereizten duen ekintzari: ea adimen hutsari edo sentsuzko begiespenari egokituz alderatu behar diren errepresentazioak beren artean. Gogamenaren egoera batean adigaiak elkarri egokitu ahal izateko hartuemana, ordea, *berberatasuna* eta *ezberdintasuna*, *adostasuna* eta *aurkakotasuna*, *barnekoa* eta *kanpokoa*, eta azkenik, *determinagarria* eta *determinazioa* (materia eta forma) dira. Hartueman honen determinazio zuzena honetan funtsatzen da: ea zein indar ezagutzaileri egokitzen zaizkion *subjektiboki*, sentimenari ala adimenari. Izan ere, azken hauen arteko bereizketak bereizketa handia sortzen du hartueman horiek pentsatu beharreko moduan.

Judizio objektibo oro egin aurretik adigaiak alderatzen ditugu: beren *berberatasunari* dagokionez (errepresentazio askorena adigai baten menpean) judizio *orokorren* mesedetan; edo beren *ezberdintasunari* dagokionez judizio *berezien* sorketarako; *adostasunari* dagokionez hortik judizio *baieztaileak* sortzen direla; eta *aurkakotasunari* dagokionez hortik ezeztaileak sortzen direla, eta abar. Arrazoi honegatik, badirudi aipatutako adigaiak alderaketa-adigaiak deitu beharko geniekeela (conceptus comparationis). Halere, autugaia forma logikoa ez, baina adigaiaren edukia denez, h. d., ea gauzak berberak edo ezberdinak diren, adosten edo elkarren aurka egiten duten, eta abar, orduan gauzek hartueman bikoitza izan dezakete gure indar ezagutzailearekin, hots, sentimenarekin eta adimenarekin, baina hemen zeini egokitu, horren menpean dago elkarri nola egokitzen diren. Orduan, hausnarketa transzendental da, h. d., errepresentazio jakinen hartuemana ezaguera batekin edo bestearekin, beraiek elkarrekin duten hartuemana determina dezakeen bakarra, eta ea gauzak berberak edo ezberdinak diren, adosten edo elkarren aurka egiten duten, eta abar, ez da erabakitzen berehala adigaietatik abiatuta alderaketa soilaren bitartez (comparatio), baizik lehen-lehenik beraiek zein ezaguerari egokitzen zaizkion bereiztearen bitartez gogoeta transzendental bati esker (reflexio). Beraz, hausnarketa logikoa alderaketa soila dela esan daiteke, izan ere, bertan errepresentazio jakinak zein indar ezagutzaileri egokitzen ote zaizkion kontuaz abstraitzen da osorik, eta errepresentaziook, hainbestez, beren egoitzaren arabera gogamenean homogeneousak balira bezala tratatu behar dira, baina *hausnarketa transzendentalak* (objektu beraietara jotzen duenak) errepresentazioak elkarrekin objektiboki alderatzeko ahalgarritasunaren oinarria barnebiltzen du, eta beraz, hausnarketa logikotik erabat ezberditzen da, zeren errepresentazioen egoitza den indar ezagutzailea ez baita berbera. Gogoeta transzendental hau betebeharrak bat da, inor ezin da bera betetzetik aske geratu, baldin eta gauzez zerbait a priori juzgatu nahi badu. Orain jardungo dugu honetaz, eta horren bidez nahikoa argitasun lortuko dugu adimenaren benetako zeregina determinatzeko.

1. *Berberatasuna* eta *ezberdintasuna*. Objektu bat sarri aurkezten bazaigu, beti, ordea, barneko determinazio berberekin (quantitas et qualitas), orduan adimen hutsaren objektu gisa balio badu, beti berbera da eta ez gauza ezberdin asko, baizik gauza Bakarra (numerica identitas); baina agerpena bada, orduan kontua ez da inolaz ere adigaiaren alderaketa, baizik hauei begira, guztia nahi den bezain berbera izanda ere, agerpen honen lekuen ezberdintasuna denbora berberan (sentsuen) objektuen *zenbaki-ezberdintasunaren* oinarri askia da. Horrela, bi ur-tantari dagokienez, barneko ezberdintasun guztiaz (kualitateaz eta kantitateaz) osoro abstrai daiteke, eta aski da aldi berean leku ezberdinetan begietsiak izatea hauek zenbakiari dagokionez ezberdintzat jotzeko. *Leibnizek* agerpenak berbaitango gauzatzat zituen, eta beraz, gauza inteligibletzat, h. d., adimen hutsaren objektutzat (nahiz eta fenomeno izena eman zien, hauen errepresentazioen nahasmena dela eta), eta honela,

noski, *ezberdingaitzen* bere esakunea ezin da ukatu (*principium identitatis indiscernibilium*); hala eta guztiz ere, sentimenaren objektuak direnez eta adimenak beraiei begira erabilera enpiriko soil duenez gero, ez erabilera hutsa, orduan askotasuna eta zenbaki-ezberdintasuna jadanik espazioak ematen ditu eskura, hau kanpoko agerpenen baldintza den aldetik. Izan ere, espazioaren zati bat, beste baten erabat antzekoa eta berdina izan arren, beste zati honetik at dago, eta horregatik, ezberdina da, eta beste zatiari eransten zaio espazio handiagoa osatzeko, eta honek, horregatik, espazioaren kokaleku ezberdinetan aldi berean dauden gauzez balio du, gainerakoan hain antzekoak eta berdinak izan badaitezke ere.

2. *Adostasuna eta aurkakotasuna*. Errealitatea adimen hutsaren bitartez baino ez bada errepresentatzen (realitas noumenon), orduan ezin da errealitateen artean ezein aurkakotasunik pentsatu, h. d., subjektu batean lotuta elkarri ondorioak ezeztatzen dizkioten errealitateen hartuemanak, eta $3-3 = 0$ denik ere ez. Aitzitik, errealkiak agerpenean (realitas phaenomenon) elkarren aurka egon daitezke, eta subjektu berean batuta bata *bestearen ondorioa* erabat edo alde deusezta dezake, bi indar higitzaileek lerro berean egiten duten legez, puntu batetik noranzko kontrajarrian tira edo puntua sakatzen duten heinean, edo mina baretzen duen atseginak egiten duen legez ere bai.

3. *Barnekoa eta kanpoko*. Adimen hutsaren objektu batean beretik ezberdina den beste edozerrekin harremanik (izatearen arabera) ez duena besterik ez da barnekoa. Aitzitik, substantia phaenomenon baten barneko determinazioak espazioan ez dira hartuemanak baino, eta hauek ere erlazio soilen multzo bat dira. Substantzia espazioan bertan eragingarriak diren indarren bitartez baino ez dugu ezagutzen, edo beste substantziak beregana erakartzen dituela (erakarpena), edo bertan sartzea oztokatzen diela (aldaraketa edo sarrezintasuna); espazioan agertzen den substantzia osatzen eta guk materia deitzen diogunaren beste berekitasunik ez dugu ezagutzen. Adimen hutsaren objektuak diren aldetik, ordea, substantzia bakoitzak barneko errealitateari dagozkion barneko determinazioak eta indarrak izan behar ditu. Barneko zein akzidente pentsa dezaket, ordea, nire barneko sentisuak eskaintzen didana izan ezik, hots, bera ere *pentsatzea* den edo honen analogoa den zerbait izan ezik? Horregatik, Leibnizek substantzia denak, baita materiaren osagaiak ere, noumeno gisa errepresentatzen zituenez gero, orduan hauek indar errepresentatzailea duten subjektu bakunak bihurtu zituen, hitz batean, *monadak*, kanpoko erlazioa adieraz dezakeen gutzia, eta beraz, *elkarketa* ere kendu baitzien pentsamenduan.

4. *Materia eta forma*. Bi adigai hauek beste guztien hausnarketaren oinarrian ezarri behar dira, hain bereiztezinki daude lotuta adimenaren erabilera bakoitzari. Lehenak, oro harrezko determinagarriak esan nahi du, bigarrenak, bere determinazioa (biak adiera transzendentalean, ematen denaren eta hau determinatzeko eraren bereizketa oroz abstraitzen baita). Lehenago logikariek orokorrari materia deitzen zioten, diferentzia espezifikoari, berriz, forma. Judizio bakoitzean, adigai jakinei materia (juzgatzekoa) eta beren hartuemanari (kopularen bitartez) judizioaren forma dei dakieke. Zerizan bakoitzean bere osagaiak (essentialia) materia dira; hauek gauza batean elkarlotzen diren era forma esentziala da. Oro harrezko gauzei begira ere errealitate mugagabea ahalgarritasun ororen materiatzat hartzen da, bere zedarritzapena (ukapena), ordea, gauza bat besteetatik adigai transzendentalean arabera bereiztea eragiten duen formatzat. Adimenak, beraz, lehenengoz zerbait emana izatea eskatzen du (adigai behinik behin), hori era jakin batera determinatu ahal izateko. Horregatik, adimen hutsaren adigaietan materia formaren aurretik doa, eta Leibnizek horregatik onartu zituen lehenengoz gauzak (monadak) eta hauen barneko indar errepresentatzailea, ondoren beren kanpoko hartuemanak eta beren egoeren komunitatea (hots, errepresentazioa) horren gainean oinarritzeko. Horregatik ziren espazioa eta denbora oinarri eta ondorio gisa ahalgarriak, lehena, substantzien arteko hartuemanaren bitartez soilik, bigarrena, elkarrekin zuten determinazioen elkarloturaren bitartez. Horrela gertatu beharko luke egitatean ere, adimen hutsa objektuei zuzenki lotu ahal izango balitzake eta espazioa eta denbora berbaitango gauzen determinazioak balira. Hala ere, sentsuzko begiespenak besterik ez balira, bertan guk objektu guztiak agerpen gisa baino ez ditugula determinatzen, orduan begiespenaren forma (sentimenaren antolaera subjektibo gisa) materia ororen (sentsazioak) aurretik doa, eta beraz, espazioa eta denbora agerpen oro eta esperientziaren datu ororen aurretik doaz, eta hau ahalbidetzen dute lehen-lehenik. Filosofo intelektualak ezin zuen jasan forma gauzen aurretik joatea eta honek haien ahalgarritasuna determinatzea; zuhertasun erabat zuzena zen hau, gauzak diren bezala begiesten ditugula onartzen bada (errepresentazio nahasian izan arren). Halere, sentsuzko begiespena baldintza subjektibo osorik berezia denez gero, apriorizko hautemapen ororen oinarrian dagoen eta bere jatorrizko forma den baldintza, orduan forma berez da emana, eta materiak (edo agertzen diren gauzak berak) inolaz ere ez luke oinarrian egon beharko (adigai soilen arabera juzgatu beharko litzatekeenez), aitzitik, bere ahalgarritasunak begiespen formala (denbora eta espazioa) emandakotzat auresuposatzen du.

Oharra
hausnarketa-adigaien anfibologiari

Baimen bekit sentimenean edo adimenean adigai bati ematen diogun kokalekuari *leku transzendentala* deitzea. Honela, adigai bakoitzari bere erabileraren ezberdintasunagatik dagokion kokaleku honen eta adigai guztiei leku hori determinatzeko erregelen arabera jarraibidearen juzgaketara *topika transzendentala* litzateke; adimen hutsaren hutsegiteen eta bertatik sortutako itxurapenen aurka zehazki babestuko litzatekeen irakaspena da, beti adigaiak benetan zein indar ezagutzaileri dagozkion ezberdintzen duen heinean. Halako adigai bakoitzari, bere baitan hainbat ezagutza jasotzen dituen halako izenburu bakoitzari, *leku logikoa* dei dakiok. Hemen oinarritzen da Aristotelesen *topika logikoa*, eskola-maisu eta hizlariak erabil zezaketeena, horrela pentsatzearen izenburu jakinen artean une bakoitzean gaiari hoberen zegokiona bilatzeko eta, zehaztasun itxurak gordez, gai horren gainean arrazoikerietan aritzeko edo luze hitz egiteko.

Topika transzendentala, aitzitik, ez ditu alderaketa eta bereizkuntza ororen aipatutako lau izenburuak baino barnebiltzen, zeinak kategorietatik honen bitartez bereizten diren, alegia, haien bitartez ez dela objektua aurkezten bere anizkuntasun osoan bere adigaiak osatzen duenaren arabera (handitasuna, errealitatea), baizik gauzen adigaiaren aurretik doan errepresentazioen alderaketa besterik ez. Alderaketa honek, ordea, aurretik gogoeta bat behar du, h. d., alderatu behar diren gauzen errepresentazioak non egokitzen diren determinatu behar du: ea adimen hutsak pentsatzen dituen ala sentimenak begiespenean ematen dituen.

Adigaiak logikoki aldera daitezke beren objektuen egokitzapenaz arduratu gabe, hots, ea noumeno gisa adimenari dagozkion edo fenomeno gisa sentimenari. Guk, ordea, adigai hauen bidez objektuetara jo nahi badugu, orduan beharrezkoa da aurretik gogoeta transzendentala egitea, honela zein indar ezagutzaileraren objektuak diren ikustearren, adimenarenak edo sentimenarenak. Gogoeta hau egiten ez badut, adigai hauen erabilera oso ez segurua bihurtzen dut eta ustezko oinarri-esakune sintetikoak sortzen dira, alegia, arrazoimen kritikoak berrezagutu ezin dituen eta anfibologia transzental batean soilik oinarritzen diren oinarri-esakuneak, h. d., adimen hutsaren objektuen eta agerpenen arteko nahasketan.

Halako topika transzental baten gabezia, eta beraz, hausnarketa-adigaiaren anfibologiaren bitartez iruzurtua, Leibniz sonatuak *munduaren sistema intelektuala* antolatu zuen edo, hobeto esanda, gauzen barneko antolaera ezagutu zuela sinetsi izan zuen, objektu denak adimenarekin eta bere pentsatzearen adigai formal bakartuekin soilik alderatzen zituen heinean. Hausnarketa-adigaiaren gure taulak itxaroten ez genuen abantaila ematen digu, alegia, bere irakaspidearen bereizgarria bere zati guztietan begi-bistan jartzea, eta aldi berean bere pentsamolde bereziaren oinarri zuzentzailea ere bai, gaizki-ulertze batean soilik funtsatzen dena. Leibnizek gauza guztiak elkarrekin alderatu zituen adigaiaren bitartez eta ez zuen aurkitu, berezkoa denez, adimen hutsak bere adigaiak elkarren artean ezberdintzeko erabiltzen duena baino beste ezberdintasunik. Sentsuzko begiespenaren baldintzak, beren bereizketa propioak aldean daramatzatenak, ez zituen jatorrizkotzat; izan ere, sentimena errepresentatzeko era nahastutzat besterik ez zuen jotzen, ez errepresentazioen iturburu berezitzat; agerpena *berbaitango gauza beraren* errepresentaziotzat jotzen zuen, nahiz adimenaren bidezko ezagutzetik ezberdintzen zuen forma logikoaren arabera, zeren agerpenak analisiaren ohiko gabeziagatik alboko errepresentazioen nahasketa jakina baitakar gauzaren adigaira, adimenak baztertzen badakien nahasketa. Hitz batean: *Leibnizek* agerpenak *intelektualizatu* zituen, *Lockek*, berriz, bere aldetik adimenaren adigaiak *noogoniaren* bere sistemaren arabera (adierazpen hau erabiltzea baimentzen bazait) osotara *sentsifikatu* zituen, h. d., hausnarketa-adigai enpirikotzat edo bakartutzat baino ez zituen hartzen. Adimenean eta sentimenean errepresentazioen bi iturburu erabat ezberdin bilatu beharrean, gauzez baliotasun objektiboarekin *elkarloturan* soilik juzga dezaketen iturburuak, alegia, gizon handi hauetako bakoitza bietako batean geratu zen, hots, bere iritziz zuzenki berbaitango gauzekin harremanean zegoenean, besteak lehenengoaren errepresentazioak nahastu edo ordenatu besterik egingo ez lukeelarik.

Ondorioz, Leibnizek sentsuen objektuak adimenean besterik ez zituen alderatu elkarrekin oro harrezko gauzak balira bezala. *Lehenik*, adimenak berberak edo ezberdinak balira bezala juzgatu beharko lituzkeen heinean alderatu zituen objektuak. Beraz, begien aurrean beren adigaiak baino ez zituen, eta ez begiespenean zuten kokalekua, begiespena izaki objektuak eman daitezkeen leku bakarra, eta adigai hauen leku transzentalari batere arretarik eskaini ez zionez gero (ea objektua agerpenen edo berbaitango gauzen artean onartu behar zen), bada, orduan ezin zen hau baino gertatu: oro harrezko gauzen adigaiak besterik balio ez duen ezberdintzen bere oinarri-esakunea sentsuen objektuetara ere hedatu zuela (mundus phaenomenon),

eta honen bitartez izadiaren ezagutzari hedapen aski handia eman zitzaiola uste izan zuela. Noski, ur-tanta bat berbaitango gauza gisa bere barneko determinazio guztiekin ezagutzen badut, orduan hauetako bat bera ere ezin dut besteetatik ezberdintzat jo, baldin eta beren adigai osoa berbera bada. Baldin eta bera, ordea, agerpena bada espazioan, orduan bere lekua ez du adimenean soilik (adigaien artean), baizik sentsuen kanpoko begiespenean (espazioan), eta hor leku fisikoak ez dira batere arduratzen gauzen barneko determinazioez, eta «b» leku batek «a» lekuan dagoenaren erabat antzekoa eta berdina den gauza barnebil dezake, nahiz eta horren ezberdina izan barnekoaren arabera. Lekuen ezberdintasunak beste baldintza gehiago behar izan gabe objektuen askotasuna eta bereizkuntza ahalbidetu ez ezik, hori gainera halaberharrez egiten du, objektuok berez agerpenak diren aldetik. Beraz, itxurazko lege hura ez da izadiaren ezein legerik. Adigai soilen bidezko gauzen alderaketaren erregela analitikoa besterik ez da.

Bigarrenik, errealitateak (baieztapen soilak diren aldetik) logikoki inoiz elkarren aurka jartzen ez direla dioen oinarri-esakunea adigaien hartuemanen eskune erabat egiazkoa da, baina ez du ezer esan nahi, ez izadiari dagokionez, ezta inolaz ere berbaitango gauza bati dagokionez ere (ez dugu honen ezein adigairik). Izan ere, aurkakotasun erreala, hots, $A-B=0$, gertatzen den leku guztietan aurkitzen da, h. d., errealitate bat bestearekin subjektu batean lotua dagoenean bata bestearen eragina ezeztatuz, eta hau izadiko oztupoek eta kontraeraginek jartzen dute etengabe begi-bistan, zeinek, indarretan oinarritzen direnez gero, realitates phaenomena izena behar duten. Mekanika orokorrak aurkakotasun honen baldintza enpirikoa a priori erregela baten bidez adieraz dezake, noranzkoen kontrajartzea aintzat hartzen duen heinean. Errealitatearen adigai transzendentalak ez daki ezer baldintza honi buruz. Leibniz jaunak eskune hau oinarri-esakune berri bati dagokion hotsarekin iragarri ez zuen arren, dena dela, baieztapen berrietarako erabili zuen eta bere jarraitzaileek izendatuki sartu zuten leibniziar-wolffiar irakaspen-erakinean. Oinarri-esakune honen arabera, adibidez, gaizki guztiak ez dira sorkarien zedarrien ondorioak baino, h. d., ukapenak, zeren hauek baitira errealitatearen aurkakotasun bakarrak (oro harrezko gauza baten adigai soilean horrela gertatzen da benetan, baina ez gauzetan hauek agerpenak diren aldetik). Halaber, oinarri-esakune honen aldeztaleek ahalgarritzat ez ezik, berezkotzat ere jotzen dute errealitate oro zerizan batean bateratzea aurkakotasun arduratsurik gabe, ez baitute kontraesanaren eskunea baino ezagutzen (horrela, honen bitartez gauza baten adigai bera ezeztatzen dela), ez, ordea, elkar ezeztapenarena, bertan oinarri erreal batek bestearen eragina ezeztatzen duela; halako oinarri-esakunea errepresentatzeko baldintzak sentimenean besterik ez ditugu aurkitzen.

Hirugarrenik, Leibnizen monadologiak oinarri hau besterik ez du: filosofo honek barnekoaren eta kanpokoaren arteko bereizketa adimenarekin hartuemanen soilik errepresentatzen zuela. Oro harrezko substantziek *barneko* zerbait izan behar dute, kanpoko hartueman orotatik, eta ondorioz, baita elkarketatik ere aske dagoen zerbait. Berbaitango gauzaren barnekoaren oinarritzapena bakunkia da, beraz. Bere egoeraren barnekoa ezin da izan lekua, tankera, ukipena edo higidura (determinazio hauek denak kanpoko hartuemanak dira), eta guk, horregatik, ezin diegu egotzi substantziei beste barneko egoerarik, guk geure sentsua barnetik determinatzeko erabilitakoa izan ezik, hots, *errerepresentazioen egoera*. Horrela prestatu ziren monadak, unibertso osoaren oinarritzko ekaia izan behar zutenak, baina beren indar ekilea errerepresentazioetan besterik ez dago, eta hauen bitartez benetan beren barnean soilik eragiten dute.

Arrazoi honegatik izan behar zuen, ordea, bere *substantzien* arteko *komunitate* ahalgarriaren printzipioak *aurrez determinatutako harmonia*, eta ez ezein eragin fisikorik. Izan ere, denak barnetik besterik ez, h. d., bere errerepresentazioez jarduten badu, orduan substantzia baten errerepresentazioen egoera ezingo litzateke ezein lotura eraginkorretan egon bestearen errerepresentazioen egoerarekin, baizik eta denetan eragiten duen hirugarren kausak egokiarazi beharko lituzke substantzien egoerak elkarren artean, baina ez, noski, noizbehinkako eta kasu berezi bakoitzean bereziki erabilitako laguntzaz (*systema assistentiae*), baizik denentzat balio duen kausa baten batasunaren idearen bidez, non denek beren izatea eta iraunkortasuna, eta beraz, baita beren elkar egokitasuna ere lortu beharko luketen lege orokorren arabera.

Laugarrenik, *denboraren* eta *espazioaren* bere *irakaspide* sonatua, sentimenaren forma hauek intelektualizatzen zituen irakaspidea, hausnarketa transzendentalaren iruzur berberatik baino ez zen sortu. Nik adimen soilaren bitartez gauzen kanpoko hartuemanak errerepresentatu nahi baditut, orduan hau beren elkarreraginaren adigaiaren bidez soilik gerta daiteke, eta nik gauza beraren egoera beste egoera batekin elkarlotu behar badut, orduan hau oinarrien eta ondorioen ordenaren arabera soilik gerta daiteke. Horrela, Leibnizek espazioa substantzien komunitatean dagoen ordena jakin gisa pentsatu zuen eta denbora beren egoeren segida dinamiko gisa. Hala ere, bi hauen bereizgarria, gauzetatik beregaina zena, hots, biek itxuraz beren baitan zutena, adigai horien *nahasketari* egotzi zion, eta honek hartueman dinamikoaren forma soila berez dirauen eta gauza beren aurretik doan begiespentzat hartzea eragin zuen. Beraz, espazioa eta denbora berbaitango gauzen (substantzien eta

beren egoeren) elkarloturaren forma inteligibleak ziren. Gauzak, ordea, substantzia inteligibleak ziren (substantiae noumena). Hala eta guztiz ere, Leibnizek adigai hauek agerpentzat har zitezela nahi zuen, zeren sentimenari begiespenaren era propiorik ez baitzion onartzen, aitzitik, objektuen errepresentazio denak, baita enpirikoak ere, adimenean bilatzen baitzituen, eta adimenaren errepresentazioak nahastu eta eraldatzeko zeregin meziprezagarria besterik ez baitzien utzi sentsuei.

Guk *berbaitango gauzez* adimen hutsaren bitartez zerbait sintetikoki esan ahal izango bagenu (ezinezkoa dena, ordea), hori ezingo litzateke inolaz ere berbaitango gauzak errepresentatzen ez dituzten agerpenekin harremanean jarri. Azken kasu honetan, beraz, nire gogoeta transzendentalean nire adigaiak beti sentimenaren baldintzapean soilik alderatu beharko ditut, eta horrela, espazioa eta denbora ez dira bihurtuko berbaitango gauzen determinazioak, baizik agerpenenak; berbaitango gauzak zer izan litezkeen ez dakit, eta ez dut jakiterik behar ere, zeren gauza bat inoiz ez baitut agerpenean baino topatuko.

Horrela jokatzan dut gainerako hausnarketa-adigaiekin. Materia substantia phaenomenon da. Berari bere barnean dagokiona betetzen duen espazioaren alde guztietan eta sortzen dituen eragin guztietan bilatzen dut, zeinak, noski, kanpoko sentsuen agerpenak soilik izan daitezkeen. Ez daukat, beraz, barne-barnekoa den ezer, alderaketaz barnekoa besterik ez den, eta gainera, kanpoko hartuemanaz osatzen den zerbait baizik. Dena dela, adimenaren ikuspegitik materiaren barne-barnekoa asmakizun soil da, ez baita ezein objekturik adimen hutsarentzat; baina materia deitzen diogun agerpenaren oinarria izan daitekeen objektu transzendentala Zerbait soil da, eta hau zer den ezingo genuke ulertu norbaitek esan ahal izango ligukeen arren. Izan ere, gure hitzei egokitzen zaionak begiespenean aldean dakarren zerbait besterik ezin dugu ulertu. «*Ez dugu inolaz ere aditzen gauzen barnekoa*» dioten kexuek ez dute legeztapenik eta arrazoizkotasunik, baldin eta hau adina esan nahi badute: guri agertzen zaizkigun gauzak ezin ditugula ulertu adimen hutsaren bidez beren baitan izan daitezkeenari dagokionez; izan ere, sentsurik gabe ere gauzak ezagutzea, eta beraz, begietsi ahal izatea nahi dute, eta ondorioz, giza ezagumenetik erabat ezberdina den zerbait eduki nahi dute, mailaren arabera ez ezik, begiespenaren eta eraren arabera ere bai, eta beraz, gizakiak ez, baizik beraiez ea ahalgarriak ote diren eta, are gutxiago, nola antolatuta dauden esan ezin dezakegun moduko zerizanak izan nahi dute. Agerpenen behaketa eta analisisa dira izadiaren barnera sartzen direnak, eta ezin da jakin hauek denborarekin noraino iritsiko diren. Izadiaz goiti doazen galdekizun transzental haiek honekin guztiarekin ezingo genituzke erantzun, ezta izadi osoa agertuko balitzaiguke ere, zeren gure gogamena bera geure barneko sentsua den begiespenaren bidez soilik behatu baitezakegu. Izan ere, bertan datza gure sentimenaren jatorriaren sekretua. Objektu batekin duen harremana eta batasun honen oinarri transzendentala sakonegi ezkutatuak daude zalantzarik gabe, geure burua barneko sentsuaren arabera soilik, eta beraz, agerpen gisa ezagutzen dugunok geure ikerkuntzaren tresna hain desegokia erabili ahal izateko moduan, berriro agerpena ez dena aurkitzearren, nahiz eta sentsuzkoa ez den bere kausa gustura ikertu nahiko genukeen.

Hausnarketaren ekintza soiletatiko inferentzien kritika hau erabat onuragarria egiten duena hau da: adimenean soilik elkarrekin alderatzen diren objektuez egindako inferentzia ororen hutsaltasuna argiki azaltzen duela eta, aldi berean, gehienbat guk azpimarratu duguna baieztatzen duela, alegia, agerpenak berbaitango gauzak balira bezala adimen hutsaren objektuen artean jaso ez arren, hala eta guztiz ere, beraietan soilik lortzen duela gure ezagutzak errealtate objektiboa, hots, beraietan soilik egokitzen zaiela begiespena adigaiei.

Guk logikoki soilik hausnartzen badugu, orduan gure adigaiak adimenean soilik alderatzen ditugu elkarren artean: ea biak gauza bera barnebiltzen duten, ea kontraesaten diren ala ez, ea adigaiak bere baitan zerbait barnebiltzen duen edo zerbait adigaiari erantzen zaion, eta ea bien artean zein hartu behar den emana gisa eta zein emana pentsatzeko era gisa soilik. Adigai hauek, ordea, oro harrezko objektu bati (adiera transzendentalean) aplikatzen badizkiot zehazkiago determinatu gabe ea hau sentsuzko begiespenaren edo begiespen intelektualaren objektua den, orduan berehala zedarritzapenak azaltzen dira (adigai horietaz goiti ez joateko), beren erabilera enpiriko oro eraldatzen dutenak, eta honen bidez, oro harrezko gauza den objektu baten errepresentazioa *askieza* soilik dela ez ezik, bere sentsuzko determinaziorik gabe eta baldintza enpirikotik beregainki bere baitan *aurkakorra* litzatekeela ere frogatzen duten zedarritzapenak, alegia; beraz, edo objektu guztiez abstraitu behar dela (Logikan), edo bat onartzen bada, orduan sentsuzko begiespenaren baldintzapean pentsatu behar dela frogatzen dute, eta beraz, inteligiblea denak guk ez dugun begiespen erabat berezia eskatuko luke, eta honen gabezia ez da ezer izango *guretzat*, aitzitik, agerpenek ezin dute berbaitango gauzak izan. Izan ere, oro harrezko gauzak soilik pentsatzen baditut, orduan, noski, kanpoko hartuemanen ezberdintasunak ez du osatzen gauzen ezberdintasuna bera, baizik eta hau auresuposatzen du, eta Baten adigaia Beste baten adigaitik barnean ez bada ezberdintzen, orduan gauza bat eta berbera ezartzen dut hartueman ezberdinetan. Gainera, baieztapen (errealtate) soil bat beste bati gehitzearen bidez zerbait positiboa gehitzen da, eta honi ez zaio ezer kentzen edo ezeztatzen; horregatik, errealkiak oro harrezko gauzetan ezin du bere buruaren aurka egin, eta abar.

* * *

Hausnarketaren adigaiek, erakutsi dugun legez, sasi-interpretazio jakin baten bitartez adimenaren erabileran hainbesteko eragina dute, ezen filosofo buruargienetako bat ere ezagutza intelektualaren ustezko sistemara desbideratzeko gai izan baitira, alegia, objektuak sentsuen laguntzarik gabe determinatzea saiatzeko duen sistemara. Arrazoi beragatik oinarri-esakune faltsuak sortzen dituzten adigai hauen anfibologiaren kausa iruzurtiaren argiketarako onura handia du adimenaren mugak ziurtasunez determinatzearen eta segurtatzearen.

Esan behar da bai adigai bati orokorki dagokiona edo hau kontraesaten duena era berean adigaiaren baitan jasoa dagoen eta berezia den orori dagokiola edo bera kontraesaten duela (dictum de omni et nullo); baina burugabea litzateke oinarri-esakune logiko hau honela eraldatzea: adigai orokor batean barnebiltzen ez dena bere menpean dagoen adigai berezian ere ez dela barnebiltzen; izan ere, hauek horregatik dira adigai bereziak, orokorretan pentsatutakoa baino gehiago barnebiltzen dutelako. Hala ere, Leibnizen sistema intelektual osoa azken oinarri-esakune honen gainean eraikia dago; sistema oinarri-esakunearekin batera hondoratzen da aldi berean, baita bertatik sortzen den adimenaren erabileraren zentzu-bikoiztasuna ere.

Ezberdintzen esakunea benetan auresuposizio honetan oinarritzen zen: oro harrezko gauza baten adigaian bereizkuntza jakin bat ez bada aurkitzen, orduan gauzetan ere ez dela aurkitzen; ondorioz, jadanik adigaia arabera (kualitatearen edo kantitatearen arabera) bereizten ez diren gauza denak erabat gauza berbera dira (numero eadem). Hala ere, gauzaren baten adigai soilean begiespenaren beharrezko baldintza batzuek abstraitzen denez gero, orduan presa bitxi baten bitartez abstraitu zen hura inon ez dagoen zerbait bihurtzen da, eta gauzei ez zaie onartzen beren adigaian barnebildua dagoena baino.

Metro kubiko batean espazioa beti berbera da, nahi dudana lekuan eta nahi dudana bezainbat aldiz pentsatu arren. Baina bi metro kubiko, hala ere, beren lekuengatik ezberdintzen dira espazioan (numero diversa); hauek adigai honen objektua ematen duen begiespenaren baldintzak dira, ez adigaiari dagozkion baldintzak, baizik sentimen osoaren baldintzak. Era berean, gauza baten adigaian ez dago aurkakotasunik ezeztaila den zerbait baieztaila den zerbaitekin ez bada lotzen, eta adigai baieztaila soilek ezin dute ezeztapenik eragin loturan. Hala ere, errealtatea (adibidez, higidura) eskuratzen digun sentsuzko begiespenean baldintza batzuk badaude (elkarren aurka doazen noranzkoak), higiduraren adigaian oro har alde batera baztertu ziren eta aurkakotasun bat ahalbidetzen duten baldintzak, nahiz aurkakotasun hau, noski, logikoa ez izan, hots, erabat positiboa den zerbait zero = 0 bihurtzea, eta ezin daiteke esan errealtate oro elkarrekin ados jartzen dela adigai hauen artean aurkakotasunik aurkitzen ez delako⁹⁸. Adigai soilen arabera barnekoa hartueman oro edo kanpoko determinazio ororen substratua da. Nik begiespenaren baldintza oroz abstraitzen badut eta oro harrezko gauza baten adigaian baino ez banaiz geratzen, orduan kanpoko hartueman oroz abstrai dezaket eta, hala ere, adigai batek iraun behar du, ezein hartuemanik ez, baizik barneko determinazioa besterik adierazten ez duen adigaiak. Hortaz, hortik itxuraz hau ondorioztatzen da: gauza bakoitzean erabat barnekoa den zerbait dagoela (substantzia), eta hau kanpoko determinazio ororen aurretik doala, hauek lehen-lehenik ahalbidetzen dituen heinean; eta beraz, substratu hau bere baitan kanpoko hartueman gehiagorik barnebiltzen ez duen modukoa da, eta ondorioz, *bakuna* da (izan ere, gauza gorpuzdunak beti hartuemanak besterik ez dira, zati batzuk besteetatik at dauden heinean bederen); eta guk barne-barnekoa den ezein determinaziorik ezagutzen ez dugunez gero, gure barneko sentsuaren bidez izan ezik, orduan substratu hori bakuna izan ez ezik, gainera (gure barneko sentsuarekin analogian) *errepresentazioen* bitartez determinatzen da, h. d., gauza guztiak benetan *monadak* edo errepresentazioak eduki ahal litzazketen zerizan bakunak lirateke. Honek guztiak bere zuzentasuna izango luke kanpoko begiespenaren objektuak eman ahal izateko baldintzei (eta adigai hutsak hauetaz abstraitzen du) oro harrezko gauza baten adigaia besterik ez balegokie. Zeren hor azaltzen baita agerpen iraunkorrek espazioan (hedadura sarrezinean) hartueman soilak baino ez dituztela barnebiltzen, ezta barne-barnekoa den ezer ere, eta, hala ere, kanpoko hautemapen ororen lehen substratua izan daitezkeela. Noski, adigai soilen arabera barneko zerbait izan gabe ezin dut kanpoko ezer pentsatu, hain zuzen, hartueman-adigaiek absolutuki emandako gauzak auresuposatzen dituztelako eta hauek gabe ez direlako ahalgarriak. Begiespenean oro harrezko gauza baten adigaian ez dagoen zerbait barnebiltzen denez eta adigai soilen bitartez ezagutuko ez litzatekeen substratua ematen duena denez, hots, espazioa denez gero, zeina, berak barnebiltzen duen denarekin, hartueman formal edo erreala soilez osatzen den, bada, orduan ezin dut esan: *adigai soilen bitartez* barne-barnekoa den zerbait gabe ezein gauzarik errepresentatu ezin daitekeenez gero, orduan adigai hauen baitan jasotzen diren gauzetan beraietan eta *beren begiespenean* ez dago kanpoko den ezer oinarrian

barne-barnekoa den zerbait duenik. Izan ere, guk begiespenaren baldintza oroz abstraitzen badugu, orduan, noski, adigai soilean oro har barnekoa besterik ez dena geratzen zaigu, eta barnekoa osatzen dutenen arteko hartuemanak, kanpoko ahalbidetzen duen hartueman bakarra, alegia. Abstrakzioan besterik oinarritzen ez den beharrezkotasun hau, ordea, ez da gauzetan gertatzen, begiespenean hartueman soilak adierazten dituzten halako determinazioekin batera ematen den heinean, barnekoa den zerbait oinarritzat izan gabe, zeren ez baitira berbaitango gauzak, baizik agerpenak besterik ez. Materiaz ezagutzen dugun bakarra hartueman hutsak dira (bere barneko determinazioak deitzen diegunak alderagarriki baino ez dira barnekoak); baina hartueman hauen artean beregainak eta iraunkorrak direnak ere badaude, eta horien bidez ematen zaigu objektu determinatua. Nik hartueman horietaz abstraitzen dudanean, pentsatzeko ezer gehiago ez geratzeak ez du ezeztatzen gauza baten adigaia, gauza hau agerpena den heinean, ezta objektu baten adigaia in abstracto ere, baina bai adigai soilen bitartez determinagarria denaren ahalgarritasuna, h. d., noumenoaren ahalgarritasuna. Harritzen du bai gauza bat erabat hartuemanek osatzen dela entzuteak, baina halako gauza agerpen soilak ere bada eta ezin daiteke inolaz ere kategorien bitartez pentsatu; zerbaitek oro har sentsuekin duen hartuemanek osatzen da. Era berean, adigai soiletatik abiatzean, gauzen hartuemanak oro har in abstracto ezin dira honela baino pentsatu: bata bestearen determinazioaren kausa izanik; izan ere, hau da hartuemanaz dugun adimenaren adigaia bera. Hala ere, begiespen oroz abstraitzen dugunez gero, orduan anizkunkiak bere lekua determinatu ahal izateko duen era oso bat ezeztatzen da, hots, sentimenaren forma (espazioa), dena dela, kausalitate enpiriko ororen aurretik doana.

Objektu inteligible soilez kategoria hutsen bitartez sentimenaren eskemarik erabili gabe pentsatzen diren objektuak ulertzen baditugu, orduan halako objektuak ezinezkoak dira. Izan ere, gure adimenaren adigai ororen erabilera objektiboaren baldintza gure sentsuzko begiespenaren era besterik ez da, eta honen bitartez guri objektuak ematen zaizkigu, eta guk honetaz abstraitzen badugu, orduan haiek ez dute ezein objektuekin harremanik. Horrez gain, sentsuzkoa ez den begiespenaren beste era bat onartu nahiko balitz, orduan pentsatzeko daukagun funtzioek ez lukete batere esanahirik izango honi begira. Horretaz sentsuzkoa ez den begiespenaren objektuak ulertuz gero, gure kategoriek objektu hauentzat ez dutela balio, eta beraz, objektu hauetaz inoiz ezagutzarik ezingo dugula izan (ez begiespena, ezta adigaia ere), bada, orduan, dena dela, noumenoak zentzu negatibo honetan onartuak izan behar dira, izan ere, hau baino ez dute adierazten: gure begiespenaren era ez dela objektu guztietara heltzen, baizik gure sentsuen objektuetara besterik ez, eta ondorioz, beren baliotasun objektiboa mugatua dela, eta beraz, beste begiespen-era batentzat, eta honenbestez, bere objektuak diren gauzentzat lekua geratzen dela. Hainbestez, ordea, noumenoaren adigaia problematikoa da, h. d., ez ahalgarria dela, ezta ezinezkoa dela ere esan ezin dugun gauzaren errepresentazioa da, sentsuzkoa ez den beste begiespen-erarik ezagutzen ez dugun heinean, ezta beste adigaiei erarik ere, gure kategoriak izan ezik, eta bietako bat bera ere ez da sentsuenak ez diren objektuentzat egokia. Beraz, gure pentsatzearen objektuen alorra ezin dugu gure sentimenaren baldintzez goiti positiboki hedatu eta agerpenez gain oraindik pentsatze hutsaren objektuak, h. d., noumenoak onartu, haiek esanahi positibo zehazgarriak ez baitute. Izan ere, kategoriez aitortu behar dugu haiek soilik ez direla aski berbaitango gauzen ezagutzarako eta sentimenaren daturik gabe adimenaren batasunaren forma subjektibo soilak liratekeela, objekturik gabeak, ordea. Pentsatzea ez da benetan sentsuen ezein produkturik, eta hainbestez, ez dago sentsuen bitartez zedarriztatua, baina ez du horregatik berehala erabilera propioa eta hutsa sentimenaren laguntzarik gabe, zeren horrela objekturik ez bailuke. Noumenoari ezin zaio halako *objektua* deitu; izan ere, honek objektu baten adigai problematikoa esan nahi du, erabat gurea ez den begiespenarentzako eta adimenarentzako objektua, eta beraz, arazo bat da. Noumenoaren adigaia, beraz, ez da objektu baten adigaia, baizik gure sentimenaren zedarriztapenari ezinbestean egozten zaion eginkizuna, alegia, ea bere begiespenetik erabat beregainak diren objektuak egon daitezkeen, eta galdekizun hau indeterminatuki besterik ezin da erantzun, hots, sentsuzko begiespena gauza guztiei bereizketarik gabe lotzen ez zaenez gero, orduan beste objektuentzat hainbat leku gehiago geratzen dela, eta horrela, haiek ez direla erabat ukatzen, baina adigai determinatu baten gabezia (ezein kategoria ez baita horretarako egokia) gure adimenaren objektutzat ere ezin direla onartu.

Beraz, adimenak sentimena mugatzen du, hori egitean bere alor propioa hedatu gabe, eta sentimenari berbaitango gauzetara jotzera ez ausartzeko, baizik soilik agerpenetara jotzeko oharrarazten dion heinean, orduan objektu bat bere baitan pentsatzen du, baina objektu transzendental gisa besterik ez, agerpenaren kausa den objektu gisa (eta beraz, agerpena ez dena), eta ez handitasun gisa, ezta errealtate, ezta substantzia, eta abar gisa ere pentsatu ezin daitezkeen objektua (zeren adigai haiek beti sentsuzko formak eskatzen baitituzte, beraietan beraiek objektu bat determinatzen dutela); objektu honetaz erabat ezezaguna da ea guran edo gugandik at aurki daitezkeen, ea sentimenarekin aldi berean desagertzen den edo guk hura kentzean oraindik iraungo lukeen. Objektu honi noumeno deitu nahi badiogu, bere errepresentazioa sentsuzkoa ez delako, orduan aske

gara horrela egiteko. Hala ere, berari gure adimenaren adigairik aplikatu ezin diogunez gero, orduan errepresentazio horrek guretzat kaskala dirau eta ez du ezertarako balio, gure sentsuzko ezagutzaren mugak ezaugarritzeko eta ez esperientzia ahalgarriaren bitartez, ezta adimen hutsaren bitartez ere bete ezin dezakegun espazioa aske uzteko izan ezik.

Adimen hutsaren kritikak, beraz, ez du baimentzen objektuen alor berri bat sortzea berari agerpen gisa agertzen zaizkion objektuetatik at, ezta mundu inteligibleetan sartzea ere, are gutxiago hauen adigaian sartzea. Honetan datza hain argiro horretara desbideratzen duen hutsegitea, barkatu bai, baina legeztatu ezin dezakegun hutsegitea: adimenaren erabilera bere determinazioaren aurka eginez transzendentala bihurtzen dela eta objektuak, h. d., begiespen ahalgarriak adigaian arabera antolatzen direla, eta ez adigaiak begiespen ahalgarriaren arabera (haueetan funtsatzen dela haien baliotasun objektiboa). Hau gertatzearen arrazoia bere aldetik hau da: apertzepzioa eta berekin batera pentsatzea errepresentazioen ordenaketa determinatu ahalgarri ororen aurretik doazela. Beraz, guk zerbait oro har pentsatzen dugu eta, alde batetik, sentsuen arabera determinatzen dugu, baina, bestetik, objektu orokorra eta in abstracto errepresentatua dena bera begiesteko era honetatik bereizten dugu; hor, bera pentsatzearen bidez determinatzeko era soilik geratzen zaigu, egiatan edukirik gabeko forma logiko soilak dena, baina guri, hala ere, objektua bere baitan (noumenon) existitzen den era dirudiguna, gure sentsuetara zedarritzatzen den begiespena alde batera utziz.

* * *

Analitika transzendentala utzi aurretik sistemaren osotasunari dagokionez itxuraz beharrezkoa izan daitekeen zerbait gaineratu behar dugu oraindik, honek garrantzi berezia ez izan arren. Filosofia transzendentalaren hastapena osatzen duen adigai gorenaren arrunki ahalgarriaren eta ezinezkoaren arteko sailkaketa da. Sailkaketa orok, ordea, adigai zatitua auresuposatzen duenez gero, orduan garaia den adigai bat onartu behar da, eta hau oro harrezko objektu baten adigaia da (problematikoki hartuta eta erabakitzeke utziz ea zerbait den ala ezer ez den). Kategoriak oro harrezko objektuei lotzen zaizkien adigai bakarrak direnez gero, orduan objektu baten bereizkuntza, alegia, ea Zerbait den ala Ezerez den, kategorien ordena eta gidaren arabera egingo da.

1) Guztia, Asko eta Bataren adigaiei dena ukatzen duen *Ezerezaren* adigaia kontrajartzen zaie, eta orduan, hau begiespenik egokitzen ez zaion adigaia baten objektua da, = ezer ez, h. d., objekturik gabeko adigaia, ahalgarritasunen artean onartu ezin daitezkeen noumenoen antzekoa, nahiz horregatik hauek ezinezkotzat jotzeko beharrik ez izan (ens rationis), edo oinarritzeko indar berri jakinen gisakoa, kontraesanik gabe pentsatzen direnak, baina era berean esperientziako adibiderik gabe ere pentsatzen direnak, eta beraz, ahalgarritasunen artean onartu ezin direnak.

2) Errealitatea *Zerbait* da, ukapena *Ezerez*, hots, objektu baten gabeziaren adigaia, itzala edo hotza diren lege (nihil privativum).

3) Begiespenaren forma hutsa substantziarik gabe ez da bere baitan ezein objekturik, baizik bere baldintza formal soilak (agerpena den aldetik), espazio hutsa eta denbora hutsa diren lege, zeinak *Zerbait* badiren, begiesteko formak diren aldetik, baina begiets daitezkeen ezein objekturik izan gabe (ens imaginarium).

4) Bere burua kontraesaten duen adigai baten objektua *Ezerez* da, zeren adigaia *Ezerez* baita, ezinezkoa den zerbait, bi alde dituen figura lerrozuzena den lege (nihil negativum).

Beraz, *Ezerezaren* adigaia sailkaketa honen taula (izan ere, Zerbaiten sailkaketa paraleloa berez jarraiki zaio honi) honela antolatu beharko litzateke:

Ezereza

1.

Objekturik gabeko adigai kaskal gisa,

ens rationis

2.

Adigai baten
objektu kaskal gisa,
nihil privativum

3.

Objekturik gabeko
begiespen kaskal gisa,
ens imaginarium

4.

Adigairik gabeko objektu kaskal gisa,
nihil negativum

Pentsamen-gauza (1 zenbakia) ezgauzatik (4 zenbakia) bereizten dela dakusagu, hura ahalgarritasunen artean ezin baita onartu, asmamen soila baita (kontraesankorra ez bada ere); hau, ordea, ahalgarritasunari kontrajartzen zaio, adigaiak bere burua ezeztatzen duen heinean. Biak, ordea, adigai kaskalak dira. Aitzitik, nihil privativum (2 zenbakia) eta ens imaginarium (3 zenbakia) adigaiantzako datu kaskalak dira. Sentsuei argia ez bazaie ematen, orduan iluntasuna errepresentatu ere ezin da egin, eta zerizan hedatuak hauteman ezean, ezein espaziorik ere ezin da errepresentatu. Errealkirik gabe ukapena eta begiespenaren forma soila ez dira ezein objekturik.

Logika transzendentalarren

Bigarren atala

Dialektika transzendentala

Sarrera

I

Itxura transzentalaz

Gorago Dialektikari oro har *itxuraren Logika* deitu diogu. Honek ez du esan nahi *egia-itxuratasunaren* irakaspena denik; izan ere, egia-itxura duena egia da, oinarri askiezaren bitartez ezagutzen bada ere, beraz, bere ezagutza akasduna da, baina ez horregatik iruzurtia, eta beraz, ez da baztertu behar Logikaren zati analitikotik. Are gutxiago berdindu behar dira *agerpena* eta *itxura*. Izan ere, egia edo itxura ez daude objektuan hau begietsia den heinean, baizik berari buruzko judizioetan objektua pentsatua den heinean. Beraz, zuzenki esan daiteke sentsuek ez dutela erratzen, baina ez beti zuzenki juzgatzen dutelako, baizik inolaz ere ez dutelako juzgatzen. Horregatik, egia eta errakuntza, eta beraz, baita itxura ere errakuntzarantz doan desbideraketa gisa, judizioetan soilik aurki daitezke, h. d., objektuak gure adimenarekin duen hartuemanen besterik ez. Adimenaren legeekin osoro ados dagoen ezagutzen ez dago errakuntzarik. Sentsuen errepresentazio batean ere ez dago errakuntzarik (ez baitu judiziorik barnebiltzen). Izadiko ezein indarrek ezin die, ordea, berenez bere lege propioei ihes egin. Horregatik, ez adimenak bere baitan soilik (beste kausa baten eraginik gabe) ezta sentsuek ere ez lukete berez erratuko; lehenak ez luke erratuko bere lege soilen arabera jokatzeko duenean, efektuak (judizioak) lege horiekin halabeharrez ados egon behar baitu. Adimenaren legeekin adostasunak, ordea, egia ororen alde formala osatzen du. Sentsuetan ez dago ezein judiziorik, ez egiazkorik, ezta faltsurik ere. Guk bi ezagutza-iturburu hauetatik at besterik ez dugunez gero, orduan zera ondorioztatzen da: errakuntza sentimenak adimenean duen eragin ohartugabetik sortzen dela, eta horren bidez judizioaren oinarri subjektiboak objektiboekin uztartzen dira eta azken hauek beren determinaziotik desbideratzen dituzte⁹⁹, gorputz higituak berez beti lerro zuzena norabide berean atxikiko lukeen bezala, zeina higadura zirkularra bihurtzen den, ordea, beste indar batek beste norabide batetik aldi berean eragiten badu. Beharrezkoa izango da, beraz, adimenaren ekintza propioa tartekatzen den indarretik bereiztearren, judizio erratua judizioa bi norabideen arabera determinatzen duten bi indarren arteko diagonalizat hartzea, hauek, nolabait esateko, angelu bat osatzen dutela eta elkarketazko efektu hura adimenaren eta sentimenaren efektu bakunetan banatzen dutela, zeina apriorizko judizio hutsetan gertatu behar den gogoeta transzendentalarren indarrez, honek errepresentazio bakoitzari dagokion indar ezagutzailean duen kokalekua erakusten duelarik, eta beraz, azken honek haiengan duen eragina ezberdintzen duelarik (erakutsi dugun legez).

Ez da gure zeregina hemen itxura enpirikoaz aritzea (adibidez, optikoaz), gainerakoan zuzenak diren adimenaren erregelen erabilera enpirikoan aurkitzen den eta juzgamenaren irudimenaren eraginaren bidez desbiderarazten duen itxuraz, baizik eta *itxura transzendentala* besterik ez da gure autugaia, esperientzia ere funtsatzen ez diren oinarri-esakuneetan eragiten duen itxura, zeren kasu horretan bere zuzentasunaren frogarria edukiko baikenuke behintzat, eta beraz, geu kritikaren oharpen guztien aurka erabat kategorien erabilera enpirikoaz goiti gidatzen gaituen eta *adimen hutsaren* hedapen baten lilurakeriarekin entretenitzen gaituen itxura da gure autugaia. Oinarri-esakuneen aplikazioa esperientzia ahalgarriaren zedarrien barne gertatzen denean, hauei *imanenteak* deituko diegu, muga hauek gaintitzen badituzte, *transzendentek*. Azken hauetaz ez dut, ordea, kategorien erabilera edo gaizki-erabilera *transzendentala* ulertzen, kritikak egokiro balaztatu ez duen juzgamenaren akats soilak dena honek adimen hutsari baimentzen zaion jolastokiak dituen mugak ez dituelako aski aintzat hartzen; baizik eta oinarri-esakune transzendentek oinarri-esakune errealek dira, muga-habe haiek denak eraistera eta demarkaziorik ezagutzen ez duen lur erabat berria geuretzat hartzera bultzatzen gaituztenak. Horregatik, *transzendentala* eta *transzendentea* ez da gauza bera. Gorago azaldu ditugun adimen hutsaren oinarri-esakuneek erabilera enpiriko soilak eduki behar dute, eta ez transzendentala, h. d., esperientziaren mugez goiti iristen den erabilera. Zedari horiek kentzen dituen, areago, haiek gaintitzea ere agintzen duen

oinarri-esakuneak *transzendentea* izena du. Gure kritikak ustezko oinarri-esakune hauen itxura aurkitu ahal badu, oster, orduan erabilera enpiriko soilak duten oinarri-esakuneei adimen hutsaren oinarri-esakune *imaneak* deitu ahal izango zaie.

Itxura logikoa, arrazoimenaren formaren imitazio soilaz osatzen den itxura (inferentzia iruzurtien itxura), erregela logikoei behar besteko arreta ez eskaintzeagatik soilik sortzen da. Arreta aurrean dugun kasuan areagotu ahala itxura erabat desagertzen da. Itxura transzendental, aitzitik, ez da desagertzen, jadanik aurkitu eta bere hutsaltasuna kritika transzendentalaren bitartez nabariki ulertua izan arren. (Adibidez, «munduak denborari dagokionez hasiera bat izan behar du» esakunean dagoen itxura). Honen arrazoia hau da: gure arrazoimenean (subjektiboki, giza ezagumen gisa kontsideratuta) guztiz oinarri-esakune objektiboen ospea duten bere erabileraren oinarritzko erregela eta maximak dautzala, eta hauen kariaz gertatzen da adimenaren mesedetan egiten den gure adigaien elkarlotura jakin baten beharrezkotasun subjektiboa berbaitango gauzen determinazioaren beharrezkotasun objektibotzat hartzen dela. Eta hau saihesten ezin daitekeen *ilusioa* da, guri itsasoa erdian kostaldean baino garaiagoa iruditzea bezain saihestezina, han hemen baino argi-izpi garaiagoen bitartez ikusten dugulako, edo, are gehiago, astronomo berari ilargia irteeran handiagoa dela iruditzea bezain ekidinezina, itxura horrek iruzurtzen ez duen arren.

Dialektika transzendental, beraz, judizio transzendenteen itxura aurkitzearekin eta aldi berean hauek iruzur egin dezatela ekiditearekin askiesten da; baina ezingo du inoiz lortu gainera itxura transzendental desagertzea (itxura logikoa bezala) eta honek itxura izateari uztea. Izan ere, *berezko ilusio* itzuriezina dugu hemen, oinarri-esakune subjektiboetan funtsatzen den eta hauek objektibotzat hartzen dituen ilusioa; aitzitik, Dialektika logikoaren autugaia inferentzia iruzurtien konponketan oinarri-esakuneei jarraipenean egindako hutsegitea edo beren imitazioan sortzen den itxura artifizia da. Beraz, arrazoimen hutsaren berezko Dialektika itzuriezina dago, ez, ordea, pertsona ezjakin bat ezagutzen gabeziagatik bertan nahasteko modukoa, edo sofistaren batek jende arrazoiduna nahasteko artifiziarki asmatu duen modukoa, baizik ezinbestean giza arrazoimenari datzekion eta bere lilurakeria bera aurkitu ondoren ere iruzurtzeari eta beti konpondu behar diren uneko nahasketak jarraituki sortzeari uzten ez dion Dialektika.

II

Arrazoimen hutsaz itxura transzendentalaren egoitza gisa

A

Arrazoimenaz oro har

Gure ezagutza oro sentsuetatik abiatzen da, hortik adimenara doa eta arrazoimenara iristen da, eta garaiago den beste ezer ez dago gudan, begiespenaren ekaia landu eta hau pentsatzearen batasun gorenari menperatzeko. Orain, indar ezagutzaile goren honen argipena eman behar dudanez, estualdi batean gertatzen naiz. Adimenarekin gertatzen den lege, arrazoimenaren erabilera formal soilak dago, h. d., erabilera logikoa, arrazoimenak ezagutzaren eduki oroz abstraitzen duen heinean, baina baita erabilera erreal bat ere, ez sentsuetatik ezta adimenetik ere hartu ez dituen adigai eta oinarri-esakune jakinen jatorria barnebiltzen duelako. Lehen ahalmena, noski, logikariek aspaldi argitu zuten zeharbidez inferitzeko ahalmen gisa (inferentzia zuzenetik ezberdinduz, *consequentiae immediae*); bigarrena, ordea, adigaiak sortzen dituen ahalmena, oraindik ezin da aditu horren bitartez. Hemen, arrazoimenaren sailkaketa dugunez gero ahalmen logikoan eta transzendentalean, orduan ezagutza-iturburu hauen adigai garaiagoa bilatu behar da, bi adigaiak bere baitan biltzen dituen adigaia, eta bitartean adigai logikoak aldi berean transzendentalerako gakoa eskuratuko duela itxaron dezakegu adimenaren adigaiekin duen analogiaren arabera, baita lehenengoaren funtzioen taulak aldi berean arrazoimenaren adigaien jatorri-gida eskuratuko duela ere.

Gure Logika transzendentalaren lehen zatian adimena erregelen ahalmen gisa definitu genuen; hemen, arrazoimena adimenetik bereizten dugu hari *printzipioen ahalmena* deituz.

Printzipio baten adierazpenak esanahi bikoitza du eta arrunki printzipio gisa erabil daitekeen ezagutza besterik ez du esan nahi, nahiz bere baitan eta bere jatorriari dagokionez ezagutza hau ezein printzipiorik ez izan. Halako edozein esakune

orokor erabilgarria da arrazoimen-inferentzia bateko esakune nagusi gisa, esperientzia bertatik hartua izan arren (indukzio bitartez); ez da horregatik, ordea, printzipio bat. Axioma matematikoak (adibidez, «bi punturen artean lerro zuzen bakarra egon daiteke») apriorizko ezagutza orokorrak ere badira, eta horregatik, printzipioak deitzen zaie bidezki beraiei menperatu ahal zaizkien kasuei dagokienez. Ezin dut esan horregatik, ordea, lerro zuzenaren berekitasun hori oro har eta bere baitan printzipioetatik abiatuta ezagutzen dudarik, baizik eta begiespen hutsean soilik ezagutzen dut.

Horregatik, printzipioetatiko ezagutza berezia dena orokorra denean adigaien bitartez ezagutzen duenari deituko nioke. Horrela, halako arrazoimen-inferentzia bakoitza ezagutza bat printzipio batetik abiatuta eratortzeko forma da. Izan ere, esakune nagusiak beti adigai bat eskuratzen du, bere baldintzapean menperatzen zaion guztia bertatik printzipio baten arabera ezagutarazten duen adigaia, alegia. Edozein ezagutza orokor arrazoimen-inferentzia bateko esakune nagusi gisa erabilgarria izan daitekeenez eta adimenak halako esakune orokorrak a priori eskaintzen dituenaz gero, orduan hauei ere printzipioak dei dakieke beren erabilera ahalgarriari begira.

Adimen hutsaren oinarri-esakune hauek, ordea, beren baitan beren jatorriaren arabera kontsideratzen baditugu, orduan ez dira adigaietatiko ezagutzak baino. Izan ere, ez lirateke inolaz ere a priori ahalgarriak izango begiespen hutsera (Matematikan) edo oro har esperientzia ahalgarriaren baldintzetara joko ez bagenu. «Gertatzen denak oro har kausa bat duela» ezin da inolaz ere inferitu gertatzen denaren adigaitik abiatuta; aitzitik, oinarri-esakuneak erakusten du lehen-lehenik nola lor daitekeen esperientzia-adigai determinatu bat gertatzen denetik abiatuta.

Adimenak, beraz, ezin ditu inolaz ere sortu adigaietatiko ezagutza sintetikoak, eta hauei deitzen diet nik benetan batik batik printzipioak, nahiz eta esakune orokor guztiei oro har alderaketaz printzipioak dei dakiekeen.

Aspaldiko desira da, behin agian, nork daki noiz, bete ahal izango dena, lege zibilen anizkuntasun amaigabearen ordez behingoz beren printzipioak bilatu ahal izatea; izan ere, bertan soilik egon daiteke lege-ematea errazteko sekretua, esaten den bezala. Halere, legeak hemen ere gure askatasunaren zedarritzapen soilak dira, hau bere buruarekin osoro adosteko baldintzetara zedarritzapenak; eta beraz, guztiz gure lan propioa den zerbaiti datxezkie, eta geu izan gaitezke horren kausa adigai haien bitartez. Dena dela, objektuak beren baitan nola diren, nola dagoen gauzen izaera printzipioen menpean eta honek adigai soilen bidez nola determinatua egon beharko lukeen jakitea ezinezkoa ez bada ere, oso eskakizun zentzugabea da bederen. Honetaz edozer gertatzen dela ere (izan ere, horri buruzko azterketa egiteko dugu oraindik), bertatik zera argitzen da bederen: printzipioetatiko (beren baitan) ezagutza adimenaren ezagutza soilaren guztiz bestelakoa dela, hau printzipio baten forman beste ezagutzen aurretik joan badaiteke ere, bere baitan (sintetikoa den heinean) ez baita pentsatze soilean funtsatzen, eta ez baitu adigaien arabera orokorra den ezer barnebiltzen bere baitan.

Adimena erregelen bidezko agerpenen batasunaren ahalmena bada, orduan arrazoimena printzipioen menpeko adimenaren erregelen batasunaren ahalmena da. Beraz, ez datzekio hasiera batean esperientziari edo objekturen bati, baizik adimenari, bere ezagutza anizkunari apriorizko batasuna ematearren adigaien bidez, eta batasun honek arrazoimen-batasuna izena jaso dezake, eta adimenak eskura dezakeen batasunaren erabat bestelako batasuna da.

Hau da arrazoimenaren adigai orokorra, adibideen gabezia osoan (ondoren soilik eman beharko direnak) ulergarria bihurtu ahal izan den heinean.

B

Arrazoimenaren erabilera logikoaz

Zuzenki ezagutua denaren eta inferitua besterik ez denaren artean ezberdintzen da. Hiru lerro zuzenen bitartez mugatua dagoen figuran hiru angelu daudela zuzenki ezagutzen da; baina angelu hauek batera bi angelu zuzen direla inferitu baino ez da egiten. Inferitzea beti behar dugunez eta azkenean bertara erabat ohitzen garenez, orduan ezberdintasun hau ez dugu gehiago ohartzen, eta sarri zuzenki hautemandakotzat hartzen dugu egiatan, ordea, inferitu besterik egin ez dugun zerbait, sentsuen iruzurrak deitzen zaienetan gertatzen den legez. Inferentzia bakoitzean oinarrian datzan esakune *bat* dago, eta honetatik segitzen den beste *bat*, hots, ondorioztapena, eta azkenik, inferentziaren ondorioa (kontsekuentzia), zeinaren arabera azkenaren egia aurrengoaren egiarekin ezinbestean elkarlotua baitago. Inferitutako judizioa jada lehenengoan halako moldez badago, non bertatik hirugarren errepresentazio baten arartekotzarik gabe erator baitaiteke, orduan inferentziak zuzena izena du

(consequentia immediata); baina adimen-inferentzia deitzea hobetsiko nuke. Hala ere, oinarrian ezarritako ezagutzaz gain beste judizio bat behar bada ondorioa lortzeko, orduan inferentziak arrazoimen-inferentzia izena du. «*Gizaki guztiak hilkorak dira*» esakunean beste esakune hauek daude jada: «gizaki batzuk hilkorak dira», «hilkorra den zerbait gizakia da», «hilezkorra ez den ezer ez da gizakia», eta hauek lehenaren ondorioztapen zuzenak dira. Alderantziz, «jakintsu guztiak hilkorak dira» esakunea ez datza menpeko judizioan (izan ere, jakintsuaren adigaia ez da inolaz ere agertzen bertan), eta tarteko judizio baten bitartez soilik ondoriozta daiteke aurrekotik abiatuta.

Arrazoimen-inferentzia bakoitzean, lehenik, *adimenaren* bitartez *erregela* (maior) bat pentsatzen dut. Bigarrenik, ezagutza bat erregelaren baldintzari (minor) *menperatzen* diot *juzgamenaren* bitartez. Azkenik, nire ezagutza determinatzen dut erregelaren predikatuaren bitartez (conclusio), eta beraz, a priori arrazoimenaren bitartez. Beraz, esakune nagusiak, erregela gisa, ezagutza bat eta bere baldintzaren artean errepresentatzen duen hartuemanak sortzen ditu arrazoimen-inferentziaren era ezberdinak. Hiru eratakoak dira inferentziak, beraz, oro har judizio guztiak diren bezala, adimeneko ezagutzaren hartuemanak adierazteko eran ezberdintzen diren heinean, hots, arrazoimen-inferentzia *kategorikoak*, edo *hipotetikoak*, edo *disjuntiboak*.

Gehienetan gertatzen den legez konklusioa judizio gisa aurkezten bada, bera jadanik emandako judizioetatik –zeinen bitartez erabat bestelako objektua pentsatzen den– segitzen ez ote den ikustearren, orduan adimenean bilatzen dut ea konklusio horren asertzioa bertan baldintza jakinen menpean ez ote dagoen erregela orokorren arabera. Halako baldintza bat aurkitzen baldin badut eta konklusioaren objektua baldintza jakinari menpera badakioke, orduan hau *ezagutzaren beste objektuentzat ere balio duen* erregelatik ondorioztatzen da. Hortik ikusten da arrazoimenak inferitzean adimenaren ezagutzaren anizkuntasun handia printzipioen (baldintza orokorren) zenbaki txikienean biltzea eta horren bitartez beren batasun handiena lortzea saiatzen duela.

C

Arrazoimenaren erabilera hutsaz

Arrazoimena bakartu al daiteke?, eta hainbestez, hark bertatik soilik sortzen diren adigai eta judizioen iturburu propioa izaten al dirau?, eta hauen bitartez objektuei lotzen al zaie?, edo menpeko ahalmen soila al da, ezagutza jakinei logikoa izena duen forma jakin bat emateko, eta horren bitartez, adimenaren ezagutzak beren artean eta menpeko erregelak garaiagoei menperatzeko (garaiagoen baldintzak lehenengoen baldintza jasotzen duela bere esferan), beren arteko alderaketaren bidez ahalgarria zen heinean? Galdekizun hau da orain landuko duguna, behin behineko moduan soilik egingo dugun arren. Egitatean, erregelen anizkuntasuna eta printzipioen batasuna arrazoimenaren eskakizuna da, adimena berekin bilkura osoan biltzeko, adimenak begiespenaren anizkuntia adigaiari menpean, eta horren bidez, haiekin elkarloturan jartzen duen moduan. Hala ere, halako oinarri-esakuneak ez die ezein lege ezartzen objektuei, eta ez du barnebiltzen inolaz ere haiek oro harrezko objektu gisa ezagutzeko eta determinatzeko ahalgarritasunaren oinarriarik, baizik eta gure adimenaren hornigaia kudeatzeko lege subjektiboa besterik ez da, bere adigaiari alderaketaren bitartez beren erabilera orokorra beren kopuru ahalbait txikienean biltzeko, nahiz eta honek ez duen legeztatzen objektuei gure adimenaren erosotasuna eta hedapena susperrarazten duen elkarren arteko adostasuna eskatzerik, ezta aldi berean maxima hari baliotasun objektiboa ematerik ere. Hitz batean, galdekizuna hau da: ea arrazoimenak bere baitan, h. d., arrazoimen hutsak apriorizko oinarri-esakuneak eta erregela sintetikoak barnebiltzen dituen eta ea zertaz osatzen diren printzipio horiek.

Arrazoimenak arrazoimen-inferentzietan duen jardunbide formal eta logikoak askiro erakusten digu zein oinarritan funtsatuko den bere printzipio transzendentalak arrazoimen hutsaren bidez lortutako ezagutza sintetikoan.

Lehenik, arrazoimen-inferentzia ez datzekie begiespenei, hauek erregelei menperatzearen (adimenak bere kategoriekin egiten duen moduan), baizik adigaiari eta judizioei. Beraz, arrazoimena objektuei badatzekie, orduan ez du harreman zuzenik hauekin eta beren begiespenarekin, baizik adimenarekin eta bere judizioekin besterik ez, zeinek hasiera batean sentsuetara eta beren begiespenetara jotzen duten hauei beren objektua determinatzearen. Arrazoimenaren batasuna, beraz, ez da esperientzia ahalgarriaren batasuna, baizik funtsean bereizten da honetatik, hau adimenaren batasuna den aldetik. «Gertatzen den guztiak kausa bat duela» ez da arrazoimenaren bidez ezagututako eta ezarritako ezein oinarri-esakunerik. Esperientziaren batasuna

ahalbidetzen du eta ez du ezer hartzen arrazoimenetik, zeinak, esperientzia ahalgarriarekin harreman hau ez balu, ezingo lituzkeen agindu halako batasun sintetikoak adigai soiletatik abiatuta.

Bigarrenik, arrazoimenak bere erabilera logikoan bere judizioaren (konklusioaren) baldintza orokorra bilatzen du, eta arrazoimen-inferentzia bera judizio bat baino ez da, bere baldintza erregela orokorrari (esakune nagusia) menperatzearen bidez. Erregela hau, era berean, arrazoimenaren egoera berberan aurkitzen denez eta, horren bidez, baldintzaren baldintza bilatu behar denez (prosilogismo baten bidez) hori ahalgarria den bezain luze, orduan argi ikusten da oro har arrazoimenaren oinarri-esakunea hau dela (erabilera logikoan): adimenaren ezagutza baldintzatuarentzat bere batasuna osatzen duen baldintzatugabekia aurkitzea.

Maxima logiko hau, ordea, honako hau onartuz soilik bihurtzen da *arrazoimen hutsaren* maxima: baldintzatua emana dagoenean, orduan elkarri menperatzen diren baldintzen ilara eta, hainbestez, baldintzatugabea den ilara osoa ere emana dela (h. d., objektuan eta bere elkarloturan barnebildua).

Arrazoimen hutsaren halako oinarri-esakunea, ordea, *sintetikoa* da nabarmenki; izan ere, baldintzatukia baldintzaren bati lotzen zaio analitikoki, baina ez baldintzatugabekiari. Bertatik esakune sintetiko ezberdinak ere sortu behar dira eta adimenak ez daki ezer hauetaz, bere autugaia esperientzia ahalgarri baten objektuak besterik ez direlako, zeinen ezagutza eta sintesia beti baldintzatua den. Baldintzatugabekia, ordea, baldin eta benetan badago, orduan bereziki kontsidera daiteke baldintzatukitik ezberdintzen duten determinazio guztien arabera, eta horren bitartez, apriorizko zenbait esakune sintetikotarako ekaia eskuratu behar du.

Arrazoimen hutsaren printzipio goren honetatik abiatuta sortzen diren oinarri-esakuneak, ordea, *transzendenteak* izango dira agerpen guztiei dagokienez, h. d., ezingo da inoiz beren erabilera enpiriko egokirik egin. Beraz, adimenaren oinarri-esakune guztietatik ezberdinduko da erabat (beren erabilera osoro *imamentea* izaki, beren gaia esperientziaren ahalgarritasuna besterik ez den heinean). Ea, hortaz, «baldintzen ilara (agerpenen sintesian, edo baita oro harrezko gauzen pentsatzean ere) baldintzatugabekiraino luzatzen dela» dioen oinarri-esakuneak bere zuzentasun objektiboa duen ala ez duen; ea zein ondorioztapen segitzen den hortik adimenaren erabilera enpirikorako, edo, aitzitik, ea objektiboki baliogarria den arrazoimenaren halako esakunerik inon ez dagoen, baizik arau logiko soila dagoen, honela norbera baldintza gero eta garaia goetara goratzean beren osotasunera hurbiltzeko, eta horren bitartez, gure ezagutzan ahalik eta arrazoimenaren batasun gorena lortzeko; ea, diot, arrazoimenaren behar hori gaizki-ulertze batengatik arrazoimen hutsaren oinarri-esakune transzendentalizat hartu den, zeinak baldintzen ilararen halako osotasun zedarrigabea gauzetan bertan azkarregi postulatu duen; baina kasu honetan ere, ea zein sasi-interpretazio eta itsukeria sartu ahal izan diren amarruz arrazoimen-inferentzietan, hots, beren esakune nagusia (agian gehiago petizioa dena postulatu baino) arrazoimen hutsetik hartzen den eta esperientziaz goiti beren baldintzetara goratzen diren arrazoimen-inferentzietan: hau dena izango da gure zeregina Dialektika transzendentalean, orain giza arrazoimenean sakon ezkutatuta dauden bere iturburuetatik abiatuta garatu nahi duguna. Bi atal nagusietan zatituko dugu Dialektika: lehenak, arrazoimen hutsaren *adigai transzendente*ez, bigarrenak, *arrazoimen hutsaren arrazoimen-inferentzia* transzendente eta *dialektikoez* jardungo du.

Dialektika transzendentalaren

Lehen liburua

Arrazoimen hutsaren adigaiez

Arrazoimen hutsaren adigaien ahalgarritasuna edozein dela ere, adigaiok ez dira soilik hausnartutako adigaiak, inferituak baizik. Adimenaren adigaiak ere a priori esperientziaren aurretik eta honen mesedetan pentsatzen dira; baina ez dute hausnarketaren batasuna baino barnebiltzen agerpenei dagokienez, hauek halabeharrez kontzientzia enpiriko ahalgarri bati egokitu behar zaizkion heinean. Adigai hauek soilik ahalbidetzen dute objektu baten ezagutza eta determinazioa. Beraz, hasiera batean inferitzeko ekaia ematen dute, eta beren aurretik ez dago objektuen apriorizko adigairik, zeinetatik haiek inferituak izan litezkeen. Aitzitik, beren errealitate objektiboa beren aplikazioa beti esperientzian erakutsi ahal behar izatean baino ez da oinarritzen, esperientzia ororen forma intelektuala osatzen baitute.

Arrazoimenaren adigai baten izendapenak, ordea, jadanik aurretiaz azaltzen du ez dela utzi nahi esperientziaren barnean zedarriztatzen, zeren ezagutza enpirikoak bere zati bat besterik osatzen ez duen ezagutza bati baitagokio (agian esperientzia ahalgarriaren edo bere sintesi enpirikoaren osokia); ezagutza horretaraino ez da inoiz ezein esperientzia errealik heltzen, baina hau beti hari dagokio. Arrazoimenaren adigaiak *ulertzeko* dira baliagarriak, adimenaren adigaiak (hautemapenak) *aditzeko*. Baldintzatugabekia barnebiltzen badute, esperientzia osoa jasotzen duen zerbaiti dagozkio, baina bera inoiz ez da esperientziaren ezein objekturik: zerbait horretara gidatzen du arrazoimenak esperientziatik bere inferentzietan, eta berari jarraiki estimatzen eta neurtzen du arrazoimenak bere erabilera enpirikoaren maila, baina sintesi enpirikoaren osakide bat bihurtu gabe. Halako adigaiek, dena dela, baliotasun objektiboa baldin badute, orduan conceptus ratiocinati izena jaso dezakete (zuzenki inferitutako adigaiak); ez dutenean, itxurazko inferitze baten bitartez onartzen dira ezkutuan bederen eta conceptus ratiotinentes izena jaso dezakete (arrazoikeriaren adigaiak). Hau, ordea, lehen-lehenik arrazoimen hutsaren inferentzia dialektikoen atalburuan erabaki daitekeenez gero, orduan orain ezin diogu honi arretarik eskaini, baizik oraingoz arrazoimen hutsaren adigaiei izen berria emango diegu eta ideia transzendentalak deituko diegu, adigaiak kategoriak izendatu genituen moduan; izendapen hori, ordea, orain azaldu eta legeztatuko dugu.

Dialektika transzendentalaren

Lehen liburuko

Lehen atala

Ideiez oro har

Gure hizkuntzen aberastasuna handia den arren, buru gogoetatsua sarri estualdian gertatzen da bere adigaiari zuzenki dagokion adierazpena dela eta, eta honen gabezia ez besteak ez bere burua ere ezin ditu zuzenki ulertu. Hitz berriak galdatzea hizkuntzetan lege-emateko handiustea da, nekez arrakastatsu gertatzen den handiustea, eta gomendagarria da baliabide etsitu honetara jo aurretik kultur-hizkuntza batean begiratzea ea hor ez den adigai hura aurkitzen bere adierazpen egoki guztiekin batera, eta bere erabilera zaharra bere sortzaileen xalokeriagatik kulunkan balego ere, hobe da lehenasunez berezkoa zitzaion esanahia tinkatzea (nahiz zalantzarria dirauen ea orduan zehazki esanahi bera ote zuten gogoan) norbere zeregina zapuztea baino, norberaren burua ulergaitz bihurtuz.

Horregatik, adigai jakin baterako hitz bakarra aurkituko balitz, jadanik onartutako esanahian adigaiari zehazki dagokion hitza, garrantzi handikoa izaki bere bereizkuntza beste adigai kideetatik, bada, orduan gomendagarria da hitz horrekin eskuzabalegi ez jokatzeko, edo aldatzeko apetagatik soilik sinonimotzat ez erabiltzea beste hitzen ordeztu, baizik bere esanahi

propioa arretaz gordetzea; zeren, bestela, errazegi gertatzen baita, ondoren adierazpenak arreta bereziki erakartzen ez duenean, baizik esanahi oso ezberdineko mordoaren artean galtzen denean, berak soilik gorde izan lezakeen pentsamendua ere galtzea.

Platonek «*ideia*» adierazpena horrela erabili zuen, eta ederki ikusten da berak honetaz hau ulertzen zuela: inoiz sentsuetatik hartzen ez den zerbait ez ezik, Aristotelesen arreta jaso zuten adigaiak ere askogatik gaintitzen dituen zerbait, esperientzia horri dagokion ezer inoiz aurkituko ez den heinean. Platoni jarraiki, ideiak gauza beren jatorrizko irudiak dira, eta ez soilik esperientzia ahalgarrietarako gakoak, kategoriak diren legez. Bere iritziz arrazoimen gorenetik jariatzen ziren, eta hortik giza arrazoimenera igaro ziren, baina hau orain ez dago bere jatorrizko egoeran, baizik nekez deitu behar ditu berriro *ideia* zahar eta oso ilunduak oroitzapenaren bitartez (zeinak Filosofia izena duen). Ez dut literatura azterketarik hasi nahi hemen, filosofo bikainak bere adierazpenei lotzen zien zentzua erabakitzearen. Zera soilik oharrarazten dut: ez dela ezohikoa hizketaldi arruntan eta idazkietan autore batek bere objektuaz adierazten dituen pentsamenduen alderaketa eginez bera hark bere burua ulertu zuena baino hobeto ulertzea, bere adigaiak behar beste determinatu ez zituen, eta horren bitartez, bere asmo propioaren aurka hitz egin edo pentsatu ere egiten zuen heinean.

Platonek ederki ohartu zuen gure indar ezagutzaileak agerpenak batasun sintetikoaren arabera letraka esatea baino premia garaia goa sentitzen duela, agerpenok esperientzia gisa irakurri ahal izateko, eta gure arrazoimena berez goratzen dela hain ezagutza garaietara, non esperientziak inoiz emango duen objekturen bat hauei inoiz ezingo baitzaie egokitu, nahiz eta ezagutza hauek beren errealitatea duten eta asmakizun soilak ez diren.

Platonek bere ideiak batez ere praktikoa den guztian aurkitu zituen¹⁰⁰, h. d., askatasunean funtsatzen denean, zeina bere aldetik arrazoimenaren produktu propioak diren ezagutzen menpean dagoen. Bertutearen adigaiak esperientziatik abiatuta sortu nahiko lituzkeen pertsonak, edonola ere azalpen ezosoaren adibide gisa baliagarria izan daitekeena ezagutza-iturriaren eredu bihurtu nahiko lukeen pertsonak (benetan askok egin duten moduan), bertutea garaien eta egoeren arabera iragankorra den zerbait bihurtuko luke, ezein erregelatan erabilgarria ez den ezigauza ekibokoa. Aitzitik, edonork daki, norbait bertutearen eredu gisa aurkezten bazaio ere, benetako jatorrizko eredu bere buruan soilik duela, zeina ustezko eredu horrekin alderatzeko erabiltzen duen eta hau horren arabera soilik estimatzen duen. Hau, ordea, bertutearen *ideia* da, eta berari begira esperientziaren objektu ahalgarri orok adibide gisa balio du (arrazoimenaren adigaiak agintzen duena maila batean egingarria izatearen frogak), baina ez jatorrizko irudi gisa. Gizakiren batek bertutearen *ideia* hutsak barnebiltzen duenari egokitzat inoiz ez ekiteak ez du frogatzen pentsamendu honetan zerbait kimerikoa dagoenik. Izan ere, balio edo balioeza moralari buruzko judizio oro *ideia* horren bitartez besterik ez da ahalgarria; eta beraz, betegintzarre moralarentz egindako hurbilketa ororen oinarrian datza halaberharrez, giza izaeraren oztopoek, mailari dagokionez determinatu ezin diren oztopoek, horretatik ahalbait urruti atxiki gaitzaketen arren.

Platoniar errepublika ezaguna bihurtu da amestutako betegintzarrearen ustezko adibide ohargarri gisa, zeinak egonean dagoen pentsalari baten burmuinean soilik izan dezakeen bere egoitza, eta *Bruckerrek* irigarri deritzo filosofoak zera baieztatu izanari: printze batek inoiz ez lukeela egokiro gobernatuko, honek ideien berri izan ezean. Baina hobe litzateke pentsamendu honi jarraitzea eta ahalegin berrien bitartez bera argitara ekartzea (gizon bikainak laguntzarik gabe uzten gaituenean), egingaitasunaren aitzakia eskas eta kaltegarriaren bidez erabilgaitz gisa alde batera uztea baino. *Edonoren askatasuna besteenarekin batera izatea* ahalbidetzen duten legeen araberrako *giza askatasun handienaren* konstituzioa (ez zorion handienarena, izan ere, hau berez etorriko da jarraian) beharrezko *ideia* da bederen, zeinak estatu-konstituzio baten lehen egitasmoan ez ezik, lege guztien oinarrian ere egon behar duen, eta horretarako hasieratik eguneko oztopoez abstraitu behar da, alegia, agian ez ezinbestean giza izaeratik, baizik gehienbat lege-ematean gertatzen den egiazko ideien utzikeriagatik sortzen diren oztopoez. Izan ere, ezin da ustezko esperientzia kontrajarrira xumeki jotzea baino gauza kaltegarriagorik eta filosofo batentzat duinezik aurkitu, zeina ez litzatekeen existituko, erakunde haiek garaiz ideien arabera eratu izan balira eta haien ordeztasunetik sortzen diren adigai landugabeek asmo on oro zapuztu ez balute. Zenbat eta lege-ematea eta gobernu *ideia* hauei hobeto egokitu, orduan eta bakanagoak bihurtuko lirateke zigorrak, eta horrela, erabat arrazoizkoa da (Platonek baieztatzen duen bezala) zigorrak ez litzatekeela beharko, haien antolaketa betegina izanez gero. Azkena inoiz gertatuko ez bada ere, maximum hori jatorrizko irudi gisa aurkezten duen *ideia* erabat zuzena da, berari jarraiki gizakien legezko konstituzioa gero eta betegintzarre ahalbait handiagora hurbiltzearen. Izan ere, inork ezin du determinatu ea zein maila gorenean gelditu beharko den gizatasuna eta ea zein handia den halaberharrez ideien eta bere egikaritzaren artean geratuko den arrakala, eta ez du determinatzeko beharrik ere, zeren askatasuna baita aurretik ezarritako muga oro gainti dezakeena.

Platonek, ordea, ideietatiko jatorriaren froga nabariak ez ditu bidezki giza arrazoimenak egiazko kausalitatea erakusten duen hartan soilik ikusten, hemen ideiak (ekintzen eta beren objektuen) kausa arazle bihurtzen direla, hots, etikaren sailean, baizik baita izadia berari dagokionean ere. Landare batek, abere batek, mundu-eraikinaren antolaketa erregularrak (ustez baita izadiaren ordena osoak ere) nabariki erakusten dute ideien arabera baino ez direla ahalgarriak; gainera, noski, bere espezieko beteginenaren ideiarekin bat datorren sorkari bakar bat bera ere ez dagoela, bere izatearen baldintza bakanen menpean (gizakia gizatasunaren ideiarekin bat ez datorren bezain gutxi, beraz, gizakiak bere ariman daraman bere ekintzen jatorrizko irudiarekin); hala ere, ideia haiek adimen gorenean bakarrak, aldaezinak, osoki determinatuak eta gauzen jatorrizko kausak direla, eta beren loturaren osokia unibertsoan soilik egokitzen zaiola osorik ideia hari. Adierazpenaren gehiegizkoa baztertzen bada, orduan mundu-ordenaren izaera fisikoa kopia izatea kontsideratzetik helburuen, h. d., ideien arabera bere elkarlotura arkitektonikora goratzen duen filosofoaren bultzada espirituala begirunea eta jarraipena merezi duen ahalegina da; merezimendu erabat berezia du, berriz, etikotasuna, lege-ematea eta Erlijioaren printzipioei dagokienean, hemen ideiek lehen-lehenik esperientzia bera (ongiarena) ahalbidetzen dutela, nahiz bertan inoiz osorik ezin diren adierazi, eta merezimendu hau ez da berrezagutzen, erregela enpirikoen bitartez juzgatzen baita, zeinen baliotasuna, printzipioak diren aldetik, ideia haien indarrez ezeztatua izan behar baitzen. Izan ere, izadiari dagokionez esperientziak ematen digu erregela eskura, eta bera da gainera egiaren iturburua; baina lege etikoei dagokienez esperientzia (tamalez!) itxuraren ama da, eta guztiz gaitzesgarria da *egin behar* denari buruzko legeak *egiten denetik* hartu edo honen bitartez zedarritzatzea.

Kontsiderazio hauen guztien ordez –zeinen egikaritza egokiak egitatean Filosofiaren ohorea osatzen duen– orain hain distiratsua ez den baina merezimendu gabekoa ere ez den lanaz jardungo dugu, hots, eraikin etiko maiestatiko harentzako lurraldea laua eta irmoa bihurtzea, lurralde honetan konfiantza handiz bada ere, alferrik altxor bila dabilen arrazoimen baten satorbide asko baitaude, eraiketa-lan hura arriskuan jartzen duten satorbideak. Orain zehazki ezagutu behar ditugu arrazoimen hutsaren erabilera transzendentala, bere printzipioak eta ideiak, horrela arrazoimen hutsaren eragina eta balioa egokiro determinatu eta estimatu ahal izateko. Hala ere, atariko sarrera hau alde batera utzi aurretik Filosofia bihotzean daramaten denei eskatzen diet (sarriago esaten dena arrunki agitzen dena baino) «*ideia*» adierazpena babespean hartzeko bere jatorrizko esanahian, baldin eta honi eta datorrenari esker uste osora heltzen direla aurkitzen badute, aurrerantzean eskuarki desordena nahasian dauden era guztietako errepresentazio-erak izendatzeko erabiltzen diren gainerako adierazpenen artean gerta ez dadin, eta hainbestez, zientzia kaltetu ez dadin. Ez zaizkigu errepresentazio-era haiei egokiro dagozkien izendapenik falta, eta ez zaigu beharrezkoa beste baten jabegoa indarrez hartzea. Hemen dugu haien mailaketa bat: generoa oro harrezko *errepresentazioa* da (repraesentatio). Bere menpean errepresentazio kontzientziaduna dago (perceptio). Subjektuari bere egoeraren modifikazio gisa lotzen zaion atzematea *sentsazioa* da (sensatio), atzemate objektiboa *ezagutza* da (cognitio). Hau *begiespena* edo *adigaia* da (intuitus vel conceptus). Lehena zuzenki lotzen zaio objektuari eta bakana da; bigarrena zeharbidez gauza ezberdinei arrunta izan dakiekeen ezaugarri bati esker. Adigaia *enpirikoa* edo *hutsa* da, eta adigai hutsak, jatorria adimenean soilik duen heinean (ez sentimenaren irudi hutsean), nozio izena hartzen du. Nozioetatik abiatuta esperientziaren ahalgarritasuna gainditzen duen adigaia *ideia* da, edo arrazoimenaren adigaia. Bereizkuntza honetara jadanik ohitu denari jasanezina izan behar zaio kolore gorriaren errepresentazioari ideia deitzen diotela entzutea. Ezin zaio nozio ere (adimenaren adigai) deitu.

Dialektika transzendentalaren

Lehen liburuko

Bigarren atala

Ideia transzendentalez

Analitika transzendentalak gure ezagutzaren forma logiko soilek apriorizko adigai hutsen jatorria barnebiltzeko duten eraren adibidea ematen digu, alegia, esperientzia ororen aurretik objektuak errepresentatzen dituzten adigai hutsak edo, are gehiago, objektuen ezagutza enpirikoa ahalbidetzen duen batasun sintetikoa erakusten dutenak. Judizioen formak (begiespenen sintesiaren adigaian eraldatuta) adimenak esperientzian duen erabilera oro gidatzen duten kategoriak sortu zituen. Era berean itxaron dezakegu arrazoimen-inferentzien formak, hau begiespenen batasun sintetikoari aplikatzen baldin bazaio kategorien neurriaren arabera, apriorizko adigai berezien jatorria barnebilduko duela, eta hauei arrazoimenaren adigai hutsak edo *ideia transzendentalak* dei diezaiekegu, eta esperientzia guztiaren osokian adimenaren erabilera determinatuko dute printzipioen arabera.

Arrazoimenaren funtzioa bere inferentzietan adigaian arabera ezagutzaren orokortasuna zen, eta arrazoimen-inferentzia bera judizio bat da, bere baldintzaren hedapen osoan a priori determinatua dagoen judizioa. «Caius hilkorra da» esakunea adimen soilaren bidez esperientziatik sor nezakeen. Baina judizio honen predikatua (asertzioa oro har) emateko baldintza barnebiltzen duen adigaia bilatzen dut (h. d., hemen gizakiaren adigaia), eta predikatua baldintza honi bere hedapen osoan hartua menperatu ondoren («gizaki guztiak hilkorrak dira»), horren arabera determinatzen dut nire objektuaren ezagutza («Caius hilkorra da»).

Gero, arrazoimen-inferentzia baten konklusioan predikatu bat objektu jakin batera murrizten dugu, aldeztu aurretik esakune nagusian bere hedapen osoan baldintza jakin baten menpean pentsatu ondoren. Hedapenaren handitasun osatuari halako baldintzarekin harremanean *orokortasuna* (universalitas) deitzen zaio. Honi begiespenen sintesian *orotasuna* (universitas) edo baldintzen *totalitatea* dagokio. Beraz, arrazoimenaren adigai transzendental baldintzatuki jakin baterako *baldintzen totalitatearena* besterik ez da. *Baldintzatugabea*— *kiak* soilik ahalbidetzen duenez baldintzen totalitatea, eta alderantziz, baldintzen totalitatea beti baldintzatugabea denez gero, orduan oro har arrazoimenaren adigaia baldintzatugabekiaren adigaia bidez argi daiteke, baldintzatukiaren sintesiaren oinarria barnebiltzen duen heinean.

Adimenak kategorien bitartez errepresentatzen dituen hartuemanen era anizkunak adina arrazoimen-adigai egongo da, eta beraz, *lehenik*, sintesi *kategorikoaren baldintzatugabekia subjektu* batean, *bigarrenik*, *ilara* baten kideen sintesi *hipotetikoaren baldintzatugabekia*, *hirugarrenik*, sistema bateko zatien sintesi *disjuntiboaren baldintzatugabekia* bilatu beharko dira.

Era berean, arrazoimen-inferentzien beste hainbat era daude, bakoitzak prosiologismoen bitartez baldintzatugabekirantz aurrera egiten duela, batak, predikatua ez den subjekturantz, besteak, gehiago auresuposatzen ez duen auresuposiziorantz, eta hirugarrenak, adigai baten sailkaketa osatzeko besterik behar ez duen sailkaketaren osakideen agregaturantz. Horregatik, baldintzen sintesiko totalitatearen arrazoimen-adigai hutsak arrazoimenaren izaeran oinarrituta daude ezinbestean, eginkizun gisa bederen, horrela adimenaren batasuna baldintzatugabekiraino jarraitzeko, ahal izanez gero, nahiz eta adigai transzendental hauek beraiei egokia zaien (in concreto) erabilerarik ez izan, eta beraz, onura hau baino ez izan, alegia, adimenari bere erabileran gehien hedarazten duen eta aldi berean bere buruarekin adosten duen norabidea ematea.

Hemen baldintzen totalitateaz eta baldintzatugabekiaz arrazoimen-adigai ororen izenburu komuna balitz bezala hitz egiten denez gero, orduan berriro ere saihestu ezin dugun baina gaizki-erabilera luzeagatik atxiki zaion zentzu-bikoiztasunagatik seguru erabili ezin dezakegun adierazpena aurkitzen dugu. «*Absolutu*» hitza bere jatorrizko esanahian adigai bati egokitzen zaion hitz gutxienean artean dago, zeinari hizkuntza berean zehazki beste hitzik ez dagokion, eta bere galerak, edo gauza bera dena, bere erabilera aldakorrek, adigaia baten galerak eragiten du, eta gainera, arrazoimenak adigai honetaz asko jarduten duenez, juzgaketak transzendental ororentzako eragozpen handirik gabe utzi ezin daitekeen adigaia baten galerak da hori. «*Absolutu*» hitza orain sarriago erabiltzen da zerbaitek gauza batez *bere baitan* soilik kontsideratuta, eta beraz, *barnean* balio duela erakusteko. Esanahi honetan *absolutuki-ahalgarriak* bere baitan (barnean) ahalgarria dena esan nahiko luke, egitatean hau objektu batez

esan daitekeen *gutxi*en izaki. Aitzitik, zerbaitek harreman orotan (zedarrik gabe) balio duela (adibidez, nagusigo absolutua) erakusteko ere erabiltzen da, eta *absolutuki-ahalgarriak* esanahi honetan zentzu orotan eta *harreman orotan ahalgarria* dena esan nahiko luke, zeina bere aldetik gauza baten ahalgarritasunaz esan daitekeen *gehien*a den. Batzuetan bi esanahiak batera aurkitzen ditugu. Horrela, adibidez, barnean ezinezkoa dena harreman orotan ere ezinezkoa da, eta beraz, absolutuki ere ezinezkoa da. Hala ere, kasu gehienetan bata bestetik amaigabeki urrun dago, eta nik inolaz ere ezin dut inferitu zer bait bere baitan ahalgarria izatetik abiatuta era berean harreman orotan, eta beraz, absolutuki ahalgarria denik. Beharrezkotasun absolutuaz jarraian zera erakutsiko dut: inolaz ere ez dagoela barnekoaren menpean kasu guztietan, eta beraz, ezin dela onartu honen esanahi berbera duenik. Zerbaiten aurkakoa barnean ezinezkoa bada, bere aurkakoa zentzu orotan izango da ezinezkoa, noski, eta beraz, bera absolutuki beharrezkoa da; baina nik ezin dut alderantziz inferitu absolutuki beharrezkoa denaren aurkakoa *barnean* ezinezkoa denik, h. d., gauzen beharrezkotasun *absolutua barneko* beharrezkotasuna denik; izan ere, barneko beharrezkotasun hau kasu jakinetan adierazpen erabat kaskala da, eta guk ezein adigairik ezin diogu lotu honi; aitzitik, harreman orotan (ahalgarria den ororekin harremanean) balio duen gauza baten beharrezkotasunaren adierazpenak determinazio erabat bereziak dakartza berekin. Filosofia espekulatiboan aplikazio handia duen adigai baten galera filosofoari inoiz axolagabea izan ezin zaionez gero, orduan espero dut adierazpenaren determinazioa eta atxikipen arretatsua –zeinari adigaia lotzen zaion– ez zaiola era berean axolagabea izango.

Nik, beraz, esanahi hedatu honetan erabiliko dut «*absolutu*» hitza, eta alderagarria edo ikuspegi berezian baliogarria denari kontrajarriz besterik ez; izan ere, azken hau baldintzetara murrizten da, hark, ordea, murriztapenik gabe balio du.

Arrazoimenaren adigai transzendentala beti totalitatearen sintesiari baino ez datzekio baldintzen sintesian, eta inoiz ez da iristen erabat baldintzatugabekia, h. d., harreman orotan baldintzatugabekia dena. Izan ere, arrazoimen hutsak dena adimenaren eskuetan uzten du, eta hau hasiera batean begiespenaren objektuei edo, are gehiago, irudimeneko beren sintesiari lotzen zaio. Hark adimenaren adigaiei erabileran emana den totalitate absolutua soilik gordetzen du beretzat, eta kategorian pentsatzen den batasun sintetikoa erabat baldintzatugabekira bidaltzea saiatzen du. Horregatik, honi agerpenen *arrazoimen-batasuna* dei dakioke, kategoriak adierazten duen hari, ostera, *adimen-batasuna* deitzen zaio. Beraz, arrazoimena adimenaren erabilerari soilik lotzen zaio, ez honek esperientzia ahalgarriaren oinarria barnebiltzen duen heinean (izan ere, baldintzen totalitate absolutua ez da esperientzia batean erabilgarria den adigairik, ezein esperientziarik ez baita baldintzatugabea), baizik berari batasun jakin bateranzko norabidea ezartzearen, zeinaz adimenak adigairik ere ez duen, eta batasun honek adimenaren ekintza oro objektu bakoitzari dagokionez *osoki absolutu* batean biltzea saiatzen du. Horregatik, arrazoimenaren adigai hutsen erabilera objektiboa beti da *transzendentea*, adimenaren adigai hutsen erabilerak, berriz, beren izaeraren arabera beti *imanentea* izan behar du, esperientzia ahalgarria soilik zedarritzatzen den heinean.

Ideiaz sentsuetan objektu egokirik eman ezin zaion beharrezko arrazoimenaren adigaia ulertzen dut. Beraz, orain kontsideratzen ditugun arrazoimenaren adigai hutsak *ideia transzendentalak* dira. Arrazoimen hutsaren adigaiak dira; izan ere, esperientziaren ezagutza oro baldintzen totalitate absolutu baten bitartez determinatua den aldetik kontsideratzen dute. Ez dira hautaz asmatuak, baizik arrazoimenaren izaera berak eskuratzen ditu, eta beraz, adimenaren erabilera osoari lotzen zaizkio halaberharrez. Azkenik, transzendenteak dira eta esperientzia ororen muga gainditzen dute, eta bertan ezin da inoiz eman, beraz, ideia transzendentalari egokituko litzaiokeen objekturik. Ideia bat aipatzean *benetan asko* esaten da objektuaz (adimen hutsaren objektu gisa), subjektuaz (h. d., baldintza enpirikoen arabera bere errealitateari begira), ordea, arrazoi beragatik *oso gutxi*, zeren bera maximum baten adigaia den aldetik inoiz ezin baita in concreto egokiro eman. Azken hau benetan arrazoimenaren erabilera espekulatibo soilaren asmo osoa denez, eta praktikan inoiz lortzen ez den adigai batera hurbilketa adigaia osorik arrakastarik gabekoa izatea adina litzatekeenez gero, orduan halako adigaiaz zera esaten da: ideia *besterik ez* dela. Orduan, agerpen ororen osoki absolutua *ideia soila* dela esan ahal izango litzateke, izan ere, halako osokia inoiz marraztu ezin dugunez gero, bada, honek konponketarik gabeko *arazoa* dirau. Alderantziz, adimenaren erabilera praktikoa autugaia erregelen arabera erabilera denez gero, orduan arrazoimen praktikoa ideia benetan in concreto eman daiteke, aldeztu soilik bada ere, eta bera arrazoimenaren erabilera praktikoa bakoitzaren ezinbesteko baldintza da. Bere erabilera beti da mugatua eta akasduna, baina determinagarriak ez diren mugen menpean, eta beraz, osotasun absolutu baten adigaia eraginen menpean beti. Ondorioz, ideia praktikoa beti da emankorra eta benetako ekintzei dagokienez ezinbestean beharrezkoa. Bertan, arrazoimen hutsak bere adigaia barnebiltzen duena sortzeko kausalitatea ere badu; horregatik, ezin da esan jakituri, nolabait esateko, gutxietsiz: *bera ideia soila denik*; baizik helburu ahalgarri ororen beharrezko batasunaren ideia denez gero, orduan praktikoa den orori erregela gisa erabilgarria izan behar zaio, jatorrizko baldintza edo behintzat baldintza zedarritzalea den aldetik.

Arrazoimenaren adigai transzendentalez, horratio, *ideiak besterik ez direla* esan behar dugun arren, hala ere, ez ditugu alferrikakotzat eta hutsaltzat jo behar. Izan ere, horren bitartez jadanik ezein objektu ezin bada determinatu ere, dena dela, oinarrian eta isilean adimenaren erabilera hedatu eta bateratuaren kanon gisa erabilgarriak izan daitezke, eta horren bitartez adimenak ez du, noski, bere adigaien bitartez ezagutuko lukeen baino objektu gehiago ezagutzen, baina hobeto eta urrunago gidatua da ezagutza honetan. Honetaz gain, agian izadiaren adigaietatik praktikoetara igarobidea ahalbidetzen dute, eta honela, ideia moralei sendotasuna eman diezaieke eta arrazoimen-ezagutza espekulatiboarekin lotura sor dezakete. Honi guztiari buruzko argipenak ondoren etorriko direla itxaron behar da.

Gure asmoari jarraiki, ordea, hemen ideia praktikoak alde batera uzten ditugu, eta hainbestez, arrazoimena bere erabilera espekulatiboan kontsideratzen dugu, eta honen barnean zehazkiago bere erabilera transzendentalean. Hemen, kategorien dedukzioan urratu genuen bide bera egin behar dugu, hots, arrazoimen-ezagutzaren forma logikoa kontsideratu eta ikusi ea agian horren bidez arrazoimena adigaien iturburu bihurtzen den, honela objektuak bere baitan arrazoimenaren funtzio bat edo besteari dagokionez a priori sintetikoki determinatutako objektutzat hartzeko.

Arrazoimena inferitzeko ahalmena da ezagutzaren forma logiko jakin baten ahalmen gisa kontsideratuta, h. d., zeharbidez juzgatzeko ahalmena da (judizio ahalgarri baten baldintza emandako judizioaren baldintzari menperatuz). Emandako judizioa erregela orokorra da (esakune nagusia, maior). Beste judizio ahalgarri baten baldintzaren erregelaren baldintzapeko menperaketa esakune txikia da (minor). Judizio erreala konklusioa da (conclusio), eta erregelaren asertzioa adierazten du *menperatutako kasuan*. Erregelak zerbait orokorra dio baldintza jakin batekin. Hortaz, kasu gertagarri batean erregelaren baldintza ematen da. Beraz, baldintza haren menpean orokorki balio zuena kasu gertagarrian ere (baldintza honek aldean dakarrena) balioagarritzat hartzen da. Erraz ikusten da arrazoimena ezagutza batera iristen dela baldintzen ilara bat osatzen duten adimenaren ekintzen bitartez. «Gorputz oro aldagarria da» esakunera ezagutza urrun honetatik hasita soilik iristen banaiz (non gorputzaren adigaia ez den oraindik agertzen, baina horren baldintza barnebiltzen duen): «elkartuki oro *aldagarria* da»; orduan honetatik abiatuta lehenengoaren baldintzapean dagoen ezagutza hurbilago batera noala: «gorputzak elkarketazkoak dira»; eta honetatik lehen-lehenik hirugarren batera, ezagutza urruna (aldagarria) aurrean dugunarekin elkarlotzen duenera: «ondorioz, gorputzak aldagarriak dira»; bada, orduan baldintzen (premisen) ilara baten bitartez ezagutza batera (konklusiora) iritsi naiz. Bere esponentea (judizio kategorikoarena edo hipotetikoarena) emana izan den edozein ilara, ordea, luza daiteke; eta beraz, arrazoimenaren ekintza honek berak ratiocinatio polysyllogistica-ra gidatzen du, zeina baldintzen aldetik (per prosyllogismos) edo baldintzatukiarenetik (per episyllogismos) urrunera indeterminaturaino luza daitekeen inferentzien ilara den.

Laster ohartzen da, ordea, prosilogismoen kateak edo ilarak, h. d., ondorioztatutako ezagutzak oinarriaren aldetik edo ezagutza jakin batentzako baldintzen aldetik, beste hitz batzuetan, arrazoimen-inferentzien *ilara gorakorrek* beste era batera jokatu behar duela arrazoimenaren ahalmenari dagokionez ilara beherakorren aldean, h. d., arrazoimenak episilogismoen bitartez baldintzatukian duen aurrerapenean. Izan ere, lehen kasuan ezagutza (conclusio) baldintzatuta baino ez denez ematen, orduan auresuposizio honi jarraiki soilik iristen gara bertara arrazoimenaren bitartez, alegia, ilararen osakide guztiak baldintzen aldetik emanak direla (totalitatea premisen ilaran), zeren auresuposizio honi jarraiki soilik baita a priori ahalgarria aurrean dugun judizioa; aitzitik, baldintzatukiaren aldetik edo ondorioztapenen aldetik *garatzen ari* den ilara pentsatzen da, eta ez osorik auresuposatua edo *emandakoa*, eta beraz, aurrerapen potentziala besterik ez da pentsatzen. Horregatik, ezagutza bat baldintzatutzat jotzen bada, orduan arrazoimena behartuta dago baldintzen ilara lerro gorakorrean osatutzat eta bere totalitatea emantzat jotzera. Baina ezagutza bera aldi berean beste ezagutza batzuen baldintzatutzat jotzen bada, elkarrekin ondorioztapenen ilara osatzen dutela lerro beherakorrean, orduan arrazoimenari axolagabe izan dakioke aurrerapen hau a parte posteriori noraino hedatzen den edo oro har ilara honen totalitatea ahalgarria ote den; zeren ez baitu behar halako ilararik bere aurrean datzan konklusiorako, bere oinarrien bitartez a parte priori jadanik askiro determinatua eta segurtatua dagoen heinean. Baliteke baldintzen aldetik premisen ilarak *lehenengo* bat izatea baldintza goren gisa, edo ez izatea, eta beraz, a parte priori mugarik gabekoa izatea; horrela, ordea, baldintzen totalitatea barnebildu behar du, hau besarkatzera inoiz iritsiko ez den arren, eta ilara osoak baldintzatugabeki egiazkoa izan behar du, baldin eta bertatik sortzen den ondorioztapentzat hartzen den baldintzatukiak egiazkoa izan behar badu. Hau bere ezagutza a priori izanez determinatzen duen eta beharrezkoa izanez iragartzen duen arrazoimenaren eskakizuna da, edo bere baitan a priori eta beharrezkoa, eta orduan ez du oinarririk behar, edo ezagutza eratorria bada, orduan baldintzatugabeki egiazkoa den oinarrien ilara baten osakide gisa.

Dialektika transzendentalaren

Lehen liburuko

Hirugarren atala

Idea transzendentalen sistema

Gure autugaia ez da hemen ezagutzaren eduki oroz abstraitzen duen eta arrazoimen-inferentzien forman dagoen itxura faltsua soilik argitzen duen Dialektika logikoa, Dialektika transzendental baizik, zeinak erabat a priori arrazoimen hutsetik abiatuta lortutako ezagutza jakinen jatorria eta enpirikoki inoiz eman ezin diren, eta beraz, osorik adimen hutsaren ahalmenetik at dautzan inferitutako adigaien jatorria ere barnebildu behar dituen. Inferentzietan eta judizioetan gure ezagutzaren erabilera transzendentalak erabilera logikoarekin izan behar duen berezko harremanetik abiatuta hau ulertu dugu: inferentzia dialektikoaren hiru era besterik ez daudela, arrazoimena printzipioetatik abiatuta ezagutzetara iritsi ahal izateko hiru inferentzia-erei lotzen zaizkienak, eta honetan guztian arrazoimenaren zeregina adimena hau beti lotzen zaion sintesi baldintzatutik honek inoiz lortuko ez duen sintesi baldintzatugabera goratzea dela.

Hortaz, gure errepresentazioek eduki dezaketen harreman ororen alde orokorra, 1) subjektuarekin harremana da, 2) objektuarekin harremana da, eta gainera, agerpenak diren aldetik edo oro har pentsatzearen objektuak diren aldetik. Azpisaillaketa hau goragokoarekin lotzen bada, orduan errepresentazioen hartueman guztiak hiru dira, eta honetaz adigai edo ideia bat bil dezakegu: 1. Subjektuarekin hartuemana; 2. Objektuaren anizkunkiarekin hartuemana agerpenean; 3. Oro harrezko gauza ororekin hartuemana.

Oro harrezko adigai huts ororen autugaia, ordea, errepresentazioen batasun sintetikoa da, arrazoimen hutsaren adigaiena (ideiena), berriz, baldintza ororen batasun sintetiko baldintzatugabekoa oro har. Ondorioz, ideia transzendental oro *hiru klasetan* bil daiteke: *lehenak*, *subjektu pentsatzailearen batasun* absolutua (baldintzatugabea) barnebiltzen du; *bigarrenak*, *agerpenen baldintzen ilararen batasun* absolutua; *hirugarrenak*, *pentsatzearen objektu ororen baldintzaren batasun* absolutua oro har.

Subjektu pentsatzailea *Psikologiaren* objektua da, agerpen ororen multzoa (mundua) *Kosmologiaren* objektua eta pentsa daitekeen guztiaren ahalgarritasunaren baldintza gorena barnebiltzen duen gauza (zerizan guztien zerizana) *Teologiaren* objektua da. Beraz, arrazoimen hutsak eskura ematen du arimaren irakaspen transzendentalerako ideia (psychologia rationalis), munduaren zientzia transzendentalerako ideia (cosmologia rationalis) eta, azkenik, baita Jainkoaren ezagutza transzendentalerako ideia ere (theologia transscendentalis). Zientzia hauetako edozeinentzat egindako egitasmo soilak ere ez du adimenean bere jatorria, ezta adimena arrazoimenaren erabilera logiko gorenekin, h. d., pentsa daitezkeen inferentzia denekin lotua balego ere, honela bere objektu batetik abiatuta (agerpena) beste denetara doan sintesi enpirikoen osakide urrunenetaraino aurrera egiteko, baizik eta egitasmoa arrazoimen hutsaren produktu edo arazo huts eta egiazkoa da.

Ondorengo atalburuetan aurkeztuko da arrazoimen-adigai hutsen nolako modi-ak aurkitzen diren ideia transzendental ororen hiru izenburu hauen baitan. Kategorien hariari jarraiki zaizkio. Izan ere, arrazoimena ez zaie inoiz zuzenki objektuei lotzen, beren adimen-adigaiei baizik. Era berean, hau osoki egikaritzean soilik bihurtu ahal izango da nabaria nola heltzen den arrazoimena halabeharrez *subjektu pentsatzailearen* batasun absolutu baten adigaira, arrazoimen-inferentzia kategorikorako erabiltzen duen funtzio beraren erabilera sintetikoaren bitartez soilik heldu ere; nola dakarren berekin arrazoimen-inferentzia hipotetikoetako jardunbide logikoak baldintza jakinen *ilarako* erabat baldintzatugabekiaren ideia; eta azkenik, nola erakarri behar duen halabeharrez bertara arrazoimen-inferentzia disjuntiboaren forma soilak *zerizan ororen zerizanaren* arrazoimen-adigaia; lehen begiradan guztiz paradoxala dirudien pentsamendua.

Ezinezkoa da benetan ideia transzendental hauen *dedukzio objektiborik* eskuratzea, kategoriez eskuratu ahal izan genuenaren moduko dedukzioa. Izan ere, egitatean, ez dute harremanik beraiei egokituz eman ahal izango litzatekeen ezein objektuarekin, hain zuzen, ideiak besterik ez direlako. Hala ere, beren eratorketa subjektiboa egitea saia dezakegu gure arrazoimenaren izaeratik abiatuta, eta hau da atalburu honetan lortu duguna.

Eraz ikusten da arrazoimen hutsak ez duela sintesiaren totalitate absolutua baino beste asmorik *baldintzen aldetik* (izan dadin inherentzia, edo dependentzia, edo konkurrentziarena) eta, era berean, bere autugaia ez dela osotasun absolutua

baldintzatukiaren aldetik. Izan ere, hura besterik ez du behar baldintzen ilara osoa aurreuposatzeko, eta horren bitartez, adimenari a priori emateko. Osoro (eta baldintzatugabeki) emandako baldintza jada baldin badago, ordea, orduan ez du arrazoimenaren adigairik behar ilararen jarraipenari begira; izan ere, adimenak berenez egiten du atzeranzko urrats bakoitza baldintzatik *baldintzatukira*. Honela, ideia transzendentalak baldintzen ilaran baldintzatugabekiraino, h. d., printzipioetaraino *gora* egiteko baino ez dira baliagarriak. Baldintzatukira *beheratzeari* dagokionez, berriz, badago gure arrazoimenak adimenaren legeez egiten duen erabilera logiko hedatua, baina ez transzendental, eta halako (aurrerapenaren) sintesiaren totalitate absolutuaren ideia bat asmatzen baldin badugu, adibidez, *etorkizuneko* mundu-aldaketa guztien ilara osoaren ideia, orduan hau pentsamen-gauza da (ens rationis), hautaz pentsatzen dena eta arrazoimenaren indarrez halabeharrez aurreuposatua ez dena. Izan ere, baldintzatukiaren ahalgarritasunerako bere baldintzen totalitatea aurreuposatzen da, baina ez bere ondorioena. Ondorioz, halako adigaia ez da ideia transzendental, eta hau soilik da hemen gure autugaia.

Azkenik, hau ere ohartzen da: ideia transzendentalen artean ere bilkura eta batasun jakin bat nabarmentzen dela, eta arrazoimen hutsak beren bitartez bere ezagutza guztiak sistema batean biltzen dituela. Norbere buruaren ezagutzatik (arimarena) munduaren ezagutzara, eta honen bitartez, jatorrizko zerizanaren ezagutzara aurrera egitea hain berezko aurrerapena da, non premisetatik konklusioetara doan arrazoimenaren aurrerapen logikoaren antzekoa baitirudi¹⁰¹. Ea hemen sekretuki oinarrian benetan jardunbide logikoaren eta transzendentalaren arteko kidetasunaren antzeko bat ote dagoen dioen galdekizuna erantzuna lehen-lehenik azterketaren jarraipenean soilik izango duen galdekizunetako bat da. Guk geure helburua lortu dugu oraingo, zeren arrazoimenaren adigai transzendentalak, eskuarki filosofoek adimenaren adigaietatik ere egokiro ez ezberdintzean beren teorietan hauekin nahasten direnak, egoera ekiboko honetatik atera ahal izan baititugu, eta beren jatorria eta horren bitartez aldi berean beren kopuru determinatua, gainditu ezin den kopurua, zehaztu ahal izan baititugu eta beraiek bilkura sistematiko batean aurkeztu ahal izan baititugu, eta honi esker arrazoimen hutsaren alor determinatu bat markatzen eta zedarriztatzen da.

Dialektika transzendentalaren

Bigarren liburua

Arrazoimen hutsaren inferentzia dialektikoez

Idea transzendental soil baten objektua beraz adigairik ez dugun zerbait dela esan daiteke, ideia hori erabat halabeharrez arrazoimenean bere jatorrizko legeen arabera sortua izan den arren. Izan ere, egitatean, arrazoimenaren eskakizunari egokitzen zaion objektu baten ezein adimen-adigairik ez da ahalgarria, h. d., esperientzia ahalgarri batean erakutsi eta begiesgarria egin daitekeen adigaia. Hobe litzateke eta gaizki-ulertuak sortzeko arrisku gutxiago izango genuke, zera esango bagenu: ideia bati egokitzen zaion objektuaren ezagupenik ezin dugula izan, baina bere adigai problematikoa izan dezakegula.

Arrazoimen-adigai hutsen errealtate (subjektibo) transzendental bederen gu beharrezko arrazoimen-inferentzia baten bitartez halako ideietara gidatuak izatean funtsatzen da. Beraz, badira ezein premisa enpirikorik ez duten arrazoimen-inferentziak, eta hauen bitartez guk ezagutzen dugun zerbaitetik abiatuta ezagutzen ez dugun beste zerbait inferitzen dugu, honen adigairik izan gabe baina ezinbesteko itxura bat dela-eta errealtate objektiboa ematen diogula. Halako inferentziei beren emaitzari begira *arrazoikeriaren* inferentziak deitu behar zaie arrazoimen-inferentziak deitu ordez, nahiz eta aukeran azken izen hori jaso dezaketen, ez baitira asmatuak edo hautazkoak, arrazoimenaren izaeratik sortuak baizik. Ez dira gizakien sofistikazioak, arrazoimena berarenak baizik, eta gizakien artean jakintsuena ere ezin da haietaz libratu; agian neke handien ondoren errakuntza saihestez, baina etengabe jarraiki eta mofatzen zaion itxura inoiz ezin du guztiz baztertu.

Arrazoimen-inferentzia dialektiko hauen hiru era besterik ez daude, beren konklusioetako ideiak adina. *Lehen klaseko* arrazoimen-inferentzian anizkunkirik barnebiltzen ez duen subjektuaren adigai transzendentaletik subjektu horren batasun absolutua inferitzen dut, zeinaz era honetan ez dudana adigairik. Inferentzia dialektiko honi *paralogismo* transzendental deituko diot. Arrazoikeriaren inferentzien *bigarren* klaseak oro har agerpen jakin baterako baldintzen ilararen totalitate

absolutuaren adigai transzendental bilatzen du, eta ilararen batasun sintetiko baldintzatugabeaz ilararen alde batean beti adigai kontraesankorra edukitzetik abiatuta honi aurkakotzen zaion batasunaren zuzentasuna inferitzen dut, baina honetaz ere ez dut ezein adigairik. Inferentzia dialektiko hauetan arrazoimenak jasaten duen egoerari arrazoimen hutsaren *antinomia* deituko diot. Azkenik, arrazoikeriaren inferentzien *hirugarren* klasearen arabera niri eman ahal zaizkidan oro harrezko objektuak pentsatzeko baldintzen totalitatetik abiatuta oro harrezko gauzen ahalgarritasunaren baldintzen batasun sintetiko absolutua inferitzen dut, h. d., beren adigai transzendental soilaren arabera ezagutzen ez ditudan gauzetatik abiatuta zerizan ororen zerizana inferitzen dut, zeina adigai transzendental baten indarrez are gutxiago ezagutzen dudana, eta bere beharrezkotasun baldintzatugabeaz ere ezin dut ezein adigairik osatu. Arrazoimen-inferentzia dialektiko honi arrazoimen hutsaren *ideala* deituko diot.

Dialektika transzendentalaren

Bigarren liburuko

Lehen atalburua

Arrazoimen hutsaren paralogismoez

Paralogismo logikoa formaren arabera gertatzen den arrazoimen-inferentziaren faltsutasuna da, edukia dena dela ere. Paralogismo transzendentalak, ordea, oinarri transzendental du: formari dagokionez faltsuki inferitzea. Honela, halako inferentzia faltsuak bere oinarria giza arrazoimenaren izaeran izango du eta honek ilusio saihestezina bai baina konponezina ez dena dakar aldean.

Orain, gorago adigai transzendentalen zerrendan jaso ez den nahiz halakotzat onartu behar den adigaira gatoz, horregatik, ordea, taula hura deus ere aldatzeko eta akasduntzat adierazteko beharrik ez dugun arren. Adigai hau, edo nahiago bada, judizioa, hau da: «*nik pentsatzen dut*». Erraz ikusten da, ordea, oro harrezko adigai ororen eroalea dela, eta beraz, adigai transzendentalena ere bai, eta hortaz, hauen artean jaso behar dela, eta horregatik, transzendental dela, baina ezin duela izenburu berezirik eduki, zeren pentsatze oro kontzientziari egokitua balego bezala azaltzeko besterik ez baitu balio. Dena dela, enpirikoa den oroz (sentsuen zirrarez) hain hutsa izan arren, gure indar errepresentatzailearen izaeran bi objektu ezberdintzeko balio du. *Ni* pentsatzailea naizen aldetik barneko sentsuaren objektua naiz eta arima izena dut. Kanpoko sentsuen objektua denak gorputza izena du. Beraz, «*nia*» adierazpenak, *nia* zerizan pentsatzailea den aldetik, arimaren irakaspen arrazionala izena jaso dezakeen Psikologiaren objektua adierazten du, baldin eta arimaz honako hau baino gehiago ez jakitea eskatzen badut, hots, (zehazkiago eta in concreto determinatzen nauen) esperientzia orotatik beregainki *nia* adigai honetatik inferi daitekeena, adigai hau pentsatze orotan agertzen den heinean.

Arimaren irakaspen *arrazionala* honelako jarduera da benetan; izan ere, nire pentsatzean egon daitekeen alde enpiriko txikiarena edo nire barneko egoeraren hautemapen bereziren bat zientzia honen ezagutza-oinarrietan nahastua egongo balitz, orduan ez litzateke gehiago arrazionala izango, baizik arimaren irakaspen *enpirikoa*. Gure aurrean daukagu, beraz, «*nik pentsatzen dut*» esakune bakarraren gain eraikitzen den ustezko zientzia eta bere oinarria edo oinarri eza guk hemen egokiro eta Filosofia transzendentalaren izaeraren arabera azter dezakegu. Ez da urduritu behar norberaren hautemapena adierazten duen esakune horretan barneko esperientzia dagoelako, eta beraz, bere gain eraikitzen den arimaren irakaspen arrazionala hutsa izan beharrean aldez printzipio enpiriko batean oinarritua dagoelako. Izan ere, barneko hautemapen hau apertzepzio soilak, «*nik pentsatzen dut*», besterik ez da, adigai transzendental guztiak ere ahalbidetzen dituenak, eta bertan zera adierazten da: substantzia, kausa, eta abar pentsatzen ditut. Izan ere, oro har barneko esperientzia eta bere ahalgarritasuna, edo oro har hautemapena eta bere hartuemanak beste hautemapenekin ezin dira ezagutza enpirikotzat jo beren bereizketa eta determinazioa enpirikoki eman ezean, baizik enpirikoa denaren ezagutza gisa hartu behar dira, eta edozein esperientziaren azterketaren ahalgarritasunari dagozkio, gainerakoan transzendental den esperientziaren azterketaren ahalgarritasunari.

Autokontzientziaren errepresentazio orokorrari erantsiko litzaiokeen hautemapenaren objektu txikienak (adibidez, atsegina eta ezatsegina besterik ez) Psikologia arrazionala berehala enpirikoan eraldatuko luke.

«*Nik pentsatzen dut*», beraz, Psikologia arrazionalaren testu bakarra da, eta honek bertatik abiatuta garatu behar du bere jakituria guztia. Erraz ikusten da pentsamendu horrek bere predikatu transzendentalak besterik ezin dituela barnebildu, objektu bati (neu) lotu behar baldin bazaio; zeren predikatu enpiriko txikienak araztasun arrazionala eta zientziaren esperientzia orotatik beregaintasuna zapuztuko bailituzke.

Hemen, beraz, kategorien gida-hariari jarraiki besterik ez gatzaizkio egin behar, baina hemen lehenik gauza bat, nia, zerizan pentsatzaile gisa ematen zaigunez gero, orduan ez dugu aldatuko kategorien goragoko ordena, beren taulan aurkeztua dagoen ordena, baizik eta hemen substantziaren kategoriatik abiatuko gara, zeinaren bitartez berbaitango gauza bat errepresentatzen den, eta orduan ilarari atzerantz jarraikiko gatzaizkio. Beraz, arimaren irakaspen arrazionalaren topika ondorengoa da, eta bertatik eratorri beharko da berak barnebil dezakeen gainerako guztia:

1.

Arima

substantzia da.

2.

Bere kualitateari dagokionez

bakuna da.

3.

Bera deneko denbora ezberdinen

arabera zenbakiari dagokionez

identikoa da, h. d., *batasuna*

(ez askotasuna).

4.

Objektu *ahalgarriekin*

hartuemanean dago

espazioan¹⁰².

Osagai hauetatik sortzen da arimaren irakaspen hutsaren adigai oro elkarketaren bidez soilik, beste ezein printzipiorik berrezagutu gabe. Substantzia honek barneko sentsuaren objektu soil den aldetik *materiagabetasunaren* adigaia eskuratzen du; substantzia bakuna den aldetik *ustelezintasuna*; bere identitateak, hura substantzia intelektuala den aldetik, *personatasuna*; hiru atal hauek batera *espiritutasuna*; espazioan dauden objektuekin hartuemanak gorputzekin *commercium*-a eskuratzen du; eta beraz, substantzia pentsatzailea material dagoen bizitzaren printzipio gisa aurkezten du, h. d., arima (anima) gisa eta *aberetasunaren* oinarri gisa; honek, espiritutasunaren bidez zedarritzatua, *hilezkortasuna* eskuratzen du.

Honi lotzen zaizkio arimaren irakaspen transzendental baten lau paralogismoak, faltsuki gure zerizan pentsatzailearen izaerari buruzko arrazoimen hutsaren zientziazat hartzen den irakaspenaren paralogismoak, alegia. Bere oinarrian, ordea, *nia* errepresentazioa, hots, berez erabat kaskala den errepresentazio bakuna besterik ezin dugu ezarri, eta honetaz ezin da esan adigai bat denik ere, baizik adigai guztiei lagun egiten dien kontzientzia soil dela. Pentsatzen duen nia, edo Bera, edo Zera (gauza bat) horren bitartez ez da pentsamenduen subjektu transzendental baido errepresentatzen = X, bere predikatuak diren pentsamenduen bitartez besterik ezagutzen ez dena, eta hortaz, honetaz inoiz ezin dugu ezein adigai bereizturik ere izan; eta horregatik, zirkulu jarraituan jiratzen gara bere inguruan, bere errepresentazioa jadanik beti erabili behar dugun heinean, beraz edozein judizio egitearren; beretik banandu ezin daitekeen deserosotasuna da hau, zeren kontzientzia bere baitan ez baita objektu berezi bat ezberdintzen duen errerepresentaziorik, baizik bere forma oro har, honi ezagutza deitu behar zaion heinean; izan ere, honetaz soilik esan dezaket bere bitartez zerbait pentsatzen dudala.

Itxuraz hasiera-hasieratik bitxia izan behar du, ordea, pentsatzeko dudak baldintzak, eta beraz, nire subjektuaren antolaera soil denak, aldi berean pentsatzen duen ororentzat baliogarria izan behar, eta enpirikoa dirudien esakune batean judizio apodiktiko eta orokorra oinarritzeko handiustea eduki ahal izateak, hots, pentsatzen duen gauza oro kontzientziaren ahotsak nigan adierazten duen eran egituratua egoteak. Honen zergatia, ordea, honetan datza: apriorizko gauzei guk haiek pentsatu ahal izateko baldintzak osatzen dituzten berekitasun guztiak halaberrez egotzi behar dizkiegula. Zerizan pentsatzaile batez, ordea, ezin dut batere errerepresentaziorik izan kanpoko esperientziaren bitartez, baizik autokontzientziaren bitartez besterik ez. Beraz, halako objektuak ez dira nire kontzientzia beste gauzetara igortzeaz baido osatzen, zeinak honen bitartez soilik errerepresenta daitezkeen zerizan pentsatzaile gisa. «Nik pentsatzen dut» esakunea, berriz, hemen problematikoki besterik ez da hartzen; ez izateren baten hautemapena barnebil dezakeen heinean (cogito, ergo sum kartesiarra), baizik bere ahalgarritasun soilaren arabera, hain esakune bakunetik bere subjektura zein berekitasun jaria daitezkeen ikustearren (halako subjektua existitu nahiz ez existitu).

Oro harrezko zerizan pentsatzaileaz gure arrazoimenak duen ezagutza hutsaren oinarrian cogito-a baido zerbait gehiago egongo balitz, gure pentsamenduen jolasa eta bertatik sortu behar diren Norbera pentsatzailearen izadia-legeen behaketak laguntza gisa hartuko bagenitu, orduan Psikologia enpirikoa sortuko litzateke, barneko sentsuaren *Fisiologiaren* antzeko zerbait litzatekeena, eta agian, bere agerpenak argitzeko balio ahal izango lukeena, baina honek inoiz ezingo lituzke argitu esperientzia ahalgarriari egokitzen ez zaizkion berekitasun horiek (bakunkiaren berekitasunak diren aldetik), ezta oro harrezko zerizan pentsatzaileaz bere zerizanari dagokion zerbait apodiktikoki irakatsi ere; ez liteke, beraz, ezein Psikologia *arrazionalik*.

«Nik pentsatzen dut» esakunak (problematikoki hartuta) oro har halako adimenaren judizio ororen forma barnebiltzen duenez eta kategoria denei beren eroale gisa lagun egiten dienez gero, orduan argia da bertatik egindako inferentziek adimenaren erabilera transzendental soil barnebil dezaketela, eta honek esperientziaren eskusartze oro baztertzen du, eta bere aurrerabideaz ezin dugu adigai abantailatsurik izan, gorago erakutsi dugun legez. Beraz, begirada kritikoz jarraiki nahi gatzazkio arimaren irakaspen hutsaren predikamentu guztien zehar¹⁰³, bere etsamina laburtasunaren mesedetan azalpen jarraituan garatuko dugun arren.

Hasteko, datorren ohar orokorrak inferentzia-era honi eskaintzen diogun arreta zorroz dezake. Pentsatzen dudalako soilik ez dut objektuen bat ezagutzen, baizik eta begiespen jakin bat pentsatze oro osatzen duen kontzientziaren batasunerako determinatuz soilik ezagut dezaket objektuen bat. Beraz, neu ez naiz ezagutzen neure buruaz pentsatzaile naizen aldetik kontziente izateari esker, baizik neure buruaren begiespenaz kontziente naizenean pentsatzearen funtzioari begira determinatuta nagoen heinean. Autokontzientziaren *modi* denak pentsatzearen baitan ez dira objektuen adimen-adigaiak (kategoriak), baizik funtzio logiko soilak, pentsatzeari objekturik ematen ez diotenak ezagutzeko, eta beraz, ezta ni neu ere objektu gisa. *Ez determinatzailea denaren* kontzientzia, baizik Norbera *determinagarriarena* besterik ez da *objektua*, h. d., nire barneko begiespena (bere anizkuntia apertzepzioak pentsatzearen batasunaren baldintza orokorraren arabera lot daitezkeen heinean).

1) Judizio guztietan judizioa osatzen duen hartuemanaren subjektu *determinatzailea* naiz beti. Baina nia, pentsatzen duen nia, pentsatzean beti *subjektu* gisa eta ez predikatu gisa pentsatzeari atxikitzen zaion zerbaiten moduan kontsideratu ahal izanez onartu behar dudala *esakune* apodiktikoa eta *identikoa* da; honek ez du esan nahi, ordea, ni *objektua* naizen aldetik *berez diraudan zerizan* edo *substantzia* naizenik. Hau oso urrutira doa, eta horregatik honek pentsatzean aurkitzen ez diren datuak eskatzen ditu, eta agian (pentsatzailea pentsatzailea den aldetik soilik kontsideratzen dudana heinean) nik edonon (honengan) aurkitu ahal izango dudana baino gehiago eskatzen du.

2) Apertzepzioaren nia, eta ondorioz, nia pentsatze orotan *banakoa* izatea, subjektuen askotasun batean xehetu ezin dena, eta beraz, logikoki bakuna den subjektua ezaugarritzen duena, pentsatzearen adigaian datza jadanik, eta beraz, *esakune* analitikoa da; baina honek ez du esan nahi nia pentsatzailea *substantzia* bakuna denik, hau *esakune* sintetikoa bailitzateke. Substantziaren adigaia beti nigan sentsuzkoak baino ezin izan daitezkeen, eta beraz, adimenaren eta bere pentsatzearen alorretik erabat landa dautzan begiespenei lotzen zaie; baina benetan pentsatzeaz baino ez da hitz egiten hemen nia pentsatzean bakuna dela esaten denean. Harrigarria litzateke gainera guztien artean txiroena den errepresentazioan zuzenki emango balitzaidake, nolabait esateko, agerkunde baten bitartez bestela hainbeste zuhurtzia eskatzen duena begiespenak aurkezten duenean substantzia zer den bereizteko edo, are gehiago, hau bakuna izan daitekeen bereizteko (materiaren zatietan gertatzen den legez).

3) Kontzientzian dudana anizkunki ororen artean nire identitatea baieztatzen duen *esakunea* adigaietan datzan, eta beraz, analitikoa den *esakunea* da; baina subjektuaren identitate hau, zeinaz bere errepresentazio guztietan kontziente izan naitekeen, ez dagokio bera objektu gisa ematen duen begiespenari, eta beraz, ezin du pertsonaren identitatea adierazi; honen bitartez pentsatzen da norbere substantziaren identitatearen kontzientzia zerizan pentsatzaile gisa egoeren aldakuntza orotan, eta hau frogatzeko ez litzateke aski «nik pentsatzen dut» *esakune* analitiko soilia, baizik eta begiespen jakinean oinarritzen diren hainbat judizio sintetiko beharko litzateke.

4) «Neure existentzia izaki pentsatzaile gisa nigandik kanpo dauden beste gauzetatik bereizten dut (nire gorputza ere hauetako bat izaki)» *esakune* analitikoa da era berean; izan ere, *beste* gauzak nik nigandik *ezberdin* gisa pentsatzen ditudanak dira. Hala ere, inolaz ere ez dakit horren bitartez ea neure kontzientzia hau ahalgarria ote den niri errepresentazioak ematen dizkidan kanpoko gauzarik gabe eta ea ni zerizan pentsatzaile gisa soilik existi naitekeen.

Beraz, oro har pentsatzean dudana neure buruaren kontzientziaren analisiaren bitartez ez da neure buruaren ezagutzari begira ezer irabazten objektu bat naizen aldetik. Pentsatzearen azalpen logikoa oro har objektuaren determinazio metafisikotzat hartzen da faltsuki.

Hau litzateke gure kritika osoaren oztopo handia, eta gainera, bakarra, baldin eta zera frogatzeko era bat balego: zerizan pentsatzaile oro bere baitan substantzia bakuna dela, eta bakuna den aldetik, beraz, aldean bereiztezinki pertsonatasuna dakarrela (aipatutako frogatzailearen ondorioa dena) eta materia orotatik bereizitako bere existentziaz kontziente dela a priori. Izan ere, honela sentsuen munduaz goiti ibili ahal izango ginateke, *noumeno* munduan sartuko ginateke, eta orduan inork ez liguke ukatuko bertan gehiago hedatzeko, eraikitzeke eta hura jabegoan hartzeko eskubidea zoriaren izarrak bakoitza hobesten duen eran. Izan ere, «izaki pentsatzaile oro, pentsatzailea den aldetik, substantzia bakuna da» *esakunea* apriorizko *esakune* sintetikoa da, zeren, lehenik, bere oinarrian datzan adigaiak goiti baitoa eta pentsatzeari oro har *izatearen era* eransten baitio, eta bigarrenik, adigai bakoitzari ezein esperientzian ere emana izan ezin daitekeen predikatua eransten baitio (bakuntasuna). Beraz, apriorizko *esakuneak* ez dira, baieztatu dugun moduan, esperientzia ahalgarriaren objektuekin harremanean soilik, eta gainera, esperientzia hori beren ahalgarritasunaren printzipioa den heinean soilik egingarriak eta onargarriak, baizik haiek oro harrezko gauzetara eta berbaitango gauzetara ere jo dezakete, eta ondorioztapen honek kritika osoa deuseztatuko luke, eta bere aurreko egoerara itzuli beharko genuke. Gaia zehatzago aztertzen badugu, ordea, hemen arriskua hain handia ez dela ikusiko dugu.

Datorren arrazoimen-inferentziaren bitartez aurkezten den paralogismoa nagusitzen da Psikologia arrazionalaren jardunbidean:

Subjektu gisa baino ezin pentsa daitekeena, subjektu gisa baino ez da existitzen, eta beraz, substantzia da.

Hortaz, zerizan pentsatzaile bat, pentsatzailea den aldetik soilik kontsideratuta, ezin da subjektu gisa baino pentsatu.

Beraz, subjektu gisa soilik existitzen da, h. d., substantzia gisa.

Esakune nagusian oro har edozein zentzutun, eta ondorioz, begiespenean eman ahal den moduan ere pentsa daitekeen zerizan batez hitz egiten da. Esakune txikian ere bera da solasgaia, baina pentsatzeari eta kontzientziaren batasunari dagokienez besterik ez, ez aldi berean pentsatzeari zerizan hori objektu gisa ematen dion begiespenarekin harremanean kontsideratuta. Hortaz, per sophisma figurae dictionis, eta beraz, inferentzia iruzurti baten bitartez ondorioztatzen da konklusioa¹⁰⁴.

Oinarri-esakuneen errepresentazio sistematikoei egindako ohar orokorra eta noumenoen atala hemen berriro begiratuz gero, orduan nabariki argitzen da argumentu sonatua paralogismo batera xehetxea zuzena dela, han zera frogatu baitzen: berez subjektu gisa bai baina predikatu soil gisa ezin existi daitekeen gauzaren adigaiak ez dakarrela berekin bere errealitate objektiboa, h. d., ezin dela oro har jakin ea objekturen bat egokitzen zaion, halako eran existitzeko ahalgarritasuna aditzen ez den heinean, eta ondorioz, ez duela inolaz ere ezagutzarik eskuratzen. Eman daitekeen objektu bat iragarri behar badu substantziaren izendapenarekin, ezagutza bihurtu behar badu, orduan oinarrian begiespen iraunkorra ezarri behar da adigai baten errealitate objektiboaren ezinbesteko baldintza gisa, hots, objektua ematen duena. Barneko begiespenean, ordea, ez daukagu iraunkorra den ezer; izan ere, nia nire pentsatzearen kontzientzia besterik ez da; beraz, pentsatze soilean geratzen bagara, substantziaren adigaia, h. d., berez dirauen subjektuaren adigaia norbere buruari zerizan pentsatzaile gisa aplikatu ahal izateko behar den baldintza falta zaigu, eta honi lotutako substantziaren bakuntasuna erabat desagertzen da adigai honen errealitate objektiboarekin batera, eta oro har pentsatzean dugun autokontzientziaren batasun kualitatibo eta logiko soilean eraldatzen da, bai subjektua elkarketazkoa bada, baita ez bada ere.

Mendelssohnek arimaren iraunkortasunaz egindako frogaren errefusapena

Filosofu buruargi honek laster ohartu zuen arimak (zerizan bakuna dela onartzen bada) *atalbanaketa bidez* izateari uzten ez diola frogatu behar duten ohiko argumentuetan akatsa datzala berari beharrezko iraupena segurtatzeko asmoari dagokionez, *desagerketa bidezko* bere izatearen amaiera ere onartu baitzitekeen. Bere *Fedonean* benetako deuseztapena litzatekeen iraungipen hori sahisten saiatu zen, zerizan bakunak inoiz izateari utzi ezin diola frogatzera ausartuz, zeren gutxitu ezin daitekeenez, eta horrela, bere izateetik pixkanaka zerbait galdu, eta horrela, poliki ezerezean eraldatu ezin duenez gero (zatirik, eta beraz, bere baitan askotasunik ez duen heinean), orduan hura baden unea eta jadanik ez den hurrengo unearen artean ezingo litzateke denborarik aurkitu, ezinezkoa dena. – Hala ere, ez zuen aintzat hartu, arimari izaera bakun hori onartuz gero, bada, *bere kanpoko* anizkunkirik, eta beraz, hedapenezko handitasunik barnebiltzen ez duenez, orduan existitzen diren beste zerizanei bezain gutxi ukatu ahal diogula handitasun intentsiboa, h. d., errealitatearen maila bere ahalmen orori dagokionez, baita oro har izatea osatzen duen orori dagokionez ere, eta maila hau maila amaigabeki txikiagoen bitartez gutxitzen da, eta horrela ustezko substantzia (bere iraunkortasuna bestela segurtatua ez duen gauza) atalbanatzearen bidez ez bada ere bere indarren pixkanakako ahitzeaz (remissio), eta beraz, ahulduraren bidez, adierazpen hau erabiltzea sori bazait, ezerezean eralda daiteke. Izan ere, kontzientzia berak ere beti du maila bat, beti ere gutxi daitekeen maila¹⁰⁵, eta ondorioz, baita norbere buruaz kontziente bihurtzeko ahalmenak ere, eta berdin gainerako ahalmen denek. – Beraz, arimaren iraunkortasunak, barneko sentsuaren objektu soil den aldetik, frogarik gabe dirau, eta frogaezina ere bada, nahiz eta bere iraunkortasuna bizitzan berez argia izan, zerizan pentsatzailea (gizakia den aldetik) aldi berean kanpoko sentsuen objektua baita; baina honek ez du gogobetetzen arimak bizitza ondoren duen iraunkortasun absolutua adigai soilen bitartez frogatzea saiatzen duen psikologo arrazionala¹⁰⁶.

Orain goragoko esakuneak bilkura *sintetikoan* hartzen baditugu, Psikologia arrazionalan hau sistema bat den aldetik zerizan pentsatzaile guztientzat baliogarritzat jo behar diren moduan, eta «zerizan pentsatzaile oro pentsatzailea den heinean substantzia da» esakunearekin erlazioaren kategoriatik atzerantz egiten badugu kategorien ilaran, harik eta zirkulua itxi arte, bada, orduan, azkenik, zerizan pentsatzaileen existentzia aurkitzen dugu, eta hauek sistema honetan kanpoko gauzetatik beregainki existentzia honetaz kontziente izan ez ezik, beren baitatik abiatuta ere determina dezakete (substantziaren izaerari halabarrez dagokion iraunkortasunari begira). Hemendik, ordea, zera ondorioztatzen da: sistema arrazionalistan ere *idealismoa* itzuriezina dela, idealismo problematikoa behinik behin, eta kanpoko gauzen izatea norberarena denboran determinatzeko beharrezkoa ez bada, hura ere alferrik onartzen dela, eta beraz, inoiz ezin dela bere frogarik eman.

Jardunbide *analitikoari* jarraitzen bagatzaizkio, ordea, bertan «nik pentsatzen dut» jadanik izate bat biltzen duen esakune gisa emana dagoela, eta beraz, modalitatea oinarrian datzala, eta esakunea analizatzen baldin badugu, bere edukia ezagutzearen, hots, ea eta nola determinatzen duen horren bitartez niak bere izatea espazioan edo denboran, bada, orduan

arimaren irakaspen arrazionalaren esakuneak ez lirateke oro har zerizan pentsatzaile baten adigaitik abiatuko, baizik errealtate batetik, eta hau pentsatzeko eratik bertan enpirikoa den guztia baztertu ondoren zerizan pentsatzaile bati oro har dagokiona ondorioztatzen da, datorren taulak erakusten duen legez:

	1.	
	«Nik pentsatzen dut»,	
2.	3.	
Subjektu gisa,	Subjektu bakun gisa,	
	4.	
	Subjektu identiko gisa,	
	nire pentsatzearen edozein egoeratan.	

Hemen, bigarren esakunean determinatzen ez denez gero ea ni subjektu gisa soilik eta ez beste baten predikatu gisa ere existi *naitekeen* eta nik pentsa *dezakedan*, orduan hemen subjektuaren adigaia logikoki besterik ez da hartzen, eta indeterminatua dirau ea honetaz substantzia aditu behar den ala ez. Halere, hirugarren esakunean garrantzitsua bihurtzen da bere baitan apertzepzioaren batasun absolutua, pentsatzea osatzen duen lotura edo banaketa oro lotzen zaion errepresentazioko nia bakuna, nahiz eta nik oraindik subjektuaren antolaeraz edo subsistentziaz ezer erabaki ez izan. Apertzepzioa zerbait erreala da, eta bere bakuntasuna jadanik bere ahalgarritasunean datza. Espazioan, ordea, ez dago bakuna den gauza errealik; izan ere, puntuak (espazioan bakuna den bakarra osatzen dutenak) muga soilak dira, baina ez zati gisa espazioa osatzeko baliagarria den zerbait. Beraz, hortik ondorioztatzen da *materialismoaren* oinarrietatik abiatuta nire antolaera argitzeko ezintasuna, subjektu pentsatzailea naizen aldetik. Nire izatea, ordea, lehenengo esakunean emandakotzat hartzen denez gero, halako zerizan bakoitza (zeinak aldi berean beharrezkotasun absolutua, eta beraz, beraiez gehiegi esango lukeen) existitzen dela ez, baizik ni pentsatzen *existitzen naizela* besterik adierazten ez duen heinean, orduan esakunea enpirikoa da eta nire izatearen determinagarritasuna besterik ez du barnebiltzen denborazko neure errepresentazioei dagokienez. Nik, ordea, honetarako berririo zerbait iraunkorra behar dudanez gero, barneko begiespenean ematen ez zaidan zerbait, neu pentsatzen naizen heinean, bada, orduan ezinezkoa gertatzen da autokontzientzia bakunaren bitartez nire existentzia-era determinatzea, dela substantzia gisa edo akzidente gisa. Beraz, *materialismoa* alferrikakoa baldin bada nire izatearen argipen-era gisa, orduan *espiritualismoa* ere horretarako askieza da, eta inferentziaren ondorioa da gure arimaren antolaeraz ezin dela oro har bere existentzia bereiztuaren ahalgarritasunari dagokion ezer ezagutu.

Eta nola izango litzateke ahalgarria esperientziaren ahalgarritasunerako ezinbestean behar izateagatik soilik ezagutzen dugun kontzientziaren batasunaren bitartez esperientziaz (gure izateaz bizitzan) goiti joatea, eta gainera, gure ezagutza oro harrezko zerizan pentsatzaile ororen izaerara hedatzea «nik pentsatzen dut» esakune enpirikoaren bitartez begiespen-era orori dagokionez, ordea, esakune indeterminatua denaren bitartez?

Ez dago, beraz, norbere buruaren ezagutza osatuko lukeen ezein Psikologia arrazionalik *irakaspen* gisa, baizik *diziiplina* gisa besterik ez, zeinak arrazoimen espekulatiboari alor honetan muga gaindiezinak ezartzen dizkion, alde batetik, arimarik gabeko materialismoaren altzoan ez erortzeko, bestalde, guretzat bizitzan oinarrigabekoa den espiritualismo gogoberoan ez galtzeko; aitzitik, gure arrazoimenak bizitza honetaz goiti doazen galdekizun begiluzeei erantzun gogobetegarria emateari egindako ukapena bere keinutzat hartu behar dugula oroitarazten digu, honela geure buruaren ezagutza espekulazio transzendente antzutik erabilera praktiko emankorrera gidatzeko, hots, beti esperientziaren objektuei soilik lotzen zaien arren, dena dela, bere printzipioak goragotik hartzen dituen eta jokaera gure determinazioa esperientziaz goiti amaigabeki urrun, eta beraz, bizitza honez goiti iritsiko balitz bezala determinatzen duen erabilerara.

Honetatik guztitik ikusten da Psikologia arrazionalak gaizki-ulertze soil batean duela jatorria. Kategorien oinarrian datzan kontzientziaren batasuna hemen subjektuaren begiespentzat hartzen da, hau objektua den aldetik, eta substantziaren kategoria aplikatzen zaio. Bera, ordea, *pentsatzearen* batasuna besterik ez da, eta honen bitartez soilik ez da objekturik ematen eta ezin zaio substantziaren kategoria aplikatu, zeinak beti *begiespen* jakin bat aurreuposatzen duen, eta beraz, subjektu hori inolaz ere ezin da ezagutu. Kategorien subjektuak ezin du bere buruaren adigai bat lortu kategoriak pentsatzearen bitartez, kategorien objektua balitz bezala; izan ere, hauek pentsatzeko bere autokontzientzia hutsa ezarri behar du oinarrian, hau izaki argitu behar zena. Era berean, denboraren errepresentazioak jatorriz oinarria subjektuan du eta honek ezin du horren bitartez denboran duen

izatea determinatu, eta azken hau gertatu ezin denean, orduan lehenengoa ere ezin da gertatu, kategorien bidezko norbere buruaren determinazio gisa (oro harrezko zerizan pentsatzailea den aldetik)¹⁰⁷.

* * *

Horrela, esperientzia ahalgarriaren mugez goiti bilatzen den eta gizatasunaren interes gorenari dagokion ezagutza itxaropen zapuztuan desagiten da, Filosofia espekulatiboari eskertu behar zaion heinean; hala eta guztiz ere, kritikaren zorroztasunak aldi berean esperientziaren objektu batez esperientziaren mugez goiti zerbait dogmatikoki erabakitzeke ezintasuna frogatzearen bitartez arrazoimenari bere interes praktikoko horretan garrantzi gutxikoa ez den zerbitzua egiten dio aurkakoaren baieztapen ahalgarri guztietatik babestuz; eta hau ezin da bere esakunea apodiktikoki frogatuz edo, hau ezinezkoa gertatzen denean, ahalmen eza honen iturburuak bilatuz baino gertatu, zeinek, baldin eta gure arrazoimenaren beharrezko zedarrien barnean badaude, aurkako denak baieztapen dogmatikoaren uzi ororen ukapenaren legeei menperatu behar dizkien.

Hala eta guztiz ere, honen bitartez ez da hemen geroko bizitzaren onarpenaren eskuduntzatik deus ere galtzen, ezta bere beharrezkotasunetik ere, erabilera espekulatiboarekin lotuta dagoen arrazoimen-erabilera praktikokoaren oinarri-esakuneei jarraiki; izan ere, froga espekulatiboak inoiz ezin izan zuen eduki eraginik giza arrazoimen arruntan. Hau halako sotiltasunetan oinarritzen da, ezen, eskolak hain luze atxikitzen badu, ziba baten gisara bere inguruan etengabe jirarazten duelako baita, eta eskolaren begientzat ere ez du oinarritzapen iraunkorrik ematen, honela bere gainean zerbait eraiki ahal izatearren. Munduarentzat erabilgarriak diren frogak beren balore gutxiagotugabeen diraute hemen eta, are gehiago, handiuste dogmatiko haien bazterketari esker argitasuna eta artifiziorik gabeko uste osoa lortzen dute, arrazoimena bere eremu berezian ezartzen duten heinean, hots, helburuen ordena, aldi berean izadiaren ordena dena, eta orduan, aldi berean zilegi zaio ahalmen praktikoko gisa helburuen ordena eta honekin batera gure existentzia propioa esperientziaren eta bizitzaren mugez goiti hedatzea bere baitan izadiaren ordenaren baldintzetara zedarriztatua izateko beharrik gabe. Mundu honetako zerizan bizidunen *izaerarekin analogian*, zeinengan arrazoimenak halabeharrez oinarri-esakunetzat hartu behar duen juzgatzerakoan organorik, ahalmenik, bultzadarik, eta beraz, ezer ezin dela aurkitu utzigarria edo erabileran proportziogabea, eta beraz, helburugabea denik, baizik dena bizitzan duen determinazioari zuzenki egokitzen zaiola, bada, orduan honen guztiaren azken helburua bere baitan barnebil dezakeen gizakiak sorkarien arteko salbuespen bakarra izan beharko luke. Izan ere, bere berezko joerek, ez talentu eta bultzaden arabera hauek erabiltzeko, baizik bereziki beregan dagoen lege moralak, hainbeste gaintitzen dituzte gizakiak bizitzan hortik lor dezakeen onura eta abantaila oro, ezen lege moralak jarrera moralaren zuzentasunaren kontzientzia soil guztiaren gainetik estimatzen irakasten baitio, baita abantaila guztien gabezia ere, eta hil osteko ospearen hutsaltasunaren gainetik ere bai, eta abantaila asko utziz mundu honetan duen jokaeraren bidez ideian duen mundu hobeago baten hiritarra bihurtzeko deia sentitzen du. Inoiz kontraesan ezin daitekeen froga-oinarri boteretsu honek oraindik ere beti dirau, honi gure aurrean dakusagun guztiaren helburutasunaren ezagutza etengabeki gehigarriak eta sorkuntzaren neurrigabetasunaren ikuspegiak, eta beraz, gure ezagutzen hedapen ahalgarriaren mugagabetasun jakin baten kontzientziak lagun egiten diola, ezagutza hauei egokitzen zaien joera batekin batera, nahiz eta berehala baztertu behar dugun gure existentziaren beharrezko iraupena norbere buruaren ezagutza teoretiko soilaren bidez aditzeko asmoa.

Paralogismo psikologikoaren konponketaren ebazpena

Psikologia arrazionalan gertatzen den itxura dialektikoa arrazoimenaren ideia (intelligentzia huts batena) eta oro har atal guztietan indeterminatua den zerizan pentsatzailearen adigaiaren arteko nahasketan funtsatzen da. Ni neu pentsatzen naiz esperientzia ahalgarri baten mesedetan, esperientzia erreal oroz abstraitzen dudan heinean, eta bertatik inferitzen dut esperientzia eta bere baldintza enpirikoetatik at ere neure existentziaz kontziente izan naitekeela. Ondorioz, enpirikoki determinatuta dagoen nire existentziaren *abstrakzio* ahalgarria neure Norbera pentsatzailearen *bakartutako* existentzia ahalgarriaren ustezko kontzientziarekin nahasten dut, eta nigan substantziala dena subjektu transzendental gisa *ezagutzen* dudala uste dut, determinatze ororen oinarrian dagoen kontzientziaren batasuna besterik ez dudanean pentsamenduan ezagutzaren forma soil gisa.

Arimak gorputzarekin duen komunitatea argitzeko eginkizuna ez dagokio benetan hemen solasgaia den Psikologiari, zeren honek arimaren pertsonatasuna komunitate horretik at ere frogatzeko asmoa baitu (heriotzaren ondoren), eta beraz, benetako adieran *transzendentea* baita, nahiz eta esperientziaren objektu batez jarduten duen, esperientziaren objektu izateari uzten dihonean besterik ez bada ere. Beraz, honi ere erantzun gogobetegarria eman diezaiokegu gure irakatsiari jarraiki. Eginkizun hau sortu duen zailtasuna barneko sentsuaren (arimaren) objektuaren eta kanpoko sentsuen objektuen artean aurreuposatzen den homogeneousutasun eza da, ezaguna denez, zeren haiei denbora besterik ez, baina hauei gainera espazioa ere atxikitzen baitzaie begiespenaren baldintza formal gisa. Hala ere, aintzat hartzen bada bi eratako objektuak hemen barnean ez direla bereizten, baizik bata besteari kanpoan agertzen zaion heinean besterik ez, eta beraz, materiaren agerpenaren oinarrian berbaitango gauza gisa datzana agian hain inhomogeneoa ez litzatekeela, orduan zailtasun hori desagertzen da, eta substantzien komunitatearen zailtasuna izan ezik, gainerako zailtasunik ez da geratzen, eta hau konpontzea erabat Psikologiaren arlotik at geratzen da, eta giza ezagutza ororen alorretik at geratzen da era berean batere ezbairik gabe, irakurleak oinarritzko indarren eta ahalmenen Analitikan esan denaren arabera erraz juzgatuko duen bezala.

Ohar orokorra

Psikologia arrazionaletik Kosmologiarako igarobideaz

«Nik pentsatzen dut», edo «ni pentsatzen existitzen naiz», esakunea esakune enpirikoa da. Halako baten oinarrian, ordea, begiespen enpirikoa, eta ondorioz, aipatutako objektua datza agerpen gisa, eta badirudi gure teoriaren arabera arima agerpenean eraldatu dela guztiz, baita pentsatzen duenean ere, eta honela, gure kontzientzia bera itxura soila den aldetik egitatean ezerezari lotu behar zaiola.

Pentsatzea bere baitan hartuta funtzio logiko soila da, eta beraz, begiespen ahalgarri soilaren anizkunkiaren loturaren berezkotasun soila, eta ez du inolaz ere kontzientziaren subjektua aurkezten agerpen gisa, hain zuzen, begiespenaren eraz deus ere ez delako arduratzeko: ea sentsuzkoa ala intelektuala ote den. Horren bitartez ez naiz aurkezten, ez ni naizen moduan, ezta neure buruaren aurrean agertzen naizen moduan ere, baizik oro har bere begiespenaren eraz abstraitu dudana edozein objektu gisa pentsatzen naiz. Hemen neure burua pentsamenduen *subjektu* gisa edo pentsatzearen *oinarri* gisa aurkezten baldin badut, orduan errepresentazio-era hauek ez dute adierazten substantziaren kategoria, edo kausarena, izan ere, hauek jadanik sentsuzko begiespenari aplikatutako pentsatzearen (juzgatzearen) funtzio haiek dira, eta begiespen hau beharrezkoa litzateke, noski, ni neu *ezagutu* nahiko banintz. Pentsatzailea naizen aldetik soilik izan nahi badut, ordea, neure buruaz kontziente, alde batera uzten dut Neure Burua begiespenean nola ematen den, eta orduan, pentsatzen duen nia niretzat agerpen soila izan zitekeen, baina ez nik pentsatzen dudana heinean; pentsatze soileko Norberaren kontzientzian ni *zerizan bera* naiz, baina, noski, horren bitartez ez zaio ezer eskuratzen nire pentsatzeari.

«Nik pentsatzen dut» esakuneak, «*ni pentsatzen existitzen naizela*» dioen heinean, ezin du funtzio logiko soila izan, baizik subjektua (aldi berean objektua dena) determinatzen du existentziari begira, eta ezin da barneko sentsurik gabe gertatu, zeinaren begiespenak beti objektua ematen duen eskura, berbaitango gauza gisa ez, baina agerpen gisa. Bertan pentsatzearen berezkotasun soila ez ezik, begiespenaren harmena ere badago, h. d., neure buruaren pentsatzea subjektu berberaren begiespen enpirikoari aplikatuta. Azken honetan, hain zuzen, Norbera pentsatzaileak bere funtzio logikoen erabileraren baldintzak bilatu behar ditu kategorietarako, substantzia, kausa, eta abar, honela norbera berbaitango objektu gisa niaren bitartez ezaugarritu ez ezik, gainera bere izatearen era determinatzearen, h. d., bera noumeno gisa ezagutzearen, ezinezkoa dena, ordea, barneko begiespen enpirikoa sentsuzkoa den heinean eta eskura agerpenaren datuak baino ematen ez dituen heinean, hots, *kontzientzia hutsaren* objektuari bere existentzia bananduaren ezagupenerako ezer eskuratzen ez dioten datuak, baizik esperientziaren mesedetan soilik izan daitezkeenak baliagarriak.

Demagun jarraian, ordea, esperientzian ez baina a priori finkatutako eta gure existentziari dagozkion arrazoimen-erabilera hutsaren lege jakinetan (ez erregela logiko soiletan) geu a priori gure *izatearen arabera lege-emaille* gisa eta existentzia hau ere determinatzaile gisa aurreuposatzeko aukera bat legokeela, legokeela, bada, orduan horren bitartez gure errealtatea determinagarria bihurtuko lukeen berezkotasun bat aurkituko litzateke horretarako begiespen enpirikoaren baldintzarik behar izan gabe; eta orduan, gure izatearen kontzientzian a priori zerbait barnebiltzen dela ohartuko genuke, hots, osoro sentsuen

arabera soilik determinagarria den gure existentzia barneko ahalmen jakin bati begira mundu inteligible bati dagokionez determinatzeko erabilgarria izan daitekeen zerbait (noski, mundu pentsatua besterik ez denari dagokionez).

Hala eta guztiz ere, honek ez lituzke Psikologia arrazionalaren saialdi guztiak urrats bat bera ere bultzatuko aurrerantz. Izan ere, lege moralaren kontzientziak lehen-lehenik agerrarazten didan ahalmen harrigarri haren bitartez nire existentziaren determinazioaren printzipioa izango nuke, intelektuala besterik ez den printzipioa; baina, zein predikaturen bitartez? Sentsuzko begiespenean eman behar zaizkidanen bitartez baino ez, eta horrela, Psikologia arrazionalan nengoen egoerara itzultzen naiz berriro, hots, sentsuzko begiespenen premia izatera nire adimenaren adigaiei, substantzia, kausa, eta abarrei esanahia ematearren, hauen bitartez soilik lor baitezaket neure buruaren ezagutza; begiespen haiek, ordea, inoiz ezin naute esperientziaren alorraz goiti joaten lagundu. Hala ere, zilegi litzaidake adigai hauek, dena dela, askatasunari eta bere subjektuari aplikatzea, beti ere esperientziaren objektuen arabera dabilen erabilera praktikoari dagokionez, erabilera teoretikoan duten esanahi analogikoari jarraiki, horretaz subjektua eta predikatua, oinarria eta ondorioaren funtzio logikoak soilik ulertzen ditudan heinean, zeinen arabera ekintzak edo eraginak lege haiei jarraiki honela determinatzen diren: izadiaren legeekin batera aldi berean substantziaren eta kausaren kategorien arabera argituak izan daitezkeela, guztiz bestelako printzipiotik sortu diren arren. Hau esan behar zen norbere begiespenaren irakaspenak bera agerpena den aldetik erraz izan ditzakeen gaizki-ulertzeak saihestearren. Ondoren hau erabiltzeko aukerarik izango dugu¹⁰⁸.

Substantziatasunaren lehen paralogismoa

Zerbaiten errepresentazioa gure judizioen *subjektu absolutua* bada eta horregatik beste gauza baten determinazio gisa ezin erabil badaiteke, orduan gauza hori *substantzia* da.

Ni zerizan pentsatzailea naizen aldetik nire judizio ahalgarri guztien *subjektu absolutua* naiz eta neure buruaren errepresentazio hau ezin da beste gauzaren baten predikatu gisa erabili.

Beraz, ni zerizan pentsatzailea (arima) naizen aldetik *substantzia* naiz.

Psikologia hutsaren lehen paralogismoaren kritika

Logika transzendentalaren zati analitikoan erakutsi dugu kategoria hutsek (eta hauen artean era berean substantziarenak) beren baitan ezein esanahi objektiborik ez dutela, baldin eta begiespen batek sustatzen ez baditu, horrela honen anizkunkiari aplikatu ahal izateko batasun sintetikoaren funtzio gisa. Sustapen hau gabe edukirik gabeko judizio baten funtzio soilak dira. Oro harrezko edozein gauzaz esan dezaket substantzia dela, gauzen predikatu eta determinazio soiletatik bereizten dudana heinean. Gure pentsatze orotan, ordea, *nia* pentsamenduak determinazio gisa soilik atxikitzen zaizkion subjektua da, eta nia hau ezin da beste gauza baten determinazio gisa erabili. Beraz, edonork bere burua halabeharrez substantziatzat hartu behar du; pentsatzea, berriz, bere izatearen akzidentetzat eta bere egoeraren determinaziotzat besterik ez.

Nola erabili behar dut, ordea, substantziaren adigai hau? Bertatik ezin dut inolaz ere inferitu, zerizan pentsatzailea naizen heinean, berez *irauten* dudala, ez naizela ez *sortzen* ezta *iraungitzen* ere berezko eran, baina horretarako soilik izan dakidake onuragarria nire subjektu pentsatzailearen substantziatasunaren adigaia, eta onura honen gabezia adigai hau ederki utz nezake alde batera.

Hain urruti gaude berekitasun hauek substantzia baten kategoria huts soiletik inferitu ahal izateko, ezen, aitzitik, esperientziatik hartutako objektu jakin baten iraunkortasuna ezarri behar baitugu oinarrian, baldin eta honi enpirikoki erabilgarria den *substantziaren* adigaia aplikatu nahi badiogu. Gure esakunearen oinarrian ez dugu, ordea, ezein esperientziarik ezarri, baizik eta pentsatze orok niarekin, hots, hura atxikitzen zaion subjektu komunarekin duen harremanaren adigaitik inferitu dugu. Ahaleginduz gero ere, ezingo genuke ezein behaketa segururen bitartez halako iraunkortasunik frogatu. Izan ere, nia pentsamendu orotan dago; errepresentazio honi, ordea, ez zaio bera begiespenaren beste objektuetatik bereiziko lukeen ezein begiespenik lotzen. Errepresentazio hori pentsatze orotan beti berriro ere agertzen dela hauteman daiteke, ez, ordea, begiespen egonkorra eta geldikorra denik, bertan pentsamenduak aldatzen direlarik (aldakorrak diren aldetik).

Hemendik zera ondorioztatzen da: Psikologia transzendentaleko lehen arrazoimen-inferentziak ustezko ikuskera berria soilik eskaintzen digula, pentsatzearen subjektu logiko jarraikorra inherentiaren subjektu errealaren ezagutzatzat jotzen duen heinean, honetaz egiatan ezagupenik ez dugunean, ezta izan ahal dugunean ere, kontzientzia baita errepresentazio guztiak pentsamendu bihurtzen dituen bakarra, eta bertan egon behar baitute, subjektu transzendentala den heinean, gure hautemapen guztiak, eta niaren esanahi logiko horretatik at ez daukagu subjektuaz bere baitan beste ezagupenik, hots, bere oinarrian eta pentsamendu guztien oinarrian substratum gisa datzan subjektuaz. Dena dela, «*arima substantzia da*» esakunea onar dezakegu, baldin eta honekin aski badugu: gure adigai honek ez duela inolaz ere aurrerantz gidatzen, edo ezin dezakeela arimaren irakaspen sofistikoaren ohiko ondorioztapenetako bat bera ere irakatsi, adibidez, arimaren betiko iraupena aldaketa guztien zehar, baita gizakia hil ostean ere, eta beraz, adigaiak substantzia ideian soilik ezaugarritzen duela, baina ez errealitatean.

Sinpletasunaren bigarren paralogismoa

Zerbaiten ekintza inoiz gauza ekile anizkunen konkurrentziatzat hartu ezin badaiteke, orduan gauza hori *bakuna* da.

Baina arima, edo nia pentsatzailea, halakoa da.

Beraz, eta abar.

Psikologia transzendentalaren bigarren paralogismoaren kritika

Hau da arimaren irakaspen hutsaren inferentzia dialektiko guztien Akilesa, hots, dogmatiko batek bere baieztapenei itxurazkotasun arin bat ematearren asmatutako jolas sofistiko soila izateaz gain etsamina zorrotzenari eta ikerkuntzaren zehaztasun handienari aurka egiten diela dirudien inferentzia. Honako hau da.

Elkarketazko substantzia bakoitza substantzia askoren agregatua da, eta elkartuki baten ekintza, edo elkartuki gisa atxikitzen zaiona, substantzien kopuruaren artean banatuta dauden ekintza edo akzidente askoren agregatua da. Hortaz, substantzia ekile askoren konkurrentziatik sortzen den efektua ahalgarria da, eragin hori kanpoko besterik ez bada (adibidez, gorputz baten higidura bere zati guztien higidura bateratua den bezala). Baina bestela gertatzen da pentsamenduekin, zerizan pentsatzaileari barnean dagozkion akzidenteak diren heinean. Izan ere, elkartukiak pentsatuko lukeela onartzen baldin badugu, orduan bere zati bakoitza pentsamenduaren zati bat litzateke, baina denak batera hartuta barnebilduko lukete pentsamendu osoa lehen-lehenik. Hau, ordea, kontraesankorra da. Izan ere, hainbat zerizanen artean banatuta dauden errepresentazioek (adibidez, bertso bateko banako hitzak) ez dutenez inoiz pentsamendu oso bat (bertsoa) osatzen, orduan pentsamendua ezin zaio elkartuki bati atxiki elkartukia den heinean. Beraz, pentsamendua substantzia askoren agregatua ez den substantzia *bakar* batean izan daiteke, eta beraz, erabat bakuna den substantzian¹⁰⁹.

Argumentu honen nervus probandi-a esakune honetan datza: «errepresentazio askok egon behar dute subjektu pentsatzailearen batasun absolutuan barnebilduak, pentsamendu bat osatzearren». Esakune hau, ordea, ezin du inork *adigaietatik* abiatuta frogatu. Izan ere, nola hasi nahiko luke eginkizun hau? «Pentsamendu bat zerizan pentsatzailearen batasun absolutuaren efektua da» esakunea ezin da analitikotzat jo. Izan ere, errepresentazio askoz osatzen den pentsamenduaren batasuna batasun kolektiboa da, eta adigai soilei jarraiki, bai bertan batera eragiten duten substantzien batasun kolektiboari (gorputz baten higidura bere zati guztien elkarketazko higidura den bezala), baita subjektuaren batasun absolutuari ere lot dakieke. Identitatearen erregelaren arabera, beraz, ezin da aditu elkarketazko pentsamendu batean substantzia bakun bat auresuposatzeko beharrezkotasuna. Gorago aurkeztu dugun apriorizko esakune sintetikoaren ahalgarritasunaren oinarria ulertu duen inor ez da ausartuko, ordea, esakune bera sintetikoa dela eta a priori adigai soiletatik abiatuta ezagutu behar dela esateko erantzukizuna beregain hartzera.

Ezinezkoa da era berean, ordea, subjektuaren beharrezko batasun hori esperientziatik eratortzea, pentsamendu bakoitzaren ahalgarritasunaren baldintza den heinean. Izan ere, honek ez digu beharrezkotasunik ezagutarazten, eta gainera, batasun absolutuaren adigaia bere esfera baino askoz gorago dago. Nondik hartzen dugu, bada, arrazoimen-inferentzia psikologiko osoa sustatzen duen esakune hau?

Nabarmena da zerizan pentsatzailea errepresentatu nahi denean norbera jarri behar dela bere lekuan, eta beraz, kontsideratu nahi den objektua subjektu propioaz ordezkatu behar dela (ikerkuntzaren beste ezein kasutan gertatzen ez dena), eta nabarmena da pentsamendu bat izateko subjektuaren batasun absolutua eskatzen dugula, bestela ezingo bailitzateke esan: «nik pentsatzen dut» (anizkunkia errepresentazio batean). Izan ere, pentsamenduaren osokia zatitua balego eta subjektu anizkunen artean banatuko balitz ere, nia subjektiboa ezin da zatitua eta banatua izan, eta hau pentsatze orotan auresuposatzen dugu.

Beraz, hemen ere, aurreko paralogismoan gertatzen den legez, «*nik pentsatzen dut*» apertzepzioaren esakune formalak dirau Psikologia arrazionalak bere ezagutzen hedapena egitera ausartzeko duen oinarri osoa, eta esakune hau, noski, ez da ezein esperientziarik, baizik eta esperientzia orori atxikitzen zaion eta bere aurretik doan apertzepzioaren forma, nahiz beti oro har ezagutza ahalgarritzat hartzen den bere *baldintza subjektibo soil* gisa, zeina guk arrazoirik gabe objektuen ezagutzaren ahalgarritasunaren baldintza bihurtzen dugun, hots, zerizan pentsatzailearen *adigaia* oro har, hau ezin baitugu errepresentatu, gure kontzientziaren formularekin beste zerizan inteligible bakoitzaren lekuan jarri ezean.

Hala ere, neure buruaren (arima naizen aldetik) bakuntasuna ez da benetan «nik pentsatzen dut» esakunetik *inferitzen*, baizik pentsamendu bakoitzean datza. «*Ni bakuna naiz*» esakunea apertzepzioaren adierazpen zuzen gisa ikusi behar da, «cogito, ergo sum» ustezko inferentzia kartesiarra egitatean tautologikoa den bezala, cogito-ak (sum cogitans) errealitatea zuzenki adierazten duen heinean. «*Ni bakuna naiz*» esakuneak hau besterik ez du esan nahi: *nia* errepresentazio honek anizkuntasunik ez duela jasotzen bere baitan eta batasun absolutua dela (batasun logikoa baino ez izan arren).

Beraz, froga psikologiko hain sonatua errepresentazio baten batasun zatiezinean soilik oinarritzen da, aditza besterik gidatzen ez duen errepresentazioan pertsona bati begira. Nabarmena da, ordea, inherentziaren subjektua pentsamenduari atxikitako niaren bitartez transzendentalki soilik ezaugarri daitekeela bere berekitasunik ohartu gabe edo honetaz oro har ezer ezagutu edo jakin gabe. Oro harrezko zerbait (subjektu transzendentala) esan nahi du, zeinaren errepresentazioak, dena dela, bakuna izan behar duen, zeren bertan ezer ez baita determinatzen; izan ere, Zerbait soilaren adigaiaren bitartez errepresentatzen dena baino ezer bakunagorik ezin daiteke errepresentatu. Subjektu baten errepresentazioaren bakuntasuna ez da horregatik subjektuaren bakuntasunaren ezagutza, izan ere, guztiz abstraitzen da bere berekitasunez edukiari dagokionez guztiz kaskala den «nia» adierazpenaren bitartez soilik ezaugarritzen denean (subjektu pentsatzaile orori aplikatu diezaiokean adierazpena).

Ziurra da nik niaren bitartez beti subjektuaren batasun absolutua pentsatzen dudala (bakuntasuna), logikoa den arren, ez, ordea, horren bitartez nire subjektuaren benetako bakuntasuna ezagutzen dudarik. «Ni substantzia naiz» esakuneak kategoria hutsa soilik esan nahi du, in concreto (enpirikoki) erabili ezin dudan kategoria, eta era berean zilegi zait esatea: «substantzia bakuna naiz, h. d., bere errepresentazioak inoiz anizkunkiaren sintesia barnebiltzen ez duen substantzia»; baina adigai honek, edo esakune honek, ez digu deus ere irakasten geure buruari buruz esperientziako objektuak garen aldetik, zeren substantziaren adigaia bera sintesiaren funtzio gisa soilik erabiltzen baita sustatzen duen begiespenik gabe, eta beraz, objekturik gabe, eta orduan, gure ezagutzaren baldintzarako balio du, baina ez aipa daitekeen objekturen baterako. Saialdi bat egin nahi dugu esakune honen ustezko erabilgarritasunari buruz.

Edonork aitortu behar du arimaren izaera bakunaren baieztapenak balioa duela, baldin eta horren bitartez subjektu hau materiak bereizi, eta ondorioz, bera materiak beti jasaten duen iraungipenetik aska badezaket. Erabilera honetaz arduratzen da benetan aurreko esakunea, eta horregatik, sarri honela adierazten da: «arima ez da gorpuzduna». Nik erakuts badezaket, ordea, arimaren irakaspen arrazionalaren errotiko esakune honi baliotasun objektibo oro onartzen bazaio arrazoimenaren judizio soil baten esanahi hutsean (kategoria hutsetatik), hala ere, ezin dela esakune honen erabilerarik egin bere homogeneousutasun ezaz edo materiarekin duen kidetasunaz, orduan ustezko ikuskera psikologiko hau erabilera objektiboaren errealitate-gabezia duten ideia soilen alorrera bidaliko banu bezala izango litzateke.

Estetika transzendentalean modu ukaezinean frogatu dugu gorputzak gure kanpoko sentsuaren agerpen soilak direla, ez berbaitango gauzak. Honi jarraiki bidezki esan dezakegu gure subjektu pentsatzailea ez dela gorpuzduna, hau da, barneko sentsuaren objektu gisa errepresentatzen dugunez gero, orduan, pentsatzen duen heinean, ezin duela izan kanpoko sentsuen objekturik, h. d., ezin dela izan espazioan dagoen agerpenik. Honek hau adina esan nahi du: ezin ditugula inoiz zerizan pentsatzaileak kanpoko agerpenen artean aurkitu haiek *pentsatzaileak diren aldetik*, edo guk ezin ditugula beren pentsamenduak, kontzientzia, grinak, eta abar, kanpotik begietsi; izan ere, hau dena barneko sentsuari dagokio. Egitatean, argumentu hau berezkoa eta herritarra da, eta itxuraz adimen arruntaren ere aspalditik ezaguna zaio, eta horregatik goizik hasi izan ziren kontsideratzen arimak gorputzetatik erabat ezberdinak diren zerizanak direla.

Hortaz, nahiz eta hedadura, sarrezintasuna, kohesioa eta higidura, labur esanda, kanpoko sentsuek eman ahal diezaguketen dena, pentsamendurik, sentimendurik, joerarik edo erabakirik ez bada, edo kanpoko begiespenen objektuak ez diren haiek barnebiltzen ez badituzte ere, dena dela, kanpoko agerpenen oinarrian datzan Zerbait hura, hots, gure barneko sentsua halako moldez afektatzen duen zerbait, non honek espazioa, materia, tankera, eta abarren errepresentazioak lortzen baititu, bada, noumeno gisa kontsideratuta (edo hobeto, objektu transzendentala gisa) aldi berean pentsamenduen subjektua izan liteke, nahiz eta gure kanpoko begiespena afektatua izateko eraren bitartez errepresentazioaren, nahimenaren eta abarren ezein begiespenik ez lortu, baizik espazioa eta bere determinazioena besterik ez. Zerbait hau, ordea, ez da hedatua, ez da sarrezina, ez da elkarketazkoa, zeren predikatu haiek sentimenarekin eta bere begiespenarekin soilik baitute zerikusia, halako (gainerakoan guretzat ezezagunak diren) objektuetatik afektatuak garen heinean. Adierazpen hauek, ordea, ez digute aditzera ematen zein objektu den, baizik, kanpoko sentsuekin harremanik gabe bere baitan kontsideratzen den zerbait den aldetik, kanpoko agerpenen predikatu haiek ezin zaizkiola egotzi besterik ez. Guztiarekin ere, barneko sentsuen predikatuek, errepresentazioek eta pentsatzeak ez dute kontraesaten. Horrenbestez, bere izaeraren bakuntasuna onartu arren, giza arima ez

da askiro bereizten materiatic honen substratuari dagokionez, materia agerpen soil gisa kontsideratzen bada (egin behar den legez).

Materia berbaitango gauza balitz, orduan elkarketazko zerizan gisa erabat bereiziko litzateke arimatik, hau zerizan bakuna den aldetik. Kanpoko agerpena besterik ez da, ordea, eta bere substratua aipa daitekeen ezein predikaturen bitartez ez da ezagutzen; eta beraz, bere baitan bakuna dela suposa dezaket, nahiz eta gure sentzuak afektatzeko duen erak gudan hedatukiaren, eta beraz, elkartukiaren begiespena sortu; eta beraz, kanpoko sentzuari dagokionez, hedadura egozten zaion substantzian bere baitan bere barneko sentzu propioaren bitartez kontzientzia izanez errepresenta daitezkeen pentsamenduak daude. Honela, harreman batean gorpuzduna dena beste batean aldi berean zerizan pentsatzailea da, eta honen pentsamenduak ezin ditugu begietsi, baina bai honen aztarnak agerpenean. Horren bitartez, arimek soilik (substantziaren era bereziak diren heinean) pentsatzen dutela dioten adierazpena desagertuko litzateke; aldiz, ohiko moduan gizakiek pentsatzen dutela esango litzateke, h. d., kanpoko agerpen gisa hedatua eta barnean (bere baitan) subjektua denak, elkarketazkoa ez, baizik bakuna denak eta pentsatzen duenak.

Hala ere, honelako hipotesirik onartu gabe ere honakoa oharrarazi daiteke eskuarki: arimaz berbaitango zerizan pentsatzailea ulertzen baldin badut, orduan bere baitan desagokia litzateke ea hau materiaren (zeina ez den ezein berbaitango gauzarik, baizik gure errepresentazio-era bat soilik) era berekoa den ala ez den galdetzea; izan ere, berez ulertzen da berbaitango gauzak ez duela bere egoera soilik determinatzen duten determinazioen izaera bera.

Nia pentsatzailea, ordea, materiarekin ez, baina materia deitzen diogun kanpoko agerpenaren oinarrian datzan zera inteligiblearekin alderatzen baldin badugu, orduan ezin dugu esan arima barnean honetatik gutxienean ere bereizten denik, azken honetaz ezer ez dakigunez gero.

Hainbestez, kontzientzia bakuna ez da gure subjektuaren izaera bakunaren ezagupenik, hau horren bitartez materiatic bereiztu behar den heinean, hau elkarketazko zerizana den aldetik.

Adigai honek, ordea, bera erabilgarria den kasu bakarrean balio ez badu, hots, neure burua *kanpoko* esperientziarekin alderatzen dudanean, honela bere izaeraren alde berezia eta bereizgarria determinatzearen, orduan beti ere zera jakitea aldarrika dezaket: nia pentsatzailea arima (barneko sentzuaren objektu transzendentalaren izena) bakuna dela; adierazpen honek ez dauka, horregatik, objektu errealekara zabaltzen den erabilerririk, eta beraz, ezin du gure ezagutza inolaz ere hedatu.

Hainbestez, Psikologia arrazional osoa erortzen da bere zutabe nagusiarekin batera, eta hemen bezain gutxi itxaron dezakegu edonoiz adigai soilen bitartez esperientzia ahalgarriarekin harremanik gabe ikuskera hedatzea (are gutxiago gure adigai guztien forma subjektibo soilaren bitartez, kontzientziaren bitartez), bereziki *izaera bakun* baten oinarritzko adigai bera ezein esperientzian ezin aurki daitekeen erakoa delako, eta beraz, bertara iristeko biderik ez dagoelako adigai objektiboki baliogarri gisa.

Pertsonatasunaren hirugarren paralogismoa

Denbora ezberdinetan bere zenbaki-identitateaz kontziente dena, hainbestez, *pertsona* da.

Baina arima eta abar.

Beraz, arima pertsona bat da.

Psikologia transzendentalaren hirugarren paralogismoaren kritika

Kanpoko objektu baten zenbaki-identitatea esperientziaren bidez ezagutu nahi badut, orduan agerpen horren iraunkorkia hartu beharko dut aintzat, zeinari, subjektua denez, gainerako guztia lotzen zaion determinazio gisa, eta iraunkorkiak denboran duen identitatea oharrarazi beharko dut determinazioak aldatzen diren bitartean. Ni, ordea, barneko sentsuaren objektua naiz eta denbora oro barneko sentsuaren forma soila da. Ondorioz, nire determinazio jarraitu oro eta bakoitza zenbaki-identitatea duen Norberari lotzen diot denbora orotan, h. d., nire buruaren barneko begiespenaren forman. Oinarri honekin, arimaren pertsonatasuna inoiz ere ez litzateke inferitutzat hartu beharko, baizik denboran osoki identikoa den autokontzientziaren esakunetzat, eta arrazoi honegatik balio du a priori. Izan ere, nitaz kontziente naizen denbora guztian denbora hau nire batasunari egokitzeaz kontziente naizela besterik ez du esaten benetan esakuneak, eta gauza bera da «denbora hau guztia Nigan dago banakako batasuna naizen aldetik» esatea edo «ni denbora orotan zenbaki-identitatea izanez aurkitzen naiz» esatea.

Pertsonaren identitatea, beraz, ezinbestean aurkitzen da nire kontzientzia propioan. Ni beste baten ikuspuntutik kontsideratzen banaiz (bere kanpoko begiespenaren objektu gisa), ordea, kanpoko behatzaile horrek *ni* lehen-lehenik *denboran* kontsideratzen nau, izan ere, apertzepzioan *denbora* benetan *nigan* soilik errepresentatzen baita. Beraz, errepresentazio orori denbora orotan nire kontzientzian eta gainera identitate osoz lagun egiten dien niatik abiatuta ez da oraindik neure buruaren iraunkortasun objektiboa inferitzen, hau onartu arren. Izan ere, behatzaileak denbora batean ezartzen nauenez, baina hau ez denez nire sentimenean dagoena, berean dagoena baizik, orduan nire kontzientziarekin halabeharrez lotuta dagoen identitatea ez dago horregatik berearekin lotuta, h. d., ez dago nire subjektuaren kanpoko begiespenarekin lotuta.

Beraz, Neure buruaren kontzientziaren identitatea denbora ezberdinetan nire pentsamenduen eta beren bilkuraren baldintza formala besterik ez da, baina honek ez du frogatzen nire subjektuaren zenbaki-identitatea, zeren honek hainbeste aldakuntza izan baititzake, niaren identitate logikoa izan arren, ezen honek ez baitu baimentzen bere identitatea gordetzerik, nahiz eta beti hots berbera duen nia atxiki ahal zaion, zeinak beste edozein egoeratan, baita subjektuaren eraldaketan ere, aurreko subjektuaren pentsamendua gorde dezakeen eta hurrengoari igor diezaiokeen¹⁰.

Dena *jariakorra* dela eta munduan *iraunkorra* eta geldikorra den ezer ez dagoela dioen antzinako eskola batzuen esakunea substantziak onartu ahala ezinezkoa gertatzen bada ere, dena dela, ez da autokontzientziaren batasunaren bitartez errefusatzeko. Izan ere, geuk ezin dugu juzgatu geure kontzientziatik abiatuta ea arimak garen aldetik iraunkorrak garen ala ez, zeren gure Norbera identikoan kontzientzian jaso dezakeguna soilik onartzen baitugu, eta horrela, dena dela, halabeharrez juzgatu behar dugu: gutaz kontziente garen denbora guztian berberak garela. Beste baten ikuspuntutik, ordea, ezin dugu hau oraindik baliogarritzat adierazi, zeren ariman ezein agerpen iraunkorrik aurkitzen ez dugunez gero, nia errepresentazioa izan ezik, orduan inoiz ezin baitugu erabaki ea nia hau (pentsamendu soila) ez ote den jariatzen, berak elkar kateatzen dituen gainerako pentsamenduak jariatzen diren bezala.

Bitxia da, ordea, pertsonatasuna eta bere auresuposizioa den iraunkortasuna, eta beraz, arimaren substantziatasuna *orain* frogatu behar izatea *lehen-lehenik*. Izan ere, hau auresuposatu izan bagenu, orduan hortik ez litzateke oraindik kontzientziaren iraupena ondorioztatuko, baina bai kontzientzia iraunkor baten ahalgarritasuna, bere eragina denbora tarte batean mozteagatik berehala geratzen ez den moduko pertsonatasunerako aski dena. Iraunkortasun hau, ordea, ez zaigu inolaz ere emana apertzepzio identikotik ondorioztatzen dugun geure buruaren zenbaki-identitatearen aurretik, baizik hortik ondorioztatzen da lehen-lehenik (eta zuzenki jokatzu gero, honi enpirikoki soilik erabilgarria den substantziaren adigaia jarraiki beharko litzaioke lehen-lehenik). Pertsonaren identitate hori ni ezagutzen naizen denbora guztiko kontzientzian niak duen identitatetik ondorioztatzen ez denez gero, orduan gorago arimaren substantziatasuna ere ezin izan zen bertan oinarritu.

Dena dela, pertsonatasunaren adigaia gorde daiteke, substantziaren eta bakunkiaren adigaiak gordetzen diren bezala (transzendental besterik ez den heinean, h. d., subjektuaren batasuna, bestalde guri ezezaguna zaiguna, baina bere determinazioetan apertzepzioaren bidezko elkarlotura osoa duena), eta hein horretan adigai hau erabilera praktikorako ere beharrezkoa eta askigarria da, baina adigai hau bere inguruan jiratzen denez eta berak ezagutza sintetikoa ukitzen duen galdekizun bakar batean ere laguntzen ez digunez gero, orduan ezin dugu inoiz arrazoimen hutsaren bidezko norbere ezagutzaren hedapen gisa aurkeztu arrazoimenak subjektuaren aurrerapen etengabea islatzen duen Norbera identikoaren adigai soiletatik abiatuta. Erabat ezezaguna zaigu ea materia zer ote den berbaitango gauza gisa (objektu transzendental); hala eta guztiz ere, bere iraunkortasuna beha daiteke, agerpena den aldetik, kanpoko zerbait gisa errepresentatzen den heinean. Hala ere, nia soila errepresentazio guztien aldakuntzan behatu nahi dudanean nire alderaketen korrelatorik ez dudanez gero, berriro ni neu izan ezik nire kontzientziaren baldintza orokorrek, orduan erantzun tautologikoak baino ezin dizkiet eman galdekizun

guztiei, hain zuzen, nire adigaiari eta bere batasunari ezkutuan niri objektu gisa atxikitzen zaizkidan berekitasunak ematen dizkiedan heinean eta jakin behar dena aurreuposatzen dudan heinean.

Idealtasunaren laugarren paralogismoa (kanpoko hartuemanarena)

Zerbaiten izatea hautemapen jakinen kausa gisa soilik inferitu badaiteke, orduan gauza honek existentzia zalantzarria besterik ez du.

Baina kanpoko agerpen guztiak honelakoak dira: beren izatea ezin da zuzenki hauteman, baizik eta inferitu besterik ezin daitezke egin, hautemapen jakinen kausak diren heinean.

Beraz, kanpoko sentsuen objektu guztien izatea zalantzarria da. Ziurtasun-eza honi kanpoko agerpenen idealtasuna deitzen diot eta idealtasun honen irakaspenari *idealismoa* deitzen zaio, eta kanpoko sentsuen objektuen ziurtasun ahalgarriaren baieztapenari, bestetik, *dualismoa* deitzen zaio.

Psikologia transzendentalaren laugarren paralogismoaren kritika

Hasteko, premisak etsaminatu nahi ditugu. Bidezki baieztatu dezakegu guran dagoena baino ezin daitekeela hauteman zuzenki eta nire existentzia propioa hautemapen soil baten objektua izan daitekeela. Beraz, nigan kanpoko objektu erreal baten izatea (hitz hau esanahi intelektualean hartzen bada) ezin da inoiz zuzenki hautemapenean eman, baizik eta beretik kanpo dagoen kausa gisa barneko sentsuaren modifikazioa den honi gainpentsa dakiok, eta beraz, inferitua soilik izan daiteke. Horregatik, Descartsek hautemapen oro esanahi hertsian esakune honetara zedarritzatzen zuen bidezki: «ni naiz» (zerizan pentsatzailea naizen aldetik). Izan ere, argia da, kanpoko nigan ez dagoenez gero, orduan ezin dudala nire apertzepzioan aurkitu, eta beraz, ezta egiatan apertzepzioaren determinazioa baino ez den ezein hautemapenetan ere.

Nik, beraz, kanpoko gauzak benetan ezin ditut hauteman, baizik eta nire barneko hautemapenetik abiatuta beren izatea soilik inferi dezaket, hau kanpoko zerbaiten kausa hurbilaren efektutzat hartzen dudana heinean. Hala ere, efektu jakin batetik kausa determinatu batera doan inferentzia ez da inoiz segurua; zeren efektua kausa bat baino gehiagok sortu baitezake. Hainbestez, hautemapen baten kausarekin harremanak beti zalantzarria dirau: ea barnekoa ala kanpoko den, ea kanpoko hautemapenak deritzatenak gure barneko sentsuaren jolas soilak diren, edo ea kanpoko objektu errealei lotzen zaizkien beren kausa gisa. Azkenengoen izatea behinik behin inferitua besterik ez da eta inferentzia ororen arriskua du; aitzitik, barneko sentsuaren objektua (neu, nire errepresentazio ororekin batera) zuzenki hautematen da eta bere existentziak batere zalantzarik ez du jasaten.

Idealistatzat ez dira hartu behar, beraz, sentsuen kanpoko objektuen izatea ukatzen dutenak, baizik hautemapen zuzenaren bitartez ezagutzen direla onartzen ez dutenak eta hortik abiatuta esperientzia ahalgarri ororen bitartez beren errealitateaz inoiz guztiz ziur ez garelako izango inferitzen dutenak.

Gure paralogismoa bere itxura iruzurtian aurkeztu aurretik bi idealismo bereizi behar direla oharrarazi behar dut halaber: transzendental eta empirikoa. Agerpen ororen *idealismo transzendentalaren irakatsiaz* agerpenak osotara errepresentazio gisa soilik begiztatzen dituen irakaspena ulertzen dut, ez ber baitango gauzak gisa, eta honen arabera espazioa eta denbora gure begiespenaren sentsuzko formak besterik ez dira, ez, ordea, berez ematen diren determinazioak edo objektuen baldintzak hauek ber baitango gauzak diren aldetik. Idealismo honi espazioa eta denbora beren baitan (gure sentimenetik beregainki) emandako zerbait gisa hartzen dituen *errealismo transzendental* bat kontrajartzen zaio. Errealista transzendentalak, beraz, kanpoko agerpenak ber baitango gauzak balira bezala errepresentatzen ditu, gugandik eta gure sentimenetik beregainki existitzen direnak, eta beraz, adimenaren adigai hutsen arabera lirakeenak gugandik at. Benetan, errealista transzendental hau da gero idealista empirikoa gisa jokatzeko duena, eta sentsuen objektuez faltsuki aurreuposatu ondoren beren baitan sentsurik

gabe ere beren existentzia gorde behar dutela, baldin eta kanpokoak izan behar badute, orduan honek ikuspuntu honetan sentsuen gure errepresentazio denak beren errealtatea ziurtatzeko askiezak direla aurkitzen du.

Aitzitik, idealista transzendental errealista enpirikoa izan daiteke, eta beraz, deitzen zaion moduan, *dualista* bat, h. d., materiaren existentzia onar dezake autokontzientzia soiletik irten gabe, eta nigan dauden errepresentazioak baino zerbait gehiago, eta beraz, «cogito, ergo sum» onar dezake. Izan ere, berak materia hau eta bere barneko ahalgarritasuna agerpen gisa soilik onartzen dituenek, gure sentimenetik bereiztuta ezer ez den agerpen gisa, bada, orduan materia kanpokoak izendatzen diren errepresentazioen era bat (begiespena) da beretzat, ez *bere baitan ere kanpoko* objektuei lotuko balitzaioke bezala, baizik hautemapenak espazioarekin harremanean jartzen dituztelako, espazioan dena beste denetik at dagoela, baina espazioa bera gure baitan.

Hasieratik adierazi dugu idealismo transzendental honen alde gaudela. Beraz, gure irakatsiari esker materiaren izatea gure autokontzientzia soilaren lekukotasunaren bidez onartzeko eta horren bitartez neure buruaren izatea zerizan pentsatzaile gisa frogatutzat adierazteko ezbai oro desagertzen da. Izan ere, nire errepresentazioez kontziente naiz; beraz, hauek existitzen dira eta errepresentazio hauek dituen nia bera ere bai. Hala ere, kanpoko objektuak (gorputzak) agerpen soilak dira, eta beraz, nire errepresentazioen era bat baino ez, eta beren objektuak errepresentazio hauen bitartez dira zerbait, baina hauetatik bereizita ezer ez. Beraz, kanpoko gauzak existitzen dira, ni existitzen naizen bezala, eta biak nire autokontzientziaren lekukotasun zuzenarekin, baina bereizketa honekin: Norberaren errepresentazioa subjektu pentsatzailearen errepresentazio gisa barneko sentsuari soilik lotzen zaiola, zerizan hedatuak ezaugarritzen dituzten errepresentazioak, ordea, kanpoko sentsuari. Kanpoko objektuen errealtateari dagokionez inferitzea nire barneko sentsuaren (nire pentsamenduen) objektuaren errealtateari dagokionez inferitzea bezain gutxi behar dut, izan ere, biak errepresentazioak baino ez dira, zeinen hautemapen zuzena (kontzientzia) aldi berean beren errealtatearen froga gogobetegarria den.

Beraz, idealista transzendental errealista enpirikoa da eta materiari, hau agerpena den aldetik, inferitu ezin den baina zuzenki hauteman daitekeen errealtate bat egotzen dio. Aitzitik, errealismo transzendental estualdian gertatzen da halaberharrez, eta idealismo enpirikoari lekua egitera behartua aurkitzen da, zeren kanpoko sentsuen objektuak sentsuetatik ezberdinak diren zerbait gisa eta gure kanpoan dauden zerizan beregain baterako agerpen soil gisa hartzen baititu; izan ere, gauza hauen gure errepresentazioaren kontzientzia onena izanda ere, ez da ziurra, errepresentazioa existitzen baldin bada, berari dagokion objektua ere existitzen denik; alderantziz, gure sisteman kanpoko gauza horiek, materia, beraz, beren tankera eta aldaketa guztietan agerpen soilak dira, h. d., gudan dauden errepresentazioak, zeinen errealtateaz zuzenki garen kontziente.

Nik dakidan heinean, idealismo enpirikoari lotzen zaizkion psikologo guztiak errealista transzendentalak direnez gero, orduan kontsekuenteki jokatu dut idealismo enpirikoari garrantzi handia ematean, giza arrazoimenari gainditzen zaila gertatzen zaion arazoetako bat baita. Izan ere, egitatean, kanpoko agerpenak objektuek gudan eragiten dituzten errepresentaziotzat hartzean, objektu hauek beren baitan gugandik at dauden gauzak diren aldetik, ezin da ulertu ea bere izate hori efektutik kausa inferituz baino beste zein erataraz ezagut daitekeen, eta beti ere zalantzarik izaten iraun behar du ea azkena gure baitan ala gugandik at den. Onar daiteke bai adiera transzendentalen gugandik kanpo dagoen zerbait dela gure kanpoko begiespenen kausa, baina hau ez da materiaren eta gauza gorpuzdunen errepresentazioaz ulertzen dugun objektua; izan ere, hauek agerpen soilak dira, h. d., errepresentazio-era soilak, beti ere gudan baino ez direnak, eta beren errealtatea kontzientzia zuzenean funtsatzen da, nire pentsamendu propioaren kontzientzia ere funtsatzen den bezala. Objektu transzendental barneko zein kanpoko begiespenari dagokionez ezezaguna da era berean. Hemen, ordea, ez da bera solasgaia, objektu enpirikoa baizik, zeinari *kanpoko* deitzen zaion espazioan dagoenean, eta *barneko* objektua *denbora-hartuemanetan* soilik errepresentatzen denean; espazioa eta denbora, ordea, *gudan* besterik ez daude.

Hala ere, «*gugandik at*» adierazpenak saihestu ezin daitekeen zentzu-bikoiztasuna daukanez, behin *berbaitango gauza* gisa gugandik ezberdina izanik existitzen dena esan nahi duela, behin kanpoko *agerpenari* dagokiona, bada, orduan adigai honi azkenengo esanahian, alegia, gure kanpoko begiespenaren errealtateaz egindako galdekizun psikologikoan hartzen den esanahian duen segurtasun eza kentzearen, *enpirikoki kanpokoak* diren *objektuak* zentzu transzendentalen kanpokoak dei dakizkiekeenetatik bereizi nahi ditugu haiei zuzenki *espazioan aurkitzen diren gauzak* deituz.

Espazioa eta denbora apriorizko errepresentazioak dira, gudan gure sentsuzko begiespenen formen gisa daudenak, baita objektu errealek gure sentsua sentsazio baten bitartez determinatu aurretik egon ere, bera sentsuzko hartueman haien arabera errepresentatzearen. Materialki edo errealki honek, ordea, espazioan begietsi beharko litzatekeen Zerbait honek hautemapena auresuposatzen du halaberharrez eta hau ezin da ezein irudimenen bidez asmatu edo sortu espazioan zerbaiten

errealitatea erakusten duen hautemapen honetatik beregainki. Sentsazioa da, beraz, errealitate bat espazioan eta denboran ezaugarritzen duena sentsuzko begiespenaren era bati edo besteari lotzen zaionean. Behin sentsazioa eman baldin bada (zeinari hautemapena deitzen zaion, oro harrezko objektu bati aplikatzen baldin bazaio hau determinatu gabe), orduan bere anizkuntasunaren bitartez zenbait objektu asma daitezke irudimenean, honetatik at kokaleku enpirikorik ez duten objektuak espazioan edo denboran. Hau ziurra da ezbairik gabe, zeren bai sentsazioak hartzen baditugu, hots, atsegina eta mina, bai kanpoko sentsazioak, hots, kolorea, beroa, eta abar, beti ere hautemapena baita lehenik sentsuzko begiespenaren objektuak pentsatzeko ekaia eman behar duena. Hautemapen honek, beraz, zerbait erreala errepresentatzen du espazioan (orain kanpoko begiespenez soilik dihardugu). Izan ere, lehenik, hautemapena errealitate baten errepresentazioa da, espazioa elkarrekin egotearen ahalgarritasun soilaren errepresentazioa den bezala. Bigarrenik, errealitate hau kanpoko sentsuaren aurrean errepresentatzen da, h. d., espazioan. Hirugarrenik, espazioa bera ez da errepresentazio soilia baino, eta beraz, bertan errepresentatzen denak besterik ez du balio bertan erreala bezala¹¹¹, eta alderantziz, bertan emana dena, h. d., hautemapenaren bitartez errepresentatzen dena, erreala ere bada bertan; izan ere, bertan erreala ez balitz, h. d., begiespen enpirikoaren bidez zuzenki emango ez balitz, orduan ezingo litzateke asmatu, begiespenen errealkia ezin baita a priori asmatu.

Kanpoko hautemapen orok, beraz, zuzenki frogatzen du espazioan erreala den zerbait edo, are gehiago, hura errealkia bera da, eta hainbestez, errealismo enpirikoa zalantzaezina da, h. d., gure kanpoko begiespenei zerbait erreala dagokie espazioan. Noski, espazioa bera bere agerpen guztiekin batera nigan besterik ez da, errepresentazioa den aldetik; baina espazio honetan dago, dena dela, errealkia, edo bertan ematen da benetan eta asmakuntza guztitik beregainki gainera kanpoko begiespenen objektu ororen ekaia; eta ezinezkoa da *espazio honetan gugandik kanpoko den* ezer ematea (zentzu transzendentalean), zeren espazioa bera ez baita ezer gure sentimenetik at. Beraz, idealista zorrotzak ezin du eskatu hau frogatzeko beharra dagoenik: gure hautemapenari objektua dagokiola gugandik at (esanahi hertsian). Izan ere, halakorik balego, orduan ezingo litzateke gugandik at errepresentatu eta begietsi, zeren honek espazioa auresuposatzen baitu, eta espazioan den errealitatea, errepresentazio soilia den aldetik, hautemapena bera baino ez da. Kanpoko agerpenen errealkia, beraz, hautemapenean besterik ez da egiazkoa, eta ezin du beste ezein modutan izan egiazkoa.

Hautemapenetatik abiatuta objektuen ezagutza irudimenaren jolas soilaren bidez edo esperientziaren bidez sor daiteke. Eta hor objekturik egokitzen ez zaizkien errepresentazio iruzurtiak ager daitezke, eta iruzurra behin irudimenaren itxurapenari (ametsen), behin juzgamenaren hanka-sartzeari (sentsuen iruzurra deitzen zaion horretan) egozten zaio. Eta hemen erregela honen arabera jokatzeko da, ilusio faltsua saihestearren: *erreala da hautemapen batekin lege enpirikoen arabera elkartuta dagoena*. Iruzur horrek eta berari buruzko ardurak, ordea, idealismoa zein dualismoa ukitzen dituzte, hemen autugaia esperientziaren forma baino ez den heinean. Gure kanpoko hautemapenen errealitate objektiboaz dugun ez bai faltsua den idealismo enpirikoa errefusatzeko, aski da kanpoko hautemapenak errealitate bat espazioan zuzenki frogatzea, espazio hau, bere baitan errepresentazioen forma soilia izan arren, hala ere, kanpoko agerpen orori dagokionez (hauek ere errepresentazio soilak besterik ez direnak) errealitate objektiboa izaki; halaber, hautemapenik gabe asmakuntza eta ametsa bera ezinezkoak dira, eta kanpoko gure sentsuek, beraz, beraiei egokitzen zaizkien objektu errealak dituzte espazioan esperientzia ahalbidetzen duten datuei dagokienez.

Idealista dogmatikoa materiaren izatea ukatzen duena litzateke, *idealista eszeptikoa*, *zalantzan jartzen* duena, bere izatea frogaezintzat duelako. Lehena, oro har materiaren ahalgarritasunean kontraesanak aurkitzea uste delako soilik sor daiteke, eta hau ez da oraindik gure autugaia. Inferentzia dialektikoen ondorengo atalak, arrazoimenaren barneko gatazka aurkeztuko duenak, esperientziaren testuinguruan kokatzen denaren ahalgarritasunaren adigaiei dagokien zailtasun hau gainditzen lagunduko du. Idealista eszeptikoa, ordea, gure baieztapenen oinarria soilik ukatzen duen eta hautemapen zuzenean oinarritzen dela uste dugun materiaren izatearen gure limurtzea askieztat adierazten duen idealista, hainbestez, giza arrazoimenaren ongile bat da, esperientzia arruntaren urrats txikienean ere begiak ondo irekitzera eta agian amarruz soilik lortzen duguna bidezki lortua bailitza berehala jabegoan ez hartzera behartzen gaituelako. Objektzio idealista hauek hemen sortzen duten onura begi-bistakoa da orain. Bortizki bultzatzen gaituzte, baieztapen arruntenetan nahastu nahi ez badugu, hautemapen denak, barnekoak zein kanpokoak, gure sentimenari atxikitzen zaion kontzientzia soiltzat hartzera, eta kanpoko objektuak ez berbaitango gauzatzat, baizik errepresentaziotzat soilik hartzera, eta hauetaz zuzenki izan gaitzeko kontziente beste edozein errepresentaziorekin gertatzen den legez, baina kanpokoak izena dute guk kanpoko sentsuak deitzen diegun sentsuei egozten zaizkielako, hauen begiespena espazioa izaki, zeina, bestalde, berez errepresentazio-era bat besterik ez den, bertan hautemapen jakinak elkarlotzen direlarik.

Kanpoko objektuak berbaitango gauzat hartzen baditugu, orduan erabat ezinezkoa da ulertzea ea nola iritsiko ginatekeen gugandik kanpo duten errealtatearen ezagutzara, gudan dagoen errepresentazio soilean eusten garen heinean. Izan ere, ezin da norberatik at sentsaziorik izan, baizik norberaren baitan besterik ez, eta autokontzientzia osoak gure determinazio propioak baino ez ditu eskuratzen. Beraz, idealismo eszeptikoak geratzen den ihes bakarra hartzera behartzen gaitu, hots, agerpenen idealtasunera ihesa, Estetika transzendentalean aurkeztu duguna aurrez ikusi ezin izan genituen ondorio hauetatik beregainki. Hortaz, zera galdetzen bada: ea, bada, honen ondorioz dualismoa arimaren irakaspenean soilik gertatzen den; orduan erantzuna hau da: noski! baina adiera enpirikoan besterik ez, h. d., materia, agerpeneko substantzia den aldetik, benetan esperientziaren bilkuran ematen zaie kanpoko sentsuei, nia pentsatzailea barneko sentsuei ematen zaien bezala, hau era berean agerpeneko substantzia den aldetik, eta agerpenok bi kasutan gure kategoriak kanpoko zein barneko esperientziako hautespenen bilkuran ezartzen dituen erregelen arabera izan behar dira elkarlotuak. Dualismoaren adigai hedatu nahi bada, ordea, eskuarki gertatzen den bezala, eta adiera transzendentalean hartu nahi bada, orduan ez berak, ez berari kontrajarritakoek ere, alde batetik, *pneumatismoak*, bestetik, *materialismoak*, ez lukete oinarririk izango, gure adigaien determinazioan huts egin delako eta beren baitan direnaren arabera ezezagunak zaizkigun objektuen errepresentazio-eraren ezberdintasuna gauza beren ezberdintasuntzat hartzen delako. Nia barneko sentsuaren arabera errepresentatua eta objektuak espazioan nigandik at benetan espezifikoki erabat ezberdinak diren agerpenak dira, baina ez dira pentsatzen horregatik gauza ezberdin gisa. *Objektu transzendentala*, kanpoko agerpenen zein barneko begiespenen oinarrian datzan objektua, ez da materia, ezta zerizan pentsatzailea bere baitan ere, baizik guri ezezaguna zaigun agerpenen oinarria, hots, lehen eta bigarren erako adigai enpirikoak eskura ematen dituzten agerpenen oinarria.

Kritika honek nabarmenki behartzen gaituen eran gorago finkatutako erregelari atxikitzen bagatzaizkio, alegia, gure galdekizunak esperientzia ahalgarriak bere objektuak eskura eman ditzakeen bezain urrun soilik hedatzea, orduan ez zaigu behin ere bururatuko gure sentsuen objektuei dagokienez hauek beren baitan direnaz informazioa bilatzea, h. d., sentsuekin harremanik gabe izan daitezkeenaz. Hala ere, psikologoak agerpenak berbaitango gauzat hartzen baldin baditu, orduan bere irakatsian materia soilik onar dezake, materialista den aldetik, edo zerizan pentsatzaile soila (hots, gure barneko sentsuaren formaren araberrakoa zerizana), espiritualista den aldetik, edo biak, berez existitzen diren gauzak bezala, dualista den aldetik, baina beti ere galarazi zaio, gaizki-ulertzea dela eta, honetaz arrazoikerietan aritzea: ea berbaitango gauza ez baina oro harrezko gauza baten agerpena soilik dena bere baitan nola existi ote daitekeen.

Arimaren irakaspen huts osoari buruzko kontsiderazioa, paralogismo hauen ondorioz

Barneko sentsuaren Fisiologia den *arimaren irakaspena*, kanpoko sentsuaren objektuen Fisiologia den *gorputzaren irakaspenarekin* alderatzen badugu, orduan bietan asko enpirikoki ezagutu ahal izateaz gain beste bereizketa ohargarri hau aurkitzen dugu: bigarren zientzian asko ezagut daitekeela a priori zerizan sarrezin hedatu baten adigai soiletik abiatuta, lehenean, ordea, zerizan pentsatzaile baten adigaitik abiatuta ezin dela ezer a priori sintetikoki ezagutu. Zergatia hau da. Biak agerpenak izan arren, kanpoko sentsuaren agerpenak badu gerakorra edo geldikorra den zerbait, determinazio aldakorren oinarrian dagoen substratuaren, eta beraz, adigai sintetiko baten, hots, espazioaren eta bertako agerpen baten adigai eskura ematen duen zerbait, baina denborak bere aldetik, gure barneko begiespenaren forma bakarra izaki, ez du ezer geldikorrik, eta beraz, determinazioen aldakuntzaren ezagutza besterik ez du eskuratzen, ez, ordea, objektu determinagarriarena. Izan ere, arima deitzen diogun horretan dena jario jarraituan dago, eta ezer ez da geldikorra, agian hain bakuna den nia izan ezik (horrela deitu nahi badiogu), errepresentazio honek edukirik, eta beraz, anizkunkirik ez duelako, alegia, eta horregatik objektu bakun bat errepresentatzen duela edo, hobeto esanda, ezaugarritzen duela dirudi. Nia honek begiespena izan beharko luke, pentsatzean oro har (esperientzia ororen aurretik) auresuposatua izango litzatekeenez, eta apriorizko begiespen gisa esakune sintetikoak eskuratuko lituzke, baldin eta oro har zerizan pentsatzaile baten izaeraren arrazoimen-ezagutza sortzea ahalgarria balitz. Nia hau, ordea, objektu baten adigai ez den bezain gutxi da begiespena, aitzitik, kontzientziaren forma soila da, bi eratako errepresentazioei lagun egiten diena eta horrela ezagutzak bihurtzen dituen, horretarako begiespenean objektu baten errepresentaziorako ekaia hornitzen duen zerbait ematen den heinean. Beraz, Psikologia arrazional gutzia desagertzen da giza

arrazoimenaren indar oro gainditzeko duen zientzia gisa, eta gure arima esperientziaren gida-hariaren arabera estudiantzea eta barneko esperientzia ahalgarriak aurkeztu dezakeen edukiaz goiti ez doazen galdekizunen zedarriari atxikitzea baino beste biderik ez dugu.

Nahiz eta Psikologia arrazionalak ezagutza hedatzaile gisa onurarik ez duen, baizik, hainbestez, paralogismo soilen elkarketaz osatzen den, dena dela, berari ezin zaio onura *negatibo* garrantzitsua ukatu gure arrazoimen arrunt eta berezkoaren inferentzia dialektikoen landualdi kritikotzat soilik hartzen bada.

Zertarako behar dugu arrazoimenaren printzipio hutsetan besterik oinarritzen ez den arimaren irakaspena? Ezbairik gabe, batez ere geure Norbera pentsatzailea materialismoaren arriskuaren aurka segurtatzeko. Hau, ordea, guk eman dugun geure Norbera pentsatzailearen arrazoimen-adigaiak lortzen du. Izan ere, erabat oker geundeko ondoren beldur honek iraungo balu, hots, materia kenduz gero, horrekin pentsatze oro eta zerizan pentsatzaileen existentzia ezeztatuak lirakeela, eta alderantziz, argi azaltzen dela: subjektu pentsatzailea kenduz gero, orduan gorputzen mundu osoak desagertu behar duela, alegia, gure subjektuaren sentimeneko agerpena eta bere errepresentazioen era bat besterik ez den munduak desagertu behar duela.

Horren bitartez ez dut hobeto ezagutzen, noski, Norbera pentsatzailea bere berekitasunean dagokienez, ezin dut era berean bere iraunkortasuna aditu, ezta bere existentziaren beregaintasuna ere kanpoko agerpenen balizko substratu transzendentetik abiatuta, izan ere, hau beste hura bezain ezezaguna baitzait. Dena dela, ahalgarria denez gero oinarri espekulatibo soilak ez den beste nonbaitetik nire egoeraren aldakuntza ahalgarri orotan nire izaera pentsatzailearen existentzia iraunkorra dela itxaroarazten didaten arrazoiak hartzea, orduan asko aurreratzen da, nire ezjakintasun propioaren aitorpen askea egin arren, aurkari espekulatibo baten eraso dogmatikoak baztertu ahal izateko eta berari zera azaltzeko bidean, alegia, ezin duela inoiz nire subjektuaren izaeraz gehiago jakin nire itxaropenei ahalgarritasuna ukatzearren nik itxaropen horiei atxikitzearen dakidana baino.

Gure adigai psikologikoen itxura transzendental honetan hiru galdekizun dialektiko ere oinarritzen dira oraindik, Psikologia arrazionalaren benetako xedea osatzen dutenak eta, goragoko azterketen bidez izan ezik, inon ezin erabaki direnak, hots, 1) arimak gorputz organiko batekin duen komunitatearen ahalgarritasunaz, h. d., aberetasuna eta arimaren egoeraz gizakiaren bizitzan; 2) komunitate honen hasieraz, h. d., arimaz gizakiaren jaiotzan eta jaiotzaren aurretik; 3) komunitate honen amaieraz, h. d., arimaz gizakiaren heriotzean eta ondoren (hilezkortasunaren galdekizuna).

Hau baieztatzen dut, beraz: halako galdekizunetan aurkitzen omen den, hots, objektu dogmatikoak diren aldetik adimen arruntak eduki dezakeena baino gauzen izaeraren ikuskera sakonagoa izateko asmoa azaltzen duten galdekizunetan aurkitzen omen den zailtasun oro itxurapen batean funtsatzen da, zeinaren arabera pentsamenduan soilik existitzen dena hipostasiatu egiten den eta subjektu pentsatzailetik at dagoen objektu erreala gisa onartzen den, hots, agerpena besterik ez den hedadura gure sentimena gabe ere kanpoko gauzen berekitasun iraunkortzat hartzeko eta higidura gure sentsuetatik at bere baitan errealki gertatzen den beren efektutzat hartzeko itxurapena. Izan ere, materia, arimarekin duen komunitateagatik hainbeste ezbai sortzen dituen, ez da forma soilak baino, edo kanpoko sentsua deitzen zaion begiespenaren bidez ekiten duen objektu ezezagun baten errepresentazio-era baino. Baliteke gugandik at materia deitzen diogun agerpen horri egokitzen zaion zerbaitez izatea; baina agerpena den heinean, ez da gugandik at, baizik pentsamendu soil bat gudan, nahiz eta pentsamendu hau aipatutako sentsuaren bitartez gugandik at balitz bezala errepresentatzen dugun. Materiak ez du esan nahi, beraz, barneko sentsuaren objektutik (arima) hain ezberdina eta heterogeneoa den substantzien era bat, baizik (beren baitan ezezagunak zaizkigun) objektuen agerpenen homogeneotasun eza besterik ez, zeinen errepresentazioei, barneko sentsukoei ez bezala, kanpokoak deitzen diegun, nahiz eta gainerako pentsamendu oro gisa subjektu pentsatzailearen errepresentazioak diren, beren baitan, ordea, osagai iruzurti hau jasoz: objektuak espazioan errepresentatzen dituztenez gero, nolabait esateko, hauek arimatik askatzen dira eta beretik kanpo airean igeri daudela dirudite, zeren begietsiak direneko espazioa bera ez baita errepresentazio bat baino, bere parekorik ezin aurki daitekeela arimatik at, bera ere errepresentazioa den aldetik. Beraz, ez da galdetzen arimak gugandik kanpoko substantzia ezagun eta arrotzekin duen komunitateaz, baizik barneko sentsuaren errepresentazioek gure kanpoko sentimenaren modifikazioekin duten elkarloturaz besterik ez, eta hauek lege iraunkorren arabera elkarlotuak izan daitezkeen eraz, horrela esperientzia batean elkar daitezkeen.

Barneko eta kanpoko agerpenak esperientziako errepresentazio soil gisa batera atxikitzen ditugun artean, bada, ez dugu ezer absurdurik eta sentsuen bi eren komunitatea bitxia bihurtzen duenik aurkitzen. Kanpoko agerpenak hipostasiatu ahala hauek errepresentazio gisa ez, baina *gudan daukaten kalitate berean baita gugandik kanpo ere berez diren gauza gisa* hartzen baditugu, eta beren ekintzak, berriz, haiek agerpen gisa elkarrekin hartuemanen erakusten dituztenak, gure subjektu

pentsatzaileari lotzen bazaizkio, bada, orduan gugandik kanpoko kausa arazleen izaera bat dugu, hots, berak gugan dituen efektuekin bat etorri nahi ez duen izaera, zeren haiek kanpoko sentsuari soilik lotzen baitzaizkio, hauek, berriz, barnekoari, inolaz ere homogeenak ez diren sentsuei, beraz, subjektu batean bateratuak egon arren. Ez dugu, bada, lekuaren aldaketa ez den beste kanpoko efekturik, eta joera soilak ez diren beste indarrik, alegia, espazio-hartueman bihurtzen diren joerak beren efektu gisa. Gugan, ordea, efektuak pentsamenduak dira, eta bertan ez dago ezein lekuren, higiduraren, tankeraren edo espazioaren determinazioaren hartuemanik, eta guk kausen gida-haria erabat galtzen dugu barneko sentsuan erakutsi behar ziren beren efektuetan. Hala ere, aintzat hartu behar dugu gorputzak ez direla gugan present dauden objektuak beren baitan, baizik inork ezagutzen ez duen objekturen baten agerpen soilak, halaber, higidura ez dela kausa ezezagun horren eragina, baizik gure sentsuetan duten eraginaren agerpena besterik ez, eta ondorioz, biak ez direla zerbait gugandik at, baizik gugan dauden errepresentazioak besterik ez, eta beraz, materiaren higidurak ez ditu gugan errepresentazioak eragiten, baizik bera (eta beraz, horren bitartez ezagugarria bihurtzen den materia) errepresentazio soil da, eta azkenik, norberak sortutako zailtasun osoa honetan biltzen da: nola eta zein kausaren bitartez dauden elkar lotuta kanpoko begiespenak deitzen diegun gure sentimenaren errepresentazioak, horrela lege enpirikoen arabera gugandik kanpoko errepresentazio gisa errepresenta ditzakegun. Galdekizun honek ez du barnebiltzen gugandik at dauden kausa arazle erabat arrotzen errepresentazioen jatorria argitzeko zailtasuna, kausa ezezaguna gugandik kanpoko kausatzat hartzen dugun heinean, honek nahasketa baino ezin baitu sortu. Ohitura luzearen indarrez errotu den sasi-interpretazioa azaltzen duten judizioen zuzenketari berehala beste kasuetan eskatzen den argitasuna ematea ezinezkoa gertatzen da, hauetan ez baitago adigai nahasten duen era honetako ilusio itzuriezirik. Horregatik, arrazoimena teoria sofistikoetatik askatze honek zailki lortuko du bere gogobete osorako behar den nabaritasuna.

Hau ondorengo era honetan sustatu ahal izango dudala uste dut.

Objekzio denak objekzio *dogmatiko*, *kritiko* eta *eszeptikoetan* sailka ditzakegu. Objekzio dogmatikoa *esakune* baten aurka zuzentzen dena da, kritikoa *esakune* baten *frogaren* aurkakoa. Lehenak, objektuaren izaeraren antolaeraren ikuskera behar du, *esakuneak* objektu horretaz aipatzen duenaren aurkakoa baieztatu ahal izatearren; horregatik da dogmatikoa, eta autugaia den antolaera aurkakoak baino hobeto ezagutzen duela dio. Objekzio kritikoa *esakunea* bere balio edo balioezan ukitugabe uzten duenez eta frogak soilik ukatzen duenez gero, orduan ez du objektua hobeto ezagutzerik behar edo bere ezagutza hobearen asmorik izan behar; baitapenak oinarriak ez duela besterik ez du azaltzen, ez hura okerra denik. Objekzio eszeptikoa *esakunea* eta bere aurkakoa elkarren aurrean jartzen ditu garrantzi bereko objekzio gisa, bata dogma gisa eta bestea bere objekzio gisa, eta alderantziz; kontrajarritako bi aldeak arabera dogmatikoa dela eta objektuak egindako judizio oro deuseztatzen duela dirudi. Objekzio dogmatikoa zein eszeptikoa objektuari zerbait baieztatuz edo ukatuz atxikitzeko beharrezkoa den adina ikuskera erakutsi behar dute. Objekzio kritikoa besterik ez da, ordea, teoria eraisten duena, bere baieztapenaren mesedetan ezereza eta irudikatua soilik dena onartzen dela azaltzen duen heinean, baita teoriari ustezko oinarritzapena kentzen diona ere, gainerakoan objektuaren antolaeraz ezer erabaki nahi izan gabe.

Gure arrazoimenaren adigai arruntei jarraiki dogmatikoa gara gure subjektuak gugandik kanpoko gauzeekin duen komunitateari dagokionez, eta egiazko objektu hauek gugandik beregaintzat hartzen ditugu dualismo transzendental jakin bati jarraiki, zeinak ez dizkion subjektuari egozten kanpoko agerpen haiek, errepresentazioak diren heinean, aitzitik, sentsuen begiespenak ematen dizkigun bezala gugandik at objektu gisa ezartzen ditu eta subjektu pentsatzailetik erabat baztertzen ditu. Subrepzio hau da arimaren eta gorputzaren arteko komunitatearen teoria ororen oinarritzapena, eta ez da inoiz galdetzen ea agerpenen errealtate objektibo hori osorik zuzena den, baizik hau onartutzat aurreuposatzen da, eta bera argitu eta ulertu beharreko eraz soilik jarduten dugu arrazoikerietan. Eskuarki honi buruz asmatu diren eta benetan ahalgarriak diren hiru sistema bakarrik ondorengo hauek dira: *eragin fisikoarena*, aurrez determinatutako *harmoniaarena* eta izadiak *goitiko laguntzarena*.

Arimaren eta materiaren arteko komunitatearen azken bi argipen-erak adimen arruntaren errepresentazioa osatzen duen lehenaren aurkako objekzioetan oinarritzen dira, hots, materia gisa agertzen dena ezin dela izan eragin zuzen baten bitartez errepresentazioen kausa, hau efektuen era erabat heterogeneoa baita. Hauek ezin dute, orduan, kanpoko sentsuen objektutzat ulertzen dutena agerpena besterik ez den materiaren adigaiarekin lotu, eta beraz, bere baitan jadanik kanpoko objekturen batek eraginda sortu den errepresentazio soil den materiaren adigaiarekin lotu, izan ere, bestela hau esango lukete: kanpoko objektuen errepresentazioak (agerpenak) ezin direla izan gure gogameneko errepresentazioen kanpoko kausak, objekzio zentzugabea litzatekeena, inori ez baitzaio bururatuko behin errepresentazio soiltzat berrezagutu duena gero kanpoko kausatzat hartzea. Gure oinarri-esakuneak arabera, beraz, beren teoria ondorengoari jarraiki antolatu behar dute: gure kanpoko sentsuen egiazko objektu (transzendental) dena ezin daitekeela izan materia izenpean jasotzen ditugun errepresentazioen (agerpenen)

kausa. Inork funtsaz ezin aldarrika dezakeenez gero kanpoko sentsuen gure errepresentazioen kausa transzendentalaz zerbait ezagutzen duela, orduan bere baieztapena erabat oinarrigabea da. Eragin fisikoaren irakaspenaren ustezko hobetzaileek dualismo transzendental baten errepresentazio-era arruntari jarraiki materia berez berbaitango gauzatat hartu nahiko balute (eta ez gauza ezezagun baten agerpen soil gisa) eta beren objektzioa hau azaltzera zuzendu nahiko balute: bere baitan higidurena baino beste kausalitaterik erakusten ez duen kanpoko objektua halakoa inoiz ezin daitekeela errepresentazioen kausa arazlea izan, baizik hirugarren zerizana hartu behar dela baliabide moduan, bien artean, elkarreragina ez bada ere, behinik behin korrespondentzia eta harmonia eratzeko, bada, orduan beren errefusapena eragin fisikoaren $\pi\tilde{\nu}$ $\tau\tilde{o}\nu$ $\phi\tilde{\epsilon}\tilde{\nu}$ $\delta\tilde{o}\zeta$ hau bere dualismoan onartzearekin hasiko lukete, eta beraz, beren objektzioarekin berezko eragina ez ezik, beren aurreuposizio dualistiko propioa ere errefusatuko lukete. Izan ere, izaera pentsatzailearen eta materiaren arteko loturari dagokion zailtasun oro amarruz sartutako errepresentazio dualistiko hartatik soilik sortzen da: materia berez ez dela agerpena, h. d., ez dela objektu ezezagun bati dagokion gogamenaren errepresentazio soil, baizik objektua dela bere baitan, gugandik at eta sentimen orotatik beregainki existitzen den objektua.

Ezin da arrunki onartutako eragin fisikoaren aurkako ezein objektzio dogmatikorik egin. Izan ere, baldin eta aurkakoak onartzen badu materia eta bere higidura agerpen soilak, eta beraz, errepresentazio soilak direla, orduan zailtasuna honetan soilik ezar dezake: gure sentimenaren objektu ezezaguna ezin daitekeela izan gudan dauden errepresentazioen kausa, baina ezerk ez dio ematen hau onartzeko eskubiderik, zeren inork ezin baitu objektu ezezagun batek egin dezakeena edo egin ezin dezakeena erabaki. Gure goragoko frogen arabera, ordea, idealismo transzendental hori halabeharrez onartu behar du, errepresentazioak nabarmenki hipostasiatu eta egiazko gauza gisa beren baitatik kanpo ezarri nahi ezean.

Hala eta guztiz ere, eragin fisikoaren iritzi-irakaspen arruntaren aurka ongi oinarritutako *objektzio kritikoa* egin daiteke. Bi eratako substantzien ustezko komunitateak, substantzia pentsatzailearen eta hedatuaren artekoak, dualismo zakar bat ezartzen du oinarrian, eta azkenak, subjektu pentsatzailearen errepresentazio soilak izaki, substantziok berez irauten duten gauzak bihurtzen ditu. Beraz, gaizki-ulertutako eragin fisikoa erabat bazter daiteke, bere froga-oinarria erabat hutsala eta amarruz sartutakoa dela azaltzen baldin bada.

Pentsatzailea dena eta hedatua denaren arteko komunitateaz egiten den galdekizun ezaguna honetan bilduko litzateke, irudikatutako guztia baztertuz gero: ea nola egon daitekeen *subjektu pentsatzaile batean oro har kanpoko begiespena*, hots, espazioaren begiespena (bere beteketa, tankera eta higidura). Ezein gizakik ezin du, ordea, galdekizun honen erantzuna aurkitu, eta gure jakintzaren zulo hau ezin da inoiz bete, baizik eta kanpoko agerpenei errepresentazio-era honen kausa den objektu transzendental bat atxikiz ezaugarritu besterik ezin da egin, nahiz eta guk bera ez dugun ezagutzen, eta beraz, inoiz bere adigairik ez dugun jasoko. Esperientziaren alorrean ager daitezkeen eginkizun denetan agerpen haiek berbaitango objektutzat hartzen ditugu, beren ahalgarritasunaren lehen oinarriaz axolarik izan gabe (agerpenak diren aldetik). Esperientziaren mugaz goiti bagoaz, ordea, orduan objektu transzendental baten adigaia beharrezkoa bihurtzen da.

Izaera pentsatzailearen eta hedatuaren arteko komunitate horren aurretiko (bizitzan) edo komunitatea ezeztatu ondorengo (heriotzean) egoerei dagozkien gatazka eta objektzio guztiez erabakia komunitate honi buruzko oharpen hauen ondorio zuzena da. Subjektu pentsatzaileak gorputzekin edozein komunitate izan aurretik pentsa zezakeela dioen iritzia horrela adieraziko litzateke: zerbait espazioan agerrarazten duen sentimen-era honen hasiera baino lehenago egungo egoeran gorputz gisa agertzen diren objektu transzendental berak era erabat ezberdinean begietsiak izan zitezkeela. Arimak mundu gorpuzdunarekin duen komunitate oro ezeztatzean hark oraindik iraun dezakeela pentsatzen duen iritzia honela iragarriko litzateke: baldin eta oraingoz ezezagunak zaizkigun objektu transzendentalak materiazko mundu gisa azaltzen dizkigun sentimen-era desagertuko balitz, orduan ez litzateke beren begiespen oro ukatuko, eta jarraian subjektu pentsatzaileak ezagutzea ahalgarria litzateke, gorputz gisa ez izan arren, noski.

Inork ezin du eman halako baieztapenen oinarririk printzipio espekulatiboetatik abiatuta, ezta beren ahalgarritasuna frogatzeko ere, baizik hau aurreuposatzeko besterik ez; baina, era berean, inork ezin du objektzio dogmatiko baliodunik eman beren aurka. Izan ere, pertsona hori edonor dela ere, nik edo beste edonork bezain gutxi daki kanpoko agerpen gorpuzdunen barneko kausa absolutuaz. Ezin du jakin nahi izan oinarri onekin ea kanpoko agerpenen errealitatea egungo egoeran (bizitzan) non funtsatzen ote den, eta beraz, ea kanpoko begiespen ororen baldintza, edo subjektu pentsatzailea bera, egungo egoeraren ondoren (heriotzean) desagertuko ote litzatekeen.

Beraz, gure esentzia pentsatzailearen izaerari eta gorputzen munduarekin duen elkarloturari buruzko gatazka oro ezer ez jakitetik sortzen den zuloa arrazoimenaren paralogismoekin betetzearen ondorio soil da, gure pentsamenduak gauzak bihurtuz

eta hauek hipostasiatuz bete ere, eta hortik irudikatutako zientzia sortzen da baieztatuz nahiz ezeztatuz onartutakoaz, zeren hala jokatzeko duenak, edo ezein gizakiren adigairik ez duen objektuez zer bait ezaizaten duela uste baitu, edo bere errepresentazio propioak objektuak bihurtzen baititu, eta horrela zentzu-bikoiztasunaren eta kontraesanen zirkulu amaigabea jiraka baitabil. Kritika zorrotz baina zuzen baten zehurtasunak soilik libra gaitzake itxurapen dogmatiko hauetatik, hots, hainbat pertsona zorion irudikatuen bitartez teoria eta sistemen menpean lotzen dituen itxurapen hauetatik, eta kritika honek soilik zedarritza dezake gure asmo espekulatibo oro esperientzia ahalgarriaren alorrera, ez hainbat saialdi arrakastagaberi buruzko burla hutsaren bitartez, edo gure arrazoimenaren zedarriengatik erruki-negarren bitartez, baizik oinarri-esakune seguruek osatutako bere mugen determinazioaren bitartez, zeinak bere nihil ulterius-a konfiantza handienaz izadiak berak ezarri dituen zutabe herikuleoi lotzen dien, honela gure arrazoimenaren bidaia etengabe luzatzen diren esperientziaren kostaldetaraino soilik jarraitzeko, utzi ezin dugun bidaia, kostarik gabeko ozeano batera ausartu ezean, beti iruzurtiak diren ikuspegiekin azkenean ahalgin neketsu eta luze oro itxaropenik gabekotzat jo eta hauek uztera behartzen gaituen ozeanora bidaia, hain zuzen.

* * *

Arrazoimen hutsaren paralogismoetako itxura transzendental nahiz berezkoaren argiketa nabari eta orokor baten eta, era berean, sistematikoa den eta kategorien taulari paraleloki darion antolamenduaren legeztapenaren zordun gara oraindik. Atal honen hasieran ezingo genukeen argiketa honetaz arduratu, iluntasunaren arriskuan erori edo geu desegokiro aitzinatu ezean. Orain obligazio hori betetzen saiatuko gara.

Itxura oro hemendik dator: pentsatzearen baldintza *subjektiboa objektuaren* ezaizatzat hartetik. Horrez gain, Dialektika transzendentalaren sarreran azaldu dugu arrazoimen hutsak baldintzatuki jakin baterako baldintzen sintesiaren totalitateaz soilik jarduten duela. Arrazoimen hutsaren itxura dialektikoa ezaizatzat enpiriko determinatuetan gertatzen den ezein itxura enpiriko izan ezin daitekeenez gero, orduan itxura pentsatzearen baldintzen alde orokorrari dagokio eta arrazoimen hutsaren erabilera dialektikoaren hiru kasu besterik ez daude:

1. Pentsamendu baten baldintzen sintesia oro har;
2. Pentsatze enpirikoaren baldintzen sintesia;
3. Pentsatze hutsaren baldintzen sintesia.

Hiru kasu hauetan arrazoimen hutsak sintesi honen totalitate absolutuaz soilik jarduten du, h. d., baldintzatugabea den baldintzaz. Sailaketa honetan oinarritzen da itxura transzendental hirukoitzak ere, Dialektikaren hiru atalak osatzeko aukera ematen duen eta arrazoimen hutsetik abiatutako beste hainbat itxurazko zientzien ideia eskura ematen duen itxura: Psikologia, Kosmologia eta Teologia transzendentalak. Hemen lehenengoa besterik ez da gure autugaia.

Oro harrezko pentsatzearen edozein objekturi dagokionez (sentsuena zein adimen hutsarena dela ere) pentsamenduaren harremanez abstraitzen denez gero, orduan oro harrezko pentsamendu baten baldintzen sintesia (1 zenbakia) ez da objektiboa, baizik faltsuki objektu baten errepresentazio sintetikotzat hartzen den pentsamenduaren sintesi soilak subjektuekin.

Hemendik zera ere ondorioztatzen da: berez baldintzatugabea den oro harrezko pentsatze ororen baldintzaren inferentzia dialektikoak ez duela edukiaz hutsik egiten (izan ere, eduki edo objektu oroz abstraitzen du), baizik formaz besterik ez, eta huts honi paralogismoa deitu behar zaio.

Gainera, pentsatze orori lagun egiten dion baldintza bakarra nia denez gero «nik pentsatzen dut» esakune orokorrean, orduan arrazoimenak baldintza honekin du zerikusia, bera baldintzatugabea den heinean. Bera, ordea, baldintza formala besterik ez da, hots, halako pentsamendu bakoitzaren batasun logikoa, eta bertan nik objektu oroz abstraitzen dut eta, hala ere, hau nik pentsatzen dudako objektu gisa errepresentatzen da, hots, nia bera eta bere batasun baldintzatugabea.

Norbaitek galdetzen badit: zer antolaera du pentsatzen duen gauzak? Orduan ez dakit zer erantzun diezaiokekan horri a priori, zeren erantzunak sintetikoa izan beharko bailuke (izan ere, erantzun analitikoak agian pentsatzea argitzen du, baina ez du ematen ezaizatzat hedaturik pentsatze hori bere ahalgarritasunean funtsatzen duenaz). Konponketa sintetiko bakoitzerako, ordea, eginkizun hain orokorrean erabat baztertu dugun begiespena eskatzen da. Era berean, inork ezin du galdekizun hau bere orokortasunean erantzun: nolakoa izan behar du higikorra den gauza batek? Izan ere, hedadura sarrezina (materia) ez da emana. Nik orokorrean galdekizun harentzat erantzunik ez dakidan arren, dena dela, kasu bakanetan eman nezakeela dirudit

autokontzientzia adierazten duen esakunean, «nik pentsatzen dut». Izan ere, nia hau lehen subjektua da, h. d., substantzia da, bakuna da, eta abar. Hauek, ordea, esperientzia-esakune soilak izan beharko lukete, halako ezein predikatu (enpirikoak ez direnak) barnebildu ezin dituztenak, oro har eta a priori pentsatzeko ahalgarritasun-baldintzak aipatzen dituen erregela orokorrak eduki ezean. Honela, esentzia pentsatzaile baten izaerari buruz juzgatzeko ikuskera, eta gainera, adigai soiletatik abiatuta juzgatzeko ikuskera, hasiera batean hain onargarria iruditzen zitzaidana, orain susmagarria bihurtzen da, bere hutsegitea oraindik aurkitu ez den arren.

Nik neure buruari oro har zerizan pentsatzailea naizen aldetik egozten dizkiodan atributu hauen jatorriaren ikerkuntza sakonagoak soilik aurki dezake hutsegitea. Atributuak ez dira kategorია hutsak baino, eta hauen bitartez inoiz ezin dut pentsatu objektu determinatu bat, baizik errepresentazioen batasuna besterik ez, horrela beren objektu bat determinatzearen. Oinarrian datzan begiespenik gabe kategoriak soilik ezin du objektu baten adigairik sortu; izan ere, begiespenaren bitartez soilik ematen zait objektua, hots, ondoren kategoriaren arabera pentsatzen den objektua. Nik gauza bat agerpeneko substantziazat adierazten badut, orduan aldeztu aurretik bere begiespenaren predikatuak eman behar zaizkigu, eta nik hauetan iraunkorra dena aldakorra denetik eta substratua (gauza bera) berari atxikitu besterik egiten ez zaionetik bereizten ditut. Gauza bat agerpenean *bakuna* dela badiot, orduan horretaz zera ulertzen dut: bere begiespena agerpenaren zatia dela, baina ezin dela zatitu, eta abar. Zerbait, ordea, adigaian bakuna bezala berrezagutzen bada, baina ez agerpenean, orduan horren bitartez ez dut objektuaren ezagutzarik, baizik Zerbaiten oro har egiten dudana adigaiaz besterik ez, ezein begiespen propiotarako gai ez den adigaiaz. Erabat bakuna den zerbait pentsatzen dudala besterik ez diot, zeren benetan Zerbait badela baino gehiago ez baitakit esaten.

Apertzepzio soila (nia), ordea, substantzia da adigaian, bakuna da adigaian, eta abar, eta horrela, teorema psikologiko haiek guztiek beren zuzentasun eztabaidea dute. Honen bitartez ez da, alabaina, arimaz beraz benetan jakin nahi dena ezagutzen, izan ere, predikatu hauek guztiek ez dute balio begiespenez, eta ondorioz, ezin dute esperientziako objektuei aplikatuko litzaiekeen ondorioz izan, eta beraz, erabat kaskalak dira. Izan ere, substantziaren adigai hark ez dit irakasten arimak berez irauten duenik, ezta kanpoko begiespenen era berean zatitu ezin den zatia denik ere, eta beraz, izadiaren ezein aldaketaren bitartez sortu edo desagert daitekeenik; berekitasun hauek arima ezagugarria bihur dezakete esperientziaren testuinguruan, eta bere jatorria eta etorkizuneko egoeraz zerbait jakinarazi ahal izango lukete. Nik, ordea, orain kategoría soilen bitartez arima substantzia bakuna dela esaten baldin badut, orduan argi dago: substantziaren adimen-adigai gordinak gauza bat berbaitango subjektu gisa errepresentatu behar izatea besterik barnebiltzen ez duenez, bere aldetik beste baten predikatu bat izan gabe, orduan hortik ez dela ezer ondorioztatzen iraunkortasunaz, eta bakuna izatearen atributuak ezin duela ziurki iraunkortasun hau gaineratu, eta beraz, ez dela deus ere irakasten arimak munduaren aldaketetan aurki dezakeenaz. Norbaitek arima *materiaren zati bakuna* dela esan ahal izango baligu, orduan honetatik iraunkortasuna eta, izaera bakunarekin batera, bere deuseztasun erator genezakeen esperientziak beraz irakasten duenetik abiatuta. Niaren adigaia, ordea, ez digu hitz bat bera ere esaten honetaz oinarri-esakune psikologikoan («nik pentsatzen dut»).

Ondorengoan oinarritzen da, ordea, gudan pentsatzen duen zerizanak bere burua kategoría hutsen bitartez, eta gainera, bere batasun absolutua bere izenburu bakoitzaren menpean adierazten dutenen bitartez ezagutzen duela uste izatea. Apertzepzioa bera da kategorien ahalgarritasunaren oinarria, zeinek beren aldetik begiespenaren anizkuntziaren sintesia besterik errepresentatzen ez duten, anizkuntzi honek bere batasuna apertzepzioan duen heinean. Horregatik da oro har autokontzientzia batasun ororen baldintza denaren errepresentazioa, bera, aldiz, baldintzatugabea izaki. Hau esan daiteke, beraz, nia pentsatzaileaz (arimaz), hots, substantzia gisa, bakun gisa, denbora orotan zenbakiari dagokionez identiko gisa, eta beste izate oro inferiorazten duen izatearen korrelato gisa pentsatzen denaz: bera *ez dela* ezagutzen *kategorien bitartez*, baizik berak ezagutzen dituela *kategoriak* eta *hauen bitartez* objektu guztiak apertzepzioaren batasunean, eta beraz, bere bitartez ezagutzen dela. Argitzailea da oro har objektu bat ezagutzearen auresuposatu behar dudana gauza bera ezin dela objektu gisa ezagutu eta Norbera determinatzailea (pentsatzea) ezin dela Norbera determinagarritik (subjektu pentsatzailea) bereizi, ezagutza eta bere objektua bereizten diren bezala. Dena dela, ez dago ezer berezkoagorik eta erakargarriagorik pentsamenduen sintesiko batasuna pentsamendu hauen subjektuan hautemandako batasuntzat hartzeko itxura baino. Honi kontzientzia hipostasiatuaren subrepzioa dei dakioke (apperceptionis substantiatae).

Arimaren irakaspen arrazionalaren arrazoimen-inferentzia dialektikoetako paralogismoari izenburua logikoki eman nahi bazaio, inferentziek premisa zuzenak dituzten heinean, bada, orduan irakaspena sophisma figurae dictionis gisa har daiteke, eta bertan kategoriaren esakune nagusiak erabilera transzendental soila du bere baldintzari dagokionez, esakune txikiak, ordea, eta konklusioak, baldintza horri menperatzen zaizkion heinean, kategoría berberaren erabilera enpirikoa egiten dute arimari

dagokionez. Horrela, adibidez, substantziaren adigaia sinpletasunaren paralogismoan adigai intelektual soila da, zeinak sentsuzko begiespenaren baldintzarik gabe erabilera transzendental besterik ez duen, h. d., batere erabilerarik ez duen. Esakune txikian, ordea, adigai berbera barneko esperientzia ororen objektuari aplikatzen zaio, bere aplikazioaren baldintza, hots, bere iraunkortasuna, aldezturik in concreto finkatu eta oinarrian ezarri ez izan arren, eta horregatik bere erabilera enpirikoa egiten da, hemen onartezina dena.

Eta azkenik, zera oharrarazten da, honela arimaren irakaspen sofistikoaren baieztapen dialektiko hauen guztien bilkura sistematikoa arrazoimen hutsaren bilkura batean azaltzearen, eta beraz, bere osotasuna azaltzearen: apertzepzioa kategorien klase ororen bitartez egikaritzen dela, baina kategoria bakoitzean gainerakoentzat hautemapen ahalgarri baten batasunaren oinarriak diren adimenaren adigaiei soilik lotzen zaiela, eta ondorioz, subsistentzia, errealitatea, batasuna (ez askotasuna) eta existentziari, arrazoimenak hemen hauek guztiak baldintzatugabea den zerizan pentsatzaile baten ahalgarritasunaren baldintzatzat errepresentatzen dituela. Beraz, arimak bere baitan zera ezagutzen du:

1.

Hartuemanaren

*batasun baldintzatugabea, h. d.,
norbere burua, ez inherentea, baizik
subsistentea den aldetik*

2.

*Kualitatearen
batasun*

*baldintzatugabea, h. d.,
ez osoki erreala,
baizik bakuna den aldetik*¹¹²

3.

*Askotasunaren batasun
baldintzatugabea denboran,
h. d., ez denbora ezberdinetan
zenbakiari dagokionez ezberdina,
baizik subjektu Bat eta
berbera den aldetik*

4.

*Izatearen batasun
baldintzatugabea espazioan, h. d.,
ez niganetik kanpoko gauza anizkunen kontzientzia,
baizik norberaren izatearena besterik ez,
beste gauzena, ordea,
beren errepresentazio gisa besterik ez*

Arrazoimena printzipioen ahalmena da. Psikologia hutsaren baieztapenek ez dituzte arimaren predikatu enpirikoak barnebiltzen, baizik, baldin eta agitzen badira, objektua bere baitan esperientziatik beregainki, eta beraz, arrazoimen soilaren bitartez determinatu behar duten predikatuak. Jakina, beraz, izaera pentsatzaileen printzipio eta adigai orokorretan oinarritu behar dutela oro har. Hala ere, horren ordez zera aurkitzen da: «ni naiz» errepresentazio bakanak eraentzen dituela osotara, hots, zerizan pentsatzaile denentzat balio duen esakune orokor gisa iragartzen den errepresentazioak, nire esperientzia ororen formula hutsa (indeterminatuki) adierazten duelako, eta bera zentzu orotan bakana denez gero, orduan berekin dakar pentsatzearen baldintzen batasun absolutuaren itxura oro har, eta horren bitartez esperientzia ahalgarria hedatuko litzatekeen puntura baino urrunago iristen da.

Dialektika transzendentalaren

Bigarren liburuko

Bigarren atalburua

Arrazoimen hutsaren antinomia

Gure lanaren zati honen sarreran azaldu dugu arrazoimen hutsaren itxura transzendental oro inferentzia dialektikoetan funtsatzen dela oro har, zeinen eskema Logikak ematen duen eskura arrazoimen-inferentzien hiru era formaletan, kategoriek beren eskema logikoak judizio ororen lau funtzioetan dituzten bezala. Inferentzia sofistiko hauen *lehen erak* errepresentazio ororen baldintza *subjektiboen* batasun baldintzatugabearekin zuen zerikusia (subjektuaren edo arimaren errepresentazioarekin), arrazoimen-inferentzia *kategorikoei* egokituz, zeinen esakune nagusiak, printzipio gisa, predikatu batek *subjektuarekin* duen harremana adierazten duen. Argumentu dialektikoaren *bigarren erak* baldintza objektiboek agerpenean duten batasun baldintzatugabea bihurtzen du bere edukia arrazoimen-inferentzia *hipotetikoekin* analogian, eta *hirugarren erak*, datozen atalburuetan aurkituko dugunak, oro harrezko objektuaren ahalgarritasunaren baldintza objektiboen batasun baldintzatugabea du bere gai gisa.

Bitxia da, ordea, paralogismo transzendentalak itxura aldebakarra soilik sortu izana gure pentsatzearen subjektuaren ideari dagokionez, eta gainera bertan aurkakoaren baieztapenerako itxura txikienik ere ez aurkitzea arrazoimen-adigaietatik abiatuta. Abantaila pneumatismoaren aldean dago guztiz, baina honek ezin du jaraunspen-akats bat ukatu, alegia, bere aldeko itxura oro dela ere, kritikaren suzko proban lurrin soila bihurtzea.

Erabat bestela gertatzen da arrazoimena agerpenen *sintesi objektiboari* aplikatzean, zeinengan berak batasun baldintzatugabearen bere printzipioa itxuratsuki balioaraztea pentsatzen duen, baina laster hain kontraesan handietan nahasten den, ezen Kosmologiaren sailean dituen eskakizunak bertan behera uztera behartua gertatzen baita.

Hemen, giza arrazoimenaren fenomeno berria azaltzen da, hots, erabat berezkoa den antitetika, inork hausnartu eta artifizialki ehuntzeko beharrik ez duena, baizik arrazoimena bertan berez eta gainera ezinbestean azaltzen dena, eta horren bitartez itxura aldebakarra soilik sortzen duen uste oso irudikatuaren loturatik askatzen duen antitetika, nahiz eta aldi berean, edo etsipen eszeptikoan erortzeko, edo irmotasun dogmatikoa onartzeko eta egoskorki baieztapen jakin batzuen alde egiteko tentaldira eramaten duen, aurkakoaren oinarriak entzun gabe eta bere eskubiderik gorde gabe. Biak dira Filosofia osasuntsu baten heriotza, nahiz eta lehenengoari, dena dela, arrazoimen hutsaren *eutanasia* dei dakioken.

Arrazoimen hutsaren legeen (antinomien) gatazka honek sortzen dituen banaketa eta desordena erakutsi aurretik, gure gaiaren landualdian erabiltzen dugun metodoa azal eta legeza dezaketen argipen jakin batzuk eman nahi ditugu. Ideia transzendental denei *mundu-adigaiak* deitzen diet, hauek agerpenen sintesian totalitate absolutua ukitzen duten heinean, aldeztu beren totalitate baldintzatugabeagatik, hemen ideia bat besterik ez den mundu-osotasunaren adigaia funtsatzen dela, aldeztu agerpenen sintesiari, eta beraz, sintesi empirikoari datxezkiolako; totalitate absolutuak gauza ahalgarri guztien baldintzen sintesian, osteratzen, oro har arrazoimenaren ideal bat sortuko du, mundu-adigaietatik erabat ezberdina dena beraiekin harremanean dagoen arren. Horregatik, arrazoimen hutsaren paralogismoek Psikologia dialektiko baterako oinarria ezarri zuten era berean arrazoimen hutsaren antinomiak ustezko Kosmologia (arrazional) huts baten oinarri-esakune transzendentalak jartzen ditu begi-bistan, ez oinarri-esakune baliodunak aurkitzeko eta bereganatzeko, baizik, jadanik arrazoimenaren aurkakotasunaren izendapenak azaltzen duen bezala, agerpenekin bateratu ezin daitezkeen ideia gisa beren itxura distiratsu baina faltsuan aurkezteko.

Arrazoimen hutsaren antinomiaren

Lehen atala

Idea kosmologikoen sistema

Idea hauek orain printzipio baten arabera zehaztasun sistematikoaz zenbatu ahal izatearren, *lehenik*, adigai huts eta transzendentalak adimenean soilik sor daitezkeela oharrarazi behar dugu, eta arrazoimenak benetan ez duela adigairik sortzen, baizik gehienez ere *adimenaren adigaia* esperientzia ahalgarriaren zedarritzapen itzuriezinetatik *askatzen* duela, eta beraz, bera enpirikoa denaren mugez goiti hedatzen saiatzen dela, nahiz eta berekin elkarloturan izan. Hau honela gertatzen da: baldintzatuki jakin baterako totalitate absolutua eskatuz baldintzen aldetik (adimenak berari menperatzen dizkiola batasun sintetikoaren agerpen denak), eta horrela kategoría idea transzendental bihurtuz, honela sintesi enpirikoari bere osotasun absolutua emateko baldintzatugabekira arteko bere jarraipenaren bitartez (zeina inoiz ez den esperientzian gertatzen, baizik ideian besterik ez). Arrazoimenak hau oinarri-esakune honen arabera eskatzen du: «*baldintzatukia ematen bada, orduan baldintzen batura osoa ere bai, eta beraz, erabat baldintzatugabea dena ere ematen da*», eta hura honen bitartez baino ez zen ahalgarria. Beraz, *hasteko*, idea transzendentalak ez dira baldintzatugabekira hedatutako kategoriak baino izango, eta haiek taula bat osatu ahal izango dute azkenengo hauen izenburuen arabera. *Bigarrenik*, ordea, kategoría denek ez dute horretarako balio, baizik beraietan sintesiak *ilara* bat osatzen duten haiek besterik ez, eta gainera baldintzatuki batera doan elkarri menperatutako (ez koordinatutako) baldintzen ilara. Arrazoimenak totalitate absolutua bera baldintzatuki jakin baterako baldintzen ilara gorakorrari lotzen zaion heinean soilik bultzatuko du, ez, ordea, solasgaia ondorioen lerro beherakorra edo ondorio hauen baldintza koordinatuen agregatua bada. Izan ere, baldintzak jadanik baldintzatuki jakin bati dagozkionez auresuposatzen dira eta honekin batera emanak balira bezala hartzen dira; aitzitik, ondorioek beren baldintzak ahalbidetu ez, baina auresuposatzen dituztenez gero, orduan aurrerapenean (edo baldintza jakinetik baldintzatura beheeratzean) arduragabe izan ahal zaio ondorioei dagokienez, ea ilara mozten den ala ez, eta bere totalitateaz egiten den galdekizuna bera ez da arrazoimenaren ezein auresuposiziorik.

Horrela, une jakin bat arte guztiz igarotako denbora halabeharrez emandakotzat hartzen da (nahiz ez gugandik determinagarritzat). Etorkizunari dagokionez, berriz, gaurkotasunera iristeko baldintza ez denez gero, orduan hau ulertzeko erabat axolagabea da etorkizuneko denborarekin nola jokutzen dugun, ea noizbait bukatzen den edo amaigaberraino jarraitzen duen. «M», «n», «o» ilara izan dadin, non «n» «m»-ri dagokionez baldintzatua dagoen, baina aldi berean «o»-ren baldintza den; ilara gorakorra izan dadin «n» baldintzatutik «m»-ra («l», «k», «i», eta abar), halaber, beherakorra «n» baldintzatik «o» baldintzatura («p», «q», «r», eta abar); orduan nik lehen ilara auresuposatu behar dut «n» emandakotzat hartzeko, eta «n» arrazoimenaren arabera (baldintzen totalitatearen arabera) ilara haren bitartez besterik ez da ahalgarria, baina bere ahalgarritasuna ez da funtsatzen ondorengo ilaran, «o», «p», «q», «r», zeina, hainbestez, emandakotzat ez, baizik dabilis (emangarri) gisa soilik har daitekeen.

Baldintzen aldetiko ilara baten sintesiari, hots, agerpen jakinaren baldintza hurbilenetik urrunenera doanari, *itzulkorra* deitu nahi diot, baldintzatuaren aldetikoari, berriz, ondorio hurbilenetik urrunenera doanari, sintesi *aurrerakorra*. Lehena in antecedentia doa, bigarrena in consequentia. Idea kosmologikoen, beraz, sintesi itzulkorraren totalitateaz jarduten dute, eta in antecedentia doaz, ez in consequentia. Azken hau gertatzen bada, hau arrazoimen hutsaren hautazko arazoa da eta ez beharrezkoa, zeren agerpenean ematen denaren ulergarritasun osorako bere oinarriak behar baititugu, ez, ordea, ondorioak.

Hortaz, kategorien taularen ondoren ideien taula antolatzearen, lehenik, gure begiespen ororen bi jatorrizko quanta hartzen ditugu, espazioa eta denbora. Denbora bere baitan da ilara bat (eta ilara ororen baldintza formala), eta horregatik, bertan emandako gaurkotasunari dagokionez a priori bereiztu behar dira antecedentia-k (iragana) consequentia-tik (etorkizuna). Ondorioz, baldintzatuki jakin baterako baldintzen ilararen totalitate absolutuaren idea transzendental iragandako denborari soilik datzekio. Igarotako denbora guztia arrazoimenaren ideien arabera halabeharrez pentsatzen da emandakotzat une jakinaren baldintza gisa. Espazioari dagokionez, bertan ez dago bere baitan aurrerakorraren eta itzulkorraren arteko ezberdintasunik, zeren berak *agregatu* bat osatzen baitu, baina ezein *ilararik* ez, bere zatiak osotara aldi berean diren heinean. Egungo denbora-unea baldintzatutzat baino ezin dut hartu denbora iraganari dagokionez, inoiz ez baldintzatutzat, zeren une hori lehen-lehenik jariatutako denboraren bitartez soilik sortzen baita (edo, are gehiago, aurretik igarotako denboraren jariatzearen bitartez). Halere, espazioaren zatiak elkarren menpekoak ez, baina elkar koordinatuak direnez gero, orduan zati bat ez da

bestearen ahalgarritasunaren baldintza, eta ez du osatzen, beraz, ilara bat denborak egiten duen lege. Baina espazioaren zati anizkunen sintesia, zeinaren bitartez bera hautematen dugun, hurrenez hurrengo da, denboran gertatzen da, beraz, eta sintesi hark ilara bat barnebiltzen du. Agregatutako espazioen ilara honetan (adibidez, oinak bara batean) espazio jakin batetik aurrera ondoren gainpentsatutako espazioak beti aurrekoen *mugen baldintzak* dira, eta orduan espazio baten *neurtzea* ere baldintzatuki jakin baterako baldintzen ilara baten sintesizat hartu behar da, baina baldintzen aldea eta baldintzatutakoaren aldea bere baitan bereiztu gabe, eta ondorioz, itzultzea eta aurrera egitea espazioan gauza berbera direla dirudi. Hala eta guztiz ere, espazioaren zati bat bestearen bitartez ematen ez denez, baizik mugatua besterik ez denez, espazio mugatu bakoitza baldintzatutzat hartu behar dugu, eta honek beste espazio bat auresuposatzen du bere mugaren baldintza gisa, eta horrela ondoren ere. Mugapenari begira, beraz, espazioan aurrerapena itzultze bat ere bada, eta sintesiaren totalitate absolutuaren ideia transzendental baldintzen ilaran espazioari ere badagokio, eta espazioan ematen diren agerpenen totalitate absolutuaz galde dezaket igarotako denborarenaz galde dezakedan bezala. Datorrenean determinatu ahal izango da, ordea, ea oro har erantzunik egon daitekeen.

Bigarrenik, errealitatea espazioan, h. d., materia, baldintzatua da, bere barneko baldintzak bere zatiak eta zatien zatiak urruneko baldintzak izaki, eta hemen sintesi itzulkorra gertatzen da, zeinaren totalitate absolutua arrazoimenak sustatzen duen, zatiketa osatu baten bitartez soilik gerta daitekeena, eta honen indarrez materiaren errealitatea edo ezerezean edo jadanik materia ez den, baizik bakuna den zerbaitetan desagertzen da. Ondorioz, hemen ere baldintzen ilara bat eta baldintzatugabekira doan aurrerapena dauzkagu.

Hirugarrenik, agerpenen arteko hartueman errealek kategoriei dagokienez, substantziaren kategoria bere akzidenteekin batera ez da egokia gertatzen ideia transzendental baterako, h. d., arrazoimenak ez du oinarririk beraiei dagokienez itzulkorki baldintzetara joateko. Izan ere, akzidenteak elkar koordinatzen dira (substantzia bakarrari atxikitzen bazaizkio) eta ez dute ilararik osatzen. Substantziari dagokienez, ordea, ez daude berari menperatuak, baizik substantziaren existitzeko erak dira. Hemen, oraindik arrazoimen transzendentalaren ideia izatea dirudiena *substantzialkiaren* adigaia litzateke. Baina honek oro harrezko objektuaren adigaia besterik esan nahi ez duenez gero, bertan batere predikaturik ez duen subjektu transzendental soila pentsatzen den heinean, eta hemen, berriz, solasgaia agerpenen ilarako baldintzatugabekia denez gero, orduan argi dago substantzialkiak ezin duela bertako osakidea izan. Gauza berak balio du komunitatean dauden substantziez, agregatuak besterik ez direnez eta ilara baten esponenterik ez dutenez, beren ahalgarritasunaren baldintza gisa elkarri menperatuak ez daudelako; hau espazioez esan ahal izan genuen ordea, beren muga inoiz ez baitzen bere baitan determinagarria, baizik beti beste espazio baten bitartez. *Kausalitatearen* kategoria baino ez zaigu geratzen, zeinak kausen ilara bat eskaintzen duen efektu jakin baterako, zeinengan azken honetatik abiatuta baldintzatuki gisa hartara igo daitekeen baldintza gisa, eta hainbestez, arrazoimenaren galdekizuna erantzun daitekeen.

Laugarrenik, ahalgarria, errealia eta beharrezkoa denaren adigaiek ez dute gidatzen gugandik at dagoen ezein ilaratara, *beharbadakoa dena* izatean beti baldintzatutzat hartu behar den heinean, eta baldintza batera igortzen du adimenaren erregelari jarraiki, eta honen arabera beharrezkoa gertatzen da hau baldintza garaia gora igortzea, harik eta arrazoimenak ilara honen totalitatean baldintzatugabeko *beharrezkotasuna* aurkitzen duen arte.

Beraz, kategorien lau izenburuen arabera lau ideia kosmologiko besterik ez daude, baldin eta aldean halabeharrez anizkunkiaren sintesiaren ilara bat dakartenak aukeratzen badira.

1.

Agerpen ororen osoki jakinaren
elkarketaren
osotasun absolutua

2.

Agerpeneko
osoki jakin baten
zatiketaren
osotasun absolutua

3.

Oro harrezko
agerpen baten
sorketaren
osotasun absolutua

4.

Agerpeneko aldakorkiaren
izatearen menpekotasunaren
osotasun absolutua

Lehenik, hemen zera oharrarazi behar da: totalitate absolutuaren ideia *agerpenen* esposizioari soilik dagokiola, ez oro harrezko gauzen osoki baten adimenaren adigai hutsari. Hemen, agerpenak emanak balira bezala kontsideratzen dira, eta arrazoimenak beren ahalgarritasunaren baldintzen osotasun absolutua sustatzen du, hauek ilara bat, eta beraz, sintesi oso-oso osatzen duten heinean (h. d., zentzu orotan osoa), eta honen bitartez agerpena adimenaren legeen arabera azal daiteke.

Bigarrenik, baldintzatugabekia baino ez da benetan arrazoimenak ilararen gisako baldintzen sintesi itzulkor eta jarraitu honetan bilatzen duena, nolabait esateko, osotara hartuta beste ilararik auresuposatzen ez duten premisen ilararen osotasuna. *Baldintzatugabeki* hau beti *ilararen totalitate absolutuan* barnebildua dago, irudimenean errepresentatzen baldin bada. Erabat osatutako sintesi hau, ordea, era berean ideia bat besterik ez da; izan ere, ezin baita jakin, aldeztu aurretik behinik behin, ea halakoa agerpenetan ere ahalgarria ote den. Dena adimenaren adigai soilen bitartez errepresentatzen baldin bada, sentsuzko begiespenaren baldintzarik gabe, orduan benetan esan dezakegu: baldintzatuki jakin baten elkarren menpeko baldintzen ilara osoa ere ematen dela; izan ere, hura honen bitartez baino ez da ematen. Hala ere, agerpenetan baldintzak emateko eraren zedarriztapen berezi bat aurkitzen da, hots, begiespenaren anizkunkiaren hurrenez hurrengo sintesiaren indarrez itzultzean osatu behar dena. Oraindik arazotsu dirau ea osotasun hau ahalgarria den sentsuzko osotasun gisa. Osotasunaren ideia hau, ordea, arrazoimenean datza jadanik, adigai enpirikoak berekin egokiro elkarlotzeko ahalgarritasuna edo ahalezintasuna alde batera utziz. Beraz, agerpeneko anizkunkiaren sintesi itzulkorraren totalitate absolutuan (kategorien gidaren arabera, zeinek sintesia baldintzatuki jakin baterako baldintzen ilara gisa errepresentatzen duten) baldintzatugabekia halaberrez barnebildua dagoenez, erabakitzeke utz daiteke ea eta nola sor daitekeen totalitate hau; hortaz, hemen arrazoimenak totalitatearen ideiatik abiatzea aukeratzen du, nahiz eta benetan *baldintzatugabekia* izan bere azken asmoa, edo ilara osoaren baldintzatugabekia, edo bere zati batena.

Baldintzatugabekia ilara osoa osatuz pentsa daiteke, zeinengan, beraz, osakide guztiak salbuespenik gabe baldintzatuak liratekeen eta beren osokia baino ez litzatekeen absolutuki baldintzatugabea, eta orduan itzultzeak amaigabea izena du; edota baldintzatugabeki absolutua ilararen zati bat besterik ez da, bere gainerako osakideak berari menperatzen zaizkiola, bera beste ezein baldintzaren menpean ez dagoen bitartean¹¹³. Lehen kasuan, ilarak ez du mugarik a parte priori (hasierarik gabekoa da), h. d., amaigabea da, eta hala ere, osorik emana, baina bertan itzulera ez da inoizosatzen, eta potentzialki amaigabea soilik dei dakioke. Bigarren kasuan, ilararen Lehen bat dago, zeinak igarotako denborari begira *mundu-hasiera* izena duen, espazioari begira *mundu-muga*, bere mugen barne emandako osokiaren zatiei begira *bakuna*, kausei begira *berezkotasun* absolutua (askatasuna) eta gauza aldakorren izateari begira *izadi-beharrezkotasun* absolutua.

Nahasten diren bi adierazpen ditugu, *mundua* eta *izadia*. Lehenak, agerpen ororen osoki matematikoa eta bere sintesiaren totalitatea esan nahi du, handian eta txikian, h. d., bai elkarketaren bidezko, bai zatiketaren bidezko bere aurrerapenean. Mundu honi berari, ordea, *izadia*¹¹⁴ deitzen zaio, osoki dinamiko gisa kontsideratzen bada eta espazioan edo denboran ematen den agregazioa ez bada begiratzen, bera handitasun gisa sortzearen, baizik agerpenen *izatean* gertatzen den batasuna. Hor, gertatzen denaren baldintzak kausa izena du, eta agerpeneko kausaren kausalitate baldintzatugabeak askatasuna, baldintzatuak, berriz, adiera hertsian izadiaren kausa. Oro har izatean gertatzen den baldintzatuak beharbadakoa izena du, eta baldintzatugabekiak beharrezkoa. *Agerpenen* beharrezkotasun baldintzatugabeak izadi-beharrezkotasun izena jaso dezake.

Orain gure jardunaren gaia diren ideiei gorago ideia kosmologikoak deitu diet, aldeztu munduaz agerpen ororen multzoa ulertzen delako eta gure ideiak ere agerpenen arteko baldintzatugabekiaren arabera soilik dabilatzelako; aldeztu, «mundu» hitzak adiera transzendentalean existitzen diren gauzen multzoaren totalitate absolutua esan nahi duelako, eta gure arreta sintesiaren osotasunari soilik eskaintzen diogulako ere bai (nahiz eta hau benetan baldintzetara doan itzuleran baino ez egin). Horrez gain, ideia hauek osotara transzendenteak direnez gero, eta objektua, hots, agerpenak, *moduaren arabera* gaintzen ez dituzten arren, aitzitik, sentsuen munduarekin soilik duten arren zerikusia (ez noumenoekin), hala ere, sintesia esperientzia ahalgarri oro gaintzen duen *mailara* bultzatzen dela kontsideratzen bada, orduan nire iritziz ideiei osotara erabat egokiro dei dakieke *mundu-adigaiak*. Itzultzeak oharrarazten duen baldintzatugabeki matematikoaren eta dinamikoaren arteko bereizketari dagokionez, bi lehenei esanahi hertsian mundu-adigaiak (munduaren adigaiak handian eta txikian), gainerako biei, ordea, *izadi-*

adigai transzendentek deituko nieke. Bereizkuntza honek ez du garrantzi berezirik oraingoz, baina aurrera egitean garrantzitsuagoa bihur daiteke.

Arrazoimen hutsaren antinomiaren

Bigarren atala

Arrazoimen hutsaren antitetika

Tetika irakaspen dogmatikoen multzo bakoitza baldin bada, orduan antitetikaz ez ditut ulertzen aurkakoaren baieztapen dogmatikoak, baizik itxuraz dogmatikoak diren ezagutzen aurkakotasuna (thesis cum antithesi), non batak besteak baino uzi bereziagorik ez duen onartua izateko. Antitetikak, beraz, ez du jarduten inolaz ere baieztapen aldebakarez, baizik arrazoimen-ezagutza orokorrak hartzen ditu aintzat, beraiek elkarrekin duten aurkakotasunari eta beren kausei dagokionez besterik ez bada ere. Antitetika transzendentala arrazoimen hutsaren antinomiaren azterketa da, bere kausena eta bere emaitzarena. Gure arrazoimena adimenaren oinarri-esakuneen erabileran esperientziako objektuei soilik aplikatzea ez ezik, haiek esperientziaren mugez goiti hedatzera ere ausartzen baldin bagara, orduan teorema *sofistikoak* sortzen dira, esperientzian baieztatuak izatea itxaroten ez dutenak, errefusapenaren beldurrik ere ez dutenak, eta hauetako bakoitza bere baitan kontraesanik gabea izan ez ezik, arrazoimenaren izaeran bere beharrezkotasunaren baldintzak ere aurkitzen ditu; zoritxarrez, ordea, aurkako teoremak ere hain baliogarriak eta beharrezkoak diren baieztapenerako oinarriak ditu bere alde.

Arrazoimen hutsaren halako Dialektika batean berez aurkezten diren galdekizunak hauek dira: 1. Zein esakunetan gertatzen den benetan arrazoimen hutsa antinomia baten menpean ezinbestean. 2. Zein kausatan funtsatzen den antinomia hau. 3. Ea kontraesan horien artean arrazoimenari, dena dela, ziurtasunerantz doan bide ireki bat geratzen zaion, eta ea bide hau nolakoa den.

Arrazoimen hutsaren teorema dialektikoak, beraz, esakune sofistiko orotatik bereizten duen hau izan behar du bere baitan, alegia, ez dagokiola balizko asmo jakin batekin egiten den hautazko galdekizun bati, baizik giza arrazoimen orok bere aurrerapenean halabeharrez aurkitu behar duenari; eta bigarrenik, berak bere aurkako esakunearekin batera ez dakarrela berekin aditu ahala desagertzen den itxura artifizia, baizik berezkoa eta ezinbestekoa den itxura, gehiago iruzurtzen ez digunean ere oraindik amarru egiten duena, nahiz ez engainatu, eta beraz, kalterik egin ez duen itxura bihurtzen den arren, inoiz desagertarazi ezin daitekeena.

Halako irakaspen dialektikoa ez zaio lotzen adimenaren batasunari esperientziako adigaietan, baizik arrazoimenaren batasunari ideia soiletan, zeren bere baldintzak, lehenik, erregelen araberrako sintesi gisa adimenarekin, baina aldi berean, bere batasun absolutu gisa arrazoimenarekin bateratu behar direnez gero, orduan arrazoimenaren batasunarentzat egokia bada, adimenarentzat handiegia gertatzen da, eta adimenarentzat egokia bada, arrazoimenarentzat txikiegia gertatzen da; hortik, bada, saihesten ezin daitekeen aurkakotasuna sortzen da halabeharrez, edonola hasita ere.

Baieztapen sofistiko hauek borroka-leku dialektiko bat aurkezten dute, non erasotzeko baimena duen alderdi bakoitzak irabazten duen eta babesean jarritz jotzera behartua denak ziur galtzen duen. Horregatik, zaldun indartsuak ere, kausa on edo gaiztoaren alde egiten badute ere, irabazlearen koroa lortzeaz seguru dira, baldin eta azken erasoak egiteko abantaila lortzen badute eta aurkakoaren eraso berria jasotzera behartuak ez badaude. Erraz irudika daiteke, enparantza hau aspalditik oso erabilia izan denez, garaipen asko lortu dituztela bi alderdiek, baina azkenari, gauza erabakitzen zuenari dagokionez, beti saiatu da kausa onaren aldeko borrokalariak enparantza gorde zezan, aurkakoari aurrerantzean armak eskuan hartzea debekatuz. Alderdikeriari ematen ez gatazka epaileak garenez, alde batera utzi behar dugu ea gatazkatzaileek kausa ona edo gaiztoaren alde borrokatzen ote duten, eta gauza beren artean erabaki dezaten utzi behar diegu. Agian, berez ikusiko dute beren gatazka-ekimenaren hutsaltasuna kaltetu baino gehiago nekatu diren ondoren, eta lagun on bezala bananduko dira.

Baieztapenen gatazka behatzeko edo, are gehiago, bera sortzeko metodo hau, ez azkenean alde baten edo bestearen alde erabakitzearren, baizik bere gaia ea agian itxurapen soila ez ote den aztertzearen, hots, alferrik bilatzen den eta berekin ezer irabazi ezin den itxurapena, ezerk aurka egiten ez badio ere; jardunbide honi, diot, *metodo eszeptikoa* dei dakioke.

Eszeptizismotik erabat ezberdina da, ezjakintasun artifizial eta zientifiko baten oinarri-esakunea, beraz, ezagutza ororen oinarritzapena hondoratzen duena, horrela ahalbait batere konfiantzarik eta segurtasunik ez uztearren oro har. Izan ere, metodo eszeptikoa ziurtasunari datzekio, bi aldeek egia eta adimenaren bidez bideratzen duten gatazka honetan gaizki-ulertzearen puntua aurkitzearen, lege-emaille jakintsuek egiten duten legez, zuzenbide arazoetan epaileek dituzten estualdietatik beren legeetan akasduna denari eta zehazki determinatuta ez dagoenari buruzko irakaspena lortzearen. Legeen aplikazioan nabarmentzen den antinomia nomotetikaren etsamina-saialdi onena da gure jakituria zedarritzatuan, honela bere espekulazio abstraktuan bere hanka-sartzeaz erraz ohartzen ez den arrazoimenari horren bitartez bere oinarri-esakuneen determinazioaren uneak aditzera ematearren.

Metodo eszeptikoa, ordea, Filosofia transzendentalari soilik dagokio funtsean, eta azterketen beste alor denetan utz daiteke, honetan soilik ez. Bera Matematikan erabiltzea burugabea litzateke, zeren bertan ezein baieztapen faltsu ezin baita ezkutatu eta ikustezina bihurtu, frogak beti begiespen hutsaren hariari jarraiki behar zaizkion heinean, beti ebidente den sintesiaren bitartez jarraiki ere. Filosofia esperimentalean atzerapenaren zalantza onuragarria izan daiteke, baina bertan ezinezkoa gertatzen da azkar gainditu ezin daitekeen gaizki-ulertzerik, eta esperientzian egon behar dute azkenean tirabiraren erabakirako azken baliabideek, goiz edo berandu aurki daitezkeela ere. Moralak bere oinarri-esakuneak osotara in concreto eman ditzake ondorio praktikoekin batera, esperientzia ahalgarrian bederen, eta horren bitartez abstrakzioaren gaizki-ulertzea saihestu dezake. Aitzitik, esperientzia ahalgarri ororen alorraz goiti hedatzen diren ikuskerak izateko handiustea duten baieztapen transzendentalek ezin dute eman bere sintesi abstraktua a priori begiespen batean eta ez daude gaizki-ulertzea esperientziaren baten bitartez aurkitu ahal izateko moduan antolatuak. Arrazoimen transzendentalak, beraz, baieztapen beren arteko bateratzearen saialdia baino beste frogarririk ez du baimentzen, eta beraz, batez ere beren arteko lehiaketa aske eta oztopogabearen bateratzea, eta hau aurkeztu nahi dugu hemendik aurrera¹¹⁵.

goratzen den heinean, bere duintasuna erakusten du, zeinak, baldin eta bere handiusteak egiaztatu ahal balitu, beste giza zientzia ororen balioa gaindituko lukeen, azken helburua lortzeko gure itxaropen eta ikuspegi handien oinarritzapena agintzen digun heinean, bertan arrazoimenaren ahalegin guztiak azkenean bateratu behar direla. Ea munduak espazioan hasiera bat eta bere hedaduraren mugarik duen; ea nonbait, eta agian neure Norbera pentsatzailean, batasun zatiezin eta deuseztazez dagoen, edo zatigarria eta iragankorra soilik dena besterik ez dagoen; ea nire ekintzetan askea, edo beste zerizanen gisara izadiaren eta patuaren hariak zuzendua naizen; ea, azkenik, munduaren kausa gorena dagoen, edo izadiaren gauzek eta beren ordenak azken objektua osatzen duten, bertan gure kontsiderazio guztiak geratu egin behar direla: galdekizun hauen guztien konponketa lortzearen truke matematikariak gustura emango luke bere zientzia osoa; izan ere, Matematikak ezin ditu gogobete gizatasunaren helburu gorenak eta barnekoenak. Matematika beraren duintasuna (giza arrazoimenaren harrotasun hori), izadia handian eta txikian, bere ordenan eta erregulartasunean, halaber, bera higitzen duten indarren batasun harrigarrian aditzez esperientzia arruntean oinarritzen den Filosofiaren itxaropenetatik askoz goitiago joanez, arrazoimenari gida ematean funtsatzen da, eta honen bidez esperientzia ororen goiti hedatzen den arrazoimenaren erabileran eragiten du eta hau bultzatzen du, halaber, horretaz jarduten duen Filosofiari (Weltweisheit) material bikainak ematen dizkio, bere ikerkuntza begiespen egokiek sustatzearen, ikerkuntzaren antolaerak baimentzen duen heinean.

Espekulazioaren zoritxarrerako (agian, ordea, gizakiaren determinazio praktikoren zorionerako) arrazoimena bere itxaropen gorenaren erdian oinarri eta aurkako oinarri hain lotua gertatzen da, non bere ohoreagatik eta bere segurtasunagatik ezinezkoa zaionez atzera egitea eta gatazka hori ezpata-jolas soil gisa axolagabeki begiratzea, are gutxiago absolutuki bakea agintzea, gatazkaren gaia asko interesatzen baitzaio, hainbestez, arrazoimenak bere buruarekin duen bateratze-ezaren jatorriari buruz gogoetatzea baino beste aukerarik ez baitzaio geratzen, erruduna agian gaizki-ulertze soil bat ote den aztertze, bere argiketaren ondoren agian bi aldetatik uzi harroak desagertuko liratekeelarik, nahiz horren ordainez arrazoimenak adimenaren eta sentsuen gaineko eraentza lasai eta iraunkor bat hasiko lukeen.

Oraingoz, argiketa zorrotz hori utziko dugu, lehenago hau kontsideratzeko: alde batera jotzera behartuak baginateke, ea zein aldetara joko genukeen hoberen. Kasu honetan egiaren frogari logikoari ez, baina gure interesari soilik galdetzen diogunez gero, orduan halako azterketak bi zatien eskubide eztabaidatuari buruz ezer erabakitzen ez badu ere, partehartzaileek gatazka honetan alde batera eta ez bestera jotzeko duten zergatia ulargarria bihurtzeko onura du, horren kausa objektuaren ikuskera berezia izan gabe, eta era berean beste gauzak argitzeko onura ere badu, adibidez, alde baten bero gartsua eta bestearen baieztapen hotza, edo alderdi bati gustura onarpen kontenta eman eta aurretiaz bestearen aurka amorratuki ekitearen zergatia.

Behin behineko juzgaketak honetan badago hau dagokion zorrotzasunaz egin ahal izateko ikuspuntua determinatzen duen zerbait, eta bi aldeetan abiapuntua den printzipioaren alderaketa da. Antitesiaren baieztapenen azpian pentsamoldearen erregulartasun perfektua eta maximen batasun osoa dagoela ohartzen da, hots, *empirismo* hutsaren printzipioa munduko agerpenen argipenean ez ezik, unibertsoaren ideia transzendentalean konponketan ere bai. Aitzitik, tesiaren baieztapenek agerpenen ilararen barneko argipen-eraren empirikoaz gain hastapen intelektualek ezartzen dituzte oinarrian, eta hainbestez, maxima ez da bakuna. Bere funtsezko bereizgarritasun-ezaugarria dela eta, ordea, tesiaren arrazoimen hutsaren *dogmatismoa* deituko diot.

Beraz, *dogmatismoaren* aldetik arrazoimenaren ideia kosmologikoen determinazioan, edo *tesiaren* aldetik, zera daukagu:

Lehenik, interes praktikoa jakin bat, pertsona onbera orok bihotzez onartzen duena, baldin eta bere benetako interesa ulertzen badu. Munduak hasiera bat duela, nire Norbera pentsatzaileak izaera bakuna, eta beraz, iraungigaitza duela, bera aldi berean bere hautazko ekintzetan askea dela eta izadiaren hertsapenez goiti dagoela, eta azkenik, mundua osatzen duten gauzen ordena osoa jatorrizko zerizan batetik datorrela, eta helburuzko batasuna eta elkarlotura oro bertatik hartzen dela, hauek guztiak Morala eta Erligioaren oinarrizko hainbeste zutabe dira. Antesiak eustazpi hauek guztiak lapurtzen dizkigu, edo horrela egiten duela dirudi.

Bigarrenik, alde honetan arrazoimenaren *interes espekulatiboa* ere agertzen da. Izan ere, ideia transzendentalek honela onartu eta erabiltzen badira, orduan baldintzen kate osoa erabat a priori jaso eta baldintzatugabeketik hasiz baldintzatukiaren eratorpena uler daiteke. Antesiak ezin du hau egin, eta bere sintesiaren baldintzen buruzko galdekizunari beti amaierarik gabe galdetzeko aukerarik uzten ez duen erantzunik ezin emateak kalte handia egiten dio. Berari jarraiki, hasiera jakin batetik garaigo batera igo behar dugu, zati bakoitzak txikiagoa den batera gidatzen du, jazoera bakoitzak beste bat dauka oraindik bere kausa

gisa, eta izatearen baldintzak beste batzuetan eusten dira, inoiz jatorrizko zerizana den gauza beregain batean baldintzatugabeko egona eta eustazpia lortu ezinean.

Hirugarrenik, tesiak herrikoitasunaren abantaila ere badauka, eta honek ez du osatzen ziurrenik bere onarpenaren alde txikiena. Adimen arruntak ez du batere zailtasunik aurkitzen sintesi ororen baldintzatugabeko hasieraren ideietan, ohituagoa baitago ondorioetara atzera egiten oinarrietara igotzen baino, eta lehen-lehenaren adigaian (ez du burua hausten bere ahalgarritasunari buruz) erosotasuna eta aldi berean bere urratsen gida-haria berari lotzeko puntu irmoa lortzen du, zeren, alderantziz, baldintzatukitik baldintzarako etengabeko goraketan ezin baitu atseginik aurkitu, bertan beti hanka bat airean duenez gero.

Enpirismoaren aldean ideia kosmologikoen determinazioan, edo *antitesiarenean*, zera daukagu:

Lehenik, arrazoimenaren printzipio hutsetatik abiatuta ez da Moralak eta Erljioak berekin dakarten adina interes praktikoa aurkitzen. Aitzitik, badirudi enpirismo soilak biei indar osoa eta eragina kentzen diela. Mundutik ezberdina den jatorrizko zerizanik ez bada, mundua hasierarik gabekoa, eta beraz, sortzailerik gabekoa ere bada, gure nahimena askea ez bada eta arimak materia beraren zatigarritasuna eta iraungikortasuna badu, orduan ideia eta oinarri-esakune *moralek* baliotasun oro galtzen dute eta beren eustazpi teoretikoa osatzen zuten *ideia transzendentalekin* batera hondoratzen dira.

Aitzitik, enpirismoak abantailak eskaintzen dizkio arrazoimenaren interes espekulatiboari, oso erakargarriak direnak eta arrazoimenaren ideien maisu dogmatikoak agindu ditzakeenak askogatik gainditzen dituzten abantailak. Honen arabera, adimena beti bere lur propioan dago, hots, esperientzia ahalgarri soilen alorrean, eta bere legeak iker ditzake eta horren bitartez bere ezagutza segurua eta ulergarria amaierarik gabe heda dezake. Hemen, objektua bere baitan zein bere hartuemanetan begiespenari aurkeztu egin ahal eta behar dio edo, gutxienez, antzeko begiespen jakinetan argiki eta nabarmenki eman daitezkeen irudien adigaian. Izadiaren ordenaren kate hau uzteko beharrik ez du, horrela ezagutzen ez dituen objektuen ideiei lotzearren, hain zuzen, objektuok pentsamen-gauza gisa inoiz eman ezin daitezkeelako; gainera, ez zaio behin ere baimentzen bere zeregina uztea eta bukatua dagoelako aitzakiaz arrazoimen idealizatzaile eta adigai transzendenten eremura igarotzea, non ez duen behatzeko eta izadiaren legeen arabera ikertzeko beharrik, baizik *pentsatzeko* eta *asmatzeko* beharra besterik ez, segurua baita izadiaren egitateek ez dutela errefusatuko, zeren ez baitago haien lekukotasunari lotua, aitzitik, haiek alde batera utz ditzake, edo goragoko autoritate bati menpera diezazkioke, hots, arrazoimen hutsaren autoritateari.

Horregatik, enpiristak ez du inoiz baimenduko izadiaren garairen bat lehen-lehengotzat onartzea, edo bere ikusmenaren mugaren bat bere hedapenari dagokionez urrunentzat hartzea, edo behaketa eta Matematikaren bitartez analizatu eta begiespenean sintetikoki determina ditzakeen izadiaren objektuetatik (hedatukia) ez sentsuak ezta irudimenak ere inoiz in concreto aurkeztu ezin ditzakeen haietara igarotzea (bakunkia); ez du onartzen era berean *izadian* oinarrian izadiaren legeetatik beregainki ekiteko ahalmena datzala (askatasuna), eta horren bitartez adimenaren zeregina agerpenen beharrezko sorrera-erregelen gida-haria murrizten duela; ez du onartzen, azkenik, orobat, zerbaiten kausa izaditik at bilatzea (jatorrizko zerizana), zeren izadia besterik ez baitugu ezagutzen, guri objektuak eskaintzen dizkigun eta hauen legeak irakatsi diezazkigukeen bakarra dena.

Filosofo enpirikoak bere antitesien bidez bere benetako determinazioa ezezagutzen duen arrazoimenaren lotsagabekeria eta neurrigabekeria apurtzea baino beste asmorik ez badu, *ikuskeraz* eta *jakintzaz* harrotzen den arrazoimenarena, alegia, egiatan ikuskera eta jakintza bukatzen diren tokian, eta interes praktikoa dagokionez soilik balio duena interes espekulatiboaren sustapenerako balioarazi nahi badu bere erosotasunerako ongi dagokionean, azterketa fisikoen haria hautsiz, eta bera ideia transzendentalekin elkartuz ezagutza hedatzearren, hauen bitartez egiatan *ezer ez dakigula baino* ezagutzen ez denean; enpiristak honekin aski izango balu, diot, orduan bere oinarri-esakunea uzietan neurritasuna izateko maxima litzateke, baieztaenetan umiltasunarena eta aldi berean gure adimenaren hedapen ahalbait handienarena, guri gainjartzen zaigun maisuaren bitartez, hots, esperientziaren bitartez. Izan ere, halako kasuan ez litzazkiguke kenduko *aurreuposizio* intelektualak eta *sinesmena* gure egiteko praktikoa mesedetan; baina ezingo litzateke zientziaren eta arrazoimenaren ikuskeraren titulu eta ponparekin agerrarazi, zeren benetako *jakintza* espekulatiboak esperientziaren objektuak baino ez baititu ukitzen, eta bere mugak gainditzen badira, orduan ezagutza berriak eta esperientziatik beregainak saiatzten dituen sintesiak ez baitu begiespenaren substraturik, haiek bertan aplikatu ahal izateko.

Horrela, ordea, ideiei dagokien enpirismoa (sarri gertatzen denez) dogmatikoa bihurtzen bada eta bere ezagutza begiesleen esferaz goiti dagoena zakarki ukatzen badu, orduan bera apaltasun ezaren hutsegitean erortzen da, hemen hainbat kritikagarriagoa dena, horren bitartez arrazoimenaren interes praktikoari desabantaila osaezina sortzen zaiolako.

Honegatik kontrajartzen zaio *epikureismoa*¹²⁴ *platonismoari*.

Dakiena baino gehiago dio bietako bakoitzak, baina *lehenak* jakintza suspertuz eta sustatuz, praktikoa denaren desabantailarako bada ere, *bigarrenak*, ordea, praktikoa denari printzipio bikainak eskuratuz, baina honen bitartez jakintza espekulatiboa soilik izan dezakegun une orotan izadiaren agerpenen argipen idealetara jotzea eta horri buruzko ikerketa fisikoa bertan behera uztea baimenduz arrazoimenari.

Azkenik, eztabaidan dabiltzan bi alderdien artean aurretiaz egin beharreko aukeran begiztatu behar den *hirugarren* uneari dagokionez, erabat bitxia da enpirismoak herrikoitasunik ez izatea, nahiz eta berehala sinetsi ahal izango zitekeen adimen arruntak gogoz onartuko lukeela bera esperientzia-ezagutza eta arrazoizko bilkuraren bitartez gogobetetzea agintzen duen egitasmoa, dogmatika transzendentalak bera pentsatzeari gehien aritutako buruen ikuskera eta arrazoimena askoz gainditzen dituzten adigaietara igotzera behartu beharrean. Hau bera da, ordea, bere eragilea. Izan ere, hainbestez, adimen hau pertsona jakintsuena ere bere gainetik altza ezin den egoeran aurkitzen da. Berak gutxi edo ezer ez badu ulertzen, orduan inor ezin da harrotu horretaz gehiago ulertzeaz, eta horri buruz besteek egiten duten bezala eskolaren gisara hitz egin ezin badu ere, dena dela, horri buruz besteek egiten dutena baino askoz gehiago jardun daiteke arrazoikerietan, zeren ideia soilen artean baitabil, eta hauetaz *beraiez ezer ez jakitean* hitz egin baitaiteke gehien, izadiaren ikerkuntzari buruz erabat isildu eta bere ezjakintasuna aitortu ordez. Erosotasuna eta hutsalkeriak oinarri-esakune hauen alde egitera gomendatzen dute indartsuki. Gainera, filosofo bati zaila egiten bazaio zerbait oinarri-esakune gisa onartzea, bere burua legeztatu ezinean, edo adigaiak onartzea, bere errealitate objektiboa aditu ezin duenean, bada, adimen arruntarentzat ez dago ohikoagoa den ezer. Konfiantzaz uler dezakeen zerbait eduki nahi du. Halako aurreuposizioa bera ulertzeko zailtasunak ez du arduratzen, ez baitzaio inoiz bururatzen (ulertzeak zer esan nahi duen ez dakien honi), eta ezagutzat jotzen du erabilera sarriaren bidez ohikoa bihurtu dena. Azkenik, beregan interes espekulatibo oro desagertzen da praktikoaren ondoan, eta zera irudikatzen du: bere ardurek edo itxaropenek onartu edo sinestera bultzatzen duten hori aditzen duela edo badakiela. Horrela, enpirismoari arrazoimen transzendental-idealizatzailearen herritartasun oro lapurtzen zaio eta oinarri-esakune praktiko gorenaren aurka hainbeste gauza kaltegarri barnebildu baditzaie ere, ez da arduragarria enpirismoak inoiz eskolaren mugak gainditzea eta gizartean hein batean soilik handia den ospea eta jendetza handiaren faborea bereganatzea.

Giza arrazoimena berez da arkitektonikoa, h. d., ezagutza guztiak sistema ahalgarri baterako egokitzen kontsideratzen ditu, eta horregatik, bilatzen den ezagutza besteekin batera sistema batean egoteko ezgauza bihurtzen ez duten printzipioak soilik baimentzen ditu. Antitesiarenean esakuneak, ordea, ezagutzen eraikin baten osaketa erabat ezinezkoa bihurtzen duten erakoak dira. Beraiei jarraiki, munduaren egoera baten gainetik zaharragoa den beste bat dago, zati bakoitzean beti zatigarria dena, jazoera bakoitzaren aurretik bestela sortua izan den beste bat, eta oro har den guztia beti baldintzatua besterik ez da eta lehen izate baldintzatugaberik ez da berrezagutzen. Antitesiak ezein Lehenengorik eta eraikinen oinarria izan zitekeen hasierarik ere onartzen ez dituen gero, orduan halako aurreuposizioarekin ezagutzaren eraikin osoa ezinezkoa gertatzen da. Horregatik, arrazoimenaren interes arkitektonikoak (batasun enpirikoa ez, baina apriorizko arrazoimen-batasun hutsa eskatzen duenak) berekin dakar tesiaren baieztapenaren aldeko berezko gomendioa.

Gizaki bat interes orotatik aska baliteke eta arrazoimenaren baieztapenak ondorio ororen ardurarik izan gabe bere oinarrien eduki soilen arabera kontsidera balitzake, orduan gizaki hau etengabeko egoera kulunkarian legoke, baldin eta arazoari ihes egiteko eztabaidan dauden irakaspenetako bat edo bestea onartzea ez den beste irteerarik ez badaki. Gaur konbentzigarria otuko litzaioke giza nahimena *askea* dela; bihar, izadiaren kate disolbaezina kontsideratu ondoren, askatasuna norbere buruari egindako iruzurra besterik ez dela eta izadia baino ez dagoela usteko luke. Ekimenaren unea iristean, ordea, arrazoimen espekulatibo soilaren jolas hau amets baten itzal-irudien gisara desagertuko litzateke, eta bere printzipioak interes praktikoaren arabera soilik aukeratuko lituzke. Alabaina, zerizan hausnartzaile eta ikertzaile bati berezkoa zaionez denbora jakinak bere arrazoimenaren etsaminan soilik ematea, hori egitean, ordea, alderdikeria oro alde batera utziz, eta horrela, bere oharrak besteei publikoki juzgaketarako komunikatuz, bada, orduan inori ezin zaio aurpegiratu, ezta ukatu ere, esakuneak eta aurkako esakuneak amenazurik gabe bere mailakoen aurrean aldeztatzen gisan aurkeztea (hots, gizaki ahulen mailan).

Arrazoimen hutsaren antinomiaren

Laugarren atala

Arrazoimen hutsaren eginkizun transzendentalez, hauek nahitaez konpondu behar diren heinean

Eginkizun guztiak konpontzea eta galdekizun guztiak erantzun nahi izatea harropuzkeria lotsagabea eta hain handiuste bitxia izango litzateke, non berehala konfiantza osoa galduko bailitzateke. Hala eta guztiz ere, badaude zientziak zeinen izaerak aldean dakarren beraietan agertzen den galdekizun bakoitzak dakigunetik abiatuta absolutuki erantzungarria izan behar duela, erantzunak galdekizuna sortu den iturri beretik sortu behar baitu, eta bertan ez da zilegizkoa ezjakintasun itzuriezina aipatzea, baizik konponketa eskatzen da. Kasu denetan *zuzena* edo *zuzengabea* dena erregelaren arabera jakin ahal izan behar da, gure eginbeharrekin zerikusia baitu, eta eginbeharrik ez baitugu *ezagutu ezin dugunaz*. Izadiaren agerpenen argipenean askok eziurra irau behar du eta galdekizun batzuk konpondugabe geratu behar zaizkigu, zeren izadiak dakiguna ez baita aski kasu guztietan argitu behar dugun guztiari dagokionez. Zera galdetzen da, ordea, ea Filosofia transzendentalean arrazoimenari aurkeztutako objektuari dagokion galdekizunik bai ote den arrazoimen horren bitartez erantzungaitza denik, eta ea erantzun erabakigarritik bidezki libra gaitezkeen, hau absolutuki ez-ziur gisa (ezagut dezakegun guztitik) egoera honi egotziz: galdekizun bat egiteko adina adigai badugula, nahiz eta bera inoiz erantzuteko baliabideak edo ahalmena osorik falta zaizkigun.

Filosofia transzentalak ezagutza espekulatibo ororen artean berezitasun hau duela baieztatzen dut: arrazoimen hutsari emandako objektuarekin zerikusia duen galdekizunik ez dagoela giza arrazoimen berarentzat konpongabea denik, eta ezjakintasun saihestezina eta eginkizunaren sakonera iristezinaren aitzakiek galdekizuna sakonki eta osoki erantzuteko beharretik ez dutela askatzen; zeren galdetzeko jarreran ezartzen gaituen adigai berak galdekizuna erantzuteko gai egin behar baikaitu osoro, objektua ez baitago adigaitik at (*zuzena* eta *zuzengabearekin* gertatzen den legez).

Filosofia transzendentalean galdekizun kosmologikoen bano ezin dute eskatu bidezki objektuaren antolaerarekin zerikusia duen erantzun gogobetegarria, eta filosofoari ez zaio zilegi izan iluntasun sarrezinaren aitzakiarekin beraietatik askatzea, eta galdekizun hauek ideia kosmologikoak soilik ukitu ditzakete. Izan ere, objektuak enpirikoki emandakoa izan behar du, eta galdekizuna objektuak ideiarekin duen egokitapenera besterik ez da zuzentzen. Objektua transzental baldin bada, eta hainbestez, berez ezagutezina bada, adibidez, ea bere agerpena (gure baitan) pentsatzea den Zerbait hori (arima) bere baitan zerizan bakuna ote den, ea osotara gauza guztien kausa bat badagoen, behar-beharrezkoa den kausa, eta abar, orduan gure ideiarentzako objektua bilatu behar dugu, zeinaz aitortu ahal izango dugun ezezaguna zaigula, baina ez horregatik ezinezkoa dela¹²⁵. Ideia kosmologikoen berezitasun hau dute beren baitan: beren objektua eta beren adigairako beharrezkoa den sintesi enpirikoa emandakotzat auresuposa dezaketela, eta beraietatik sortzen den galdekizunak sintesi honen aurrerabidearekin soilik duela zerikusia, baldin eta honek osotasun absolutua barnebildu behar badu, zeina ez den ezer enpirikoa, ezein esperientziatan ere ezin baita eman. Hemen, solasgaia gauza bat denez, hau esperientzia ahalgarriaren objektua den aldetik, eta ez berbaitango gauza den aldetik, orduan galdekizun kosmologiko transzendenten erantzuna ezin da ideian baino aurkitu, izan ere, ez du ezein berbaitango objektuarekin zerikusirik; eta esperientzia ahalgarriari dagokionez, ez da in concreto esperientziaren batetan eman ahal daitekeenaz galdetzen, baizik ideian datzanaz, zeina sintesi enpirikoari hurbildu besterik ez zaion egin behar; beraz, galdekizuna ideiatik abiatuta soilik izan behar da konpongagarria; izan ere, ideia arrazoimenaren sorkari soil da, zeinak, beraz, erantzukizuna ezin duen saihestu hau objektu ezezagunari egotziz.

Ez da hasieran dirudien bezain bitxia zientzia batek bere barnean kokatzen diren galdekizun ororen (*quaestiones domesticae*) konponketa *ziur* soilak eskatu eta itxaron ahal izatea, nahiz eta oraingoz agian ez diren aurkitu. Filosofia transzentalaz gain oraindik beste bi arrazoimen-zientzia daude, bata eduki espekulatiboa soilik, besteak praktikoa besterik ez duela: *Matematika hutsa* eta *Moral hutsa*. Inoiz entzun al da, nolabait esateko, baldintzen beharrezko ezjakintasunagatik eziurtzat jo denik zein hartueman zehatz duen diametroak zirkuluarekin zenbaki arrazionaletan edo irrazionaletan? Lehenengoen bitartez kongruenteki eman ezin denez, bigarrenaren bitartez, berriz, oraindik aurkitu ez denez gero, orduan halako konponketaren ahalezintasuna bederen ziurtasunez ezagut daitekeela juzgatu zen, eta Lambertek horren frogak eman zuen. Ohituren printzipio orokorretan ezerk ezin du ez-ziurra izan, zeren, edo esakuneak osoki hutsalak eta zentzurik gabekoak dira, edo gure arrazoimen-adigaietatik soilik isuri behar dira. Aitzitik, izadiaren ikerketan susmo amaigabeak daude eta inoiz ezin da

ziurtasunik itxaron hauetaz, zeren izadiaren agerpenak gure adigaietatik beregainki emandako objektuak baitira, eta beraz, beren gakoa ez dago guran eta gure pentsatze hutsean, baizik eta gugandik at datza, eta horregatik, maiz ezin da aurkitu, eta beraz, ezein konponbide ziurrik ezin da itxaron. Gure ezagutza hutsaren dedukzioarekin zerikusia duten Analitika transzendentalaren galdekizunak ez ditut hemen sartzen, orain hemen judizioen ziurtasunaz ari baikara objektuei dagokienez, eta ez gure adigai beren jatorriaz.

Aurkeztutako arrazoimenaren galdekizunaren konponketa kritikoaren (gutxienez kritikoaren) beharra ezingo dugu saihestu gure arrazoimenaren zedarrak estuz, ezta norbere buruaren ezagutza apalaren itxurarekin ere gure arrazoimena gainditzeko duela aitortuz ea mundua betitik hor dagoen edo hasiera bat duen erabakitzea; ea espazioa amaigabetasuneraino zerizanez betea edo muga batzuen barnean jasoa dagoen; ea mundu honetan zerbait bakuna baden edo dena amaigabeki zatitu behar den; ea askatasunezko sorketa eta produkzioa dagoen edo dena izadiaren ordenaren katean lotua dagoen; eta azkenik, ea erabat baldintzatugabea eta bere baitan beharrezkoa den zerizana dagoen edo dena bere izatean baldintzatua, eta beraz, kanpotik menperatua eta bere baitan beharbadakoa den. Izan ere, galdekizun hauek denek gure pentsatzean soilik eman daitekeen objektuarekin dute zerikusia, hots, agerpenen sintesiaren osotasun absolutuki baldintzatugabearekin. Baldin eta gure adigaiekin horretaz ezer ziurrik esan eta erabaki ezin badugu, orduan errua ezin diogu guri ezkutatzeko zaigun gauza berari egotzi; izan ere, halako gauzarik ezin zaigu eman (ez baitago inoiz gure ideiatik at), baizik bere kausa gure ideia bertan bilatu behar dugu, hau konponketarik onartzen ez duen arazoa denez, alegia, egoskorki onartzen dugun objektu erreala bati dagokion arazoa denez. Gure adigaietan datzan Dialektikaren aurkezpen nabarmenak berehala emango liguke ziurtasun osoa halako galdekizunaz juzgatu behar dugunari buruz.

Arazo hauetara begira egiten duzuen ziurtasun-ezaren objektuari hasteko galdekizun hau kontrajar dakiok, zuek bederen nabariki erantzun beharko zenuketuen galdekizuna: nondik datozkizue ideia hauek, zeinen konponketak hemen halako zailtasunetan nahastu zituzten? Agerpenak al dira agian, beren argipena behar duzuela, eta beraiez gainera ideia hauen arabera printzipioak soilik edo beren esposizioaren erregelak bilatu behar dituzuela? Emazue izadia osoki agertzen zaizuela; zuen sententziak eta zuen begiespenari aurkeztu zaion ororen kontzientziari ez zaiola ezer ezkutatzeko; orduan ezein esperientziaren bitartez ezingo duzue zuen ideien objektua in concreto ezagutu (izan ere, begiespen oso horretaz gain sintesi osatua eta bere osotasun absolutuaren kontzientzia behar dira, ezein ezagutza enpirikoren bitartez ahalgarria ez dena), eta beraz, zuen galdekizuna ezin da inolaz ere beharrezkoa gertatu agerpen baten argipenerako, eta beraz, nolabait esateko, ezin da objektua beraren bitartez ezarria izan. Izan ere, objektua ezin zaizue inoiz azaldu, ezein esperientzia ahalgarriaren bitartez ezin baita emana izan. Zuen hautemapen ahalgarri oro beti *baldintzen menpean* harrapatuta geratzen da, espazioan zein denboran, eta ez duzue baldintzatugabea den ezer lortzen, horrela baldintzatugabeki hau ea sintesiaren hasiera absolutuan edo ilararen osotasun absolutuan hasierarik gabe ezarri behar den erabakitzeko. Orotasuna, ordea, adiera enpirikoan beti alderagarria besterik ez da. Handitasunaren orotasun absolutuak (unibertsoa), zatiketarenak, jatorriarenak, izatearen baldintzarenak oro har, ea sintesi mugatuaren ala mugagabeki jarraituaren bitartez sortzen diren dioen galdekizun guztiekin batera, ez dute zerikusirik ezein esperientzia ahalgarriarekin. Ezingo zenukete, adibidez, gorputz baten agerpenak gutxienez hobeto edo soilik beste era batera argitu, zati bakunez edo osorik beti elkarketazko zatiez osatzen direla onartuz gero; izan ere, inoiz ezin da agerpen bakun bat gertatu, ezta elkarketa amaigabea ere. Agerpenek argituak izatea eskatzen dute, beren argipenaren baldintzak hautemapenean emanak diren heinean, baina inoiz beraietan *osoki absolutu* batean bilduta eman daitekeena ez da ezein hautemapen. Orotasun honen argipena da, ordea, arrazoimenaren arazo transzendentalean benetan eskatzen dena.

Arazo hauen konponketa bera esperientzian inoiz gertatzen ez denez gero, orduan ezin duzue esan hemen objektuari egotzi behar zaiona ez-ziurra denik. Izan ere, zuen objektua zuen burmuinean besterik ez dago eta ezin da bertatik at emana izan; horregatik, zuen buruarekin ados egoteaz arduratu behar duzue, baita zuen ideia enpirikoki emandako objektu baten ustezko errepresentazioa, eta beraz, esperientziaren legeen arabera ezagut daitekeen objektua bihurtzen duen anfibiologia saihesteaz ere. Konponketa dogmatikoa, beraz, ez da ez-ziurra, ezinezkoa baizik. Guztiz ziurra izan daitekeen konponketa kritikoak, berriz, arazoa ez du inolaz ere objektiboki kontsideratzen, baizik bere oinarria den ezagutzaren funtsaren arabera kontsideratzen du.

Arrazoimen hutsaren antinomiaren

Bosgarren atala

Galdekizun kosmologikoen aurkezpen eszeptikoa lau ideia transzendentalen arabera

Gustura utziko genukeen alde batera gure galdekizunak dogmatikoki erantzunak izateko eskaera, alde aurretik ulertuko bagenu, erantzuna edozein izanda ere, gure ezjakintasuna gehitu besterik ez zela egingo, ulertezintasun batetik bestera eta iluntasun batetik beste handiago batera eramanak izango ginatekeela eta agian kontraesanetan nahastuko ginatekeela. Gure galdekizuna baieztapenera edo ezeztapenera soilik bideratzen bada, orduan zuhurra da erantzunaren ustezko oinarriak alde batera uztea eta aurretik kontsideratzea ea zer irabaziko litzatekeen, erantzunak alde batera ala aurkakora joko balu. Bi kasuetan zentzugabekeria (nonsens) soilak gertatuko balitz, orduan oinarritutako bultzada jasotzen dugu gure galdekizuna bera kritikoki aztertzeko, eta ikusteko ea bera ez ote den oinarrigabeko auresuposizio batean funtsatzen, eta ea bere faltsutasuna aplikazioan eta bere ondorioetan errepresentazio bakartuan baino hobeto erakusten duen ideiarekin jolasten duen. Hau da arrazoimen hutsak arrazoimen hutsari egindako galdekizunekin jokatzeko era eszeptikoak duen onura handia, eta horren bitartez nahasketa dogmatiko handia lan gutxiarekin gaindi daiteke bere ordezkari kritika zuhurra ezarritik, zeinak, egiazko katartikoa denez, zorionez lilurakeria deuseztatuko duen bere ondorioarekin batera, hots, orojakintasunaren handiustearekin batera.

Baldin eta, beraz, ideia kosmologiko batez alde aurretik aditu ahal izango banu agerpenen sintesi itzulkoraren baldintzatugabekiak zein aldetara egitea erabaki duen, aldea edozein izanda ere, hainbestez, hura *adimenaren adigai* bakoitzari dagokionez *handiegia* edo *txikiegia* izango litzateke; orduan ulertuko nuke, dena dela, haren autugaia adimenaren adigai ahalgarri bati egokitu behar zaion esperientziaren objektu bat soilik denez, hark erabat kaskala izan behar duela eta esanahirik gabea izan behar duela, zeren objektua ez baita berekin adosten, berari nahi dudana moduan egokituz ere ez. Eta hau gertatzen da mundu-adigai guztiekin, eta honegatik hauek arrazoimena nahitaezko antinomial nahasten dute, haiei atxikitzen zaien heinean. Izan ere, emazue:

Lehenik, munduak ez duela hasierarik; orduan bera zuen adigaiarentzat *handiegia* da; izan ere, hurrenez hurrengo itzulera osatzen den adigai hau ezin da inoiz jarriotako betikotasun osora iritsi. *Hasiera bat duela* auresuposatuz gero, orduan *txikiegia* da beharrezko itzulera enpirikoan duzuen adimenaren adigaiarentzat. Izan ere, hasierak beti ere aurretik doan denbora bat auresuposatzen duenez gero, orduan ez da oraindik baldintzatugabea, eta adimenaren erabilera enpirikoaren legeak oraindik ere goragoko denbora-baldintza batez galdetzeraz behartzen gaitu, eta mundua, beraz, nabarmenki txikiegia da lege honentzat.

Gauza bera gertatzen da munduak espazioaren arabera duen handitasunaz egiten den galdekizunaren erantzun bikoitzarekin. Izan ere, *amaigabea* eta mugagabea baldin bada, orduan adigai enpiriko ahalgarri ororentzat *handiegia* da. *Amaiduna* eta mugatua baldin bada, orduan oraindik zera galdetzen duzue bidezki: zerk determinatzen du muga hori? Espazio kaskala ez da berez existitzen den gauzen korrelatua, eta ezin da izan zuek bertan gera zaitezketen moduko baldintza, eta are gutxiago izan daiteke esperientzia ahalgarri baten zati bat osatzen duen baldintza enpirikoa. (Izan ere, nork izan dezake kaskalkaskala denaren esperientzia?). Sintesi enpirikoaren osotasun absoluturako baldintzatugabekia beti ere esperientzia-adigaia izatea eskatzen da. Beraz, *mundu mugatua txikiegia* da zuen adigaiarentzat.

Bigarrenik, espazioan dagoen edozein agerpen (materia) *hainbat zati amaigabez* osatzen baldin bada, orduan zatiketaren itzulera zuen adigaiarentzat beti *handiegia* da; eta espazioaren zatiketa bere osakide baten (bakunkia) *geratuko* balitz, orduan baldintzatugabekiaren ideiaarentzat *txikiegia* da. Izan ere, osakide honek oraindik bertan barnebildutako hainbat zatitara doan itzulera baimentzen du.

Hirugarrenik, onar ezazue munduan gertatzen den guztian ez dagoela *izadiaren* legeen araberrako emaitza baino; orduan kausaren kausalitatea ere gertatzen den zerbait da, eta kausa garaia goetara doan zuen itzulera, eta beraz, baldintzen ilararen luzaketa a parte priori etenik gabe beharrezkoa bihurtzen duen zerbait da. Ekilea baino ez den izadia, beraz, munduko jazoeren sintesian duzuen adigai guztientzat *handiegia* da.

Noizbehin *berez* eragindako jazoerak aukeratzen badituzue, eta beraz, *askatasunezko* produkzioa aukeratzen baduzue, orduan Zergatia jarraiki zaizue ezinbesteko izadiaren lege baten arabera, eta puntu honetaz goiti joatera behartzen zaituzte esperientziaren kausazko legearen arabera, eta halako elkarloturaren osotasuna zuen beharrezko adigai enpirikoarentzat *txikiegia* dela aurkitzen duzue.

Laugarrenik. Behar-beharrezko zerizana onartzen baduzue (izan dadin mundua bera, edo munduan den zerbait, edo munduaren kausa), orduan denbora puntu jakin orotatik amaigabeki urrutitik ezartzen duzue, zeren bestela beste izate zaharrago

baten menpean egongo bailitzateke. Baina, orduan, existentzia hau zuen adigai enpirikoarentzat lortezina litzateke, eta inoiz itzulera jarraitu baten bitartez bertara iritsi ahal izateko *handiegia* ere bai.

Zuen iritziz, ordea, munduari dagokion oro (izan dadin baldintzatu edo baldintza gisa) *beharbadakoa* baldin bada, orduan zuei emana zaizuen existentzia oro *txikiegia* da zuen adigaiarentzat. Izan ere, existentzia honek beste existentzia bat bilatzera behartzen baitzaituzte beti, bera beste existentzia honen menpean egonik.

Kasu hauetan guztietan *munduaren ideia* itzulera enpirikoarentzat, eta beraz, edozein adimen-adigai enpirikorentzat handiegia edo baita berarentzat txikiegia ere badela esan dugu. Zergatik ez gara alderantziz adierazi eta esan: lehen kasuan adigai enpirikoa ideiarentzat txikiegia, bigarrenean, ordea, handiegia dela, eta beraz, nolabait esateko, errua itzulera enpirikoan datzala, horren ordez ideia kosmologikoa bere helburutik, hots, esperientzia ahalgarritik gehiegi edo gutxiegi saihesten dela salatu beharrean? Zergatia honako hau da. Esperientzia ahalgarria da gure adigaiei errealtatea eman diezaiekeen bakarra; hau gabe adigai oro ideia soilak litzateke, egirik eta objektu batekin harremanik izan gabe. Horregatik, adigai enpiriko ahalgarria zen ideiaz juzgatzeko behar zen neurria: ea ideia soilak litzateke, edo ea bere objektua munduan aurkitzen duen. Izan ere, zerbait handiegia edo txikiegia dela gauza hau beste batekin hartuemanen jartzean esaten da, baldin eta azken hau haren arrazoiz soilik onartzen bada eta haren arabera moldatu behar bada. Eskola dialektiko zaharren jolasen artean zegoen galdekizun hau ere: bola bat zulo batetik ezin bada pasa, zer esan behar da, bola handiegia dela edo zuloa txikiegia dela? Kasu honetan zuen adierazpideak ez dio axolarik; izan ere, ez dakizue zein dagoen hor bestearen arrazoiz. Aitzitik, ez duzue esango gizona bere jantziarentzat luzeegia denik, baizik jantzia dela gizonarentzat motzegia.

Beraz, oinarria duen susmo onetara bultzatuak gara bederen: ideia kosmologikoen, eta beraiekin batera, elkarrekin gatazkan ezarritako baieztapen sofistikoen oinarrian agian ideia horien objektua guri emateko eraren adigaia datzala, kaskala eta irudikatua besterik ez den adigaia, eta susmo honek denbora luzez galduta eduki gaituen asmakeria aurkitzeko bide egokira eramanez gaitzake.

Arrazoimen hutsaren antinomiaren

Seigarren atala

Idealismo transzendentala Dialektika kosmologikoaren konponketarako gako gisa

Estetika transzendentalean askiro frogatu dugu espazioan edo denboran begiesten den guztia, eta beraz, izan dezakegun esperientzia baten objektu guztiak agerpenak baino ez direla, h. d., errepresentazio soilak, gure pentsatzetik at beren baitan oinarritutako existentziarik ez dutenak zerizan hedatu edo aldaketen ilaren gisara errepresentatuak diren moduan. Irakatsi honi *idealismo transzendentala* deitzen diot¹²⁶. Adiera transzendentalean errealista denak gure sentimenaren modifikazio hauek beren baitan subsistitzen duten gauzak bihurtzen ditu, eta beraz, *errepresentazio soilak* berbaitango gauzak bihurtzen ditu.

Zuzengabekeria egingo litzaiguke aspalditik baztertutako idealismo enpirikoa egotzi nahiko balitzaiguke, hots, espazioaren errealtate propioa onartzen duen heinean bertako zerizan hedatu izatea ukatzen duen idealismoa, edo zalantzarik aurkitzen duena behinik behin, eta puntu honetan ametsa eta egiaren artean askiro frogatzea daitekeen bereizkuntzarik onartzen ez duena. Denboran ematen diren barneko sentiuaren agerpenei dagokienez, idealismo enpirikoak ez du zailtasunik aurkitzen hauek gauza errealak diren aldetik; eta horrez gain, bere objektuaren izate erreala barneko esperientziak soil-soilik frogatzen duela askiro baieztatzen du (bere baitan, denbora-determinazio hauekin guztiekin).

Gure idealismo transzentalak, aitzitik, kanpoko begiespenaren objektuak espazioan begietsiak diren modu berean, eta aldaketa guztiak denboran barneko sentiuak errepresentatzen dituen modu berean errealak izatea baimentzen du. Izan ere, espazioa jadanik guk kanpokoa deitzen diogun begiespen haren forma denez eta bertan objekturik gabe ezin errepresentazio enpiriko emango ez litzatekeenez gero, orduan bertan zerizan hedatuak onartu ahal eta behar ditugu, eta gauza bera gertatzen da denborarekin. Espazio hura, ordea, denborarekin batera, eta aldi berean agerpen oro aurreko biekkin batera, ez dira berbaitango ezin *gauzarik*, baizik errepresentazioak besterik ez, eta ezin dute inolaz ere gure gogamenetik at existitu, eta gure

gogamenaren (kontzientziaren objektu gisa) barneko eta sentsuzko begiespena ere, zeinaren determinazioa egoera ezberdinek denboran duten segidaren bitartez errepresentatzen den, ez da benetako Norbera, hau bere baitan existitzen den moduan, edo subjektu transzendental, baizik guri ezezaguna zaigun zerizan honen sentimenari ematen zaion agerpen bat besterik ez. Ezin da onartu barneko agerpen honen izatea, bere baitan existitzen den gauzarena den aldetik, bere baldintza ezein berbaitango gauzen determinazioa izan ezin daitekeen denbora baita. Espazioan eta denboran, ordea, agerpenen egia enpirikoa askiro segurtatua eta ametsekiko kideasunetik aski bereizita dago, baldin eta biak esperientzia batean lege enpirikoen arabera zuzenki eta osoki bilduak badaude.

Beraz, esperientziaren objektuak ezin zaizkigu *inoiz beren baitan* eman, baizik esperientzian besterik ez, eta ez dira bertatik at existitzen. Ilargiak biztanleak izan ditzakeela inoiz ezein gizakik hauteman ez duen arren, dena dela, onartu egin behar da, baina hau besterik ez du esan nahi: esperientziaren aurrerapen ahalgarrian biztanle horiek topatu ahal izango genituzkeela; izan ere, aurrerabide enpirikoaren legeen arabera hautemapen baten testuinguruan datzan dena da erreala. Objektu horiek, beraz, errealak dira nire kontzientzia errealarekin lotura enpirikoan badautza, nahiz eta horregatik beren baitan, h. d., esperientziaren aurrerapen horretatik at errealak ez izan.

Guri ez zaigu benetan ezer ematen, hautemapena eta hautemapen honetatik beste hautemapen ahalgarritantz doan aurrerapen enpirikoa izan ezik. Izan ere, agerpenak beren baitan, errepresentazio soil gisa, hautamepenean soilik dira errealak, egitatean errepresentazio enpirikoaren, h. d., agerpenaren errealtatea besterik ez denean. Agerpenari bere hautemapena izan aurretik gauza erreala deitzeak, edo esperientziaren aurrerabidean halako hautemapena aurkitu behar dugula esan nahi du, edo bestela ez du batere esanahirik. Izan ere, solasgaia berbaitango gauza denean soilik esan ahal izango genuke bere baitan existitzen dela gure sentsuekin eta esperientzia ahalgarriarekin batere harremanik izan gabe. Solasgaia, ordea, espazioan eta denboran ematen den agerpen bat besterik ez da, biak berbaitango gauzen determinazioak ez, baina gure sentimenarenak soilik izaki; horregatik gertatzen da bertan dagoena (agerpenak) bere baitan ezer ez dela, baizik agerpenok errepresentazio soilak direla, inon ezin aurki daitezkeenak, guran ematen ez badira (hautamepenean).

Sentsuzko begiespen-ahalmena benetan era jakin batean errepresentazioez afektatua izateko harmena besterik ez da, errepresentazioek elkarrekin duten hartueman espazioaren eta denboraren begiespen hutsa izaki (gure sentimenaren forma soilak), eta errepresentaziook (espazioaren eta denboraren) hartueman honetan esperientziaren batasunaren legeen arabera elkarlotuta eta determinatuta badaude, orduan *objektuak* izena dute. Sentsuzkoa ez den errepresentazio hauen kausa erabat ezezaguna zaigu, eta horregatik hauek ezin ditugu objektu gisa begietsi; izan ere, halako objektua ez espazioan ezta denboran ere (sentsuzko errepresentazioaren baldintza soil gisa) ez litzateke errepresentatu beharko, eta baldintza hauek eduki gabe ezin dugu ezein begiespen pentsatu. Oro harrezko agerpenen kausa inteligible soilari objektu transzendental dei diezaiokegu, sentimenari harmen gisa egokitzen zaion zerbait edukitzearren besterik ez. Objektu transzendental honi gure hautemapen ahalgarrien hedapen eta bilkura osoa egotzi diezaiokegu eta esperientzia ororen aurretik bere baitan emana dela esan dezakegu. Agerpenak, ordea, haren arabera ez dira bere baitan, baizik esperientzia horretan besterik ez dira ematen, errepresentazio soilak baitira, objektu erreal bat hautemapen gisa soilik adierazten dutenak, baldin eta hautemapen hau beste guztiakin lotzen bada esperientziaren batasunaren legearen arabera. Horrela, zera esan daiteke: lehenaldiko gauza errealak esperientziaren objektu transzendentalean ematen dira; baina niretzat soilik dira objektuak eta lehenaldian errealak, hautemapen ahalgarrien ilara itzulkorra (izan dadin historiaren gida-harian, edo kausen eta ondorioen urratsetan) lege enpirikoen arabera errepresentatzen dutan heinean, hitz batean, munduaren ibilbideak igarotako denbora-ilara batera gidatzen duen heinean, zeina egungo denboraren baldintza den aldetik esperientzia ahalgarriarekin bilkuran soilik errepresentatzen dena erreal gisa, ez bere baitan, halako moldez, non denbora pentsaezin batetik hasita nire izatearen aurretik igarotako jazoerek esperientziaren katearen egungo hautemapenetik gorantz hau denboraren arabera determinatzen duten baldintzetara luzatzearen ahalgarritasuna besterik ez baitute adierazten.

Nik, beraz, existitzen diren sentsuen objektu guztiak denbora orotan eta espazio orotan osotara errepresentatzen baditut, orduan ez ditut objektuak objektu gisa bietan esperientziaren aurretik ezartzen, baizik errepresentazio hau ez da esperientzia ahalgarri baten pentsamendua baino bere osotasun absolutuan. Bertan soilik ematen dira objektu haiek (errepresentazio soilak besterik ez direnak). Nire esperientzia ororen aurretik existitzen direla esateak, ordea, ni hautemapenetik abiatuta lehen-lehenik aurreratu behar naizen esperientziaren zatian aurkitzen direla besterik ez du esan nahi. Aurrerapen honen baldintza enpirikoaren kausa transzendental da, eta beraz, ea zein osakide aurki ditzakedan edo ea halako baldintzen itzuleran noraino irits naitekeen galdetzea ere bai, eta horregatik, niretzat halabeharrez ezezaguna. Hau ez da, ordea, gure autugaia

hemen, baizik esperientziaren aurrerapenaren erregela besterik ez, bertan niri objektuak, hots, agerpenak ematen zaizkidala. Emaizari dagokionez, erabat berdin dio espazioan gertatzen den aurrerabide enpirikoan nik ikusten ditudan urrunenak baino ehundaka aldiz urrutiago dauden izarrek aurki daitezkeela esatea edo agian halakoak espazioan aurki daitezkeela esatea, inoiz gizaki batek hauteman ez dituen arren edo hautemanduko ez dituen arren; izan ere, berbaitango gauzak bezala oro har esperientzia ahalgarriarekin harremanik izan gabe emango balira, orduan ez lirateke ezer izango niretzat, eta beraz, ezta objektuak ere, baldin eta itzulera enpirikoaren ilaran barnebiduak ez badaude bederen. Hala ere, beste ikuspuntu batetik agerpen horiek osoki absolutu baten ideia kosmologikorako erabili behar badira, eta autugaia esperientzia ahalgarriaren mugak gainditzen dituen galdekizun bat baldin bada, orduan aipatutako sentsuen objektuen errealtatea kontsideratzeko eraren bereizkuntza garrantzitsua gertatzen da, gure esperientzia-adigaien interpretazio okerretik ezinbestean sortu behar den lilurakeria iruzurtia saihestearren.

Arrazoimen hutsaren antinomiaren

Zazpigarren atala

Arrazoimenak bere buruarekin duen gatazka kosmologikoaren ebazpen kritikoa

Arrazoimen hutsaren antinomia osoa argumentu dialektiko honetan funtsatzen da: baldintzatukia emana bada, orduan bere baldintza ororen ilara osoa ere emana da; guri sentsuen objektuak baldintzatu gisa ematen zaizkigu, ondorioz, eta abar. Arrazoimen-inferentzia honen bitartez –zeinaren esakune nagusiak hain berezkoa eta argia dirudien– baldintzen ezberdintasunaren arabera (agerpenen sintesian), hauek ilara bat osatzen duten heinean, beste hainbeste ideia kosmologiko sortzen dira, ilara horien osotasun absolutua postulatuak duten eta horregatik arrazoimena bere buruarekin gatazkan jartzen duten ideia kosmologikoak. Argumentu sofistiko honen iruzurra aurkitu aurretik, ordea, horretarako prestatu behar gara bertan aurkitzen diren adigai jakinen zuzenketaren eta determinazioaren bitartez.

Lehenik, ondorengo esakunea argia eta modu zalantzaezinean ziurra da: baldintzatukia emana denean, guri horren bitartez baldintza ororen ilaran bertara doan itzulera *ezartzen* zaigula; izan ere, baldintzatukiaren adigaiak berekin dakar jadanik zerbait baldintza bati lotzea, eta hau berriro baldintzatua baldin bada, beste baldintza urrunagoari lotzea, eta horrela ilararen osakide guztiekin ere. Esakune hau analitikoa ere bada eta kritika transzendental baten beldur oroz goiti dago. Arrazoimenaren postulatu logikoa da adigai batek bere baldintzekin duen elkarlotura, alegia, jadanik adigaiari atxikitzen zaion elkarloturari adimenaren bitartez segitzea eta ahalbait urrun jarraitzea.

Gainera: baldintzatukia eta bere baldintza berbaitango gauzak baldin badira, orduan lehena ematen denean, bigarrenera doan itzulera *ezarri* ez ezik, hau horren bitartez benetan jadanik batera ere *ematen* da, eta honek ilararen osakide guztientzat balio duenez gero, orduan baldintzen ilara osoa, eta beraz, baita baldintzatugabekia ere horren bitartez aldi berean ematen da edo, are gehiago, ilara horren bitartez ahalgarria zen baldintzatua soilik ematen dela auresuposatzen da. Hemen, baldintzatukiak bere baldintzarekin duen sintesia adimen soilaren sintesia da, zeinak gauzak *diren bezala* errepresentatzen dituen, beren ezagupenera ea eta nola iritsi ahal izateari arretarik eskaini gabe. Aitzitik, autugaia agerpenak direnean, hots, errepresentazio soilak direnez inolaz ere ematen ez diren agerpenak, baldin eta beren ezagupenera (h. d., beraietara, izan ere, ez dira ezagupen enpirikoak baino) ez banaiz iristen, bada, orduan ezin dut esanahi berean esan: baldintzatukia ematen baldin bada, orduan bere baldintza oro ematen dela (agerpen gisa), eta beraz, bere ilararen osotasun absolutua ezin dut inolaz ere inferitu. Izan ere, atzematean *agerpenak* ez dira sintesi enpirikoak baino (espazioan eta denboran), eta beraz, *honetan* besterik ez dira ematen. Ez da ondorioztatzen, ordea, baldintzatukia (agerpenean) ematen baldin bada, bere baldintza enpirikoa osatzen duen sintesia ere batera ematen eta auresuposatzen denik, baizik eta hau itzuleran gertatzen da lehen-lehenik, eta inoiz ez hau gabe. Hala ere, kasu honetan ederki esan daiteke baldintzetarantz doan *itzulera*, h. d., sintesi enpiriko jarraitua, alde honetatik agindua edo *ezarria* dela, eta itzulera honen bitartez emandako baldintzak ezin direla falta.

Hemendik abiatuta argitzen da arrazoimen-inferentzia kosmologikoaren esakune nagusiak baldintzatukia kategoria huts baten adiera transzendentalean hartzen duela, esakune txikia, berriz, agerpen soilei aplikatutako adimenaren adigai baten zentzu enpirikoan, eta ondorioz, bertan sophisma figurae dictionis deitzen zaion iruzur dialektikoa aurkitzen dela. Hala ere, iruzur hau ez da artifiziala, baizik arrazoimen arruntaren erabat berezkoa den iruzurra. Izan ere, bere bitartez (esakune nagusian) baldintzak eta beren ilara auresuposatzen ditugu eragozpenik gabe, nolabait esateko, zerbait baldintzatu gisa ematen baldin bada, zeren hau ez baita konklusio jakin baten premisa osoak onartzeko eskakizun logikoa baino, eta baldintzatukiak hor bere baldintzarekin duen elkarloturan ez dago denbora-ordenarik; bere baitan *aldi berean* emanak balira bezala auresuposatzen dira. Gainera, (esakune txikian) agerpenak berbaitango gauzak eta adimen soilari emandako objektuak balira bezala begiztatzea esakune nagusian gertatzen zen bezain berezkoa da, objektuak eman ditzakeen gauza bakarra den begiespenaren baldintza oroz abstraitzen bainuen. Hemen, ordea, adigaien arteko bereizketa ohargarria ezikusi genuen. Baldintzatukiaren sintesiak bere baldintzarekin eta baldintzen ilara osoak (esakune nagusian) ez zekarten berekin denboraren bidezko ezein zedarriztapenik, ezta segidaren adigairik ere. Aitzitik, sintesi enpirikoa eta baldintzen ilara agerpenean (esakune txikiari menperatzen zaiona) halabeharrez hurrenez hurrengoak dira, eta denboran besterik ez dira ematen, elkarren ondoren beraz; ondorioz, hemen ezin dut han bezala sintesiaren osotasun absolutua eta horren bitartez errepresentatutako ilara auresuposatu, zeren han ilararen osakide denak beren baitan ematen badira ere (denboraren baldintzarik gabe), hemen, aldiz, hurrenez hurrengo itzuleraren bitartez soilik baitira ahalgarriak, alegia, benetan egikaritzean soilik ematen den itzuleraren bitartez.

Komunki baieztapen kosmologikoen oinarrian dagoen argumentuaren halako hanka-sartzea gainditu ondoren gatazkan dauden bi aldeak arrazoiz uka daitezke, beren eskakizunak titulu irmoetan oinarritzen ez diren heinean. Horren bitartez, ordea, oraindik ez da bukatzen beren arteko tirabira, biek edo bietako batek baieztatzen duen gauza beraz (konklusioan) zuzengabea zela erakutsiz, froga-oinarri egokietan eraikitzen ez zekielako. Batak baieztatzen badu munduak hasiera bat duela, besteak, munduak ez duela hasierarik, baizik betitik dela, ezerk ez dirudi argiagoa batek arrazoa izan behar duela baino. Hau horrela bada, argitasuna bi aldeetan berbera denez gero, orduan ezinezkoa gertatzen da inoiz arrazoa zein aldetan dagoen erabakitzea, eta gatazkak lehengo moduan jarraitzen du, bi alderdiek arrazoimenaren epaimahaitik lasaitzeko agindua jaso arren. Ez da geratzen, beraz, gatazka zehazki eta bi aldeek gogobeterako bukatzeko beste baliabiderik, hau izan ezik: biek hain ederki elkar kontraesan dezaketenez, konbentzi daitezela ezertaz ere ez direla ari gatazkan eta itxura transzendental jakin batek errealitate bat margotu diela halakorik ezin aurki daitekeen lekuan. Bide hau urratu nahi dugu orain, azken epaia jaso ezin duen gatazka hau konpontzearen.

* * *

Platonek jadanik kritikatu zuen *Eleatar Zenon* dialektiko sotala bera sofista gaiztotzat joz, zeren bere antzea erakustearren edozein esakune itxurazko argumentuen bitartez frogatu eta berehala hain indartsuak diren besteen bitartez berriro ukatzea saiatzen baitzuen. Jainkoa (ustez, beretzat ez zen mundua baino izango) ez dela ez amaiduna, ezta amaigabea ere, ez dagoela ez higiduran, ezta geldi ere, beste gauzen antzarik ez duela, baina antzagabea ere ez dela baieztatzen zuen. Honi buruz juzgatzen zutenei guztiz elkar kontraesaten diren esakuneak ukatu nahi zituela ziruditen, gauza burugabea dena. Hala ere, nik ez dut uste hau berari bidezki egotzi ahal zaionik. Esakune hauetako lehena laster argituko dut zehazkiago. Gainerakoei dagokienez, *Jainkoa* izenaz unibertsoa ulertzen bazuen, orduan zera esan behar zuen: hau ez dagoela bere lekuan iraunkorki present (geldi), ezta lekua aldatzen duenik ere (higitzen denik), zeren leku guztiak unibertsoan badaude ere, *unibertsoa* bera ez baitago *ezein lekutan*. Unibertsoak existitzen dena bere baitan biltzen badu, orduan, hainbestez, bere antzekoa den edota antzagabekoa den *beste gauzarik* ez dago, zeren beretik at *beste gauzarik* ez baitago bera honekin alderatu izateko moduan. Elkarri kontrajarritako bi judizioek baldintza onartezina auresuposatzen badute, orduan biak erortzen dira aurkakotasuna aintzat hartu gabe (benetako kontraesanik ez dena), zeren bi esakuneak balio ahal izateko behar den baldintza desagertzen baita.

Norbaitek esango balu, gorputz batek edo usain ona duela edo ez duela usain onik, orduan hirugarren aukera bat ere badago, hots, gorputzak batere usainik ez izatea, eta horrela, elkarren aurka egiten duten bi esakuneak faltsuak izan daitezke. Esaten baldin badut, gorputz bat edo usain atseginekoea dela edo ez duela usain atsegini (vel suaveolens vel non suaveolens), orduan bi esakuneak elkarri kontraesankorki kontrajarriak dira, eta lehena besterik ez da faltsua, baina bere

aurkako kontraesankorrak, hots, gorputz batzuk ez direla usain atseginekoak, bere baitan jasotzen ditu *usainik ez* duten gorputzak. Aurreko kontrajarpenean (per disparata) gorputzaren adigaiaren beharbadako baldintza (usaina) *geratzen zen* oraindik elkarren aurkako judizioetan, eta ez zen hauekin batera ezeztatua izan; horregatik, azkena ez zen aurrenekoaren aurkako kontraesankorra.

Horrez gain, esaten baldin badut mundua espazioari dagokionez amaigabea dela edo ez dela amaigabea (non est infinitus), orduan lehen esakunea faltsua baldin bada, bere aurkako kontraesankorrak egia izan behar du: mundua ez da amaigabea. Horren bitartez mundu amaigabea soilik ezeztatuko nuke amaiduna den beste bat ezarri gabe. Esango balitz, ordea, mundua amaigabea edo amaiduna dela (ez-amaigabea), orduan biak faltsuak izan zitezkeen. Izan ere, hainbestez, mundua bere baitan handitasunaren arabera determinatutzat begitatzten dut, aurkakotan amaigabetasuna eta berekin batera agian bere existentzia bereiztu osoa ezeztatzen dudana heinean ez ezik, munduari determinazio bat gaineratzen diodanean ere bai bere baitan den gauza erreal gisa, eta hau faltsua izan daiteke, hots, baldin eta mundua *inolaz ere ez berbaitango gauza gisa*, eta beraz, ezta bere handitasunaren arabera ere ematen ez bada, ez amaigabe gisa ezta amaidun gisa ere. Baimen bekik halako kontrajarpenari *dialektikoa* deitzea eta kontraesanarenari *oposizio analitikoa* deitzea. Beraz, elkarri dialektikoki kontrajarritako judizioak biak izan daitezke faltsuak, bata bestea kontraesan ez ezik, kontraesanerako behar dena baino zerbait gehiago ere esaten baitu.

«Mundua handitasunaren arabera amaigabea da» eta «mundua handitasunaren arabera amaiduna da» esakuneak kontraesankorki aurkakotutzat hartzen baldin badira, orduan mundua (agerpenen ilara osoa) berbaitango gauza dela onartzen da. Izan ere, berak iraun egiten du, bere agerpenen ilarako itzulera amaigabe edo amaiduna ezeztatu arren. Auresuposizio edo itxura transzendental hau kentzen badut, eta mundua berbaitango gauza dela ukatzen baldin badut, orduan bi baieztapenen aurkakotasun kontraesankorra aurkakotasun dialektikoa besterik ez den batean eraldatzen da, eta mundua bere baitan inolaz ere existitzen ez denez gero (nire errepresentazioen ilara itzulkorretik beregainki), orduan ez da existitzen ez *bere baitan amaigabea* den, ezta *bere baitan amaiduna* den osoki gisa ere. Hau agerpenen ilararen itzulera enpirikoan soilik aurkitzen da eta inolaz ere ez bere baitan. Horregatik, hau beti baldintzatua bada, orduan inoiz ez da konplutuki emana, eta mundua ez da, beraz, osoki baldintzatugabea, eta ez da existitzen osoki baldintzatugabe gisa, ez handitasun amaigabea bada, ezta amaiduna bada ere.

Hemen lehen ideia kosmologikoz esan denak, hots, agerpeneko handitasunaren osotasun absolutuaz esan denak, gainerako ideiez ere balio du. Baldintzen ilara sintesi itzulkorrean bertan aurkitzen da, ez, ordea, bere baitan agerpenean itzulera ororen aurretik emandako gauza propio gisa. Horregatik, hau ere esan behar dut: zatien kopurua agerpen jakin batean bere baitan ez da amaiduna ezta amaigabea ere, zeren agerpena ez baita bere baitan existitzen den ezer, eta zatiak sintesi deskonposatzailearen itzuleraren bitartez eta itzulera bertan ematen baitira lehen-lehenik, eta itzulera hau ez baita inoiz erabat *osoki* ematen, ez amaidun gisa, ezta amaigabe gisa ere. Gauza berak balio du elkarren menpeko kausen ilaraz, edo existentzia baldintzatutik baldintzatugabeki beharrezkoa den existentziara doan ilaraz, zeinak ezin daitezkeen begitatu inoiz beren baitan beren osotasunaren arabera, ez osotasun amaidun gisa, ezta osotasun amaigabe gisa ere, zeren menpeko errepresentazioen ilara bezala itzulera dinamikoaz soilik osatzen badira ere, ezin baitira existitu inolaz ere beren baitan honen aurretik eta berez irauten duen gauzen ilara gisa.

Horrela, beraz, arrazoimen hutsaren antinomia bere ideia kosmologikoetan dialektikoa dela eta itxura baten aurkakotasuna dela erakustean soilik gainditzen da, hots, berbaitango gauzen baldintza soilik den osotasun absolutuaren ideia agerpenei aplikatzen zaienean sortzen den itxura, eta beraz, errepresentazioan soilik existitzen diren agerpenei, gainerakoan ilara bat osatzen dutenean hurrenez hurrengo itzuleran existitzen diren, baina bestela inolaz ere existitzen ez diren agerpenei aplikatzean. Baina, alderantziz, antinomia honetatik egiazko erabilera lor daiteke, ez dogmatikoa, kritikoa eta doktrinala baizik, hots, agerpenen idealtasun transzendental horren bitartez zeharka frogatzea, Estetika transzendentaleko frogak zuzenak agian norbait gogobete ez balute. Froga dilema honetaz osatzen da. Mundua bere baitan existitzen den osokia bada, orduan amaiduna edo amaigabea da. Baina lehena zein bigarrena faltsuak dira (lehenago aipatutako antitesiaren frogaren arabera alde batetik, eta tesiaren frogaren arabera beste aldetik). Beraz, era berean faltsua da mundua (agerpen ororen multzoa) bere baitan existitzen den osokia denik. Hortik ondorioztatzen da oro harrezko agerpenak gure errepresentazioetatik at ezer ez direla, hau izaki beren idealtasun transzendentalaren bidez adierazi nahi genuena.

Ohar hau garrantzitsua da. Berari esker ikusten da antinomia laukoitzaren lehenengo frogak ez direla itxurapenak, frogak irmoak baizik, hain zuzen, agerpenak edo hauek osotara bere baitan biltzen dituen sentzuen mundu bat berbaitango gauzak

direla dioen auresuposiziopean. Hortik ateratako esakuneen aurkakotasunak azaltzen du, ordea, auresuposizioan faltsutasuna datzala, eta gauzen egiazko antolaeraren aurkikuntza dakarkigu, hauek sentsuen objektuak diren aldetik. Dialektika transzendentalak, beraz, ez dio eszeptizismoari babesik ematen, baina bai metodo eszeptikoari, zeinak bertan bere onura handiaren adibide bat erakuts dezakeen arrazoimenaren argumentuak bere askatasun handiaren elkarren aurka jokatzeko uztean, eta argumentu hauek azkenean bilatzen zena eskuratzen ez badute ere, dena dela, beti onuragarria eta gure judizioen zuzenketarako zerbitzagarria den zerbaite eskuratzen dute.

Arrazoimen hutsaren antinomiaren

Zortzigarren atala

*Arrazoimen hutsaren printzipio erregulatzailea ideia
kosmologikoei begira*

Osotasunaren oinarri-esakune kosmologikoaren bitartez baldintzen ilararen maximorik *ematen* ez denez sentsuen mundu batean berbaitango gauza gisa, baizik bere itzuleran soilik *ezartzen* denez gero, orduan arrazoimen hutsaren aipatutako oinarri-esakuneak bere baliotasuna atxikitzen du esanahi honetan zuzenduta: noski, ez osotasuna objektuan erreala balitz bezala pentsatzeko *axioma* gisa, baizik adimenarentzat *arazo* gisa, eta beraz, subjektuarentzat arazo gisa, ideian dagoen osotasunaren arabera emandako baldintzatuki batera doan baldintzen ilarako itzulera hasi eta jarraitzearen. Izan ere, sentimenean, h. d., espazioan eta denboran emandako agerpenen esposizioan lor dezakegun edozein baldintza era berean baldintzatua da; zeren hauek ez baitira berbaitango objektuak, beraietan absolutuki baldintzatugabea aurki litzatekeela, baizik eta beti begiespenean beren baldintza aurkitu behar duten errepresentazio enpiriko soilak dira, hauek espazioaren eta denboraren arabera determinatzen dituen baldintza, hain zuzen. Arrazoimenaren oinarri-esakunea, beraz, benetan agerpen jakinen baldintzen ilaran itzulera bat agintzen duen *erregela* besterik ez da, itzulera honi inoiz ez zaiolarik baimentzen absolutuki baldintzatugabea gelditzea. Ez da, beraz, esperientziaren ahalgarritasunaren eta sentsuen objektuen ezagutza enpirikoaren printzipiorik, eta beraz, ezta adimenaren oinarri-esakunerik ere; izan ere, esperientzia bakoitza bere mugen barnean jaso dago (begiespen jakinaren arabera), eta beraz, ezta arrazoimenaren *printzipio eratzaile*rik ere, sentsuen munduaren adigaia esperientzia ahalgarri oroz goiti hedatzeko, baizik esperientziaren jarraipen eta hedapen ahalbait handienaren oinarri-esakunea, eta honen arabera ezein muga enpirikok ere ez du balio behar muga absolututzat, beraz, arrazoimenaren printzipiotzat, zeinak *erregela gisa* itzuleran egin behar duguna postulatzen duen eta *ez duen aitzinatzen objektuan* bere baitan itzulera ororen aurretik ematen den ezer. Horregatik, arrazoimenaren printzipio *erregulatzailea* deitzen diot, zeren, aitzitik, baldintzen ilararen osotasun absolutua, objektuan (agerpenetan) bere baitan emana dena, printzipio kosmologiko eratzailea bailitzateke, zeinaren hutsaltasuna bereizkuntza honen bidez erakutsi nahi izan dudana, horrela erregela gisa soilik balio duen ideari errealtate objektiboa ematea saihesteko, bestela ezinbestean gertatzen dena (subrepzio transzendentalaren bitartez).

Hortaz, arrazoimen hutsaren erregela honen zentzua egokiro determinatzearen, aldeztu aurretik oharrarazi behar da ezin duela esan *objektua zer den*, baizik *itzulera enpirikoa nola egin daitekeen*, honela objektuaren adigai osoa lortzearen. Izan ere, lehen gertatuko balitz, orduan hura printzipio eratzailea litzateke, halakoa arrazoimen hutsetik abiatuta inoiz ahalgarria ez denean. Honekin, beraz, ezin daiteke inolaz ere baldintzatuki jakin batera doan baldintzen ilara bere baitan amaiduna ala amaigabea ote den esateko asmorik izan; izan ere, horren bitartez bere baitan itxia dagoen osotasun absolutuaren ideia soilak ezein esperientziatan eman ezin daitekeen objektua pentsatuko luke, agerpenen ilarari sintesi enpirikotik beregaina den errealtate objektiboa ematen zaion heinean. Arrazoimenaren ideiak baldintzen ilarako sintesi itzulkorrari soilik ezarriko dio erregela bat, zeinaren arabera bera baldintzatukitik baldintzatugabekira aurrera egiten duen elkarren menpeko baldintza ororen bitartez, baldintzatugabekia inoiz lortuko ez den arren. Izan ere, absolutuki baldintzatugabea dena inolaz ere ez da aurkitzen esperientzian.

Honetara iristeko, lehenik, ilara baten sintesia zehazki determinatu behar da, bera inoiz osoa ez den heinean. Honetarako bi adierazpen erabiltzen dira eskuarki, bertan zerbaite ezberdindu beharko luketenak, bereizkuntza honen oinarria zuzenki ematen

ez jakin arren. Matematikariek progressus in infinitum batez soilik hitz egiten dute. Adigaien ikertzaileek (filosofoe) horren ordez progressus in indefinitum adierazpena soilik onartu nahi dute. Adigai hauek nire asmoari dagokionez zehazki determinatzea saiatu nahi dut hauei halako bereizkuntza egitea gomendatu dien ezbaiaren eta honen erabilera onaren edo antzuaren etsaminan geratu gabe.

Lerro zuzen batez bidezki esan daiteke amaigaberaino luza daitekeela, eta hemen aurrerabide amaigabea eta indeterminatuaren (progressus in indefinitum) arteko bereizkuntza egitea sotiltasun hutsala litzateke. Izan ere, «lerroa luza ezazue» esaten denean, noski, zuzenago litzateke in indefinitum gehitzea in infinitum esatea baino; zeren lehenak ez baitu hau baino esan nahi: «luza ezazue *nahi* duzuen bezainbat»; bigarrenak, berriz: «inoiz *ezin* duzue geratu bera luzatzeko ekintza» (hemen nahi ez dena); eta orduan, solasgaia *ahal izatea* bada, lehenengoa osorik zuzena da; izan ere, amaigaberantz beti eta handiagoa egin dezakezue; eta horrela gertatzen da aurrerapenaz hitz egiten den bakoitzean, h. d., baldintzatik baldintzatukira doan aurrerapenaz hitz egitean; aurrerabide ahalgarri hau amaigabera doa agerpenen ilaran. Guraso pare batetik sorketaren beheranzko lerroan amaierarik gabe aurrera egin daiteke, eta ederki pentsa dezakezue ilara horrek munduan benetan horrela egiten duela aurrerantz. Izan ere, hemen arrazoimenak ez du inoiz behar ilararen osotasun absolutua, zeren honek halakoa inoiz ez baitu auresuposatzen baldintza gisa eta emana den zerbait gisa (datum), baizik baldintzatua den zerbait gisa soilik behar du, emangarria besterik ez den (dabile) eta amaigabeki gaineratzen den zerbait.

Erabat bestela gertatzen da beste eginkizun honekin: baldintzatuki jakinetik baldintzetara ilaran goratzen den itzulera noraino heltzen den, hau da, ea esan dezakedan *amaigaberantz doan itzulera-bidea* dela edo *indeterminatuki urrunera* (in indefinitum) hedatzen den itzulera-bidea besterik ez dela, eta ea ni orain bizi diren gizakietatik abiatuta beren aurreko gurasoen ilaran amaigaberaino igo naitekeen edo hau besterik ezin esan daitekeen, alegia, itzulera-bidean hain urrun iritsi arren, inoiz ez dela ilara inon mugatutzat jotzeko oinarri enpirikorik aurkituko, eta horrenbestez, zilegi zaidala eta behartua nagoela jatorrizko gurasoen aurretikoak bilatzera, baina ez hauek auresuposatzera.

Ondorioz, zera diot: osokia begiespen enpirikoan ematen bada, orduan itzulera bere barneko baldintzen segidan amaigaberantz doa. Segidaren osakide bakarra ematen baldin bada, hainbestez, itzulerak bertatik jarraitu behar duela lehen-lehenik osotasun absoluturantz, orduan urrunera indeterminatura doan itzulera-bidea gertatzen da (in indefinitum). Hortaz, bere mugen barnean emandako materia baten (gorputza) zatiketaz amaigabera doala esan behar da. Izan ere, materia hau osorik ematen da begiespen enpirikoan, eta ondorioz, bere zati ahalgarri guztiekin batera. Baina osoki honen baldintza bere zatia denez eta zati honen baldintza zatiaren zatia, eta abar, eta deskonposaketaren itzulera honetan inoiz baldintzen ilararen baldintzatugabeko osakiderik (zatigaitzik) aurkituko ez denez gero, orduan inon zatiketa geratzeko ezein oinarri enpiriko ez egoteaz gain zatiketa jarraituaren osakide urrunenak enpirikoki ere ematen dira aurrera doan zatiketa horren aurretik, h. d., zatiketa amaigaberantz doa. Aitzitik, gizaki jakin baten gurasoen ilara ez da ezein esperientzia ahalgarritan ematen bere osotasun absolutuan, baina itzulera sorketa honen osakide bakoitzetik goragoko osakide baterantz doa, eta hainbestez, osakide bat absolutuki baldintzatugabe gisa aurkeztuko lukeen muga enpirikorik aurkitu gabe. Honetarako baldintza eskura zezaketen osakideak, ordea, jadanik osokiaren begiespen enpirikoan ez dautzanez itzuleraren aurretik, orduan hau ez doa (emandakoaren zatiketaren) amaigaberantz, baizik eta urrunera indeterminaturantz doa emandako osakideez gain osakide ezberdinen bilaketan, zeinak era berean beti baldintzatuta soilik ematen diren.

Bi kasuetako bat beran ere ez da begizatzen baldintzen ilara objektuan amaigabe balitz bezala emandakotzat, ez regressus in infinitum, ezta in indefinitum-en kasuan ere. Ez dira gauzak beren baitan soilik itzulera bertan ematen direnak, baizik agerpenak besterik ez, elkarren baldintzak diren aldetik. Beraz, galdekizuna ez da ea zein handia den baldintzen ilara bere baitan, ea amaiduna edo amaigabea den, izan ere, ez da ezer bere baitan; baizik, ea nola egiten dugun itzulera enpirikoa eta ea noraino jarraitu behar dugun. Eta orduan, bereizketa aipagarria dugu aurrerapen honen erregelari dagokionez. Osokia enpirikoki ematen baldin bada, orduan *ahalgarria* da bere barneko baldintzen ilaran *amaigaberantz* itzultzea. Hura ematen ez bada, baizik lehen-lehenik itzulera enpirikoaren bitartez ematen baldin bada, orduan hau soilik esan dezaket: *ahalgarria da* ilararen baldintza garaia-goetara aurrera egitea *amaigaberaino*. Lehen kasuan, zera esan nezakeen: nik (deskonposaketaren) itzuleraren bitartez lor ditzakedanak baino enpirikoki emanak diren osakide gehiago daude; bigarrenean, ordea: itzuleran beti aurrera joan naitekeela, zeren absolutuki baldintzugabe gisa enpirikoki emana den ezein osakiderik ez baitago, eta beraz, osakide garaia-go bat ahalgarria dela, eta beraz, honek bere bilaketa halabeharrez onartzen duela. Han beharrezkoa zen ilararen osakide gehiago *aurkitzea*, hemen, berriz, beti beharrezkoa da gehiagoz *galdetzea*, ezein esperientziak ez baitu mugatzen absolutuki. Izan ere, edo zuen itzulera enpirikoa absolutuki mugatzen duen ezein hautemapenik ez duzue, eta orduan zuen itzulera ezin duzue osatutzat jo, edo zuen ilara mugatzen duen halakoa hautemapena baduzue, orduan honek ezin du izan zuen itzulera-ilararen

zattia (zeren *mugatzen* duenak horren bitartez *mugatua* denetik ezberdina izan behar baitu), eta orduan zuen itzulera baldintza honetarako ere jarraitu behar duzue, eta horrela aurrerantzean.

Ondorengo atalak ohar hauek egokiro argituko ditu beren aplikazioaren bitartez.

Arrazoimen hutsaren antinomiaren

Bederatzigarren atala

Arrazoimenaren printzipio erregulatzailaren erabilera enpirikoaz ideia kosmologiko orori begira

Sarri erakutsi dugun moduan, ez adimenaren adigai hutsen ezta arrazoimenaren adigai hutsen erabilera transzendentalik ez dagoenez; sentsuen munduko baldintzen ilaren osotasun absolutua arrazoimenaren erabilera transzendentalean eusten denez, zeinak berbaitango gauza gisa auresuposatzen duenaren osotasun baldintzatugabea eskatzen duen; sentsuen munduak, ordea, horrelakorik barnebiltzen ez duenez gero, orduan solasgaia ezin da izan beren ilaren handitasun absolutua, alegia, ea ilarak mugatuak edo *beren baitan* mugagabeak izan daitezkeen, baizik hau besterik ez: ea itzulera enpirikoan noraino egin behar dugun atzera esperientzia bere baldintzetan biltzen dugunean, horrela arrazoimenaren erregelaren arabera ezein galdekizunen erantzunean ez geratzeko, objektuari dagokionean izan ezik.

Beraz, esperientzia ahalgarriaren *jarraipenaren* eta handitasunaren erregela den *arrazoimen-printzipioaren baliotasuna* besterik ez zaigu geratzen agerpenen berbaitango oinarri-esakune eratzaile gisa duen balio eza askiro frogatu ondoren. Hura zalantzarik gabe begi-bistan jarri badezakegu, orduan arrazoimenak bere buruarekin duen gatazka ere bukatuko litzateke osorik, ez soilik hau bere buruarekin banatzen zuen itxuraren konponketa kritikoaren bitartez gainditzen den heinean, baizik bere ordeztu arrazoimenak bere buruarekin zein zentzutan bat egiten duen erakutsiko delako, sasi-interpretazio honek soilik sortu baitzuen gatazka, eta gainera *dialektikoa* den oinarri-esakunea *doktrinalean* eraldatuko delako ere bai. Egitatean, oinarri-esakune honi bere esanahi subjektiboaren arabera adimen-erabilera ahalbait handiena egokiro determinatzea onartuko balitzaio objektu beren esperientzian, orduan berak axioma gisa (arrazoimen hutsetik abiatuta ezinezkoa dena) berbaitango objektuak a priori determinatuko balitu bezala litzateke; izan ere, axioma honek ere esperientziaren objektuei dagokienez gure ezagutzaren hedapenean eta zuzenketan izan lezakeen eragin handiena gure adimenaren esperientzia-erabilera hedatuenean ekile gisa agertzea izango litzateke.

I

*Mundu-osoki bateko agerpenen elkarketaren totalitatearen
ideia kosmologikoaren konponketa*

Hemen eta gainerako galdekizun kosmologikoetan arrazoimenaren printzipio erregulatzailaren oinarria esakune hau da: itzulera enpirikoan *muga absolutu baten esperientziarik* ezin daitekeela aurkitu, eta beraz, ezta baldintza gisa *enpirikoki erabat baldintzatugabea* den ezein baldintzarik ere. Horren zergatia, berriz, hau da: halako esperientziak ezerezaren bidezko edo hutsunearen bidezko agerpenen mugaketa barnebildu beharko lukeela, hots, itzulera jarraituak hautemapenen bitartez aurki lezakeen mugaketa, ezinezkoa dena.

Esakune honek, beraz, hau adina dio: itzulera enpirikoan beti era berean enpirikoki baldintzatua bezala begiztatu behar den baldintzara soilik iristen naizela, eta erregela hau barnebiltzen du in terminis, alegia, ilara gorakorrean hain urrun iritsi naitekeen arren, nik beti ere ilararen osakide garaiaago batez galdetu behar dudala, hau esperientziaren bidez ezaguna izan edo ez izan.

Lehen arazo kosmologikoaren konponketarako zera erabakitzea besterik ez da behar: ea mundu-osokiaren (espazioaren eta denboraren arabera) baldintzatugabeko handitasunaren itzulera inoiz mugatua ez den igotze honek *amaigaberauzko itzulera-bidea* izena jaso dezakeen edo *indeterminatuki jarraitutako itzulera* (in indefinitum) izena besterik ez.

Iraganeko mundu-egoera ororen ilararen errepresentazio orokorra, halaber, espazioan aldi berean dauden gauzena, nik pentsatzen dudana itzulera enpiriko ahalgarria baino ez da, indeterminatuki bada ere, eta horren bitartez soilik sor daiteke hautemapen jakinaren halako baldintza-ilararen adigaia¹²⁷. Mundu-osokia, hortaz, beti adigaian soilik daukat, inolaz ere ez begiespenean (osoki gisa). Beraz, ezin dut bere handitasunetik abiatuta itzuleraren handitasuna inferitu eta hau haren arabera determinatu, baizik lehen-lehenik munduaren handitasunaren adigaia sortu behar dut itzulera enpirikoaren handitasunaren bitartez. Honetaz, ordea, baldintzen ilararen osakide jakin bakoitzetik beti ere oraindik beste osakide garaia (urrunagoa) aurrera egin behar duela baino gehiago ez dakit inoiz. Beraz, horren bitartez inolaz ere ez da absolutuki determinatzen agerpenen osokiaren handitasuna, eta beraz, ezin da esan itzulera hau amaigaberantz doanik, zeren honek itzulera oraindik iritsi ez den puntuko osakideak aitzinatuko bailituzke eta beren kopurua hain handia errepresentatuko bailuke, non ezein sintesi enpiriko horretara ezingo bailituzteke iritsi, eta ondorioz, munduaren handitasuna itzuleraren aurretik *determinatuko* bailuke (nahiz eta negatiboki besterik ez izan), ezinezkoa dena. Izan ere, hau ez zait ezein begiespenen bitartez emana (bere osotasunaren arabera), eta beraz, ezta bere handitasuna ere itzuleraren aurretik. Beraz, munduaren handitasunaz ezin dugu ezer esan, ezta bertan regressus in infinitum bat gertatzen denik ere, baizik bere handitasunaren adigaia bilatu baino ez dugu egin behar itzulera enpirikoak bertan determinatzen duen erregelaren arabera. Erregela honek ez du, ordea, zera baino esaten: baldintza enpirikoen ilaran hain urrun iritsi ahal izan bagara ere, inon ez dugula muga absoluturik onartu behar, baizik agerpen bakoitza, baldintzatua den aldetik, beste bati bere baldintza gisa menperatu behar zaiola, eta gainera, regressus in indefinitum bat den honetara aurrera egin behar dugula, zeina regressus in infinitum-etik aski nabarmenki ezberdin daitekeen, hark ez baitu ezein handitasunik determinatzen objektuan.

Beraz, ezin dut esan mundua lehenaldiari dagokionez edo espazioari dagokionez *amaigabea* denik. Izan ere, handitasunaren halako adigaia, amaigabetasun jakinaren adigaia denez, enpirikoa da, eta beraz, munduari dagokionez erabat ezinezkoa ere bai sentsuen objektu gisa. Ez dut esango era berean: hautemapen jakin batetik itzulera, hau espazioan eta denbora iraganean ilara batean mugatzen duen guztirantz doa, hots, *amaigaberantz*; izan ere, honek munduaren handitasun amaigabea auresuposatzen du; ezta ere: *amaiduna* da; izan ere, muga absolutua era berean ezinezkoa da enpirikoki. Beraz, ezingo dut ezer esan (sentsuen munduaren) esperientziaren objektu osoaz, baizik erregela batez besterik ez, zeinari jarraiki esperientzia egin eta jarraitu behar den bere objektuari egokituz.

Munduaren handitasunaz egindako galdekizun kosmologikoaren lehen erantzuna, hortaz, eta erantzun ezezkorra, hau da: munduak ez dauka lehen hasierarik denborari dagokionez, ezta kanpoko mugarik ere espazioari dagokionez.

Izan ere, aurkako kasuan, alde batetik denbora kaskalaz eta bestetik espazio kaskalaz mugatua izango litzateke. Berak agerpen gisa bere baitan bietako batere izan ezin duenez gero, orduan mugapenaren hautemapen batek ahalgarria izan beharko luke erabat kaskala den denboraren edo espazioaren bitartez, eta honen bidez munduaren amaiera emango litzateke esperientzia ahalgarri batean. Halako esperientzia, ordea, ezinezkoa da, bere edukia erabat kaskala baita. Beraz, munduaren muga absolutua ezinezkoa da enpirikoki, eta beraz, absolutuki ere bai¹²⁸.

Hemendik ondorioztatzen da erantzun *baiezkorra* ere: munduko agerpenen ilararen itzulera in indefinitum doa, munduaren handitasunaren determinazioa denez, eta honek hau adina esan nahi du: sentsuen munduak ez dauka handitasun absoluturik, baizik itzulera enpirikoak (horren bitartez soilik eman daitekeela bere baldintzen aldetik) bere erregela du, hots, ilararen osakide bakoitzetik, baldintzatukia den aldetik, beti osakide urrunago batera aurrera egitea (izan dadin norbere esperientziaren bitartez, edo historiaren gida-hariaren bitartez, edo ondorioen eta beren kausen katearen bitartez), eta bere adimenaren erabilera enpiriko ahalgarriaren hedapena inon alde batera ez uztea, arrazoimenaren benetako zeregin bakarra baita bere printzipioei dagokienez.

Agerpenen era jakin batean etengabe aurrera egingo lukeen itzulera enpiriko determinatua ez da honen bitartez ezartzen dena, adibidez, gizaki bizi batetik beti gurasoen ilaran gorantz igo behar dela, lehen pare bat itxaron behar gabe, edo munduko gorputzen ilaran, eguzki urrunenik onartu behar gabe; baizik agerpenetik agerpenetara aurrerapena besterik ez da agintzen, nahiz eta hauek hautemapen errealik ez eskuratu (maila ahulegia badu esperientzia bihurtu ahal izateko gure kontzientziarentzat), zeren hori aintzat hartu gabe ere esperientzia ahalgarriari baitagozkio.

Hasiera oro denboran gertatzen da, eta hedatua denaren muga oro espazioan. Espazioa eta denbora, ordea, sentsuen munduan besterik ez dira aurkitzen. Eta beraz, *munduan* baldintzatuki mugatutako agerpenak dira, baina *mundua* bera ez da mugatua, ez era baldintzatuan, ezta baldintzatugabea ere.

Horregatik, mundua inoiz osorik ematen ez denez, eta baldintzatuki jakin baterako baldintzen ilara bera, munduko ilara gisa, *inoiz osorik eman ezin daitekeenez gero*, orduan munduaren handitasunaren adigaia itzulerearen bitartez soilik da emana, eta ez bere aurretik begiespen kolektibo batean. Itzulera hori, ordea, beti handitasunaren *determinatzea* da eta ez du, beraz, ezein adigai *determinaturik* ematen, ezta, beraz, handitasun baten adigairik ere, neurri jakin bati dagokionez amaigabea litzatekeen adigaia, eta ez doa, beraz, amaigaberantz (nolabait esateko, emandako amaigaberantz), baizik urrunera indeterminaturantz, horrela itzulera horren bitartez lehen-lehenik erreala bihurtzen den (esperientziaren) handitasun bat eskuratzeko.

II

Begiespeneko osoki jakin baten zatiketaren totalitatearen idea kosmologikoaren konponketa

Begiespenean ematen den osokia zatitzen baldin badut, orduan baldintzatukitik bere ahalgarritasunaren baldintzetara noa. Zatiaren zatiketa (subdivisio edo decompositio) itzulera bat da baldintza horien ilaran. *Ilara* horren osotasun absolutua emana izango litzateke, baldin eta itzulera zati *bakunetara* iritsi ahal izango balitz. Jarraituki aurrera egiten duen deskonposaketan zatiak beti berriro ere zatigarriak baldin badira, orduan zatiketa, h. d., itzulera, baldintzatukitik bere baldintzara doa in infinitum; zeren baldintzak (zatiak) baldintzatukian bertan barnebilduak daudenez eta hau bere mugetan jasotako begiespenean osorik ematen denez gero, orduan era berean osotara batera emanak baitaude. Itzulerari ezin zaio, beraz, in indefinitum doan itzulera-bidea soilik deitu, aurreko ideia kosmologikoak baimentzen zuen gauza bakarra gisa, zeren baldintzatukitik hasita beretik at, eta beraz, berekin aldi berean emanak ez zeuden, baizik lehen-lehenik itzulera enpirikoan eransten ziren bere baldintzetara aurrera egin behar bainuen. Hau aintzat hartu gabe ere, ez da inolaz ere zilegi amaigaberaino zatigarria den halako osokiaz zera esatea: *zati anizkun amaigabeez osatzen da*. Izan ere, nahiz eta zati guztiak osokiaren begiespenean barnebilduak izan, hala ere, bertan *ez dago zatiketa osoa* barnebildua, beraz, ilara lehen-lehenik erreala egiten duen deskonposaketa aurrerakorraz edo itzulera beraz besterik osatzen ez den zatiketa. Itzulera hau amaigabea denez gero, orduan bera heltzen den puntuko osokide (zati) guztiak *agregatu* gisa barnebilduak daude osoki jakinean, baina ez *zaticetaren ilara* osoa, hurrenez hurren amaigabea dena eta inoiz ez *osoa*, eta ondorioz, kopuru amaigabea ere ez dena, eta ezein elkarkuntza aurkeztu ezin duena osoki batean.

Oharpen orokor hau erraz aplikatu dakioke espazioari lehenik. Bere mugetan begietsitako edozein espazio halako osokia da, non bere zatiak deskonposaketa orotan beti berriro ere espazioak baitira, eta horregatik, espazioa amaigaberaino zatigarria da.

Hemendik berez ondorioztatzen da bigarren aplikazioa ere, hots, bere mugen barnean jasotzen den kanpoko agerpen bati aplikazioa (gorputzari). Bere zatigarritasuna espazioaren zatigarritasunean oinarritzen da, eta espazioak gorputzaren ahalgarritasuna osatzen du hau osoki hedatua den aldetik. Hau, beraz, amaigaberaino zatigarria da, baina ez da horregatik zati anizkun amaigabeez osatzen.

Badirudi, gorputz bat substantzia gisa espazioan errepresentatua izan behar denez, bera espaziotik ezberdinduko dela espazioaren zatigarritasunaren legeari dagokionez; izan ere, dena dela, ederki onar daiteke deskonposaketak azkenengoan ezin duela inoiz elkarketa oro deuseztatu, horrela bestela beregaina den ezer ez duen espazio orok izateari utziko liokeen heinean (ezinezkoa dena); hala ere, badirudi ondokoa ezin dela substantzia baten adigaiarekin bateratu, hots, benetan elkarketa ororen subjektua izan behar duen eta gorputz bat osatzeko osagaien elkarlotura espazioan ezeztatua izango balitz ere iraungo lukeen substantziaren adigaiarekin bateratu: materiaren elkarketa oro pentsamenduan ukatzen bada, ezerk ez dirauela. Hala ere, *agerpenean* substantzia deitzen zaionarekin ez da gertatzen berbaitango gauza beraz adimenaren adigai hutsen bidez ederki pentsatuko litzatekeen gauza bera. Hura ez da subjektu absolutua, baizik sentimenaren irudi iraunkorra eta begiespena besterik ez, eta bertan ez dago inon baldintzatugabea den ezer.

Espazioaren beteketa soilaren gisako agerpenaren azpizatiketan amaigaberantzko aurrerapenaren erregela hau zalantzarik gabe betetzen denez gero, orduan erregelak ez du balio, hala ere, guk era jakin batean emandako osokian jadanik halako moldez bakartuta dauden zatiaren kopurura hedatu nahiko bagenu, non zatiok quantum discretum bat osatzen baitute. Osoki artikulatu

(organizatu) orotan zati bakoitza berriro artikulatua dela eta honela zatien analisi amaigabearen bitartez beti zati artifizial berriak aurkitzen direla onartzea, hitz batean, osokia amaigaberaino artikulatua dela onartzea, ezin da pentsatu, nahiz eta ederki pentsa daitekeen materiaren zatiak beren amaigaberainoko deskonposaketan artikulatuak izan zitezkeela. Izan ere, espazioan emandako agerpen jakin baten zatiketaren amaigabetasuna agerpenaren bitartez zatigarritasuna besterik ez ematean soilik oinarritzen da, h. d., bere baitan erabat indeterminatua den zatien kopurua, zatiak berak, oster, azpizatiketaren bitartez soilik ematen eta determinatzen direnean, hitz batean, osokia bere baitan jadanik zatitua ez egotean oinarritzen da. Horregatik, zatiketak bertan zatiketaren itzulera aurrera egin nahi den bezain urrun joan daitekeen kopuru bat determina dezake. Aitzitik, amaigaberaino artikulatutako gorputz organikoan osokia adigai horren bitartez jadanik zatitua errepresentatzen da eta bertan bere baitan determinatuta dagoen baina amaigabea den zatien kopurua aurkitzen da zatiketaren itzulera ororen aurretik, eta horren bitartez norbere burua kontraesaten da, garapen amaigabe hau inoiz osatzen ez den ilaratzat (amaigabea) eta hala ere multzo batean osatutzat hartzen den heinean. Zatiketa amaigabeak agerpena soilik izendatzen du quantum continuum gisa eta espazioaren beteketatik bereizgaitza da, beteketa horretan baitatza zuzenki bere zatigarritasun amaigabearen oinarria. Zerbait quantum discretum gisa onartu ahala bertan batasunen kopurua determinatua dago; horregatik berdintzen da beti era berean zenbaki batekin. Esperientziak baino ezin dezake erabaki gorputz artikulatu baten organizazioa noraino irits daitekeen, eta ziurtasunez ezein zati inorganikotara iritsiko ez balitz ere, dena dela, hauek esperientzia ahalgarrian egon beharko lukete bederen. Ez da, ordea, esperientziaren gaia ea agerpen baten zatiketa transzendental oro har noraino hedatzen den, baizik arrazoimenaren printzipioa, hedatukiaren deskonposaketan ematen den itzulera enpirikoa agerpen horren izaeraren arabera inoiz erabat osatutzat jotzen ez duen printzipioa.

* * *

*Azken oharra ideia matematiko-transzendentalen konponketari,
eta atariko oharpena ideia dinamiko-transzendentalen konponketari*

Idea transzendental guztien bitartez sortutako arrazoimen hutsaren antinomia taula batean aurkeztu genuenean, bertan aurkakotasun honen oinarria eta bera gairatzeko baliabide bakarra erakusten genuela, kontrajarritako bi baieztapenak faltsutzat hartuak izatean zetzan baliabidea; orduan, dena dela, baldintzak beren baldintzatukiei zegozkiela errepresentatzen genituen espazioaren eta denboraren hartuemanetan, giza adimen arruntaren ohiko auresuposizioa dena, hain zuzen, eta bertan funtsatzen zen era berean osorik aurkakotasun hura. Ikuspegi honetatik begiratuta, osotasunaren errepresentazio dialektiko denak ere guztiz *era berekoak* dira baldintzatuki jakin baten baldintzen ilaran. Ilara bat bazen beti, bertan baldintza baldintzatukiarekin elkarlotua zegoela bere osakide gisa, eta horren bitartez biak *homogeneoak* ziren, zeren itzulera inoiz ez baita pentsatzen osatua balitz bezala, edo honek gertatu beharko balu ere, bere baitan baldintzatutako osakidea faltsuki lehen osakide bat balitz bezala, eta beraz, baldintzatugabeki gisa onartu beharko bailitzateke. Beraz, ez zen beti objektua kontsideratzen, h. d., baldintzatukia, baina bai bertara doan baldintzen ilara bere handitasun soilaren arabera, eta hemen zetzan zailtasuna, ezein alderaketaz gairatu ezin den zailtasuna, korapiloa osoki moztuz izan ezik, alegia, arrazoimena adimenarentzat edo *luzeegia* edo *motzegia* zela, halako molde, non adimenak arrazoimenaren ideia inoiz ezin baitzuen berdindu.

Hemen, ordea, objektuetan, h. d., arrazoimenak ideiak bihurtzen saiatzen dituen adimenaren adigaietan nagusitzen den funtsezko bereizketa ahaztu dugu, hots, goragoko gure kategorien taularen arabera beraietako biek agerpenen sintesi *matematikoa*, gainerako beste biek, ordea, *dinamikoa* adierazten dutela. Orain arte ederki izan zitekeen horrela, ideia transzendental ororen errepresentazio orokorrean beti ere *agerpeneko* baldintzetan geratu ginen bezala matematiko-transzendental bietan ere agerpenekoak direnak baino beste *objekturik* ez baikenuke izango. Orain, ordea, adigai *dinamikoetara* aurrera egiten dugunez gero, adigaiok arrazoimenaren ideiei egokitu behar zaizkien heinean, orduan bereizkuntza hura garrantzitsua bihurtzen da eta arrazoimena nahastua dagoen gatazkaz jarduteko ikuspegi erabat berria ahalbidetzen digu. Gatazka lehenago *ezeztatua* izan zen, bi aldeetatik auresuposizio faltsuetan oinarritzen zelako, orain, ordea, antinomia dinamikoan arrazoimenaren asmoarekin batera daitekeen halako auresuposizioa gertatzen denez gero, bi aldeek arteko *adostasuna* lor daiteke ikuspegi honetatik eta epaileak bi aldeek ezezagutu zuten zuzenbidezko oinarriaren gabezia osatuz, antinomia matematikoaren gatazkan egin izan ezin zena.

Baldintzen ilarak, noski, homogeneousak dira denak, hauen *hedapena* soilik begiztatzen den heinean: ea ideari egokitzen zaizkion edo harentzat handiegiak ala txikiegiak diren. Hala ere, ideia hauen oinarrian datzan adimenaren adigaiak edo *homogeneousaren sintesi* soila (edozein handitasunetan auresuposatzen dena, bai bere elkarketan, baita zatiketan ere) edo baita *homogeneousa ez denarena* ere barnebiltzen du, bai kausazko loturaren sintesi dinamikoan, baita beharrezkoa denak beharbadakoa denarekin duen loturaren sintesi dinamikoan ere onartu behar dena behinik behin.

Hortik dator agerpenen ilararen elkarlotura matematikoan *sentsuzko* baldintza baino ez aurkitzea, h. d., ilararen zatia den baldintza bat; aitzitik, sentsuzko baldintzen ilara dinamikoak ilararen zatia ez den, baizik *inteligiblea* soilik izanik ilaratik at datzan baldintza ez-homogeneousa onartzen du, eta horren bitartez arrazoimena gogobetetzen da eta baldintzatugabekia aurrezartzen zaie agerpenei, beti ere baldintzatuak diren agerpen hauen ilaran horregatik nahasketarik eragin gabe eta adimenaren oinarri-esakunerik hautsi gabe.

Idea dinamikoek beren ilaratik at agerpenen baldintza onartzen dutenez gero, h. d., agerpena ez den baldintza onartzen dutenez gero, orduan antinomiaren emaitzatik erabat ezberdina den zerbait gertatzen da. Honek, alegia, aurkako bi baieztapenak faltsutzat hartzea behartzen zuen. Aitzitik, agerpenak diren hauetatik bereiztezina den ilara dinamikoetako baldintzatuak osoak baldintza enpirikoki baldintzatugabearekin elkarlotuta, baina baita *ez-sentsuzkoarekin* elkarlotuta ere, alde batetik *adimena*, baina bestetik baita *arrazoimena*¹²⁹ ere gogobetzen ditu, eta argumentu dailektikoak desagertu egiten dira, era batera edo bestera agerpenetan osotasun baldintzatugabea bilatzen zuten heinean, arrazoimenaren esakuneak, aitzitik, era horretan zuzendutako esanahian *biak* egiazkoak izan daitezkeenean; hau ezin gerta daiteke inoiz batasun matematiko-baldintzatugabearekin soilik zerikusia duten ideia kosmologikoetan, zeren bertan bera ere agerpena den, eta beraz, ilararen osakidea osatzen duena baino beste agerpenen ilararen baldintzarik ez baita aurkitzen.

III

Mundu-jazoaren beren kausetatiko eratorketaren totalitatearen ideia kosmologikoaren konponketa

Gertatzen denari dagokionez, bi kausalitate-era soilik pentsa daitezke: edo *izadiaren* arabera, edo *askatasunetik* abiatzen dena. Lehen, egoera batek sentsuen munduan aurreko batekin duen elkarlotura da, hura honi erregela baten arabera jarraiki zaiola. Agerpenen *kausalitatea* denbora-baldintzetan funtsatzen denez, eta aurreko egoera beti izan balitz, lehen-lehenik denboran sortzen den ezein efektu ezin sortuko lukeenez gero, orduan gertatzen denaren edo sortzen denaren kausaren kausalitatea ere *sortua* da, eta honek berriro kausa bat behar du adimenaren oinarri-esakuneen arabera.

Aitzitik, askatasunaz zera ulertzen dut adiera kosmologikoan: egoera bat *berez* hasteko ahalmena, zeinaren kausalitatea ez dagoen, beraz, era berean beste kausa baten menpean izadiaren legeen arabera, kausalitate hura denboraren arabera determinatzen duen kausaren menpean, alegia. Askatasuna esanahi honetan ideia transzendental hutsa da, eta honi dagokionez, lehenik, esperientziatik hartutako ezer ez du, bigarrenik, bere objektua ezin daiteke ezein esperientzian emana izan era determinatuan, zeren lege orokorra baita, esperientzia ororen ahalgarritasunarena ere bai, gertatzen den guztiak kausa bat izan behar duela, eta beraz, *gertatu* edo sortu denaren kausaren kausalitateak era berean kausa bat izan behar duela; horren bitartez, esperientziaren alor osoa izadi soilaren multzo bat bihurtzen da, hau nahi den adina hedatzen dela ere. Horrela, ordea, kausazko hartuemanetan baldintzen osotasun absoluturik lortzerik ez dagoenez gero, orduan arrazoimenak berez ekiten has daitekeen berezkotasun baten ideia sortzen du, aurretik beste kausa bat jartzeko beharrik gabe bera berriro kausazko elkarloturaren legearen arabera ekintzara determinatzeko.

Erabat ohargarria da *askatasunaren* ideia *transzendental*a bere adigai praktikoa honetan oinarritzea, eta hark honetan bere ahalgarritasunari buruzko galdekizuna betidanik inguratu duen zailtasunaren benetako unea osatzea. Bere *adiera praktikoa* *askatasuna* hautamenak sentimenaren eraginaren *beharpenetik* duen beregaintasuna da. Izan ere, hautamena *sentsuzkoa* da *patologikoki afektatua* den heinean (sentimenaren kausa eragilearen bitartez); *aberezkooa* (arbitrium brutum) deitzen zaio, *patologikoki behartua* denean. Giza hautamena, beraz, arbitrium sensitivum da, baina ez brutum, baizik eta liberum, zeren sentimenak hautamenaren ekintza ez baitu beharrezkoa bihurtzen, baizik eta gizakiak ahalmen bat du norbere burua sentsuen irriken beharpenetik beregainki determinatzeko.

Erraz ikusten da, sentsuen munduko kausalitate oro izadia besterik ez baldin balitz, orduan jazoera bakoitza beste baten bitartez denboran beharrezko legeen arabera determinatua legokeela, eta beraz, agerpenek hautamena determinatzen duten heinean ekintza bakoitza beren berezko emaitza gisa beharrezkoa bihurtu beharko zuten z gero, orduan askatasun transzendentalaren ezeztapenak aldi berean askatasun praktikoko oro deuseztatuko lukeela. Izan ere, honek zera aurreuposatzen du: zerbait gertatu ez bada ere, gertatu *behar* zuela, eta bere kausa agerpenean ez zela gure hautamenean kausalitate bat ez egoteko bezain determinatzailea, alegia, izadiaren kausa haieztatik beregainki eta bere botere eta eragin beraren aurka izanda ere, denbora-ordenan lege enpirikoen arabera determinatua dagoen zerbait sortzeko, eta beraz, jazoeren ilara bat *osorik berez* hasteko kausalitatea.

Hemen, beraz, esperientzia ahalgarriaren mugetatik at ausartzen den arrazoimenaren aurkakotasunean aurkitzen dena gertatzen da, alegia, eginkizuna benetan ez dela *fisiologikoa*, *transzendental*a baizik. Horregatik, askatasunaren ahalgarritasunari buruzko galdekizunak Psikologiarekin du zerikusia, baina arrazoimen huts soilaren argumentu dialektikoetan funtsatzen denez gero, orduan bera eta bere konponketa Filosofia transzendentalak soilik landu behar ditu. Eta honi buruzko erantzun gogobetegarria ukatu ezin duen Filosofia transzendentalak horretarako prestatzearen, aurretiaz eginkizun honetan izango duen jardunbidea ohar baten bitartez zehazkiago determinatzea saiatu behar dut.

Agerpenak berbaitango gauzak balira, eta beraz, espazioa eta denbora berbaitango gauzen izatearen forma berak balira, orduan baldintzak baldintzatukiarekin batera beti ilara bat eta berberari legozkioke osakide gisa, eta hortik kasu honetan ideia transzendental guztiei komuna zaien antinomia sortuko litzateke, ilara honek ezinbestean adimenarentzat handiegia edo txikiegia gertatu beharko bailuke. Zenbaki honetan eta hurrengoan landuko ditugun arrazoimenaren adigai dinamikoak, ordea, bereizgarri hau dute: objektu batekin zerikusia dutenez, baina ez handitasuna den heinean, baizik bere *izatearekin* zerikusia soilik dutenez gero, orduan baldintzen ilararen handitasunaz ere abstrai daitekeela, eta hemen gaia baldintzak baldintzatukiarekin duen hartueman dinamikoa besterik ez da, eta hainbestez, izadiari eta askatasunari buruzko galdekizunean jadanik zailtasun hau aurkitzen dugu: ea askatasuna edonon ahalgarria besterik ez den, eta ea ahalgarria baldin bada, orduan kausalitatearen izadi-legearen orokortasunarekin batera daitekeen; eta beraz, ea esakune disjuntibo zuzena den, munduko eragin bakoitza edo izadiatik edo askatasunetik sortua izan behar dela, edo, aitzitik, ez ote daitezkeen *biak* harreman ezberdinean jazoera bat eta berberan aldi berean gertatu. Sentsuen munduko jazoera ororen bilkura osoaren oinarri-esakunearen zuzentasuna izadiaren lege aldaezinen arabera dago finkatua Analitika transzendentalaren oinarri-esakune gisa eta ez du hausketarik jasaten. Galdekizuna hau besterik ez da: ea, dena dela, izadiaren arabera determinatua dagoen ondorio berari dagokionez askatasuna ere egon daitekeen, edo aukera hau erregela haustezin harengatik osoki baztertzen den. Eta agerpenen *errealitate absolutuaren* aurreuposizio arrunt baina iruzurtiak hemen erakusten du bere eragin kaltegarria arrazoimena nahastuz. Izan ere, agerpenak berbaitango gauzak balira, orduan askatasuna ezingo litzateke salbatu. Horrela, izadia da jazoera bakoitzaren kausa osoa eta bere baitan aski determinatua dagoen kausa, eta bere baldintza beti agerpenen ilaran soilik dago barnebildua, zeina beharrezkoa den bere ondorioarekin batera izadiaren legeen menpean. Aitzitik, agerpenak, egitatean, direna baino beste ezertzat onartzen ez badira, hots, ez berbaitango gauzak, baizik lege enpirikoen arabera lotzen diren errepresentazio soilak baldin badira, orduan beraiek oraindik agerpenak ez diren oinarriak izan behar dituzte. Halako kausa inteligiblea, ordea, ez da agerpenen bitartez determinatzen bere kausalitateari begira, nahiz eta bere efektuak ager daitezkeen, eta horrela, beste agerpenen bitartez determinatuak izan daitezkeen. Hau, beraz, ilaratik at dago bere kausalitatearekin batera; aitzitik, bere efektuak baldintza enpirikoen ilaran aurkitzen dira. Efektua, beraz, bere kausa inteligibleari begira askea balitz bezala begizta daiteke, eta hala ere, aldi berean, agerpenei begira beren emaitza gisa izadiaren beharrezkotasunaren arabera begizta daiteke; bereizkuntza hau orokorrean eta erabat abstraktuki azaltzen bada, orduan berak erabat sotila eta iluna iruditzen behar du, baina aplikazioan argituko da. Hemen ohar hau soilik egin nahi izan dut: agerpen ororen bilkura osoa lege utziezina denez gero izadiaren testuinguruan, orduan honek askatasun oro deuseztatuko luke, burugogorki agerpenen errealtateri eutsi nahiko bagenio. Horregatik, puntu honetan iritzi arruntari jarraiki zaizkionek ere ezin izan dute inoiz lortu izadia eta askatasuna elkarrekin bateratzea.

Askatasunaren bidezko kausalitatea izadiaren beharrezkotasunaren lege orokorrarekin bateratzeko ahalgarritasuna

Sentsuen objektu batean agerpena ez denari *inteligiblea* deitzen diot. Ondorioz, sentsuen munduan agerpen gisa hartu behar den horrek bere baitan sentsuen begiespenaren ezein objektu ez den ahalmen bat badu, horren bitartez, ordea, agerpenen kausa izan daitekeelarik, bada, orduan zerizan horren *kausalitatea* bi aldetatik kontsidera daiteke, *inteligible* gisa

bere *ekintzaren* arabera, berbaitango gauza batena den aldetik, eta *sensible* gisa bere *ondorioen* arabera, sentsuen munduko agerpenarena den aldetik. Halako subjektu baten ahalmenaz, beraz, bere kausalitatearen adigai enpiriko eta intelektuala lortuko genituzke, efektu bat eta berberan batera gertatzen direnak. Sentsuen objektu baten ahalmena pentsatzeko dugun halako modu bikoitzak ez du kontraesaten agerpenez eta esperientzia ahalgarri batez egin behar dugun ezein adigairik. Izan ere, berbaitango gauzarik ez direlako oinarrian hauek errepresentazio soil gisa determinatzen dituen objektu transzendental datzanez gero, orduan ezerk ez du galarazten objektu transzendental honi bera agertzeko berekitasunaz gain agerpena ez den *kausalitatea* ere egotea, bere *efektua* agerpenean aurkitzen den arren. Kausa arazle hauetako bakoitzak, ordea, *izaera* bat izan behar du, h. d., bere kausalitatearen lege bat, eta hau gabe inolaz ere ezingo litzateke kausa izan. Eta horrela, sentsuen munduko subjektu batean, lehenik, *izaera enpiriko* bat izango genuke, zeinaren bitartez agerpenen gisako bere ekintzak erabat beste agerpenekin loturan egongo liratekeen izadiaren lege jarraituen arabera, eta beraietatik eratorri ahal izango liratekeen beren baldintza gisa, eta beraz, hauekin lotuta izadiaren ordenaren ilara bakarra osatuko luketen. Bigarrenik, *izaera inteligible* bat ere onartu behar zaio, zeinaren bitartez subjektua agerpenen gisako ekintza haien kausa den, baina bera sentimenaren ezein baldintzaren menpean egon gabe eta agerpena izan gabe. Lehenari agerpeneko gauzaren izaera dei dakioke, bigarrenari berbaitango gauzaren izaera.

Subjektu ekile hau ez legoke bere izaera inteligiblearen arabera ezein denboraren baldintzaren menpean, izan ere, denbora agerpenen baldintza baita, ez, ordea, berbaitango gauzena. Bertan ez litzateke ezein *ekintza sortu* edo *desagertuko*, eta beraz, ez litzaioke menperatuko denbora-determinazio ororen legeari, aldagarria den guztiaren legeari, alegia, *gertatzen den guztiak* bere kausa (aurreko egoeraren) *agerpenean* duela dioen legeari. Hitz batean, bere kausalitatea intelektuala den heinean, hau ez datza inolaz ere jazoera sentsuen munduan beharrezkoa bihurtzen duten baldintza enpirikoen ilaran. Izaera inteligible hau ezin da inoiz zuzenki ezagutu, agertzen dena baino ezin baitugu hauteman, baina izaera enpirikoaren arabera *pentsatu* ahal izan behar da, oro har pentsatzean agerpenen oinarrian objektu transzendental ezarri behar dugun bezala, nahiz eta bere baitan denari buruz ezer ez dakigun.

Bere izaera enpirikoaren arabera, beraz, subjektu hau, agerpena den aldetik, kausazko loturari menperatuko litzaioke determinazioaren lege ororen arabera, eta hainbestez, ez litzateke sentsuen munduko zatia baino izango, eta bere efektuak, beste edozein agerpen bezala, ezinbestean izaditik isuriko lirateke. Kanpoko agerpenek bertan eragin lezaketen modu berean eta bere izaera enpirikoa, h. d., bere kausalitatearen legea esperientziaren bitartez ezagutuko litzatekeen modu berean, bere ekintza denak ere izadiaren legeen arabera argitu ahal izango lirateke eta beren determinazio osoaren eta beharrezkoaren baldintza guztiak esperientzia ahalgarri batean aurkitu beharko lirateke.

Bere izaera inteligiblearen arabera (horretaz bere adigai orokorra baino eduki ezin daitekeen arren), ordea, subjektu berak sentimenaren eragin orotatik eta agerpenen bidezko determinazioetatik aske geratu behar du, eta bertan *noumenoa* den heinean ezer *gertatzen* ez denez eta denbora-determinazio dinamikoa eskatzen duen ezein aldaketa aurkitzen ez denez gero, ezta agerpenekin elkarloturarik ere, hauek kausak diren aldetik, orduan zerizan ekile hori hainbestez bere ekintzetan sentsuen munduan soilik dagoen izadiaren beharrezkotasun orotatik beregaina eta askea litzateke. Beraz, zuzenki esango litzateke bere efektuak *berez* hasten dituela sentsuen munduan, ekintza *bertan* hasi gabe; eta hau baliogarria litzateke, horregatik sentsuen munduko efektuek berez hasteko beharrik izan gabe, zeren hauek bertan beti baldintza enpirikoen bitartez aurreko denboran determinatuak baitaude aurretiaz, baina izaera enpirikoaren arabera soilik (izaera inteligiblearen agerpen soilaren dena), eta izadiaren kausen ilararen jarraipen gisa besterik ez dira ahalgarriak. Horrela, askatasuna eta izadia bakoitza bere esanahi osoan beren kausa inteligiblearekin edo sensiblearekin alderatu ondoren aldi berean eta aurkakotasunik gabe aurkitzen dira ekintza berberetan.

*Izadiaren beharrezkotasun orokorrarekin loturan dagoen
askatasunaren ideia kosmologikoaren azalpena*

Ongi iruditu zait lehenik gure arazo transzendentalaren konponketa zirrimarraztea, horrela arrazoimenak bere konponketan duen ibilera hobeto ikusi ahal izateko. Orain bere erabakiaren uneak xehetuko ditugu, hau izaki benetako autugaia, eta une bakoitza bereziki kontsideratuko dugu.

Gertatzen den guztiak kausa bat duela dioen izadiaren legea, alegia, kausa honen kausalitateak, h. d., *ekintzak* bera determinatzen duen kausa ere agerpenen artean duela, denboran aurretik doalako eta han *sortu* den ondorioari dagokionez bera beti izan ezin zitekeelako, baizik *gertatu* egin behar duelako, eta ondorioz, izadiaren ordena bateko gertaera guztiak enpirikoki determinatuak direla dioen legea, hots, bere eskutik agerpenek lehen-lehenik izadi batosatzen duten eta esperientzia baten objektuak eman ditzakeen lege hau adimenaren legea da, eta ezein aitzakiak ez du baimentzen bertatik ihestea edo agerpenen bat salbuespentzat hartzea; zeren, bestela, hauek esperientzia ahalgarritik at ezartzen baitira, eta horren bitartez, esperientzia ahalgarriaren objektu denetatik ezberdintzen baitira eta haiek pentsamen-gauza soil eta ameskeriak bihurtuko bailirateke.

Hemen bere baldintzetara doan itzuleran *osotasun absoluturik* baimentzen ez duen kausen kate baten itxura soil badugu ere, ez bai honek ez gaitu geldiarazten; izan ere, jadanik arrazoimenaren antinomiaren juzgaketa orokorrean gauditua izan baita arrazoimenak agerpenen ilaran baldintzatugabekia bilatzen duenean. Errealismo transzendentalaren iruzurraren aurrean amore ematen badugu, orduan ez dira geratzen ez izadia ezta askatasuna ere. Galdekizuna hemen zera da: jazoera ororen ilara osoan izadiaren beharrezkotasun soil berrezagutzen baldin bada, ea hau bera, alde batetik izadiaren efektu soil dena, bestalde askatasunetik sortutako efektu gisa onar daitekeen, edo ea bi kausalitate-era hauen artean kontraesan zuzenik dagoen.

Agerpeneko kausen artean ezin da ilara bat absolutuki eta berez has dezakeen ezer izan. Ekintza bakoitza, agerpen gisa, jazoera bat sortzen duen heinean bera ere jazoera edo gertakaria da, beste egoera bat auresuposatzen duena, bertan bere kausa aurkitzen dela, eta horrela gertatzen den guztia ilararen jarraipen soil da, eta bertan ezin da egon berez jazotzen den ezein hasierarik. Beraz, izadiaren kausen eragin guztiak denbora-segidan efektuak dira era berean, hain zuzen, beren kausa denboraren ilaran auresuposatzen duten efektuak. Ezin da itxaron agerpenen kausazko elkarloturatik *jatorrizko* ekintza bat sortzea zeinari esker aurretik ez zen zerbait gertatzen den.

Beharrezkoa ahal da, ordea, efektuak agerpenak badira, era berean agerpena den beren kausaren kausalitateak enpirikoa baino ez duela izan behar? Eta ez ahal da, aitzitik, ahalgarria, agerpeneko efektu orotarako bere kausarekin kausalitate enpirikoaren legeen arabera duen elkarlotura eskatu arren, hala ere, kausalitate enpiriko hau bera, izadiaren kausekin duen bilkura inolaz ere moztu gabe, dena dela, ez kausalitate enpiriko baten efektua, baizik inteligiblearen efektua izatea?, h. d., agerpenei begira kausa baten jatorrizko ekintza dena, hainbestez, ez agerpena, baizik inteligiblea dena ahalmen horren arabera, nahiz eta gainerakoan osorik sentsuen munduan kokatu behar den izadiaren katearen osakide gisa?

Agerpenen elkarrenganako kausalitatearen esakunea behar dugu, izadiaren jazoeretatik izadiaren baldintzak, h. d., kausak, agerpenean bilatu eta azaldu ahal izateko. Hau onartzen bada eta ezein salbuespenengatik ahuldua ez bada, orduan bere erabilera enpirikoan gertakari guztietan izadia baino ikusten ez duen eta horretarako baimendua dagoen adimenak eska dezakeen dena dauka, eta argiketa fisikoek beren ibilera oztopotgabea jarraitzen dute. Hala ere, ez dio ezein hausturarik sortzen, asmatua besterik ez dela ere suposatuz, izadiaren kausen artean inteligiblea soilik den ahalmena dutenak ere badaudela onartzeak, ekintzarako bere determinazioa inoiz baldintza enpirikoetan funtsatzen ez den heinean, adimenaren oinarri soiletan baizik, nahiz eta kausa horren *ekintza agerpenean* kausalitate enpirikoaren lege ororen arabera den. Izan ere, honela subjektu ekilea, causa phaenomenon gisa, izadiarekin kateatua legoke bere ekintza ororen menpekotasun bereizezinean, eta subjektu honen phaenomenon-ak soilik barnebilduko lituzke baldintza jakinak (bere kausalitate ororen agerpenean), zeinak baldintza inteligible soiltzat begiztatu beharko liratekeen, objektu enpirikotik transzendentalera igo nahi bada. Izan ere, agerpenen artean kausa izan daitekeenean besterik ez bagatzaizkio jarraiki izadiaren erregelari, orduan ez dugu arduratu behar enpirikoki ezezaguna zaigun subjektu transzendentalean agerpen hauen eta beren bilkuraren zein oinarri dagoen pentsatzeaz. Oinarri inteligible honek inolaz ere ez ditu ukitzen galdekizun enpirikoak, baizik eta adimen hutseko pentsatze soilarekin du zerikusia, eta adimen hutsaren pentsatze eta ekimen honen efektuak agerpenetan aurkitzen badira ere, horrek ez du oztopotuko agerpenean duten kausatik abiatuta konplutuki argituak ahal izatea izadiaren legeen arabera, beren izaera enpiriko soilari argiketa-oinarri goren gisa jarraitzen zaion heinean, eta haren kausa transzendental den izaera inteligiblea osorik ezezaguntzat uzten den heinean, izaera enpirikoaren bitartez bere sentsuen zeinu gisa azaltzen denean izan ezik. Aplikatu diezaiogun hau esperientziari. Gizakia sentsuen munduko agerpen bat da, eta hainbestez, izadiaren kausetako bat ere bai, eta bere kausalitateak lege enpirikoen menpean egon behar du. Agerpen bat denez, izaera enpiriko bat ere izan behar du, beraz, izadiko gauza guztiek duten bezala. Guk hau bere efektuetan erakusten dituen indarren eta ahalmenen bitartez ohartzen dugu. Izadi bizigabea, edo abere bizitza besterik ez duenean, ez dugu sentsuen arabera baldintzatutakoa baino beste ahalmenik pentsatzeko oinarririk aurkitzen. Gizakiak, hots, izadi osoa sentsuen bitartez ezagutzen duen zerizanak soilik ezagutzen du bere burua era berean

apertzepzio soilaren bitartez, eta gainera berak sentsuen zirrartzat hartu ezin dituen ekintzetan eta barneko determinazioetan, eta bera, noski, alde batetik, fenomeno da, bestalde, ordea, hain zuzen, ahalmen jakinen arabera objektu inteligible soila, zeren bere ekintza ezin baita sentimenaren harmenean kokatu. Ahalmen honi adimena eta arrazoimena deitzen diogu, eta bereziki azkena bereizten da benetan eta lehentasunez enpirikoki baldintzatutako indar guztietatik, bere objektuak ideien arabera soilik kontsideratzen dituelako eta adimena hauen arabera determinatzen duelako, adimenak, orduan, (era berean hutsak diren) bere adigaien erabilera enpirikoa egiten duelarik.

Arrazoimen honek kausalitatea duela edo, gutxienez, guk bertan horrelakoa errepresentatzen dugula, praktikoa den orotan indar aplikagarrii erregela gisa ematen diegun *inperatibotik* abiatuta argitzen da. *Beharrak* (Sollen) beharrezkotasun moduekiko eta oinarriekiko elkarloturaren era bat adierazten du, bestela izadi osoan aurkitzen ez den elkarloturaren era bat. Adimenak honetaz bertan *dena*, edo izan dena, edo izango dena soilik ezagut dezake. Ezinezkoa da bertan zerbait denbora-hartueman hauetan guztietan egitatean den eran ez den bestelako era batean *izan beharra*, eta gainera behar honek ez du ezein esanahirik izadiaren ibilbidea soilik badugu begi-bistan. Ezin dugu galdetu izadian zerk gertatu beharko lukeen; ezta ere, era berean zein berekitasun izan beharko lituzkeen zirkulu batek, baizik bertan zer gertatzen den, edo zirkuluak zein berekitasun dituen.

Behar honek ekintza ahalgarri bat adierazten du, oinarritzat adigai soila besterik ez duen ekintza; aitzitik, agerpen batek izan behar du beti izadiaren ekintza soil baten oinarria. Ekintzak, hala ere, ahalgarria izan behar du izadiaren baldintzaren menpean, beharra berari aplikatzen bazaio; baina izadiaren baldintza hauek ez dute zerikusirik hautamen beraren determinazioarekin, baizik agerpenean duten eraginarekin eta emaitzarekin besterik ez. Izadiaren hainbat oinarri izan daitezke *nahi izatera* bultzatzen nautenak, gainera sentsuen hainbat estimulu, eta hala ere, ezin dute *beharra* sortu, baizik inolaz ere beharrezkoa ez den, baizik beti baldintzatua den nahi bat besterik ez, eta arrazoimenak ahoskatzen duen beharrak horri neurria eta xedea, baita debekua eta autoritatea ere kontrajartzen dio. Hau sentimen soilaren objektua izan daiteke (atsegina), edo arrazoimen hutsarena (ongia); dena dela, arrazoimenak ez du amore ematen enpirikoki emandako oinarriaren aurrean, eta ez zaio gauzen ordenari jarraiki hauek agerpenean aurkezten diren moduan, baizik berezkotasun osoz ordena propioa sortzen du ideien arabera, bertan baldintza enpirikoak kokatzen dituela, eta hauen arabera *gertatu ez diren* eta agian gertatuko ez diren ekintzak beharrezkotzat adierazten dituela, hala ere, hainbestez, hauek guztiez arrazoimenak ekintza hauei dagokienez kausalitatea izan dezakeela auresuposatuz; izan ere, hau egin ezean, ezingo luke itxaron bere ideietatik efektuak sortzea esperientzian.

Gera gaitezen hemen eta onar dezagun, ahalgarria gisa bederen, arrazoimenak benetan kausalitatea duela agerpenei dagokienez; orduan, arrazoimena den heinean, bere izaera enpirikoa erakutsi behar du, zeren kausa bakoitzak erregela bat auresuposatzen baitu, zeinari agerpen jakinak ondorio gisa jarraiki zaizkion, eta erregela bakoitzak ondorioen erregulartasuna eskatzen baitu, zeinak kausaren adigaia (ahalmen baten adigai gisa) oinarritzen duen, bere izaera enpirikoa izenda dezakegun adigaia, hau agerpen soiletatik abiatuta argitzen den heinean, eta iraunkorra dena, ondorioak, aldiz, tankera aldakorretan agertzen diren bitartean baldintza laguntzaileen eta (alde) zedarriztaileen arabera.

Bada, gizaki bakoitzak bere hautamenaren izaera enpirikoa du, bere arrazoimenaren kausalitate jakin bat besterik ez den izaera, honek agerpenean dituen efektuetan erregela bat erakusten duen heinean, zeinaren arabera bere arrazoimen-oinarriak eta ekintzak bere era eta mailaren arabera erator daitezkeen eta bere hautamenaren printzipio subjektiboa juzga daitezkeen. Izaera enpiriko hau bera agerpenetatik atera behar denez, hauek ondorioak diren aldetik, eta gainera, esperientzia eskura ematen duen beren erregelatik abiatuta egiten duenez, orduan gizakiaren ekintza guztiak agerpenean bere izaera enpirikoaz eta batera eragiten duten beste kausez determinatuak daude izadiaren ordenaren arabera, eta bere hautamenaren agerpen denak oinarriraino ikertu ahal izango bagenu, orduan ez legoke guk ziurtasunez auresan eta bere aurretik doazen baldintzetatik abiatuta beharrezkotzat ezagutu ezingo genukeen ekintza bakarren bat ere. Izaera enpiriko honi dagokionez, beraz, ez dago askatasunik, eta bere arabera soilik kontsidera dezakegu gizakia, hau *behatu* eta, Antropologian gertatzen den moduan, bere ekintzen kausa eragileak fisiologikoki ikertu besterik nahi ez dugunean.

Guk, ordea, ekintza berberak arrazoimenarekin harremanean kontsideratzen baditugu, eta ez arrazoimen espekulatiboarekin, ekintza horiek beren jatorriaren arabera *argitzearren*, baizik arrazoimenarekin, haiek *sortzen* dituen kausa den heinean besterik ez; hitz batean, ekintzak arrazoimenarekin alderatzen baditugu bere zentzu praktikoan, orduan izadiaren ordena ez den erabat bestelako erregela eta ordena aurkitzen ditugu. Izan ere, izadiaren ibilbidearen arabera *gertatu den* eta bere oinarri enpirikoen arabera ezinbestean gertatu behar zuen guztiak agian *ez zuen gertatu behar*. Hala ere, arrazoimenaren

ideiek benetan kausalitatea erakutsi dutela aurkitzen dugu gizakien ekintzei dagokienez, hauek agerpenak diren aldetik, edo gutxienez aurkitu izan dutela sinesten dugu, eta gainera ekintzok ez kausa enpirikoengatik, baizik arrazoimenaren oinarriengatik determinatuak zirelako gertatu direla.

Arrazoimenak agerpenei dagokienez kausalitatea duela esan daitekeela onartuz gero, bere ekintzak hartu ahal dezake «aske» izena, (sentsuen eraren) bere izaera enpirikoa erabat zehazki determinatua eta beharrezkoa bada? Hau era berean (pentsamoldearen) izaera inteligiblean determinatua dago. Azkena, ordea, ez dugu ezagutzen, baizik benetan sentsuen erak (izaera enpirikoak) zuzenki aditzera ematen dituen agerpenen bitartez ezaugarritu besterik ez dugu egiten¹³⁰. Ekintza, beraz, pentsamoldeari egotzi ahal zaion heinean, bere kausa gisa, ez da bertatik *ondorioztatzen* lege enpirikoen arabera, h. d., arrazoimen hutsaren baldintzak *aurretik doazela*, baizik bere ondorioak barneko sentsuaren agerpenean *aurretik doazela* besterik ez. Arrazoimen hutsa, ahalmen inteligiblea soila den aldetik, ez zaio menperatzen denboraren formari, eta beraz, ezta denbora-segidaren baldintzei ere. Arrazoimenaren kausalitatea izaera inteligiblean *ez da sortzen*, edo ez da hasten denbora batean, honela efektu bat sortzearen. Izan ere, bestela, agerpenen kausazko legearen menpean legoke, lege honek kausazko ilarak denboraren arabera determinatzen dituen heinean, eta kausalitatea, hainbestez, izadia litzateke, eta ez askatasuna. Beraz, zera esan ahal izango dugu: arrazoimenak agerpenei dagokienez kausalitatea izan badezake, orduan bera efektuen ilara enpirikoaren sentsuzko baldintza lehenik hasten duen ahalmena dela. Izan ere, arrazoimenean datzan baldintza ez da sentsuzkoa eta bera ez da hasten. Ondorioz, hemen aurkitzen dugu ilara enpiriko guztietan miraz jartzen gintuena: jazoeren hurrenez hurrengo ilara baten *baldintza* bera enpirikoki baldintzatugabea izan daitekeela. Izan ere, hemen baldintza agerpenen ilaratik *at* dago (inteligiblearen eremuan), eta beraz, ez dago ezein sentsuzko baldintzaren eta ezein denbora-determinazioaren menpean aurretik doan kausa baten indarrez.

Hala eta guztiz ere, kausa bera beste ikuspegi batetik agerpenen ilaran kokatzen da. Gizakia bera agerpena da. Ekintza ororen kausa (enpirikoa) den bere hautamenak izaera enpirikoa du. Gizakia izaera honen arabera determinatzen duen ezein baldintzarik ez dago izadiaren efektuen ilaran barnebildua ez legokeenik eta bere legea jarraituko ez lukeenik, eta lege honen arabera denboran gertatzen denaren enpirikoki baldintzatugabeko kausalitatearik ez da aurkitzen. Horregatik, ezein ekintza jakinak ezin du berenez absolutuki hasi (agerpen gisa besterik ezin baitaiteke hauteman). Arrazoimenaz, ordea, ezin da esan berak hautamena determinatzen duen egoeraren aurretik beste egoera bat doala, bertan egoera hori bera determinatzen delarik. Izan ere, arrazoimena ezein agerpen ez denez eta ezein sentimenaren baldintzari menperatzen ez zaionez gero, orduan bertan ez da denbora-segidarik gertatzen, ezta bere kausalitateari dagokionez ere, eta beraz, berari ezin zaio aplikatu denbora-segida erregelen arabera determinatzen duen izadiaren lege dinamikoa.

Arrazoimena, beraz, hautazko ekintza ororen baldintza iraunkorra da, eta gizakia hauetan agertzen da. Hauetako bakoitza aurretik determinatua dago gizakiaren izaera enpirikoan, baita gertatu aurretik ere. Izaera inteligibleari dagokionez, izaera enpirikoa honen sentsuzko eskema besterik ez izaki, bertan ez dago *aurretik* edo *atzetik* bat, eta ekintza bakoitza, beste agerpenekin duen denbora-hartuemana kontuan hartu gabe, arrazoimen hutsaren izaera inteligiblearen efektu zuzena da, zeinak, hainbestez, askatasunez ekiten duen, izadiaren kausen katean kanpoko edo barneko oinarriak diren baina denboran aurretiaz doazenen bitartez dinamikoki determinatua izan gabe, eta bere askatasun hau ezin da negatiboki soilik begiztatu baldintza enpirikoetatiko beregaintasun gisa (izan ere, horren bitartez arrazoimena ez litzateke izango agerpenen kausarik), baizik positiboki ere ezaugarritu behar da jazoeren ilara bat berez hasteko ahalmen gisa, halako moldez, non bertan ezer ez baita hasten, baizik eta berak, hautazko ekintza ororen baldintzatugabeko baldintza den aldetik, denboran aurretik doan bere gaineko baldintzarik ez du baimentzen, bere efektua agerpenen ilaran hasten den arren, nahiz bertan inoiz lehen-lehenengo hasiera bat izan gabe.

Arrazoimenaren printzipio erregulatzaila bere erabilera enpirikoaren adibide baten bitartez azaltzearen, ez bera baieztatzearen (izan ere, halako frogak ez dute balio baieztapen transzendentalentzat), har dezagun hautazko ekintza bat, adibidez, gezur gaizto bat, zeinaren bitartez gizaki batek gizartean nahasketa jakin bat sortu duen, eta hau lehenik bera sortu duen eragilearen arabera aztertzen da, eta ondoren hori bere ondorio denekin batera ea berari nola egotzi ahal zaion juzgatzen da. Lehen asmoari dagokionez, bere izaera enpirikoari haren iturrietaraino jarraitzen gatzazkio, zeina hezkuntza kaskarrean, lagun gaiztoetan, alde, baita lotsa sentigaitza zaion izaera baten gaiztotasunean ere bilatzen den, alde, azakeria eta zuhurtasun ezari egotzen zaion, hor uneko kausa eragileak ere aintzat hartuz. Honetan guztian izadiaren efektu jakin baterako kausa determinatzaileen ilararen azterketan egiten den moduan jokatzen da oro har. Ekintza arrazoi hauengatik determinatua dagoela sinetsi arren, ez zaio indar gutxiagoz gaitzesten egileari, ez bere zoritxarreko izaeragatik, ezta beregain eragiten duten

egoerengatik ere, ezta aurretik egin duen bizimoduagatik ere, izan ere, hori nolakoa izan den osorik alde batera utz daitekeela aurreuposatzen da, eta baldintzen igarotako ilara gertatugabekoa balitz bezala begizta daiteke, baina ekintza hori aurreko egoerari dagokionez osorik baldintzatugabea balitz bezala begizatzen da, egileak horrekin ondorioen ilara bat berez hasi balu bezala. Gaitzespen hau arrazoimenaren lege batean oinarritzen da, bertan arrazoimena gizakien jokaera bestela determina ahal eta behar zuen kausatzat hartzen dela, lehen aipatutako baldintza enpiriko oro kontuan hartu gabe. Eta arrazoimenaren kausalitatea ez da ikusten laguntza soil gisa, baizik bere baitan osoa balitz bezala, sentsuzko eragileek inolaz ere bere alde egiten ez duten arren, eta aurka ere egiten duten arren; ekintza bere izaera inteligibleari egozten zaio eta gezurra dioen unean erabat erruduna da; eta beraz, arrazoimena erabat askea zen, ekintzaren baldintza enpiriko guztiak alde batera utzita, eta berak egindakoa berari egotzi behar zaio osorik.

Judizio egozle honen bidez erraz ikusten da bertan zera pentsatzen dela: arrazoimena ez dela sentimen harengatik afektatua, ez dela aldatzen (nahiz bere agerpenak aldatu, hots, bere efektuetan erakusten den modua), bertan ez dagoela alde aurretik hurrengo egoera determinatzen duen ezein egoerarik, eta beraz, ez dagokiola inolaz ere agerpenak izadiaren legeen arabera beharrezkoak bihurtzen dituen sentsuen baldintzen ilarari. Arrazoimena gizakien ekintza guztietan eta denbora orotan present dago eta berbera da; bera, ordea, ez dago denboran eta aurretik ez zegoen egoera berri batean gertatzen da; bera *determinatzailea* da, baina ez *determinagarria* ekintzei dagokienez. Horregatik, ezin da galdetu ea arrazoimena zergatik ez den bestela determinatu, baizik ea *agerpenak* bere kausalitatearen bitartez bestela zergatik ez dituen determinatu besterik ez. Ezinezkoa da, ordea, honentzako erantzunik ematea. Izan ere, beste izaera inteligible batek beste izaera enpirikoa emango luke, eta esaten baldin badugu, ordu arte egindako bere bizimodua dela ere, egileak gezurra esatea saihestu zezakeela, honek ondokoa besterik ez du esan nahi: zuzenki arrazoimenaren menpean dagoela eta arrazoimena bere kausalitatean ez zaiola ezein agerpenen baldintzari edo denboraren ibilbideri menperatzen. Denboraren bereizketa agerpenen elkarren arteko bereizketa nagusia da, baina hauek gauzak (Sache) ez direnez, eta beraz, ezta kausak (Ursache) ere beren baitan, orduan ezin dute ekintzaren bereizketarik egin arrazoimenari dagokionez.

Beraz, ekintza askeen juzgaketan beren kausalitateari dagokionez kausa inteligiblea arte iritsi gaitzek, baina ezin dugu *beraz goiti* joan; ezagut dezakegu askea dela, h. d., sentimenetik beregainki determinatua eta honela sentsuen arabera baldintzatugabekoa den agerpenen baldintza izan daitekeela. Galdera honek, alegia, zergatik ematen ote dituen izaera inteligibleak zuzenki agerpen horiek eta izaera enpiriko hori egungo egoeretan, gure arrazoimenak bera erantzuteko duen ahalmen oro gainditzen du askogatik, baita galdetzeko soilik duen eskuduntza oro ere, honela galdetuko balu bezala: zergatik ematen dizkion objektu transzendentalak gure kanpoko eta sentsuzko begiespenari *espazioan* gertatzen diren begiespenak soilik, eta ez beste era batekoak. Hala ere, konpondu nahi genuen arazoak ez gaitu behartzen erantzutera, izan ere, hau besterik ez zen: ea askatasunak ekintza bat eta berean izadiaren beharrezkotasuna eztatadatzaren duen, eta honi askiro erantzun diogu bertan erabat bestelako baldintza-moduarekin harremana ahalgarria dela, izadiaren legeak askatasuna ez baitu afektatzen, eta beraz, biak elkarrengandik beregainak direla eta elkarri oztopatu gabe gerta daitezkeela erakutsi dugunean

* * *

Oharrarazi behar da honen bitartez ez dugula askatasunaren *errealitatea* frogatu nahi izan gure sentimenaren agerpenen kausa barnebiltzen duten ahalmenetako baten gisa. Izan ere, hau adigaiekin soilik zerikusia duen kontsiderazio transzendentalik ez izateaz gain, dena dela, ez genukeen inoiz lortu izango, esperientziatik inoiz ezin baita inferitu esperientziaren legeen arabera pentsatu behar ez dena. Horrez gain, ez dugu askatasunaren *ahalgarritasuna* frogatu nahi izan; izan ere, hau ez genukeen lortuko, zeren guk oro har ezein oinarri errealean eta kausalitatearen ahalgarritasuna ezin baitugu ezagutu apriorizko adigai soilen bitartez. Askatasuna hemen ideia transzendental gisa soilik hartzen da, zeinaren bitartez arrazoimenak baldintzen ilara agerpenean sentsuzko baldintzatugabekiaren bitartez absolutuki hastea pentsatzen duen, bertan, ordea, adimenaren erabilera enpirikoari ezartzen dizkion bere lege propioekin antinomia batean nahasten delarik. Antinomia hori itxura soil batean funtsatzen dela eta izadia askatasunetik sortutako kausalitateari *ez zaiola kontrajartzen* behinik behin, hau da guk lor genezakeen gauza bakarra, eta hau zen baita ere lortu nahi genuen gauza bakar eta soila.

IV

Agerpenek oro har beren izatearen arabera duten menpekotasunaren totalitatearen ideia kosmologikoaren konponketa

Aurreko zenbakian sentsuen munduko aldaketak kontsideratu ditugu beren ilara dinamikoan, non halako bakoitza beste baten menpean dagoen hau bere kausa den aldetik. Orain, egoeren ilara horrek aldakorra den guztiaren baldintza gorena izan daitekeen izate batera iristeko, hots, *beharrezko zerizanera* iristeko gida soil gisa balio digu. Hemen ez gara ari baldintzatugabeko kausalitateaz, baizik substantziaren baldintzatugabeko existentzia beraz. Eta beraz, gure aurrean dugun ilara adigaien ilara besterik ez da, ez begiespenena, bata bestearen baldintza den heinean.

Erraz ikusten da, ordea, agerpenen multzoan dena aldakorra denez, eta beraz, izatean baldintzatua denez gero, orduan menpeko izateen ilaran inon ezin dela behar-beharrezko existentzia duen baldintzatugabeko osakiderik aurkitu, eta beraz, agerpenak berbaitango gauzak balira eta horregatik beren baldintza baldintzatukiarekin batera beti begiespenen ilara bat eta berberan egongo balitz, orduan inoiz ez legoke beharrezko zerizan bat sentsuen munduko agerpenen izatearen baldintza gisa.

Itzulera dinamikoak, ordea, gauza berezi hau du bere baitan, itzulera matematikotik bereizten duen gauza: azken honen autugaia benetan, edo gauzen elkarketa denez osoki bat osatzeko, edo osoki baten zatikapena denez bere zatietan, orduan ilara honen baldintzak beti bere zati gisa, eta beraz, uniforme gisa, eta ondorioz, agerpen gisa hartu behar direla; aitzitik, itzulera dinamikoan, honek ez duenez zerikusirik zati jakinetatik sortutako baldintzatugabeko osoki baten ahalgarritasunarekin, edo osoki jakin bat osatzeko baldintzatugabeko zati batenarekin, baizik egoera bat bere kausatik eratortzearekin edo substantzia beraren beharbadako izatea beharrezko izatetik abiatuta eratortzearekin zerikusia duenez gero, orduan baldintzak ezin du halabeharrez ilara enpiriko bat osatu baldintzatukiarekin batera.

Gure aurrean dugun itxurazko antinomian ihesbide bat geratzen zaigu oraindik, hots, elkarren aurka dauden bi esakuneak harreman ezberdinean aldi berean egiazkoak izatea, halako moldez, non sentsuen munduko gauza guztiak erabat beharbadakoak, eta beraz, beti enpirikoki soilik baldintzatutako existentziak baitira, nahiz ilara osoa dela eta, baldintza ez enpirikoak, h. d., baldintzatugabeki beharrezko zerizanak izan. Izan ere, hau baldintza inteligiblea den aldetik, ez legokio ilarari bere osakide gisa (ezta bere osakide goren gisa ere), eta ez luke ilararen ezein osakide osakide enpirikoki baldintzatugabea bihurtuko, baizik sentsuen mundu osoa bere osakide guztiek duten enpirikoki baldintzatutako izatean utziko luke. Beraz, baldintzatugabeko izatea agerpenei oinarrian ezartzeko era hori honetan ezberdintzen da enpirikoki baldintzatugabea den aurreko artikuluko (askatasunaren) kausalitatetik: askatasunean gauza bera kausa gisa (substantia phaenomenon) baldintzen ilaran kokatzen dela, eta bere *kausalitatea* besterik ez dela pentsatzen inteligiblea izango balitz bezala; hemen, ordea, beharrezko zerizana sentsuen munduaren ilaratik erabat at izanik (ens extramundanum gisa) eta inteligiblea izango balitz bezala soilik pentsatu behar dela, agerpen ororen beharbadakotasun eta menpekotasun legeei menperatua izatea saihesteko era bakarra den heinean.

Arrazoimenaren *printzipio erregulatzaila*, beraz, honako hau da gure eginkizunari dagokionez: sentsuen munduan denak enpirikoki determinatutako existentzia duela, eta bertan inon ez dagoela baldintzatugabeko beharrezkotasunik ezein berekitasuni dagokionez; ez dagoela baldintzen ilararen osakiderik, zeinaz beti itxaron behar den baldintza enpirikoa esperientzia ahalgarri batean duela eta, ahal den heinean, hau bilatu behar dela; eta ezerk ez digula legeztatzen baldintzaren baten izatea ilara enpirikotik at eratortzea, ezta ilaran bertan erabat beregaintzat eta berezkotzat hartzea ere, hala ere, horregatik, ilara osoa zerizan inteligibleren batean oinarri daitekeela ukatu gabe (horregatik baldintza enpiriko orotatik aske dagoena eta, are gehiago, agerpen horien guztien ahalgarritasunaren oinarria barnebiltzen duena).

Gure iritzia ez da hemen inolaz ere zerizan baten baldintzatugabeki beharrezkoa den izatea frogatzea, edo sentsuen munduaren agerpenen existentziaren baldintza inteligiblea honetan oinarritzea, baizik arrazoimena zedarritzatzen dugun moduan besterik ez, baldintza enpirikoen haria utz ez dezan, eta bere argiketa oinarri *transzendenteetan* eta in concreto ezein aurkezpenen gai ez direnetan ez gertatzearen, beraz, oro har adimenaren erabilera enpirikoa zedarritzatzearen ere bai, gauzen ahalgarritasunaz erabaki ez dezan eta inteligiblea dena horregatik *ezinezkotzat* adierazi ez dezan, agerpenen argiketarako erabili ez arren. Horren bitartez, beraz, izadiko gauzen beharbadakotasun osoa eta beren baldintza (enpiriko) ororena beharrezko baldintza nahiz baldintza inteligiblea soilik denaren hautazko auresuposizioarekin batera ondo gerta daitekeela besterik ez da erakusten, eta beraz, ezein egiazko kontraesanik ez dagoela baieztatzen hauen artean, eta ondorioz, *biak beren aldetik* egiazkoak izan daitezkeela. Behar-beharrezko adimen-zerizan halakoa beti bere baitan ezinezkoa izan badaiteke ere, ezin da inolaz ere sentsuen munduan kokatzen den guztiaren beharbadakotasun eta menpekotasun orokorretik inferitu, halaber, ezta

bere osakideren batean ez geratzeko ere, hau beharbadakoa den heinean, eta mundutik kanpoko kausa batera ez jotzeko dioen printzipiotik ere ez. Arrazoimenak bere ibilera egiten du erabilera enpirikoan eta bere ibilera berezia erabilera transzendentalean.

Sentsuen munduak agerpenak baino ez ditu barnebiltzen, hauek, ordea, era berean sentsuen arabera baldintzatuak diren errepresentazio soilak dira, eta guk hemen berbaitango gauzak inoiz ez ditugunez gero gure objektu gisa, orduan ez da harritzekoa inoiz legeztatuak ez izatea ilara enpirikoaren osakide batetik, hau edozein izaki, sentimenaren arlotik kanpora jauzia egitera, bere oinarri transzendentetik at existitzen diren berbaitango gauzak baleude bezala, alde batera utz litezkeenak beren izatearen kausa beraietatik at bilatzeko; hau gertatu beharko zen, dena dela, azkenean beharbadakoa *gauzetan*, baina ez gauzen *errerepresentazio* soiletan, zeinen beharbadakotasuna bera fenomeno besterik ez den; errepresentazio hauek ezin dute fenomenoak determinatzen dituen itzulerara baino gidatu, h. d., enpirikoa den itzulerara. Agerpenen, h. d., sentsuen munduaren oinarri inteligible bat, eta gainera, azkenaren beharbadakotasunetik askea dena pentsatzea ez zaio kontrajartzen ez agerpenen ilararen itzulera enpiriko zedarrigabeari, ezta bere beharbadakotasun osoari ere. Hau da, ordea, itxurazko antinomiaren gaindipenerako lortu behar genuen bakarra, honela baino egin ezin zitekeena. Izan ere, edozein baldintzatu baten baldintza beti sentsuzkoa baldin bada (izatearen arabera), eta horregatik ilarari badagokio, orduan baldintza hori era berean baldintzatu da (laugarren antinomiaren antitesiak azaltzen duenez). Orduan, edo baldintzatugabekia eskatzen duen arrazoimenarekin aurkakotasunak iraun behar zuen, edo baldintzatugabekia ilaratik at inteligiblea denean ezarri behar zen, hots, bere beharrezkotasunak ezein baldintza enpirikorik eskatzen eta onartzen ez duen, eta beraz, agerpenei dagokienez beharrezko baldintzatugabekia denean ezarri behar zen.

Arrazoimenaren erabilera enpirikoa (izatearen baldintzei dagokienez sentsuen munduan) ez da afektatua gertatzen zerizan inteligible soil baten onarpenagatik, baizik beharbadakotasun osoaren printzipioaren arabera beti ere era berean enpirikoak diren baldintza enpirikoetatik abiatuta garaiagoetarantz doa. Era berean, oinarri-esakune erregulatzailerik ez du baztertzen ilaran ez dagoen kausa inteligible baten onarpena, autugaia arrazoimenaren erabilera hutsa denean (helburuei dagokienez). Izan ere, horrek ez du adierazten oro har guretzat transzendentala eta ezezaguna soilik den sentsuzko ilararen ahalgarritasunaren oinarria baino, zeinaren izatea –azkenaren baldintza orotatik beregaina eta honi begira baldintzatugabeki beharrezkoa dena– ez zaion inolaz ere kontrajartzen lehenaren beharbadakotasun mugagabeari, eta horregatik, ezta inoiz gelditzen ez den baldintza enpirikoen ilararen itzulerari ere.

Azken oharra arrazoimen hutsaren antinomia osoari

Gure arrazoimenaren adigaien gaia sentsuen munduko baldintzen osotasuna eta, beraiei dagokienez, arrazoimenaren zerbitzuan gerta daitekeena besterik ez den bitartean gure ideiak transzendentalek baina *kosmologikoak* dira. Hala ere, baldintzatugabekia (benetan hemen autugaia dena) erabat sentsuen mundutik at dagoen zerbaitetan ezarri ahala, eta beraz, esperientzia ahalgarri orotatik at ezarri ahala, bada, ideiak *transzendenteak* bihurtzen dira; ez dute balio arrazoimenaren erabilera enpirikoaren osaketarako soilik (inoiz lortu ezin den baina jarraitu behar zaion ideia dirauenak), baizik hortatik osoki bereizten dira, eta berak objektuak egiten ditu, zeinen ekaia ez den esperientziatik hartzen, ezta beren erreallitate objektiboa ilara enpirikoaren osaketatik ere, baizik apriorizko adigai hutsetan funtsatzen dira. Halako ideia transzendenteek objektu inteligible soila dute, objektu transzental gisa onartzea zilegi dena, gainerakoan beraz ezer ez jakin arren; baina ez ahalgarritasunaren oinarriak (esperientzia-adigai orotatik beregain gisa), ezta halako objekturik onartzeko legeztapen txikienik ere ez dugu gure alde hura bere predikatu bereizgarri eta barnekoen bitartez determinatutako gauza gisa pentsatzearen, eta hura, beraz, pentsamen-gauza soila da. Hala ere, ideia kosmologiko guztien artean laugarren antinomia sortu zuenak bultzatzen gaitu urrats hau egiten ausartzera. Izan ere, bere baitan inolaz ere oinarritutakoa ez den, baizik beti baldintzatu den agerpenen izateak bultzatzen gaitu agerpen orotatik ezberdina den zerbait, eta beraz, objektu inteligiblea den zerbait bilatzera, zeinengan beharbadakotasun hori bukatzen den. Hala eta guztiz ere, behin sentimen osoaren alorretik at berez den erreallitate bat onartzeko bidea hartuz gero, orduan agerpenak intelligentziak soilik diren halako zerizanen objektu inteligibleen beharbadakoa errepresentazio-era gisa ikusten dira; eta orduan, analogia bat baino ez zaigu geratzen, honen arabera esperientzia-adigaiak erabiltzen ditugula horrela beren baitan ezagutzen ez ditugun gauza inteligibleez adigairen bat egitearren. Beharbadakoa dena esperientziaren bitartez soilik ezagutzen dugunez, hemen solasgaia, ordea, esperientziaren ezein objektu ez diren gauzak direnez gero, orduan beren ezagupena bere baitan beharrezkoa denetik eratorri beharko dugu, hots, oro harrezko gauzen adigai hutsetatik. Horregatik, sentsuen mundutik at egiten dugun lehen urratsak behartzen gaitu behar-beharrezko zerizanaren azterketaren gure ezagupen

berria hastera eta bere adigaitik abiatuta gauza guztien adigaiak eratortzera, hauek inteligibleak besterik ez diren heinean, eta ondorengo atalburuetan egin nahi dugu saialdi hau.

Dialektika transzendentalaren

Bigarren liburuko

Hirugarren atalburua

Arrazoimen hutsaren ideala

Lehen atala

Idealaz oro har

Gorago ikusi dugu *adimenaren adigai* hutsen bitartez ezin dela ezein objektu ere errepresentatu sentimenaren baldintzarik gabe, bere errealitate objektiboaren baldintzak falta direlako eta bertan pentsatzearen forma soila baino ez delako aurkitzen. Hala eta guztiz ere, in concreto errepresenta ditzakegu, agerpenetan aplikatzen baditugu; izan ere, bertan dute benetan esperientzia-adigaietarako ekaia, in concreto den adimenaren adigai bat besterik ez dena. *Ideiak*, ordea, *kategoriak* baino askoz urrunago daude errealitate objektibotik; izan ere, ezin da haiek in concreto errerepresentaraziko lituzkeen ezein agerpen aurkitu. Osotasun jakin bat barnebiltzen dute eta bertara ez da ezein ezagutza enpiriko ahalgarriarik iristen, eta arrazoimenak hor batasun sistematiko bat soilik du buruan, eta enpirikoki ahalgarria den batasun hau berari hurbiltzen saiatzen da, inoiz osorik lortu gabe.

Errealitate objektibotik ideia baino oraindik urrunago dagoela dirudi, ordea, nik *ideala* deitzen diodana, horretaz ideia in concreto ez ezik, in individuo, h. d., ideiaen bitartez soilik determinagarria edo determinatua den gauza bakana ere ulertzen bada.

Gizatasunak bere betegintzarre osoan bere izaerari dagokion eta bere adigaia osatzen duen funtsezko berekitasun ororen hedapena barnebildu ez ezik –bere helburuekiko kongruentzia osoraino iritsiz, gizatasun beteginaren gure ideia izango litzatekeena-, adigai horretatik at ideiaen determinazio osoari dagokion guztia ere barnebiltzen du; izan ere, kontrajarritako predikatu orotatik bakarra soilik egokitzen zaio gizaki beteginenaren ideiare. Guretzat ideal bat dena *Platonentzat jainkotiar adimenaren ideia* zen, objektu bakana bere begiespen hutsean, zerizan ahalgarrien espezie bakoitzean beteginena eta erreproduzio ororen jatorrizko oinarria agerpenean.

Gorantz hain urrun joan gabe, ordea, giza arrazoimenak ideiak ez ezik, idealak ere barnebiltzen dituela aitortu behar dugu, *platonikoen* moduan indar sortzailea ez, baina indar *praktikoa* duten (printzipio erregulatzaile gisa) eta *ekintza* jakinen betegintzarrearen ahalgarritasunaren oinarrian dautzan idealak. Adigai moralak ez dira osorik arrazoimenaren adigai hutsak, zeren oinarrian enpirikoa den zerbait baitute (atsegina eta ezatsegina). Hala eta guztiz ere, arrazoimenak bere baitan legegabea den askatasunari zedarrak ezartzeko erabiltzen duen printzipioari dagokionez (beraz, bere forma besterik ez denean aintzat hartzen) ederki balio dezakete arrazoimenaren adigaien adibide gisa. Bertutea, eta berekin batera giza jakinduria, bere araztasun osoan ideiak dira. Baina jakintsua (estoikoaren) ideal bat da, h. d., pentsamenduan soilik existitu arren jakinduriaren ideiarekin osorik bat datorren gizakia. Ideiak *erregela* ematen du eta idealak bere aldetik halako kasuetan erreproduzioaren determinazio osoaren *jatorrizko irudi* gisa balio du, eta ez dugu gure ekintzen neurririk, gudan dagoen jainkotiar gizaki horren jokaera izan ezik, eta berekin alderatzen gara, berari jarraiki juzgatzen dugu, eta horren bitartez hobetzen gara, inoiz bertara iritsi ezin garen arren. Ideal hauek, berehala errealitate objektiboa (existentzia) onartu nahi ez zaien arren, ez dira horregatik ameskeriatzat jotzen, baizik arrazoimenaren ezinbesteko neurria ematen dute, bere moduan erabat osoa den adigaiaren neurria, horren arabera osatugabekiaren maila eta gabezia estimatu eta neurtzearen. Ideala, ordea, adibide batean, h. d., agerpenean egikaritu nahi izatea egingaitza da, jakintsua eleberri batean errealizatzea ere egingaitza den bezala, eta gainera, zerbait absurdua eta onbide

gutxi duena da bere baitan, ideiarene osotasuna jarraituki moztan duten berezko zedarriek halako saialdien ilusio oro ezinezkoa eta horren bitartez ideian datzan ongia bera susmagarria eta asmakuntza baten antzeko zerbait bihurtzen duten heinean.

Horrela gertatzen da beti adigai determinatuetan funtsatzen den eta erregelatzat eta jatorrizko iruditzen balio behar duen arrazoimenaren idealarekin, honela bera jarraitzearen edo juzgaketak egitearen. Erabat bestela gertatzen da irudimenaren sorkariekin, hauetaz inork ezin baitu bere burua argitu eta inork ezin baitu eman hauen adigai ulergarri bat, nolabait esateko, banakako trazuak diren *monogramekin*, zeinak, eman daitekeen ezein erregelaren arabera determinatzen ez diren arren, esperientzia ezberdinen erdian igeri dauden zeinuak diren, nolabait esateko, ez irudi determinatuak, margolariek eta fisionomistek buruan omen dituztenen antzeko irudiak, beren produktuen edo juzgaketan zirriborro komunikaezinak omen direnak. Sentimenaren idealak dei dakizkieke, desegokiro bada ere, zeren begiespen enpiriko ahalgarrien eredu lortezinak izan beharko bailukete eta, hala eta guztiz ere, argiketa eta etsaminerako gai diren erregelarik ez baitute eskuratzen.

Arrazoimenaren asmoa bere idealetan, aitzitik, apriorizko erregelen araberrako determinazio osoa da; horregatik, arrazoimenak printzipioen arabera osoki determinagarria izan behar duen objektu bat pentsatzen du, nahiz eta horretarako baldintza askigarriak falta zaizkion esperientzian eta adigaia bera, beraz, transzendentea den.

Hirugarren atalburuko

Bigarren atala

Ideal transzendentalaz (Prototypen transscendentale)

Adigai bakoitza bertan barnebildua ez dagoenari begira indeterminatua da, eta *determinagarritasunaren* oinarri-esakunearen menpean dago: «kontraesankorki elkarren aurka dauden *edozein bi* predikatutatik bakarra egoki dakioke», kontraesanaren oinarri-esakunean funtsatzen den eta horregatik printzipio logiko soila den oinarri-esakunea, zeinak ezagutzaren eduki oroz abstraitzen duen eta bere forma logikoa baino ez duen begi-bistan.

Edozein *gauza*, ordea, bere ahalgarritasunaren araberrako determinazio *osoaren* oinarri-esakunearen menpean dago, zeinaren araberrako *gauzen* predikatu *ahalgarri orotatik* berari bat egokitu behar zaion, bere aurkakoeekin alderatzen den heinean. Hau ez da kontraesanaren oinarri-esakunean soilik funtsatzen; izan ere, elkarren aurka dauden bi predikatuen hartuemanaz gain gauza bakoitza *ahalgarritasun osoarekin* hartuemanean ere kontsideratzen da oro harrezko gauzen predikatu ororen multzo gisa, eta oinarri-esakuneak apriorizko baldintza apriorizkoa den heinean auresuposatzen duenez gero, orduan halako gauza bakoitza errepresentatzen du, ahalgarritasun oso hartan duen partehartzetik bere ahalgarritasuna eratorriko balu bezala¹³¹. Determinazio osoaren printzipioak, beraz, edukiarekin du zerikusia, ez forma logikoarekin soilik. Gauza baten adigai osoa eratu behar duten predikatu ororen sintesiaren oinarri-esakunea da, eta ez soilik errepresentazio analitikoaren oinarri-esakunea kontrajarritako bi predikaturen bitartez, eta auresuposizio transzendental barnebiltzen du, hots, *ahalgarritasun orotarako* materiarena, zeinak a priori gauza bakoitzaren ahalgarritasun *bereziarentzako* datuak barnebiltzen dituen.

Existitzen den guztia osoki determinatua dagoela dioten esakuneak elkarri kontrajarrita *emandako* predikatu pare batetik ez ezik, harentzat *ahalgarria* den predikatu orotatik ere bat dagokiola esan nahi du; esakune honen bitartez predikatuak elkarrekin logikoki alderatu ez ezik, gauza bera ere alderatzen da transzendentaliki predikatu ahalgarri ororen multzoarekin. Esakuneak hau adina esan nahi du: gauza bat osorik ezagutzeko gauza ahalgarri oro ezagutu behar dela eta horren bitartez determinatu behar dela baieztatuz edo ezeztatuz. Determinazio osoa, ondorioz, bere osotasunaren araberrako inoiz in concreto aurkeztu ezin dugun adigaia da, eta egoitza arrazoimenean duen ideian soilik oinarritzen da, zeinak adimenari bere erabilera osoaren erregela ezartzen dion.

Ahalgarritasun ororen multzoaren ideia hau, halako gauza bakoitzaren determinazio osoaren oinarrian datzan heinean, bera osatzen duten predikatuak dagokienez oraindik indeterminatua den arren eta horren bitartez oro har predikatu ahalgarri ororen multzoa baino pentsatzen ez den arren, dena dela, azterketa zehatzagoan zera aurkitzen dugu: ideia horrek, jatorrizko adigai gisa, predikatuen kopuru handi bat baztertzen duela, besteetatik eratorriak bezala jadanik emanak direnak edo elkarren

ondoan izan ezin daitezkeenak, eta ideia hori osorik a priori determinatutako adigairaino arazten dela, eta horren bitartez objektu bakar baten adigaia bihurtzen dela, ideia soilaren bitartez osoki determinatua den, eta beraz, arrazoimen hutsaren *ideala* deitu behar zaion adigaia.

Predikatu ahalgarri denak logikoki ez ezik, transzendentalki ere kontsideratzen baditugu, h. d., beraietan a priori pentsa daitekeen edukiaren arabera kontsideratzen baditugu, orduan beraietatik batzuen bitartez izate bat, besteen bitartez ez-izate soilaren errepresentatzen dela aurkitzen dugu. «Ez» hitz motzak soilik iragartzen duen ezeztapen logikoa ez zaio benetan inoiz adigai bati atxikitzen, baizik judizio batean beste batekin duen hartuemanari besterik ez, eta beraz, ez da inolaz ere aski adigai bat bere edukiaren arabera ezaugarritzeko. «Hilezkorra» adierazpenak ezin du ezagutarazi bere bitartez ez-izate soilaren errepresentatzen dela objektuan, baizik eduki oro ukitugabe uzten du. Ezeztapen transzendental batek, aitzitik, ez-izatea esan nahi du bere baitan, zeinari baieztapen transzendentalaren kontrajartzen zaion, eta hau adigaiak bere baitan jadanik izate bat adierazten duen zerbait da, eta horregatik errealitate (gauzatasun) deitzen zaio, zeren objektuak bere bitartez soilik eta bera iristen deneraino baitira Zerbait (gauzak), aurrean duen negazioak, aitzitik, gabezia soilaren esan nahi duen bitartean, eta hau soilik pentsatzen denean, gauza ororen ezeztapena errepresentatzen da.

Inork ezin du, ordea, ezeztapen bat determinatutzat pentsatu kontrajarritako baieztapena oinarrian ezarri gabe. Jaiotzez itsua denak ezin du iluntasunaren errepresentaziorik izan, zeren argiarena ere ez baitu; basatiak ezin du txirotasunarena izan, ez baitu ongizatea ezagutzen¹³². Ezjakinak ez du bere ezjakintasunaren adigairik, jakintzarena ez baitauka, eta abar. Beraz, ukapenen adigai guztiak eratorriak dira eta errealitateek gauza guztien ahalgarritasunaren eta determinazio osoaren datuak eta, nolabait esateko, materia edo eduki transzendentalaren barnebiltzen dituzte.

Beraz, determinazio osoari gure arrazoimenean substratu transzendentalaren ezartzen zaionean oinarrian, zeinak, nolabait esateko, ekaia gordailu osoa barnebiltzen duen, bertatik gauzen predikatu ahalgarri denak hartzen direlarik, bada, orduan substratu hau ez da errealitatearen orotasun baten ideia baino (omnitudo realitatis). Egiazko ezeztapen guztiak, beraz, *zedarriak* besterik ez dira, eta hau ezingo litzateke esan beraiez, oinarrian zedarritik ez duena (orotasuna) egongo ez balitz.

Errealitatearen jabego oso honen bitartez, ordea, *berbaitango gauzaren* adigaia ere errepresentatzen da osoki determinatu gisa, eta ens realissimum baten adigaia zerizan bakar baten adigaia da, zeren kontrajarritako predikatu ahalgarri orotatik bat aurkitzen baita bere determinazioan, hots, erabat izateari dagokiona. Beraz, *ideal* transzendental bat da, existitzen den guztian halaberharrez aurkitzen den determinazio osoaren oinarrian datzan eta bere ahalgarritasunaren materiazko baldintza gorena eta osoa osatzen duen ideala, eta hau oro harrezko objektuen pentsatze orok bertan bildu behar du bere edukiaren arabera. Giza arrazoimenak eduki dezakeen benetako ideal bakarra ere bada; zeren kasu honetan soilik gertatzen baita, gauza baten bere baitan orokorra den adigaia bere buruaren bitartez osoki determinatzen eta banako baten errepresentazio gisa ezagutzen duela.

Arrazoimenak sortzen duen adigai baten determinazio logikoa arrazoimen-inferentzia disjuntiboan funtsatzen da, non esakune nagusiak sailkaketa logikoa barnebiltzen duen (adigai orokorraren esferen zatiketa), esakune txikiak esfera hori zati batera zedarritzatzen duen eta konklusioak adigaia honen bitartez determinatzen duen. Errealitate baten adigai orokorra ezin da oro har a priori zatitu, zeren genero bakoitzaren menpean barnebilduko liratekeen errealitatearen era determinatuak ez baitira ezagutzen esperientziarik gabe. Beraz, gauza guztien determinazio osoaren esakune nagusi transzendentalaren ez da errealitate ororen multzoaren errepresentazioa baino, predikatu guztiak beren eduki transzendentalaren arabera *bere menpean* ez ezik, *bertan* ere jasotzen dituen adigaia, eta halako gauza bakoitzaren determinazio osoa errealitatearen *orotasun* honen zedarritzapenean funtsatzen da, hauetako batzuk gauzei egotziak, gainerakoak, ordea, baztertuak diren heinean, eta hau esakune nagusiaren «edo...edo»-rekin eta esakune txikiko zatiketa honen osakide baten bidezko objektuaren determinazioarekin adosten da. Honen arabera, arrazoimenaren erabilera honek gauza ahalgarri guztien bere determinazioaren oinarrian ideal transzendentalaren ezartzen duenean berak arrazoimen-inferentzia disjuntiboan duen jokaeraren analogoa da; eta esakune hau ezarri nuen lehenago ideia transzendental ororen sailkaketa sistematikoaren oinarrian, zeinari jarraiki ideioak arrazoimen-inferentzien hiru moduei paralelki eta hauei egokituz sortzen diren.

Berez ulertzen da arrazoimenak hau lortzeko asmoz, hots, gauzen beharrezko determinazio osoa soilik errepresentatzeko asmoz, idealaren arabera den halako zerizanaren existentzia ez ezik, bere ideia ere auresupoatzen duela, horrela determinazio osoaren baldintzatugabeko osotasun batetik baldintzatutako osotasuna, h. d., zedarritzatua denarena eratortzearen. Ideala, beraz, gauza ororen jatorrizko irudia da (prototypon), eta gauzek osotara beren ahalgarritasunerako ekaia bertatik hartzen dute,

kopia akasdunak (ectypa) diren aldetik, eta berari gehiago edo gutxiago hurbiltzen diren arren, beti bera lortzetik amaigabeki urrun geratzen dira.

Horrela, bada, gauzen ahalgarritasun oro (anizkunkiaren sintesiarena bere edukiaren arabera) eratorritzat hartzen da eta errealtate osoa bere baitan jasotzen duen ahalgarritasuna besterik ez da jatorrizkoa. Izan ere, ezeztapen guztiak (zeinak, ordea, beste guztia zerizan errealeketik bereiziaraz dezaketen predikatuak diren) errealtate handiago baten eta, azkenik, errealtate gorenaren zedarritzapen soilak dira, eta beraz, hauek auresuposatzen dituzte eta edukiari dagokionez beraietatik eratorriak besterik ez dira. Gauzen anizkuntasun oro ere era berean beraiei komuna zaien substratua den errealtate gorenaren adigaia zedarritzatzeko era ezberdin bat da, figura guztiak espazio amaigabea zedarritzatzeko era ezberdinak bezala soilik izan daitezkeen legez. Horregatik, arrazoimenean soilik aurkitzen den idealaren objektuari *jatorrizko zerizana* deitzen zaio (ens originarium), bere gainean beste zerizanik ez dagoen heinean *zerizan gorena* (ens summum), eta guztia baldintzatutako zerbait gisa bere menpean dagoen heinean *zerizan guztien zerizana* (ens entium). Honek guztiak, ordea, ez du adierazten objektu erreale batek beste gauzeekin duen hartueman objektiboa, baizik ideiak adigaiekin duena, eta ezjakintasun osoan uzten gaitu hain abantaila harrigarriak dituen zerizan baten existentziatz.

Jatorrizko zerizana eratorritako zerizan askoz osatzen dela esan ezin daitekeenez, haietako bakoitzak hura auresuposatzen duen heinean, eta beraz, hura eratu ezin duenez gero, orduan jatorrizko zerizanaren ideala bakuna balitz bezala ere pentsatu beharko da.

Horregatik, zehazki hitz eginez, jatorrizko zerizan honetatik abiatutako beste ahalgarritasun ororen eratorketa ezin da hartu bere errealtate gorenaren *zedarritzapentzat* eta, nolabait esateko, bere *zatiketatzat*; izan ere, hainbestez, jatorrizko zerizana eratorritako zerizanen agregatu soiltzat hartuko litzateke, ezinezkoa dena gorago esandakoaren arabera, guk hasieran lehen zirrimarra zakarrean horrela errepresentatu genuen arren. Aitzitik, gauza guztien ahalgarritasunaren oinarrian errealtate gorena egongo litzateke *oinarri* gisa, eta ez *multzo* gisa, eta lehenaren anizkuntasuna ez da jatorrizko zerizanaren zedarritzapen berberan funtsatzen, baizik bere ondorio osoan, non gure sentimen osoa, beraz, zati bat izango litzatekeen agerpeneko errealtate oro den bezala, hauek osagai gisa ezin baitzaizkio egokitu zerizan gorenaren ideari.

Gure ideia hau orain hipostasiatzen dugun heinean aurrera egiten baldin badugu, orduan jatorrizko zerizana errealtate gorenaren adigai soilaren bitartez zerizan bakar, bakun, oroaskidun, betierekoa, eta abarren gisa, hitz batean, predikamentu guztien bitartez bere baldintzatugabeko osotasunean determinatu ahal izango da. Halako zerizan baten adigaia *Jainkoaren* adigaia da, adiera transzendentalean pentsatua, eta horrela, arrazoimen hutsaren ideala *Teologia* transzendental baten objektua da, gorago aipatu nuen legez.

Hala ere, ideia transzendentalaren erabilera honek jadanik bere determinazioaren eta onargarritasunaren mugak gaindituko lituzke. Izan ere, arrazoimenak errealtate ororen *adigai* gisa besterik ez zuen jarri oro harrezko gauzen determinazio osoaren oinarrian, errealtate objektibo hori guztia objektiboki ematea eta gainera gauza bat bihurtzea eskatu gabe. Azken hau asmakizun soil da, zeinaren bitartez gure ideien anizkuntzia ideal batean zerizan berezi gisa biltzen eta egikaritzen dugun horretarako eskuduntzarik izan gabe, ezta halako hipotesiaren ahalgarritasuna onartzekoa ere; orobat, idealetik segitzen diren ondorioztapen denek ez dute zerikusirik oro harrezko gauzen determinazio osoarekin, hauentzat soilik behar zenean ideia, eta ez dute eraginik bertan.

Ez da aski gure arrazoimenaren jardunbidea eta bere Dialektika deskribatzea, bere iturriak aurkitzea ere saiatu behar da, itxura hori bera argitu ahal izatearren, hau adimenaren fenomeno den aldetik; izan ere, gure solasgaia den ideala berezko ideian oinarritzen da, eta ez soilik hautazkoan. Horregatik, zera galdetzen dut: nola ikusten du arrazoimenak gauzen ahalgarritasun oro bere oinarrian datzan gauza bakar batetik eratorria balego bezala, hots, errealtate gorenetik, eta nola auresuposatzen du hau, hainbestez, jatorrizko zerizan berezi batean barnebildua balego bezala?

Erantzuna berez datorkigu Analitika transzendentalean aipatutakotik. Sentsuen objektuen ahalgarritasuna hauek gure pentsatzearekin duten hartuemanen dago, non zerbait (hots, forma enpirikoa) a priori pentsa daitekeen, baina materia osatzen duena, hots, agerpeneko errealtatea (sentsazioari dagokiona), eman egin behar den, eta hau gabe inolaz ere ezingo litzateke pentsatu, eta beraz, bere ahalgarritasuna ezingo litzateke errepresentatu. Sentsuen objektu bat osorik determina daiteke, baina agerpenen predikatu guztiekin alderatu eta horien bitartez baieztatuz edo ezeztatuz errepresentatzen baldin bada soilik. Bertan, ordea, gauza bera (agerpenean) osatzen duena, hots, errealkia, eman behar denez, hau gabe ezingo bailitzateke inoiz pentsatu ere egin; agerpen ororen errealkia emana den gune hori, ordea, esperientzia orobateratzaile bakarra denez gero, orduan sentsuen objektu ororen ahalgarritasunerako materia multzo batean emana balego bezala auresuposatu behar da, eta objektu

enpirikoen ahalgarritasun oro, beren arteko bereizketa eta beren determinazio osoa haren zedarriztapenean soilik funtsa daitezke. Egitatean, guri ezin zaizkigu sentsuen objektuak baino eman, eta inon ez gainera, esperientzia ahalgarriaren testuinguruan izan ezik, eta ondorioz, ezer ez da *guretzat* objektua, errealitate enpiriko ororen multzoa ez badu auresuposatzen bere ahalgarritasunaren baldintza gisa. Berezko ilusio baten arabera, benetan gure sentsuen objektu gisa ematen diren gauzez balio duen hau oro harrezko gauza guztiez balio izan behar duen oinarri-esakune gisa hartzen dugu. Ondorioz, zedarriztapen hau baztertuz gero, gauzen ahalgarritasunaren gure adigaien printzipio enpirikoa, gauzak agerpenak diren aldetik, oro harrezko gauzen ahalgarritasunaren printzipio transzendentalizat hartuko dugu.

Ondorioz, guk errealitate ororen multzoaren ideia hau honegatik hipostasiatzen dugu, alegia, adimenaren esperientziatzko erabileraren batasun *distributiboa* esperientziaren osokiaren batasun *kolektiboa* bihurtzeagatik dialektikoki, eta agerpenaren osoki honetan errealitate enpiriko oro bertan barnebiltzen duen gauza bakarra pentsatzeagatik, zeina, horrela, jadanik aipatutako subrepzio transzendentalaren bitartez gauza guztien ahalgarritasunaren buruan dagoen gauza baten adigaiarekin nahasten den, hots, gauza haien guztien determinazio osorako baldintza errealak ematen dituen gauzaren adigaiarekin¹³³.

Hirugarren atalburuko

Hirugarren atala

Arrazoimen espekulatiboak zerizan goren baten izatea inferitzeko dituen froga-oinarriez

Arrazoimenak adimenaren adigaien determinazio osorako beteki honen oinarrian egon daitekeen zerbait auresuposatzeko duen premia larri hau kontuan hartu gabe ere, arrazoimen berak azkarregi ohartzen du halako auresuposizioaren izaera ideala eta asmatua eta, hainbestez, horrek ez dio bultzatzen bere pentsatzearen sorkari soila berehala zerizan errealtzat onartzera, beste zerbaitek bultzatu ezean nonbait bere lasaitasuna bilatzera baldintzatuki jakinetik baldintzatugabekira doan itzuleran, hots, bere baitan eta bere adigai soilean errealtzat ematen ez den baldintzatugabekira doanean, nahiz honek soilik osa dezakeen bere oinarrietara gidatzen duen baldintzen ilara. Hau da giza arrazoimen bakoitzak hartzen duen berezko bidea, baita arruntenak ere, halako bakoitzak bertan irauten ez duen arren. Ez da abiatzen adigaietatik, baizik esperientzia arruntetik, eta beraz, existitzen den zerbait ezartzen du oinarrian. Lur hau, ordea, hondoratu egiten da, baldin eta behar-beharrezkoa denaren arkaitz higiezinaren gainean funtsatzen ez bada. Hau bera, ordea, igeri dabil eustazpirik gabe, baldin eta beretik at eta azpian oraindik espazio kaskala badago, eta berak dena ez badu betetzen eta horren bitartez gainerako leku gehiago ez badio uzten *zergatiari*, h. d., errealitateari dagokionez amaigabea bada.

Zerbait, edozer izanda ere, existitzen bada, orduan zerbait *halabeharrez* existitzen dela onartu behar da. Izan ere, beharbadakoa dena beste zerbaiten baldintzaren menpean soilik existitzen da, hau bere kausa den aldetik, eta honetaz berriro balio du inferentziak, harik eta beharbadakoa ez den, eta horregatik, baldintzarik gabe halabeharrez den kausara iritsi arte. Argumentu honetan oinarritzen du arrazoimenak jatorrizko zerizanerantz doan bere aurrerapena.

Arrazoimenak zerizan baten adigaia bilatzen badu, hots, baldintzatugabeko beharrezkotasunaren gisako existentziaren abantailatara moldatzen den adigaia, ez da bere adigaitik a priori bere izatea inferitzearren (izan ere, hau egitera ausartuko balitz, orduan oro har adigaien artean soilik ikertu ahal izango luke eta izate jakin bat ezarri beharko luke oinarrian), baizik bertan gauza ahalgarrien adigai guztien artean beharrezkotasun absolutuari aurka egiten ez dion ezer ez duena aurkitzearen besterik ez. Izan ere, lehen inferentziaren arabera erabakita dagoela onartzen baitu zerbaitek erabat halabeharrez existitu behar duela. Beharrezkotasun horrekin bateratzen ez den guztia deusezta badezake gauza bat izan ezik, orduan hau behar-beharrezko zerizana da, bere beharrezkotasuna ulertu ahal izan, h. d., bere adigaitik abiatuta soilik eratorri ahal izan nahiz ezin izan.

Gauza baten adigaiak «zergati» ororentzat bere «honegatik» bat barnebiltzen badu bere baitan, ezein zatitan eta ezein zentzutan akatsik ez duen gauza hau, beti baldintza gisa aski den gauza, badirudi beharrezkotasun absolutua izateko zerizan aproposa dela, zeren, ahalgarria den ororen baldintza guztien jabe izanik bere baitan, ez baitu ezein baldintzarik behar, eduki ere

ezin ditu egin, eta ondorioz, puntu batean bederen beharrezko baldintzatugabekiaren adigaia gogobetetzen du, hortan beste ezein adigaik berdindu ezin duela, akasduna den eta osaketaren beharra duen heinean, honek bere baitan beste gainerako baldintzetatik beregaina izateko halako ezaugarria ez baitu erakusten. Egia da hemendik abiatuta oraindik seguru ezin daitekeela ondorioztatu bere baitan baldintza gorena eta zentzu orotan osoa barnebiltzen ez duenak horregatik bere existentziaren arabera baldintzatua izan behar duenik; baina ez dauka bere baitan baldintzatugabeko izatearen zeinu ezaugarri bakarra, zeinari esker arrazoimena zerizan bat baldintzatugabe gisa ezagutzeko gai den apriorizko adigai baten bitartez.

Errealitate gorena duen zerizan baten adigaia hoberen egokituko litzaioke gauza ahalgarrien adigai guztien artean baldintzatugabeki beharrezkoa den zerizan baten adigaiari, eta honek hura ez badu osorik gogobetetzen, guk ez dugu hau baino beste aukerarik: behartuta gaude berari jarraitzera, zeren beharrezko zerizanaren existentzia ezin baitugu besterik gabe ukatu; hau onartzen baldin badugu, berriz, orduan ahalgarritasunaren alor osoan ezin dugu izateari begira halako abantailaren uzi oinarritua edukiko lukeen ezer aurkitu.

Horrela dago antolatua, beraz, giza arrazoimenaren berezko ibilera. Lehenik, beharrezko zerizan *baten* izatearen uste osoa lortzen du. Bertan baldintzatugabeko existentzia ezagutzen du. Orduan, baldintza orotatik beregain denaren adigaia bilatzen du eta beste guztiaren baldintza askia denean aurkitzen du, h. d., errealitate oro barnebiltzen duen hartan. Zedarririk gabeko orotasuna, ordea, batasun absolutua da eta berekin dakar zerizan bakarraren adigaia, hots, zerizan gorenaren adigaia, eta horrela inferitzen du arrazoimenak zerizan gorena erabat halabeharrez dela, gauza ororen jatorrizko oinarria den aldetik.

Adigai honi oinarritzotasun jakin bat ezin zaio ukatu, baldin eta solasgaia *erabakia* bada, hots, behin beharrezko zerizan baten izatea onartuz gero eta hura non ezarri nahi izateaz erabakia hartzeko beharraz ados jarritz gero; izan ere, kasu honetan ezin da modu egokiagoan aukeratu edo, are gehiago, ez dago beste ezein aukerarik, baizik behartuta gaude errealitate osoaren batasun absolutuari bere ahotsa ematera, ahalgarritasunaren oinarritzko iturria den aldetik. Ezerk ez bagaitu behartzen erabakia hartzera, eta gai hau guztia atzean utzi nahi badugu, harik eta froga-oinarrien pisu osoaren bitartez bat etortzera behartuak izan arte, h. d., autugaia eginkizun honetaz zenbat dakigun eta zer jakitea uste dugun *juzgatzea* besterik ez bada, orduan goragoko inferentzia ez da agertzen inolaz ere hain tankera onean, eta onberak izan behar dugu, bere eskubide-uzien gabezia osatzeko.

Izan ere, hemen gure aurrean duguna ontzat emango bagenu, hots, lehenik, existentzia jakin batetik abiatuta (behar bada neurea besterik ez) baldintzatugabeki beharrezkoa den zerizanaren existentziaren inferentzia zuzena dela; bigarrenik, nik errealitate oro, eta beraz, baldintza oro barnebiltzen duen zerizana erabat baldintzatugabetzat hartu behar dudala, eta ondorioz, beharrezkotasun absolutuarentzat egokia den gauzaren adigaia honen bitartez aurkitzen dela, bada, orduan hortik ezin da inolaz ere inferitu errealitate gorena ez duen zerizan zedarritzatu baten adigaiak horregatik beharrekoztasun absolutua kontraesaten duenik. Izan ere, nik berehala bere adigaian baldintzatugabekia aurkitu ez arren, baldintzen orotasunak hau jadanik berekin badakar ere, orduan hortik ezin da inolaz ere ondorioztatu bere izateak horregatik baldintzatua izan behar duenik; arrazoimen-inferentzia hipotetiko batean esan ezin dudana bezala: baldintza jakin bat ez dagoenean (hots, hemen osotasunarena adigaien arabera), hor baldintzatukia ere ez dagoela. Aitzitik, gainerako zerizan zedarritzatu denak era berean baldintzatugabeki beharrezkoak balira bezala onartzea baimentzen zaigu, nahiz eta beren beharrezkotasuna ezin den inferitu berehala beraiez dugun adigai orokorretik abiatuta. Honela, ordea, argumentu honek ez liguke emango beharrezko zerizan baten berekitasunen adigairik eta ez luke oro har ezer lortuko.

Hala eta guztiz ere, argumentu honek garrantzi jakin bat gordetzen du, baita onartezintasun objektibo honegatik berehala kendu ezin zaion autoritatea ere. Izan ere, demagun arrazoimenaren ideian osorik zuzenak baina geuri aplikatzeko errealiterik gabeak, h. d., eragilerik gabeak liratekeen beharrak daudela, zeinetan lege praktikoei eragina eta irmotasuna emango lieken zerizan gorenik ez litzatekeen auresuposatuko; orduan guk ere adigaiei jarraitzeko beharra izango genuke, eta hauek objektiboki onargarriak ez izan arren, hala ere, gure arrazoimenaren neurriari dagokionez pisua dute, eta beraiekin alderatuz ez dugu ezer hobeagorik eta konbentzigarriagorik ezagutzen. Aukeratzeko betebeharrak espekulazioaren erabakiezintasuna orekatik aterako luke hemen osagarri praktikoa baten bitartez, eta arrazoimenak, epaile zorrotzenen gisara, ez luke bertan legezatasunik aurkituko, baldin eta bera premiazko kausa eragilean menpean –ikuskerak akasduarekin bada ere– bere judizioaren oinarri honi jarraituko ez balitzaio, bere gainteko beste hobeagorik ezagutzen ez dugunez.

Argumentu hau egitatean transzendentala den arren, bera beharbadakoa denaren barneko onartezintasunean funtsatzen den heinean, dena dela, hain sinplea eta berezkoa da, non gizakien zentzu arruntenarentzat aproposa gertatzen baita hau bertara gidatu ahala. Gauzak aldatzen direla ikusten da, sortzen eta iraungitzen direla; hauek edo beren egoerek behinik

behin kausa bat izan behar dute. Inoiz esperientzian eman daitekeen kausa bakoitzaz, ordea, era berean hau galde daiteke. Non jarri behar dugu kausalitate *garaiena* (oberste) bidezkiago kausalitate *gorena* (höchste) ere badagoen lekuan baino, h. d., efektu ahalgarrirako onargarritasuna bere baitan jatorriz barnebiltzen duen zerizanean, zeinaren adigaia ere betegintzarre orobateratzaile baten ezaugarri bakarraren bitartez erraz sortzen den? Kausa goren hau, beraz, behar-beharrezkotzat jotzen dugu, absolutuki beharrezkoa aurkitzen dugulako bertaraino goratzea, eta ezein arrazoirik ere ez dugulako beraz goiti oraindik urrunago joateko. Horregatik, herri guztietan beren politeismo itsuenean zehar ere monoteismoaren txinparten distirak ikusten ditugu, eta horretara ez ditu gidatzen gogoetak eta espekulazio sakonak, baizik pixkanaka ulergarria bihurtu den adimen arruntaren berezko ibilerak besterik ez.

*Jainkoaren izatearen hiru froga-era besterik ez dira
ahalgarriak arrazoimen espekulatibotik abiatuta.*

Asmo honekin urra daitezkeen bide guztiak, edo esperientzia determinatutik eta bere indarrez ezagututako gure sentsuen munduaren antolaera berezitik abiatzen dira, eta bertatik kausalitatearen legearen arabera mundutik at dagoen kausa gorenera igotzen dira; edo esperientzia indeterminatua soilik ezartzen dute oinarrian, h. d., izateren bat enpirikoki; edo, azkenik, esperientzia oroz abstraitzen dute eta osorik a priori adigai soiletatik abiatuta kausa goren baten izatea inferitzen dute. Lehen froga *fisiko-teologikoa* da, bigarrena, *kosmologikoa*, hirugarrena, froga *ontologikoa* da. Froga gehiago ez dago, eta ezin da egon gainera.

Arrazoimenak ezer ez duela lortzen erakutsiko dut, ez bide batetik (enpirikoa), ez bestetik (transzendental), eta hegoak alferrik zabaltzen dituela erakutsiko dut espekulazioaren botere soilaren indarrez sentsuen munduaz goiti joatearren. Froga-era hauek etsaminarako aurkezteko ordenari dagokionez, hau pixkanaka hedatzen doan arrazoimenak hartzen duen ordenaren eta guk lehen jarri dugun ordenaren zuzenki aurkakoa izango da. Izan ere, argituko da *adigai transzendentalak* soilik gidatzen duela arrazoimena bere ahalegin honetan, lehen aukera esperientziak ematen badu ere, eta saialdi hauetan guztietan bere buruari ezarri dion xedea adierazten duela. Beraz, froga transzendentalaren etsamina egiten hasiko naiz, eta ondoren ikusiko dut ea osagarri enpirikoak zer egin dezakeen bere froga-indarra areagotzearen.

Hirugarren atalburuko

Laugarren atala

Jainkoaren izatearen froga ontologiko baten ezintasunaz

Orain arte esandakotik erraz ikusten da zerizan absolutuki beharrezkoaren adigaia arrazoimenaren adigai hutsa dela, h. d., ideia soil bat dela, zeinaren errealitate objektiboa ez den frogatzen arrazoimenak bera behar duelako, eta honek gainera osotasun jakin nahiz lortezina soilik iragartzen du, eta benetan gehiago balio du adimena mugatzeko bera objektu berrietara hedatzeko baino. Hemen gauza bitxi eta absurdu hau gertatzen da, alegia, oro harrezko izate jakin batetik behar-beharrezko izateren batera doan inferentziak premiazkoa eta zuzena izatea dirudiela eta, hala ere, halako beharrezkotasun baten adigaia egiteko unean adimenaren baldintza guztiak erabat gure aurka ditugula.

Garai guztietan hitz egin da zerizan *absolutuki beharrezkoaz*, eta honelako gauza bat ea eta nola pentsa daitekeen ulertzeko ez da egin bere izatea frogatzeko adina ahalegin. Adigai honen izen-definizioa ematea oso erraza da, hots, bere ez-izatea ezinezkoa den gauza; baina honek ez gaitu argitzen gauza baten ez-izatea erabat pentsaezintzat hartzea ezinezkoa egiten duten baldintzei dagokienez, eta benetan jakin nahi dena zera da, hain zuzen, ea guk adigai honen bitartez edonon zerbait pentsatzen dugun ala ez. Izan ere, adimenak zerbait beharrezkotzat onartzeko beti behar dituen baldintza guztiak «*baldintzatugabea*» hitzaren bitartez ukatzeak ez dit ulergarria bihurtzen, hainbestez, ea nik baldintzatugabeki beharrezkoa den zerbaiten adigaiaren bitartez oraindik zerbait pentsatzen dudanez edo agian ezer ez dudanez pentsatzen.

Are gehiago: ausaz onartu eta ondoren ohikoa bihurtu den adigai hau adibide kopuru handi baten bitartez halako moldez argitu dela uste izan da, non bere ulergarritasunari buruzko gainerako galdeketa guztiek erabat alferrikakoak baitirudite. Geometriaren edozein esakune, «hiruki batek hiru angelu ditu», adibidez, behar-beharrezkoa da, eta horrela hitz egiten zen gure adimenaren esferatik erabat at datzan objektu batez, bere adigaiarekin esan nahi dena oso ongi ulertuko balitz bezala.

Eskainitako adibide denak *judizioetatik* soilik hartu dira salbuespenik gabe, baina ez gauzetatik eta beren izatetik. Judizioaren baldintzatugabeko beharrezkotasuna, ordea, ez da gauzen beharrezkotasun absolutua. Izan ere, judizioaren beharrezkotasun absolutua gauzaren beharrezkotasun baldintzatu besterik ez da, edo predikatuak judizioan duen beharrezkotasuna. Aurreko esakuneak ez zuen esaten hiru angeluak behar-beharrezkoak direnik, baizik hiruki bat badela dioen baldintzapean (ematen delako) hiru angelu daudela (bertan) halabeharrez. Hala eta guztiz ere, halako beharrezkotasun logikoak frogatu duen ilusioaren boterea hain handia da, non, norbere iritziz izatea ere bere zabaleran jasotzen den gisara moldatua dagoen gauza baten apriorizko adigaia sortu zen heinean, hortik abiatuta adigai honen objektuari izatea halabeharrez dagokiola inferi zitekeela uste baitzen, h. d., gauza hau emandako gauza gisa (existitzen dela) ezartzearen baldintzapean bere izatea ere halabeharrez ezartzen dela (identitatearen erregelaren arabera), eta zerizan hau horregatik behar-beharrezkoa dela, zeren bere izatea ere batera pentsatzen baita ausaz onartutako adigai batean eta bere objektua ezartzen dudala dioen baldintzapean.

Judizio identiko batean predikatua ezeztatu eta subjektua gordetzen badut, orduan kontraesan bat sortzen da, eta horregatik zera diot: hura honi halabeharrez dagokio. Subjektua, ordea, predikatuekin batera ezeztatzen badut, orduan honek ez da kontraesanik sortzen; izan ere, ez da hura kontraesan lezakeen *beste ezer* geratzen. Hiruki bat ezartzea eta bere hiru angeluak ezeztatzea kontraesankorra da; baina hirukia bere hiru angeluekin batera ezeztatzea ez da inolako kontraesanik. Horrela gertatzen da zerizan absolutuki beharrezkoaren adigaiarekin. Bere izatea ezeztatzen baduzue, orduan gauza bera bere predikatu ororekin ezeztatzen duzue; nondik etorriko da, hainbestez, kontraesana? Kanpotik ez da ezer kontraesaten, izan ere, gauzak ez du kanpotik beharrezkoa izan behar; barnetik ere ez, izan ere, zuek gauza beraren ezeztapenarekin aldi berean bere barnean dagoen gauza oro ukatu baituzue. Jainkoa ahalguztiduna da; hau beharrezko judizioa da. Ahalguztidentasuna ezin da ezeztatu jainkotasun bat, h. d., zerizan amaigabe bat ezartzen baduzue, hura honen adigaiarekin identikoa baita. Baina esaten baduzue, orduan «*Jainkoa ez da*» ez da ahalguztidentasuna ematen, ezta bere beste predikaturik ere; izan ere, denak subjektuarekin batera ezeztatu dira eta pentsamendu honek ez du kontraesan txikienik ere erakusten.

Zuek ikusi duzue era berean nik judizio baten predikatua subjektuarekin batera ezeztatzen badut, orduan ezin dela inoiz barneko kontraesanik sortu, predikatua edozein izanda ere. Orduan zera esatea baino beste ihesbiderik ez zaizue geratzen: inolaz ere ezeztatu ezin diren subjektuak daude, beraz, geratu egin behar duten subjektuak. Halere, honek hau adina esan nahiko luke: behar-beharrezko subjektuak daude; hain zuzen, bere zuzentasuna zalantzan jarri dudana eta bere ahalgarritasuna erakutsi nahi didazuen auresuposizioa. Izan ere, ezin dut gauza batez adigairik sortu, honek, bere predikatu guztiekin batera ezeztatua izango balitz, oraindik ere kontraesan bat sortuko balu, eta kontraesanik gabe ez dut ahalezintasunaren ezaugarririk lortzerik apriorizko adigai huts soilen bitartez.

Inferentzia orokor hauen guztien aurka (inork ukatu ezin dituenak) erronka egiten didazue froga gisa egitate honen bitartez aurkezten duzuen kasu batekin: badela adigai bat eta soilik Bakar bat, zeinaren ez-izatea edo bere objektuaren ezeztapena bere baitan kontraesankorra den, eta hau zerizan oroerrealaren adigaia dela. Errealitate oro duela diozue, eta halako zerizana ahalgarritzat onartzea zilegi zaizuela (oraingoz onartzen dudana, nahiz eta bere burua kontraesan ez duen adigaiak oraindik objektuaren ahalgarritasunik ez duen frogatzen)¹³⁴. Hala ere, «errealitate oro» esaten denean bertan izatea ere biltzen da; eta beraz, izatea gauza ahalgarri baten adigaian datza. Hortaz, gauza hau ezeztatzen baldin bada, orduan gauzaren barneko ahalgarritasuna ezeztatzen da, kontraesankorra dena.

Honela erantzuten dut: jadanik kontraesan bat sortu duzue bere ahalgarritasunaren arabera soilik pentsatu nahi duzuen gauza baten adigaian jadanik bere existentziaren adigaia sartzean, edozein ezkutuko izenpean izanda ere. Hau onartzen bazaizue, orduan itxuraz joko irabazi duzue, egitatean, ordea, ezer ez duzue esan; izan ere, tautologia soil a egin duzue. Zera galdetzen dizuet: «*gauza hau edo bestea existitzen da*» esakunea esakune analitikoa ala sintetikoa al da? Lehena baldin bada, orduan gauzaren izatearen bitartez ez diozue ezer gaineratzen gauzaren zuen pentsamenduari, baina, hainbestez, edo zuengan dagoen pentsamenduak gauza bera izan beharko luke, edo izate bat ahalgarritasunari dagokiola auresuposatu duzue, eta, hainbestez, izatea ustez barneko ahalgarritasunetik inferitu duzue, tautologia merke bat besterik ez dena. Hori ez du erabakitzen «errealitate» hitzak, gauzaren adigaian existentziak predikatuaren adigaian duenaren bestelako hotsa duen hitzak. Izan ere, zuek ezarpen orori errealitate deitzen badiozue (ezarritakoa indeterminatua izanik), orduan gauza bere predikatu guztiekin batera

subjektuaren adigaiaren ezartzen duzue eta errealtzat onartzen duzue jadanik, eta predikatuan errepikatu besterik ez duzue egiten. Aitortzen baldin baduzue, aitzitik, eskuarki pertsona zentzudun orok aitortu behar duen bezala, existentziari buruzko halako edozein esakune esakune sintetikoa dela, orduan nola nahi duzue baieztatu existentziaren predikatua kontraesanik gabe ezin dela ezeztatu? Izan ere, abantaila hau esakune analitikoei besterik ez dagokie bereziki, eta beren izaera bera ere bertan funtsatzen da.

Itxarongo nuke bai argumentazio sofistiko hau behin betiko zinez deuseztatzea existentziaren adigaiaren determinazio zehatz baten bitartez, baldin eta aurkitu izan ez banu predikatu logiko bat erreal batekin (h. d., gauza baten determinazioarekin) nahasteko ilusioak ia irakaspen orori aurka egiten diola. Edozerk balio du *predikatu logikoa izateko*, subjektua bera ere predika daiteke bere buruaz; izan ere, Logikak eduki oroz abstraitzen du. Baina *determinazioa* subjektuaren adigaiari gaineratzen zaion eta bera hedatzen duen predikatua da. Beraz, ez du jadanik bertan barnebildua egon behar.

Izatea ez da nabarmenki ezein predikatu errealik, h. d., gauza baten adigaiari gaineratu ahal zaion zerbaiten adigaia. Gauza baten edo determinazio jakinen ezarpen soila da bere baitan. Erabilera logikoan judizio baten kopula besterik ez da. «*Jainkoa ahalguztiduna da*» esakuneak beren objektua duten bi adigai barnebiltzen ditu: Jainkoa eta ahalguztiduntasuna; «*da*» hitz laburra ez da beste predikatu bat, baizik predikatua subjektuarekin *harremanean jartzen* duen zerbait besterik ez. Subjektua (Jainkoa) bere predikatu guztiekin batera biltzen badut (hor ahalguztiduntasuna ere hartuta) eta *Jainkoa dela* edo Jainko bat dela esaten badut, orduan Jainkoaren adigaiari ez diot predikatu berririk ezartzen, baizik subjektua bera besterik ez dut ezartzen bere predikatu guztiekin batera, eta gainera *objektua nire adigaiarekin* harremanean ere bai. Biek berbera barnebildu behar dute zehazki, eta horregatik, ahalgarritasuna soilik adierazten duen adigaiari ezin zaio ezer gehiago gaineratu, bere objektua erabat emana bezala pentsatzen baitut («bera da» adierazpenaren bitartez). Eta horrela, erreala denak ez du barnebiltzen ahalgarria besterik ez denak baino gehiago. Ehun talero errealek ez dute ehun ahalgarriek baino ezer gehiago barnebiltzen. Izan ere, honek adigaia, hark, ordea, objektua eta bere ezarpena bere baitan esan nahi duenez gero, orduan nire adigaiak ez luke objektu osoa adieraziko honek hark baino gehiago barnebilduko balu, eta ez litzateke gainera bere adigai egokia izango. Hala ere, nire jabegoari dagokionez, gehiago dago ehun talero errealetan bere adigai soilean baino (bere ahalgarritasunean). Izan ere, errealtatean objektua nire adigaian analitikoki barnebildua egoteaz gain nire adigaiari (nire egoeraren determinazioa denari) sintetikoki gaineratzen zaio, hala ere, nire adigaitik at izate honi esker aipatutako ehun taleroak deus ere ugaltu gabe.

Nik, beraz, gauza bat nahi adina predikatuen bitartez pentsatzen badut (determinazio osoan ere bai), orduan gauzari ez zaio ezer gehitzen, gauza hori *badela* gaineratzen badut. Izan ere, bestela ez litzateke nik adigaian pentsatu nuen berbera existituko, gehiago baizik, eta ezingo nuke esan zehazki nire adigaiaren objektua existitzen denik. Gauza batean errealtate oro pentsatzen badut bat izan ezik, halako gauza akasduna existitzen dela esanez ez zaio gaineratzen falta zaion errealtatea, baizik gabezia horrek jota dirau, nik pentsatu dudak gisara, zeren bestela nik pentsatu nuenaren bestelako zerbait existituko bailitzateke. Zerizan bat errealtate goren gisa (akatsik gabea) pentsatzen badut, orduan oraindik ea existitzen den ala ez den existitzen galdetzea geratzen da. Izan ere, oro harrezko gauza baten eduki erreal ahalgarriaren nire adigaian ezer falta ez bada ere, hala ere, zerbait falta da oraindik pentsatzearen nire egoera osoaren hartuemanari dagokionez, hots, objektu haren ezagutza a posteriori ere ahalgarria izatea. Eta hemen agertzen da bertan aurkitzen dugun zailtasunaren zergatia. Solasgaia sentsuen objektu bat baldin balitz, orduan ezingo nuke gauzaren existentzia gauzaren adigai soilarekin nahastu. Izan ere, adigaiaren bitartez objektua oro har ezagutza enpiriko ahalgarri baten baldintza orokorrekin adostasunean besterik ez da pentsatzen; existentziaren bitartez, ordea, esperientzia osoaren testuinguruan barnebildua dagoela pentsatzen da; esperientzia osoaren edukiarekin duen elkarloturagatik objektuaren adigaia deus ere ugaltzen ez bada ere, gure pentsatzeak, dena dela, bere bitartez hautemapen ahalgarri bat gehiago lortzen du. Aitzitik, existentzia kategoriatik hutsaren bitartez soilik pentsatzen badugu, orduan ez da harritzekoa existentzia ahalgarritasun soiletik bereizteko ezein ezaugarri ezin aipatzea.

Objektu baten gure adigaiak berak nahi duena eta nahi duen adina barnebildu badezake ere, dena dela, beretik kanpora irten behar dugu berari existentzia emateko. Sentsuen objektuetan hau nire hautemapenetako batekin elkartuz gertatzen da lege enpirikoen arabera; baina ez dago pentsatze hutsaren objektuen izatea ezagutzeko ezein baliabiderik, zeren erabat a priori ezagutu beharko baikenituzke; existentzia ororen gure kontzientzia (izan dadin hautemapenari esker zuzenki edo inferentzien bitartez zerbait hautemapenarekin elkarlotuz), berriz, esperientziaren batasunari dagokio guztiz, eta alor honetatik at dagoen existentzia bat ezin-ezinezkotzat adierazi ezin bada ere, hau inolaz ere legeztatu ezin dugun aurreuposizioa da.

Zerizan goren baten adigaia oso ideia onuragarria da zentzu batzuetan; baina horregatik, ideia delako, erabat ezgaia da bere kabuz gure ezagutza hedatzeko existitzen denari dagokionez. Askotasun baten ahalgarritasunari buruz ere ezin digu ezer irakatsi. Ezin zaio eztabaidatu ahalgarritasunaren ezaugarri analitikoa, ezarpen soilek (errealitateek) ezein kontraesanik sortu ez izatean datzan ezaugarria; baina berekitasun erreal ororen elkarlotura gauza batean sintesi bat denez, zeinaren ahalgarritasunaz a priori ezin dugun juzgatu, guri errealitateak ez zaizkigulako espezifikoki ematen, eta, hau gertatuko balitz ere, bertan edonon ezein judiziorik ez denez gertatuko, ezagutza sintetikoaren ahalgarritasunaren ezaugarria beti esperientzian soilik bilatu behar baita, bertan, bestalde, ideia baten objekturik ezin dela egon; bada, orduan, Leibniz sonatuak ez du lortu inolaz ere harrotzen zuen gauza hura, hots, hain zerizan bikainaren eta idealaren ahalgarritasuna a priori aditu nahi izatea.

Ahalegin eta lan oro galdu da zerizan goren baten adigaietatik abiatutako izatearen froga ontologiko (kartesiar) sonatuan, eta gizaki batek ideia soilen bitartez ikuskeran aberatsago bihurtu nahiko lukeen bezain gutxi nahiko luke dendari batek jabegoan aberatsago bihurtu bere egoera hobetzearen bere kontuei zenbait zero gehituz.

Hirugarren atalburuko

Bosgarren atala

Jainkoaren izatearen froga kosmologikoaren ezintasunaz

Erabat hautaz zirrimarratutako ideiatik abiatuta berari dagokion objektuaren izatea lortu nahi izatea ez da inolaz ere berezko jokabidea, zorrotasun akademikoaren berritze soil da. Egitatean, inoiz ez litzateke bide honetatik saiaturiko, baldin eta aurretik gure arrazoimenak beharrezkoa den zerbaiten existentzia (bertan goraketak egona lor zezakeela) onartzeko duen premia ez balego eta, beharrezkotasun honek baldintzatugabeki a priori ziurra izan behar duenez, arrazoimena halako eskakizuna gogobeteko lukeen eta izate bat osorik a priori ezagutaraziko lukeen adigaia bilatzera behartua izan ez balitz. Hau zerizan oroerreal baten ideian aurkitu izan zela uste izan zen eta, horrela, ezagupen determinatuagorako erabili zen, hots, beharrezko zerizanaren ezagupenerako, zeinaren existentziaz lehendik jadanik beste era batera konbentziturata edo limurtuta geunden. Hala ere, arrazoimenaren berezko ibilera hau ezkutuan gorde zen, eta adigai honetara iritsi beharrean, bertatik abiatzen saiatu zen, honela izatearen beharrezkotasuna bertatik eratortzearen, nahiz eta hau bera osatzeko soilik determinatua izan. Hemendik sortu zen zoritxarreko froga ontologikoa, ez berezko adimen sendoa, ezta eskolak egiten duen moduko etsamina ere gogobetetzen ez duen froga.

Orain aztertu nahi dugun *froga kosmologikoa* beharrezkotasun absolutuak errealitate gorenarekin duen elkarlotura atxikitzen du, baina aurreko frogan ez bezala, errealitate gorenetik izatearen beharrezkotasuna inferitu beharrean, aurretik emandako zerizan baten baldintzatugabeko beharrezkotasunetik bere errealitate mugagabea inferitzen du, eta honenbestez, dena inferentzia-era baten bidera ekartzen du behinik behin, ez dakit arrazoizkoa edo sofistikoa, baina gutxienez berezkoa dena, zeinak adimen arruntarentzat ez ezik, espekulatiboarentzat ere uste oso beteena ekartzen duen berekin; horrez gain, Natur Teologiaren froga guztietarako ere beti erabili diren eta ondoren erabiliko diren oinarritzko lehen lerroak marrazten ditu ikusgarriki, hauek nahi den guztia apaintzen eta ezkututzen diren arren hostoen eta apainduren bitartez. Leibnizek a contingentia mundi deitu zion froga hau orain begi-bistan jarri eta etsaminatu nahi dugu.

Frogak honela dio: zerbait existitzen baldin bada, orduan behar-beharrezko zerizanak existitu behar du. Baina ni neu existitzen naiz behinik behin, eta beraz, behar-beharrezko zerizana existitzen da. Esakune txikiak esperientzia bat barnebiltzen du, esakune nagusiak beharrezkoa denaren izatearen inferentzia-ondorioa¹³⁵ oro harrezko esperientzia batetik abiatuta. Beraz, froga benetan esperientziatik abiatzen da, eta beraz, ez da osorik a priori edo ontologikoki burutzen, eta esperientzia ahalgarri ororen objektuak mundua izena duenez gero, orduan froga *kosmologikoa* deitzen zaio. Honek mundu hau ahalgarria den beste batetik ezberdintzen duen esperientziaren objektuen berekitasun berezi oroz abstraitzen duenez gero, orduan bere izendapenean bertan ere froga fisiko-teologikotik bereizten da, zeinak gure sentsuen munduaren antolaera bereziaren behaketak behar dituen froga-oinarri gisa.

Frogak zera inferitzen du gainera: beharrezko zerizana era bakar batean soilik determina daiteke, h. d., kontrajarritako predikatu ahalgarri guztiei dagokienez hauetako baten bitartez soilik determina daiteke, eta ondorioz, *osoki* determinatu behar da bere adigaiaren bitartez. Gauza baten adigai bakarrak determina dezake hura a priori osoki, hots, ens realissimum-en adigaiak; beraz, zerizan oroerrealaren adigaia beharrezko zerizan bat pentsatzea ahalbidetzen duen adigai bakarra da, h. d., zerizan goren bat existitzen da halabeharrez.

Argumentu kosmologiko honetan hainbeste oinarri-esakune sofistiko biltzen dira, ezen baitirudi arrazoimen espekulatiboak hemen bere antze dialektiko guztia eskaintzen duela, itxura transzendental ahalbait handiena sortzearren. Bere etsamina, beraz, alde batera utzi nahi dugu une batez bere iruzur bat nabarmenarazteko, zeinaren bidez hark argumentu zahar bat jantziz aldatuta berria balitz bezala aurkezten duen eta horrela bi lekukoen adostasunera jotzen duen, hots, arrazoimenaren lekuko hutsera eta baieztapen enpirikoaren beste batera, lehena soilik izaki bere jantzia eta ahotsa aldatzen duena bestetzat hartua izatearren. Froga hau esperientzian sustatzen da bere oinarria ondo seguru ezartzeko, eta horren bitartez bere konfiantza osoa apriorizko adigai huts soiletan jartzen duen froga ontologikotik ezberdina izateko itxura ematen dio bere buruari. Froga kosmologikoak, ordea, esperientzia hori urrats bakar bat egiteko baino ez du erabiltzen, hots, oro har beharrezko zerizan baten izaterantz doan urratsa. Froga-oinarri enpirikoak ezin du irakatsi honek zein berekitasun dituen, baizik hor arrazoimenak hura alde batera uzten du eta adigai soilak erabiliz ikertzen du: ea zein berekitasun izan behar dituen oro har zerizan absolutuki beharrezkoak, h. d., gauza ahalgarri guztien artean zerk barnebiltzen dituen bere baitan beharrezkotasun absoluturako behar diren baldintzak (requisita). Halere, hauek zerizan oroerreal baten adigaian besterik ez direla aurkitzen sinesten da, eta horrela inferitzen da: hau da behar-beharrezko zerizana. Argi dago, ordea, hemen errealitate gorena duen zerizanaren adigaiak izatearen beharrezkotasun absolutuaren adigaia osorik gogobetetzen duela auresuposatzen dela, h. d., handik hau inferi daitekeela; esakune hau argumentu ontologikoak baieztatzen zuen, zeina, beraz, froga kosmologikoan onartzen den eta bere oinarrian ezartzen den, hori saihezi nahi izan zen arren. Izan ere, beharrezkotasun absolutua adigai soiletatik inferitutako izatea da. Baina esaten baldin badut: ens realissimum-en adigaia beharrezko zerizanari atxikitzen eta egokitzen zaion adigaia da, eta gainera, halakoen artean bakarra dela, orduan bertatik azkenengoa ere inferi daitekeela ere onartu behar dut. Orduan, benetan adigai soiletatik abiatzen den froga ontologikoa besterik ez da hala deitutako kosmologikoaren barneko froga-indar oro barnebiltzen duena, eta ustezko esperientzia alferrikakoa da, zeren agian beharrezkotasun absolutuaren adigaira soilik gida ahal bagaitu ere, ezin baitu hau gauza determinatu batean frogatu. Izan ere, honetarako asmorik izan ahala esperientzia oro utzi eta adigai hutsen artean bilatu behar dugu ea zeinek barnebiltzen dituen beren artean zerizan absolutuki beharrezkoaren ahalgarritasun-baldintzak. Honela, ordea, halako zerizanaren ahalgarritasuna soilik aditzen bada ere, dena dela, bere izatea ere erakusten da; izan ere, hau adina adierazten du: ahalgarria den ororen artean beharrezkotasun absolutua aldean dakarren Bat badago, h. d., zerizan hau erabat halabeharrez existitzen da.

Inferitzean gertatzen diren itxurapen guztiak eskolak egiten duenaren arabera begi-bistan jarritz azaltzen dira modu errazenean. Hemen dator halako auzkezpen bat.

«Behar-beharrezko zerizan oro aldi berean zerizan oroerreal da» esakunea (froga kosmologikoaren *nervus probandi*-a dena) zuzena baldin bada, orduan judizio baieztatile orekin gertatzen den bezala per accidens bederen esakunea itzuli ahal izan behar da; eta beraz, «zerizan oroerreal batzuk aldi berean behar-beharrezko zerizanak dira». Hala ere, ens realissimum bat ez da zati batean ere ezberdintzen beste batetik, eta adigai honen menpean barnebildutako *batzuez* balio duenak *denez* ere balio du. Eta beraz, nik (kasu honetan) esakunea *erabat* itzuli ahal izango dut, h. d., «zerizan oroerreal bakoitza beharrezko zerizana da». Esakune hau bere adigaietatik abiatuta soilik a priori determinatzen denez gero, orduan zerizan oroerrealaren adigai soilak bere beharrezkotasun absolutua ere ekarri behar du berekin; froga ontologikoak ere baieztatzen zuena eta kosmologikoak berrezagutu nahi ez zuena, nahiz eta bere inferentzietan amarruz sartu zen.

Horrela, arrazoimen espekulatiboak zerizan gorenaren izatea frogatzeko urratzen duen bigarren bidea lehena bezain faltsua izateaz gain puntu kritikagarri hau ere badu bere baitan, hots, *ignoratio elenchi* bat egiten duela, zeren, oinezkoen zaldain berrira gidatzea agintzen digun arren, desbideraketa txiki bat egin ondoren berriro utzi genuen bide zaharrera itzultzen baikaitu honela bide berriari jarraitzearren.

Oiraintxe esan dut argumentu kosmologiko honetan kritika transzendentalak erraz aurki eta deusezta ditzakeen handiuste dialektikoen kabi osoa dagoela ezkutatuta. Orain aipatu besterik ez ditut egingo, eta jadanik aritua den irakurleari utzi nahi diot oinarri-esakune faltsuak ondoren ikertzea eta haiek ezeztatzea.

Bertan zera aurkitzen dugu, adibidez, 1) beharbadakoa denetik kausa bat inferitzeko oinarri-esakune transzendentalak, zeinak sentsuen munduan besterik ez duen esanahia, beretik at, ordea, zentzurik ere ez duelarik. Izan ere, beharbadakoa denaren adigai intelektual soilak ezin du kausalitatearen adigaiaren gisako eskakuntza sintetikorik sortu, eta azkenaren oinarri-esakuntzak ez du esanahirik eta erabileraren ezaugarriarik, sentsuen munduan izan ezik; hemen, ordea, sentsuen munduaz goiti joateko balio behar zuen. 2) Elkarren menpeko kausa jakinen ilara amaigabearen ahalezintasunetik lehen kausa bat inferitzea, arrazoimenaren erabileraren printzipio beraiek esperientzia egitea baimentzen ez dutena; are gutxiago, oinarri-esakuntza hau hartaz goiti hedatu ahal izatea (katea ezin luza daiteke inolaz ere bertaraino). 3) Arrazoimenaren askatasun faltua ilara honen osaketari dagokionez, hots, azkenean baldintza guztiak baztertuz lortzen den askatasuna, beraiek gabe beharrezkotasunaren adigairik izan ezin den arren, eta hainbestez, ezer gehiago ulertu ezin daitekeenez gero, hau bere adigaiaren osaketatzat hartzen da. 4) Errealitate bateratu ororen adigaiaren ahalgarritasun logikoa (barneko kontraesanik gabekoa) transzendentalarekin nahastea, hain zuzen, halako sintesiaren egingarritasunaren printzipioa behar duenarekin, hots, bere aldetik esperientzia ahalgarriaren alorrari soilik atxiki ahal zaion printzipioa behar duenarekin nahastea, eta abar.

Froga kosmologikoaren artifizioak xede hau besterik ez du: a priori adigai soiletatik abiatuta burutzen den beharrezko zerizaren izatearen froga saihestea, ontologikoki bideratu beharko litzatekeen froga, hain zuzen, nahiz horretarako batere ahalmenik gabe sentitzen garen. Hau lortzeko asmoz oinarrian jarri den izate erreal batetik (oro harrezko esperientzia bat) ahal den modu onenean bere behar-beharrezko baldintza bat inferitzen dugu. Hainbestez, ez dugu bere ahalgarritasun hau argitzeko beharrik. Izan ere, bera dela frogatu baldin bada, orduan bere ahalgarritasunaz galdetzea osorik alferrikakoa gertatzen da. Hala ere, beharrezko zerizan hau bere antolagarri dagokionez zehazkiago determinatu nahi badugu, orduan ez dugu bilatzen bere adigaitik abiatuta izatearen beharrezkotasuna ulertzeko aski dena; izan ere, hau egin ahal izango bagenu, orduan ez guke aurreuposizio empirikorik beharko; ez, baldintza negatiboa besterik ez dugu bilatzen (*conditio sine qua non*), eta hau gabe zerizan bat ez litzateke absolutuki beharrezkoa izango. Hortaz, hau zuzena litzateke ondorio jakin batetik bere oinarria inferitzeko beste edozein erari legokionez; hemen, ordea, beharrezkotasun absoluturako eskatzen den baldintza zerizan bakarrean aurki daitekeela gertatzen da zoritxarrez, zeinak, horregatik, bere adigaiaren beharrezkotasun absoluturako eskatzen den guztia barnebidu beharko lukeen, eta beraz, bere apriorizko inferentzia ahalbideratzen duen; h. d., alderantziz ere inferitu ahal izan beharko nuke: errealitate gorenaren adigai hau egokitzen zaion edozein gauza behar-beharrezkoa da, eta horrela inferitu ezin badut (eta hau aitortu behar dut, froga ontologikoa ekidin nahi badut), orduan nire bide berrian huts egin dut eta berriro ere hasi nintzen lekuan nago. Zerizan gorenaren adigaiak ederki gogobetetzen ditu a priori gauza baten barneko determinazioaz egin daitezkeen galdekizun guztiak, eta horregatik antzekorik gabeko ideala da, zeren bere adigai orokorrak aldi berean gauza ahalgarri ororen artean banakoa bezala ezaugarritzen baitu. Bere izate propioaz galdekizuna ez du gogobetetzen inolaz ere, ordea, hau besterik ez denean benetan autugaita, eta beharrezko zerizaren izatea onartu eta gauza ahalgarri guztien artean ea halakotzat zein hartu behar den soilik jakin nahi duenaren galdeketa ezingo litzateke honela erantzun: hemengo hau da beharrezko zerizana.

Zilegi izan daiteke onargarritasun gorena duen zerizaren izatea ondorio ahalgarri ororen kausa gisa *onartzea*, honela arrazoimenari berak bilatzen duen argiketa-oinarrien batasuna erraztearren. Alabaina, bertatik *halako zerizana halabeharrez existitzen dela* esatera iristea ez da hipotesi zilegi baten adierazpen apala, baizik ziurtasun apodiktikoaren handiuste lotsagabea; izan ere, ezagutzak beharrezkotasun absolutua ere ekarri behar du berekin zeribait behar-beharrezkoa bezala ezagutzea aldarrikatzen dugunean.

Ideal transzendentalaren arazo osoa honetan datza: edo beharrezkotasun absoluturako adigai bat, edo gauzaren baten adigairako bere beharrezkotasun absolutua aurkitzean. Bata egin badaiteke, orduan bestea ere bai; izan ere, arrazoimenak bere adigaietatik abiatuta beharrezkoa dena besterik ez du ezagutzen absolutuki beharrezko gisa. Halere, gure adimena puntu honetan *gogobetetzeko* behar den ahalegin handienak biak gainditzen ditu, baita bera ahalmen eza honegatik lasaitzeko saialdi guztiak ere.

Gauzen azken eramale gisa ezinbestean behar dugun baldintzatugabeko beharrezkotasuna giza arrazoimenaren egiazko amildegia da. Betikotasunak ere ez du zirrara ahulgarriagorik sortzen gogamenean, *Haller* batek hain beldurgarriki bikaina marrazten badu ere; izan ere, gauzen igarotzea besterik ez du *neuritzen*, baina ez ditu hauek *eramaten*. Ezin dugu pentsamendu hau saihestu, ezta jasan ere, alegia, zerizan batek, ahalgarriak diren guztien artean gorenaren gisa errepresentatzen dugun zerizanak, nolabait esateko, bere buruari hau esatea: «betikotasunetik betikotasunera naiz, nigandik at ez dago ezer, nire nahimenaren arabera soilik izan ezik»; *baina, nondik dator ni orduan?* Hemen dena hondoratzen da gure azpian, eta

betegintzarre handiena, txikiena bezala, sustapenik gabe igeri dago arrazoimen espekulatiboaren aurrean, zeinari nekerik ez dion sortzen bata zein bestea oztopo txikienik gabe desagertarazteak.

Bere izatea efektu jakinen bitartez adierazten duten izadiko indar askok ikergaitz dirau guretzat; izan ere, behaketaren bitartez ezin gatzazkie behar adina urrun jarraiki. Agerpenen oinarrian dagoen objektu transzendental, eta honekin batera, gure sentimenak baldintza goren hau eta ez bestea izatearen oinarriaren zergatia ikergaitzak dira eta diraute, gauza bera emana izan arren, aditua ez bada ere. Arrazoimen hutsaren idealari, ordea, ezin zaio *ikergaitza* deitu, zeren arrazoimenaren beharra baino bere beste errealtatearen baieztapenik ez baitu aurkeztu behar bere bitartez batasun sintetiko oro osatzeko. Baina objektu pentsagarri gisa ere ematen ez denez gero, orduan pentsagarria den aldetik ere ez da ikergaitza; aitzitik, ideia soilak den aldetik arrazoimenaren izaeran aurkitu behar du bere egoitza eta konponketa, eta beraz, ikertu ahal izan behar da; izan ere, horretaz osatzen da arrazoimena, alegia, guk gure adigai, iritzi eta baieztapen oroz kontu eman ahal izateaz, oinarri objektiboetatik abiatuta edo subjektiboetatik abiatuta oinarriok itxura soilak direnean.

Beharrezko zerizan baten izatearen froga transzendental orotako itxura dialektikoaren aurkikuntza eta argipena

Orain arte egindako bi frogak transzendentalak dira, h. d., printzipio enpirikoetatik beregainki saiatuak. Izan ere, kosmologikoak oro har esperientzia bat jartzen duen arren oinarrian, dena dela, frogak ez da bideratzen bere antolaera berezi batetik abiatuta, baizik arrazoimenaren printzipio hutsetatik abiatuta, kontzientzia enpirikoaren bitartez oro har existentzia jakin batekin harremanean, eta gida hau ere uzten du adigai huts soiletan eusteko. Zer da, hortaz, frogak transzendental hauetan itxura dialektiko baina berezkoaren kausa, zeinak beharrezkotasuna eta errealtate gorenaren adigaiak elkarlotzen dituen, eta ideia soilik izan daitekeena egikaritzen eta hipostasiatzen duen? Zein da existitzen diren gauzen artean bere baitan beharrezkoa den bat onartzeko ezinbestekotasunaren kausa, eta hala ere, aldi berean halako zerizanaren izatearen aurrean amildegiaren aurrean balego bezala atzera egitearen kausa? Eta nola lortzen da arrazoimenak berak honetaz uler dezan, eta onarpen zuhur nahiz behin eta berriro ukatutako baten egoera zabunkaritik abiatuta ikuskera lasaira irits dadin?

Erabat ohargarria da zerbait existitzen dela auresuposatzean zerbait halabeharrez ere existitzen dela dioen ondorioztapena ezin saihestea. Erabat berezkoa den inferentzia honetan (nahiz ez horregatik jadanik seguruan) funtsatzen zen argumentu kosmologikoa. Aitzitik, edozein gauzaren adigai bat onartzen badut, orduan bere izatea inoiz behar-beharrezkoa bezala ezin dudala errepresentatu aurkitzen dut, eta ezerk ez didala galarazten, edozer gauza existitzen dela ere, bere ez-izatea pentsatzea, eta beraz, existitzen denarentzat oro har beharrezkoa den zerbait onartu behar dut, baina gauza bat bakarra ere ezin dut bere baitan beharrezkoa balitz bezala pentsatu. Hau da: inoiz ezin dut existitzen denaren baldintzetaraino itzulera *osatu* beharrezko zerizan bat onartu gabe; bertatik, ordea, ezin dut inoiz *hasi*.

Existitzen diren gauzetarako oro har beharrezkoa den zerbait pentsatu behar badut, baina ezein gauza bere baitan beharrezkotzat pentsatzea baimentzen ez bazait, orduan hortik ezinbestean ondorioztatzen da beharrezkotasunak eta beharbadakotasunak ezin dutela gauzekin zerikusirik izan, zeren bestela kontraesan bat sortuko bailitzateke; eta beraz, bi oinarri-esakune hauetako bat bera ere ez dela objektiboa, baizik gehienez ere arrazoimenaren printzipio subjektibo soilak direla, hots, alde batetik, existituz emana den ororentzat beharrezkoa den zerbait bilatzeko, h. d., inoiz a priori osatutako argiketa batean ez bada, beste inon ez geratzeko, eta beste aldetik, ordea, osaketa hau inoiz ez itxarotea, h. d., enpirikoa den ezer ez onartzea baldintzatugabea balitz bezala, eta horren bitartez, ondorengo eratorketak ukatzea. Esanahi honetan hartuta ederki ados daitezke arrazoimenaren interes formala baino ukitzen ez duten bi oinarri-esakuneak, heuristikoak eta *erregulatzaileak* soilik direnak. Izan ere, batak zera dio: «izadiak honela filosofatu behar duzue, existentziari dagokion guztiarentzat beharrezko lehen oinarri bat balego bezala zuen ezagutzara batasun sistematikoa ekartzeko, halako ideari, hots, irudikatutako oinarri gorenari jarraiki zatzaizkion heinean»; besteak, ordea, zera oharrarazten dizue: «gauzen existentziarekin zerikusia duen determinazio bakar bat bera ere ez onartzeko halako oinarri goren gisa, h. d., absolutuki beharrezkoa bezala, baizik ondorengo eratorketetarako bidea beti irekia atxikitzeko, eta bera horregatik beti baldintzatutzat hartzeko». Gauzetan hautematen dugun guztia, ordea, baldintzatuki beharrezkoa den zerbait bezala kontsideratu behar badugu, orduan ezin da ezein gauza (enpirikoki emana izan daitekeena) absolutuki beharrezkotzat jo.

Hemendik, ordea, zera ondorioztatzen da: absolutuki beharrezkoa dena *mundutik at* onartu behar duzuela; zeren agerpenen batasun ahalbait handienaren printzipio baterako bere oinarri goren gisa balio behar baitu, eta zuek *munduan* ezin

zarete inoiz horretaraino iritsi, zeren bigarren erregelak agintzen baitzue batasunaren kausa enpiriko denak beti eratorriak balira bezala begiztatzea.

Antzinako filosofoek izadiaren forma oro beharbadakotzat dute, materia, berriz, jatorrizkotzat eta beharrezkotzat arrazoimenaren judizio arruntaren arabera. Materia, ordea, *bere baitan* bere izatearen arabera kontsideratu izan balute, eta ez agerpenen substratu gisa erlatiboki, orduan beharrezkotasun absolutuaren ideia berehala desagertuko litzateke. Izan ere, ez dago arrazoimena izate honekin erabat lotzen duen ezer, baina arrazoimenak hura beti eta gatazkarik gabe ezeztatzen dezake pentsamenduan; pentsamenduan zetzan era berean, ordea, beharrezkotasun absolutua. Limurtze honen oinarrian printzipio erregulatzaile jakin batek egon beharko luke. Egitatean, hedadura eta sarrezintasuna dira (batera materiaren adigaia osatzen dutenak) agerpenen batasunaren printzipio enpiriko gorenak eta hauek printzipio erregulatzailearen berekitasun bat dute beren baitan, enpirikoki baldintzatugabeak diren heinean. Hala eta guztiz ere, materiaren errealkia osatzen duen bere determinazio bakoitzak, eta beraz, baita sarrezintasunak ere, bere kausa izan behar duenez, eta hau horregatik beti ere eratorria den efektu bat (ekintza) denez gero, orduan materia ez da egokia gertatzen beharrezko zerizaren ideiarentzat, eratorritako batasun ororen printzipioa den heinean; bere berekitasun erreala bakoitza, eratorria den aldetik, baldintzatuta soilik baita beharrezkoa, eta beraz, bere baitan ezeztatua izan baitaiteke, honekin, ordea, materiaren izate osoa ezeztatuko litzatekeelarik; bestalde, hau gertatuko ez balitz, batasunaren oinarri gorena enpirikoki lortuko genukeenez, bigarren printzipio erregulatzaileak debekatzen duena; bada, orduan zera ondorioztatzen da: materia, eta oro har munduari dagokiona, ez dela egokia jatorrizko eta beharrezko zerizaren ideiarentzat, hau batasun enpiriko handienaren printzipio soilak den aldetik, baizik mundutik at ezarri behar dela, hainbestez, munduko agerpenak eta bere izatea beti konfiantzaz beste agerpenetatik eratorri ditzakegulako, beharrezko zerizarik ez balego bezala, eta hala ere, eratorketaren osotasuna etengabe bilatu dezakegulako, halakoa oinarri goren baten gisara auresuposatua balego bezala.

Kontsiderazio hauen arabera zerizan gorenaren ideala ez da arrazoimenaren *printzipio erregulatzailea* baino, munduko lotura oro beharrezko kausa oroaskidun batetik sortua balitz bezala ikusteko, bertan bere argiketan lege orokorren arabera existitzen den beharrezko batasun sistematikoaren erregela oinarritzearen, eta hura ez da bere baitan beharrezkoa den existentziaren baieztapenik. Aldi berean, ordea, ezin da saihestu subrepzio transzendental baten bitartez printzipio formal hau printzipio eratzaile gisa errepresentatzea eta batasun hau hipostatikoki pentsatzea. Izan ere, espazioak bere zedarritzapen ezberdinak diren tankera guztiak jatorriz ahalbidetzen dituen bezala, sentimenaren printzipioa besterik ez izan arren, hala ere, horregatik erabat berez den beharrezko zerbait gisa eta a priori bere baitan emandako objektu gisa hartzen dela, bada, era berean berez gertatzen da izadiaren batasun sistematikoa inolaz ere ezin dela bihurtu gure arrazoimenaren erabilera enpirikoaren printzipioa, zerizan oroerreal baten ideia kausa goren gisa oinarrian ezartzen dugun heinean, ideia hori horren bitartez objektu erreala gisa, eta hau berriro, baldintza gorena denez, beharrezkoa bezala errepresentatzen baita, eta beraz, printzipio *erregulatzailea eratzailea* bihurtzen baita; subrepzio hau honegatik nabarmentzen da: nik munduari dagokionez behar-beharrezkoa (baldintzatugabeki) zen zerizan goren hau berbaitango gauzatza kontsideratzen badut, beharrezkotasun hori ezein adigai izateko gai ez dela, eta beraz, nire arrazoimenean soilik pentsatzearen baldintza formala gisa aurkitu behar zela, baina ez, ordea, izatearen materiako baldintza hipostatiko gisa.

Hirugarren atalburuko

Seigarren atala

Froga fisiko-teologiko baten ezintasunaz

Eskatzen dena ez gauzen adigaiak oro har ezta *izateren* baten esperientziak oro har ere ezin duenez lortu, orduan baliabide bat geratzen da oraindik *esperientzia determinatu* batek, hain zuzen, egungo munduaren gauzen esperientziak, beren antolaerak eta ordenaketak ea froga-oinarria ematen duten saiatzeko, hain zuzen, zerizan goren baten izatearen uste osoa lortzen lagundu ahal izango digun froga-oinarria. Halako frogari *fisiko-teologikoa* deituko genioke. Hau ezinezkoa izango balitz, orduan edonon gure ideia transzendentalari dagokion zerizan baten izatearen ezein froga gogobetegarriarik ez zen ahalgarria izango arrazoimen espekulatibotik abiatuta.

Laster ulertuko da goragoko oharren arabera galdekizun honen erantzun oso erraza eta erabakigarria itxaron daitekeela. Izan ere, nola eman daiteke inoiz ideia bati egokitu beharko litzaiokeen esperientziarik? Hortan datza, ordea, azkenaren bereizgarria, inoiz esperientziaren bat ezin zaiola egokitu. Jatorrizko zerizan oroaskidun eta beharrezko baten ideia transzendental hain izugarri handia da, hain garai dago beti ere baldintzatua den gauza enpiriko ororen gainean, hain bikaina da, non, alde, inoiz ezin baitu aski ekai bildu esperientzia halako adigai betetzeko, eta alde, beti baldintzatukiaren artean baikbiltza eta beti alferrik baldintzatugabekia bilatzen baitugu, zeinaz sintesi enpirikoren baten ezein legek ez duen ematen adibiderik edo bera lortzeko gidarik.

Zerizan goren baldintzen kate batean balego, orduan bera ilararen osakide bat litzateke eta, horrela, nagusitzen zaien beheko osakideek bezala bere oinarri garaiagoaren azterketa sakonagoa eskatuko luke. Kate honetatik banandu nahi bada, aitzitik, eta ez bada zerizan inteligible soil gisa izadiaren kausen ilaran batera jasotzen, orduan zein zubi jar ditzake arrazoimenak oraindik bertara iristeko? Efektuetatik kausetarako igarobidearen lege guztiak, baita oro har gure ezagutzaren sintesi eta hedapen oro ere, esperientzia ahalgarrira besterik ez baitira bideratzen, eta beraz, sentsuen munduko objektuetara baino ez, eta beraiei begira soilik izan baitezakete esanahia.

Egungo munduak anizkuntasun, ordena, helburutasun eta edertasunaren antzoki hain neurtezina erakusten digu, hau espazioaren amaigabetasunean edo bere zatiketa mugagabeen kontsideratuta ere, ezen, gure adimen ahulak hortik lortu ahal izan dituen ezagupenen ondoren ere hizkuntzak bere adierazkortasuna galtzen baitu hainbeste mirakulu handien aurrean, zenbaki guztiek neurtzeko duten indarra galtzen baitute, eta gure pentsamenduek ere mugapen oro galtzen baitute, halako molde, non osokiaren gure judizioa hitzik gabeko baina esangura gehiago duen harridura bihurtzen baita. Edonon efektuen eta kausen katea ikusten dugu, helburuen eta baliabideen katea, sortzearen eta iraungitzearen erregularitasuna, eta ezer ez denez berenez iristen orain aurkitzen den egoerara, orduan gauza bakoitzak beti beste gauza bat erakusten du bere kausa gisa, zeinak beharrezkoa egiten duen galdekizunarekin jarraitzea, eta halako molde egiten du, non honela orotasun osoak ezerezaren amildegian hondoratu beharko bailuke, baldin eta ez balitz onartuko beharbadako gauza amaigabe honetatik at berez jatorrizkoa eta beregaina den zerbait dagoela, hots, hura eusten duena eta bere jatorriaren kausa gisa aldi berean bere jarraipena segurtatzen duen zerbait. Zein handia pentsatu behar da kausa goren hau (munduko gauza guztiei dagokienez)? Mundua ez dugu ezagutzen bere eduki guztian, are gutxiago dakigu bere handitasuna estimatzen, ahalgarria den guztiarekin alderatuz. Zerk galarazten digu, ordea, kausalitateari dagokionez zerizan azkena eta goren behar badugu, aldi berean, betegintzarrearen mailaren arabera ere *ahalgarria den beste guztiaren gainean ezartzea*? Hau erraz egin dezakegu, baina adigai abstraktu baten zirrimarra ahularen bitartez soilik, noski, baldin eta bertan, substantzia bakar bat den aldetik, betegintzarre ahalgarri oro bateratua errepresentatzen badugu; adigai hau gure arrazoimenak printzipioak aurrezteko egiten duen eskakizunari dagokio, kontraesanik ez du jasotzen bere baitan eta arrazoimenaren erabileraren hedapenarekin bateragarria da esperientzia bertan halako ideiak ordenari eta helburutasunari ematen dien gidaren bitartez eta, bestalde, inon ez dio aurka egiten esperientzia bati era erabakigarrian.

Froga honek beti begirunez aipatua izatea merezi du. Zaharrena, argiena eta giza arrazoimen arruntari gehien egokitzen zaiona da. Izadiaren estudioa bizitzen du, bere izatea izaditik jasotzen du eta horren bitartez beti indarbertitzen da. Helburuak eta asmoak ekartzen ditu gure behaketak berez aurkitu ez zituen tokira, eta printzipioa izaditik at duen batasun berezi baten gida-hariaren bitartez gure izadiaren ezagupena hedatzen du. Ezagupen hauek, ordea, era berean beren kausan eragiten dute, hots, sortu zituen ideietan, eta sortzaile goren batean sinesmena uste oso baztergaitzeraino arte areagotzen dute.

Beraz, etsitua ez ezik, erabat alferrikakoa ere izango litzateke froga honen autoritateari zerbait kendu nahi izatea. Arrazoimena goratzen da etengabe hain boteretsuak diren eta bere eskuetan beti hazten doazen nahiz eta enpirikoak besterik ez diren froga-oinarrien bitartez, eta ezin da sotilki asmatutako zalantzen bitartez hainbeste hondoratu, non ezingo bailuke bere erabakiezintasun hausnartzaile hartatik atera izadiaren mirakuluari eta mundu-erakinaren maiestateari egindako begirada baten bitartez, harik eta handitasunetik handitasunera sortzaile handieneraino goratu arte, halaber, baldintzatukitik baldintzara sortzaile goren eta baldintzatugaberaino goratu arte.

Nahiz eta jardunbide honen arrazoizkotasunaren eta erabilgarritasunaren aurka ezer ez dugun, baizik, aitzitik, bera gomendatu eta sustatzen dugun, horregatik, ordea, ezin ditugu froga-era honek dituen uziak onartu ziurtasun apodiktikoaz eta faborerik edo sustapen arrotzik behar ez duen onarpenaz, eta kausa onari inolaz ere ezin dio kalterik egin arrazoikerizale harro baten hizkuntza dogmatikoa lasaitasunerako aski den baina baldintzatugabeko menpekotasuna agintzen ez duen sinesmenaren neurketa eta apaltasun tonura jaisteak. Honenbestez, zera baieztatzen dut: froga fisiko-teologikoak zerizan goren baten izatea

inoiz ezingo duela berak bakarrik frogatu, baizik beti froga ontologikoari (berak sarrera gisa soilik erabiltzen duenari) bere gabezia osatzen utzi behar diola, eta beraz, azken froga honek oraindik ere giza arrazoimenak saihestu ezin duen *froga-oinarri ahalgarri bakar*ra barnebiltzen duela (nonbait froga espekulatiborik baldin badago).

Aipatutako froga fisiko-teologikoaren une nagusiak hauek dira: 1) Munduan edonon aurkitzen dira jakintza handiarekin eta asmo determinatuen arabera egindako ordenaketa baten zeinu nabarmenak, bai edukiaren anizkuntasun deskribaezinaren osoki batean, baita hedapenaren handitasun mugagabea ere. 2) Munduko gauzei ordenaketa helburudun hau erabat arrotza zaie, eta ausaz baino ez zaie atxikitzen, h. d., gauza ezberdinen izaerak ezin du berez bateratzen diren hainbeste baliabideren bitartez asmo determinatuetan bat etorri, baldin eta benetan arrazoizko printzipio ordenatzaile baten bitartez oinarrian dautzan ideien arabera horretarako aukeratuak eta antolatuak ez badira izan. 3) Kausa bikain eta jakintsu bat (edo gehiago) existitzen da, beraz, itsuki ekiten duen izadi ahalguztidun gisa, *emankortasunaren* bitartez ez ezik, intelgentzia gisa *askatasunaren* bitartez ere munduaren kausa izan behar duena. 4) Kausa honen batasuna eraikin artifizial bateko osakideak diren munduko zatiek elkarrekin duten harremanaren batasunetik abiatuta inferi daiteke, eta gainera ziurtasunez inferi daiteke gure behaketaren objektuetan, baina egia-itxuraz analogiaren oinarri-esakune guztien arabera.

Arrazoimenak izadiaren produktu batzuek giza antzeak sortzen duen produktuarekin duten analogiatik (etxe, itsasontzi, erlojuekin duen antzekotasuna dela eta), antze honek izadiari bortxaz eragiten dionean eta hura behartzen duenean bere helburuen arabera jokatu beharrean guretar moldatzera, halako kausalitatea, hots, adimena eta nahimena, izadiaren oinarrian dautzala inferitzen duenez, baldin eta askatasunez arazlea den izadiaren (antze oro eta agian arrazoimena bera lehenik ahalbidetzen duena) barneko ahalgarritasuna gizatiarretik gain dagoen beste antze batetik eratortzen badu, agian kritika transzendental zorrotzenak jasan ezingo lukeen inferentzia-era dena; bada, hemen, dena dela, zera aitortu behar da berezko arrazoimenarekin bere inferentziari buruz eztabaidatu gabe: behin kausa bat aipatu beharko bagenu, hemen halako sorketa helburudunekin analogian baino seguruago ezingo genukeela jokatu, zeinaren kausa eta efektuaren era osorik ezagunak zaizkigun bakarrak diren. Arrazoimenak ezingo luke bere burua legeztatu, berak ezagutzen duen kausalitateetik berak ezagutzen ez dituen argiketa oinarri ilun eta frogagaitzetara igaro nahiko balu.

Izadiaren hainbeste egoeraren helburutasunak eta harmoniak inferentzia honen arabera formaren beharbadakotasuna soilik frogatu beharko lukete, baina ez materiarena, h. d., substantziarena munduan; izan ere, azken hau lortzeko, oraindik munduko gauzak beren baitan halako ordena eta adostasunerako ezgaiak direla frogatu ahal izan beharko litzateke lege orokorren arabera, baldin eta bere *substantziaren arabera* ere jakintza goren baten produktuak ez balira; horretarako, ordea, giza antzearekin analogia baino erabat bestelako froga-oinarriak beharko lirateke. Frogak, beraz, gehienez *munduaren antolatzailea* frogatuko luke, berak lantzen duen ekaiaren baliogarritasunaz oso zedarriztatua egongo litzatekeena, ez, ordea, *munduaren sortzailea*, zeinaren ideia dena menperatzen zaion, inolaz ere aski izango ez litzatekeena aurrean dugun asmo handiarentzat, hots, jatorrizko zerizan oroaskiduna frogatzea. Materiaren beharbadakotasun bera frogatu nahiko bagenu, orduan argumentu transzendental batera ihes egin beharko genuke, hau izaki, ordea, hemen saihestu behar zena.

Inferentzia, beraz, erabat beharbadako egitura den munduan hain osoki behatzen den ordenatik eta helburutasunetik berari *dagokion* kausa baten izatera doa. Kausa honen adigaiak, ordea, oso *determinatua* den zerbait eman behar digu aditzera kausa beraz, eta berak ezin du izan, botere, jakintza, eta halako ezaugarri oro baino, hitz batean, zerizan oroaskidunaren gisa betegintzarre ororen jabe den zerizana baino. Izan ere, botere eta bereizgarritasun *oso handia*, harrigarria eta neurtezinaren predikatuek ez dute ezein adigai determinaturik eskuratzen, eta benetan ez dute esaten berbaitango gauza zer den, baizik objektuaren handitasunaren hartueman-errepresentazioak besterik ez dira, zeinak (munduaren) behatzaileak berekin eta bere ulermen-indarrarekin alderatzen dituen, eta goratzaileak suertatzen dira, bai objektua handitzen bada, baita subjektu behatzailea berekin hartuemanean txikiagoa bihurtzen bada ere. Gauza baten (betegintzarrearen) handitasunari dagokionez ez dago oro har ezein adigai determinaturik, betegintzarre ahalgarri oro jasotzen duena izan ezik, eta errealitatearen orotasuna (omnitud) besterik ez da osoki determinatzen adigaian.

Ez dut onartu nahi inor berak behatzen duen munduaren handitasunak (hedapena zein edukiari dagokienez) ahalguztiduntasunarekin duen hartuemana, munduaren ordenak jakintza gorenarekin duena, munduaren batasunak sortzailearen batasun absolutuarekin duena, eta abar aditzera ausartuko denik. Beraz, Teologia fisikoak ezin du munduaren kausa gorenaren ezein adigai determinaturik eman, eta horregatik, ezin du nahikoa izan era berean Erlijioaren oinarritzapena osatu beharko lukeen Teologiaren printzipioa izateko.

Osotasun absoluturantz aurreratzea erabat ezinezkoa da bide enpirikotik. Baina, hala ere, froga fisiko-teologikoetan egiten da. Zein baliabide erabiltzen da hain amildegi zabala gainditzeko?

Munduaren sortzailearen jakintza, boterea, eta abarren handitasunaren harridurara iritsi ondoren bat-batean froga enpirikoen bitartez bideratutako argumentu hau uzten da eta hasiera bertan munduaren ordenatik eta helburutasunetik inferitutako bere beharbadakotasunera jotzen da. Baina beharbadakotasun honetatik, hortaz, adigai transzendentalen bitartez soilik behar-beharrezkoa denaren izatera jotzen da, eta lehen kausaren beharrezkotasun absolutuaren adigaitik osorik determinatuta dagoen edo determinatzailea den bere adigaira, hots, errealitate orobateratzaile batera. Beraz, froga fisiko-teologikoa bere enpresan trabatzen da, bat-batean estualdi horretatik irteteko froga kosmologikora jauzia egiten du, eta hau ezkutuko froga ontologikoa baino ez denez gero, orduan bere asmoa benetan arrazoimen hutsaren bitartez soilik betetzen du, nahiz eta hasieran honekin izan lezakeen kidetasun oro ukatu zuen eta dena esperientziazko froga argiari esleitu izan zion.

Teologo fisikoek, beraz, ez dute kariarik froga-era transzendentalaren aurka hain zakarrak izateko eta bera izadiaren ezagule igarleek duten harrokeriarekin pentsalari ilunen armiarma balitz bezala mesprezatzeko. Izan ere, haiek etsaminatu nahiko balira, orduan zera aurkituko lukete: izadiaren eta esperientziaren lurraldean tarte on bat ibili ondoren eta, hala ere, beti bere arrazoimenaren aurrean agertzen den objektua hain urrun ikusi arren, bat-batean lurralde hori uzten dutela eta ahalgarritasun soilen erresumara igarotzen direla, non ideien hegoen gainean beren azterketa enpirikoei ihes egin zien guztira hurbiltzeko itxaropena zuten. Azkenean, halako jauzi boteretsuari esker sendoki oin hartu zutela uste izan ondoren jadanik determinatutako adigaia (bere jabegora iritsi direla, nola jakin gabe) sorkuntzaren alor osora hedatzen dute, eta arrazoimen hutsaren produktua besterik ez zen ideala erakusten dute esperientziaren bitartez, nahiz eta hau desagokiro eta objektuaren duintasunak eskatzen duen mailaren azpitik egiten duten, ezagutza edo auresuposizio horretara esperientzia bera ez den beste oinezkoen zaldainetik iritsi direla aitortu nahi izan gabe.

Hainbestez, zerizan gorenaren jatorrizko zerizan bakar baten froga egiterakoan froga fisiko-teologikoaren oinarrian kosmologikoa datza, honen oinarrian, ordea, ontologikoa, eta hiru bide hauez gain arrazoimen espekulatiboari besterik geratzen ez zaionez gero, orduan arrazoimenaren adigai huts soiletatik abiatutako froga ontologikoa da arrazoimenaren froga ahalgarri bakarra, baldin eta adimenaren erabilera enpiriko orotatik hainbeste goratzen den esakunearen froga nolabait ahalgarria bada.

Hirugarren atalburuko

Zazpigarren atala

Arrazoimenaren printzipio espekulatiboetatiko Teologia ororen kritika

Teologiaz jatorrizko zerizanaren ezagutza ulertzen badut, orduan hau edo arrazoimen hutsetikoa (theologia rationalis) edo agerkuntzatikoa da (theologia revelata). Lehen ezagutzak bere objektua arrazoimen hutsaren bitartez soilik jasotzen du, adigai transzendental soilen bidez (ens originarium, realissimum, ens entium) eta Teologia *transzendental*a izena du edo bere objektua (gure arimaren) izaeratik ateratzen duen adigai batetik jasotzen du, inteligentzia goren gisa, eta *Natur* Teologia izena beharko luke. Teologia transzendental besterik onartzen ez duenari *deista* deitzen zaio, *Natur* Teologia ere onartzen duenari *teista*. Lehenak, edonola ere jatorrizko zerizanaren izatea arrazoimen soilaren bitartez ezagut dezakegula onartzen du, baina horren adigaia transzendental soilik izaki, hots, errealitate oro duen zerizan batena besterik ez, zehazkiago determinatu ezin den zerizan batena. Bigarrenak baieztatzen du arrazoimena objektua honek izadiarekin duen analogiaren bitartez zehazkiago determinatzeko gai dela, hots, adimenaren eta askatasunaren bitartez beste gauza ororen jatorrizko oinarria bere baitan barnebiltzen duen zerizan gisa. Hark, beraz, *munduaren kausa* bat soilik errepresentatzen du (erabakitzeke geratzen da ea bere izaeraren beharrezkotasunaren edo askatasunaren bitartez ote den), honek, berriz, *munduaren sortzaile* bat.

Teologia transzendental edo jatorrizko zerizanaren izatea oro har esperientzia batetik eratortzea pentsatzen duena da (hau gertatzen deneko munduari buruz zerbait zehazkiago determinatu gabe), eta *Kosmoteologia* izena du, edo bere izatea adigai soilen bitartez esperientziaren laguntzarik gabe ezagutzen duela sinesten du, eta *Ontoteologia* deitzen zaio.

Natur Teologiak munduaren sortzailearen berekitasuna eta izatea inferitzen ditu mundu honetan aurkitzen den antolaera, ordena eta batasunetik abiatuta, bertan bi eratako kausalitatea eta beren erregela onartu direla, hots, izadia eta askatasuna. Horregatik, mundu honetatik izadiaren edo etikaren ordena eta betegintzarre ororen printzipioa den inteligentzia gorenera goratzen da. Lehen kasuan *Teologia fisikoa* izena du, azkenengoan, *Teologia moral*¹³⁶.

Eskuarki Jainkoaren adigaiak gauzen erro gisa itsuki ekiten duen betiereko izadia ez ezik, adimenaren eta askatasunaren bitartez gauzen sortzailea izan behar duen zerizan gorena ere ulertzen denez, eta adigai hau soilik interesatzen zaigunez gero, orduan zorrozki jokatzuz *deistei* Jainkoan sinesmena ukatu ahal izango genieke, jatorrizko zerizanaren edo kausa gorenaren baieztapena soilik utziz. Hala ere, inor salatu ezin daitekeenez zerbait baieztatzen ez ausartzeagatik hori ukatu nahi izateaz, orduan onberagoa eta zuzenagoa da esatea: *deistak Jainkoan* sinesten duela, *teistak Jainko bizi* batean (summa intelligentia). Orain arrazoimenaren saialdi hauen guztien iturri ahalgarriak aztertu nahi ditugu.

Hemen ezagutza teoretikoa eta praktikoa honela ezaugarritzearekin askiesten naiz: lehenaren bitartez existitzen *dena* ezagutzen dut, bigarrenaren bitartez, berriz, *izan behar duena* errepresentatzen dut. Honen arabera arrazoimenaren erabilera teoretikoaren bitartez zerbait dela a priori ezagutzen dut (beharrezkoa bezala); praktikokoaren bitartez, ordea, gertatu behar duena a priori ezagutzen dut. Zerbait dela, edo gertatu behar duela, zalantza barik ziurra baina baldintzatua besterik ez bada, orduan edo baldintza determinatu jakina horretarako behar-beharrezkoa da edo hautazkoa eta ausazkoa balitz bezala soilik auresuposa daiteke. Lehen kasuan, baldintza postulatu egiten da (per thesin), bigarrenean, suposatu egiten da (per hypothesin). Behar-beharrezkoak diren lege praktikoa (moralak) daudenez gero, orduan hauek izateren bat auresuposatzen baldin badute bere indar *behartzailearen* ahalgarritasunaren baldintza gisa, hainbestez, izate hau *postulatu* egin behar da, zeren baldintza determinatu hori inferitzeko erabiltzen den baldintzatukia bera a priori behar-beharrezkoa bezala ezagutzen baita. Etorkizunean lege moralaz erakutsiko dugu: zerizan goren baten izatea auresuposatu ez ezik, gainera beste ikuspuntu batetik behar-beharrezkoa denez postulatu ere egiten duela bidezki, nahiz praktikoki besterik ez egin noski; baina inferentzia-era hau oraingoz alde batera uzten dugu.

Solasgaia existitzen dena bada (eta ez izan behar duena), esperientzian soilik ematen den baldintzatukia beti ere beharbadako zerbait gisa pentsatzen denez gero, orduan berari dagokion baldintza ezin da hortik abiatuta absolutuki beharrezkoa bezala ezagutu, baizik erlatiboki beharrezko auresuposizio gisa besterik ez du balio edo, are gehiago, baldintzatukiaren arrazoimen-ezagutzarako *beharrezkoa* baina bere baitan a priori hautazkoa den auresuposizio gisa. Gauza baten beharrezkotasun absolutua ezagutza teoretikoan ezagutuko balitz, orduan hau apriorizko adigaietatik abiatuta soilik gerta liteke, inoiz ez, ordea, esperientziaren bitartez emandako izate baten kausaren eskutik.

Ezagutza teoretikoa *espekulatiboa* da objektu bati edo objektu baten halako adigaiari badoakio, bertara ezein esperientzian ere ezin daitekeelarik iritsi. Honi *izadiaren ezagutza* kontrajartzen zaio, esperientzia ahalgarrian eman daitezkeen objektu edo beren predikatuei besterik ez doakiena.

Gertatzen denetik (enpirikoki beharbadakoa dena) efektua den aldetik kausa inferitzeko oinarri-esakunea izadiaren ezagutzaren printzipioa da, ez ezagutza espekulatiboarena. Izan ere, beraz abstraitzen bada oro har esperientzia ahalgarriaren baldintzak barnebiltzen dituen oinarri-esakune gisa, eta enpirikoa den oro uzten den heinean, oro har beharbadakoa denari aplikatu nahi bazaio, orduan ez da halako esakune sintetikoaren legeztapenik geratzen, hor den zerbaitetik osorik ezberdina dena (kausa deitzen zaiona) nola igaro naitekeen ikustearren; gainera, kausa baten adigaiak, beharbadakoarenak bezala, bere errealitate objektiboa in concreto ulergarria bihur lezakeen esanahi oro galtzen du halako erabilera espekulatibo soilean.

Hortaz, munduko *gauzen* izatetik beren kausa inferitzen bada, orduan hau ez dagokio arrazoimenaren berezko erabilerari, baizik *espekulatiboari*; zeren hark gauzak berak (substantziak) ez, baina *gertatzen* dena soilik, beraz, beren *egoerak*, enpirikoki beharbadakoak direnak, jartzen baititu kausaren batekin harremanean; substantzia bera (materia) izateari dagokionez beharbadakoa izateak arrazoimen-ezagutza espekulatibo soilaren beharko luke. Solasgaia, ordea, munduaren forma, bere loturaren era eta bere aldakuntza ere izango balitz, eta hortik mundutik osoki ezberdina den kausa bat inferitu nahiko banu, orduan hau berriro ere arrazoimen espekulatibo soilaren judizio bat izango litzateke, zeren objektua (Gegenstand) hemen ezein esperientzia ahalgarriaren objekturik (Objekt) ez bailitzateke izango. Baina, hainbestez, esperientziaren alorraren barnean baino balio ez duen eta bertatik at erabilerarik gabekoa den eta gainera esanahirik gabekoa ere baden kausalitatearen oinarri-esakunea erabat desbideratuko litzateke bere determinaziotik.

Arrazoimenaren erabilera espekulatibo soilaren saialdi oro, beraz, Teologiari dagokionez osorik antzua dela eta bere barneko antolaerari dagokionez ere ezer ez eta hutsala dela baieztatzen dut; baina bere berezko erabileraren printzipioek inolaz

ere Teologiaren batera igortzen ez dutenez gero, ondorioz, baldin eta lege moralak oinarrian ezartzen ez badira edo gida-hari gisa erabiltzen ez badira, orduan inon ezin da arrazoimenaren Teologiarik izan. Izan ere, adimenaren oinarri-esakune sintetiko guztiek erabilera imanentea dute; zerizan goren baten ezagutzarako, ordea, beren erabilera transzendentea behar da, baina gure adimenak ez du horretarako hornidurarik. Enpirikoki balio duen kausalitatearen legeak jatorrizko zerizanera gidatuko balu, orduan hau esperientziako objektuen katean kokatuko litzateke; hainbestez, bera ere baldintzatua litzateke agerpen oro bezala. Baina esperientziaren mugez goiti jauzi egitea zilegi balitz efektuek beren kausekin duten harremanaren lege dinamikoaren indarrez: zein adigai eman diezaguke jardunbide horrek? Inolaz ere ez zerizan goren baten adigaia, zeren esperientziak inoiz ez baitigu eskuratzen efektu ahalgarri ororen artean handiena dena (bere kausaren lekukotasuna emango lukeen efektu gisa). Zilegi balitzaigu, gure arrazoimenean hutsunerik ez uztearren soilik, determinazio osoaren gabezia hori betegintzarre goren eta jatorrizko beharrezkotasunaren ideia bitartez betetzea, orduan hau fabore gisa onar liteke, baina ezin da eskatu frogak ukaezinaren eskubidetik abiatuta. Froga fisiko-teologikoak, beraz, agian beste frogetarako (halakoak lor badaitezke) eragingarritasuna eman diezaike, espekulazioa begiespenarekin elkarlotzen duen heinean; bere baitan, ordea, berak *bakarrik* zeregina osatu ahal izan baino gehiago adimena prestatzen du ezagutza teologikorako, eta norabide zuzen eta berezkoa ematen dio, hori lor dezan.

Hemendik ederki ikusten da galdekizun transzendentalek erantzun transzendentalak soilik baimentzen dituztela, h. d., enpirikoa den ezer ez duten apriorizko adigai soiletatik abiatzen diren erantzunak. Hemen, ordea, galdekizuna sintetikoa da nabarmenki eta gure ezagutzaren hedapena eskatzen du esperientziaren muga oroz goiti, hots, gure ideia soilari dagokion eta inoiz esperientzia bati berdindu ezin zaion zerizan baten izaterantz. Gure goragoko frogen arabera, ordea, apriorizko ezagutza sintetiko oro esperientzia ahalgarri baten baldintza formalak adieraziz baino ezin daiteke izan, eta oinarri-esakune guztiek, beraz, baliotasun imanentea besterik ez dute, h. d., ezagutza enpirikoaren objektuei edo agerpenei soilik lotzen zaizkie. Beraz, jardunbide transzendentalaren bitartez ez da ezer lortzen arrazoimen espekulatibo soilaren Teologiaren mesedetan.

Nahiago izango balitz, ordea, gorago Analitikan emandako frogak denak zalantzan jartzea aspalditik erabilitako frogak oinarrien pisuaren indar limurtzailea kentzen uztea baino, orduan ezin zaio uko egin eskakizun hau gogobetetzeari, nik zera eskatzen baldin badut: legeztatu egin beharko litzatekeela bederen ea nola eta zein argipenen bitartez ausartzen den inor hegan eginez ideia soilen boterearen indarrez esperientzia ahalgarri oro gainditzera. Inor frogak berriekin edo frogak zahar hobetuekin niregana ez etortzea eskatuko nuke. Izan ere, nahiz eta hemen aukera handirik ez izan, azkenean frogak espekulatibo soil denak batean biltzen baitira, hots, frogak ontologikoak, eta hainbestez, ez dut beldurrik egon behar bereziki sentsuetatik askatutako arrazoimenaren aldeztaille dogmatikoen emankortasunagatik zirikatua izateaz; honelako saialdi bakoitzean inferentzia faltsua aurkitzeko eskakizuna saihestu eta horren bitartez bere handiustea hustu nahi ez dudana arren, horregatik oso eztabaidazalea naizela pentsatu gabe; baina horrela ez da inoiz osorik ezeztatuko behin limurtze dogmatikoetara ohitu direnen zori hobearen itxaropena, eta horregatik arrazoizko eskakizun bakarrari eusten natzaio, hots, orokorrean eta giza adimenaren izaeratik abiatuta, gainerako ezagutza iturri denekin batera, zera legeztatu behar dela: ea nola hasi nahi den ezagutza erabat a priori hedatzen eta puntu bateraino luzatzen, non ezein esperientzia ahalgarriarik, eta beraz, ezein baliabiderik ere ez den nahikoa geuk pentsatutako adigairen bati bere errealitate objektiboa segurtatzeko. Adimena adigai honetara edozein modutan iritsi dela ere, bere objektuaren izatea ezin da bertan analitikoki aurkitu, zeren objektuaren *existentziaren* ezagutza bera bere baitan *pentsamendutik at* ezarria izateaz osatzen baita. Erabat ezinezkoa da, ordea, adigai batetik berenez irtetea eta elkarlotura enpirikoari jarraiki gabe (honen bitartez, ordea, beti agerpenak soilik ematen direla) objektu berrien aurkikuntzara eta zerizan transzendenteetara iristea.

Arrazoimena bere erabilera espekulatibo soilan asmo hain handi honetarako inolaz ere gai ez den arren, hots, zerizan goren baten izatera iristeko, dena dela, bertan onura handia lortzen du bere ezagutza *zuzentzeko* –baldin eta hau beste nonbaitetik sortu ahal izango balitz–, baita berekin eta beste edozein asmo inteligiblerekin bateratzeko eta jatorrizko zerizan baten adigaiaren aurka egon litekeen guztitik eta zedarritzapen enpiriko ororen nahasketatik arazteko ere.

Teologia transzendentalak, beraz, bere ezgaitasun oro dela ere, oraindik erabilera negatibo garrantzitsua du, eta gure arrazoimenaren zentsura jarraitua da neurri transzendental baino onartzen ez duten ideia hutsekin soilik zerikusia duenean. Izan ere, noizbehin beste ikuspuntu batetik, agian harreman praktikoa, zerizan goren eta oroaskidunaren *aurresuposizioak* bere baliotasuna aurkakotasunik gabe baieztatuko balu inteligentzia goren gisa, orduan garrantzi handienekoa litzateke adigai hau bere alde transzendentearen beharrezko zerizan oroerrealaren adigai gisa zehazki determinatzea, eta errealitate gorenaren aurka dagoena, hots, agerpen soilari dagokiona (antropomorfismoari dagokiona adiera zabalean) deuseztatzea, eta aldi berean

kontrajarritako baieztapen denak gaintitzea, *ateistak*, *deistak* edo *antropomorfistak* direla ere; hau honelako landualdi kritikoan oso erraza gertatzen da, halako zerizanaren izatearen baieztapenari dagokionez giza arrazoimenaren ahalmen eza begibistan jartzeko oinarri beraiek halabeharrez era berean kontrajartzen diren halako baieztapen ororen ezintasuna frogatzeko balio duten heinean. Izan ere, nondik nahi du norbaitek arrazoimenaren espekulazio hutsetik abiatuta ikuskera hau lortu, alegia, ez dagoela halako zerizanik guztiaren jatorrizko oinarri gisa, edo hari hauetako berekitasunik ez zaiola egokitzen, hots, guk bere ondorioen arabera zerizan pentsatzaile baten errealtate dinamikoarekin analogian errepresentatzen ditugun berekitasunak, edo, azken kasu honetan, haiek ezinbestean sentimenak esperientziaren bitartez ezagutzen ditugun inteligentziei ezarritako zedarriztapenen menpean egon behar dutela.

Zerizan gorenak arrazoimenaren erabilera espekulatibo soilarentzat ideal soil baina *akatsik gabekoa* dirau, giza ezagutza osoa bukatu eta burutzen duen adigaia, eta bere errealtate objektiboa honela frogatu ezin badaiteke ere, ezin da kontraesan ere egin, eta gabezia hau osa dezakeen Teologia moral batek egon beharko balu, orduan, honenbestez, aldezturik problematikoa besterik ez zen Teologia transzendentalak haren ezinbestekotasuna frogatzen du bere adigaiaren determinazioaren bitartez eta sentimenak sarri iruzurtu duen eta bere ideiekin beti bat etortzen ez den arrazoimenaren etengabeko zentsuraren bitartez. Beharrezkotasuna, amaigabetasuna, batasuna, mundutik at izatea (ez munduaren arima gisa), betikotasuna denboraren baldintzarik gabe, oropresentzia espazioaren baldintzarik gabe, ahalguztiduntasuna, eta abar, predikatu transzendental soilak dira, eta horregatik, beren adigai araztuak, Teologia orok oso beharrezkoak dituenak, Teologia transzendentetik soilik lor daitezke.

Eranskina

Dialektika transzendentalari

Arrazoimen hutsaren ideien erabilera erregulatzaileaz

Arrazoimen hutsaren saialdi dialektiko ororen emaitzak ez du guk jadanik Analitika transzendentalean frogatu genuena soilik baieztatzen, hots, esperientzia ahalgarriaren alorraz goiti joan nahi duten gure inferentzia denak iruzurtiak eta oinarri gabekoak direla, baizik gauza berezi hau ere irakasten digu aldi berean: giza arrazoimenak hemen muga hori gaintitzeko berezko joera bat duela, ideia transzendentalak adimenari kategoriak bezain berezkoak zaizkiola, nahiz bereizketa honekin, alegia, azkenek egiara gidatzen badute ere, h. d., gure adigaiaren eta objektuen bat etortzera, lehenek, berriz, itxura soil baina ukazina sortzen dutela, zeinaren iruzurra kritika zorrotzenaren bitartez apenas ezeztatu daitekeen.

Gure indarren izaeran oinarritua dagoen guztiak helburuduna izan behar du eta bere erabilera zuzenarekin bat etorri behar du, baldin eta gaizki-ulertze jakin bat saihestu eta bere benetako norabidea aurkitu nahi badugu. Beraz, ideia transzendentalek, uste ororen arabera, beren erabilera on eta ondorioz *imanentea* izango dute, nahiz eta, beren esanahia ezezagutzen bada eta gauza errealean adigaitzat hartzen badira, orduan aplikazioan transzendenteak, eta horregatik, iruzurtiak izan daitezkeen. Izan ere, ez ideia bera bere baitan, baizik bere erabilera besterik ez da esperientzia ahalgarri osoari dagokionez *hegalaria* (transzendentea) edo *etxetiarra* (imanentea) dena, berak bere autugaia diren objektuei begira hartzen duen bidearen arabera, edo zuzenki ustez dagokion objektu baterantz, edo soilik adimenaren erabilerarantz oro har, eta subrepzioaren hutsegite denak beti juzgamenari leporatu beharreko gabeziak dira, inoiz ez, ordea, adimenari edo arrazoimenari.

Arrazoimena ez zaio inoiz objektu bati zuzenean lotzen, baizik adimenari besterik ez, eta honen bitartez bere erabilera enpiriko propioari, eta beraz, ez du ezein (objektuen) adigairik *sortzen*, baizik eta hauek *ordenatu* besterik ez ditu egiten, eta hauei beren hedapen ahalbait handiaren izan dezaketen batasuna ematen die, h. d., ilaren osotasunari dagokionean, eta adimena ez da honetaz inolaz ere arduratzen, baizik adigaiaren arabera edonon baldintzen *ilarak sortzen* dituen elkarloturaz besterik ez. Arrazoimenak, beraz, benetan adimena eta bere jarrera helburuduna soilik ditu objektutzat, eta adimenak anizkuntia objektuan adigaiaren bitartez bateratzen duen bitartean arrazoimenak bere aldetik adigaiaren anizkuntia bateratzen du ideien bitartez, batasun kolektibo jakin bat ezartzen duen heinean adimenaren ekintzen xede gisa, zeinak gainerakoan batasun distributiboaz soilik jarduten duten.

Hainbestez, zera baieztatzen dut: ideia transzendentalek ez dute inoiz erabilera eratzailerik, objektu jakinen adigaiak eskuratuko lituzkeen erabilerarik, eta halakotzat ulertzen diren kasuan adigai sofistikoak (dialektikoak) besterik ez dira. Bestalde, ordea, erabilera erregulatzaile aipagarria dute, ezinbestean beharrezkoa dena, hots, adimena xede jakin batera gidatzea, bere erregela guztien norabide-lerro denak puntu baten biltzen direlarik bere bila, zeinak, ideia soila izan arren (focus imaginarius), h. d., benetan adimenaren adigaien abiapuntua ez den arren, osorik esperientzia ahalgarriaren mugetatik at datzan heinean, dena dela, beraiei batasun handiena hedapen handienarekin batera emateko balio duen. Hemendik sortzen da iruzur hau, hain zuzen, norabide-lerro hauek ezagutza enpiriko ahalgarriaren alorretik at egongo litzatekeen objektu beretik etorriko liratekeela (objektuak ispiluaren azalaren atzean ikusten diren legez), baina ilusio hori (iruzur dezan saihesta daitekeela), dena dela, ezinbestean da beharrezkoa, baldin eta begi-bistan ditugun objektuez gain gure atzean urruti daudenak ikusi nahi baditugu, h. d., gure kasuan adimenari esperientzia jakin bakoitzaz (esperientzia ahalgarri osoaren zatiaz) goiti doan hedapena, eta beraz, hedapen ahalbait handiena eta urrunena eman nahi badiogu.

Gure adimenaren ezagutzak bere hedapen osoan gainbegiratzen baditugu, arrazoimenak erabat berezia duen eta sortzen saiatzen duen hori ezagutzaren alde *sistematikoa* dela aurkitzen dugu, h. d., ezagutzaren bilkura printzipio batetik abiatuta. Arrazoimenaren batasun honek beti ideia bat aurreuposatzen du, hots, zatien ezagutza determinatuaren aurretik doan eta zati bakoitzari bere kokapena eta gainerakoekin duen hartueman a priori determinatzeko baldintza barnebiltzen duen ezagutzaren osoki batek duen formaren ideia. Hainbestez, ideia horrek adimenaren ezagutzaren batasun osoa postulatu duen, zeinaren indarrez ezagutza hau beharbadako agregatua ez ezik, beharrezko legeen arabera lotutako sistema ere bihurtzen den. Ezin da esan benetan ideia hori objektu baten adigai denik, baizik adigai horren batasun osoarena, hau adimenari erregela gisa baliagarria zaion heinean. Halako arrazoimenaren adigaiak ez dira izaditik sortzen, aitzitik, izadiari galdetzen diogu ideia horiei buruz, eta gure ezagutza akasduztat jotzen dugu, hau ideiei egokitua ez dagoen artean. *Lur hutsa, ur hutsa, aire hutsa*, eta abar, zailki aurkitzen direla aitortzen da. Hala eta guztiz ere, adigai horiek beharrezkoak dira (arrazoimenean soilik dutenak jatorria hustasun osoari dagokionez) izadiaren kausa hauetako bakoitzak agerpenean duen parte hartzea egokiro determinatzearen, eta horrela, materia guztiak lurrean biltzen dira (pisu soilean, nolabait esateko), gatzean eta erregaietan (indar gisa), azkenik uran eta airean eroaleak diren aldetik (makinetan, nolabait esateko, aurrekoen eraginaren baliabide gisa), materien efektu kimikoak mekanismo baten ideiarri jarraiki argitzearen. Izan ere, benetan horrela adierazten ez den arren, oso erraz aurkitzen da arrazoimenak izadiaren ikertzaileen sailkaketetan duen halako eragina.

Arrazoimena berezia dena orokorra denetik eratortzeko ahalmena baldin bada, orduan, edo orokorra dena jadanik bere baitan ziurra eta emana da, eta hainbestez, menperaketa egiteko juzgamena soilik eskatzen du, eta berezia dena horren bitartez halabeharrez determinatzen da. Honi arrazoimenaren erabilera apodiktikoa deitu nahi diot. Edo bestela orokorra dena *problematikoki* soilik onartzen da eta ideia soila da, baina berezia dena ziurra da, nahiz eta ondorio horren erregelaren orokortasuna oraindik arazotsua izan; horrela, osotara ziurrak diren hainbat kasu berezi saiatzen dira erregela honetatik segitzen ote diren ikusteko, eta hainbestez, aipatu beharreko kasu berezi denak itxuraz bertatik ondorioztatzen badira, orduan erregelaren orokortasuna inferitzen da eta honetatik, ondoren, bere baitan emanak ez diren kasu guztiak. Honi arrazoimenaren erabilera hipotetikoa deitu nahi diot.

Arrazoimenaren oinarrian ezarritako ideietatik abiatutako bere erabilera hipotetikoa, ideia hauek adigai problematikoak diren aldetik, ez da benetan *eratzaillea*, hots, bere eskutik zorroztasun osoz juzgatu nahi bada, orduan hipotesi gisa onartua izan den erregela orokorraren egia ondorioztatzen den moduan antolatua dagoen erabilera; izan ere, nola nahi dira jakin ondorio ahalgarri denak, hauek frogatzen baldin badute oinarri-esakune honen orokortasuna onartutako oinarri-esakune berberatik ondorioztatzen diren heinean? Arrazoimenaren erabilera erabilera erregulatzailea besterik ez da, horrela ezagutza bereziei batasun ahalbait handiena emateko eta horren bitartez erregela orokortasunera *hurbiltzeko*.

Arrazoimenaren erabilera hipotetikoa, beraz, adimenaren ezagutzen batasun sistematikorantz doa, hau, berriz, erregelen *egiaren frogarria* da. Alderantziz, batasun sistematikoa (ideia soil gisa) batasun *proiektatua* besterik ez da, zeina ezin den begiztatu emana balego bezala, baizik arazo gisa besterik ez; honek anizkunkiarentzat eta adimenaren erabilera bereziarentzat printzipio bat bilatzeko balio du, eta hau horren bitartez eman ez diren kasu guztiez goiti gidatzeko eta hauek biltzeko ere bai.

Hemendik adimenaren ezagutza anizkunaren batasun sistematikoa edo arrazoimen-batasuna printzipio *logikoa* dela besterik ez da ikusten, honela adimenari ideien bitartez laguntzeko bere kabuz erregeletara iristen ez denean, eta aldi berean bere erregelen ezberdintasunari printzipio baten menpeko bateratasuna emateko (sistematikoa), eta horren bitartez, bilkura emateko, hau ahalgarria den heinean. Ea objektuen antolaera, edo hauek objektu gisa ezagutzen dituen adimenaren izaera, bere

baitan batasun sistematikorako determinatua dagoen, eta ea hau a priori maila jakin batean postula daitekeen, baita arrazoimenaren halako interesa aintzat hartu gabe ere, eta beraz, ea esan daitekeen adimenaren ezagutza ahalgarri orok (hauen artean enpirikoak) arrazoimenaren batasuna duela eta printzipio komunaren menpean dardela, zeinetatik ezagutzok eratorriak izan daitezkeen beren ezberdintasuna aintzat hartu gabe; hau arrazoimenaren oinarri-esakune *transzendental* litzateke, zeinak batasun sistematikoa metodo gisa subjektiboki eta logikoki ez ezik, objektiboki ere beharrezkoa bihurtuko lukeen.

Hau arrazoimenaren erabileraren kasu baten bitartez azaldu nahi dugu. Adigaiaren araberrako batasunaren era ezberdinen artean substantzia baten kausalitatearena ere aurkitzen da, zeinari indarra deitzen zaion. Substantzia beraren agerpen ezberdinek lehen begirada batean hainbesteko homogeneotasun eza erakusten dute, non hasieran ia sortzen diren efektuak adina indar onartu behar baitira, giza gogamenean sentsazioa, kontzientzia, irudimena, gogorarena, asmamena, bereizmena, atsegina, irrika, eta abarrekin gertatzen den legez. Hasieran maxima logiko batek agintzen du itxurazko ezberdintasun hori modu ahalbait zabalenean gutxitzea alderaketaren bitartez ezkutuko identitateak aurkituz eta aztertuz ea irudimena kontzientziarekin lotuta gogorarena, asmamena, bereizmena eta agian adimena eta arrazoimena ere ez ote den. *Oinarritzko indar* baten ideia (Logikak ez du esaten ea halakoa existitzen den) indarren anizkuntasunaren errepresentazio sistematikoaren arazoa da behinik behin. Arrazoimenaren printzipio logikoak batasun hau sortzeko eskatzen du ahal den heinean, eta indar baten eta bestearen agerpenak hainbat eta identikoagoak direla aurkitzen denez, orduan eta egia-itxura gehiago du haiek indar bat eta berberaren adierazpen ezberdinak baino ez izateak, zeinak (konparatiboki) beren *oinarritzko indarra* izena jaso dezakeen. Berdin jokatzen da gainerako indarrekin.

Oinarritzko indar alderatzaileak beren artean alderatu behar dira era berean, beren bateratasuna aurkituz, honela oinarritzko indar erradikalera, h. d., absolutura hurbiltzearen. Arrazoimenaren batasun hau, ordea, hipotetikoak baino ez da. Ez da baieztatzen halako batasuna egitatean aurkitu behar denik, baizik arrazoimenaren mesedetan bilatu behar dela, hots, esperientziak eskura ditzakeen erregela anizkuntzako printzipio jakinen antolaketarako bilatu behar dela, eta egingarria denean ezagutzari batasun sistematikoa eman behar zaiola.

Hala ere, adimenaren erabilera transzendental oihartzen dugunean, oro har oinarritzko indar honen ideia hau erabilera hipotetikoaren arazo gisa determinatu ez ezik, honek beretzat erreallitate objektiboa ere hartzen duela erakusten da, horren bitartez substantzia baten indar anizkunen batasun sistematikoa postulatu eta arrazoimenaren printzipio apodiktikoa eratuz. Izan ere, indar anizkunen bateratasuna aurkitzea saiatu gabe ere, halaber, saialdi guztien ondoren bera aurkitu ezin badugu ere, halako bateratasun batek izan behar duela aurreuposatzen dugu, eta hau ez da aipatutako kasuan soilik aurreuposatzen, substantziaren batasuna dela eta, baizik eta arrazoimenak indar anizkunen batasun sistematikoa aurreuposatzen du substantzia asko aurkitzen direnean ere, nahiz eta hauek maila jakin batean homogeneoak izan, oro har material gertatzen den legez, zeren izadiaren lege bereziak orokorragoen menpean baitaude, eta printzipioen aurrezketa arrazoimenaren oinarri-esakune ekonomikoa ez ezik, izadiaren barneko legea ere bihurtzen baita.

Egitatean, ezin da ikusi ea erregelen arrazoimen-batasunaren printzipio logikoa nola izan daitekeen transzendental aurreuposatu gabe, zeinaren bitartez objektu beraiei atxikitzen zaion moduko batasun sistematikoa a priori beharrezkotzat onartzen den. Izan ere, zein eskuduntzarekin eska dezake arrazoimenak erabilera logikoan izadiak aditzera ematen digun indarren anizkuntasuna ezkutuko batasun gisa soilik hartzeko eta bera oinarritzko indar batetik eratortzeko, arrazoimenaren menpean dagoen heinean, baldin eta bere esku balego onartzea era berean ahalgarria litzatekela indar denak ez-homogeneoak izatea eta beren eratorketaren batasun sistematikoa izadiari ez egokitzea? Izan ere, hainbestez, arrazoimenak bere determinazioaren aurka jokatuko luke, bere xedetzat izadiaren antolaketa beteki kontraesango lukeen ideia bat ezarriko balu. Ezin daiteke esan berak batasun hori aldeztetik hartu duenik izadiaren beharbadako antolaketatik arrazoimenaren printzipioen arabera. Izan ere, bera bilatzen duen arrazoimenaren legea beharrezkoa da, zeren guk hura gabe ez baikenuke izango arrazoimenik, hau gabe, ordea, ezta adimenaren erabilera zentzudunik ere, eta honen gabezia egia enpirikoaren ezaugarri gogobetegarrikerik ere ez, eta azkenari dagokionez, beraz, izadiaren batasun sistematikoa aurreuposatu behar dugu, objektiboki balioduna eta beharrezkoa den batasuna.

Aurreuposizio transzendental hau filosofoen oinarri-esakuneetan ezkutatu aurkitzen dugu harriarriki, beraiek bertan beti ezagutu edo aitortu ez badute ere. Eskolaren erregela edo printzipio logikoa da gauza bakanen anizkuntasun orok espeziearen identitatea ez duela baztertzen; espezie ezberdinak *genero* gutxien determinazio ezberdintzat soilik hartu behar direla eta hauek, ordea, oraindik eta *enda* garaigoenak balira bezala, eta abar; beraz, adigai enpiriko ahalgarri ororen batasun sistematiko jakin bat bilatu behar dela, bera adigai garaigo eta orokorragoetatik eratorria izan daitekeen heinean, eta printzipio

hau gabe ez legoke arrazoimenaren ezein erabilerarik, zeren guk orokorra denetik berezia dena inferitu baitezakegu, gauzen berekitasun orokorrak oinarrian ezartzen diren heinean, bereziak hauen menpean daudelarik.

Filosofoek izadian ere halako bateratasuna aurkituko dela auresuposatzen dute hastapenak (printzipioak) beharrik gabe ez direla ugaltu behar dioen eskolaren erregela ezagun honetan («*entia praeter necessitatem non esse multiplicanda*»). Horren bitartez zera esan nahi da: gauza beren izaerak eskaintzen duela arrazoimenaren batasunerako ekaia, eta itxurazko ezberdintasun amaigabeak ez digula galarazi behar bere atzean oinarritzko berekitasunen batasuna somatzea, alegia, determinazio askoren bitartez azkenean anizkutasuna eratortzea ahalbidetzen duten berekitasunen batasuna. Batasun hau ideia soila bada ere, garai orotan halako irrikaz jarraiki zaio, non arrazoi gehiago aurkitzen baitira bere desira leuntzeko bera bizitzeko baino. Lorpen handia izan zen jadanik kimikariek (Scheidekünstler) gatz guztiak bi genero nagusietara murriztu ahal izatea, azidoak eta alkalinoak, eta gainera, bereizketa hau oinarritzko ekaia bat eta berberaren aldaera edo adierazpen ezberdina balitz bezala soilik onartzea saiatzen dute. Lurraren modu anizkunak (harrien eta metalen ekaia ere bai) pixkanaka hirutan, azkenik bitan biltzen saiatu dira; baina honekin oraindik ere gogobete gabe, aldaera hauen atzean genero bakarra dagoela eta gainera lurra eta gatzen printzipio komun bat dela susmatzen duen pentsamendua ezin dute alde batera utzi. Agian sinets liteke hau arrazoimenaren maniobra ekonomikoa besterik ez dela, ahalbait ahalegin gehien aurrezteko, eta saialdi hipotetikoa dela, zeinak, ondo irteten bada, auresuposatutako argiketa-oinarri horiei egia-itxura emango lieken batasun horren bitartez. Hala ere, halako asmo interesatua oso erraz bereizten da arrazoimenaren batasun hori izadiari egokia dela auresuposatzeko edonork erabiltzen duen ideiatik, eta arrazoimena hemen ez dago eskarian, baizik agindu egiten du, batasun honen mugak ezin determina ditzakeen arren.

Eskaintzen zaizkigun agerpenetan hain ezberdintasun handia balego, ez dut esan nahi formaren arabera (izan ere, forman antzekoak izan daitezke), baizik edukiaren arabera, h. d., existitzen diren zerizanen anizkuntasunaren arabera, non giza adimen zorrotzenak ere batzuk besteekin alderatuz antzekotasunik ezingo bailuke aurkitu (ederki pentsa daitekeen kasua), orduan ez zen egongo generoen lege logikorik inolaz ere, eta ez zen generoaren ezein adigairik edo adigai orokorren baten adigairik egongo, ezta adimenik ere, honek haiekin besterik ez baitu zerikusia. Generoen printzipio logikoak, beraz, transzendentalak den beste bat auresuposatzen du, baldin eta izadiari aplikatu behar bazaio (izadiak, hemen, eman ahal zaizkigun objektuak ulertzen ditut). Printzipio honen arabera esperientzia ahalgarri baten anizkuntzian homogeneousotasuna auresuposatzen da halaberharrez (nahiz eta bere maila ezin determina daitekeen a priori), zeren bera gabe ezein adigai enpiriko, eta beraz, ezein esperientzia ere ez bailitzateke ahalgarria izango.

Identitatea postulatu duen generoen printzipio logikoari beste bat kontrajartzen zaio, hots, *espezieena*, zeinak gauzen anizkuntasuna eta ezberdintasuna behar duen genero berberaren menpeko adostasuna alde batera utziz, eta honek adostasunari ezberdintasunari baino arreta gutxiago ez eskaintzeko araua ezartzen dio adimenari. Buruargitasunaren (edo bereizmenaren) oinarri-esakune honek lehenaren xalotasuna (asmamenarena) asko zedarritzatzen du, eta arrazoimenak hemen elkarren aurka dauden bi alderdien interesa erakusten du, alde batetik, *hedapenaren* interesa (orokortasunarena) generoei dagokienez, beste aldetik, *edukiarena* (determinatutasunarena) espezieen anizkuntasunari dagokienez, zeren adimenak lehen kasuan asko pentsatzen baitu bere adigaien *azpian*, bigarrenean, ordea, are gehiago *beraietan*. Hau izadiaren ikertzaileen pentsamolde oso ezberdinetan ere adierazten da, hauen artean batzuek (aipagarriki espekulatiboak direnek), homogeneousotasunaren etsaiek, nolabait esateko, beti generoaren batasuna begiztatzen badute ere, besteek (aipagarriki buru enpirikoek) izadia etengabe hain anizkuntasun handian banatzea saiatzen dute, non bere agerpenak printzipio orokorren arabera juzgatzeko itxaropena ia utzi beharko bailitzateke.

Azken pentsamolde honen oinarrian printzipio logiko bat datza nabarmenki, ezagutza ororen osotasun sistematikoaren asmoa duena generotik hasita bere azpian bernebilduta egon daitekeen anizkuntzira jeisten naizenean, eta horrela sistemari hedapena ematea saiatzen dugu lehen kasuan generora goratzen nintzenean batasuna ematea saiatzen genuen bezala. Izan ere, ea generoaren zatiketa bera ezaugarritzen duen adigaiaren esferatik abiatuta noraino irits daitekeen materiak betetzen duen espaziotik honen zatiketa noraino irits ote daitekeen bezain gutxi ulertzen da. Horregatik, *genero* bakoitzak *espezie* ezberdinak eskatzen ditu, hauek, ordea, *azpi-espezie* ezberdinak eskatzen dituzte, eta era berean esfera bat (hedapena conceptus communis gisa) ez lukeen azken hauetako bat bera ere ez dagoenez gero, orduan arrazoimenak zera eskatzen du bere hedapen handienera: ezein espezie ez dela begiztatuko bere baitan behekoena balitz bezala, zeren hau beti ere bere baitan gauza ezberdinei arrunta zaiena barnebiltzen duen adigai bat baita, hau osoki determinatzen ez duena, eta beraz, hasiera batean

banako bati lotu ezin zaiona, eta ondorioz, beti beste adigaiak, h. d., azpi-espezieak bere azpian barnebildu behar dituenak. Espezifikazioaren lege hau honela adieraz daiteke: «*entium varietates non temere esse minuendas*».

Erraz ikusten da lege logiko hau ere zentzurik eta aplikaziorik gabea izango litzatekeela oinarrian *espezifikazioaren lege* transzendentalik ez balu, zeinak, noski, gure objektuak bihur daitezkeen gauzen (ezberdintasunari dagokion) *amaigabetasun* erreala ez digun eskatzen; izan ere, sailkaketa ahalgarriari dagokionez esfera logikoaren indeterminatutasuna soilik baieztatzen duen printzipio logikoak ez du horretarako aukerarik ematen; hala ere, guri azaltzen zaigun espezie bakoitzaren azpian azpi-espezieak eta ezberdintasun bakoitzerako ezberdintasun txikiagoak bilatzea agintzen dio adimenari. Izan ere, azpiko adigairik ez balego, goragokorik ere ez legoke. Adimenak, ordea, dena adigaien bitartez soilik ezagutzen du, ondorioz, inoiz ez begiespen soilen bitartez, baizik beti berriro ere azpiko adigaien bitartez, sailkaketa hauetara iristen den heinean. Agerpenak bere determinazio osoan ezagutzeak (adimenaren bitartez soilik dena ahalgarri) bere adigaien etenik gabeko espezifikazio jarraitua eta oraindik geratzen diren ezberdintasunetarantz doan aurrerabidea eskatzen ditu, zeinaz abstraitu egin den espeziearen adigaian eta, are gehiago, generoaren adigaian.

Espezifikazioaren lege hau ezin da esperientziatik hartu era berean; izan ere, honek ezin du hain urrun iristen den ikuspegiak eman. Espezifikazio enpirikoa laster gelditzen da anizkuntziaren bereizkuntzan, baldin eta jadanik aurretik doan eta arrazoimenaren printzipioa den espezifikazioaren lege transzendental baten bitartez gidatua ez bada halakoa bilatzeko eta halakoa dagoela susmatzeko, berehala sentsuei agertzen ez bazaie ere. Lur absorbatzaileak espezie ezberdinen arabera (karedunak eta murtiak) direla aurkitzeko arrazoimenaren erregela bat behar dugu, adimenari ezberdintasuna bilatzeko eginkizuna ematen dion erregela, izadia hura susmatzeko bezain aberatsa dela auresuposatzen duen heinean. Izan ere, izadian dagoen ezberdintasunaren auresuposiziopean soilik dugu adimena, baita bere objektuek beren baitan homogeneousutasuna duten baldintzapean ere, zeren adigai baten menpean jasoa egon daitekeenaren anizkuntasunak osatzen baitu adigai honen erabilera eta adimenaren jardura.

Arrazoimenak, beraz, adimenaren alorra prestatzen du: 1. genero garaia goen azpian dagoen anizkuntziaren *homogeneousutasunaren* printzipio baten bitartez; 2. azpiko espezieen arteko homogeneousokiaren *aniztasunaren* oinarri-esakunearen bitartez; eta gainera, batasun sistematikoa osatzeko, 3. adigai ororen *kidetasunaren* legearen bitartez, zeinak igarobide jarraitua eskaintzen duen espezie bakoitzetik beste edozeinetara ezberdintasunaren hazkuntza mailakatuaren bidez. *Homogeneousutasun*, *espezifikazio* eta formen *kontinuitatearen* printzipioak dei diezaiekegu. Azkena lehenengo biak bateratzean sortzen da, bai genero garaia goetara goratzean, baita azpiko espezieetara beheratzean ere, bilkura sistematikoa ideian osatu ondoren; izan ere, hainbestez, anizkuntasun ezberdinak elkarren kideak dira, zeren dena osotara determinazio hedatuaren maila ororen bitartez genero goren bakarretik baitator.

Hiru printzipio logikoen menpean dagoen batasun sistematikoa honela bihur daiteke ikusgarria: adigai bakoitza puntu bat balitz bezala begizta daiteke, zeinak, ikusle baten ikuspuntua den aldetik, bere ikusmuga duen, h. d., bertatik errepresentatuak eta, nolabait esateko, gainbegiratuak izan daitezkeen gauzen kopuru handi bat duen. Ikusmuga horren barnean amaigabera iristen den puntuen kopurua aipa daiteke, hauetako bakoitzak bere aldetik berriro ikuseremu estuagoa duela; h. d., espezie bakoitzak azpi-espezieak barnebiltzen ditu espezifikazioaren printzipioaren arabera, eta ikusmuga logikoa ikusmuga txikiagoez soilik osatzen da (azpi-espezieak), ez, ordea, hedapenik ez duten puntuez (banakoez). Hala ere, hainbeste adigaitatik abiatuta determina daitekeen ikusmuga pentsa daiteke, h. d., genero ezberdinen ikusmuga komun bat pentsa daiteke, eta bertatik denak bilduta pentsa daitezke osotara genero garaia goa den erdigune batetik gainbegiratuta baleude bezala, azkenik, genero gorena ikusmuga orokorra eta egiazkoa izaki, adigai gorenaren ikuspuntutik determinatzen dena eta anizkuntasun oro jasotzen duena bere azpian, generoak, espezieak eta azpi-espezieak.

Homogeneousutasunaren printzipioak gidatzen nau ikuspuntu goren honetara, azpiko denetara eta beren aniztasun handienera, berriz, espezifikazioaren legeak gidatzen nau. Honela, ordea, adigai ahalgarri ororen hedapen osoan hutsunerik ez dagoenez, eta bertatik at ezer aurkitu ezin daitekeenez gero, orduan ikuseremu orokorraren eta bere sailkaketa osoaren auresuposiziotik oinarri-esakune hau sortzen da: «*non datur vacuum formarum*», h. d., ez daude jatorrizko lehen genero ezberdinak, zeinak, nolabait esateko, bakartuak eta elkarren artean bereiziak dauden (tarteko espazio kaskal baten bitartez), baizik genero anizkun denak genero goren eta orokor bakarraren atalak besterik ez dira; eta oinarri-esakune honetatik bere ondorio zuzena segitzen da: «*datur continuum formarum*», h. d., espezieen ezberdintasun denek elkar ukitzen dute eta ez dute baimentzen jauzi baten bitartez egindako elkarren arteko igarobiderik, baizik bereizketaren maila txikiago guztien bitartez egindakoa besterik ez, horren bitartez batzuetatik besteetara irits daitekeelarik; hitz batean, ez daude (arrazoimenaren adigaian)

elkarren hurbilenak liratekeen ezein espezie edo azpi-espezierik, baizik eta beti ere horietatik beraiek elkarren artean bereizten direna baina gutxiago bereizten diren tarteko espezieak ahalgarriak dira.

Lehen legeak, beraz, jatorrizko genero ezberdinen anizkuntasunaren gehiegikeria saihesten du eta homogeneousuna gomendatzen du; bigarrenak, aitzitik, berriro zedarritzatzen du bateratasunerantzko joera hori eta azpi-espezieen bereizkuntza agintzen du norberaren adigai orokorrekin banakoetara jo aurretik. Hirugarrenak lehenengo biak bateratzen ditu, anizkuntasun handiena izanda ere homogeneousuna agintzen duen heinean espezie batetik besterako igarobide mailakatuaren bitartez, eta honek adar ezberdinen kidetasun-era bat erakusten du, hauek osotara enbor batetik ernetu diren heinean.

«Continuum specierum (formarum logicarum)»-en lege logikoak lege transzendental bat auresuposatzen du (lex continui in natura), eta hau gabe lehen arau hark adimenaren erabilera nahasi besterik ez luke egingo, honek agian izadiari zuzenki kontrajarritako bideetako bat hartuko lukeen heinean. Lege hau, beraz, oinarri transzendental hutsetan funtsatu behar da, eta ez enpirikoetan. Izan ere, azken kasuan sistemen ondoren etorriko litzateke; benetan, ordea, berak sortu du lehen-lehenik izadiaren ezagutzaren alde sistematikoa. Lege hauen atzean ez dago agian beraiekin probak egiteko asmorik, saialdi soilak balira bezala, nahiz, noski, bilkura honek, gertatzen denean, hipotetikoki pentsatutako batasuna oinarritua balego bezala hartzeko arrazoi boteretsua ematen duen, eta lege hauek zentzu honetan ere bere onura duten, baizik eta beraietan nabarmenki ikusten da legeok oinarritzko kausen aurreztasuna, efektuen anizkuntasuna eta bertatik datorren izadiaren osakideen kidetasuna bere baitan arrazoizkoak direla jotzen dutela eta izadiarentzat egokiak direla juzgatzen dutela, eta oinarri-esakune hauek, beraz, zuzenki dakarte beraiekin beren aldeko gomendioa, ez metodoaren baliabide gisa soilik.

Erraz ikusten da, ordea, formen jarraitasun hau esperientzian objektu egokirik erakutsi ezin duen ideia soilak dela, ez soilik espezieak izadian benetan eratorriak direlako eta horregatik quantum discretum bat osatu behar dutelako, zeren beren kidetasunean aurrerabide mailakatu jarraitua balitz, orduan honek bi espezie jakinen barnean egongo litzatekeen tarteko osakideen egiazko amaigabetasuna ere barnebildu beharko bailuke, ezinezkoa dena, *baizik* eta lege horretaz erabilera enpiriko determinaturik ezin dugulako egin ere bai, horren bitartez kidetasunaren ezaugarriak iragartzen ez den heinean, horrela berari jarraiki bere ezberdintasunaren mailaketa puntu bateraino bilatzeko, aitzitik, hura bilatu behar dela dioen gomendio orokor bat besterik ez da iragartzen.

Guk orain aipatutako printzipioak beren ordenari dagokionez aldatzen baditugu, *esperientzian duten erabileraren arabera* antolatzearen, orduan *batasun* sistematikoaren printzipioak azkenean hauek lirateke: *anizkuntasuna*, *kidetasuna* eta *batasuna*, hauetako bakoitza, ordea, ideia gisa bere osotasunaren maila gorenean hartua. Arrazoimenak adimenaren ezagutzak auresuposatzen ditu, lehenik esperientziari aplikatzen zaizkionak, eta bere batasuna bilatzen du ideien arabera, hots, esperientzia iristen den puntura baino askoz urrunago doan batasuna. Batasunaren printzipio baten menpean dagoen anizkuntziaren kidetasunak, bere osagaien ezberdintasuna aintzat hartu gabe ere, ez du gauzeekin soilik zerikusia, baizik are gehiago gauzen berekitasun eta indar soilekin. Horregatik, (oraindik osoki zuzendua izan ez den) esperientzia batek planeten ibilbidea zirkulartzat jotzen badu eta ezberdintasunak aurkitzen baditugu, orduan hauek zirkulua lege iraunkor baten arabera tarteko maila amaigabe guztien bitartez beretik ezberdintzen den ibilbidera alda dezakeenean daudela susmatzen dugu, h. d., zirkuluak ez diren planeten higidurak gehiago edo gutxiago hurbiltzen dira beren berekitasunetara elipse bat bihurtuz. Kometek bere ildoaren ezberdintasun are handiagoa erakusten dute, hauek ez baitira zirkuluan itzuli ere egiten (behaketak esan dezakeen heinean); baina hor ibilbide parabolikoa susmatzen dugu, elipsearekin kidetasuna duena, eta gure behaketa guztietan elipsetik bereiztu ezin dena azkenaren ardatz luzea asko luzatzen denean. Printzipio haien gidaritzarekin ildo hauek beren tankeran duten generoen batasunera iristen gara, horren bitartez oraindik gainera beren higiduraren lege ororen kausaren batasunera (grabitazioa), eta hortik, ondoren, gure konkistak hedatzen ditugu, eta erregela haien aldaera denak eta itxurazko saihesketak printzipio hartatik argitzea saiatzen dugu, eta azkenik, horretaz gain esperientziak inoiz baieztatu dezakeena baino gehiago eranstu dugu, hots, kidetasunaren erregelen arabera kometen ildo hiperbolikoak pentsatzen ditugu, bertan gorputz horiek gure eguzkiaren mundua uzten dutela eta beraiek guretzat mugagabea den eta indar higitzaile bat eta bakarraren bitartez lotuta dagoen mundu-sistemaren zati urrunenak beren ibilbidean bateratzen dituztela, eguzki batetik bestera doazen heinean.

Printzipio hauetan ohargarria dena eta arduratzen gaituen gauza bakarra hau da: printzipiook printzipio transzendentalak dirudutela, eta arrazoimenaren erabilera enpirikoaren jarraipenerako ideia soilak barnebiltzen dituzten arren, erabilera hau haiei, nolabait esateko, asintotikoki soilik, h. d., hurbilketa soilik jarrai dakieke, bera inoiz lortu gabe; hala ere, apriorizko esakune sintetiko gisa baliotasun objektiboa baina indeterminatua dute, eta esperientzia ahalgarriaren erregelatzat balio dute, eta

benetan bere landualdian ere oinarri-esakune heuristiko gisa arrakastatsuak dira, beren dedukzio transzendental sortu ezin den arren, ideiei dagokienez beti ezinezkoa dena, gorago frogatu dugun legez.

Analitika transzendentalean adimenaren oinarri-esakuneen artean *dinamikoak* direnak, *begiespenaren* printzipio erregulatzaile soilak izaki, *matematikoetatik* ezberdindu ditugu, zeinak begiespenari dagokionez eratzaileak diren. Hau horrela izanda ere, aipatutako lege dinamikoak eratzaileak dira, dena dela, *esperientziari* dagokionez, *adigaiak* a priori ahalbidetzen dituzten heinean, hauek gabe ez bailitzateke egongo esperientziarik. Aitzitik, arrazoimen hutsaren printzipioek *adigai* enpirikoei dagokienez ere ezin dute izan eratzaileak, zeren beraiei sentimenaren eskema egokirik ezin baitzaie eman, eta beraz, ezin baitute ezein objektu izan in concreto. Baldin eta, hortaz, beren halako erabilera enpirikoa alde batera uzten badut, oinarri-esakune eratzaileak diren aldetik, nola nahiko dut orduan erabilera erregulatzailea eta honekin batera baliotasun objektiboa segurtatu, eta zer esanahi izan dezake erabilera honek?

Adimena arrazoimenaren objektua da sentimena adimenarena den bezala. Adimenaren ekintza enpiriko ahalgarri ororen batasuna sistematikoa bihurtzea arrazoimenaren zeregina da, adimenak agerpenen anizkuntia adigaien bitartez elkarlotu eta lege enpirikoei menperatzen dien bezala. Adimenaren ekintzak, ordea, *indeterminatuak* dira sentimenaren eskemarik gabe; era berean, *arrazoimenaren batasuna indeterminatua* da bere baitan adimenak bere adigaiak sistematikoki lotzeko dituen baldintzei dagokienez eta lotura honen mailari dagokionez. Hala ere, adimenaren adigai ororen batasun sistematiko osoarentzat ezein eskema aurkitu ezin den arren *begiespenean*, dena dela, halako eskemaren *analogoa* eman daiteke eta eman behar da, eta hau printzipio batean gertatzen den adimenaren ezagutzaren zatiketaren eta bateratzearen *maximoaren* ideia da. Izan ere, handiena eta absolutuki osoa dena determinatua dagoela pentsa daiteke, zeren anizkuntasun indeterminatua ematen duten baldintza zedarritzaila guztiak alde batera uzten baitira. Beraz, arrazoimenaren ideia sentimenaren eskema baten analogoa da, baina bereizketa honekin, alegia, adimenaren adigaien aplikazioa arrazoimenaren eskemari ez dela era berean objektua beraren ezagutza (kategoriak beren sentsuzko eskemei aplikatzean gertatzen den legez), baizik adimenaren erabilera ororen batasun sistematikoaren printzipioa edo erregela besterik ez. Adimenari bere erabileraren batasun osoa a priori finkatzen dion oinarri-esakune hark, era berean, zeharbidez izan arren, esperientziaren objektuaz ere balio duenez gero, orduan arrazoimen hutsaren printzipioek azken hauei begira ere errealtate objektiboa dute, baina ez beraietan zerbaiz *determinatzeko*, baizik adimenaren esperientziatzeko erabilera enpirikoa eta determinatua bere buruarekin osoki adostu ahal izateko jardunbidea erakusteko besterik ez, adimenaren erabilera batasun *ahalbait* osoaren printzipioarekin bildu eta bertatik eratortzen den heinean lor dezakeen adostasuna, hain zuzen.

Objektuaren antolaeratik ez, baina arrazoimenaren interesetik objektu honen ezagutzaren betegintzarre ahalgarri jakin bati begira hartzen diren oinarri-esakune subjektibo denei arrazoimenaren *maximak* deitzen diet. Bada, arrazoimen espekulatiboaren maximak daude, zeinak bere interes espekulatiboan soilik funtsatzen diren, printzipio objektiboak direla dirudien arren.

Oinarri-esakune erregulatzaile soilak eratzaileak bezala kontsideratzen baldin badira, orduan kontraesankorrak izan daitezke, printzipio objektiboak diren heinean; *maximak* bezala soilik kontsideratzen baldin badira, orduan ez dago egiazko aurkakotasunik, baizik arrazoimenaren interes ezberdina besterik ez, zeinak pentsamoldearen banaketa eragiten duen. Egitatean, arrazoimenak interes bakarra du eta bere maximen gatazka interes hau gogobetetzeko asmoa duten metodoen ezberdintasuna eta elkarren arteko zedarritzapena baino ez da.

Era honetara, arrazoikerizale *hauengan anizkuntasunaren* interesa nabarmentzen da (espezifikazioaren printzipioaren arabera), *haiengan*, ordea, *batasunaren* interesa (agregazioaren printzipioaren arabera). Hauetako bakoitzak bere judizioa objektuaren ikuskeratik lortu duela sinesten du eta, egiatan, bi oinarri-esakuneetako bati gehiago edo gutxiago atxikitzean soilik oinarritzen da, bietako bat bera ere ez baita oinarri objektiboetan funtsatzen, baizik arrazoimenaren interesean besterik ez, eta horregatik, hobeto dei dakieke maximak printzipioak baino. Gizon burutsuak elkarrekin gatazkan ikusten ditudanean, gizakiak, abereak edo landareak direla eta, baita gainera mundu mineraleko gorputzak direla ere, batzuek adibidez herri-izaera bereziak eta jatorrian oinarrituak onartzen dituztela, edo baita familien, arrazen, eta abarren bereizketa erabakigarriak eta izugarriak, besteez, aitzitik, izadiak puntu honetan berdinak diren joerak sortu dituela azpimarratzen duten bitartean, hainbestez, bereizketa oro kanpoko beharbadakotasunetan funtsatuz, bada, orduan objektuaren antolaera kontsideratu besterik ez dut egin behar, ulertu nahi badut hau bientzat hain sakonki ezkutatua geratzen dela, non haiek ezin baitute hitz egin objektuaren izaeraren ikuskeran oinarrituta. Ez dago arrazoimenaren interes bikoitz hau baino, zati hau bat dela, hura besteak hartzen duela, edo hartzen duelakoa egiten duela, eta beraz, izadiaren anizkuntasunaren maximen ezberdintasuna edo izadiaren batasunarena, zeinak

ederki batera daitezkeen, baina ikuskera objektibotzat hartzen badira, gatazka ez ezik, oztopoak ere sortzen dituzten, egiari denbora luzez eusten dioten oztopoak, harik eta baliabide bat aurkitu arte interes eztabaidatua bateratzeko eta arrazoimena puntu honetan gogobetetzeko.

Horrela gertatzen da Leibnizek abian jarri eta Bonnet-ek egokiro sustatu zuen sorkarien *eskala jarraituaren* lege hain ezagunaren baieztapena edo ukapenarekin, arrazoimenaren interesean funtsatutako kidetasunaren oinarri-esakunearen ondorioztapena baino ez denarekin; izan ere, behaketak eta izadiaren antolaketaren ikuskerak ezin du ezer eskura eman baieztapen objektibo gisa. Halako eskalaren mailak urrunegi daude elkarrengandik esperientziak eman ditzakeen moduan, eta gure ustezko bereizketa txikiak izadian bertan eskuarki amildegi hain zabalak dira, non behaketa hauek (bereziki gauzen anizkuntasun handi batean, beti erraza izan behar baitu antzekotasun eta hurbilketa jakinak aurkitzeak) ezin har baitaitezke izadiaren asmozat. Aitzitik, izadian halako printzipioaren arabera ordena bilatzeko metodoa, eta hura, indeterminatuki izan arren, izadian oro har non edo noraino oinarritua dagoen ikusteko maxima, dena dela, arrazoimenaren printzipio erregulatzailerik zuzen eta egokia da; hala ere, printzipio gisa hain urruti doa, ezen esperientziak edo behaketak ezin baitute berekin bat egin; baina ez du ezer determinatzen, baizik arrazoimenari batasun sistematikorantz doan bidea erakutsi besterik ez dio egiten.

Giza arrazoimenaren berezko dialektikaren azken asmoaz

Arrazoimen hutsaren ideiek inoiz ezin dute beren baitan dialektikoak izan, baizik beren gaizki-erabilerak soilik eragiten du beraietatik itxura iruzurtia sortzea; izan ere, gure arrazoimenaren izaeraren bitartez ematen zaizkigu, eta gure espekulazioaren eskubide eta uzi ororen epaitegi goren honek jatorrizko iruzurrak eta itxurapenak barnebiltzea ezinezkoa da. Ustez, beraz, beren determinazio on eta helburuduna gure arrazoimenaren berezko joeran izango dute. Arrazoikerizaleen jendailak, ordea, ohi duenez burugabekeria eta kontraesana dela ohiukatzen du, eta gobernuari irain egiten dio honen barneko planak ulertu gabe, bere eragin onberari eskerrak bihurtu beharrean bere mantenuagatik eta hura kritikatu eta epaitzeko egoeran jartzen duen kultura beragatik.

Ezin da ezein apriorizko adigairik erabili segurtasunarekin, bere dedukzio transzendental egin ezean. Arrazoimen hutsaren ideiek ez dute baimentzen kategorien moduko dedukziorik; baina baliotasun objektiboa eduki behar badute behinik behin, indeterminatua izan arren, eta pentsamen-gauza kaskalak soilik errepresentatu behar ez badituzte (entia rationis ratiocinantis), orduan beren dedukzioak erabat ahalgarria izan behar du, kategoriekin egin daitekeen dedukziotik oso ezberdina dela eman ondoren. Hau da arrazoimen hutsaren zeregin kritikoaren osaketa, eta hau da orain egitera goazena.

Bereizketa handia da zerbait nire arrazoimenari *objektu gisa absolutuki* edo *objektu gisa ideian* soilik emana izatea. Lehen kasuan, nire adigaiak objektua determinatzera doaz; bigarrenetan, benetan eskema bat besterik ez dugu, zeinari zuzenki objekturik ez dagokion, ezta hipotetikoki ere, baizik honek beste objektuak ideia honekin duten harremanaren bitartez bere batasun sistematikoaren arabera, eta beraz, zeharbidez errepresentatzeko besterik ez du balio. Horrela, inteligentzia goren baten adigaiak ideia soilak dela diot, h. d., bere errealitate objektiboa ez duela osatzen zuzenki objektu bati lotzeak (izan ere, esanahi horretan ezingo genuke bere baliotasun objektiboa legeztatu), baizik arrazoimenaren batasun handienaren baldintzen arabera ordenatutako eskema besterik ez da, oro harrezko gauza baten adigaiarena, zeinak batasun sistematiko handiena atxikitzen baido ez duen balio gure arrazoimenaren erabilera enpirikoan, honela esperientziaren objektua, nolabait esateko, ideia honen irudikatutako objektutik bere oinarri edo kausa gisa eratortzen den heinean. Hainbestez, adibidez, munduko gauzak beren izatea inteligentzia goren batetik jaso balute bezala kontsideratu behar direla esaten da. Honela, ideia benetan adigai heuristikoa baino ez da, ez ostentsiboa, eta ez du erakusten objektu bat nola antolatua dagoen, baizik esperientziako objektuen antolara eta elkarlotura oro har nola *bilatu* behar dugun bere gidaritzari jarraiki. Erakutsi badaiteke hiru ideia transzendentalek (*psikologikoa*, *kosmologikoa* eta *teologikoa*), zuzenki dagozkion ezein objekturi eta bere *determinazioari* lotu ezin zaizkien arren, dena dela, arrazoimenaren erabilera enpirikoaren erregelak diren aldetik, halako *objektua ideian* auresuposatuz batasun sistematikora gidatzen dutela eta esperientzia-ezagutza beti hedatzen dutela, inoiz, ordea, bere aurka egin ezin dutelarik, bada, orduan halako ideien arabera jokatzeko arrazoimenaren *maxima* beharrezkoa badago. Eta hau da arrazoimen espekulatioaren ideia ororen dedukzio transzendental egin gure ezagutzaren hedapenaren printzipio *eratzailerik* gisa, hots, esperientziak eman ditzakeen baino objektu gehiagoetara iristen den hedapenaren printzipio gisa, baizik oro har ezagutza enpirikoaren anizkuntziaren batasun sistematikoaren printzipio *erregulatzailerik* gisa, eta horren bitartez gehiago lantzen eta zuzentzen du

ezagutza enpirikoa bere muga propioen barnean halako ideiarik gabe adimenaren oinarri-esakunearen erabilera soilaren bitartez landu eta zuzendu ahal izango lukeena baino.

Hau argitu nahi dut. Aipatutako ideiak printzipio gisa hartuz gero, *lehenik* (Psikologian), gure gogamenaren agerpen, ekintza eta harmen oro barneko esperientziaren gida-harian elkarlotu nahi dugu gogamena substantzia bakuna *balitz bezala*, pertsona-identitatearekin iraunkorki existitzen dena (bizitzan bederen), bere egoerak, berriz, gorputzarenak, kanpoko baldintza bezala soilik egokitzen zaizkiolarik, jarraituki aldatu arren. *Bigarrenik* (Kosmologian), izadiaren barneko zein kanpoko agerpenen baldintzei jarraiki behar gatzazkie inoiz osatuko ez den azterketa batean bera bere baitan amaigabea *balitz bezala* eta lehen osakide edo goren bat ez *balu bezala*, nahiz eta horregatik ezin den ukatu agerpen orotatik at bere lehen oinarri inteligible soilak daudenik, inolaz ere ezagutzen ez ditugulako, ordea, inoiz izadiaren argiketaren bilkurara ekarri ezin ditugun oinarriak. Azkenean *hirugarrenik* (Teologiari dagokionez), beti esperientzia ahalgarriaren bilkuran soilik koka daitekeen guztia honek batasun absolutua baina erabat menpekoa osatuko *balu bezala*, eta beraz, beti sentsuen munduaren barnean batasun baldintzatua osatuko *balu bezala* kontsideratu behar dugu, aldi berean, ordea, agerpen ororen multzoa (sentsuzko mundu bera) oinarri goren eta oroaskidun bakarra *balu bezala* bere hedapenetik at, nolabait esateko, arrazoimen beregain, jatorrizko eta sortzailea, eta honekin harremanean *gure* arrazoimenaren erabilera enpiriko oro bere hedapen handiengan objektuak berak arrazoimen haren jatorrizko irudi hartatik sortu *balira bezala* antolatzen dugu, hau da, ez substantzia pentsatzaile bakun batetik arimaren barneko agerpenak eratorriz, baizik zerizan bakun baten ideia araberak haiek besteetatik eratorriz; ez inteligentzia goren batetik munduaren ordena eta bere batasun sistematikoa eratorriz, baizik kausa erabat jakitsuaren ideiatik erregela bat lortuz, zeinaren arabera arrazoimena munduko kausen eta ondorioen elkarloturan bere gogobeterako hoberen den moduan erabiltzen den.

Ezerk ez digu galarazten ideia hauek objektiboak eta hipostatikoak bezala *onartzea*, ideia kosmologikoa izan ezik, zeinengan arrazoimenak antinomia bat aurkitzen duen halako ideia egikaritu nahi duenean (ideia psikologikoez eta teologikoez ez dute halakorik barnebiltzen). Izan ere, beraietan kontraesanik ez dagoenez gero, nola eztabaidatu liezaguke inork bere errealitate objektiboa, hark bera ezeztatzeko ahalgarritasunaz guk bera baieztatzeko bezain gutxi badaki? Hala eta guztiz ere, zerbait onartzeko ez da aski aurkako ezein oztopo positibo ez egotea, eta ezin zaigu zilegi izan gure adigai oro gauditzen duten pentsamen-zerizanak, ezer kontraesaten ez duten arren, objektu erreal eta determinatu gisa aipatzea, bere zeregina gustura osatzen duen arrazoimen espekulatiboaren babes soilak dela eta. Beraz, beren baitan ez dira onartu behar, baizik beren errealitateak izadiaren ezagutza ororen batasun sistematikoaren printzipio erregulatzailearen eskema gisa baino ez dute balio, eta beraz, gauza errealean analogoen gisa soilik ezarri behar dira oinarrian, baina ez berbaitango gauzen gisa. Ideiaren objektutik ezeztatu egiten ditugu gure adimenaren adigaiak zedarritzatzen dituzten baldintzak, haiek gauzaren baten adigai determinatu bat izatea ahalbidetzen duten bakarrak ere badiren baldintzak. Eta, hortaz, Zerbait pentsatzen dugu inolaz ere jakin gabe bera zer den, baina agerpenen multzoarekin duen hartuemanen pentsatzen dugu, hain zuzen, agerpenek beren artean duten hartuemanaren analogoa den hartuemanen.

Hainbestez, halako zerizan idealak onartzen baditugu, orduan ez dugu hedatzen benetan esperientzia ahalgarriaren objektuen gure ezagutza, baizik esperientziaren batasun enpirikoa besterik ez, batasun sistematikoaren bitartez gainera, zeinaren eskema ideiak ematen digun, beraz, ez printzipio eratzaile gisa, baizik erregulatzaile gisa baino balio ez duen ideiak. Izan ere, ideia dagokion gauza, Zerbait, edo zerizan errealak ezartzeak ez du esan nahi guk gure gauzen ezagutza adigai transzendenteen bitartez hedatu nahi dugunik; izan ere, zerizan hau ideian soilik ezartzen da oinarrian eta ez bere baitan, eta beraz, arrazoimenaren erabilera enpirikoaren gida gisa balio behar digun batasun sistematikoa adieraztearren besterik ez, hala ere, batasun honen oinarria zein den edo batasun hau kausa gisa funtsatzen duen zerizanaren barneko berekitasuna zein den erabaki gabe.

Horrela, arrazoimen espekulatibo soilak Jainkoaz ematen digun adigai transzendental eta determinatu bakarra adiera zehatzenean *deistikoa* da, h. d., arrazoimenak ez du ematen halako adigaiaren errealitate objektiborik, baizik zerbaiten ideia besterik ez du ematen eskura, bertan errealitate enpiriko orok bere batasun gorena eta beharrezkoa oinarritzen duela, eta ideia hau ezin dugu pentsatu, arrazoimenaren legeen arabera gauza ororen kausa den substantzia erreal batekin analogian izan ezik, eta hau edonon objektu berezi gisa pentsatzen dugu, eta ez dugu nahiago, arrazoimenaren printzipio erregulatzailearen ideiarekin askietsiz, pentsatzearen baldintza ororen osaketa alde batera uztea, giza adimenarentzat transzendentea den heinean, nolanahi ere hau ezin baita bateratu gure ezagutzen batasun sistematiko betegin bat lortzeko asmoarekin, zeinari arrazoimenak behinik behin zedarritik ez dion ezartzen.

Horregatik gertatzen da jainkotiar zerizan bat onartzen dudanean ez dudala bere betegintzarre gorenaren barneko ahalgarritasunaren adigairik, ezta bere izatearen beharrezkotasunaren adigairik ere, baina, hainbestez, beharbadakoa denarekin zerikusia duten beste galdekizun guztiak gogobete ditzaket eta arrazoimenari gogobete beteginena eman diezaioket bere erabilera enpirikoan batasun ikertzaile gorenari dagokionez, baina ez auresuposizio honi berari dagokionez; honek frogatzen du bere interes espekulatiboak legeztatzen duela, eta ez bere ikuskerak, bere esferaz goiti hain urrun dagoen puntu batetik abiatzera, hortik bere objektuak osoki konplitu batean kontsideratzearren.

Hemen, auresuposizio bat eta berberan pentsamoldearen bereizketa bat azaltzen da, aski sotila dena, baina, dena dela, Filosofia transzendentalean munta handikoa ere badena. Aski arrazoi izan dezaket zerbait erlatiboki onartzeko (suppositio relativa) hori erabat onartzera baimendua izan gabe (suppositio absoluta). Bereizketa hau zuzena da autugaia printzipio erregulatzaile bat besterik ez denean, zeinaren beharrezkotasuna bere baitan ezagutzen dugun, baina ez bere jatorria, eta horretarako oinarri goren bat onartzen dugu printzipioaren orokortasuna modu determinatuago batean pentsatzeko asmo soilarekin, adibidez, nik ideia transzendental soil bati dagokion zerizan bat existitzen dela pentsatzen dudanean. Izan ere, hor gauza horren izatea inoiz ezin dut onartu bere baitan, objekturen bat determinatuki pentsatu ahal izatea ezein adigaik ez baitu lortzen, eta nire adigaien baliotasun objektiboaren baldintzak ideia beraren bitartez dira baztertuak. Errealitateak, substantziak, kausalitateak, baita izatearen beharrezkotasunak ere, objektu baten ezagutza enpirikoa ahalbidetzeko erabileraz gain ez dute objekturen bat determinatuko lukeen esanahirik. Erabil daitezke bai gauzen ahalgarritasunaren argiketarako sentsuen munduan, baina ez *mundu-osokiaren* ahalgarritasunaren argiketan, zeren argiketa-oinarri hau mundutik at baitago, eta beraz, esperientzia ahalgarriaren objektua ezingo bailuke izan. Hala ere, halako zerizan ulertezina, hots, ideia soil baten objektua, erlatiboki onar dezaket sentsuen munduari dagokionez, baina ez bere baitan. Izan ere, nire arrazoimenaren erabilera enpiriko ahalbait handienaren oinarrian (batasun sistematiko-osoarena, honetaz laster zehazkiago hitz egingo dudala) ideia bat baldin badago, bere baitan esperientzian inoiz egokiro aurkeztu ezin dena, nahiz eta bera batasun enpirikoa maila ahalbait gorenera hurbiltzeko ezinbestean beharrezkoa den, orduan baimendua izateaz gain, behartua ere izango naiz ideia hori egikaritzera, h. d., berari objektu erreal bat ezartzera, baina Zerbait oro har gisa besterik ez, bere baitan inolaz ere ezagutzen ez dudan zerbait, zeinari batasun sistematiko haren oinarria den heinean soilik ematen dizkiodan batasun honi dagokionez adimenaren adigaien erabilera enpirikoaren analogoak diren berekitasunak. Munduko errealitateekin, substantziekin, kausalitatea eta beharrezkotasunarekin analogian hau dena betegintzarre gorenean jabetzen duen zerizan bat pentsatuko dut, eta ideia hori nire arrazoimenean soilik funtsatzen den heinean, zerizan hori *arrazoimen beregaina* bezala pentsa dezaket, harmonia eta batasun handienaren ideien bitartez mundu-osokiaren kausa dena, eta halako moldez egin dezaket, non nik ideia zedarritzatzen duten baldintza guztiak baztertzen baititut, honela jatorrizko oinarri honen babesean mundu-osokiaren anizkuntasunaren batasun sistematikoa, eta bere bitartez, arrazoimenaren erabilera enpiriko ahalbait handiena ahalbidetzeko besterik ez, lotura guztiak arrazoimen goren baten ordenaketak *balira* bezala ikusten ditudan heinean, gurea horren kopia ahula izaki. Hainbestez, zerizan goren hau adigai soilen bitartez pentsatzen dut, aplikazioa benetan sentsuen munduan soilik duten adigaien bitartez; auresuposizio transzendental hark erabilera erregulatzailea baino ez duenez, hots, esperientziaren batasun ahalbait handienaren substratua eman behar duenez gero, orduan ederki pentsa dezaket mundutik bereizten dudan zerizan bat sentsuen munduari soilik dagozkion berekitasunen bitartez. Izan ere, nik ez dut inolaz ere eskatzen, eta ez nago baimendua ere eskatzera, nire ideiarekin objektu hau bere baitan denaren arabera ezagutzea; izan ere, ez dut horretarako adigairik, eta errealitateak, substantziak, kausalitatearen eta baita izatearen beharrezkotasunaren adigaik berak ere esanahi oro galtzen dute eta adigai kaskalen izenburuak dira, batere edukirik gabeak, ni beraiekin sentsuen alorretik at ausartzen banaiz. Berez erabat ezezaguna den zerizan batek mundu-osokiaren batasun sistematiko handienarekin duen erlazioa pentsatzen dut nire kaburako, honela bera nire arrazoimenaren erabilera enpiriko ahalbait handienaren printzipio erregulatzailearen eskema bihurtzeko besterik ez.

Gure ideiarekin objektu transzendentalari begiratzen badiogu orain, orduan bere errealitatea (Wirklichkeit) *bere baitan* ezin dugula auresuposatu dakusagu errealitatea (Realität), substantzia, kausalitatea, eta abarren adigaien arabera, zeren adigai hauek ezin baitzaizkio inolaz ere aplikatu sentsuen mundutik erabat bereizten denari. Beraz, zerizan goren baten arrazoimenaren suposizioa kausa goren gisa erlatiboki besterik ez da pentsatzen sentsuen munduaren batasun sistematikoaren mesedetan, eta Zerbait besterik ez da ideian, eta ez dakigu inolaz ere ea *bere baitan* zer ote den. Honen bitartez argitzen da era berean ea zergatik behar dugun bere baitan *beharrezkoa* den jatorrizko zerizanaren ideia existituz sentsuei emana zaionari dagokionez, honetaz eta bere *beharrezkotasun* absolutuaz, aldiz, inoiz adigairik ezin izan dezakegunean.

Orain Dialektika transzendental osoaren emaitza nabariki jar dezakegu begi-bistan eta arrazoimen hutsaren ideien azken asmoa zehazki determina dezakegu, zeinak gaizki-ulertzeagatik eta zuhurtzia gabeziagatik soilik bihurtzen diren dialektikoak. Arrazoimen hutsak, egitatean, ez du bere buruaz baino jarduten, eta ezin du bestelako zereginik izan, zeren berari ez baitzaizkio ematen objektuak esperientzia-adigaiaren batasunerako, baizik adimen-ezagutzak arrazoimen-adigaiaren batasunerako, h. d., printzipio batean batuta biltzeko. Arrazoimenaren batasuna sistemaren batasuna da eta batasun sistematiko honek ez dio balio arrazoimenari objektiboki oinarri-esakune baterako, honela objektuetara hedatzeko, baizik subjektiboki maxima gisa objektuen ezagutza enpiriko ahalgarri orotara hedatzeko. Hala eta guztiz ere, arrazoimenak adimenaren erabilera enpirikoari eman diezaiokeen bilkura sistematikoak ez du bere hedapen soila eskatzen, baizik aldi berean bere zuzentasuna segurtatzen du, eta halako batasun sistematikoaren printzipioa objektiboa ere bada, nahiz era indeterminatuan izan (*principium vagum*), ez printzipio eratzaile gisa zerbait bere objektu zuzenari dagokionez determinatzearen, baizik oinarri-esakune erregulatzailerik eta maxima soil gisa arrazoimenaren erabilera enpirikoa adimenak ezagutzen ez dituen bide berriak irekiz amaigaberantz (indeterminaturantz) bultzatzearen eta finkatzearen, inoiz, ordea, erabilera enpirikoaren legeen aurka egin gabe.

Arrazoimenak, ordea, batasun sistematiko hau ezin du bere ideiarik aldi berean objektu bat emanez baino pentsatu, zeina, bestalde, ezin esperientziaren bitartez ezin den eman; izan ere, esperientziak inoiz ez du eskuratzen batasun sistematiko beteginaren adibiderik. Arrazoimenaren zerizian hau (*ens rationis ratiocinatae*) benetan ideia soila da, eta ez da, beraz, erabat eta *bere baitan* erreala den zerbait bezala onartzen, baizik problematikoki baino ez da ezartzen oinarrian (adimenaren ezein adigaiaren bitartez ezin dugulako lortu), horrela sentsuen munduko gauzen elkarlotura oro bere oinarria arrazoimenaren zerizian honetan *balu bezala* ikusteko, baina bertan batasun sistematikoa oinarritzeko asmoarekin besterik ez, arrazoimenari ezinbestekoa zaiona, adimenaren ezagutza enpirikoari, ordea, edozein kasutan sustagarria eta, hala ere, inoiz oztopogarria izan ezin zaiona.

Idea honen esanahia berehala ezezagutzen da gauza erreal baten baieztapentzat edo auresuposizio soiltzat ere hartzen baldin bada, zeinari munduaren egitura sistematikoaren oinarria egotea pentsa zitekeen; aitzitik, guztiz erabakitzeke uzten du gure adigaiak ihesten diren bere oinarriak zein antolara duen, eta ideia bat ezartzen da arrazoimenari hain funtsezkoa eta adimenari hain sendagarria zaion batasun hura hedatu ahal izateko ikuspuntu gisa; hitz batean, gauza transzendental hau arrazoimenak esperientzian batasun sistematikoa era ahalbait zabalean hedatzeko duen printzipio erregulatzailerik haren eskema soila da.

Halako ideia baten lehen objektua ni neu naiz izaera pentsatzaile gisa (arima) soilik kontsideratua. Zerizian pentsatzailea bere baitan zein berekitasunekin existitzen den aztertu nahi badut, orduan esperientziari galdetu behar diot, eta kategoria guztietatik bat bera ere ezin diot aplikatu objektu honi, baldin eta bere eskema sentsuzko begiespenean ematen ez bazait. Honekin, ordea, ez naiz inoiz iristen barneko sentsuaren agerpen ororen batasun sistematikora. Urrun eraman ezin gaituen esperientziaren adigaiaren ordeztasun (arima benetan denaren adigaiaren ordeztasun), beraz, arrazoimenak pentsatze ororen batasun enpirikoaren adigaia hartzen du, eta batasun hori baldintzatugabea eta jatorrizkoa bezala pentsatuz, bertatik abiatuta substantzia bakunaren arrazoimenaren adigaia (idea) sortzen du, zeina, bere baitan aldaezina izatean (pertsonari dagokionez identikoa), beretik at dauden beste gauza errealekin komunitatean dagoen; hitz batean, inteligentzia beregain bakun baten adigaia hartzen du. Hemen, ordea, arimaren agerpenen argiketako batasun sistematikoaren printzipioak baino ez ditu begi-bistan, hots, determinazio oro subjektu bakar batean balego bezala kontsideratzea, indar oro, ahal den heinean, jatorrizko indar bakarretik eratorria balitz bezala kontsideratzea, aldakuntza oro zerizian iraunkor bat eta berberaren egoeretakoa balitz bezala kontsideratzea, eta *agerpen* oro espazioan *pentsatzearen* ekintzetatik osorik ezberdina balitz bezala errepresentatzea. Substantziaren bakuntasun hark eta beste ezaugarriek printzipio erregulatzailerik honentzako eskemak izan behar dute, eta ez da auresuposatzen arimen berekitasunen oinarri errealak direnik. Izan ere, hauek osoki ezagutzen ez ditugun beste oinarrietan funtsa daitezke, guk arima onartutako predikatu horien bitartez benetan bere baitan ezagutu ezin dugun bezala, berehala aplikatu nahi dizkiogun predikatuen bitartez, hain zuzen, in concreto inolaz ere errepresentatu ezin daitekeen ideia soil bat osatzen duten heinean. Halako ideia psikologiko batetik ezin da alde batetik hartu, bera ideia soila baino gehiagotzat hartzea galarazten bada behintzat, h. d., arrazoimenaren erabilera sistematikoari soilik aplikatzea gure arimaren agerpenek dagokienez. Izan ere, erabat bestelakoak diren agerpen gorpuzdunen lege enpirikorik ez da sartzen *barneko sentsuari* soilik dagokionaren argiketan; hor ez dira arimen sorketa, deuseztapena eta palingenesia eta abarren hipotesi kaskarinak onartzen; beraz, barneko sentsuaren objektu honen kontsiderazioa huts-hutsik eta homogeenak ez diren berekitasunekin nahastu gabe egiten da, eta horrez gain arrazoimenaren azterketa subjektu honetako argiketa-oinarriak, ahal den heinean, printzipio bakar batean biltzera zuzentzen da; hau dena halako eskema zerizian erreal bat *balitz bezala* hartuz egin daiteke hoberean, eta horrela bakarrik egin

daiteke gainera. Ideia psikologikoak ezin du adigai erregulatzailerik baten eskema baino adierazi. Izan ere, galdetu nahiko banu ea arimak bere baitan izaera espirituala duen, orduan galdekizun honek ez luke ezein zentzurik izango. Izan ere, halako adigaiaren bitartez izadi gorpuzduna deuseztatu ez ezik, izadi osoa ere deuseztatzen da oro har, h. d., esperientzia ahalgarriaren baten predikatu oro, eta beraz, halako adigaiarentzat objektu bat pentsatzeko baldintza guztiak deuseztatzen dira, honek bakarrik eta soilik eragiten duenean hark zentzurik baduela esatea.

Arrazoimen espekulatibo soilaren bigarren ideia erregulatzailerik munduaren adigaia da oro har. Izan ere, izadia benetan emana den objektu bakarra da, eta berari dagokionez arrazoimenak printzipio erregulatzailerik behar ditu. Izadi hau bikoitza da, izadi pentsatzailea edo gorpuzduna da. Azkenengoari dagokionez, ordea, ez dugu ezein ideiarik behar, h. d., esperientzia gainditzen duen errepresentaziorik, bera bere barneko ahalgarritasunaren arabera pentsatzeko, h. d., kategoriak nola aplikatzen zaizkion determinatzeko; berari dagokionez ezein ideia ere ez da ahalgarria, zeren bertara sentsuzko begiespenaren bitartez soilik baikara gidatuak, eta ez oinarritzko adigai psikologikoan gertatzen den lege (Nia), zeinak pentsatzearen forma jakin bat barnebiltzen duen, hots, bere batasuna. Beraz, arrazoimen hutsarentzat ez zaigu oro harrezko izadia baino geratzen, eta printzipioaren baten arabera baldintzen osotasuna bertan. Baldintza hauen ilaren osotasun absolutua bere osakideen eratorketan ideia bat da, arrazoimenaren erabilera enpirikoan inoiz osorik ezin lor daitekeena, baina bereganako jokabidearen erregulatzaile balio duen ideia: agerpen jakinen argiketan (itzuleran edo goraketan) ilara bere baitan amaigabea *balitz bezala*, h. d., in indefinitum balitz bezala; baina arrazoimena bera kausa determinatzailetzat kontsideratzen denean (askatasunean), printzipio praktikoetan, beraz, gure aurrean sentsuena ez, baina adimen hutsaren objektua bagenu bezala, bertan baldintzak ezin daitezkeela agerpenen ilaran ezarri, baizik hauetatik at, eta egoeren ilara bera absolutuki (kausa inteligible baten bitartez) hasi *balitz bezala* ikus daitekeela; honek guztiak ideia kosmologikoak printzipio erregulatzailerik baino ez direla frogatzen du, eta inolaz ere ezin dutela, nolabait esateko, eratzaile gisa halako ilaren osotasun erreala ezarri. Gainerakoa arrazoimen hutsaren antinomian dagokion lekuan bila daiteke.

Zerizan baten suposizio erlatiboa baino barnebiltzen ez duen arrazoimen hutsaren hirugarren ideia ilara kosmologiko ororen kausa bakarra eta oroaskidun gisa *Jainkoaren* arrazoimen-adigaia da. Ideia honen objektua erabat onartzeko *(bere baitan suposatze)* batere oinarririk ez dugu; izan ere, zerk bultzatzen du, edo baita besterik gabe eskubidea eman lezake, betegintzarre gorena duen zerizana, bere izaeraren arabera behar-beharrezkoa dena, bere adigai soiletik abiatuta sinesteko, edo mundua ez balitz, berekin harremanean soilik denean suposizio hau beharrezkoa dela baieztatze; eta hor garbi agertzen da, bere ideiak, ideia espekulatibo denak bezala, hau baino gehiago ez duela esan nahi: arrazoimenak munduko elkarlotura oro batasun sistematiko baten printzipioen arabera kontsideratzea agintzen duela, eta beraz, denak osotara zerizan orobatratzaile bakar batetik sortu *balira* bezala kontsideratzea agintzen duela, hau kausa gorena eta oroaskiduna den aldetik. Hemendik argitzen da arrazoimenak hemen bere erregela formal propioa baino ezin duela izan asmozat bere erabilera enpirikoaren hedapenean, inoiz ez, ordea, *erabilera enpirikoaren muga oroz goitiko* hedapena, eta ondorioz, ideia honen azpian ez dagoela ezkatututa esperientzia ahalgarrira bideratzen den bere erabileraren printzipio eratzailearik.

Arrazoimenaren adigaietan soilik funtsatzen den batasun formal goren hau gauzen batasun *helburuduna* da, eta arrazoimenaren interes *espekulatiboak* beharrezkoa egiten du ordenaketa oro munduan arrazoimen goren baten asmotik sortu balitz bezala begiztatzea. Halako printzipioak esperientzien alorrari aplikatzen zaion gure arrazoimenari ikuspegi erabat berriak ematen dizkio, honela munduko gauzak lege teleologikoen arabera elkarlotzeko eta horren bitartez beren batasun sistematiko gorenera iristeko. Inteligentzia gorenaren auresuposizioa, mundu-osokiaren kausa bakarra den heinean, beti zaio baliagarria arrazoimenari, eta inoiz ezin dio kalterik egin. Izan ere, baldin eta lurraren (biribila baina pixka bat zapaldua)¹³⁷, mendien eta itsasoen, eta abarren figura aldeztatik sortzaile baten asmo jakintsu soiltzat hartzen baditugu, orduan bide honetan aurkituntza kopuru handi bat egin dezakegu. Auresuposizio honetan geratzen bagara, printzipio *erregulatzailerik* soil gisa, orduan errakuntzak ere ezingo gaitu kaltetu. Izan ere, hainbestez, hortik ezin da hau baino ondorioztatu: guk bilkura teleologikoa (nexus finalis) itxaroten genuenean, mekanikoa edo fisikoa (nexus effectivus) soilik gertatu zela, eta halako kasuan batasun bat gehiago galdu besterik ez dugu egin, baina arrazoimenaren batasuna zapuztu gabe bere erabilera enpirikoan. Dena dela, oztopo honek ere ez du ukitzen legea bera asmo orokorrean eta teleologikoan oro har. Izan ere, anatomista bat konbentzi dezakegu bere erroreaz abere gorputz baten organoa helburu bati lotzen dionean helburua nabariki bertatik ez dela ondorioztatzen erakuts dezakegu, baina osorik ezinezkoa da kasu batean *frogatzea* izadiaren antolaketa batek ezein helbururik ez duela, antolaketa edozein izanda ere. Horregatik, (medikuen) Fisiologiak gorputz organiko baten estrukturaren

helburuen bere ezagupen enpiriko oso zedarriztatua hainbeste hedatzen du arrazoimen hutsak soilik ematen duen oinarri-esakune baten bitartez, non bertan berehala eta gainera adituen adostasunarekin onartzen baita abereetan denak bere balioa eta asmo ona duela; auresuposizio honek eratzailea izan behar badu, egungo behaketak baimentzen diguna baino askoz urrunago doa; eta hortik ikusten da arrazoimenaren printzipio erregulatzailea baino ez dela munduaren kausa gorenaren kausalitate helburudunaren ideiarekin bitartez batasun sistematiko gorenera iristeko, hura inteligentzia goren gisa asmo jakintsuenen arabera guztiaren kausa *balitz bezala*.

Idea hau erabilera erregulatzaile soilera murrizteari uko egiten badiogu, ordea, orduan arrazoimena era ezberdinean nahasten da, berak, hainbestez, ibilera baten zeinua barnebildu behar duen esperientziaren lurra uzten duen heinean, eta honetaz goiti ulertezina eta ikertezina dena ausartzen den heinean, garaiera horretan halabeharrez zorabiatu egiten delarik, zeren ikuspuntu horretatik bere burua esperientziari egokitutako erabilera orotatik osorik moztua ikusten baitu.

Zerizan goren baten ideia erregulatiboki ez ezik eratzaileki ere (idea baten izaeraren aurka doana) erabiltzetik sortzen den lehenengo huts egitea arrazoimen alferra da (*ignava ratio*)¹³⁸. Horrela dei dakioke bere izaeraren azterketa puntu batean, edonon izanda ere, erabat osatua ikustarazten duen eta arrazoimena gerarazten duen oinarri-esakuneari, bere zeregina osorik bete balu bezala. Horregatik, ideia psikologiko bera printzipio eratzailea bezala erabiltzen denean gure arimaren agerpenen argiketarako eta ondoren, gainera, subjektu honen gure ezagutzaren hedapenerako esperientzia oroz goiti (bere egoera heriotzaren ondoren), orduan arrazoimenaren lana eroso bihurtzen da, baina era berean esperientzien gidaren arabera bere izaeraren erabilera oro ere osorik zapuztuz eta deuseztatuz. Horrela, espiritualista dogmatikoak egoeren aldakuntza orotan aldaezin dirauen pertsonaren batasuna bera nian zuzenki hautematea uste duen substantzia pentsatzailearen batasunetik abiatuta argitzen du; lehen-lehenik gure heriotzaren ondoren gertatuko diren gauzengatik hartzen dugun interesa gure subjektu pentsatzailearen materiagabeko izaeraren kontzientziatik abiatuta argitzen du, eta abar, eta argiketa-oinarri fisikoetatik abiatzen den gure barneko agerpenen kausen izaeraren azterketa oro saihesten du, berak, nolabait esateko, arrazoimen transzendente baten botere-erabaki baten bitartez esperientziaren ezagutza-iturri imanenteak ezikusten dituelako bere erosotasunaren mesedetan, baina ikuskera ororen kalterako. Are argiago gertatzen da ondorio kaltegarri hau inteligentzia goren baten gure ideiarekin dogmatismoan eta bertan faltsuki oinarritutako izadiaren sistema teologikoan (Teologia fisikoa). Izan ere, hor, izadian agertzen diren eta sarri guk horretarako soilik sortutako helburuak kausen ikerketa ongi eroso bihurtzeko dira baliagarriak, hots, hauek materiaren mekanismoaren lege orokorrean bilatu beharrean, zuzenki jakintza gorenaren asmo ikertezinera jotzeko eta arrazoimenaren ahalegina osatutzat ikusteko bere erabilera aurrezten dugunean, zeinak inon ez duen gida-hari bat aurkitu, izadiaren ordenak eta aldaketen ilarak bere barneko lege orokorren arabera eskuratzen digunean izan ezik. Hutsune hau saihestaiteke izadiaren zati batzuk, adibidez, lur irmoaren banaketa, bere landualdia, mendien antolara eta egoera, baita landare eta abere erresumen organizazioa ere, helburuen ikuspuntutik kontsideratzeaz gain izadiaren batasun sistematikoa inteligentzia goren baten ideiarekin dagokionez *osorik orokorra* bihurtzen badugu. Izan ere, hainbestez, helburutasun bat ezartzen dugu oinarrian izadiaren lege orokorren arabera, bertatik antolaketa berezirik baztertu gabe, aitzitik, hauek gehiago edo gutxiago ezagugarria den eran guretzat ezaugarritu besterik ez dira egin, eta guk elkarlotura teleologiko baten batasun sistematikoaren printzipio erregulatzailea dugu, aldeztu determinatzen ez duguna, ordea, baizik bera lortzeko itxaropenean elkarlotura fisiko-mekanikoari soilik jarraiki ahal gaitzaizkio lege orokorren arabera. Izan ere, horrela baino ezin heda dezake beti batasun helburudunaren printzipioak arrazoimenaren erabilera esperientziari dagokionez berari kasu bakar batean ere kalterik eragin gabe.

Batasun sistematikoaren printzipio honen gaizki-ulertzetik sortzen den bigarren hutsegitea arrazoimen erratuarena da (*perversa ratio*, *ὑστέρων πρὸ τῶν ὀντων* *rationis*). Batasun sistematikoaren ideia, printzipio erregulatzaile gisa, gauzen loturan batasun hura izadiaren lege orokorren arabera bilatzeko da baliagarria, eta batasun honetatik abiatuta bide enpirikoan zerbait aurki daitekeen heinean, bere erabileraren osotasunera hurbildu gairela sinesteko ere bai, noski, bera inoiz lortu ez arren. Honen ordeztu jokabidea iraultzen da eta batasun helburudunaren printzipioren baten errealtatea, hipostatikoa den heinean, oinarrian ezarritu hasten da, halako inteligentzia goren baten adigaia, bere baitan osoki ikertezina den adigaia, antropomorfikoki determinatuz eta izadiari helburuak bortxaz eta diktatorialki ezarritu hauek izadiaren ikerkuntza fisikoaren bidetik bilatu beharrean, arrazoizkoa izango litzatekeen moduan, eta horrenbestez, izadiaren batasuna lege orokorren arabera osatzeko soilik balio beharko lukeen teleologiak, orain, aitzitik, hura ezeztaraz gain arrazoimena bere helburutik baztertzen du, alegia, halako kausa goren eta inteligible baten izatea helburu honen arabera izadiatik abiatuta frogatzea. Izan ere, helburutasun handiena izadian a priori ezin auresuposa daitekeenean, h. d., bere esentziarentzat aproposa bezala ezin auresuposa daitekeenean, nola nahi da

bera bilatzeko eta bere eskalan sortzaile baten betegintzarre gorenera hurbiltzeko beharra izan, hots, behar-beharrezkoa, eta beraz, a priori ezagugarria denera hurbiltzeko? Printzipio erregulatzailerak batasun sistematikoa *izadiaren batasun* gisa aurreuposatzea eskatzen du, enpirikoki ezagutua ez ezik, a priori nahiz oraindik indeterminatuki aurreuposatua ere badena, absolutuki, eta beraz, gauzen esentziatik ondorioztatu balitz bezala. Aurretiaz zerizan ordenatzaile gorena ezartzen badut oinarrian, orduan izadiaren batasuna egitatean ezeztatu egiten da. Izan ere, gauzen izaerari erabat arrotza eta beharbadakoa zaio, eta ezin da beren lege orokorretatik abiatuta ezagutu. Horregatik, zirkulu akasduna sortzen da frogan, benetan frogatu behar zena aurreuposatzen baita.

Izadiaren batasun sistematikoaren printzipio erregulatzailerak eratzaileak hartzeak eta ideian arrazoimenaren erabilera harmoniatsua oinarrian baino ezartzen ez dena kausa gisa hipostatikoki aurreuposatzeak arrazoimena nahastea besterik ez du esan nahi. Izadiaren ikerketak bere ibilera besterik ez du egiten izadiaren kausen katean bere lege orokorren arabera, hots, sortzaile baten ideien arabera, noski, baina ez edonon bilatzen duen bere helburutasuna eratorzeko, baizik bere izatea izadiko gauzetako esentzian ezagutzeko, baita oro har gauza ororen esentzian ere bilatzen den helburutasun honetatik ezagutzeko, eta beraz, behar-beharrezkotzat ezagutzeko, ahal izanez gero. Azken hau lor daiteke ala ezin daiteke, baina ideiak beti zuzena izaten dirau, baita bere erabilerak ere printzipio erregulatzailerak baino ez den baten baldintzetara murrizten denean.

Batasun helburudun osoa betegintzarrea da (absolutuki kontsideratuta). Hau ez baldin badugu aurkitzen esperientziaren objektu osoa osatzen duten gauzen esentzian, h. d., gure ezagutza objektiboki baliogarri ororen gauzen esentzian, eta beraz, izadiaren lege orokor eta beharrezkoetan, orduan nola nahi izango dugu hortik zuzenki kausalitate ororen jatorria den jatorrizko zerizan baten betegintzarre behar-beharrezko eta goren baten ideia inferitu? Batasun sistematiko gorena eta, ondorioz, helburuduna ere badena giza arrazoimenaren erabilera gorenaren ahalgarritasunaren eskola eta oinarritzapena bera da. Bere ideia, beraz, gure arrazoimenaren esentziarekin bereiztezinki lotua dago. Ideia berbera guretzat lege-emailea da eta, horrela, berezkoa da berari dagokion arrazoimen lege-emaile bat onartzea (*intellectus archetypus*), bertatik izadiaren batasun sistematiko oro eratorri behar dela gure arrazoimenaren objektu gisa.

Arrazoimen hutsaren antinomia landu dugunean, zera esan dugu: arrazoimen hutsak egiten dituen galdekizun guztiek absolutuki erantzugarriak izan behar dutela eta gure ezagutzaren zedarrien aitzakia, izadiko arazo askotan saihestezina eta bidezkoa dena, hemen ezin dela baimendu, zeren hemen galdekizunak ez baitira gauzen izaeraz egiten, baizik arrazoimenaren izaeraz eta bere barneko antolaketaz besterik ez. Orain lehen itxuraren arabera baieztapen ausarta den hau arrazoimen hutsak bere interes handiena eskaintzen dien bi galdekizunei begira baieztatu dezakegu, eta horren bitartez, arrazoimenaren Dialektikaren gure kontsiderazioa konplutuki osa dezakegu.

Beraz, *lehenik* galdetzen bada (Teologia transzendentalari dagokionez)¹³⁹, ea mundutik ezberdina den zerbait badagoen, munduaren ordena eta bere bilkuraren oinarria barnebiltzen duen zerbait lege orokorren arabera, orduan erantzuna zera da: *ezbairik gabe*. Izan ere, mundua agerpenen batuketa bat denez gero, orduan bere oinarri transzendental batek, h. d., adimen hutsari soilik pentsagarria zaionak izan behar du. *Bigarrenik*, galdekizuna zera bada: ea zerizan hau substantzia den, errealitate gorena duen, beharrezkoa, eta abar den, orduan hau erantzuten dut: *galdekizun honek ez du esanahirik*. Izan ere, halako objektu baten adigaia egiten saiatzean erabiltzen ditudan kategoria guztiak ez dute erabilera enpirikoa baino eta ez dute batere zentzurik esperientzia ahalgarriko objektuei, h. d., sentsuen munduari ez bazaizkio aplikatzen. Alor honetatik at adigaienezko izenburuak besterik ez dira, onar daitezkeenak, baina beren bitartez ezer ezin delarik ulertu. Azkenik, *hirugarrenik*, galdekizuna zera bada: ea guk gutxienez mundutik ezberdintzen den zerizan hau ezin pentsa dezakegun esperientziako objektuekin duen *analogia* baten arabera, orduan erantzuna hau da: *noski*, baina objektu gisa ideian besterik ez, eta ez errealitatean, hots, bera guretzat munduaren antolaketaren batasun sistematikoaren, ordenaren eta helburutasunaren substratu ezezaguna bada besterik ez, zeina arrazoimenak bere izaeraren ikerketaren printzipio erregulatzailerak bihurtu behar duen. Are gehiago, ideia honetan printzipio erregulatzailerantzat beharrezkoak diren antropomorfismo jakinak baimen ditzakegu lotsarik eta oztoporik izan gabe. Izan ere, beti ere ideia bat besterik ez da, mundutik ezberdina den zerizanari zuzenki lotzen ez zaion ideia, baizik munduaren batasun sistematikoaren printzipio erregulatzailerari, nahiz eta hau bere eskemaren bitartez besterik ez egin, hots, asmo jakintsuen arabera batasun horren sortzailea den inteligentzia gorenaren bitartez. Horren bitartez ez da pentsatu nahi izan munduaren batasunaren jatorrizko oinarri hau ea bere baitan zer ote den, baizik ea guk bera edo, are gehiago, bere ideia nola erabili behar dugun munduko gauzei begira arrazoimenaren erabilera sistematikoari dagokionez.

Onartu *ahal* dezakegu (jarraituko da galdetzen) munduaren sortzaile jakintsu eta ahalguztidun bakarra? *Batere zalantzarik gabe*; eta ez hau soilik, baizik guk halakoa auresuposatu egin *behar* dugu. Hala ere, hainbestez, gure ezagutza esperientzia ahalgarriaren alorraz goiti hedatzen ahal dugu? Inolaz ere ez. Izan ere, Zerbait auresuposatu dugu bere baitan denaz adigairik izan gabe (objektu transzendental soil), baina mundu-eraikinaren ordena sistematikoa eta helburudunarekin harremanean, zeina izadia estudiatzen dugunean auresuposatu behar dugun, eta guri ezezaguna zaigun zerizan hura inteligentzia batekin (adigai enpirikoa) *analogian* soilik pentsatzen dugu, h. d., bertan oinarritzen diren helburuari eta betegintzarreari begira zuzenki gure arrazoimenaren baldintzen arabera halako batasun sistematikoaren oinarria barnebil dezaketen berekitasunekin hornitua. Ideia hau, beraz, konplutuki determinatua dago gure arrazoimenaren *mundu-erabilerari dagokionez*. Baliotasun absolutuki objektiboa eman nahi badiogu, orduan guk pentsatzen dugun ideian baino ez den zerizana dela ahaztuko genuke, eta hainbestez, munduaren kontsiderazioaren bitartez determinagarriak ez diren oinarrietatik abiatzen bagara, orduan printzipio hau arrazoimenaren erabilera enpirikoari egokiro aplikatzeko ezgaiak bihurtuko ginateke.

Baina erabili ahal dezaket honela zerizan goren baten adigaia eta auresuposizioa (oraindik galdetuko da) munduaren arrazoizko kontsiderazioan? Bai, horretarako ezarri zen benetan oinarrian arrazoimenaren ideia hau. Hala ere, helburuen antza duten ordenaketak asmoz hartu ahal ditzaket, jainkotiar nahimenetik eratortzen ditudan heinean, nahiz eta munduan horretarako eratu den joera berezi baten bitartez izan? Bai, hau ere egin dezakezue, baina berdin balio behar baldin badu norbaitek esatea jainkotiar jakintzak dena horrela bere helburu gorenerako ordenatu duela, edo jakintza gorenaren ideia erregulatzailea dela izadiaren ikerkuntzan eta bere batasun sistematikoaren eta helburudunaren printzipioa dela izadiaren lege orokorren arabera, baita hura ohartzen ez dugunean ere, h. d., hura hautematen duzuen ere, eta beraz, erabat berdin izan behar zaizue esatea: «Jainkoak zuhurki horrela nahi izan du» edo «izadiak zuhurki ordenatu du». Izan ere, batasun sistematiko eta helburudun gorena baitzen zuen arrazoimenak izadiaren ikerketa ororen oinarrian ezartzea eskatzen zuena printzipio erregulatzaile gisa, zuei inteligentzia gorenaren ideia printzipio erregulatzailearen eskema gisa oinarrian ezartzeko eskubidea ematen zizuen, eta printzipioaren arabera munduan zenbat eta helburutasun gehiago aurkitu, orduan eta zuen ideien zuzentasunaren baieztapen gehiago lortuko dituzue; baina aipatutako printzipioak izadiaren batasun ahalbait handiena eta beharrezkoa bilatzea baino ez duenez asmoz, orduan zerizan goren baten ideia honi eskertu beharko diogu, hura lortzen dugun heinean; izadiaren lege orokorrak ezin ditugu, ordea, alde batera utzi, ideiak bera lortzeko baino ez baitira ezartzen oinarrian geure buruarekin kontraesanean erori gabe, horrela izadiaren helburutasun hori bere jatorriaren arabera beharbadakoa eta hiperfisikoa den zerbait bezala ikusteko, zeren ez baikeunden baimenduta aipatutako berekitasunak dituen izadiaren gaineko zerizan bat onartzera, baizik bere ideia oinarrian ezartzera besterik ez, agerpenak sistematikoki elkarrekin elkarlotuta ikustearren kausazko determinazioaren analogiaren arabera.

Horregatik, munduaren kausa ideian pentsatzeko baimena dugu, ez antropomorfismo sotil baten arabera soilik (hau gabe, beraz, ezer pentsatu ezingo litzatekeelarik), hots, hura adimena, atsegina eta ezatsegina, baita hauei dagozkien irrika eta nahimena eta abar duen zerizana den aldetik, baizik gainera berari betegintzarre amaigabea egozteko baimena dugu, zeinak askogatik gaitzen duen munduaren ordenaren ezagutza enpirikoaren bitartez baimendua izango genukeena. Izan ere, batasun sistematikoaren lege erregulatzaileak nahi du guk izadia horrela estudiatzea, edonon anizkuntasun ahalbait handienaren ondoan batasun sistematiko eta helburuduna egongo *balitz bezala* amaigaberraino. Izan ere, guk munduaren betegintzarre honetatik hain gutxi somatu edo lortu dugun arren, dena dela, gure arrazoimenaren lege-emateari dagokio bera edonon bilatzea eta susmatzea, eta beti onerako izan behar zaigu, inoiz ez, ordea, kaltegarria, izadia printzipio honen arabera kontsideratzea. Era berean da argia, ordea, oinarrian ezarritako sortzaile goren baten errepresentazio honen arabera ez dudala halako zerizanaren izatea eta ezagupena ezartzen oinarrian, baizik bere ideia besterik ez, eta beraz, zerizan horretatik ezer ez dela eratortzen, baizik bere ideiatik besterik ez, h. d., munduko gauzen izaeratik halako ideari jarraiki. Badirudi gure arrazoimenaren adigai honen erabileraren egiazko kontzientzia jakin baina garatugabeak garai guztietako filosofoen hizkuntza apala eta arrazoizkoa eragin duela, zeren izadiaren jakintzaz eta arretaz eta jainkotiar jakintzaz esanahi berdineko adierazpenak bailiran hitz egiten baitute, eta lehen adierazpena ere nahiago dute, arrazoimen espekulatibo soilaren autugaia den bitartean, zeren honek baimendua zaiguna baino baieztapen handiagoa egitea ekiditen baitu, eta aldi berean arrazoimena bere alor propiora, izadira, igortzen baitu.

Horrela, hasieran esperientziaren muga oroz goitiko ezagupenen hedapena bera agintzen zuela zirudien arrazoimen hutsak, guk hura zuzen ulertzen badugu, printzipio erregulatzaileak baino ez ditu barnebiltzen, adimenaren erabilera enpirikoak lor dezakeena baino batasun handiagoa eskaintzen duten printzipioak, baina hauek, hainbestez, beren hurbilketaren xedea hain urruti jartzen dutenez, bere buruarekin bat etortzearen maila gorena lortzen dute batasun sistematikoaren bitartez, nahiz eta,

bera gaizki-ulertzen bada eta bera ezagutza transzendenteen printzipio eratzailatzat hartzen bada, limurtze eta jakintza irudikatua sortzen duten itxura distiratsua baina iruzurtiaren bitartez eta honekin batera, bestalde, kontraesan eta gatazka amaigabeak ere bai.

* * *

Horrela, giza ezagutza oro begiespenekin hasten da, hortik adigaietara doa eta ideietaraino iristen da. Berak hiru osagaiei dagokienez apriorizko ezagutza-iturriak dituen arren, lehen begiradan esperientziaren mugak saihestea diruditenak, dena dela, kritika osatu batek honetaz konbentzitzen du: arrazoimen orok erabilera espekulatiboan ezin duela inoiz osagai hauekin esperientzia ahalgarriaren alorraz goiti joan, eta ezagumen goren honen benetako determinazioa metodo guztiak eta bere oinarri-esakuneak soilik erabiltzea dela izadia bere alderdi barnekoenak arte aztertzeko batasunaren printzipio ahalgarri ororen arabera, hauen artean aipagarriena helburuena izaki, inoiz ez, ordea, bere mugak hegaz gainditzeko, beraietatik at *guretzat* espazio kaskala baino ez baitago. Gure ezagutza esperientzia errealaz goiti heda dezaketen esakune guztien azterketa kritikoak honetaz konbentzitu gaitu askiro. Analitika transzendentalean: hauek inoiz esperientzia ahalgarri batera baino ezin direla gidatu; eta irakaspen abstraktu eta orokor argien aurkako susmorik ez bagenu, baldin eta ikuspegi erakargarri eta itxurazkoek lehenen hertsapena ukatzera behartuko ez bagintuzke, orduan arrazoimen transzentalak bere handiusteen mesedetan agerrarazten dituen lekuko dialektiko ororen galdeketa saihestu ahal izango genuke; izan ere, bagenekien jadanik aldeztetik ziurtasun osoz bere asmoak agian jatorrak zirela, baina hutsal-hutsalak izan behar dutela, zeren ezein gizakik inoiz lortu ezin dezakeen ezagutzari baitagozkio. Hala ere, pertsona arrazoizkoena iruzur dezakeen itxuraren egiazko kausa aurkitzen ez bada, hizketak bukaerarik ez duenez eta gure ezagutza transzental ororen deskonposaketak bere osagaietan (gure barneko izaeraren estudio gisa) bere baitan balio txikia ez duenez, eta filosofoentzat betebeharra ere badenez, orduan arrazoimen espekulatiboaren landualdi osoa baina hutsala bere lehen iturrietaraino xehetasunez aztertzea beharrezkoa izateaz gain –hemen itxura dialektikoak etorkizun guztian horrela iraungo duenez, judizioaren arabera iruzurtia eta gainera hemen judizioan jartzen den interesaren arabera ere erakargarria eta beti berezkoa den heinean-, gomendagarria ere bazen, nolabait esateko, prozesu honen aktak xehetasunez idaztea eta berak giza arrazoimenaren artxiboan gordetzea etorkizunean antzeko errakuntzak

saihestearren.

II

METODOAREN IRAKASPEN TRANSZENDENTALA

Arrazoimen huts eta espekulatiboaren ezagutza ororen multzoa eraikin bat balitz bezala begiratzen badut, horren ideia bederen gugan dugularik, orduan esan dezaket osagaien irakaspen transzendentalean eraiketa-osagaien ikuspegi orokorra aurkeztu dugula eta zein motatako eraikuntza, zein altuera eta irmotasunekoa izango den determinatu dugula. Noski, zeruraino luzatuko litzatekeen dorre bat egiteko asmoa bagenu ere, materialen edukiak etxebizitza bat egitea soilik ahalbidetzen zuela aurkitu zen, esperientziaren mailan egiten ditugun zereginetarako aski zabala eta gainbegiratzeko aski altua zena; baina enpresa ausart hark ekaiaren gabeziagatik huts egin behar zuen, baita hizkuntzen nahasketagatik ere, zeinak langileak planari buruz ezinbestean banatu zituen eta hauek mundu osoan sakabanatu behar zituen, horrela bakoitzak eraikina bere egitasmoaren arabera lantzeko. Orain, gure autugaia ez da materiala, baizik plana bera, eta agian gure ahalmen osoa gainditu ahal izango lukeen hautazko egitasmo itsurik egiten ez ausartzeko oharraraziak izan garenez, baina etxebizitza finko baten antolaketa ezin dugunez alde batera utzi, orduan eraikina egiteko saialdia eman zaigun eta aldi berean gure beharrari egokitzen zaion horniduraren arabera izango da.

Metodoaren irakaspen transzendentalaz arrazoimen hutsaren sistema osoaren baldintza formalez determinatua dagoena ulertzen dut. Hemen gure autugaia arrazoimen hutsaren diziplina, kanona, arkitektonika eta, azkenik, historia bat izango da eta zentzu transzendentalean Logika praktikokoaren izenpean oro har adimenaren erabileraz eskoletan bilatzen den, baina desegokiro lortzen den bera lortuko dugu; Logika orokorra adimenaren ezagutzaren era berezira ez denez zedarritzatzen (adibidez, ezagutza hutsera), ezta objektu jakinetara ere, zeren berak ezin baitu, beste zientzietatik ezagutzarik alokatu gabe, metodo ahalgarrietarako tituluak eta zientzia guztietan sistematikoa denaz erabiltzen diren adierazpen teknikoak azaldu baino egin, eta honek ikasberriari izenak ezagutarazten dizkio alde aurretik, zeinen esanahia eta erabilera lehen-lehenik gerora ikasi beharko dituen.

Metodoaren irakaspen transzendentalaren

Lehen atalburua

Arrazoimen hutsaren diziplina

Judizio ezeztaleek, forma logikoari dagokionez ez ezik, edukiari dagokionez ere ezeztaleak direnek, ez dute arreta berezirik jasotzen gizakien jakinguran; etengabe hedapena lortzen ahalegintzen den ezagutza-irrikaren etsai bekaizti gisa ikusten dira, eta ia apologia bat behar da haiek jasan besterik ez egiteko eta, are gehiago, beraiei faborea eta estima emateko.

Logikoki nahi diren esakune guztiak adieraz daitezke era ezeztalean, baina gure oro harrezko ezagutzaren edukiari begira, hots, ea bera judizio baten bitartez hedatua edo zedarritzatua den, bada, judizio ezeztaleek *errakuntza saihesteko* zeregin berezia besterik ez dute. Horregatik, errakuntza bat inoiz ahalgarria ez denean, ezagutza faltsua saihestu beharko duten esakune ezeztaleak oso egiazkoak dira, baina kaskalak, h. d., ez dira beren helburuarentzat egokiak, eta horregatik, sarri barregarriak gertatzen dira. Hizlari haren esakunea, esaterako, Alexanderrek armadarik gabe ezin izango zuela ezein herri konkistatu.

Gure ezagutza ahalgarriaren zedarriak oso estuak, juzgatzeko tentazioa handia, eskaintzen den itxura oso iruzurtia eta errakuntzatik sortzen den kaltea neurritsua denean, hor irakaspenaren alderdi negatiboak errakuntzetatik askatzeko soilik balio badu ere, gure ezagutza haziarazi lezaketen zenbait irakaspen positibok baino are garrantzi handiagoa du. Erregela jakinetik saihesteko joera zedarritzatzen duen eta, azkenik, deuseztatzen duen *hertsapenari diziplina* deitzen zaio. Hau kulturatik

ezberdintzen da, honek *gaitasun* bat sortu besterik ez baitu egin behar jadanik aldeztatik zegoen beste bat ezeztatu gabe. Beraz, adierazpenerako joera duen talentu baten heziketarako diziplina ekarpen negatiboa izango du¹⁴⁰, kulturak eta doktrinak, berriaz, positiboa.

Edonork erraz onartuko du, beren buruei gustura higidura aske eta zedarrigabea baimentzen dioten temperamentuak eta talentuek (irudimenak eta asmamenak bezala) zentzu batean diziplina behar dutela. Bestalde, arrotza dirudi beste ahalegin osoei bere diziplina ezartzen dien arrazoimenak benetan halakorik behar izateak eta, egitatean, hark orain arte beheramendu horri ihes egin dio, zeren, handiki eta oinarritzko jatoritasunarekin agertzen denez, inori ez baitzaio erraz bururatzen azaleko jolas baten susmoa, hots, irudiekien adigaien ordeaz eta hitzekin gauzen ordeaz dabilen jolasa.

Ez da behar arrazoimenaren kritikarik bere erabilera enpirikoari dagokionez, zeren bere oinarri-esakuneei esperientziaren frogarrian etsamina jarraitua egiten baitzaie; halaber, ezta Matematikan ere, non bere adigaiak berehala begiespen hutsean in concreto aurkeztu behar diren, eta oinarrigabekoa eta hautazkoa dena horren bitartez berehala nabarmentzen den. Baina ez begiespen enpirikoez ezta hutsek ere arrazoimena bide ikusgarrian atxikitzen ez dutenean, hots, bere erabilera transzendentalean adigai soilen arabera, hor arrazoimenak hainbeste behar du esperientzia ahalgarriaren muga estuez goitiko hedapenaren joera balaztatzen duen eta gehiegikeria eta errakuntzatik askatzen duen diziplina, non arrazoimen hutsaren Filosofia osoaren autugaia onura negatibo hau baino ez baita. Desbiderapen bakanak *zentsura* bidez gaindi daitezke, eta beren kausak kritikaren bidez. Arrazoimen hutsean gertatzen den legeaz, ordea, elkarrekin lotuak eta printzipio komunak menpean bateratuak dauden iruzurren eta itxurapenen sistema oso bat aurkitzen denean, hor osorik propioa eta negatiboa den lege-emateak beharrezkoa dirudi, *diziplinaren* izenpean arrazoimenaren eta bere erabilera hutsaren objektuen izaeratik abiatuta, nolabait esateko, zuhurtzia eta norberaren etsaminaren sistema bat antolatzen duen lege-emateak, eta honen aurrean ezin daiteke ezin itxura sofista faltsu atxiki, baizik honek berehala salatu behar du bere burua, bere estalketaren oinarria edozein izanda ere.

Oharrarazi behar da, ordea, nik kritika transzendentalaren bigarren atalburu honetan arrazoimen hutsaren diziplina ez dudala bideratzen edukira, baizik arrazoimen hutsetik abiatzen den ezagutzaren metodora besterik ez. Lehena jadanik osagaien irakaspenean gertatu da. Baina arrazoimenaren erabilerak antzekoa den hainbeste gauza dauka, edozein objektuari aplikatuta ere, eta aldi berean transzendentalak izan behar duen heinean, beste guztitik hain ezberdina da, non bereziki horretarako antolatutako diziplina baten irakaspene negatibo oharrarazlerik gabe errakuntzak ezin baitira saihestu, hain zuzen, eskuarki arrazoimenari egokitzen zaizkion baina hemen desegokiak diren metodoen jarraipen traketsetik halabeharrez sortu behar duten errakuntzak.

Lehen atalburuko

Lehen atala

Arrazoimen hutsaren diziplina erabilera dogmatikoan

Matematikak esperientziaren laguntzarik gabe berez zoriontsuki hedatzen den arrazoimen hutsaren adibide distiratsua ematen du. Adibideak kutsagarriak dira, bereziki berezko eran kasu batean izandako arrakasta besteetan ere izateaz harrotzen den ahalmen berarentzat. Horregatik, arrazoimen hutsak erabilera transzendentalean matematikoan lortu duen adina arrakastaz eta oinarritzotasunez heda daitekeela itxaroten du, bereziki bertan metodo berbera erabiltzen badu, hemen begi-bistako onura izan duen metodo bera. Beraz, garrantzizkoa da jakitea ea azken zientzian matematikoa deitzen zaion ziurtasun *apodiktikora* iristeko metodoa ziurtasun hori bera Filosofian bilatzeko metodo berbera ote den, *dogmatikoa* deitu beharko zaion metodoa, alegia.

Ezagutza *filosofikoa* adigaietatik abiatzen den arrazoimen-ezagutza da, ezagutza matematikoa adigaien *eraikuntzatik* abiatzen dena. Adigai bat *eraikitzeak*, ordea, zera esan nahi du: berari dagokion begiespena a priori aurkeztea. Adigai baten eraikuntzarako, beraz, begiespen *ez-enpirikoa* eskatzen da, zeina, ondorioz, begiespena den aldetik *objektu bakana* den, baina adigai (errepresentazio orokor) baten eraikuntza den aldetik adigai horren menpean kokatzen diren begiespen ahalgarri

guztietarako baliotasun orokorra adierazi behar duen errepresentazioan. Horrela, hiruki bat eraikitzen dut adigai honi dagokion objektua aurkezten badut, edo irudimen soilaren bitartez, begiespen huts batean, edo berari jarraiki baita paperean ere begiespen enpirikoan, baina bi kasuetan osorik a priori eginez, horretarako eredia esperientziaren batetik alokatu gabe. Marraztutako figura bakana enpirikoa da eta, hala ere, adigaia adierazteko balio du bere baliotasun orokorra kaltetu gabe, zeren begiespen enpiriko honetan beti adigaiaren eraikuntzaren ekintza baino ez baita begiztatzen, zeinari determinazio asko osorik axolagabeak zaizkion, adibidez, handitasuna, aldeak eta angelua, eta bertan, beraz, hirukiaren adigaia aldatzen ez duten ezberdintasun hauetaz abstraitzen da.

Ezagutza filosofikoak berezia dena orokorra denean soilik kontsideratzen du, ezagutza matematikoak orokorra dena berezia denean, are gehiago, bakana denean, hala ere, hori a priori eta arrazoimenaren bitartez eginez, halako moldez, non bakana den hau eraikuntzaren baldintza orokor jakinen menpean determinatua dagoen bezala adigaiaren objektua ere, zeinari bakana den hori eskema gisa baino ez dagokion, orokorki determinatua balitz bezala pentsatu behar baita.

Honetan datza, beraz, arrazoimen-ezagutzaren bi era hauen arteko funtsezko bereizketa eta hau ez da funtsatzen materiaren edo objektuen bereizketan. Efektua kausatzat hartzen dute hau esanez Filosofia Matematikatik bereiztea uste dutenek: lehenaz *kualitatea* soilik duela objektutzat, bigarrenaz, berriz, *kantitatea* soilik duela objektutzat. Ezagutza matematikoaren forma da bera kantitatez soilik jardun ahal izatearen kausa. Izan ere, handitasunaren adigaia baino ezin daiteke eraiki, h. d., a priori begiespenean aurkeztu; kualitateak, berriz, ezin dira begiespen enpirikoan baino aurkeztu. Horregatik, bere arrazoimen-ezagutza oro adigaiaren bitartez baino ezin daiteke izan ahalgarria. Horrela, inork ezin du errealitatearen adigaiari dagokion begiespena esperientziatik baino hartu, inoiz ez, ordea, a priori norbere kabutik eta bere kontzientzia enpirikoaren aurretik hartu. Tankera konikoa adigaiaren arabera soilik bihur daiteke begiesgarria ezein laguntza enpirikorik gabe, baina konoaren kolorea aurretik esperientzia batean edo bestean emana izan behar zaigu. Oro har kausa baten adigaia ezin dut inolaz ere begiespenean aurkeztu, esperientziak eskuratzen didan adibide gisa, eta abar. Gainera, Filosofia ere handitasunaz arduratzen da Matematikak egiten duen bezala, adibidez, osotasunaz, amaigabetasunaz, eta abarrez. Matematikak ere jarduten du lerroaren eta azaleraren arteko bereizketaz, kualitate ezberdineko espazioak diren heinean, eta hedapenaren jarraitasunaz, hau bere kualitatea den aldetik. Baina kasu hauetan objektu komuna izan arren, dena dela, objektua arrazoimenaren bidez lantzeko era erabat ezberdina da kontsiderazio filosofikoan eta matematikoan. Hura, adigai orokorretan soilik geratzen da; honek, ezin du ezer antolatu adigai soilen bidez, baizik lasterka doa begiespenearantz, non adigaia in concreto kontsideratzen duen, baina ez enpirikoki, baizik eta hura a priori aurkeztuz, h. d., begiespenean eraikitzen du, eta bertan eraikuntzaren baldintza orokorretik ondorioztatzen denak eraikitako adigaiaren objektuaz ere balio behar du orokorki.

Bemakio filosofo bati hirukiaren adigaia, eta utz biezaio bere erara bila dezan ea bere angeluen batuketak nola jokatzen duen angelu zuzenari dagokionez. Ez dauka hiru lerro zuzenetan itxia dagoen figura baten adigaia baino, eta hainbeste angeluren adigaia. Hortaz, adigai honetaz gogoeta dezake nahi duen bezain luze, baina ez du ezer berria lortuko. Lerro zuzenaren, edo angeluaren, edo hiru zenbakiaren adigaiak analizatu eta nabariak bihur ditzake, baina ezin du adigaiaren ez dautzan beste berekitasunetara heldu. Geometrialariak soilik onartzen du arazo hori. Berehala hasten da hirukia eraikiz. Bi angelu zuzenek lerro zuzen batean ukitzen diren puntu batetik abiatuta marrazten diren angelu denak adina osatzen dutela badakienez gero, orduan bere hirukiaren alde bat luzatzen du eta ukitzen diren bi angelu lortzen ditu, bi angelu zuzenen balio berdina dutenak. Hortaz, bi angelu hauetatik kanpokoa dena zatitzen du hirukiaren aurkako aldeari paraleloa den lerroa marrazten duen heinean, eta hemen kanpotik ukitzen duen angelua sortzen dela ikusten du, barnekoaren berdina dena, eta abar. Honela lortzen da inferentzien kate baten bitartez eta beti begiespenaren gidarekin arazoaren konponketa erabat argigarria eta, aldi berean, orokorra.

Matematikak, ordea, Geometrian handitasunak (quanta) ez ezik, Algebran handitasun soila ere (quantitas) eraikitzen du, hemen halako handitasunaren adigaiaren bitartez pentsatu beharreko objektuaren antolaeraz osoki abstraitzen dela. Hainbestez, oro harrezko handitasunaren eraiketa ororen izendapen jakin bat aukeratzen du (zenbakiak), batuketa, kenketa, erroadura eta abar diren bezala, eta, handitasunaren adigai orokorra bere hartueman ezberdinen arabera ezaugarritu ondoren handitasunaren bitartez sortzen edo aldatzen den landualdi oro aurkezten du begiespenean erregela orokor jakinen arabera; handitasun bat beste baten bitartez zatitua izan behar denean, zatiketaren forma ezagugarriak biak beren zeinuen arabera biltzen ditu, eta abar, eta eraikuntza sinboliko baten bitartez iristen da ezagutza diskurtsiboa adigai soilen bitartez inoiz iritsiko ez den puntura, Geometriak (objektua beraren) eraiketa ostentsiboarekin edo geometrikoaren bidez egiten duen bezala.

Zein izan daiteke arrazoimenaren bi artista hauek aurkitzen diren egoera hain ezberdin honen kausa, alegia, batek bere bidea adigaiaren arabera, besteak a priori adigaiei jarraiki aurkezten dituen begiespenen arabera hartzea eragiten duena? Kausa argia da, gorago azaldu den oinarritzko irakaspen transzendentalaren arabera. Kontua ez dira hemen adigaiaren analisi soilaren bitartez sor daitezkeen esakune analitikoak (hemen filosofoak ezbairik gabe aldea hartuko lioke bere aurkakoari), baizik esakune sintetikoak, eta gainera, a priori ezagutu behar direnak. Izan ere, nik ez dut begiratu behar hirukiaren nire adigaian errealki pentsatzen dudana (hau definizio soilak besterik ez da), aitzitik, honetaz goiti joan behar dut adigaian ez dautzan baina berari dagozkion berekitasunetara. Hau, ordea, ez da ahalgarria, nire objektua begiespen enpirikoaren edo begiespen hutsaren baldintzen arabera determinatzen duan heinean izan ezik. Lehenak, esakune enpirikoa baino ez luke eskuratuko (bere angeluen neurketaren bitartez), zeinak ezein orokortasunik eta are gutxiago beharrezkotasunik ez duen barnebiltzen, eta halakoa ez da gure solasgaia. Bigarren jardunbidea eraiketa matematikoa da, eta hemen gainera bereziki eraiketa geometrikoa, zeinaren bitartez nik begiespen hutsean, enpirikoan bezala, oro har hiruki baten eskemari dagokion, eta beraz, bere adigaiairi dagokion anizkuntzia gaineratzen diodan, eta honela eraiki behar dira, noski, esakune sintetiko orokorrak.

Alferrik filosofatuko nuke, h. d., diskurtsiboki gogoetatuko nuke hirukiari buruz, horren bitartez definizio soilera arte baino urrunago ez nintzateke iritsiko, arrazoizkoa bertatik hastea denean. Badago era berean filosofoak besterik lortzen ez duen adigaiaetiko sintesi transzendentalak, baina oro harrezko gauza bat baino gehiago ez du ukitzen inoiz, hots, bere hautemapena esperientzia ahalgarrian kokatu ahal izateko baldintzak. Zeregin matematikoan, ordea, ez da inolaz ere honetaz eta oro har existentziaz galdetzen, baizik objektuek beren baitan dituzten berekitasunez, baina hauek beren adigaiaekin lotuak dauden heinean soilik.

Aipatutako adibidean arrazoimenaren bi erabilera hauen artean dagoen bereizketa handia argitzea besterik ez dugu saiatu, diskurtsiboa adigaiaren arabera eta intuitiboa adigaiaren eraikuntzaren bidez. Hortaz, berezko eran galdetzen da ea zein den arrazoimenaren erabilera bikoitza beharrezkoa bihurtzen duen kausa eta zein baldintzarekin ezagut daitekeen ea lehena edo bigarrena gertatzen den.

Gure ezagutza oro azkenean begiespen ahalgarriei lotzen zaie; izan ere, hauen bitartez baino ez da ematen objektu bat. Hala ere, apriorizko adigai batek (enpirikoa ez den adigaia) edo jadanik begiespen hutsa barnebiltzen du bere baitan eta, hainbestez, eraiki daiteke, edo a priori ematen ez diren begiespen ahalgarrien sintesiak baino ez ditu barnebiltzen eta, hainbestez, bere bidez ederki juzga daiteke sintetikoki eta a priori, baina diskurtsiboki besterik ez adigaiaren arabera, eta inoiz ez intuitiboki adigaiaren eraikuntzaren bitartez.

Begiespen orotatik bat bera ere ez da a priori ematen, agerpenen forma soilak izan ezik, hots, espazioa eta denbora, eta hauen adigaia quantum gisa zenbakiaren bitartez aurkez daiteke a priori begiespenean, h. d., eraiki daiteke, edo bere kualitatearekin aldi berean (bere tankera), edo baita bere kantitatearekin soilik ere (homogeneoki anizkuntzia denaren sintesi soilak). Agerpenen materia, ordea, espazioan eta denboran diren *gauzak* ematen dizkiguna, hautemapenean soilik errepresenta daiteke, eta beraz, a posteriori. Agerpenen eduki enpiriko hau a priori errepresentatzen duen adigai bakarra gauzaren adigaia da oro har eta bere ezagutza sintetikoak hautemapenak a posteriori eman dezakeenaren sintesiaren erregela soilak baino ezin du hornitu a priori, inoiz ez, ordea, objektu errearen begiespena a priori, zeren honek enpirikoa izan behar baitu halaberharrez.

Begiespena a priori ezin eman zaien oro harrezko *gauzei* lotzen zaizkien esakune sintetikoak transzendentalak dira. Ondorioz, esakune transzendentalak inoiz ezin daitezke eman adigaiaren eraikuntzaren bitartez, baizik adigaiaren arabera a priori. Hauek erregela hau baino ez dute barnebiltzen: «a priori begiespenean errerepresentatu ezin daitekeenaren (hautemapena) batasun sintetiko jakinak enpirikoki bilatu behar dira». Hauek ezin dute, ordea, beren adigaiaetako bat bera ere a priori kasuren batean aurkeztu, baizik hau a posteriori baino ez dute egiten esperientziaren bitartez, eta esperientzia oinarri-esakune sintetiko haien arabera bihurtzen da lehen-lehenik ahalgarria.

Adigai batez sintetikoki juzgatu behar bada, orduan adigai horretatik irten behar da, eta gainera, bera eman digun begiespenera irten behar da. Izan ere, adigaian barnebildua dagoenean geratuz gero, orduan judizioa analitikoa litzateke, hots, bertan errealki barnebildua dagoenaren araberrako pentsamenduaren argiketa bat besterik ez litzateke. Ni, ordea, adigaitik berari dagokion begiespen huts edo enpirikora joan naiteke, bera hor in concreto kontsideratzeko eta bere objektuari egozten zaiona a priori edo a posteriori ezagutzeko. Lehena, ezagutza arrazional eta matematikoa da adigaiaren eraikuntzaren bitartez, bigarrena, enpirikoa (mekanikoa) baino ez den ezagutza, inoiz beharrezko esakune apodiktikoak eman ezin dituenak. Horrela, errearen nire adigai enpirikoa analiza dezaket, hitz bertan errealki pentsatzen duan guztia zenbatu ahal izatea baino beste ezer gehiago irabazi gabe, eta horren bitartez nire ezagutzan hobekuntza logikoa sortzen da, baina ez da ezein gehikuntza edo eransketa

bereganatzen. Izen honekin agertzen den materia hartzen badut, bere hautemapenak lortzen ditut, sintetikoak baina enpirikoak diren esakune ezberdinak eskuratuko dizkidaten hautemapenak. Hiruki baten adigai matematikoa eraikiko nuke, h. d., a priori begiespenean emango nuke, eta bide honetatik ezagutza sintetikoa baina arrazionala lortuko nuke. Halere, errealitatearen, substantziaren, indarraren, eta abarren adigai transzendentalak ematen zaizkidanean, honek ez du ez begiespen enpirikoa ezta hutsa ere ezaugarritzen, baizik begiespen enpirikoen sintesia besterik ez (beraz, a priori eman ezin daitekeena), eta bertatik ezin da sortu ezein esakune sintetiko determinatzailearik, baizik begiespen enpiriko ahalgarrien sintesiaren oinarri-esakune bat besterik ez¹⁴¹, zeren sintesiak ezin baitu a priori berari dagokion begiespenera irten. Beraz, esakune transzendentalak adigai soilen arabera arrazoimen-ezagutza sintetikoa da, eta beraz, ezagutza diskurtsiboa da, ezagutza enpirikoaren batasun sintetiko oro lehen-lehenik ahalbidetzen baitu, a priori ezein begiespen ematen ez duen arren.

Horrela, arrazoimenaren erabilera bikoitza dago, ezagutzaren orokortasuna eta apriorizko sorketa komunean duten arren, hala ere, aurrerabidean oso ezberdinak diren bi erabilera, eta gainera, honegatik, guri objektuak emateko baliabidea den agerpenean bi zati daudelako: begiespenaren forma (espazioa eta denbora), osorik a priori ezagutua eta determinatua izan daitekeena, eta materia (fisikoa) edo edukia, espazioan eta denboran aurkitzen den zerbait esan nahi duena, gainera izate bat barnebiltzen duena eta sentsazioari dagokiona. Enpirikoki izan ezik inoiz era determinatuan eman ezin daitekeen materiari dagokionez ezin dugu ezer a priori izan, sentsazio ahalgarrien sintesiaren adigai indeterminatuak izan ezik, apertzepzioaren batasunari dagozkion heinean (esperientzia ahalgarri batean). Formari dagokionez, gure adigaiek begiespenean a priori determina ditzakegu, espazioan eta denboran objektu berak sintesi erregularraren bitartez sortzen ditugun heinean eta hauek quanta gisa soilik kontsideratzen ditugun heinean. Hark adigaien arabera arrazoimenaren erabilera izena du, agerpenak eduki errearen arabera adigaiei menperatzea besterik egin ezin dugun heinean, zeinak, orduan, enpirikoki, h. d., a posteriori baino ezin daitezkeen determinatu (baina adigai haien arabera sintesi enpirikoaren erregela gisa); hau adigaien eraikuntzaren bitartez egindako arrazoimenaren erabilera da, hauek jadanik apriorizko begiespenari lotzen zaizkion heinean, eta horregatik datu enpirikorik gabe ere begiespen hutsean determinatuta eman daitezke. Hau dena *filosofikoa* deitzen zaion adigaiaetatiko *arrazoimen-ezagutzari* dagokio: den guztiari dagokionez (gauza bat espazioan edo denboran), ea eta noraino quantum bat den ala ez den, ea bertan izatea edo gabezia errepresentatu behar den, zerbait hori (zeinak espazioa edo denbora betetzen duen) lehen substratu bat den ala determinazioa baino ez den, ea bere izateak beste zerbaitekin harremanik duen, kausa edo efektu gisa, eta, azkenik, izatearen arabera ea bakartua edo besteekin elkarren menpekotasunean dagoen eta izate honen ahalgarritasuna, errealitatea eta beharrezkotasuna edo beren aurkakoak kontsideratzea. Bestalde, espazioan apriorizko begiespena determinatzea (tankera), denbora zatitzea (luze-laburra), edo gauza bat eta berberaren sintesiaren alderdi orokorra denboran eta espazioan ezagutzea, eta hortik sortzen den begiespen baten handitasuna oro har (zenbakia) ezagutzea *arrazoimenak* adigaien eraikuntzaren bitartez betetzen duen *zeregina* da, eta *matematikoa* izena du.

Arrazoimenak Matematikaren bitartez lortzen duen arrakasta handiak erabat berezko eran susmo hau dakar berekin: berak ez bada ere, bere metodoak bederen handitasunaren alorretik at ere arrakasta lor dezakeela, bere adigai guztiak berak a priori eman ditzakeen begiespenetara ekarri, eta horren bitartez, nolabait esateko, izadiaren maisua bihurtzen den heinean; aitzitik, Filosofia hutsa apriorizko adigai diskurtsiboei izadiaren inguruan dabil, bere errealitatea a priori begiesgarria egin, eta horren bitartez, baieztatu ezinik. Badirudi antze honen maisuei ez zaiela falta beren buruan konfiantzarik, ezta publikoari itxaropen handiak haien trebetasunagatik ere, baldin eta inoiz honetaz aritu behar badute. Izan ere, beren Matematikaz ia inoiz ez dutenez filosofatu (zeregin zaila!), orduan inolaz ere ez zaie bururatzen arrazoimenaren erabilera bat eta bestearen arteko bereizketa espezifikoa. Arrazoimen arruntetik alokatzen dituzten erregela arruntak eta enpirikoki erabiliak baliagarriak zaizkie axiomen orde. Ez dute batere interesik lantzen dituzten espazioaren eta denboraren adigaien jatorriaz (jatorrizko quanta bakar gisa), eta badirudi, orobat, onuragabekoa zaiela adimenaren adigai hutsen jatorria eta honekin batera beren baliotasunaren hedapena ikertzea; aitzitik, haiek erabiltzea besterik ez zaie interesatzen. Zuzenki jokatzan dute honi buruz, markatutako muga, hots, *izadiaren* muga gainditzan ez duten heinean. Hala ere, sentimenaren alorretik adigai huts eta transzendentalek lur ez segurura igarotzen dira hau ohartu gabe, non lurrak (instabilis tellus, innabilis unda) ez dien baimentzen zutik egotea, ezta igeri egitea ere, baizik urrats iheskorrek egitea besterik ez, zeinetatik denborak batere arrastorik gordetzen ez duen; Matematikan duen ibilerak, aitzitik, errege-bidea egiten du, bertan ondorengo urrunenak ere konfiantzaz ibili ahal izango direla.

Arrazoimen hutsaren mugak erabilera transzendentalean zehazki eta ziurtasunez determinatzeko betebeharra gure gain hartu dugunez, baina halako asmoak bere baitan berezitasun hau duenez gero, alegia, oharpen bizi eta argienak egin arren, beti ere itxaropenek distraitzen dutela esperientziaren mugez goiti intelektualaren lurraldera iristeko asmoa osorik utzi aurretik, bada,

orduan, oraindik beharrezkoa da, nolabait esateko, fantasiaz betetako itxaropen baten azken aingura jasotzea eta metodo matematikoari jarraitzeak ezagutza era honetan batere alderik ezin duela hartu erakustea, bere ahultasuna nabariago aurkitzea ez bada behintzat; eta Geometria eta Filosofia bi gauza erabat ezberdinak direla erakustea, Natur Zientzian eskuak estutzen dituzten arren, eta beraz, bata ezin duela inoiz bestearen jardunbidea imitatu.

Matematikaren oinarritzotasuna definizio, axioma eta demostrazioetan funtsatzen da. Hemen zera besterik ez dut nahi erakutsi: Filosofiak hauetako bat bera ere ezin duela lortu edo imitatu matematikariak ulertzen dituen zentzuan. Geometrialariak bere metodoaren arabera Filosofian karten eraikina baino ezin du sortu, filosofoak berearen arabera Matematikaren aldean hitzontzikeria baino ezin du eragin, Filosofia bere mugak ezagutzeaz osatu arren, eta matematikari berak, baldin eta bere talentua jadanik izadiagatik mugatua eta bere sailean zedarritzatua ez badago, bada, Filosofiaren oharpenak ezin ditu saihestu, ezta hauen gainetik jauzi egin ere.

1. *Definizioez*. Adierazpen berak dioten bezala *definitzeak* gauza baten adigai xehea bere mugen barnean jatorrizko eran aurkeztea baino ez du esan nahi¹⁴². Halako eskakizunaren arabera adigai *enpirikoa* ezin da inolaz ere definitu, baizik *esplizitatu* besterik ezin da egin. Izan ere, bertan sentsuen objektuen era jakin bateko ezaugarri batzuk soilik ditugunez gero, orduan ez da inoiz segurua ea objektua ezaugarritzen duen hitzan batzuetan bere ezaugarri gehiago pentsatzen ote diren eta besteetan gutxiago. Horrela, batek *urreetan* adigaiaren pisuaz, koloreaz eta gogortasunaz gain ez herdoiltzearen berekitasuna pentsa dezake, besteak, ordea, agian ez daki ezer horretaz. Ezaugarri jakin batzuk erabiltzen dira, ezberdintzeko aski diren heinean; ohar berriek ezaugarri batzuk kendu eta besteak gaineratzen dituzte, eta adigaia ez dago inoiz muga seguruen artean. Eta zertarako balioko luke halako adigaia definitzeak, adibidez, ura eta bere berekitasunak direnean solasgaia, baldin eta ura hitzarekin pentsatzen denean geratu beharrean, saialdiak egitera aurrera egiten bada, eta hitzak atxikitzen zaizkion ezaugarri gutxiekin *ezaugarripen* bat soilik osatu behar badu, eta ez gauzaren adigaia, eta beraz, ustezko definizioa hitzezko determinazioa baino ez bada? Bigarrenik, gainera, zehazki hitz eginez, a priori emandako ezein adigai ezin da definitu, adibidez, substantzia, kausa, eskubidea, zuzentasuna, eta abar. Izan ere, inoiz ezin dut seguru jakin (oraindik nahastutako) adigai jakinaren errepresentazio nabaria xeheki garatua izan den, objektuari egokia zaiola badakit izan ezik. Bere adigaiak, ordea, emana denez, guk analisisan ezikusi baina aplikazioan beti erabiltzen ditugun errepresentazio ilun asko barnebil ditzakeenez gero, orduan nire adigaiaren analisisaren xehetasuna beti zalantzaragarria da eta adibide egoki askoren bitartez baino ezin daiteke *ustez* ziurra bihurtu, baina inoiz ez *apodiktikoki* ziurra. «Definizioa» adierazpena baino gusturago erabiliko nuke «*esposizioa*», beti ere zuhurragoa dena, eta honekin kritikoak definizioa onartzen du maila batean, nahiz eta xehetasunari dagokionez oraindik zalantzak izan. Ez enpirikoki ezta a priori ere adigai jakinak definitu ezin direnez gero, orduan ez dira hautaz pentsatutakoak baino geratzen, beraietan artifizio hau saiatzearren. Nire adigaia beti defini dezaket halako kasuan; izan ere, nik zer pentsatu nahi nuen jakin behar dut, adigaia berariaz egin baitut eta ez baitzait eman ez adimenaren izaeraren bitartez, ezta esperientziaren bitartez ere, alabaina, nik ezin dut esan horren bitartez egiazko objekturik definitu dudarik. Izan ere, adigaia baldintza enpirikoetan funtsatzen bada, adibidez, itsaserlojua, orduan objektua eta bere ahalgarritasuna ez dira oraindik emanak hautazko adigai honen bitartez; hortik abiatuta, ez dakit era berean ea berak edonon objekturik baduen, eta hobe litzateke nire argiketari (nire proiektuaren) deklarazioa deitzea objektuaren definizioa deitzea baino. Beraz, definitzeko balio duten beste ezein adigairik ez da geratzen, a priori eraiki daitekeen hautazko sintesia barnebiltzen dutenak izan ezik, eta beraz, Matematikak besterik ez ditu definizioak. Izan ere, berak pentsatzen duen objektua gainera a priori begiespenean aurkezten du, eta honek ezin du adigaiak baino gehiago ezta gutxiago ere barnebildu, zeren objektuaren adigaiaren argiketaren bitartez eman baitzen jatorrizko moduan, h. d., beste zerbaiten argiketatik eratorri gabe. Hizkuntza alemanak «*esposizioa*», «*esplikazioa*», «*deklarazioa*» eta «*definizioa*» adierazpenetarako hitz bakarra dauka: «argiketa» (Erklärung), eta horregatik eskakizunaren zorrotasuna pixka bat leundu behar dugu, zeren guk, hain zuzen, argiketa filosofikoei definizioaren izen ohoretsua ukatzen baikenien, eta ohar oso hau honetara zedarritzatu nahi dugu: definizio filosofikoak emanak diren adigaien esposizio gisa sortzen direla, matematikoak, berriz, jatorriz sortutako adigaien eraikuntzen gisa; haiek analitikoki baino ez direla sortzen analisisaren bitartez (beren osotasuna apodiktikoki ziurra izan gabe), hauek sintetikoki, eta beraz, adigaia bera *eginez*, besteek, aitzitik, adigaia *argitu* besterik egiten ez duten bitartean. Hemendik zera ondorioztatzen da:

a) Filosofian ez dela Matematika imitatu behar definizioak aurretik jarritz, saialdi soil bat egiteko izan ezik. Izan ere, hauek adigai jakinen analisiak direnez gero, orduan adigai hauek aurretiaz doaz, oraindik nahastuta bada ere, eta esposizio ezosoa halako moldez doa osoaren aurretik, non oraindik osatugabe dagoen analisi batetik ateratako ezaugarri batzuetatik abiatuta zenbait gauza esposizio osora, h. d., definiziora iritsi baino lehenago inferi baititzakegu; hitz batean, Filosofian definizioak, nabaritasun neurtua den heinean, lana hasi beharrean itxi egin behar du¹⁴³. Aitzitik, Matematikan definizioaren aurretik ez dugu

ezein adigairik, definizioak ematen baitu adigaia lehen-lehenik, eta beraz, Matematika beti bertatik has daiteke eta gainera Matematikak bertatik hasi behar du.

b) Definizio matematikoez ez dute inoiz erratzen. Izan ere, adigaia lehen-lehenik definizioaren bitartez emana denez gero, orduan berak ez du barnebiltzen definizioak bere bitartez pentsatu nahi izan duena baino. Bertan, ordea, edukiari dagokionez okerra den ezer ez dagoen arren, hala ere, (janzkeraren) forman, h. d., doitasunari dagokionez huts egin daiteke, oso gutxitan bada ere. Horrela, zirkulua puntu guztiak beste puntu batetik (erdipuntua) distantzia berberan dituen lerro *okerra* dela dioen ohiko argiketak «*okerra*» determinazioa halaberrez erabiltzeko hutsegitea du. Izan ere, definiziotik ondorioztatzen den eta erraz frog daitekeen teorema berezi bat dugu: «edozein lerro okerra da (bere ezein zatirik ez dela zuzena), bere puntuak puntu batetik distantzia berberera badaude». Definizio analitikoek, ordea, era ezberdinetan erra dezakete, benetan adigaian ez dautzan ezaugarriak erabiltzen dituzten heinean edo xehetasunaren gabezia duten heinean, definizio batean funtsezkoa dena, zeren bere analisiaren osotasunaz ezin baitaiteke beteki ziur izan. Horregatik, Filosofian ezin da imitatu Matematikak definitzean erabiltzen duen metodoa.

2. *Axiomez*. Hauek apriorizko oinarri-esakune sintetikoak dira, zuzenki ziurrak diren heinean. Adigai bat besteekin ezin da lotu sintetikoki eta, hala ere, zuzenki, zeren adigai bat gainditu ahal izateko hirugarren ezagutza arartekaria beharrezkoa baita. Filosofia adigaietatiko arrazoimen-ezagutza baino ez denez gero, orduan bertan ez da axioma baten izena merezi duen ezein oinarri-esakunerik aurkituko. Matematikak, aitzitik, axiomak izan ditzake, zeren berak adigaian eraikuntzaren bitartez objektuaren begiespenean bere predikatuak a priori eta zuzenki elkarlot baititzake, adibidez, «hiru puntu beti plano batean daude». Aitzitik, adigaietatikoa besterik ez den oinarri-esakune sintetiko batek ezin du inoiz zuzenki ziurra izan, adibidez, «gertatzen den guztiak kausa bat du» esakunea, hain zuzen, hirugarren bat bilatu behar dudalako, hots, denboraren determinazioaren baldintza esperientzian, eta halako oinarri-esakunea ezin da zuzenean adigaietatik soilik abiatuta ezagutu. Oinarri-esakune diskurtsiboak, beraz, oinarri-esakune intuitiboen, h. d., axiomak guztiz bestelakoak dira. Haiek oraindik beti ere lehenengoei alde batera utz dezaketen dedukzio bat behar dute, eta hauek arrazoi beragatik ebidenteak direnez gero, oinarri-esakune filosofikoek beren ziurtasun ororekin ere inoiz esan ezin dezaketena, orduan amaigabeki asko falta da arrazoimen huts eta transzendentalaren esakune sintetikoa esakune hau bezain begi-bistakoa izateko (egoskorki adierazi ohi den bezala): «*bi bider bi berdin lau da*». Analitikako adimen hutsaren oinarri-esakuneen taulan begiespenaren axioma jakinak aipatu ditut; baina bertan aipatutako oinarri-esakunea bera ez zen axioma bat, baizik oro har axiomak ahalgarritasunaren printzipioa erakusteko soilik balio zuen, eta bera adigaietatiko oinarri-esakunea baino ez zen. Izan ere, Filosofia transzendentalean Matematikaren ahalgarritasuna bera ere erakutsi behar da. Filosofiak, beraz, ez dauka axiomarik eta ezin ditu inoiz bere oinarri-esakuneak a priori horrela absolutuki agindu, baizik hauek erabiltzeko eskuduntza dedukzio zehatzaren bitartez legezatzarekin ados egon behar du.

3. *Demostrazioez*. Froga apodiktikoari soilik dei dakioke demostrazioa, froga hau intuitiboa den heinean. Esperientziak ederki irakasten digu zerbait dela, baina ez digu erakusten inolaz ere den hori ezin dela bestela izan. Horregatik, froga-oinarri empirikoek ezin dute ezein froga apodiktikorik sortu. Apriorizko adigaietatik abiatuta, ordea, (ezagutza diskurtsiboa) inoiz ezin da ziurtasun begiesgarriarik sortu, h. d., ebidentziarik sortu, gainerakoan judizioa apodiktikoki oso ziurra izan daitekeen arren. Matematikak baino ez ditu barnebiltzen, beraz, demostrazioak, zeren honek bere ezagutza ez baitu adigaietatik eratortzen, baizik beren eraikuntzatik, h. d., begiespenetik, a priori eman daitekeena adigaiei egokituz. Algebraren jardunbidea bera, bere ekuazioekin, beraietatik erredukzioaren bitartez egia frogarekin batera sortzen dela, ez da eraikuntza geometrikoa, baina bai karakteristiko, bertan zeinuen esker adigaiak aurkezten direla begiespenean, bereziki handitasunen hartuemanenak, eta alde heuristikoki batere begiratu gabe inferentzia oro huts egitetik segurtatzen du hauetako bakoitza begi-bistan jartzean. Aitzitik, ezagutza filosofikoak abantaila hau alde batera utzi behar du, orokorra dena beti in abstracto (adigaian bitartez) kontsideratu behar duen heinean, Matematikak bere aldetik orokorra dena in concreto (begiespen bakanean) eta, hala ere, apriorizko errepresentazio hutsen bitartez kontsidera dezakeenean, hori egitean hanka-sartze bakoitza ikusgarria bihurtzen delarik. Horregatik, hobe litzateke lehenei *froga akroamatikoak* deitzea (diskurtsiboak), hitz soilen bitartez (objektua pentsamenduan) bideratzen direnez, *demostrazioak* deitzea baino, objektuaren begiespenaz jarduten dutenak, adierazpenak jadanik iragartzen duen bezala.

Hemendik ondorioztatzen da Filosofiaren izaerari ez dagokiola bereziki arrazoimen hutsaren alorrean ibilera dogmatiko egoskorra hartzea eta Matematikaren tituluekin eta ezaugarriekin apaintzea, ez baita zientzia honen ordena bereko kidea, nahiz eta berekin anai-arreba antzeko bateratzea itxaroteko arrazoi guztiak dituen. Handiuste hutsalak dira, inoiz arrakastarik izan ezin dezaketena, aitzitik, bere mugak ezezagutzen dituen arrazoimen baten itxurapenak aurkitzeko eta gure adigaian argiztapen

gogobetegarriaren bitartez espekulazioaren harrotasuna norbere buruaren ezagutza apala baina sendoagoan eraldatzeko asmoa atzeratzen dutenak. Arrazoimenak, beraz, bere saialdi transzendentalean ezingo du hain konfiantza handiz aurrera begiratu, berak urratu duen bideak xedera zuzenduko balu bezala, eta bere oinarrian ezarritako premisak ezin ditu hain ausarki ontzat hartu, beharrezkoa ez balitz bezala sarri atzera begiratzea eta honi arreta eskaintzea: ea inferentzien aurrerabidean hutsegiteak aurkitzen diren, printzipioetan igarri ez diren eta hauek gehiago determinatzea edo osoki aldatzea beharrezkoa egiten duten hutsegiteak.

Esakune apodiktiko guztiak (frogagarriak zein zuzenki ziurrak direnak) *dogmetan* eta *matemetan* sailkatzen ditut. Adigaietatiko esakune sintetiko zuzena *dogma* da; aitzitik, adigaien eraikuntzaren bitartez osatutako esakunea halakoa *matema* da. Judizio analitikoek benetan ez digute objektuaz daukagun adigaian jadanik barnebildua dagoena baino irakasten, zeren subjektuaren adigaiaren ezagutza ez baitute hedatzen, aitzitik, hau azaldu besterik ez dute egiten. Horregatik, ezin zaie dogmak deitu egokiro (hitz hau agian *irakats-esaera* gisa itzuli genezake). Hala ere, aipatutako apriorizko esakune sintetikoek bi eren artean, ohiko hizkeraren arabera ezagutza filosofikoari dagozkionak soilik jaso dezakete izen hau, eta zailki dei lekieke dogmak Aritmetikaren edo Geometriaren esakuneei. Beraz, erabilera honek ematen genuen argiketa egiaztatzen du, alegia, adigaietatiko judizioak baino ez direla dogmatikoak, ez adigaien eraikuntzatik sortzen direnak.

Arrazoimen huts osoak espekulatiboa besterik ez den bere erabileran ez du adigaietatiko judizio sintetiko zuzen bat bera ere barnebiltzen. Izan ere, erakutsi dugun eran ideien bidez ezin du baliotasun objektiborik luketen ezein judizio sintetikorik izan; adimenaren adigaien bitartez oinarri-esakune seguruak lortzen ditu, baina inolaz ere ez zuzenki adigaietatik abiatuta, baizik beti ere zeharbidez, adigai hauek erabat beharbadakoa denarekin harremanean jarritz, hots, *esperientzia ahalgarriarekin*; zeren hau (esperientzia ahalgarrien objektu gisa agian) auresuposatzen bada, beraz, oinarri-esakuneak apodiktikoki ziurrak dira, bere baitan, ordea, (zuzenki) ezin dira a priori ezagutu. Orduan inork ezin du «gertatzen den guztiak bere kausa du» esakunea adigai jakin hauetatik soilik abiatuta irmoki aditu. Horregatik, ez da dogma bat, nahiz eta beste ikuspuntu batetik, hots, bere erabilera ahalgarriaren alor bakarraren, h. d., esperientziaren ikuspuntutik oso ederki eta apodiktikoki froga daitekeen. *Oinarri-esakune* izena du, eta ez *teorema*, frogatu egin behar den arren, zeren berak berekitasun berezi hau baitu: bere froga-oinarria, hots, esperientzia, berak ahalbidetzen duela lehen-lehenik eta bertan beti auresuposatua izan behar dela.

Baldin eta arrazoimen hutsaren erabilera espekulatiboan edukiaz ere dogmarik ez badago, orduan metodo *dogmatiko* oro desegokia zaio, dela matematikariari alokatua, dela berezia izan behar duen beste bat. Izan ere, hutsegiteak eta errakuntzak ezkututzen ditu eta benetan arrazoimenaren urrats denak modu argienean erakusteko asmoa duen Filosofia iruzurtzen du. Hala eta guztiz ere, metodoa beti ere *sistematikoa* izan daiteke. Izan ere, gure arrazoimena sistema bat da (subjektiboki), baina adigai soilen bitartez duen erabilera hutsean ikerkuntzarako sistema besterik ez da batasunaren oinarri-esakuneen arabera, eta *esperientziak* baino ezin dezake eman bertarako ekaia. Hemen ezin da asko esan Filosofia transzendental baten metodo bereziaz, autugaia gure ahalmenen egoeraren kritika bat besterik ez baita, alegia, ea guk nonbait eraiki dezakegun oro har eta ea eraikina noraino altxa dezakegun dauzkagun ekaiekin (apriorizko adigai hutsekin).

Lehen atalburuko

Bigarren atala

Arrazoimen hutsaren diziplina bere erabilera polemikoari begira

Arrazoimena bere enpresa orotan kritikari menperatu behar zaio eta bere askatasuna ezein debekuren bitartez ezin da hautsi norbera kaltetu gabe eta susmo kaltegarriarik erakarri gabe. Ezer ez da hain garrantzitsua onurari dagokionez, ezer ez da hain sakratua, non pertsonaren autoritaterik ezagutzen ez duen bilaketa etsaminatzaile eta aztertzailea saihestu dezakeela. Askatasun honetan funtsatzen da arrazoimenaren existentzia, eta honek ez du autoritate diktatorialik, baizik bere agindua beti hiritar askeen adostasuna besterik ez da, eta hauetakoa bakoitzak bere ezbaiak, baita bere betoa ere, ahoskatu ahal izan behar du beldurrik gabe.

Arrazoimenak inoiz kritika *ukatu* ezin badu ere, hala ere, ez dauka beti beraren *beldur* izateko arrazoirik. Halere, arrazoimen hutsa bere erabilera dogmatikoan (ez matematikoan) ez da bere lege gorenaren betetze zehatzenaz hain kontziente,

non arrazoimen garaia eta epaile baten begirada kritikoaren aurrean beldurrik izan gabe eta bere buruari emandako autoritate dogmatiko oro alde batera utzita agertu beharko lukeela.

Erabat bestela gertatzen da kontua bere hiritar lagunen uziek osatzen dutenean, ez epailearen zentsurak, eta uzi hauen aurka babestu besterik egin behar ez duenean. Izan ere, hauek ere dogmatikoak izan nahi badute, ezeztaketan bada ere, haiek baieztaketan ziren bezala, bada, orduan legeztapena κατ' ἀνθρώπων gertatzen da, eta honek kalte ororen aurka babesten du eta jabetza baieztatua sortzen du, zeinak ezein handiuste arrotzen aurrean beldurtzeko beharrik ez duen, nahiz eta κατ' ὃ λ' ἑίων askiro ezin froga daitekeen.

Arrazoimen hutsaren erabilera polemikoaz, bada, ukapen dogmatikoaren aurkako esakuneen defentsa ulertzen dut. Hemen kontua ez da bere baieztapenak agian faltsuak izan ote daitezkeen, baizik inork aurkakoa inoiz ziurtasun apodiktikoz (baita itxura handiz soilik) baieztatu ote dezakeen besterik ez. Izan ere, gu ez gaude, hainbestez, eskaleak bagina bezala gure jabegoan, gogobetegarria ez den bere titulua dugunean gure aurrean, eta osorik ziurra da inork ez duela inoiz jabego honen zuzengabetasuna frogatuko.

Arduragarria eta etsigarria da oro har arrazoimen hutsaren antitetika bat egotea eta gatazka ororen epaimahai gorena ordezkatzeko duen arrazoimena bere buruarekin gatazkan gertatu beharra. Gorago itxurazko bere antitetika halakoa genuen begibistan; baina gaizki-ulertze batean funtsatzen zela erakutsi da, ohiko aurreiritzien arabera agerpenak berbaitango gauzatat hartzen baitira, eta orduan, beren sintesiaren osotasun absolutua eskatzen baitute era batera edo bestera (bi eratara, ordea, era berean ezinezkoa izaki), hau agerpenen aldetik, ordea, inolaz ere itxaron ezin daitekeenean. Orduan, esakune hauetan *arrazoimenak* ez zuen bere burua benetan *kontraesaten*: «agerpen jakinen ilarak *bere baitan* lehen hasiera absolutua du», eta «ilara hau erabat eta *bere baitan* hasierarik gabekoa da»; izan ere, bi esakuneak ederki elkartzen dira, zeren agerpenak bere izatearen arabera (agerpen gisa) *beren baitan* ez baitira ezer, h. d., zerbait kontraesankorra baitira, eta beraz, beren auresuposizioak berezko eran ondorioztapen kontraesankorrak izan behar baititu.

Halako gaizki-ulertzea, ordea, ezin da aipatu eta horren bidez ezin da arrazoimenaren gatazka baztertu, teistek egiten duten legez, zera baieztatuko balitz bezala: «*zerizan gorena badago*»; eta horren aurka ateistek egiten duten legez: «*ez dago zerizan gorenik*»; edo Psikologian egiten denez: «pentsatzen duen orok batasun iraunkor absolutua du, eta beraz, hau materiazko batasun iragankor horretatik ezberdina da», eta honi beste hau kontrajartzen zaio: «arima ez da materiagabeko batasuna eta ezin da iragankortasunetik askatu». Izan ere, galdekizunaren gaia hemen bere izaera kontraesaten duen gauza arrotz orotatik aske dago eta adimenak *berbaitango gauzekin* du zerikusia, ez agerpenekin. Hemen, beraz, egiazko aurkakotasuna aurkituko litzateke, noski, baldin eta arrazoimen hutsak alde ezeztailan baieztapen baten oinarriaren antzeko zerbait litzatekeena esango balu; izan ere, dogmatikoki baieztatzen duenaren froga-oinarrien kritikari dagokionez, hau ederki onar dakioke horregatik esakune horiek utzi gabe, zeinak arrazoimenaren interesa jasotzen duten bederen, aurkakoa esan ezin duena.

Ni ez naiz gizon gailen eta gogoetatsuek (adibidez, Sulzerrek) sarri ahoskatu duten iritzikoa, orain arteko frogen ahultasuna ikusi dutela eta: oraindik inoiz gure arrazoimen hutsaren bi esakune nagusien demostrazio ebidenteak asmatzea itxaron daitekeela, alegia, «Jainkoa badago», «geroko bizitza badago». Aitzitik, ziur nago hau ez dela inoiz gertatuko. Izan ere, nondik nahi ditu atera arrazoimenak esperientziaren objektuei eta hauen barneko ahalgarritasunari lotzen ez zaizkien baieztapen sintetiko hauetarako oinarriak? Hala ere, apodiktikoki ziurra da era berean inoiz ez dela *aurkakoa* itxura apur batekin, are gutxiago dogmatikoki, baieztatu ahal izango duen gizakiren bat azalduko. Izan ere, hau arrazoimen hutsaren bitartez soilik erakutsi ahal izango lukeenez, orduan zera frogatu beharko luke: zerizan gorena eta gudan pentsatzen duen subjektua *ezinezkoak* direla inteligentzia huts gisa. Nondik nahi ditu atera, ordea, gauzez esperientzia ahalgarri oroz goiti sintetikoki juzgatzea baimentzen duten ezagupenak? Ez dugu arduratu beharrik inoiz norbaitek aurkakoa frogatzeaz; ezta eskolak egiten dituen moduko frogarik bururatzea beharrezkoa ez izateaz ere, baizik beti ere erabilera enpirikoan gure arrazoimenaren interes espekulatiboarekin ederki elkartzen diren esakuneak onar ditzakegu, eta gainera, hauek interes praktikokoarekin bateratzeko baliabide bakarrak dira. Aurkakoarentzat (hemen kritiko gisa soilik kontsideratu behar ez dena) gure non liquet-a prest daukagu, hura nahastu egin behar duena, baina bera guregana bihurtzea galarazi gabe, aurkakoari halabeharrez falta zaizkion arrazoimenaren maxima subjektiboak iraunkorki erreserban ditugun heinean, zeinen babespean hark aireari ematen dizkion kolpeak lasai eta axolagabe ikus ditzakegun.

Bada, ez dago benetan arrazoimen hutsaren antitetikarik. Izan ere, bere borroka-leku bakarra Teologia eta Psikologia hutsaren alorrean bilatu ahal izango litzake: lur honek, ordea, ezin du eutsi bere hornidura osoa eta arma beldurgarriak dituen

borrokalaririk. Burlaz eta harrokeriaz soilik aurkez daitezke eta honi iseka egin dakioke haurren jolasa balitz bezala. Hau ohar kontsolagarria da, arrazoimena berriro bizitzen duen oharra; izan ere, zertan konfida dezake bestela errakuntza guztiak kentzera deitua denak, baldin eta bere baitan nahastua balego, bakerik eta jabego lasairik itxaron ezinean?

Izadia berak ordenatzen duen guztia ona da zentzuren batean. Pozoiek ere gure humore propioetan sortutako beste pozoiak deuseztatzeko balio dute, eta beraz, sendagaien bilduma oso batean (botikan) ezin dira falta. Arrazoimenaren izaera berak egiten ditu espekulatiboa baino ez den arrazoimenaren limurtzearen eta harrokeriaren aurkako objektzioak, eta beraz, hauek beren determinazio eta asmo ona izan behar dute eta ezin dira alde batera utzi. Zertarako jarri ditu probidentziak zenbait objektu hain goian –gure interes gorenarekin bil daitezkeen arren-, non ia baimendu ere ez baitzagu egiten haiek nabaria ez den eta geuk ere zalantzan jartzen dugun hautemapenean aurkitzea ere, horrela begirada bilatzaileak gehiago estimulatzeko dituela gogobete baino; zalantzagarrria da bederen, agian kaltegarria ere bai, ea halako ikuspegiaren aurrean determinazio zakarrak egitera ausartzea onuragarria den. Dena dela, ordea, onuragarria da ezbairik gabe arrazoimen ikertzaileari eta etsaminatzaileari askatasun osoa ematea, horrela oztoporik gabe bere interesa bilatu ahal dezan, eta gainera hau sustatua izango da, bai bere ikuskerari zedarriak ezarri, baita hauek hedatuz ere, baina beti kalte egin zaio esku arrotzek muturra sartzen dutenean, horrela arrazoimena asmo hertsatuaren arabera bere interesaren berezko ibileraren aurka gidatzeko.

Utz iezaiozue, beraz, zuen aurkakoari arrazoimenaren bidez hitz egin dezan eta arrazoimenaren armekin baino ez ezazue borrokatu. Gainerakoan, kausa onaz (interes praktikoaz) ez zaitezte arduratu, izan ere, espekulatiboa besterik ez den gatazkan ez dago inoiz arriskuan. Gatazkak, beraz, ez du arrazoimenaren antinomia jakin bat baino aurkitzen, eta hau halabeharrez entzun eta etsaminatu behar da, arrazoimenaren izaeran funtsatzen baita. Gatazkak arrazoimena garatu egiten du bere objektua bi aldeetatik kontsideratuz, eta bere judizioa zuzentzen du hau zedarritzatuz. Hemen eztabaigarria gertatzen dena ez da *gauza* bera, baizik *tonua*. Izan ere, *jakintza*ren hizkuntza alde batera utzi behar den arren, gainerakoan aski geratzen da arrazoimen zorrotzenaren aurrean legeztatu den *sinesmen* irmo baten hizkuntza gordetzeko.

Judizioaren oreka gordetzeko prestutasuna zuen *David Hume* lasaiari galdetuz gero: «zerk higitu zintuen nekez pentsatutako ezbaiei bitartez gizakientzat hain lasaigarria eta onuragarria den limurtzeari oinarria kentzera, alegia, bere arrazoimenaren ikuskera gai dela zerizan goren baten baieztapena eta adigai determinatua lortzeko?» Bada, hark honela erantzungo luke: «ezerk ez, arrazoimenak bere buruaren ezagutzan aurrera egiteko asmoak izan ezik, eta aldi berean arrazoimenari ezarri nahi zaion hertsapen bati buruzko haserreak, beraz harrotu arren aldi berean oztopoak jartzen zaizkion heinean, honela bere buruaren etsaminan nabarmentzen zaizkion ahultasunen aitorten askea egin dezan». Aitzitik, arrazoimenaren erabilera *empirikoaren* oinarri-esakuneei emana den eta espekulazio transzendente ororen aurkakoa den *Priestley*ri galdetuz gero ea zein izan diren gure arimaren askatasuna eta hilezkortasuna, hots, Erljio ororen bi zutabe horiek, deuseztatzeko bere zioak (geroko bizitzaren itxaropena beretzat berpizkundearen mirakuluaren itxaropena besterik ez da), orduan Erljioaren maisu onbera eta bizi honek ezingo luke honela baino erantzun: «arrazoimenaren interesa, galdu egiten dena zehazki ezagutu eta determina dezakegun bakarra den materiako izadiaren legeei objektu jakinak kendu nahi zaizkionean». Itxuraz zuzengabea litzateke bere baieztapen paradoxala Erljioaren asmoekin bateratzen dakien honen aurka ohiukatzea eta gizon onbera kaltetzea, izadiaren alorretik at galdu ahala orientatu ezin delako. Hala ere, mesede hau era berean onbera eta izaera etikoari dagokionez orbanik gabekoa den *Humeri* ere egin behar zaio, hots, bere espekulazio abstraktua utzi ezin duenari, zeren bidezki baitio bere objektua Natur Zientziaren mugetatik at datzala osorik ideia hutsen alorrean.

Zer egin behar da bereziki guztion ongiari amenazu egiten diola dirudien arriskuari dagokionez? Ezer ez da berezkoagoa, ezer ez arrazoizkoagoa, honi buruz hartu behar duzun erabakia baino. Utz iezaiezue pertsona hauei ekiten; talentua, ikerkuntza sakon eta berria, hitz batean, arrazoimena bederen erakusten badute, orduan beti arrazoimenak irabaziko du. Hertsapenik gabeko arrazoimenaz gain beste baliabideak hartzean traizio gorenaren egin dela oihukatzen baduzue, landualdi sotilak inolaz ere ulertzen ez dituen zerizan komunari, nolabait esateko, sua itzaltzera deitzen badiozue, orduan zeuen burua barreagarri egiten duzue. Izan ere, solasgaia ez da guztion ongiari hemen onurazkoa edo kaltegarria zaiona, baizik ea arrazoimena noraino ekarri daitezkeen bere interes oroz abstraitzen duen espekulazioan, eta ea arrazoimenetik oro har zerbait itxaron daitezkeen edo praktikoa denaren truke utzi egin behar den. Bertan, beraz, ezpatarekin erasotu baino hobe duzue gatazka hau lasai begiratu kritikaren aulki segurutik, alegia, borrokalarientzat leihatsua, zuentzat entretenigarria izango den gatazka, ziurki odoltsua izango ez den bukaera izanik zuen ikuskerarako probetxuzkoa izango den gatazka. Izan ere, burugabea da arrazoimenak argiztapena emango duela itxarotea eta, hala ere, aurretik berari zein aldetara egin behar duen ezartzea. Gainera, arrazoimenak jadanik bere kabuz bere burua lotzen du eta zedarrien barne atxikitzen du, eta beraz, ez zaizue beharrezkoa guardia egitea gehiegizko botere

arduratsua dutela dirudizuen zatiari aurkakotasun hiritarra kontrajartzearen. Dialektika honetan ez da gertatzen, beraz, arduratzeke kariarik ematen dizuen garaipenik.

Horrez gain, arrazoimenak halako gatazka asko behar ditu, eta desiragarria litzateke gatazka lehenago eta baimen publiko zedarrigabearekin bideratzea. Izan ere, orduan eta lehenago burutuko litzateke kritika heldu bat, eta bere agerpenarekin gatazka hauek denek berez desagertu beharko lukete, gatazkalariek elkar banandu dituen itsukeria eta aurreiritziak aditzen ikasten duten heinean.

Araztasun gabezia jakin bat dago giza izaeran, zeinak, azkenean, izaditik datorren guztiak bezala, helburu onerako jarrera bat barnebildu behar duen, hots, bere egiazko asmoak ezkutatzeke eta ontzat eta ohoretsutzat hartzen diren beste onartutako asmo jakin batzuk erakusteko joera. Norbere burua ezkutatzeke eta onuragarria zaien itxura onartzeko joera honen bitartez gizakiak ziurki erabat *zibilizatu* ez ezik, pixkanaka hein batean *moralizatu* ere egiten dira, inork ezin baitu jatortasun, ohoretasun eta etikotasunaren apainduren zehar ikusi, eta beraz, bakoitzak bere inguruan ikusten zuen ongiaren ustezko adibide jatorretan beretzako hobekuntzaren eskola aurkitzen baitzuen. Hala ere, norbere burua dena baino hobea balitz bezala azaltzeko eta berak ez daukan kontzientzia morala ahoskatzeke joera horrek *behin behinean* baino ez du balio, gizakiak zakartasunetik ateratzeko eta berari lehendabizikoz ezagutzen dituen ongiaren *manerak* onarrarazteko; izan ere, ondoren, egiazko oinarri-esakuneak garatu eta hauek pentsamoldera igaro direnean, faltsutasun hura indartsuki borrokatu behar da pixkanaka, zeren bestela bihotza zapuzten baitu eta itxura ederraren belarren artetik intentzio onak ateratzea galarazten baitu.

Araztasun gabezia, disimulu eta zuritasun berbera pentsamolde espekulatiboaren adierazpenetan ere hautemateak mintzen nau, hemen ezein abantailarik ematen ez baitute, eta gizakiek beren pentsamenduaren aitorpena bidezki era irekian eta estaligabeaz azaltzeko askoz oztopo gutxiago baitute. Izan ere, zer izan daiteke ikuskerarentzat kaltegarriagoa elkarri pentsamendu soilak faltsututa komunikatzea baino, gure baieztapen propioez dugun zalantza ezkutatzea baino eta gogobetetzen ez gaituzten froga-oinarriei ebidentziaren itxurak ematea baino? Hutsalkeria pribatu soilak nahasketa sekretu hauek sortzen dituen artean (hau gertatzen da eskuarki interes berezirik ez duten eta modu errazeaz ziurtasun apodiktikoaren gai ez diren judizio espekulatiboetan), besteen hutsalkeriak egingo dio aurre *baimen publikoarekin* eta, azkenean, gauzak intentzio eta jatortasun aratzenak askoz lehenago eramango litzuzkeen toki berberarantz doaz. Komunitateak uste badu, ordea, arrazoikerizale sotilek ongizate publikoaren oinarriak zabunkatu nahi dituztela, orduan ez dirudi zuhurtziari soilik dagokionik, baizik baimendua ere badagoela eta gainera ohoretsua dela kausa onari itxurazko oinarriekin laguntzea ustezko aurkakoari aldea eman beharrean eta gure tonua praktikoa baino ez den uste oso baten apaltasunera jeistea eta geure burua ziurtasun espekulatibo eta apodiktikoaren gabezia aitortzera behartzea. Hala ere, pentsatu beharko nuke kausa on bat baieztatuta nahi bada, munduan ez dela ezer txarragorik iruzurra, disimulua eta engainua bateratzea baino. Eska daitekeen gutxiena da espekulazio soilaren arrazoimen-oinarrien pisaketan denak jatorri gertatu beharra. Baina gutxi hau seguru itxaron ahal izango balitz, orduan Jainkoa, (arimaren) hilezkortasuna eta askatasunari buruzko galdekizun garrantzitsuez arrazoimen espekulatiboak duen gatazka, edo aspaldidanik erabakia legoke, edo laster bukatuko litzateke. Horrela, intentzioaren araztasuna kausa beraren ontasunarekin alderantzizko hartuemanean dago maiz, eta kausa honek agian aurkari egia eta jator gehiago ditu aldeztailak baino.

Kausa zuzenaren alde egiteko zuzengabetasuna erabiltzen dela ikusi nahi ez duten irakurleak auresuposatzen ditut. Hauei dagokienez zera erabakia dago kritikaren gure oinarri-esakuneen arabera: baldin eta gertatzen dena ez bada begiztatzen, baizik bidezki gertatu beharko lukeena, orduan benetan arrazoimen hutsaren ezein polemikarik ez lukeela egon behar. Izan ere, nola izan dezakete bi pertsonak gauza bati buruzko gatazka, bere errealtatea bietako inork ezin duenean aurkeztu esperientzia erreala edo ahalgarria besterik ez den batean, eta gauzaren ideia inkubatu besterik egiten ez duenean bertatik ideia baino zerbait *gehiago* sortzearen, hots, objektuaren errealtatea? Zein baliabideren bitartez nahi dute gatazka bukatu, bietako inork bere kausa zuzenki ulergarria eta ziurra bihurtu ezin duenean, baizik bere aurkakoarena eraso eta errefusatu baino ezin dezakeenean? Izan ere, arrazoimen hutsaren baieztapen ororen patua da aurkakoari beti ahultasuna erakuts diezaiokeela eta, alderantziz, aurkakoaren ahultasuna erabilgarria bihur dezakeela, zeren esperientzia ahalgarri ororen baldintzez goiti baitoa, bertatik at inon egia agiritik ezin aurki daitekeenean, eta, hala eta guztiz ere, erabilera enpirikoa baino izan ezin dezaketan adimenaren legeak erabili behar baititu, beraiek gabe pentsatze sintetikoan urrats bat bera ere ezin baitu egin.

Arrazoimen hutsaren kritika bere gatazka orotarako egiazko epaimahaitzat har daiteke; izan ere, bera ez da nahasten zuzenki objektuekin zerikusia duten gatazketan, baizik arrazoimenaren eskubideak oro har bere lehen erakundearen arabera determinatu eta juzgatu behar ditu.

Hau gabe arrazoimena izadiaren egoeran dago, nolabait esateko, eta bere baieztapenak eta uziak ezin ditu *gerraren* bitartez baino balioarazi edo segurtatu. Aitzitik, erabakiak bere konstituzio propioaren oinarritzko eta autoritate zalantzaezineko erregeletatik ateratzen dituen kritikak legezko egoera baten lasaitasuna sortzen du, non gure gatazkak *prozesuaren* bitartez baino ez ditugun bideratu behar. Lehen kasuan, ekimena bukatzen duena *garaipena* da, eta bi aldeak harrotzen dira honetaz, honi gehienetan tartean sartzan diren goiburuek ezartzen duten bake ez segurua besterik ez zaiola jarraiki; bigarren kasuan, *sententzia*, gatazkaren iturria bera ukitzen duenez gero, betiko bakea bermatu behar duena. Horrez gain, dogmatikoa baino ez den arrazoimenaren amaigabeko gatazkek azkenean arrazoimen hau bere kritikaren batean eta bertan oinarritzen den lege-ematean egona bilatzera behartzen dute; Hobbesek baieztatzen duen lege: «izadiaren egoera zuzengabetasunaren eta bortizkeriaren egoera da eta utzi egin behar da, honela halabeharrez legezko hertsapenari menperatzearen, zeinak gure askatasuna beste edozein askatasunekin eta, horregatik, guztion ongiarekin bateratu ahal izateko besterik ez duen zedarriztazen».

Askatasun honi dagokio era berean norbere pentsamenduak eta norberak konpondu ezin dituen zalantzak publikoki juzgaketarako aurkeztea, hau egiten duena hiritar ardurati eta arriskutsutzat jo izan behar gabe. Hau giza arrazoimenaren jatorritzko eskubidean datza jadanik eta honek ez du giza arrazoimen orokorra baino beste epailerik ezagutzen, eta bertan bakoitzak bere ahotsa du; eta gure egoerak izan dezakeen hobekuntza orok bertatik etorri behar duenez gero, orduan halako eskubidea sakratua da eta ezin da ahuldu. Oso ezjakina da baieztapen ausarten edo komunitatearen zati handi eta onena jadanik bere alde duen zerbaiten aurkako eraso neurtugabe jakinak arriskutsutzat jotzea; izan ere, honek beraiei izan behar ez zuten garrantzia ematea esan nahi du. Entzuten baldin badut arrunta ez den buru batek giza nahimenaren askatasunaren, geroko bizitzaren itxaropenaren eta Jainkoaren izatearen aurkako demostrazioak eman dituela, orduan liburua irakurtzeko jakinmina sortzen zait, izan ere, bere talentuari esker nire ikuskera hobetu egingo dela itxaroten dut. Aurretik badakit, erabat ziurki, dioen hori ez duela inolaz ere lortu, ez jadanik esakune garrantzitsu hauen froga gaindiezinaren jabegoan nagoela uste izan nezakeelako, baizik gure arrazoimen hutsaren hornidura osoa azaldu didan kritika transzendentalak uste oso hau eman didalako: bera alor honetan adierazpen baieztaleak egiteko erabat ezgaia den bezala, hain gutxi eta are gutxiago jakingo duela galdekizun hauetaz zerbait ezeztatuz adierazteko gai izateko moduan. Izan ere, nondik nahi du atera ustezko espiritu aske horrek bere ezagupena, adibidez, zerizan gorenik ez dagoela? Esakune hau esperientzia ahalgarriaren mugez goiti datza eta, horregatik, giza ikuskera ororen mugaz at ere bai. Etsai honen aurka dagoen kausa onaren aldeztale dogmatikoa ez nuke inolaz ere irakurriko, zeren aurretiaz baitakit bestearen itxurazko oinarriak bereak sartu ahal izateko baino ez dituela erasotzen, eta horrez gain, eguneroko itxura batek ez du ematen ohar berrietarako hainbeste ekairik arrotzak eta argiki asmatutakoak diren itxuren aldean. Alderantziz, bere erara era berean Erlijioaren aurkako dogmatikoa denak nire kritikari desiraturako jarduera eta bere oinarri-esakuneen zuzenketa asko egiteko aukera emango lizkioke bere aldetik ezerren beldur izan beharrik gabe.

Halere, irakasaldi akademikoetara ohitua dagoen gazteria halako idatziei buruz bederen ohartu eta hain esakune arriskutsuen ezagutza goiztiarretik babestu behar ahal da, bere juzgamena heldu edo, are gehiago, beraietan oinarritu nahi den irakaspena irmoki sustraitu artean, aurkakoaren limurtze orori indartsuki aurka egitearren, edonondik datorrela ere?

Jardunbide dogmatikoan arrazoimen hutsaren gaiei eutsi behar baldin bazaie eta aurkakoaren egozketa benetan polemikoa bada, h. d., kontrajarritako baieztapenetarako frog-aoinarriekin armatuta borrokan hasteko antolatua badago, orduan, noski, ezer ez litzateke zuhurragoa izango *motxean*, baina era berean ezer ere ez hutsalagoa eta antzuagoa *luzean* gazteriaren arrazoimena denbora batez tutoretzapean ezartzea eta denbora horretan bederen tentalditik askatzea baino. Ondoren jakinminak edo garaiko modak idazki horiek eskuetan jartzen badizkie, orduan eutsiko ahal dio gaztaroko limurtze honek? Arma dogmatikoak baino ez dakartzanak bere aurkakoaren erasoei kontrajartzeko eta bere mantalean aurkakoarenean baino gutxiago ez dagoen Dialektika ezkutatua garatzen ez badaki, orduan berritasunaren abantaila duten itxurazko oinarriak agertzen ikusten ditu abantaila hori ez duten itxurazko oinarrien aurka, baizik, aitzitik, gazteriaren sineskortasun erraz eta gaizki-erabiliaren susmoa sortzen dutenen aurka. Uste du ezin duela era egokiagoan erakutsi intentzio oneko ohar haiek baztertuz haur-heziketari ihesi zaiola, eta dogmatismoari ohituta dagoenez, bere oinarri-esakuneak ere dogmatikoki zapuzten dituen pozoina edaten du zurrut luzeetan.

Hemen gomendatzen denaren zuzenki aurkakoa egin behar da irakaskuntza akademikoan, baina, noski, arrazoimen hutsaren kritikaren irakaskuntza zehatzaren aurreuposizioarekin besterik ez. Izan ere, bere printzipioak ahalbait azkar aplikatzeko eta beren onargarritasuna itxura dialektiko handienez ere erakusteko, behar-beharrezkoa da dogmatikoarentzat hain fruitukorrak diren erasoak oraindik ahula den baina kritikaren bitartez argiztatua den arrazoimenaren aurka zuzentzea, eta

berari aurkakoaren oinarrigabeko baieztapenak zatiz zati oinarri-esakune haietan etsaminatzeko saialdia egiten uztea. Ezin zaio zaila izan haiek lurrin bihurtzea, eta horrela, azkar sentitzen du azkenean bere burua itxura oro galdu behar duten itxurapen kaltegarrien aurka babesten duen indar propioa. Etsaiaren eraikina eraisten duten kolpe berak zapuzgarriak lirateke era berean beren eraikin espekulatiboei dagokienez, halakoak antolatzea pentsatuko balu, baina horretaz ez da batere arduratzen, eraikin honetan ez baitu bizi behar, oraindik beste aukera daukanez alor praktikoan, non berak arrazoiz itxaron dezakeen lur irmoago bat aurkitzea, honen gainean bere arrazoizko sistema sendagarria eraikitzeko.

Bada, ez dago benetako polemikarik arrazoimen hutsaren alorrean. Bi aldeak ezpataka dabilta airean beren itzalekin, izan ere, izadiaz goiti doaz, non beren atzapar dogmatikoei heldu eta atxiki daitekeen ezer ez duten beren aurrean. Hauen borroka alferrikakoa da; hausten dituzten itzalak berriro sortzen dira Walhallan heroiek egiten duten bezala, odolgabeko borrokekin berriro olgatu ahal izateko.

Gatazka guztietako *neutraltasunaren* oinarri-esakunea deitu ahal izango liezaiokeen arrazoimen hutsaren erabilera eszeptiko onargarrikerik ere ez dago. Arrazoimena bere buruaren aurka bultzatzea, berari bi aldeetatik armak ematea, eta hainbestez, bere borroka beroenak lasai eta burlaz begiratzeak ez du itxura onik ikuspuntu dogmatikotik, baizik bere baitan gogamenaren modu sadiko eta gaiztoaren itxura dauka. Hala ere, arrazoikerizalearen itsukeria gaindiezina eta harrokeria ikusten bada, ezin kritikaren bitartez leundu ezin direnak, orduan ez dago beste aukerarik, alde batetik harropuzkeriari eskubide berberetan eusten den beste aldekoarekin gogor egitea baino, horrela arrazoimena etsai baten aurkakotasunaren bitartez gutxienez nahasteko, bere handiusteetan zalantza batzuk ezartzearen eta kritikari entzutea ematearren. Alferrikako egitasmoa da, ordea, guztiz zalantza hauetan geratzea eta bere ezjakintzaren uste osoa eta aitorpena egitera aholkatu nahi izatea, harrokeria dogmatikoaren aurkako sendagai gisa ez ezik, aldi berean arrazoimenak bere buruarekin duen gatazka bukatzeko era gisa, eta hau inolaz ere ez da baliagarria arrazoimenari egoera lasai bat emateko, baizik gehienez ere bera bere amets dogmatiko gozoetatik iratzartzeko baliabide bat besterik ez da, bere egoeraren etsamina arretatsuagoa egitearren. Hala ere, arrazoimenaren ekimen penatzaitetik askatzeko manera eszeptikoak, nolabait esateko, lasaitasun filosofiko iraunkorrera iristeko bide motzena izatea dirudienez, edo errege-bidera iristeko bederen, hain zuzen, honelako ikerkuntza ororen gutxiespen isekariaren bidez norberaren buruari autoritate filosofikoa ematen diotela uste dutenek gustura urratzen duten bidera iristeko, orduan beharrezkoa dirudit pentsamolde hau bere argi berezian aurkeztea.

Bere buruarekin bat ez datorren arrazoimen hutsaren gogobetetasun eszeptiko baten ezintasuna

Nire ezjakintzaren kontzientzia (hau aldi berean beharrezkotzat ezagutzen ez denean) nire azterketak bukatzearen kausa baino gehiago hauek iratzartzearen benetako kausa da. Ezjakintasun oro, edo gauzen ezjakintasuna, edo nire ezagutzaren determinazioaren eta mugen ezjakintasuna da. Ezjakintasuna beharbadakoa denean, orduan berak bultzatu behar nau, lehen kasuan, gauzak (objektuak) *dogmatikoki*, bigarrenean, nire ezagutza ahalgarriaren mugak *kritikoki* ikertzeraz. Nire ezjakintasuna behar-beharrezkoa dela, ordea, eta horregatik beste ikerketa orotatik askatzen nauela ezin da erabaki enpirikoki *behaketaren* bidez, baizik kritikoki besterik ez gure ezagutzaren lehen iturrien *oinarriketaren* bidez. Beraz, gure arrazoimenaren mugen determinazioa apriorizko oinarrien arabera baino ezin daiteke gertatu; bere zedarritzapena, berriz, inoiz osoki deuseztatu ezin den ezjakintasunaren ezagutza indeterminatua baino ez den arren, a posteriori ere ezagut daiteke jakintza orotan oraindik jakiteko geratzen zaigunaren bitartez. Arrazoimenaren kritikaren bidez soilik ahalgarria den ezjakintasunaren ezagutza hura, beraz, *zientzia* da, hau, berriz, ez da *hautemapena* baino, eta honetaz ezin daiteke esan bertatik abiatzen den inferentzia noraino iristen den. Lurraren luze-zabala (sentsuzko itxuraren arabera) plater baten gisara errepresentatzen badut, orduan ezin dut jakin noraino hedatzen den. Baina hau irakasten dit esperientziak: edonora joanda ere, nire inguruan espazioa ikusten dudala, oraindik bertara aurrera naitekeela; eta beraz, beti erreala den Geografiaren zedarriak ezagutzen ditut, baina ez lurraren deskripzio ahalgarri ororen mugak. Baina lurra esfera bat dela eta bere gainazala esferikoa dela jakitea lortzen badut, orduan bere zati txiki batetik, adibidez, gradu baten handitasunetik, diametroa eta honen bitartez lurraren mugapen osoa, h. d., bere azalera determinatuta eta apriorizko printzipioen arabera ezagut dezaket; eta gainazalak barnebil ditzakeen objektuei dagokienez ezjakina banaiz ere, ez naiz ezjakina, ordea, objektuok barnebiltzen dituen hedapenari eta bere handitasunari eta zedarriei dagokienez.

Gure ezagutzaren objektu ahalgarri ororen multzoa itxurazko ikusmuga bat duen gainazal leuna dela dirudigu, hots, bere hedapen osoa jasotzen duen gainazala, guk baldintzatugabeko osotasunaren arrazoimen-adigaia deitzen dioguna. Bera enpirikoki lortzea ezinezkoa da eta printzipio jakin baten arabera bera a priori determinatzeko saialdiak alferrikakoak izan dira.

Hala ere, gure arrazoimen hutsaren galdekizun guztiek ikusmuga honetatik at edo, dena dela, bere muga-lerroan egon daitekeenarekin dute zerikusia.

David Hume sonatua izan zen giza arrazoimenaren geografo hauetako bat eta galdekizun haiek osotara askiro baztertu zituela uste izan zuen, hauek determinatu ezin zuen ikusmugatik landa bidaliz. Kausalitatearen oinarri-esakuneaz arduratu zen bereziki, eta honetaz erabat zuzenki oharrarazi zuen bere egia (ezta oro har kausa arazle baten adigaiaren baliotasun objektiboa ere) ez dela oinarritzen ezein apriorizko ikuskeratan, h. d., ezagutzan eta, horregatik, bere autoritate osoa ez duela sortzen inolaz ere legearen beharrezkotasunak, baizik bere erabilgarritasun orokor soilak esperientziaren ibilbidean eta bertatik sortutako beharrezkotasun subjektiboak, zeinari berak ohitura deitzen dion. Gure arrazoimenak oinarri-esakune hau esperientzia oro gainditzen duen moduan erabiltzeko zuen ahalmen ezatik abiatuz oro harrezko arrazoimenak enpirikoa denaz goiti joateko duen handiuste ororen hutsaltasuna inferitu zuen.

Arrazoimenaren egitateak etsaminari eta, beharbada, gaitzespenari menperatzeko honelako jardunbideari arrazoimenaren *zentsura* dei dakioke. Ezbairik gabekoa da zentsura honek oinarri-esakuneen erabilera transzendente *ororen* aurkako *zalantza* eragiten duela ezinbestean. Baina hau lana oraindik osatzen ez duen bigarren urratsa da. Arrazoimen hutsaren gaitetan lehen urratsa, bere haurtzaroa ezaugarritzen duena, *dogmatikoa* da. Aipatutako bigarren urratsa eszeptikoa da eta esperientziak zentzatu duen juzgamenaren zuhurtziak sortzen du. Hala ere, juzgamen heldu eta sendoari baino ez dagokion hirugarren urratsa ere beharrezkoa da, zeinak maxima irmoak eta bere orokortasunean bermatutakoak dituen oinarrian; hots, ez arrazoimenaren egitateak estimazioari menperatzeko, baizik arrazoimena bera apriorizko ezagutza hutsak izateko bere ahalmen eta egokitasun osoaren arabera; hau ez da arrazoimenaren zentsura, baizik bere *kritika*, eta honen bitartez *zedarriak* ez ezik, bere *muga* determinatuak ere frogatzen dira, eta beraz, ezjakintza frogatzen da, ez zati bat edo bestean, baizik era jakin bateko galdekizun ahalgarri orori begira ere bai, eta ez agian ustez soilik, baizik printzipioetatik abiatuta frogatzen da. Horrela, eszeptizismoa giza arrazoimenarentzako atsedenelekua da, non bere ibilaldi dogmatikoei buruz gogoetatu eta aurkitzen den lurraldearen eskema egin dezakeen, honela bere bidea aurrerantzean segurtasun gehiagorekin aukeratu ahal izateko, baina ez da egonaldi iraunkorra egiteko moduko etxebizitza; izan ere, hau ziurtasun osoan baino ezin daiteke gertatu, dela objektuen ezagutzan, dela gure ezagutza ororen objektuak barnean jasota dituen mugen ezagutzan.

Gure arrazoimena ez da urrunera indeterminaturantz hedatzen den planoan, bere zedarriak orokorki soilik ezagutzen direla, aitzitik, esfera batekin alderatu behar da eta bere erradioa bere azaleraren okerduratik abiatuta aurkitzen da (apriorizko esakune sintetikoen izaerakoa), horrela gainera bere edukia eta mugapena ere zehaz daitezkeelarik segurtasunez. Esfera honetatik at (esperientziaren alorra) ezer ezin da bere objektua izan, eta gainera, ustezko objektuez halakoez egindako galdekizunak esfera honen barneko adimenaren adigaiaren arteko hartuemanen determinazio oso baten printzipio subjektiboak soilik ukitzen ditu.

Apriorizko ezagutza sintetikoen jabeak gara benetan, esperientzia aitzinatzen duten adimenaren oinarri-esakuneek frogatzen duten legez. Norbaiti beren ahalgarritasuna ez bazaio ulargarria, orduan hasieran zalantzan jarri dezake ea guk benetan a priori baditugun, baina ezin du oraindik beren ahalezintasuna hutsaltzat jo adimenaren indar soilen bitartez eta arrazoimenak bere neurriaren arabera ematen dituen urrats guztien bitartez. Hau besterik ezin dezake esan: beren jatorria eta egiazkotasuna adituko bagenu, orduan gure arrazoimenaren hedapena eta mugak determinatu ahal izango genituzkeela; hau gertatu aurretik, ordea, arrazoimenaren baieztapen guztiak ausartzen dira itsuki. Eta honela, arrazoimenaren kritika gabe bere ibilera jarraitzen duen Filosofia dogmatiko orori buruzko zalantza osoa ongi oinarritua egongo litzateke; baina horregatik ezin zaio erabat ukatu arrazoimenari halako aurrerabidea, baldin eta hau oinarritzapen hobearen bidez prestatu eta segurtatuko balitz. Izan ere, adigai guztiak, baita arrazoimenak aurkezten dizkigun galdekizun guztiak ere, ez dautza agian esperientzian, baizik berriro arrazoimenean besterik ez, eta horregatik konpondu ahal izan behar dira eta beren baliotasun edo hutsaltasunaren arabera ulertu behar dira. Ez zaigu zilegi zeregin hauek gure ahalmen ezaren aitzakiaren bidez baztertzea beren konponketa gauzen izaeran balego bezala, eta beren ondorengo ikerketari uko egitea, arrazoimenak baino ez baititu sortu ideia horiek bere altzoan, eta hainbestez, honek eman behar du kontu beren baliotasunaz edo itxura dialektikoaz.

Polemika eszeptiko oro benetan dogmatikoaren aurka baino ez doa, hots, bere jatorrizko printzipio objektiboetan mesfidantza ezarri gabe, h. d., kritikarik gabe handikiro bere ibilera jarraitzen duenaren aurka, haren eskema hautsi eta bere buruaren ezagutza lor dezan. Bere baitan ez du ezer erabakitzen jakin dezakegunaz eta jakin ezin dezakegunaz. Huts egin duten arrazoimenaren saialdi dogmatiko guztiak egitateak dira, eta hauek zentsurari menperatzea beti onuragarria gertatzen da. Honek ezin du erabaki, ordea, arrazoimenak bere etorkizuneko ahaleginen emaitza hobe espero izateko eta horren uzia izateko duen itxaropenaz; zentsura soilak, beraz, ezin du inoiz giza arrazoimenaren eskubideei buruzko gatazka amaitu.

Hume agian eszeptikoen artean zorrotzena denez eta zalantzarik gabe jardunbide eszeptikoak arrazoimenaren etsamina zehatz baten iratzarpenean izan dezakeen eraginari dagokionez pertsona bikainena izan denez gero, orduan merezi du egiaren arrastoaren bila hasi ziren bere inferentzien ibilera eta hain ikuskera handikoa eta estimagarria den gizon honen nahasketak aurkezteko ahalegina egitea, hau nire asmoarentzat egokia den heinean.

Humek agian buruan zuen, baina inoiz ez zuen osoki garatu gu juzgatzeko era jakin batean objektuen gure adigaiez goiti goazela. Juzgatzeko era honi *sintetikoa* deitu diot. Ez du arazorik sortzen ordu arte nuen adigaitik esperientziaren bitartez irten naitekeela onartzeak. Esperientzia bera halako hautemapenen sintesia da eta haiek hautemapen baten bitartez dudana adigaia honi gaineratzen zaion beste baten bitartez ugaltzen dute. Dena dela, a priori ere gure adigaitik irten gaitezkeela eta horrela gure ezagutza heda dezakegula sinesten dugu. Hau, edo adimen hutsaren bitartez saiitzen dugu, *esperientziaren objektua* bederen izan daitekeenari begira, edo baita arrazoimen hutsaren bitartez ere, gauzen halako berekitasunari begira, edo baita esperientzian inoiz gertatu ezin diren objektu horien izateari begira ere. Gure eszeptikoak ez zituen bereiztu bi judizio mota hauek, egin behar izan zuen legez, eta zuzenean ezinezkotzat jotzen zuen adigaien berezko gehikuntza hori eta, nolabait esateko, gure adimenak (arrazoimenarekin batera) bere burua erditzea esperientziak ernaldia izan gabe, eta beraz, bere ustezko printzipio denak irudikatutzat jotzen zituen a priori, eta esperientziatik eta bere legeetatik sortutako ohitura baino ez zirela aurkitu zuen, eta hainbestez, guk ustezko beharrezkotasuna eta orokortasuna egozten dizkiegun erregelak enpirikoak baino ez direla, h. d., beren baitan beharbadakoak direla. Orokorki berrezagutzen den kausaren eta efektuaren arteko hartuemanaren oinarri-esakunera jo zuen esakune arrotz hau baieztatzearen. Izan ere, ezein adimen-ahalmenek ezin gaituenez gidatu gauza baten adigaitik beste zerbaiten izatera, horrenbestez, orokorra eta beharrezkoa bezala ematen den izatera, orduan hortik zera ondoriozta dezakeela sinetsi zuen: esperientzia gabe gure adigaia gehituz berez a priori hedatzen den halako judizioa baimen liezagukeen ezer ez daukagula. Ezein adimenek ezin du guk aurretik ditugun gauza hauen adigaietatik abiatuta asmatu, are gutxiago legearen arabera inferitu argizaria argitzen duen eguzkiaren argiak, aldi berean, bera urtzen duela, buztina berriz gogortu egiten duelarik, eta esperientziak baino ez digu irakatsi ahal izango halako legea. Aitzitik, Logika transzendentalean ikusi dugu beste gauzekiko elkarloturaren legea a priori ezagut dezakegula, *zuzenki* ematen zaigun adigaiaren edukia inoiz gaintu ezin dugun arren, hala ere, osoki a priori baina hirugarren osagai batekin harremanean, hots, esperientzia *ahalgarriarekin* harremanean ezagut dezakegula. Lehenago gogortua zen argizaria urtzen bada, orduan a priori ezagut dezaket zerbaitek aurretik izan behar zuela (adibidez, eguzkiaren beroak), hura honi lege iraunkor baten arabera jarraiki zaiola, nahiz nik esperientziarik gabe ez kausa ezta kausatik efektua ere ezingo nukeen a priori eta esperientziaren irakaspenik gabe *determinatuta* ezagutu. Beraz, faltsuki inferitu zuen *legearen araberako* gure determinazioaren beharbadakotasunetik *legea* beraren beharbadakotasuna, eta gauza baten adigaitik esperientzia ahalgarria ateratzea (a priori gertatzen dena eta bere errealtate objektiboa osatzen duena), noski, beti ere enpirikoa den esperientzia errealtatearen objektuen sintesiarekin nahastu zuen; horren bitartez, ordea, egoitza adimenean duen eta beharrezko elkarlotura iragartzen duen kidetasunaren printzipio bat asoziazioaren erregelan eraldatu zuen, irudimen imitatzailan soilik aurkitzen dena eta beharbadakoak soilik diren loturak aurkeztuzakeena, inoiz ez, ordea, lotura objektiboak.

Gainerakoan oso buruargia zen gizon honen nahasketa eszeptikoak bereziki pertsona dogmatiko orok ere baduen gabezia batetik sortu ziren, hots, adimenaren sintesiaren era guztiak ez zituela a priori sistematikoki gainbegiratu. Izan ere, orduan, gainerakoak aipatu gabe, adibidez, *iraunkortasunaren oinarri-esakunea* aurkituko luke, zeinak esperientzia aitzinatzen duen, kausalitatearenak ere egiten duen legez. Horren bitartez a priori hedatzen diren adimenari eta arrazoimen hutsari muga determinatuak marraztu ahal izango zitzaizkien. Berak, ordea, gure adimena *zedarritzatu* baino egiten ez duenez, bera *mugatu* gabe, eta gainera, mesfidantza orokorra bai baina guri saihestezina zaigun ezjakintzaren ezein ezagupen determinaturik sortzen ez duenez, halaber, adimenaren oinarri-esakune batzuek zentsurari menperatzen dizkionez, nahiz adimen hau bere ahalmen osoari dagokionez kritikaren balantzan jarri gabe, eta adimenari benetan lortu ezin duena ukatzen dionez, eta aurrera eginez a priori hedatzeko ahalmen oro ezeztatzen dionez, ahalmen osoaren estimazioa egiten ez duen arren, bada, orduan beti eszeptizismoa deuseztatzen duela gertatzen zaio, hots, bera zalantzan jartzen duela, bere egitasmoa beharbadakoak baino ez diren egitateetan funtsatzen delako, ez baieztapen dogmatikoen eskubidearen beharrezko utziketa eragin zezaketen printzipioetan.

Humek adimenaren oinarritutako uzien eta arrazoimenaren handiuste dialektikoen arteko bereizketarik ezagutzen ez duenez gero, bere erasoak batez ere azken hauetara zuzentzen dituela, orduan bere bultzada berezia deus ere aldatua ez, baizik oztopotua besterik izan ez den arrazoimenak ez du sentitzen bere hedapenerako espazioa itxia dagoenik, eta ezin ditu bere saialdiak utzi, nahiz eta han-hemenka zailtasunak dituen. Izan ere, erasoan aurka hornitzen da defentsarako eta are modu

egoskorragoan ekiten du bere eskakizunak lortzearen. Bere ahalmen osoaren kalkulu osoak eta bertatik sortzen den jabego txiki baten ziurtasunaren uste osoak –goragoko uzien hutsalkeria dela ere– gatazka oro bukatzen du eta jabego zedarritzatu baina eztabaidagabea baketsuki onartzearekin askiestera bultzatzen du.

Bere adimenaren esfera neurtu ez duen, eta beraz, bere ezagutza ahalgarriaren mugak printzipioen arabera determinatu ez dituen dogmatiko ez-kritikoaren aurkako eraso eszeptiko hauek, beraz, zenbat lor dezakeen aurretik ez dakien, baizik saialdi soilen bitartez aurkitzea pentsatzen duen dogmatikoaren aurkako erasoak, arriskutsuak izan ez ezik, kaltegarriak ere badira. Izan ere, legeztatu ezin duen, bere itxura printzipioetatik ere garatu ezin duen baieztapen bakar bat aurkitzen badu, orduan susmoa baieztapen denetara hedatzen da, hauek gainerakoan beti ere hain limurtzaileak izan badaitezke ere.

Eta horrela, eszeptikoa arrazoikerizale dogmatikoaren hezitzailea da eta hau adimenaren eta arrazoimenaren kritika sendo bat egitera bultzatzen du. Bertara iristean ez du beste kritikaren beldurrik izan behar; izan ere, hainbestez, bere jabegoa beretik kanpo geratzen denetik guztiz bereizten du, ez du honen uzirik eta ezin da horri buruzko gatazketan nahastu. Horrela, jardunbide eszeptikoa ez da *gogobetegarria* bere baitan arrazoimenaren galdekizunari dagokionez, baina bai *ikasgarria*, bere zuhertasuna iratzartzeko eta bere legezko jabegoa segurtatuko lioketen baliabide sendoak erakusteko.

Hirugarren atalburuko

Hirugarren atala

Arrazoimen hutsaren diziiplina hipotesiei begira

Gure arrazoimenaren kritikaren bitartez azkenean bere erabilera hutsean eta espekulatiboan egitatean ezer ezin dugula jakin adina badakigunez, ez ahal luke ireki beharko kritika honek alor zabalagoa *hipotesientzat*, baieztatzea onartzen ez duen arren, asmatzea eta iritziak izatea bederen onar daitekeenez?

Irudimenak *gogoa berotu* beharrean arrazoimenaren begirada zorrozpean *asmatu* behar badu, orduan lehenago osoki ziurra den eta asmaketa edo iritzi soila ez den zerbaitek izan behar du, eta hau objektua beraren *ahalgarritasuna* da. Hortaz, objektuaren errealtateari dagokionez iritzira ihes egitea baimentzen da, baina hau oinarrigabea ez izatearren benetan emandakoa denarekin, eta ondorioz, ziurra denarekin elkarlotu behar delarik argiketa oinarri gisa, eta hainbestez, *hipotesi* izena du.

Apriorizko elkarlotura dinamikoaren ahalgarritasunaren ezein adigairik sortu ezin dugunez eta adimen hutsaren kategoriak ahalgarritasun hori pentsatzeko balio ez duenez, baizik eta hura esperientzian aurkitzen denean ulertzeko besterik ez duenez balio, bada, orduan ezin dugu objektu bat bera ere jatorriz irudikatu kategorian hauen arabera antolaera berria denari eta enpirikoki erakutsi ezin daitekeenari dagokionez, eta ezin dugu bera hipotesi baimenduaren oinarrian ezarri; izan ere, honek arrazoimenari gauzen adigaien ordezkari ameskeria hutsalak amarruz ematea adina esan nahiko luke. Horrela, ez da zilegizkoa jatorrizko indar berriren bat pentsatzea, adibidez, bere objektuak sentsurik gabe begiets ditzaken adimena, edo ukiturik gabeko erakarpena, edo substantzien espezie berri bat, adibidez, sartuezintasunik gabe espazioan egongo litzatekeena, ondorioz, ezta esperientziak eskuratzen duen guztitik ezberdintzen diren substantzien komunitaterik ere: presentziarik ez, espazioan izan ezik; iraupenik ez, denboran izan ezik. Hitz batean, gure arrazoimenak soilik erabil ditzake esperientzia ahalgarriaren baldintzak gauzen ahalgarritasunaren baldintzak bezala; ezin ditu inolaz ere ez, ordea, hauetatik guztiz beregainki gauza batzuk, nolabait esateko, sortu, zeren halako adigaiak kontraesanik gabekoak diren arren, objekturik gabekoak ere izango bailirateke.

Arrazoimenaren adigaiak, esan bezala, ideia soilak dira eta, noski, ez dute objekturik esperientziaren batean, baina ez dituzte horregatik asmatutako objektuak eta aldi berean ahalgarritzat onartutakoak ezaugarritzen. Problematikoki baino ez dira pentsatzen, berekin harremanean (fikzio heuristikoa bezala) adimenaren erabilera sistematikoaren printzipio erregulatzailerik esperientziaren alorrean oinarritzeko. Alor honetatik irtenez gero, ahalgarritasun frogaezina duten pentsamen-gauzak besterik ez dira eta, horregatik, hipotesi baten bitartez agerpen errealean argiketaren oinarrian ezarri ezin daitezkeen gauzak dira. Arima bakuna *pentsatzea* baimentzen zaigu, horrela *ideia* honen arabera gogamenaren indar ororen batasun osoa eta beharrezkoa

bere barneko agerpenen gure juzgaketaren printzipio gisa ezartzeko, in concreto aditu ezin den arren. Baina arima substantzia bakun gisa onartzea (adigai transzendentala), frogaezina ez ezik (hainbat hipotesi fisiko diren bezala), osoki hautaz eta itsuki ausartutako esakunea ere izango litzateke, zeren bakunkia ezin baita ezein esperientziatan aurkitu, eta hemen substantziaz sentsuzko begiespenaren objektu iraunkorra ulertzen baldin bada, orduan ezin da inolaz ere *agerpen bakun* baten ahalgarritasuna aditu. Arrazoimenak ez dauka oinarritutako baimenik inteligibleak baino ez diren zerizanak edo sentsuen munduko gauzen berekitasunak iritzi gisa onartzeko, ezta ustezko ikuskera hobeago baten bitartez haiek ukatzeko ere (beren ahalgarritasunaren edo ahalezintasunaren adigairik ez baitu).

Agerpen jakinen argiketarako ezin da beste gauzarik eta argiketa-oinarririk aipatu, jadanik ezagunak diren agerpenen legeen arabera agerpen jakin hauekin elkarloturan ezarritakoak izan ezik. Arrazoimenaren ideia soil izadiko gauzen argiketarako erabiltzen duen *hipotesi transzendentala*, beraz, ez litzateke ezein argiketarik izango, zeren printzipio enpiriko ezagunetik abiatuta askiro ulertzen ez dena batere ulertzen ez den beste zerbaiten bitartez argitu beharko bailitzateke. Halako hipotesiaren printzipioa, gainera, benetan arrazoimena gogobetetzeko baino ezin izan daiteke baliagarria, baina ez adimenaren erabilera sustatzeko objektuei dagokienez. Izadiaren ordena eta helburutasuna izadiaren oinarrien eta izadiaren legeen bitartez argitu behar da eta, hemen, hipotesi ausartenak ere, fisikoak baino ez direnean, hiperfisikoak baino jasangarriagoak dira, h. d., honen mesedetan auresuposatzen den jainkotiar sortzailerak jotzea baino jasangarriagoak. Izan ere, hau arrazoimen alferraren printzipioa litzateke (ignava ratio), kausa oro bat-batean baztertzen duen printzipioa, alegia, bere errealitate objektiboa ahalgarritasunaren arabera behinik behin esperientzia jarraitu baten bitartez ezagut litekeen kausa oro baztertzen duena, arrazoimenari oso eroso zaion ideia soil batean lasai geratzearren. Hala ere, argiketa-oinarriaren ilararen osotasun absolutuari dagokionez, honek ezin die oztoporik sortu munduko objektuei, zeren hauek agerpenak baino ez direnez, beraietan ezin baita inoiz itxaron baldintzen ilararen sintesian osatua den zerbait lortzea.

Arrazoimenaren erabilera espekulatiboaren hipotesi transzendentalek eta argiketa-oinarri fisikoen gabezia osatzeko oinarri hiperfisikoak erabiltzea ezin da baimendu, aldez, horren bitartez arrazoimena ez delako aurrera bultzatzen, aitzitik, bere erabileraren aurrerabidea mozten delako, aldez, lizentzia honek azkenik bere lur propioaren, hots, esperientziaren landualdiaren fruitu oro kenduko liokeelako. Izan ere, izadiaren argiketa hemen eta han zaila gertatzen bazaigu, orduan beti daukagu argiketa-oinarri transzendentea eskura, azterketa hura aurrezten digun eta gure ikerkuntza bukatzen duen argiketa-oinarria, ez ikuskeraren bitartez, baizik printzipio baten ulertezintasun osoaren bitartez, zeina aldez aurretik asmatu zen, Lehenengo absolutuaren adigaia barnebiltzen zuelarik.

Hipotesi baten onargarritasunerako behar den bigarren puntua bertatik abiatuta emandako ondorioak a priori determinatzeko duen askitasuna da. Helburu hau lortzeko hipotesi lagungarrietara jotzera behartua egonez gero, orduan asmaketa soil bat direlako susmoa sortzen dute, zeren haietako bakoitzak oinarrian ezarritako pentsamenduak behar zuen legeztapen berbera behar baitu, eta horregatik, ezin baitu lekukotasun egokirik eman. Kausa betegin eta zedarrigabe bat auresuposatzean, munduan dagoen helburutasun, ordena eta handitasun ororen argiketa-oinarririk falta ez bada ere, hark hipotesi berriak behar ditu gure adigaiaren arabera behinik behin agertzen diren bazterketei eta kalteei dagokienez, honela objektzio hauek saihesteko. Giza arimaren agerpenen oinarrian ezartzen den bere beregaintasun bakunari materia baten aldakuntzaren antzeko fenomeno zailtasunaren bitartez eraso egiten bazaio (hazkuntza eta gutxitzea), orduan hipotesi berriak deitu behar dira, lagun dezaten, hots, itxuragabekoak izan gabe egiaztapenik ez duten hipotesiak, beraiei oinarri nagusiztat onartutako iritziak ematen dien egiaztapena izan ezik, haiek honen alde hitz egin behar duten arren.

Hemen adibide gisa aipatu diren arrazoimenaren baieztapenek (arimaren gorpuzgabeko batasuna eta zerizan goren baten izatea) hipotesi gisa balio beharrean a priori frogatutako dogmak bezala balio beharko balute, orduan, hainbestez, hauek ez lirateke gure solasgaia inolaz ere. Kasu honetan, ordea, frogak demostrazio baten ziurtasun apodiktikoa duela aurrez ikusten da. Izan ere, halako ideen errealitatea *itxurazkoa* soilik bihurtu nahi izatea asmo burugabea da, Geometriaren esakune bat itxuraz soilik frogatzea saiatzea bezala. Esperientzia orotatik bakartutako arrazoimenak dena a priori eta beharrezkoa bezala baino ezin du ezagutu edo, bestela, ezin du ezer ezagutu; horregatik, bere judizioa ez da inoiz iritzia, baizik judizio ororen utziketa edo ziurtasun apodiktikoa da. Gauzei dagokienari buruzko iritziak eta itxurazko judizioak, benetan ematen denaren argiketa-oinarriak edo errealak diren aldetik, oinarrian datzanaren lege enpirikoen araberrako ondorio gisa soilik ager daitezke, eta beraz, esperientziaren objektuen ilaran besterik ez. Alor honetatik at *iritzia izatea* pentsamenduekin jolastea adina da, segurua ez den judizioaren bide batean agian egia aurkituko dugula uste izan ezean.

Espekulatiboak baino ez diren arrazoimen hutsaren galdekizunetan ezein hipotesi ez badago ere, esakuneak bertan oinarritzeko, hala ere, osorik onargarriak dira hauen alde egiteko, h. d., onargarriak dira erabilera polemikoan, erabilera dogmatikoan, noski, ez diren arren. Defentsaz, ordea, ez dut ulertzen bere baieztapenaren froga-oinarrien ugalketa, baizik baieztatutako gure esakuneari kalte egin liezaioketen aurkakoaren itxurazko ikuskeren hustuketa. Arrazoimen hutsetik abiatzen diren esakune sintetiko denek, ordea, gauza berezi hau dute beren baitan, alegia, ideia jakinen errealitatea baieztatzen duenak inoiz ez dakiela bere esakune hori ziurra egiteko adina, bestalde, aurkakoak aurrekoak bezain gutxi jakin dezakeela honek dioenaren aurkako baieztatze. Giza arrazoimenaren zoriaren berberatasun honek ez du bietako inor sustatzen ezagutza espekulatiboetan, eta hau inoiz bukatu ezin den tirabiraren borroka-leku aproposa da. Ondorengoan erakutsiko da, ordea, *erabilera praktikoari* begira arrazoimenak zerbait onartzeko eskubide bat duela, espekulazio soilaren alorrean auresuposatzea inolaz ere zilegi izango ez litzaiokeena froga-oinarri gogobetegarririk gabe; hori halako auresuposizioek espekulazioaren betegintzarrea kaltetzen dutelako da horrela, baina interes praktikoa ez da batere arduratzen hauetaz. Han bere zuzentasuna frogatu ezin duen jabego bat du eta horren frogarik ezingo luke egitatean burutu. Aurkakoak frogatu beharko luke, beraz. Honek, ordea, zalantzan jarritako objektuaz bere ez-izatea frogatu ahal izateko bere errealitatea baieztatzen duen lehenak bezain gutxi dakienez gero, orduan hemen abantaila bat agertzen da zerbait beharrezko auresuposizio praktikoa gisa baieztatzen duenaren alde (melior est conditio possidentis). Hain zuzen, aske zaie, nolabait esateko, bidezko defentsa dela eta, kausa onaren alde aurkakoak bere aurka erabiltzen dituen baliabide berak erabiltzea, h. d., hipotesiak erabiltzea, zeinek ez duten balio behar bere froga indartzeko, baizik aurkakoak gatazkaren objektua gutxiegi ulertzen duela azaltzeko besterik ez, hain gutxi, non ikuskera espekulatiboak gurearen aldean duen abantaila batez ezin baita harrotu.

Hipotesiak arrazoimen hutsaren alorrean guda-arma gisa soilik baimentzen dira, ez honen gainean eskubide bat oinarritzeko, baizik bera babesteko besterik ez. Aurkakoak, ordea, hemen beti ere gudan bilatu behar dugu. Izan ere, arrazoimen espekulatiboa bere erabilera transzendentalean *bere baitan* dialektikoa da. Beldurtu ahal gintuzketen objektzioak gudan daude. Asmo zahar baina inoiz preskribitzen ez direnak agerrarazi behar ditugu beren deuseztapenaren gainean betiko bakea oinarritzeko. Kanpoko lasaitasuna itxurazkoa baino ez da. Giza arrazoimenean datzan arazoaren erroa eraizi behar da; nola eraizi dezakegu bera, ordea, ez badiogu askatasunik ematen, ezta elikagairik ematen gainera, bere orriak bota ditzan eta horren bitartez aurkitua izan dadin, orduan sustraiak erauzteko? Pentsa itzazue, beraz, ezein aurkakori ere bururatu ez zaizkion objektzioak, eta armak mailegatu iezaizkiezue eta berak desira dezakeen leku egokiena utz iezaiezue. Hemen ez da beldurrik egon behar, baizik etorkizun osoan inoiz gehiago eztabaidatuko ez zaizuen jabegoa lortuko duzuela itxaron behar da.

Zuen hornidura osoari arrazoimen hutsaren hipotesiak ere badagozkio, zeinak berunezko armak baino ez izan arren (zeren ezein esperientzia-lege ere ez baititu altzairu bihurtu), dena dela, edozein aurkakok zeuen aurka erabil ditzakeen armen indar berbera duten. Zuek, beraz, onartutako arimaren materiagabeko izaeraren aurkako eta gorputzaren ezein aldakuntzari menperatzen ez zaienaren aurkako (ikuspegi espekulatiboa ez den beste edozeinean) zailtasun hau aurkitzen baduzue, dena dela, esperientziak itxuraz gure espirituaren indarren goraketa zein beheraketa gure organoen modifikazio ezberdinak bezala frogatzen dituelarik, bada, orduan froga honen indarra ahul dezakezue gure gorputza funtsezko agerpena baino ez dela onartzen baduzue, zeinari, baldintza den aldetik, egungo egoeran (bizitzan) sentimenaren ahalmen osoa eta honekin batera pentsatze oro lotzen zaizkion. Gorputzetik banaketa zuen indar ezagutzailearen sentsuzko erabilera honen bukaera da eta erabilera intelektualaren hasiera. Gorputza, beraz, ez litzateke pentsatzearen kausa, baizik bere baldintza murriztaile soil, eta beraz, sentsuzko bizitza animikoaren bultzatzaile gisa bai baina, are gehiago, bizitza huts eta espiritualaren oztopo gisa hartu behar da, eta lehenaren antolaera gorpuzdunetik menpekotasunak ez du ezer frogatzen bizitza orok gure organoen egoeraz duen menpekotasunaz. Aurrerago ere joan zintezkete eta zalantza berriak aurki ditzakezue, aipatu ez direnak edo aski landu ez direnak.

Gizakiengan, baita sorkari irrazionaletan ere, sorketaren beharbadakotasuna egoeraren menpean dago, baina baita sarri elikaduraren menpean ere, gobernuaren menpean, bere gogartearen eta burutazioen menpean, sarri gainera bizioaren menpean ere badago, eta hain garrantzi gutxiko eta guztiz gure askatasunaren eskuetan utzitako egoeran bizitzen hasi den sorkari batek zailtasun handia sortzen dio honek betiko iraunkortasuna duela dioen iritziari. Genero osoaren iraupenari dagokionez (hemen lurrean) zailtasunak ez du garrantzirik, kasu bakanean beharbadakoa dena beti erregela bati menperatzen baitzaio osotara; baina zalantzarria dirudi banako bakoitzaz hain kausa txikietatik hain efektu boteretsua itxarotea. Honen aurka, ordea, hipotesi transzendental hau eman dezakezue: bizitza oro benetan inteligiblea baino ez dela, inolaz ere denboran ematen diren aldaketen menpean ez dagoela, eta ez dela jaiotzarekin hasten, ezta heriotzarekin bukatuko ere; bizitza hau agerpen soil baino ez dela, h. d., espirituzko bizitza hutsaren sentsuzko errepresentazioa dela, eta sentsuen mundu osoa irudi soil bat dela, zeina gure

egungo ezagueran igeri dagoen eta amets baten gisara errealitate objektiborik ez duen bere baitan; gauzak eta geure burua *hauek diren bezala* begietsi behar baditugu, orduan espirituzko izaera duen mundu batean ikusiko ginateke, eta mundu honekin dugun egiazko komunitate bakarra ez da jaiotzarekin hasi, ezta soinaren heriotzarekin bukatuko ere (agerpen soila den heinean), eta abar.

Hemen erasoaren aurka egiteko hipotetikoki erabiltzen dugun honetaz guztiaz ezer ez baldin badakigu eta seriooki baieztatzen ez baldin badugu, baizik dena arrazoimenaren ideia ere ez baldin bada, aitzitik, defentsarako *asmatutako* adigaia besterik ez bada, orduan hemen oso arrazonalki jokatzeko dugu, ahalgarritasun denak ahitu dituela uste duen aurkakoari, bere baldintza enpirikoen gabezia guk sinetsitakoaren ahalezintasun osoaren frogatzat jotzen duen heinean, hau besterik ez badiogu erakusten: berak esperientziaren lege soilen bitartez gauza ahalgarrien alor osoa bere baitan ezin duela bildu, guk esperientziatik at gure arrazoimenarentzat oinarritua dagoen zerbait bereganatu ezin dugun bezala. Ez da pentsatu behar zakar ezeztatzen duen aurkakoaren handiusteen aurka halako antidoto hipotetikoak erabiltzen dituenak hauek bere egiazko iritziak bezala bereganatu nahi dituenik. Hauek berehala uzten ditu aurkakoaren harrokeria dogmatikoa gainditu ondoren. Izan ere, norbaitek baieztapen arrotzei dagokienez ukatuz eta ezeztatuz soilik jokatzeko hain gauza apal eta neurritutzat hartu ahal bada ere, bere objekzioak aurkakoaren frogak bezala balioarazi nahi dituenean, uzia beti berak alderdi baieztalea eta bere baieztapena hartu balu bezain harroa eta puztua gertatzen da.

Hemendik abiatuta ikusten da, beraz, arrazoimenaren erabilera espekulatiboan hipotesiek ez dutela baliotasunik berbaitango iritzi gisa, baizik kontrajarritako handiuste transzendentei dagokienez besterik ez. Izan ere, oro harrezko gauzen ahalgarritasunera luzatzen den esperientzia ahalgarriaren printzipioen hedapena bere objektua esperientzia ahalgarri ororen mugetatik at baino aurkitu ezin duten adigaien errealitate objektiboaren baieztapena bezain transzendentea da. Arrazoimen hutsak asertorikoki juzgatzen duen horrek beharrezkoa izan behar du (arrazoimenak ezagutzen duen guztia bezala) edo hori ez da inolaz ere. Beraz, egitatean ez du batere iritzirik barnebiltzen. Aipatutako hipotesiak, ordea, judizio problematikoak baino ez dira, kontraesan ezin direnak bederen, nahiz eta, noski, ezain modutan frogatu ere ezin diren, eta beraz, iritzi pribatu hutsak¹⁴⁴ dira, nahiz arrazoizkoa ez izan (ezta barneko lasaitasunerako ere) beren aurkako kezken aurrean hauek baztertzea. Modu honetan gorde behar dira, eta arretaz zaindu behar da era berean bere baitan baieztatuak eta baliotasun absolutua izanez ager ez daitezen, eta arrazoimena asmakeria eta itxurapenen azpian ito ez dezaten.

Hirugarren atalburuko

Laugarren atala

Arrazoimen hutsaren diziplina bere frogei begira

Esakune transzendental eta sintetikoaren frogak gauza berezi hau dute beren baitan apriorizko ezagutza sintetiko baten froga ororen artean, alegia, arrazoimenak beraietan bere adigaien bitartez ezin duela objektura jo, baizik aurretik adigaien baliotasun objektiboa eta beren sintesiaren ahalgarritasuna a priori frogatu behar duela. Hau ez da beharrezko zuhurtzia-erregela bat, baizik frogaren funtsa eta ahalgarritasuna ukitzen du. Objektu baten adigaia a priori gainditu beharko banu, hau ezinezkoa gertatzen da adigai honetatik at dagoen gida-hari berezirik gabe. Matematikan apriorizko begiespena da nire sintesia gidatzen duena eta hor inferentzia denak zuzenki begiespen hutsean egin daitezke. Ezagutza transzendentalean honek adigaiekin soilik zerikusia duen artean gida-soka esperientzia ahalgarria da. Frogak ez du erakusten, hain zuzen, adigai jakinak (adibidez, gertatzen denaren adigaiak) zuzenki beste adigai batera (kausa baten adigaira) gidatzen gaituenik; izan ere, halako igarobidea legeztatu ezin den jauzia litzateke; baizik esperientzia bera, eta beraz, esperientziaren objektua halako elkarloturarik gabe ezinezkoa litzatekeela erakusten du. Beraz, frogak aldi berean bere adigaian barnebilduta ez dauden gauzen ezagutza jakinera sintetikoki eta a priori iristeko ahalgarritasuna erakutsi beharko luke. Hau kontuan hartzen ez bada, orduan frogak kostan gainezka egiten duen ura bezala jariatzen dira, basatiki eta zuzenki asoziazio ezkutuen aldapak ausaz gidatzen dituen norabidean. Asoziazioaren kausa subjektiboetan funtsatzen den eta berezko kidetasun baten ikuskeratzat jotzen den uste osoaren itxurak ezin du orekatu halako urrats ausartei buruz arrazoiz azaldu behar den zalantza. Horregatik, oinarri askiaren esakunea frogatzeko saialdi denak alferrikakoak izan dira adituen aitorten orokorren arabera, eta kritika transzendentalak agertu

zen arte oinarri-esakune hori utzi ezin zenez gero, orduan nahiago izan zen egoskorki giza adimen sendora jotzea (ihesbide honek zera frogatzen duela beti: arrazoimenaren kausa etsitua dela) frogatzen berriak saiatzea baino.

Frogatu behar den esakunea arrazoimen hutsaren baieztapena bada eta ideia soilen bitartez nire esperientzia-adigaiak gaintitu nahi baditut, orduan honek are gehiago barnebildu behar du sintesiaren halako urrats baten legeztapena (ahalgaria balitz) bere frogatzen beharrezko baldintza gisa. Ondorioz, hain itxurazkoa bada ere, apertzepzioaren batasunetik abiatzen den gure substantzia pentsatzailearen izaera bakunaren ustezko frogari, dena dela, ez bai hau kontrajartzen zaio ezinbestean: bakuntasun absolutua zuzenki hautemapen bati lot diezaiokeen ezin adigairik ez denez gero, baizik ideia gisa inferitua izan behar dena besterik ez, orduan ezin dela inolaz ere ulertu *pentsatze orotan* barnebildua dagoen edo behinik behin egon daitekeen kontzientziak (errepresentazio bakuna izan arren) nola gida nazakeen pentsatzea baino barnebildu ezin dezakeen gauza baten kontzientziara eta ezagutzara. Izan ere, nire gorputzaren indarra higiduran errepresentatzen badut, orduan, hainbestez, niretzat batasun absolutua da eta bere errepresentazioa nigan bakuna da; horregatik, hau puntu baten higiduraren bitartez adieraz dezaket, bere bolumenak garrantzirik ez baitu hemen eta, indarren ahultzerik gabe, nahi den bezain txikia, eta beraz, puntu batean balego bezala pentsa baitaiteke. Hemendik abiatuta, ordea, ez dut oraindik zera inferituko: gorputz baten indar higitzailea besterik ez zaidanean ematen, gorputza substantzia bakuna bezala pentsa daitekeela, bere errepresentazioak espazioaren edukia handitasun oroz abstraitzen duelako, eta beraz, bakuna delako. Bakunkia abstrakzioan eta bakunkia objektuan osoki ezberdinak direnez, eta lehen adieran *bere baitan* ezin anizkuntasunik jasotzen ez duen niak, bigarrenetan, arima esan nahi duenez, adigai oso konplexua izan daitekeenez, hots, *bere azpian* asko barnebildu eta ezaugarritzen duenez gero, orduan paralogismo bat aurkitzen dut. Hala ere, hau aldezturik aurretik saihestearren (izan ere, halako behin behineko susmorik gabe ez zen inoiz frogaren aurkako susmorik sortuko) behar-beharrezkoa da esperientziak eman dezakeena baino gehiago frogatu behar duen esakune sintetikoen ahalgarritasunaren betiko irizpidea eskuan izatea, alegia, honako hau: frogatzen ez doala zuzenki eskatzen den predikatura, baizik ahalgarritasunaren printzipio baten bitartez besterik ez, honela gure adigai jakina a priori ideiaraino hedatzeko eta hau egikaritzeko. Frogatzen aurretik burutsuki honetaz aholkua bilatzeko zuzentzia izaten bada: ea nola eta itxaropena izateko zein oinarriekin espero daitekeen arrazoimen hutsaren bidezko hedapena, eta nondik hartu nahi diren ikuskera hauek halako kasuan, adigaietatik garatzen ez direnez eta, era berean, ezin direnez aitzinatu esperientzia ahalgarriari dagokionez; eta orduan ahalegin zail baina antzu asko aurretik daitezke, arrazoimenari bere ahalmena gaintitzen duena eskatzen ez zaion heinean edo, are gehiago, bere hedapen-irrika espekulatiboaren ateraldietan gustura zedarritzatzen uzten ez den arrazoimena abstinentziaren diziplinari menperatzen zaion heinean.

Lehen erregelak, beraz, hau da: «ezin frogatzen ez saiatzea, aldezturik gogoetatu eta legeztatu gabe ea nondik hartu nahi diren frogatzen erabili nahi diren oinarri-esakuneak eta zein eskubiderekin itxaron daitekeen beraiez inferentzien emaitza ona». Adimenaren oinarri-esakuneak baldin badira (adibidez, kausalitatearena), orduan alferrik da beren bitartez arrazoimen hutsaren ideietara iristea; izan ere, haiek esperientzia ahalgarriaren objektuentzat soilik balio dute. Arrazoimen hutsetik datozen oinarri-esakuneak izan behar badute, orduan ahalegin oro alferrikakoa da era berean. Izan ere, arrazoimenak baditu oinarri-esakuneak, baina oinarri-esakune objektibo gisa osotara dialektikoak dira, eta hainbestez, esperientziaren erabilera sistematiko-biltzailearen printzipio erregulatzailerik gisa baino ez dute balio. Ustezko frogatzen halakoak, ordea, hor baditugu jadanik, orduan uste oso iruzurtiari zuen juzgamen helduaren non liquet-a kontrajartzen zaio eta bere itxurapena aurkitu ezin baduzue ere, dena dela, eskubide osoa duzue bertan erabilitako oinarri-esakuneen dedukzioa eskatzeko, inoiz eskuratu ezingo zaizuen dedukzioa, alegia, oinarri-esakuneak arrazoimen soiletik sortu badira. Eta, horrela, ez zaizue beharrezkoa izango halako itxura oinarri gabe bakoitzaren garapenaz eta errefusapenaz aritzea, baizik artifizioetan agortezina den Dialektika uka dezakezue osotara bat-batean legeak eskatzen dituen arrazoimen kritiko baten epaitegian.

Frogatzen transzendentalaren *bigarren* bereizgarritasuna hau da: esakune transzendental bakoitzarentzat frogatzen *bakarra* aurki daitekeela. Ez adigaietatik, baizik adigai bati dagokion begiespenetik abiatuta begiespen hutsa inferitzen badut, Matematikan bezala, edo begiespen enpirikoa, Natur Zientzian bezala, orduan oinarrian ezarritako begiespenak ekai anizkuna ematen dit esakune sintetikoetarako, zeinak nik era bat baino gehiagotara elkarlot ditzakedan, eta puntu bat baino gehiagotik abia naitekeen heinean, bide ezberdinetatik esakune berberara irits naiteke.

Esakune transzendental bakoitza, ordea, adigai Batetik soilik abiatzen da eta objektuaren ahalgarritasunaren baldintza sintetikoa adierazten du adigai honen arabera. Frogatzen oinarria, beraz, bat bakarra izan daiteke, zeren adigai honetatik at besterik ez baitago horren bitartez objektua determinatu ahal izateko; frogatzen, beraz, ez du oro harrezko objektu baten determinazioa

baino barnebiltzen adigai honen arabera eta hau ere bat bakarra da. Analitika transzendentalean, adibidez, oro har gertatzen denaren adigai baten ahalgarritasun objektiboaren baldintza bakarretik abiatuta oinarri-esakune hau atera dugu: «gertatzen den guztiak kausa bat du»; hain zuzen, denboran gertatzen den jazoera baten determinazioa, eta beraz, (gertakari) hau esperientziari egokitzea halako erregela dinamikoen menpean egon ezean ezinezkoa izatetik abiatuta atera dugu. Hau da froga-oinarri ahalgarri bakarra; izan ere, adigaiari kausalitatearen legearen bitartez objektu bat determinatzean soilik hartzen du jazoera errepresentatuak baliotasun objektiboa, h. d., egia. Oinarri-esakune honen beste frogak saiatu dira, noski, adibidez, beharbadakotasunetik abiatuta; baina hau argitan kontsideratzen bada, ezin da beharbadakotasunaren ezagugarriarik aurkitu, *gertakaria* izan ezik, h. d., objektuaren ez-izateari jarraiki zaion izatea, eta beraz, behin eta berriro aipatutako froga-oinarrira itzultzen gara. «Pentsatzen duen gauza oro bakuna da» esakunea frogatu behar bada, orduan ez gara geratzen pentsatzearen anizkuntian, baizik niaren adigaiaren besterik ez, hots, bakuna den eta pentsatze oro lotzen zaion adigaiaren. Gauza bera gertatzen da Jainkoaren izatearen froga transzendentalekin, zerizan ororrealaren eta beharrezkoaren adigaiaren elkartrukagarritasunean soilik funtsatzen den eta beste inon bilatu ezin denarekin.

Ohar honen bitartez arrazoimenaren baieztapenen kritika asko leuntzen da. Arrazoimenak bere zeregina adigai soilen bitartez egiten duenean, hor froga bakarra da ahalgarria, edonon ere baten bat ahalgarria baldin bada. Horregatik, dogmatikoa hamar frogarekin datorrela ikusten denean, seguru sinets daiteke bat bera ere ez duela. Izan ere, apodiktikoki frogatuko lukeen bat bakarra balu (arrazoimen hutsaren gaietan gertatu behar duen lege), zertarako beharko litzuke gainerakoak? Bere asmoa legebiltzarreko abokatuarena besterik ez da: argumentu bat honetarako, bestea hartarako, hots, sakondu gabe eta zereginetik laster askatzearen bururatzen zaizen lehen argumentu onena hartzen duten eta honen arabera erabakitzen duten epaileen ahultasuna erabiltzeko.

Hau da arrazoimen hutsaren hirugarren erregela bereizgarria, bera froga transzendentalei dagokienez diziplinari menperatzen zaionean: bere frogak beti *ostentsiboak* izan behar dutela, inoiz ez *apagogikoak*. Froga zuzena edo ostentsiboa ezagutzaren era guztietan egiaren uste osoa aldi berean bere iturrien ikuskerarekin lotzen duena da; aitzitik, apagogikoak ziurtasuna sor dezake, baina ezin du egiaren ulergarritasunik sortu egiak frogaren ahalgarritasunaren oinarriekin duen bilkurari dagokionez. Horregatik, azken hauek gehiago dira premiazko laguntza arrazoimenaren asmo oro gogobetetzen duten jardunbidea baino. Hala ere, hauek froga zuzenen aldean ebidentziaren lehentasun bat dute, hots, kontraesanak beti argitasun gehiago dakarrela berekin errepresentazioan elkarlotura onenak baino, eta horren bitartez demostrazio baten alde begiesgarria gehiago hurbiltzen dela.

Froga apagogikoa zientzia ezberdinetan erabiltzearen benetako zergatia hau da: ezagutza jakin bat eratortzeko oinarriak anizkunegiak badira edo sakonegi ezkutatuak badaude, orduan froga ondorioen bitartez lortuko ez ote den saiatzeko dela. Modus ponens, hots, ezagutza baten egia bere ondorioen egiatik abiatuta inferitzea, bertatik sortutako ondorio ahalgarri guztiak egia balira soilik baimenduko litzateke; izan ere, hainbestez, honen oinarri bakarra baino ez da ahalgarria, beraz, era berean egiazkoa ere baden oinarria. Jardunbide hau, ordea, egingaitza da, zeren gure indarrak gainditzen baititu onartutako esakuneren baten ondorio ahalgarri denak aditzeak; hala ere, inferitzeko era hau erabiltzen da eskuzabaltasun pixka batekin bada ere kontua zerbait hipotesi gisa soilik frogatzea denean, inferentzia analogia honen arabera onartzen den heinean: beti saiatu diren hainbeste ondorio onartutako oinarriarekin bat etorri badira, gainerako ondorio ahalgarri denak ere bat etorriko direla berekin. Horregatik, honela inoiz ezin da hipotesi bat egia demostratuan eraldatu. Arrazoimen-inferentzien modus tollens, hots, ondorioetatik oinarria inferitzeak, zorrozki frogatu ez ezik, errazki ere egiten du. Izan ere, esakune batetik ondorio faltsu bakarra atera badaiteke, orduan esakune hau faltsua da. Bere ahalgarritasunaren ikuskera osoaren bitartez ezagutza baten egiara gida dezakeen froga ostentsibo batean oinarrien ilara osoari jarraiki beharrean bere aurkakotik segitzen diren ondorioen artean faltsua den bat bakarra aurkitu badaiteke, orduan aurkako hau ere faltsua da, eta beraz, frogatu behar zen ezagutza egiazkoa da.

Froga-era apagogikoa, ordea, gure errepresentazioen alde subjektiboa alde objektiboari, hots, objektuan dagoenaren ezagutzari zerbait *amarruz sartzea* ezinezkoa gertatzen den zientzietan besterik ez da zilegizkoa. Alde objektiboa garailea denean, ordea, askotan gertatzen da esakune jakin baten aurkakoak pentsatzearen baldintza subjektiboak soilik kontraesaten dituela, baina ez objektua, edo esakune biak elkar kontraesaten dutela objektibotzat baino hartzen ez den baldintza subjektibo baten menpean, eta baldintza faltsua denez gero, orduan biak izan daitezke faltsuak, nahiz baten faltsutasunetik ezin den bestearen egia inferitu.

Subrepzio hori ezinezkoa gertatzen da Matematikan; horregatik daukate frogak hauek bertan beren benetako lekua. Natur Zientzian amarruz sartze hura gehienetan saihesten daiteke ondo alderatutako behaketa askoren bitartez, bertan dena begiespen enpirikoan oinarritzen baita; baina frogak-erak hauek bertan munta gutxiak da gehienetan. Hala ere, arrazoimen hutsaren saialdi transzendentalak osotara itxura dialektikoaren benetako ingurunearen barnean gertatzen dira, h. d., arrazoimenari bere premisetan objektibotzat eskaintzen zaion edo ezartzen zaion alde subjektiboan. Hemen, beraz, esakune sintetikoei dagokienez ezin da inolaz ere baimendu baieztapenak aurkakoa errefusatzearen bitartez legeztatzea. Izan ere, edo errefusapen hau kontrajarritako iritziak gure arrazoimenaren bidezko ulergarritasunaren baldintza subjektiboarekin duen gatazkaren errepresentazio soilak besterik ez da, eta horregatik ezer ez du egiten gauza bera ukatzeko (horrela, adibidez, zerizan baten izatearen baldintzatugabeko beharrezkotasuna ezin dugu absolutuki ulertu, eta horregatik, beharrezko zerizan goren baten frogak espekulatibo bakoitzari *subjektiboki* kontrajartzea arrazoizkoa da, jatorrizko zerizan honen ahalgarritasunari *bere baitan* kontrajartzea, ordea, arrazoigabea), edo biak, alde baieztaileak zein ezeztailleak, itxura transzendentalak iruzurtuak, objektuaren ezinezko adigaiak dute oinarrian eta hori erregela honek balio du: «*non entis nulla sunt praedicata*», h. d., objektuak baieztaiz nahiz ezeztatiz esaten dena okerra da eta ezin da apagogikoki aurkakoaren errefusapenaren bitartez egia eragutzarik lortu. Horrela, adibidez, sentsuen mundua *bere baitan* bere osotasunari dagokionez ematen dela aurreuposatzen denean, orduan faltsua da *edo* espazioari dagokionez amaigabea *edo* amaiduna eta mugatua izan behar duela, zeren bi baieztapenak faltsuak baitira. Izan ere, *beren baitan* (objektu gisa) emango liratekeen agerpenak (errepresentazio soil gisa) ezinezkoa den zerbait dira eta irudikatutako osoki honen amaigabetasuna baldintzatugabea litzateke, baina amaigabetasun honek adigaiaren aurreuposatzen den handitasunaren baldintzatugabeko determinazioa kontraesango luke (agerpenean dagoen guztia baldintzatua baita).

Frogak-erak apagogikoa da arrazoikerizale dogmatikoen sakontasunaren miresleak lotzeko erabiltzen den benetako itxurapena. Bera, nolabait esateko, hartutako alderdiaren ohorea eta eskubide eztabaidagabea hau zalantzan jarri nahi duen edonoren aurka borroka egingo duela aginduz frogatu nahi duen txapelduna da, nahiz eta halako hitzontzikeriaren bidez gauzari buruz ezer ez erabaki, aurkakoaren indar erlatiboa ezagutzea izan ezik, eta gainera, erasotzaile gisa jokatzeko duenaren aldetik besterik ez. Ikusleek, nor bere ilaran orain garailea, orain galtzailea dela ikusten duten heinean, gatazkaren objektua bera eszeptikoki zalantzan jartzeko arrazoiak aurkitzen dute. Baina ez dute horretarako ziorik, eta aski da hauei oihukatzea: «*non defensoribus istis tempus eget*». Nork bere kausa gidatu behar du frogak-oinarrien dedukzio transzendentalaren indarrez bideratutako legezko frogaren bitartez, h. d., zuzenki, honela arrazoimenaren uziek beren alde zer aipa dezaketenez ikusteko. Izan ere, bere aurkakoa oinarri subjektiboetan eusten bada, orduan, noski, erraz errefusatu ahal izango dugu, baina dogmatikoari alderik eman gabe, zeina era berean eskuarki judizioaren kausa subjektiboen menpean dagoen eta aurkakoa zokora dezakeen. Bi aldeek zuzenki jokatzeko badute, ordea, orduan, edo berez ohartuko dute beren baieztapenen titulua aurkitzeko zailtasuna, baita ezintasuna ere, eta, azkenik, preskripzioa besterik ezingo dute jo, edo kritikak itxura dogmatikoa erraz azalduko du eta arrazoimen hutsa erabilera espekulatiboan bere gehiegizko handiusteak uztera eta bere lur bereziaren mugen barnera atzera egitera behartuko du, hots, oinarri-esakune praktikotara.

Metodoaren irakaspen transzendentalaren

Bigarren atalburua

Arrazoimen hutsaren kanona

Giza arrazoimenarentzat umilgarria da bere erabilera hutsean ezer ez lortzea eta, gainera, diziplina bat behar izatea bere bitxikeriak neurtu eta bertatik datozkion itxurapenak saihesteko. Bestalde, ordea, berriro goratzen du eta bere buruan konfiantza ematen dio diziplina hori norberak erabili ahal eta behar izateak bere gainera beste zentsurarik onartu gabe, halaber, erabilera espekulatiboan ezartzera behartuta dagoen mugak, aldi berean, aurkako bakoitzaren handiuste sofistikoak zedarritzatzeak, eta beraz, aurretik puztu zituen eskakizunetatik gera ahal zitekeen guztia eraso ororen aurka segurtatu ahal izateak. Arrazoimen hutsaren Filosofia ororen onura handiena, eta agian bakarra, beraz, negatiboa besterik ez da; hain zuzen, ez organon gisa

hedapenerako, baizik diziplina gisa mugen determinaziorako balio duela, eta egia aurkitu beharrean errakuntzak sahiestearen merezimendu isila baino ez duela.

Hala ere, nonbait arrazoimen hutsaren lurraldean kokatzen diren ezagutza positiboen iturri batek egon behar du eta hauek agian gaizki-ulertzeagatik baino ez dute ematen errakuntzak egiteko aukera, nahiz, egitatean, arrazoimenaren irrikaren xedea osatzen duten. Izan ere, zein arrazoiri egotzi behar zaio bestela esperientziaren mugez goiti nonbait irmoki oin hartzeko irrika aseezina? Aldean interes handia dakarten objektuak iragartzen ditu. Espekulazio soilaren bidea urratzen du haiei hurbiltzeko; baina haiek ihes egiten diote. Ustez itxaron ahal izango da geratzen zaion bide bakarrean zori hobeagoa izan dezan, hots, erabilera *praktikoan*.

Kanon batez oro har ezagumen jakin baten erabilera zuzenaren apriorizko oinarri-esakuneen multzoa ulertzen dut. Horrela, Logika orokorra bere zati analitikoan oro har adimenarentzako eta arrazoimenarentzako kanon bat da, baina formaren arabera besterik ez, izan ere, eduki oroz abstraitzen baitu. Horrela, Analitika transzendental *adimen* hutsaren kanona zen; izan ere, berak baino ezin ditzake izan egiazkoak diren apriorizko ezagutza sintetikoak. Indar ezagutzaile baten erabilera zuzena ezinezkoa bada, ordea, orduan ez dago kanonik. *Arrazoimen* hutsaren ezagutza sintetiko oro bere erabilera espekulatiboan erabat ezinezkoa da orain arte aipatutako frogaren arabera. Beraz, bere erabilera espekulatiboaren kanonik ez dago (izan ere, hau erabat dialektikoa baita), baizik Logika transzendental oro zentzu honetan diziplina baino ez da. Ondorioz, edonon arrazoimen hutsaren erabilera zuzenik badago, kasu horretan bere *kanon* batek egon beharko du, eta orduan honek ez du zerikusirik izango *arrazoimenaren erabilera* espekulatiboarekin, baizik *praktikoarekin*, eta hau da guk orain aztertu nahi duguna.

Arrazoimen hutsaren kanonaren

Lehen atala

Gure arrazoimenaren erabilera hutsaren azken helburuaz

Arrazoimena bere izaeraren joerak bultzatzen du esperientzian duen erabileraz goiti joatera, erabilera huts batean eta ideia soilen bitartez ezagutza ororen muga urrunenez goiti ausartzera, eta atsedena lehen-lehenik bere zirkulua osatu ondoren soilik aurkitzera berez dirauen osoki sistematiko batean. Gura hau bere interes espekulatiboan soilik oinarritzen ahal da edo, aitzitik, praktikoan besterik ez?

Hemen alde batera utzi nahi dut arrazoimen hutsak alde espekulatiboan duen zoria, eta bere eginkizunez soilik galdetuko dut, zeinen osaketak arrazoimenaren azken helburua osatzen duen –hau lortu edo ez lortu-, eta beraz, beraien aldean beste denak baliabidearen balioa baino ez duen eginkizunez galdetuko dut. Arrazoimenaren izaerari jarraiki helburu goren hauek batasuna izan beharko dute era berean, honela gizatasunaren interesa, interes garaiago bati menperatzen ez zaion interesa, bateraturik sustatzeko.

Azkenik, arrazoimenaren espekulazioak erabilera transzendentalean begiztatzen duen azken asmoak hiru objektuekin du zerikusia: nahimenaren askatasuna, arimaren hilezkortasuna eta Jainkoaren izatea. Arrazoimenak hiru hauetan duen interes espekulatibo soil oso txikia besterik ez da, eta honi dagokionez zailki hartuko litzateke ikerkuntza transzendentalaren lan nekagarria, etengabeko oztopoekin borrokatu behar duen lana, zeren honen gainean egin ahal izango liratekeen aurkikuntza guztiak ezin baitute frogatu bere erabileraren onura in concreto, h. d., izadiaren ikerkuntzan. Nahimena askea izan daiteke, baina hau gure nahi izatearen kausa inteligiblearen kontua besterik ez da. Izan ere, bere adierazpenen fenomenoekin, h. d., ekintzekin zerikusia duenari dagokionez, hau ezin dugu inoiz izadiko beste agerpenen gisara baino, hots, bere lege aldagaitzen arabera baino argitu, alegia, oinarrizko maxima haustezin bati jarraiki, hau gabe ezingo baikenuke arrazoimena aplikatu erabilera empirikoan. Baliteke, bigarrenik, arimaren espirituzko izaera (eta berekin batera bere hilezkortasuna) aditu ahal izatea, baina ezin da horregatik bizitza honen agerpenez argiztapenik eman, argiketa-oinarri gisa, ezta geroako egoeraren egitura bereziaz ere, zeren gorpuzgabeko izaera baten gure adigaia negatiboa baino ez baita eta honek gure ezagutza ez baitu deus ere hedatzen, ez du ondorioztapenetarako ekai egokirik ere eskaintzen, asmakuntzatzat jotzen direnentzat soilik izan ezik, Filosofiak, ordea, baimentzen ez dituenak. Hirugarrenik, inteligentzia goren baten izatea frogatu izan balitz, hortik abiatuta ulergarria egingo

genuke munduaren egituraren eta ordenaren helburua orokorrean, baina inolaz ere ez litzaiguke zilegi hortik antolaketa eta ordena bereziren bat eratortzea, ezta hauek inferitzea ere hautematen ez badira, zeren arrazoimenaren erabilera espekulatiboaren beharrezko erregela baita izadiaren kausak ez saihestea eta esperientziaren bitartez irakatsia izan zaiguna uztea, horrela guk ezagutzen dugun zerbait gure ezagutza oro osoki gainditzten duen zerbaitetik abiatuta eratortzearen. Hitz batean, hiru esakune hauek beti transzendentek diraute arrazoimen espekulatiboarentzat eta ez dute erabilera imanenterik, h. d., esperientziaren objektuentzat onargarria den, eta beraz, guretzat nolabait onuragarria litzatekeen erabilerarik, baizik beren baitan kontsideratuta gure arrazoimenaren ahaleginak dira, guztiz alferrikakoak, eta gainera, erabat nekezak diren ahaleginak.

Ondorioz, baldin eta hiru funtsezko esakuneak *jakiteko* inolaz ere behar ez baditugu eta, hala ere, gure arrazoimenak temati gomendatzen badizkigu, orduan beren garrantzia benetan alor *pratikoaren* kontua baino ezin da izan.

Praktikoa askatasunak ahalbidetzen duen guztia da. Gure hautamen askearen aplikazioaren baldintzak enpirikoak badira, orduan arrazoimenak hor erabilera erregulatzaila baino ezin du izan eta lege enpirikoen batasuna eragiteko baino ez du balio, adibidez, azkartasunaren irakaspenean gure joerek ematen diguten helburu ororen bateratasuna helburu batean biltzeko, hain zuzen, *zoriontasunean* biltzeko, eta bertara iristeko baliabideen adostasunak osatzen du arrazoimenaren zeregin osoa, zeinak, horregatik, jokaera askearen lege *pragmatikoak* baino ezin dituen hornitu sentsuek gomendatzen dizkiguten helburuen lorpenerako, ez, ordea, erabat a priori determinatuta dauden lege hutsak. Aitzitik, lege praktikoa hutsak, arrazoimenak osoki a priori ematen duen helburua dutenak, ez enpirikoki baldintzaturik, baizik erabat agintzen duten legeak, arrazoimen hutsaren produktuak dira. Halakoak dira, ordea, lege *moralak*, eta beraz, hauek baino ez dagozkio arrazoimen hutsaren erabilera praktikoiari, eta hauek kanon bat baimentzen dute.

Arrazoimenaren zuzkidura osoa Filosofia hutsa dei dakioken landualdian egitatean aipatu diren hiru arazoetara bideratzen da. Hauek berek, ordea, era berean asmo urrunagoa dute, hots, ea *zer egin behar den*, baldin eta nahimen askea, Jainkoa eta geroko mundua badaude. Honek helburu gorenaz dugun jokaera ukitzen duenez gero, orduan izadi jakintsu eta arduratsuaren azken asmoa benetan gure arrazoimenaren antolaketa arlo moralari baino ez dagokio.

Zuhur izatea beharrezkoa da, ordea, Filosofia transzendentalari arrotza zaion¹⁴⁵ objektuari begi ematean, digresioetan ez sakabanatu eta sistemaren batasuna ez haustearren, bestalde, baita bere ekai berriaz gutxiegi dioen heinean ere, honi nabaritasuna edo uste osoan ezer falta ez dakion. Biak lortzea itxaroten dut, arlo transzendentaletik ahalbait gertu atxikiz eta bertan psikologikoa, h. d., enpirikoa izan litekeena guztiz baztertuz.

Eta hemen zera oharrarazi behar dut: oraingoz, askatasunaren adigai adiera praktikoa besterik ez dudala erabiliko, eta hemen askatasuna esanahi transzendentalean, agerpenen argiketa-oinarri gisa enpirikoki auresuposatu ezin dena, aitzitik, arrazoimenarentzat arazo bat den askatasuna alde batera uzten dut, gorago esan bezala. Hautamen bat, hain zuzen, *aberezkoa* besterik ez da (arbitrium butrum) sentsuzko estimuluen bitartez, h. d., *patologikoki* baino ezin bada determinatu. Halere, sentsuzko estimuletatik beregainki, eta beraz, arrazoimenak errepresentatzen dituen kausa eragileen bitartez soilik determina daitekeenak *hautamen askea* (arbitrium liberum) izena du, eta honekin loturan dagoen guztiari, oinarri nahiz ondorio gisa, *praktikoa* deitzen zaio. Askatasun praktikoa esperientziaren bitartez frogatu daiteke. Izan ere, giza hautamena ez du zirrartzen duenak soilik determinatzen, h. d., sentsuak zuzenki afektatzen dituenak, baizik gure sentsuzko desiramenaren zirrarak gainditzeko ahalmena daukagu gutxi bada ere onuragarria edo kaltegarria zaigunaren errepresentazioen indarrez; gure egoera osoari begira desiragarria denari, h. d., onuragarria edo kaltegarria denari buruzko gogoetak arrazoimenean funtsatzen dira. Horregatik, honek legeak ere ematen ditu, inperatiboak direnak, h. d., *askatasunaren lege* objektiboak, eta *gertatu behar duena* adierazten dutenak, nahiz agian hau inoiz ez gertatu, eta horretan bereizten dira *gertatzen denaz* aritzen diren *izadiaren legeetatik*, eta hau da, era berean, haiei lege praktikoa deitzearen zergatia.

Ea, ordea, arrazoimena bera legeak ezartzeko ekintzetan era berean bestelako eraginengatik determinatua ez ote dagoen, eta sentsuzko estimuluei dagokienez askatasuna deitzen zaion hori ea goragoko eta urrunagoko kausa arazleei dagokienez ez ote den berriro izadia, hau ez da gure kontua arlo praktikoa, arrazoimenari jokaeraren *arauari* buruz soilik galdetzen diogun heinean, baizik galdekizun hau espekulatiboa besterik ez da, eta alde batera utz dezakegu, gure asmoa ekitera edo ekiteari uztera bideratzen den heinean. Beraz, askatasun praktikoa esperientziaren bitartez ezagutzen dugu izadiaren kausetako bat gisa, hots, arrazoimenaren kausalitatea nahimenaren determinazioan ezagutzen dugu; bestalde, ordea, askatasun transzendentalak arrazoimen hau bera sentsuen munduaren kausa determinatzaile orotatik beregaina izatea eskatzen du (bere kausalitateari dagokionez agerpenen ilara bat haustearren), eta hainbestez, izadiaren legeen aurka, eta beraz, esperientzia ahalgarri ororen

aurka dagoela dirudi, eta beraz, arazo bat dirau. Halere, arazo hau ez dagokio arrazoimenari erabilera praktikoan, beraz, gure autugaia arrazoimen hutsaren kanon batean bi galdekizun besterik ez dira, arrazoimen hutsaren interes praktikoarekin zerikusia dutenak, hots, Jainkorik ba al dago? Geroko bizitzarik ba al dago? Galdekizun hauetan arrazoimenaren erabileraren kanon batek ahalgarria izan behar du. Askatasun transzendentalari buruzko galdekizunak jakintza espekulatiboa baino ez du ukitzen, eta guk axolagabe gisa alde batera bazter dezakegu arlo praktikoaz ari garenean, eta honi buruzko argiketa gogobetegarria arrazoimen hutsaren antinomian aurki daiteke.

Arrazoimen hutsaren kanonaren

Bigarren atala

Ongi gorenaren idealaz, arrazoimen hutsaren azken helburuaren determinazio-oinarri gisa

Arrazoimenak esperientzien alorrean zehar gidatu gintuen bere erabilera espekulatiboan, eta bertan bera inoiz osoki gogobete ezin denez gero, orduan hortik ideia espekulatiboetara gidatzen gintuen, zeinek, ordea, berriro esperientziara itzularazten gintuzten, eta beraz, beren asmoa era onuragarrian bai baina gure itxaropenari erantzun gabe betetzen zuten. Hortaz, saialdi bat geratzen zaigu: ea arrazoimen hutsa erabilera praktikoan ere aurki ote dezakegun, ea bertan orain aipatu ditugun arrazoimen hutsaren helburu gorenak lortzen dituzten ideietara gidatzen ote duen eta ea, beraz, arrazoimenak bere interes praktikoaren ikuspegitik ezin ote duen bermatu ikuspegi espekulatiboari dagokionez erabat ukatzen duena.

Nire arrazoimenaren interes oro (espekulatiboa zein praktiko) datozen hiru galdekizunetan biltzen da:

1. *Zer jakin dezaket?*
2. *Zer egin behar dut?*
3. *Zer itxarotea sori zait?*

Lehen galdekizuna espekulatiboa baino ez da. Bere erantzun ahalgarri oro ahitu dugu (horrela izan dela uste dut) eta, azkenik, arrazoimena gogobetetzen duten erantzun haiek aurkitu ditugu, eta arlo praktikoa kontuan ez bada hartzen, orduan kontent izateko arrazoia ere badauka; hala ere, erantzunak arrazoimen hutsaren ahalegin osoak begiztatzen dituen bi helburu handienetatik urrun geratu dira, erosotasunagatik lan hau hasiera batetik ukatu izan bagenu bezain urrun. Beraz, autugaia jakintza denean, orduan hau bederen segurua da eta erabakita dago, alegia, jakintza inoiz ez zaigula emana izango bi eginkizun haiei dagokienez.

Bigarren galdekizuna praktikoa baino ez da. Praktiko den heinean, arrazoimen hutsaren galdekizuna da, baina, hainbestez, ez da transzendental, morala baizik, eta beraz, gure kritikak bere baitan ezin du honetaz jardun.

Hirugarren galdekizuna, hots, nik egin behar dudana egiten badut, hainbestez, zer itxarotea sori zaidan, praktikoa eta teoretikoa da aldi berean, halako molde, non alde praktikoak gida-hari gisa soilik gidatzen baikaitu galdekizun teoretikoaren erantzunera, eta hau goratzen bada espekulatiboaren erantzunera. Izan ere, *itxarote* orok zorionarekin du zerikusia, eta bera arlo praktikoari eta ohituren legeari dagokienez jakintza eta izadiaren legea gauzen ezagutza teoretikoari begira diren gauza bera da. Hura, azkenean, inferentzia honetan biltzen da: zerbait *dela* (azken helburu ahalgarria determinatzen duena) *zerbait gertatu behar delako*; hau, berriz, honetan: zerbait *dela* (kausa goren gisa eragiten duena) *zerbait gertatzen delako*.

Zoriona gure joera guztien gogobetea da (bai extensive bere anizkuntasunaren arabera, bai intensive mailaren arabera, baita protensive ere luze-laburraren arabera). *Zorionaren* eragileetatik abiatzen den lege praktikoari pragmatikoa deitzen diot (azkartasunaren erregela); *zoriontsu izateko duintasuna* baino ez duenari eragileztat, berriz, morala deitzen diot (ohituren legea). Lehenak zer egin behar den gomendatzen digu, baldin eta zoriona lortu nahi badugu; bigarrenak zorionaren duin bihurtzeko nola jokatu behar dugun baino ez du agintzen. Lehen printzipio enpirikoetan oinarritzen da; izan ere, ezin dut jakin zein joera diren gogobete behar direnak, ezta zein diren gogobetea eragin ahal dezaketen izadiaren kausak ere, esperientziaren bitartez izan ezik. Bigarrenak joerez eta hauek gogobetetzeko izadiaren baliabideez abstraitzen du, eta oro har arrazoizko zerizan baten askatasuna eta bera printzipioen arabera zorionaren banaketarekin bat etortzeko beharrezko baldintza bakarrak besterik

ez ditu kontsideratzen, eta hainbestez, arrazoimen hutsaren ideia soiletan bederen funtsa *daiteke*, eta beraz, a priori ezagut *daiteke*.

Lege moral huts bat benetan badagoela onartzen dut, ekitea eta ekiteari uztea, h. d., arrazoizko zerizan baten askatasunaren erabilera guztiz a priori determinatzen duena (zio enpirikoak, h. d., zoriona kontuan hartu gabe), eta lege hauek *absolutuki* agintzen dutela (ez hipotetikoki soilik, beste helburu enpirikoen aurreuposiziopean), eta beraz, zentzu orotan beharrezkoak direla onartzen dut. Esakune hau bidezki aurreposu dezaket, moralista ilustratuenen frogetara ez ezik, edozein gizakiren judizio etikora ere jotzen dudana heinean, honek halako legea nabariki pentsatu nahi duenean.

Beraz, arrazoimen hutsak *esperientziaren ahalgarritasunaren* printzipioak barnebiltzen ditu, hots, arau etikoaren arabera gizakiaren *historian* gerta *litezkeen* ekintzak, ez bere erabilera espekulatiboan, baina bai erabilera praktikoa jakin batean, hots, moralean. Izan ere, halakoak gertatu behar dutela agintzen duenez, orduan hauek gertatu ahal izan behar dute, eta beraz, batasun sistematikoaren era berezi batek, hots, batasun moralak ahalgarria izan behar du, baina *arrazoimenaren printzipio espekulatiboan arabera* izadiaren batasun sistematikoa ezin izan zen frogatu, zeren arrazoimenak kausalitatea baitu askatasunari dagokionez, baina ez izadia osoari dagokionez, eta arrazoimenaren printzipio moralak ekintza askeak sor baititzakete, baina ez izadiaren legeak. Beraz, arrazoimen hutsaren printzipioak errealitate objektiboa dute beren erabilera praktikoa eta, bereziki, moralean.

Munduari, lege etiko ororen arabera izango litzatekeen heinean, *mundu morala* deitzen diot (arrazoizko zerizanaren askatasunaren arabera izan *daitekeen* bezala eta *etikotasunaren* beharrezko legeen arabera izan *behar duen* bezala). Hau, hainbestez, mundu inteligible gisa soilik pentsatzen da, zeren bertan baldintza oroz (helburuez) eta moralitasunaren oztupo guztiez ere (giza izaeraren ahultasunaz edo ustelkeriaz) abstraitzen baita. Hainbestez, ideia soila da, baina praktikoa, eta benetan eragina izan ahal eta behar du sentzuen munduan, bera ideia horien ahalbait antzekoa bihurtzearren. Mundu moralaren ideiak, hainbestez, errealitate objektiboa du, ez begiespen inteligiblearen objektu baterantz joango balitz bezala (halakorik ezin dut pentsatu), baizik sentzuen mundurantz, baina arrazoimen hutsaren objektua bezala bere erabilera praktikoa eta arrazoizko zerizanaren corpus mysticum bat bezala bertan, bere hautamen askeak lege moralen menpean dagoenean bere buruarekin zein beste askatasun ororekin bere baitan batasun sistematiko osoa daukan heinean.

Hau zen interes praktikoa ukitzen duten arrazoimen hutsaren bi galdekizun haietako lehenari erantzuna: *egin ezazu zoriontsu izateko duin bihurtuko zaituena*. Bigarrenak zera galdetzen du: zoriona izateko duineza ez naizen moduan jokatzeko baldin badut, sori ahal zait horren bidez bera lortu ahal izango dudala itxarotea? Bere erantzuna honen menpean dago: ea legea a priori ezartzen duten arrazoimen hutsaren printzipioek itxaropen hori ere halabeharrez honekin elkarlotzen duten.

Onorioz zera diot: printzipio moralak arrazoimenaren arabera beren erabilera *praktikoa* beharrezkoak direla eta era berean haiek arrazoimenaren arabera beren erabilera *teoretikoa* ere onartzea beharrezkoa gertatzen dela; edonork zoriona itxaroteko arrazoi bera jasotzeko duin bihurtu den neurri berberan duela, eta beraz, etikotasunaren sistema zoriontasunarekin bereiztezinki lotua dagoela, baina arrazoimen hutsaren ideian besterik ez.

Mundu inteligible batean, h. d., mundu moralean, bere adigaietan etikotasunaren oztupo denez (joerez) abstraitzen dugunez, moralitasunarekin egokiro lotutako zorionaren sistema beharrezkoa dela pentsa daiteke, zeren lege etikoaren bitartez alde bizkortutako eta alde murriztutako askatasuna bera bailitzateke zorion orokorraren kausa, eta beraz, arrazoizko zerizan bera da halako printzipioen gidarekin bere ongizate propioaren eta, aldi berean, besteen ongizate iraukorrenaren kausa. Hala ere, bere burua saritzen duen moralitasun honen sistema ideia bat besterik ez da, zeinaren egikaritza *bakoitzak* egin behar duena egitean funtsatzen den, h. d., arrazoizko zerizanaren ekintza guztiak hautamen pribatu oro bere baitan edo bere menpean jasotzen dituen nahimen goren batetik sortuko balira bezala gertatzen direla. Halere, lege moraletik sortzen den beharrak baliogarria izaten irauten duenez gero askatasunaren erabilera berezi ororako, besteek lege horren arabera ez jokatu arren, orduan ez munduko gauzen izaerak ezta ekintza beren kausalitateak eta beraiek etikotasunarekin duten hartuemanek ere ez dute determinatzen ea bere ondorioak nola jokatzeko duten zorionari dagokionez, eta zoriontsu izateko itxaropenak zorionaren duin bihurtzearren ezinbesteko ahaleginarekin duen beharrezko elkarlotura hori ezin da arrazoimenaren bitartez ezagutu, baldin eta izadia soilik ezartzen bada oinarrian, aitzitik, lege moralen arabera agintzen duen *arrazoimen goren* bat aldi berean izadiaren kausa gisa oinarrian ezartzen bada soilik sori da hori itxarotea.

Halako inteligentziaren ideari, bertan moralki beteginena den nahimena zorion gorenarekin loturik munduko zorion ororen kausa denez, *ongi gorenaren ideala* deitzen diot, etikotasunarekin hartueman zehatzean dagoen heinean. Beraz, arrazoimen hutsak *jatorrizko* ongi gorenaren idealean baino ezin dezake aurkitu eratorritako ongi gorenaren bi osagaien

beharrezko elkarlotura praktikoaren oinarria, hots, mundu inteligiblea, h. d., mundu *moral*a. Halabeharrez, arrazoimenaren bitartez halako mundukoak bagina bezala errepresentatu behar garenez gero, nahiz sentsuek guri agerpenen mundua baino ez diguten aurkezten, orduan hura sentsuen munduko gure joeraren ondorio gisa onartu behar dugu, eta honek guri halako elkarlotura eskaintzen ez digunez, guretzat geroko mundua izango balitz bezala ere bai. Jainkoa, beraz, eta geroko mundua, arrazoimen hutsari jarraiki arrazoimen berak ezartzen digun beharretik banandu ezin diren bi auresuposizio dira.

Etikotasunak sistema bat osatzen du bere baitan, baina ez zorionak, moralitasunari zehazki egokituz banatua izan ezean. Hau, ordea, mundu inteligiblean besterik ezin da gertatu sortzaile eta gobernari jakintsu baten menpean. Halakoa onartzera behartuta dago arrazoimena, halako munduko bizitzarekin batera, gerokoa bezala ikusi behar duguna, edo bestela lege moralak burutazio hutsal gisa begiztatzen behartuta legoke, zeren arrazoimen berak haiekin elkarlotzen duen bere beharrezko emaitzak auresuposizio hura gabe desargertu egin behar baitu. Horregatik hartzen ditu edonork lege moralak era berean *manamendutzat*, ezin izango liratekeenak, a priori egokiak diren ondorioak beren erregelarekin elkarlotuko ez balituzte, eta beraz, *aginduak* eta *amenazuak* ez balekartzate aldean. Hau, ordea, ezin dute egin ongi gorena den beharrezko zerizanean ez badautza, honek soilik ahalbidetu baitezake halako batasun helburuduna.

Leibnizek munduari *graziaren erresuma* deitzen zion, bertan arrazoizko zerizana eta lege moralen arabera bere bilkura eta ongi gorenaren gobernua soilik kontsideratzen diren heinean, eta bera *izadiaren erresumatik* ezberdintzen zuen, non arrazoizko zerizan haiek lege moralen menpean badaude ere beren jokaeraren beste emaitzarik ez duten itxaroten, gure sentsuen munduko izaeraren ibilbidearen arabera izan ezik. Norbere burua, beraz, *graziaren erresuman* ikustea– non zorion orok itxaroten gaituen, bera lortzea zoriontsu izateko duintasun ezaren bitartez geuk murrizten ez badugu behintzat– arrazoimenaren beharrezko ideia praktikoa da.

Lege praktikoek, aldi berean ekintzen oinarri subjektiboak bihurtzen diren heinean, h. d., oinarri-esakune subjektiboek, *maximak* izena dute. Etikotasunaren *juzgaket*a bere araztasunari eta ondorioei dagokienez *ideien* arabera gertatzen da eta bere legeen *betetzea maximen* arabera.

Beharrezkoa da gure bizitzaren joan-etorri denak maxima etikoei menperatzea; aldi berean, ordea, hau gertatzea ezinezkoa da, arrazoimenak ideia soilak den lege moralari kausa arazlea ez baldin badio elkarlotzen, zeinak joan-etorri haiei gure helburu gorenari dagokion emaitza determinatzen dien jokaeraren arabera, dela bizitza honetan, dela beste batean. Beraz, Jainkorik gabe eta guretzat orain ikustezina den baina itxaroten dugun beste mundurik gabe etikotasunaren ideia jatorrak onarpenaren eta mirespenaren objektuak dira, baina ez intentzioaren eta ariketaren eragileak, ez baitute betetzen arrazoizko zerizan bakoitza berez eta arrazoimen hutsa beraren bidez a priori determinatzen duen eta beharrezkoa den helburu osoa.

Zoriona bere kabuz ez da inolaz ere ongi konplutua gure arrazoimenarentzat. Arrazoimenak halakorik ez du onartzen (joerak hau hainbeste desiratzen duen arren), harik eta zoriontsu izateko duintasunarekin, h. d., jokaera on etikoarekin bateratzen ez den arte. Etikotasuna bere kabuz eta zoriontsu izateko *duintasun* soilak ez dira inolaz ere ongi osoa. Hau osatzeko, era duinezean jokatu ez duenak zoriona lortzea itxaron ahal izan behar du. Asmo pribatu orotatik aske dagoen arrazoimen berak ezingo luke bestela juzgatu bere interes propioa baztertu eta zoriontasun guztia besteei banatuko liekeen zerizan baten lekuan jartzen bada; izan ere, ideia praktikoa bi aldeak funtsezko moduan daude lotuak, baina intentzio moralak, baldintza den aldetik, zoriona lortzea ahalbidetzen duelarik, eta ez alderantziz, zorionaren ikuspegiak intentzio moralak. Izan ere, azken kasuan intentzioa ez litzateke moralak, eta beraz, ezta zoriontasun guztia izateko duina ere; zoriontasunak arrazoimenaren aurrean ez du beste zedarritzapenik ezagutzen, etikoa ez den gure jokaeratik sortzen dena izan ezik.

Beraz, mundu baten ongi gorena arrazoizko zerizanaren etikotasunarekin proportzio zuzenean dagoen zoriontasunak eratzen du, horrela arrazoizko zerizanak zorionaren duin bihurtzen direla, eta mundu horretan kokatu behar gara arrazoimen huts baino praktikoaren arauen arabera, eta mundu hau, noski, inteligiblea besterik ez da, sentsuen munduak gauzen izaeraz halako batasun sistematikoa ez baitigu agintzen, honen errealitatea jatorrizko ongi goren baten auresuposizioan soilik oinarritzen denez, zeren arrazoimen beregainak oinarritu, atxiki eta betetzen baitu kausa goren baten onargarritasunarekin hornituta eta helburutasun beteginenaren arabera gauzen ordena orokorra, sentsuen munduan oso ezkutatua badago ere.

Teologia moral honek espekulatiboaren aldean abantaila berezi hau du: berak ezinbestean jatorrizko zerizan *bakar*, *orobetegina* eta *arrazoizkora* gidatzen duela; Teologia espekulatiboak, aitzitik, oinarri objektiboetatik abiatuta ere ezingo gintuen inoiz hau *erakutsi*, are gutxiago honetaz *konbentzitu*. Izan ere, ez Teologia transzendentalean, ezta Natur Teologian ere, ez dugu aurkitzen oinarri esanguratsurik, arrazoimenak beraietan hain urrun gida gaitzakeen arren, izadiaren kausa ororen aurretiazko zerizan bakar bat onartzeko, zeinari, aldi berean, izadiaren kausa hauek zati guztietan menperatzeko arrazoi aski

izango genukeen. Aitzitik, batasun etikoaren ikuspuntutik, munduaren beharrezko legea den heinean, honi efektu egokia soilik eman diezaiokeen kausa, eta beraz, behartzen gaituen indarra eman diezagukeen kausa kontsideratzen badugu, orduan lege hauek denak bere baitan jasotzen dituen nahimen goren bakar batek izan behar du. Izan ere, nola nahiko genuke aurkitu helburuen batasun betegina nahimen ezberdinen artean? Nahimen honek ahalguztiduna izan behar du, izadi osoa eta honek munduan etikotasunarekin duen harremana berari menperatzeko; orojakilea, intentzioen alde barnekoena eta bere balio morala ezagutzeko; oropresentea, munduaren ongi gorenak eskatzen dituen behar denetatik hurbil-hurbil egoteko; betierekoa, ezein denboratan izadia eta askatasunaren adostasun hau falta ez izateko, eta abar.

Hala ere, izadi soila gisa sentsuen mundua baino ez den eta askatasunaren sistema gisa mundu inteligiblea, h. d., morala (regnum gratiae) dei dakiokkeen inteligentzien mundu honetako helburuen batasun sistematiko honek osoki handi hau osatzen duten gauza ororen batasun helburudunera gidatzen du ezinbestean izadiaren lege orokorraren arabera, lehenak ohituren lege orokor eta beharrezkoen arabera egiten duen legez, eta arrazoimen praktikoa espekulatiboarekin bateratzen du. Mundua ideia batetik sortua balitz bezala errepresentatu behar da, arrazoimenaren erabilera honekin adostu behar badu, h. d., erabilera moralarekin, hau gabe arrazoimena izateko duintasunik ez genukeela pentsatuko baikenuke, eta beraz, osorik ongi gorenaren ideian funtsatzen den erabilerarekin adostu behar du. Horren bitartez, izadiaren ikerketa orok norabide bat hartzen du helburuen sistema baten formaren arabera eta bere hedapen handiengan Teologia fisikoa bihurtzen da. Hau ordena etikotik abiatu denez, orde, askatasunaren funtsean oinarritutako batasun gisa, eta ez kanpoko manamenduez ausaz eratutako batasun gisa, orduan izadiaren helburutasuna a priori gauzen barneko ahalgarritasunarekin bereiztezinki elkarlotuta izan behar duten oinarrietara bideratzen du eta horren bitartez Teologia transzendental batera, zeinak betegintzarre ontologiko gorenaren ideala izadiaren lege orokor eta beharrezkoen arabera gauza guztiak elkarlotzen dituen batasun sistematikoaren printzipio bat balitz bezala hartzen duen, zeren gauza horiek denek jatorria jatorrizko zerizan baten beharrezkotasun absolutuan baitute.

Gure adimena nola *erabil* dezakegu, baita esperientziari dagokionez ere, geure buruari helbururik ez badiogu ezartzen? Helburu gorenak, orde, moralitasunarenak dira eta hauek arrazoimen hutsak baino ezin diezazkiguke ezagutarazi. Helburu hauek izan ahala, eta beren gida-hariarekin, izadi beraren ezagupenaren ezein erabilera helburudun ezin dugu egin ezagutzari dagokionez, izadia berak batasun helburuduna sortu ezean; izan ere, hau gabe ez genuke arrazoimenik, zeren beretzako eskolarik ez baikenuke eta halako adigaienez ekaia eskaini liezaguketen objektuen bidezko kulturarik ere ez. Halere, batasun helburudun hura beharrezkoa da eta hautamenaren funtsean bertan oinarritzen da, beraz, bere aplikazioa in concreto egiteko baldintza barnebiltzen duen honek ere izan behar du, eta horrela, gure arrazoimen-ezagutzaren goraketa transzendental ez litzateke arrazoimen hutsak ezartzen digun helburutasun praktikokoaren kausa izango, baizik efektua besterik ez.

Beraz, giza arrazoimenaren historian ere zera aurkitzen dugu: adigai moralak aski araztu, determinatu eta beren araberrako helburuen batasun sistematikoa aditu ziren aurretik ere, beharrezko printzipioetatik abiatuta aditu ere, izadiaren ezagupenak eta arrazoimenaren kulturaren maila garrantzitsuak beste zenbait zientzian, alde, jainkotasunaren adigai zakar eta xaloak soilik sor ditzaketela, alde, galdekizun hauei dagokienez oro har axolagabetasun harrigarria besterik ez dutela sortzen. Gure Erlijioaren ohituren lege zeharo hutsaren bidez beharrezkoa bihurtuko litzatekeen ideia etikoaren landualdi handiagoak arrazoimena zorrotz luke objektuari dagokionez, beraz interesa izatea behartuz, eta izadiaren ezagutza hedatuaren eta ikuskera transzendental zuzen eta konfiantzazkoaren laguntzarik gabe (garai orotan falta izan zaizkigunak) jainkotiar zerizan baten adigaia sortu zuten, guk orain zuzentzat jotzen duguna, ez arrazoimen espekulatiboak bere zuzentasunaren uste osoa ematen digulako, baizik bera arrazoimenaren printzipio moralekin osorik ados dagoelako. Eta horrela, azkenean, arrazoimen hutsak baino ez dauka, bere erabilera praktikoa izan arren, espekulazioak soilik irudikatu bai baina onartu ezin duen ezagupena gure interes gorenarekin elkartzeko merezimendua, eta horren bitartez, ez dogma demostratu bat, baina bai bere funtsezko helburuetan behar-beharrezkoa den auresuposizioa bihurtzeko merezimendua.

Arrazoimen praktikoa puntu goren hau lortu duenean, hots, jatorrizko zerizan baten adigaia ongi goren gisa, orduan ez du pentsatu behar bere aplikazioaren baldintza enpiriko oro gainditu denik eta objektu berrien ezagutza zuzenera igo denik, adigai honetatik abiatu eta lege moral beraiek bertatik eratortzearen. Izan ere, hauen *barneko* beharrezkotasun praktikoa gidatu gaituzte, hain zuzen, kausa beregain baten edo munduaren gobernari jakintsuaren auresuposizioa, lege haiei eragina ematearren, eta horregatik, hau egin ondoren, ezin ditugu berriro beharbadako eta nahimen soiletik eratorritako lege gisa begiztatu, bereziki beraz ezein adigairik izango ez genukeen nahimen batetik eratorriak balira bezala, baldin eta nahimen hau lege haiei arabera eratu ez bagenu. Arrazoimen praktikoa gu gidatzeko eskubidea duen heinean, ekintzak ez ditugu behartuak bezala ikusiko Jainkoaren manamenduak direlako, aitzitik, Jainkoaren manamendutzat hartuko ditugu gure barnetik horretara

behartuak garelako. Askatasuna batasun helburudunaren menpean estudiantuko dugu arrazoimenaren printzipioen arabera, eta arrazoimenak ekintzen izaeraren bidez irakasten digun ohituren legea sakratutzat dugun heinean soilik sinestuko dugu jainkotiar nahimenaren arabera dela; munduaren ongi gorena gudan eta besteengan sustatzen dugun heinean soilik sinestuko dugu horren bidez bera zerbitzatzen dugula. Teologia moralak, beraz, erabilera imanentea baino ez du, hots, gure determinazioa hemen munduan betetzea, helburu ororen sistemara moldatzen garen heinean, eta arrazoimen lege-emaile moral baten bizimodu onaren gida-haria gogoberoki edo sukartsuki uzten ez dugun heinean, bera zuzenki zerizan gorenaren ideari lotuz, zeinak erabilera transzendente bat eskuratu lezakeen, baina espekulazio soilak bezala arrazoimenaren azken helburuak halaberrez bihurtuz eta alferrikalduz.

Arrazoimen hutsaren kanonaren

Hirugarren atala

Iritziaz, jakintzaz eta sinesmenaz

Ustea gure adimenean agitzen den jazoera bat da, oinarri objektiboetan funtsa daitekeena, baina juzgatzen duenaren gogamenean kausa subjektiboak ere eskatzen dituena. Edonorentzat balio badu, honek arrazoimena duen heinean, orduan bere oinarria objektiboki gogobetegarria da, eta usteak, hainbestez, *uste osoa* izena du. Bere oinarria subjektuaren antolaera berezian badu, orduan *limurtzea* deitzen zaio.

Limurtzea itxura soil da, zeren subjektuan baino ez datzan judizioaren oinarria objektiboa balitz bezala hartzen baitu. Horregatik, halako judizioak baliotasun pribatua baino ez du eta ustea ezin da komunikatu. Egia, ordea, objektuarekin adostasunean funtsatzen da, eta ondorioz, adimen guztiek objektuaz egiten duten judizioek bat etorri behar dute («consentientia uni tertio, consentiunt inter se»). Ustea uste osoa edo limurtze soil dela zehazteko frogarria kanpotik dator, eta bera komunikatzeko eta gizaki ororen arrazoimenarentzat baliogarria aurkitzeko ahalgarritasuna da; izan ere, hainbestez, judizio ororen bat etortzearen arrazoia, subjektuen elkarren ezberdintasuna alde batera utziz, oinarri komunean, hots, objektuan funtsatzen dela, eta beraz, denak objektuarekin bat etortzen direla, eta horren bitartez, judizioaren egia frogatzen dutela susma daiteke bederen.

Uste osoa, beraz, ezin da limurtzetik ezberdindu subjektiboki, baldin eta subjektuak ustea begi-bistan badu, bere gogamen propioaren agerpena baino ez den aldetik; baliogarriak diren gure oinarriekin beste adimenean egiten den saialdi hau, alegia, ea berak arrazoimen arrotzean guregan duen eragin berbera duen, ez uste osoa eragiteko, baizik judizioaren baliotasun pribatu soil aurkitzeko, h. d., bertan limurtze soil dena aurkitzeko baliabidea da.

Horrez gain, judizioaren *kausa* subjektiboak gara baditzakegu, bere *oinarri* objektibotzat hartzen ditugunak, eta beraz, uste iruzurtia gure gogameneko jazoera gisa argitzen badugu, horretarako objektuaren antolaera beharrezkoa izan gabe, orduan itxura nabarmenduko genuke eta horren bitartez ez gara gehiago iruzurtuak izango, nahiz eta beti ere maila jakin batean tentatuak izango garen, baldin eta itxuraren kausa subjektiboa gure izaerari atxikitzen bazaio.

Uste osoa eragiten duena soilik *baiezta* dezaket, h. d., edonorentzat halaberrez balio duen judizio gisa adieraz dezaket. Limurtzea niretzat gorde dezaket, bertan ondo sentitzen banaiz, baina nigandik at ezin dut baliogarria bihurtu nahi izan, eta ez dut baliogarria bihurtu behar ere.

Usteak edo judizioaren baliotasun subjektiboak hiru maila hauek ditu uste osoari dagokionez (zeinak aldi berean objektiboki balio duen): *iriztea*, *sinestea* eta *jakitea*. *Iritztea* subjektiboki *zein* objektiboki askieza izateko kontzientzia duen ustea da. Azken honek *sinestea* izena du, subjektiboki gogobetegarria bada eta aldi berean objektiboki askieza gisa hartzen bada. Azkenik, subjektiboki zein objektiboki gogobetegarria den ustea *jakitea* da. Onargarritasun subjektiboak *uste osoa* izena du (niretzat), objektiboak *ziurtasuna* (edonorentzat). Ez nahiz luzatuko hain adigai ulerterrazen azalpenean.

Ezin naiz inoiz ausartu *iritzia ematera*, zerbait bederen *jakin* ezean, zeinaren bitartez bere baitan problematikoa baino ez den judizioak egiarekin elkarlotura lortzen duen, hots, elkarlotura osoa ez den arren, hautazko asmaketa baino gehiago den elkarlotura. Halako elkarloturaren legeak, beraz, ziurra izan behar du. Izan ere, nik beraz iritzia soilik badut, orduan dena ez da irudimenaren jolasa baino, egiarekin batere harremanik ez duen jolasa. Arrazoimen hutsaren juzgatzean ez dago inolaz ere

baimendua *iriztea*. Izan ere, esperientziaren oinarrietan eusten ez direnez, baizik dena a priori ezagutua izan behar denez, dena beharrezkoa delarik, orduan elkarloturaren printzipioak orokortasuna eta beharrezkotasuna eskatzen ditu, eta beraz, ziurtasun osoa, eta bestela ez genuke egiarako gidarik aurkituko. Horregatik, burugabea da Matematika hutsean iritziak izatea; jakin egin behar da, edo bestela juzgatze orori utzi egin behar zaio. Berdin gertatzen da etikotasunaren oinarri-esakuneeekin, bertan ez baitzait sori ekintza bat egitera ausartzea zerbait *baimendua* dela dioen iritzia dudalako, baizik baimendua dela jakin egin behar da.

Arrazoimenaren erabilera transzendentalean, aitzitik, iritzia izatea gutxiegi da, noski, baina jakitea gehiegi. Asmoa espekulatiboa baino ez denean, beraz, hemen ezin dugu juzgatu; ustearen oinarri subjektiboek, sinestea eragin dezaketenean bezala, galdekizun espekulatiboetan ez dute onarpenik merezi, zeren laguntza enpiriko orotatik aske ezin baitaitezke atxiki, ezta neurri berdinean besteei komunikatu ere.

Hala ere, eskuarki, *harreman praktikoan* baino ez bada, uste teoretiko askiezari sinestea dei dakioko. Asmo praktiko hau edo *trebetasunarena* edo *etikotasunarena* da, lehena, ausazko eta beharbadako helburuetarako, bigarrena, berriz, behar-beharrezkoetarako.

Helburu bat jarritz gero, orduan bere lorpenaren baldintzak hipotetikoki beharrezkoak dira. Beharrezkotasun hau subjektiboa da, baina alderaketaz besterik ez da gogobetegarria, baldin eta helburua lortu ahal izateko beste baldintzarik ez badakit; baina bera erabat eta edonorentzat gogobetegarria da, baldin eta ziur badakit inork jarritako helburura bideratzen duen beste baldintzarik jakin ezin duela. Lehen kasuan, nire auresuposizio eta baldintza jakinen ustea beharbadako sinesmena besterik ez da, bigarren kasuan, orde, beharrezko sinesmena. Medikuek batek arriskuan dagoen gaisoa tratatu behar du, baina gaisotasuna ez du ezagutzen. Agerpenak begiratzen ditu, eta hobeagorik ezagutzen ez duenez, tisia dela juzgatzen du. Bere sinesmena bere judizio propioan beharbadakoa besterik ez da, agian beste batek hobeto asmatuko luke. Honelakoei beharbadako sinesmenak deitzen diet, baina ekintza jakinetarako baliabideen benetako erabilera oinarrian dutenei *sinesmen pragmatikoak*.

Ea zerbait limurtze soilaren edo gutxienez uste oso subjektiboa den, h. d., norbaitek baieztatzen duena sinesmen irmoa den zehazteko frogarria *apostua* da. Sarri, norbaitek bere esakuneei egoskortasun seguru eta bihurtzearekin esaten ditu, itxuraz errakuntzaren ardura oro baztertuz. Apostu batek harritzen du. Batzuetan gertatzen da dukatu baten balioan estima daitekeen limurtze askiaren jabe dela, baina ez hamar dukatu balio duenarena. Izan ere, lehenengora ausartzen da oraindik, baina hamar dukatuen kasuan ohartzen du lehendabizi aurretik ohartu ez zuena, hots, agian erra zezakeela. Pentsamenduan errepresentatzen bada horren gainean gure bizitza osoaren zorianaz apostu egin beharko genukeela, orduan gure judizio garailea desagertzen da, erabat nerabeak bihurtzen gara eta, horrela, lehen-lehenik aurkitzen dugu gure sinesmena ez dela hain urrun iristen. Horrela, sinesmen pragmatikoak kolokan dagoen interesaren ezberdintasunaren arabera handia edo txikia izan daitekeen maila baino ez du.

Objektu bati dagokionez ezer egin ezin dugun arren, eta beraz, ustea teoretikoa baino ez den arren, dena dela, kasu askotan zerbait pentsamenduan sortzen dugunez eta irudika dezakegunez, honentzat oinarri nahikoa izatea uste izan genezakeen bere ziurtasuna osatzeko baliabide bat balego, eta horrela judizio teoretikoan *praktikoaren analogoa* den zerbait dago, eta bere usteari *sineste* hitza dagokio, eta guk *sineste doktrinala* dei diezaiokegu. Esperientziaren baten bitartez erabakitzea ahalgarria balitz, orduan nire den guztia jokatu nuke dakusagun planetaren batean bederen biztanleak baitetz egon. Horregatik diot, iritzia ez ezik, sinesmen indartsua ere badela (bere zuzentasunaren alde bizitzaren erosotasun asko jarriko nituzke arriskuan) beste munduetako biztanleak daudela baieztatzea.

Hortaz, Jainkoaren izatearen irakaspena sinesmen doktrinalari dagokiola aitortu behar dugu. Izan ere, munduaren ezagutza teoretikoari dagokionez pentsamendu hori munduko agerpenen nire argiketen baldintza gisa halabeharrez auresuposatzen duen ezer ere ez *badut eskumenean*, baizik, aitzitik, behartua banago nire arrazoimena dena izadia balitz bezala erabiltzera, orduan batasun helburuduna arrazoimena izadiari aplikatzeko hain baldintza handia da, ezen nik ezin baitut sahistu, esperientziak gainera horren adibide anizkunak eskaintzen baitizkit. Baina batasun hori izadiaren ikerketaren nire gidaria bihurtuko lukeen bere beste baldintzarik ez dut ezagutzen, nik inteligentzia goren batek dena helburu jakintsuenen arabera horrela ordenatu duela auresuposatzea izan ezik. Ondorioz, beharbadakoa baina garrantzigea ez den asmo baten baldintza da, hots, munduaren sortzaile jakintsua auresuposatzea izadiaren ikerkuntzan gida bat izatearren. Nire saialdien emaitzek ere sarri baieztatzen dute auresuposizio honen erabilgarritasuna, eta ezer ezin da era erabakigarrian bere aurka aipatu, eta nik gutxiegi diot nire usteari iriztea deitu nahi diodanean, aitzitik, hartueman teoretiko hauetan ere nik irmoki Jainkoan

sinesten dudala esan daiteke; baina, hainbestez, sineste hori esanahi hertsian ez da, hala ere, praktikoa, baizik sineste doktrinala deitu behar zaio, izadiaren *Teologiak* (Teologia fisikoak) halabeharrez beti sortu behar duena. Jakintza berari begira, giza izaeraren zuzkidura bikaina eta berari hain gaizki egokitzen zaion bizitzaren laburtasuna hor ditugunez, giza arimaren geroko bizitzaren sineste doktrinalaren aldeko oinarri gogobetegarria aurki daiteke.

Sinestearen adierazpena halako kasuetan apaltasunarena da zentzu *objektiboan*, baina aldi berean konfiantzaren finkotasunarena da zentzu *subjektiboan*. Nik, hemen, uste teoretiko soilari hipotesia deitu nahiko banio, bera onartzea sori litzaidakeelarik, orduan horren bitartez benetan erakutsi dezakedana baino munduaren kausaren eta beste munduaren antolaeraren adigai hobeagoa dudala hitz emango nuke; izan ere, nik hipotesi gisa baino onartzen ez dudana zerbaitez *bere adigaia ez ezik, bere izatea* asmatu ahal izateko adina bederen ezagutu behar dut bere berekitasunez. «Sineste» hitzak, ordea, ideia batek ematen didan gidarekin eta nire arrazoimenaren ekintzen sustapenaren gaineko eragin subjektiborekin soilik du zerikusia, bertara irmo eusten nauen eraginarekin, alegia, nahiz eta honetaz kontu emateko gai ez naizen zentzu espekulatiboan.

Hala ere, sineste doktrinala baino ez denak zerbait zalantzarria du bere baitan; espekulazioan aurkitzen diren zailtasunak direla eta, sarri sineste hura galdu egiten da, nahiz beti ezinbestean bertara itzultzen garen.

Erabat bestela gertatzen da *sinesmen moralarekin*. Izan ere, hor behar-beharrezkoa da zerbait gertatu behar izatea, hots, nik lege etikoa puntu guztietan betetzea. Helburua hemen itzuriezinki finkatua dago eta nire ikuskera ororen arabera helburu honek beste helburu guztiekin osotara adosteko baldintza bakarra egon daiteke, eta horren bitartez, baliotasun praktikoa du, hots, Jainkoa eta geroko mundua badaudela; erabat ziur dakit era berean, inork ez duela ezagutzen lege moralen menpean dauden helburuen batasun berberara gidatzen duen beste baldintzarik. Baina, aldi berean, arau etikoa nire maxima denez gero (arrazoimenak agintzen duenez hala izan behar duela), orduan ezinbestean Jainkoaren izatean eta geroko bizitzan sinestuko dut eta seguru nago sineste hau ezerk ez duela zalantzan jarriko, zeren horren bitartez nire oinarri-esakune etikoak deuseztatuak izango bailirateke, zeinak ezin ditudan ukatu neure begientzat gorrotagarri bihurtu gabe.

Honela, esperientzia ororen mugaz goiti igeri dagoen arrazoimenaren asmo leihatsu oro hustu ondoren oraindik aski geratzen zaigu alde praktikoa horretaz kontent izateko arrazoa izateko. Noski, inor ezin da harrotu Jainkoa eta geroko bizitza dagoela *jakiteaz*; izan ere, hau baldin badaki, bera da aspaldidanik bilatzen nuen gizona. Jakintza oro komunika daiteke (arrazoimenaren objektua ukitzen badu behintzat) eta bere irakaspenaren bitartez nire jakintza hain maila miresgarrian hedatua ikustea itxaron ahal izango nuke. Ez, uste osoa ez da ziurtasun *logikoa, morala* baizik, eta oinarri subjektiboetan funtsatzen denez gero (intentzio morala), orduan ez du esan behar: moralki ziurra da Jainkoa badela, eta abar, baizik ni moralki ziur *nago*, eta abar. Hau da: Jainko batean eta beste mundu batean sinesmena nire intentzio moralarekin hain ehundua dago, ezen, lehena galtzeko arrisku gutxi dudanez, arriskuak bezain gutxi arduratzen bainau bigarrena inoiz kenduko ote didaten.

Hemen aurkitzen den ezbai bakarra arrazoimenaren sinesmen hau intentzio moraletan oinarritzea da. Hauek utzi eta lege etikoez osorik axolagabe litzatekeena hartuko bagenu, orduan arrazoimenak egiten duen galdekizuna espekulazioarentzako zeregina baino ez litzateke, eta hainbestez, analogiatik abiatutako oinarri indartsuekin susta genezake, baina ez zalantza-irrika egoskorrena itzaliko luketen oinarriekin¹⁴⁶. Hala ere, galdekizun hauei dagokienez ezin gizaki ez dago interes orotatik aske. Izan ere, intentzio onen gabeziagatik Moraletik banandua egongo balitz, kasu honetan ere aski geratzen da hura jainkotiar izateaz eta etorkizunaz *beldurtzea* lortzeko. Izan ere, horretarako ez da zera baino eskatzen: berak gutxienez ezin *ziurtasun* ez aipatzea halako zerizanik eta geroko bizitza halakorik *ez* izateaz, eta hori arrazoimen soilaren bitartez egitea; eta beraz, apodiktikoki frogatu beharko lukeenez gero, orduan bien ezintasuna frogatu beharko luke, baina ezin gizaki ez da engaiatuko ziurki hau egitera. Hau sinesmen negatiboa litzateke, moralatasuna eta intentzio ona sortu gabe ere hauen analogoa sortzen duena, hots, intentzio gaiztoen sorrera boteretsua saihestu dezakeen sinesmena.

Hau ahal da, esango da, arrazoimen hutsak lortzen duen guztia, berak esperientziaren mugez goitiko ikuspegiak ahalbidetzen dituen heinean? Bi sinesmen-artikulu besterik ez? Adimen arruntak ere hau adina lor zezakeen horri buruz filosofoengan aholkua bilatu gabe!

Hemen ez dut nahi Filosofiak giza arrazoimenari dagokionez bere kritikaren ahalegin nekagarriaren bitartez lortzen duen merezimendua goretsi, emaitza negatiboa baino ez dela gertatzen suposatzen badugu gainera; izan ere, honetaz hurrengo atalean oraindik zerbait azalduko da. Hala ere, zer eskatzen duzue, gizaki orori interesatzen zaion ezagutza batek adimen arrunta gainditzea eta zuek soilik, filosofoek, hura aurkitu behar izatea? Zuek kritikatzin duzuen hau da orain arteko baieztapenen zuzentasunaren egiaztapen onena, hasieran aurrez ikusi ezin zitekeena azaltzen duenez, hots, izadiari ezin zaiola aurpegiatu

bere dohaien banaketa alderdikoia egitea gizakiei salbuespenik gabe interesatzen zaionari begira, eta Filosofia gorenak giza izaeraren funtsezko helburuei dagokienez ezin du honek adimen arruntenari ere eman dion gidak baino urrunago iritsi.

Metodoaren irakaspen transzendentalaren

Hirugarren atalburua

Arrazoimen hutsaren arkitektonika

Arkitektonikaz sistemen antzea ulertzen dut. Batasun sistematikoa ezagutza arrunta lehen-lehenik zientzia bihurtzen duena, h. d., ezagutza arrunta bere agregatu soil batetik abiatuta sistema bat bihurtzen duena denez gero, orduan arkitektonika oro har gure ezagutzaren alde zientifikoaren irakaspenera da, eta beraz, halaberharrez metodoaren irakaspenari dagokio.

Arrazoimenaren menpean dauden gure oro harrezko ezagutzek ezin dute rapsodia bat osatu, sistema bat baizik, non haiek beren funtsezko helburuak babestu eta bultza ditzaketen. Sistemaz, ordea, ideia baten menpeko ezagutza anizkunen batasuna ulertzen dut. Hau osoki baten formaren arrazoimen-adigaia da, honen bitartez anizkunkiaren hedapena eta zatien elkarrenganako kokapena a priori determinatzen den heinean. Arrazoimen-adigai zientifikoak, beraz, helburua eta berekin bat datorren osokiaren forma barnebiltzen ditu. Helburuaren batasunari lotzen zaizkio zati guztiak, baita zatiak elkarren artean ere helburuaren ideian, eta helburuaren batasun honek eragiten du zati bakoitzaren falta sentitu ahal izatea gainerakoen ezagutzan, eta ezein beharbadako gaineraketarik edo a priori determinatuta dauden mugak ez dituen betegintzarrearen handitasun indeterminaturik ez sortzea. Osokia, beraz, artikulatua dago (*articulatio*) eta ez pilatua (*coacervatio*); barnetik (*per intus suspicionem*) haz daiteke, baina ez kanpotik (*per appositionem*), abere-gorputz bat hazten den modu berean, zeinaren hazkuntzak ez duen osakiderik gaineratzen, baizik eta osakide bakoitza proportzioaren aldaketarik gabe bere helburuari dagokionez indartsuagoa eta egokiagoa bihurtzen duen.

Ideiak *eskema* bat behar du egikaritzeko, h. d., helburuaren printzipioak determinatu duen zatien funtsezko anizkuntasuna eta ordena. Ez ideia baten arabera, h. d., arrazoimenaren helburu nagusietatik abiatuta, baizik enpirikoki ausaz eskaintzen diren asmoen arabera (hauen kopurua aurretik ezin da jakin) zirrimarrazten den eskemak batasun *teknikoa* eskuratzen du; aitzitik, ideia baten ondorio gisa baino sortzen ez denak (hemen arrazoimenak helburuak a priori ematen dituela, ez enpirikoki itxaron) batasun *arkitektonikoa* oinarritzen du. Zientzia deitzen dioguna ez da sortzen teknikoki, anizkunkiaren antzekotasunagatik edo ezagutzaz in concreto hautazko era guztietako kanpoko helburuetarako egiten den beharbadako erabileragatik, baizik arkitektonikoki, kidetasunagatik eta osokia lehen-lehenik ahalbidetzen duen barneko helburu goren bakarraren eratorpenagatik, eta zientziaren eskemak osokiaren zirrimarra (monograma) eta osakideen sailkaketa barnebildu behar ditu ideien arabera, h. d., a priori, eta osoki hau beste guztietatik seguru eta printzipioen arabera bereiztu behar du.

Inork ez du saiatzen zientzia baten sorketa ideia bat ezarri gabe oinarrian. Hala ere, bere landualdian eskema, baita hasieran ematen den zientzia honen definizioa ere, oso gutxitan egokitzen zaizkio ideiare; izan ere, hau arrazoimenean datza erro baten gisara, bertan zati guztiak ezkutatuta dautzala oraindik ernamunak bezala eta behaketa mikroskopikoarentzat apenas ezagugarriak bezala. Horregatik, zientziak, guztiak interes orokor jakin baten ikuspegitik pentsatuak direnez, ez dira argitu eta determinatu behar beren sortzaileak ematen duen deskripzioaren arabera, baizik berak bildu dituen zatien berezko batasunetik abiatuta arrazoimenean bertan oinarrituta aurkitzen den ideien arabera. Izan ere, orduan aurkituko da bere sortzailea, baita sarri bere jarraitzaile urrunenak ere, argitu ezin duten ideia baten inguruan dabiltzala, eta horregatik, hauek zientziaren eduki berezia, artikulazioa (batasun sistematikoa) eta zientziaren mugak ezin izan dituztela determinatu.

Penagarria da, guran ezkutatua datzan ideien gomendioaren arabera berari lotzen zaizkion ezagutza asko denbora luzez rapsodikoki eraikin materialak bezala bildu eta teknikoki elkartu ondoren soilik gertatzea ahalgarria lehen-lehenik ideia argi gardenagoan begiratzea eta osoki bat arrazoimenaren helburuaren arabera arkitektonikoki zirrimarraztea. Sistemek harren moduan eratuak daudela dirudite, hasieran akasduak, denborarekin osatuak, generatio aequivoca baten indarrez bildutako adigaien uztardura soiletik abiatuta, nahiz denek osotara beren eskema jatorrizko erro gisa garatzen ari den arrazoimenean izan zuten, eta horregatik, bakoitza berez ideia baten arabera artikulatua egoteaz gain denak elkarrekin giza ezagutzaren sistema

batean berriro osoki baten osakide gisa modu helburudunean bateratuak daude eta giza jakintzaren arkitektonika bat baimentzen dute, gaur egun ahalgarria ez ezik, zaila ere ez izango ez litzatekeen arkitektonika, dagoeneko hainbeste ekai bildu denez edo eraikin zahar erorien arrastoetatik har daitekeenez gero. Hemen gure zereginaren osaketarekin askiesten gara, hots, ezagutza ororen *arkitektonika arrazoimen hutsetik* abiatuta zirrimarraztearekin, eta gure indar ezagutzailearen erro orokorra zatitzen den eta bi enbor botatzen dituen puntutik hasten gara, hauetako bat *arrazoimena* izaki. Hemen, ordea, arrazoimenaz ezagumen goren osoa ulertzen dut eta arrazionala dena enpirikoa denari kontrajartzen diot.

Ezagutzaren eduki oroz abstraitzen badut, objektiboki kontsideratzen den aldetik, orduan ezagutza oro, subjektiboki, historikoa edo arrazionala da. Ezagutza historikoa *cognitio ex datis* da, arrazionala *cognitio ex principiis*. Ezagutza bat jatorriz emana izan daiteke, edonondik izanda ere, baina bere jabearengan historikoa da, baldin eta berak kanpotik ematen zaion mailan soilik ezagutzen badu, dela esperientzia zuzenaren edo kontaketa bitartez, dela (ezagutza orokorren) irakaspenaren bitartez. Horregatik, Filosofiaren sistema bat, adibidez, *wolffiar* sistema benetan *ikasi* duenak, oinarri-esakune, argiketa eta froga denak irakaspen-eraikin osoaren sailkaketarekin batera buruan dituen eta dena behatzekin zenbatu ahal izan duen arren, ez du wolffiar Filosofiaren ezagutza *historiko* osoa besterik lortzen; eman zaion adina daki eta juzgatzen du. Definizio bat eztabaidatzen bazaio, ez daki nondik atera behar duen beste bat. Arrazoimen arrotzaren arabera eratua dago, baina ahalmen imitatzailea ez da sortzailea, h. d., ezagutza ez zen sortu bertan arrazoimenetik, eta objektiboa izan arren, hala ere, arrazoimen-ezagutza bazen ere, dena dela, subjektiboa zen, historikoa besterik ez. Ongi ulertu eta gorde du, h. d., ikasi du, eta gizaki bizidun baten argizarizko kopia da. Objektiboak diren arrazoimen-ezagutzek (h. d., hasiera batean gizakiaren arrazoimen propiotik soilik sor daitezkeenek) subjektiboki baino ezin dezakete jaso izen hori, baldin eta arrazoimenaren iturri orokorretatik sortzen badira, h. d., printzipioetatik, era berean kritika eta ikasitakoaren bazterketaren iturriak izan daitezkeen printzipioetatik.

Arrazoimenaren ezagutza oro adigaietatik edo adigaien eraikuntzatik abiatzen da; lehenak filosofikoa izena du, bigarrenak matematikoa. Bien barneko bereizketaz aritu naiz jadanik lehen atalburuan. Ezagutza bat, beraz, objektiboki filosofikoa izan daiteke eta historikoki, hala ere, subjektiboa, hasberri gehienetan eta inoiz eskolatik at begiratzen ez duten eta bizitza osoa hasberri irauten dutenengan gertatzen den legez. Beraz, harrigarria da ezagutza matematikoak, ikasia izan den moduan, baita subjektiboki ere arrazoimen-ezagutzatzat balio ahal izatea eta bertan ezagutza filosofikoan gertatzen den moduko bereizketa ez gertatzea. Zergatia hau da: maisuak zerbait sortu ahal izateko dituen ezagutzaren iturri bakarrak arrazoimenaren funtsezko eta egiazko printzipioetan baino ez dautzala, eta beraz, hasberriak beste inondik ezin dituela hartu, ezta eztabaidatu ere, eta hau honegatik gertatzen da, alegia, hemen arrazoimenaren erabilera in concreto gertatzen delako, a priori izan arren, hots, begiespen hutsean, eta horregatik, akatsik gabekoan, eta iruzur eta errore guztiak baztertzen dituelako. Beraz, arrazoimenaren zientzia guztien artean (a priori) Matematika baino ezin daiteke ikasi, inoiz ez, ordea, Filosofia (historikoki ez bada), baizik arrazoimenari dagokionez gehienez ere *filosofatzen* besterik ezin da ikasi.

Ezagutza filosofiko ororen sistema *Filosofia* da. Objektiboki hartu behar da, baldin eta horretaz filosofatzeko saialdi ororen juzgaketaren jatorrizko irudia ulertzen bada, zeinak edozein Filosofia subjektibo juzgatzeko lagundu behar duen, bere eraikina maiz hain anizkuna eta aldakorra izaki. Honela, Filosofia zientzia ahalgarri baten ideia soil da, inon in concreto ematen ez dena, zeinari, ordea, bide ezberdinen bitartez hurbiltzea saiatzen den, harik eta sentimenak ezkutatutako oinezkoen zaldain bakarra aurkitu arte eta ordu arteko kopia akasduna jatorrizko irudiari berdintzea lortu arte, gizakiei ahalgarria zaien heinean. Ordu arte ezin da ezein Filosofiarik ikasi; izan ere, non dago, nor da bere jabea eta non ezagutzen da? Filosofatzen baino ezin daiteke ikasi, h. d., arrazoimenak bere printzipio orokorrak betetzeko duen talentua aurrean ditugun saialdi jakinetan praktikatzan, beti ere arrazoimenak haiek beren iturrietan aztertzeke eta egiaztatzeke edo ukatzeko duen eskubidea gordez.

Ordu arte, ordea, Filosofiaren adigaia *eskolako adigaia* baino ez da, hots, ezagutzaren sistema baten adigaia, zientzia den heinean baino bilatzen ez dena, helburu gisa jakintza honen batasun sistematikoa, eta beraz, ezagutzaren betegintzarre *logikoa* baino zerbait gehiago izan gabe. Hala ere, gainera *mundu-adigai* bat ere badago (*conceptus cosmicus*), zeina beti deitura horren oinarrian ezarri den, bereziki, nolabait esateko, bera pertsonifikatzen zenean eta *filosofoaren* idealean jatorrizko irudi gisa errepresentatzen zenean. Zentzu honetan Filosofia ezagutza orok giza arrazoimenaren funtsezko helburuekin duen harremanen zientzia da (*teleologia rationis humanae*) eta filosofoa ez da arrazoimenaren artista, baizik giza arrazoimenaren lege-emailea. Harrokeria handia litzateke norbere buruari «filosofo» izena ematea, izena halako adieran hartuz gero, eta ideian besterik ez datzan jatorrizko irudiari berdindu nahi izatea.

Matematikaria, naturalista, logikaria, arrazoimenaren artistak besterik ez dira, lehenak oro har arrazoimen-ezagutza hain bikainak dituen arren eta bigarrenak bereziki ezagutza filosofikoetan aurrera egin duen arren. Idealean maisu bat ere badago,

hauek denak batu eta tresna gisa erabiltzen dituen, giza arrazoimenaren funtsezko helburuak sustatzearen. Maisu honi soilik deitu beharko genioke filosofoa; bera inon ez egon arren, bere lege-ematearen ideia beti edozein giza arrazoimenean aurkitzen da, eta horrela, azkenengoari atxiki nahi gataizkio eta zehazkiago determinatu nahi dugu Filosofiak helburuen ikuspuntutik zein batasun sistematiko ezartzen duen mundu-adigai honen arabera¹⁴⁷.

Funtsezko helburuak ez dira horregatik jadanik gorenak, goren hauekiko bat bakarra izan daiteke (arrazoimenaren batasun sistematiko beteginean). Horregatik, haiek azken helburua dira edo honi baliabide gisa halabeharrez egokitzen zaizkion menpeko helburuak dira. Lehen ez da gizakiaren determinazio osoa baino, eta Morala da berari buruzko Filosofia. Filosofia moralak arrazoimenaren beste bereganatze ororen aldean duen abantaila honegatik pentsatzen zen antzinakoen artean beti bereziki moralistan «filosofo» izena erabiltzean, eta arrazoimenaren bidez nork bere burua menperatzearen sortzen den kanpoko itxurak eragiten du norbait, bere jakintza zedarriztatua bada ere, analogia jakin baten arabera filosofo deitzea oraindik ere.

Giza arrazoimenaren lege-emateak (Filosofiak) bi objektu ditu, izadia eta askatasuna, eta beraz, izadiaren legea eta ohituren legea barnebiltzen ditu, hasieran bi sistema berezietan, azkenean, ordea, sistema filosofiko bakarrean. Izadiaren Filosofia *den* guztiaz arduratzen da; ohituren Filosofia *izan behar* duenaz besterik ez.

Beraz, Filosofia oro edo arrazoimen hutsetik abiatzen den ezagutza edo printzipio enpirikoetatik abiatzen den arrazoimen-ezagutza da. Lehenak, Filosofia hutsa izena du, bigarrenak, Filosofia enpirikoa.

Arrazoimen hutsaren Filosofia edo *propedeutika* da (ariketa), zeinak arrazoimenaren ahalmena aztertzen duen apriorizko ezagutza huts orori dagokionez, eta *kritika* izena du, edo bigarrenik, arrazoimen hutsaren sistema da (zientzia), hots, ezagutza filosofiko osoa (egiazkoa eta itxurazkoa) arrazoimen hutsetik abiatuta bilkura sistematikoan, eta *Metafisika* izena du; hala ere, izen hau Filosofia huts osoari ere eman diezaiokegu, kritika barnean hartuta, bai inoiz a priori ezagut daitekeen guztiaren azterketa biltzeko, baita honelako ezagutza filosofiko hutsaren sistema osatzen duen baina arrazoimenaren erabilera enpiriko eta matematiko orotatik ezberdintzen denaren aurkezpena biltzeko ere.

Metafisika arrazoimen hutsaren erabilera *espekulatiboaren* eta *praktikoaren* Metafisikan sailkatzen da, eta beraz, *izadiaren Metafisika* edo *ohituren Metafisika* da. Hark gauza ororen ezagutza teoretikoen adigai soiletik abiatzen den (eta beraz, Matematika baztertuz) arrazoimenaren printzipio huts denak barnebiltzen ditu; honek *ekitea* eta *ekiteari uztea* a priori determinatzen dituzten eta beharrezkoak bihurtzen dituzten printzipioak. Moralitasuna da osorik a priori printzipioetatik erator daitekeen ekintzen legetasun bakarra. Horregatik, ohituren Metafisika benetan Moral hutsa da, eta ezein Antropologia (ezein baldintza enpiriko) ezin daiteke hartu bere oinarritzat. Arrazoimen espekulatiboaren Metafisika *adiera hertsian* Metafisika deitu ohi zaiona da; baina ohituren irakaspen hutsa, dena dela, arrazoimen hutsetik abiatzen den giza ezagutza filosofikoaren enbor bereziari dagokion heinean, berarentzat gordeko dugu deitura hori, nahiz eta hemen alde batera uzten dugun, *uneko* gure helburuari ez dagokiolako.

Garrantzi handieneko kontua da beren generoa eta jatorriaren arabera besteetatik ezberdintzen diren ezagutzak *bakartzea*, eta arretaz saihestea eskuarki erabileran lotzen zaizkien besteekin nahaste batean utzar daitezela. Kimikariek materien banaketan, matematikariek handitasunen irakaspen hutsean egiten dutena, are gehiago egin behar du filosofoak, honela ezagutzaren era berezi batek adimenaren erabilera kulunkarian duen parte hartzea, bere balio propioa eta eragina seguru determinatu ahal izateko. Horregatik, giza arrazoimenak pentsatu edo, are gehiago, gogoetatzen hasi zenetik ezin izan du inoiz Metafisika bat izatea ekidin, ezta arrotza zaion guztitik araztua aurkeztu ere. Halako zientziaren ideia giza arrazoimen espekulatiboa bezain zaharra da; eta zein arrazoimenek ez du espekulatzen, era eskolastikoan edo herrikoian gertatzen dela ere? Hala ere, gure ezagutzaren bi osagaien bereizkuntza, bata osorik a priori gure eskumendean dagoela, bestea a posteriori baino ezin daitekeela hartu esperientziatik, ofiziozko pentsalarientzat ere oso iluna gertatu zela aitortu behar da, eta horregatik, inoiz ezin izan zela ezagutza era berezi baten muga-determinazioa, eta hainbestez, giza arrazoimenari hain denbora luzez eta hainbeste lan eman dion zientzia baten egiazko ideia sortu. Metafisika giza ezagutzaren lehen printzipioen zientzia dela esango balitz, orduan ez da ezagutza-era oso berezi bat azpimarratzen, baizik orokortasunari dagokion maila besterik ez, eta horren bitartez, beraz, bera ezin zen argiki ezagutzeko moduan bereiztu enpirikoa denetik; izan ere, printzipio enpirikoen artean badaude besteak baino orokorragoak, eta horregatik, garaia goak diren batzuk, eta halako menperaketaren ilaran (osorik a priori dena a posteriori baino ezagutu ezin daitekeenetik bereizten ez denez) non egin beharko da *lehen* zatia eta osakide goren *azkenengotik* eta menpekotik bereizten duen ebaketa? Zer esango litzateke honetaz, kronologiak munduaren garaia lehen mendeetan eta ondorengo mendeetan banatuz soilik ezaugarritu balitu? Bosgarrena, hamargarrena, eta abar lehenengoetakoak ote diren galdetuko litzateke; berdin galdetzen dut nik: hedaduraren adigaia Metafisikari al dagokio? Baietz! erantzuten duzue; eta

gorputzarena ere bai? Bai! Eta gorputz jariakorrarena? Orain harritzen zarete, izan ere, horrela jarraitzen baldin bada, orduan dena baitagokio Metafisikari. Hemendik ikusten da menperaketaren maila soilak (berezia dena orokorra denaren menpean) zientzia baten ezein muga ezin duela determinatu, baizik gure kasuan jatorriaren homogeneousotasun eza eta ezberdintasuna. Hala ere, Metafisikaren oinarritzko ideia beste alde batetik ilundu duena, apriorizko ezagutza den aldetik, Matematikarekin homogeneousotasun jakin bat erakusten duela izan da; honek apriorizko jatorriari dagokionez biak adiskidetzen dituen arren, bestalde ezagutza filosofikoaren eta matematikoaren arteko bereizketa zehazten duenez, batean adigaietatiko ezaguera dena bestearen adigaien eraikuntzaren bitartez a priori juzgatzeko erarekin alderatuz, orduan homogeneousotasun eza erabakigarria azaltzen da, beti sentitzen dena, nolabait esateko, baina inoiz irizpide nabarietan bildu ezin zena. Filosofoek beren zientziaren ideien garapenean huts egin zuten, zientzia honen landualdiak ezin zuenez helburu determinaturik eta gidaritza segururik izan, eta filosofoak ezjakin zirenez erabat hautaz egindako egitasmoan urratu beharko luketen bideaz, eta nork bere aldetik egin ote lituzkeen aurkikuntzei buruz beti elkarrekin eztabaidan zeudenez, horrenbestez, beren zientziari mesprezua erakarri zioten, lehenik besteena eta azkenik beren mesprezua ere bai.

Apriorizko ezagutza huts orok batasun berezi bat osatzen du, beraz, bere egoitza den ezagumen bereziari esker, eta Metafisika ezagutza hura batasun sistematiko batean aurkeztu behar duen Filosofia da. Ondorengo eran sailkatzen da izen hau bereziki bereganatu duen bere zati espekulatiboa, hots, *izadiaren Metafisika* deitzen dioguna eta den guztia (ez izan behar duena) apriorizko adigaietatik abiatuta kontsideratzen duena.

Adiera hertsian Metafisika deitzen zaiona *Filosofia transzendentalaz* eta arrazoimen hutsaren *Fisiologiaz* osatzen da. Lehenak, *adimena* eta arrazoimena bera baino ez ditu kontsideratzen oro harrezko objektuei lotzen zaizkien adigai eta oinarri-esakune ororen sistema batean, *emanak liratekeen* objekturik onartu gabe (Ontologia); bigarrenak, izadia kontsideratzen du, h. d., *emanak* diren objektuen multzoa (sentsuei ematen zaizkiela, edo begiespenaren beste era bati), eta beraz, *Fisiologia* da (nahiz Fisiologia rationalis besterik ez izan). Hala ere, arrazoimenaren erabilera izadiaren kontsiderazio arrazional honetan fisikoa edo hiperfisikoa da edo, hobeto esanda, *imanentea* edo *transzendentea* da. Lehena izadi arduratzen da, bere ezagutza esperientzian (in concreto) aplikatu daitekeen heinean; bigarrena, esperientzia oro gainditzen duen esperientziaren objektuen elkarloturaz. Horregatik, Fisiologia *transzendente* honek *barneko* edo *kanpoko* elkarlotura dauka objektutzat, biek, ordea, esperientzia ahalgarria gainditzen dute; hura, izadi osoaren Fisiologia da, h. d., *munduaren ezagutza transzendental*, hau, berriz, izadi osoak izadiaren goitiko zerizan batekin duen bilkuraren Fisiologia, h. d., *Jainkoaren ezagutza transzendental*.

Fisiologia imanenteak, aitzitik, izadia sentsuen objektu ororen multzo gisa kontsideratzen du, eta beraz, bera guri ematen zaigun moduan, baina bera oro har soilik eman ahal duten apriorizko baldintzen arabera. Halere, bi objektu besterik ez ditu. 1. Kanpoko sentsuenak, eta beraz, beren multzoa, izadi *gorpuzduna*. 2. Barneko sentsuaren objektua, arima, eta oro har bere oinarri-esakuneen arabera, izadi *pentsatzailea*. Izadi gorpuzdunaren Metafisikak *Fisika* izena du, baina bere ezagutzaren printzipioak a priori baino barnebiltzen ez dituen, *Fisika arrazionala*. Izadi pentsatzailearen Metafisikak *Psikologia* izena du eta aipatutako arrazoiagatik hemen honetaz *ezagutza arrazionala* ulertzen da.

Ondorioz, Metafisikaren sistema osoa lau zati nagusiez osatzen da. 1. *Ontologia*. 2. *Fisiologia arrazionala*. 3. *Kosmologia arrazionala*. 4. *Teologia arrazionala*. Bigarren zatiak, hots, arrazoimen hutsaren izadiaren irakaspenak, bi sail barnebiltzen ditu, *physica rationalis*¹⁴⁸ eta *psychologia rationalis*.

Arrazoimen hutsaren Filosofia baten jatorritzko ideiak ezartzen du sailkaketa hau; beraz, *arkitektonikoa* da bere funtsezko helburuen arabera, eta ez *teknikoa* soilik, ausaz hautemandako kidetasun eta, nolabait esateko, zoriaren arabera, eta horregatik, aldagaitza eta legegilea da. Hemen, ordea, ezbaiak sortzen dituzten eta bere legetasunaren uste osoa ahul dezaketen puntu batzuk aurkitzen dira.

Lehenik, nola itxaron dezaket apriorizko ezagutza, eta beraz, Metafisika, gure sentsuei ematen zaizkien, eta beraz, a posteriori ematen diren objektuez? Eta nola ezagut daiteke gauzen izaera apriorizko printzipioen arabera eta irits daiteke Fisiologia *arrazionalera*? Erantzuna: esperientziatik ez dugu guri objektu bat *emateko* beharrezkoa dena baizik hartzen, alde, kanpoko sentsuen objektua, alde, barneko sentsuaren objektua dena. Hura, materiaren adigai soilaren bitartez gertatzen da (hedadura bizigabe eta sartuezina), hau, zerizan pentsatzaile baten adigaiaren bitartez (barneko errepresentazio empirikoan: «nik pentsatzen dut»). Gainerakoan, objektu hauetaz zerbait juzgatzearren adigaiari oraindik beste esperientziaren bat gaineratu nahiko lioken printzipio empiriko oro erabat ekidin behar dugu objektu hauen Metafisika osoan.

Bigarrenik: non geratu da *Psikologia empirikoa*, betidanik Metafisikan bere lekua baieztatu duena, eta zerbait a priori lortzeko itxaropena utzi ondoren gure garaian Metafisika argiztatzeko lanean hainbeste lagundu ahal zezakeena? Zera

erantzuten dut: benetako izadiaren irakaspenak (enpirikoa) duen lekua dagokio, hots, Filosofia *aplikatuaren* aldea, zeinaren printzipioak Filosofia hutsak barnebiltzen dituen, eta beraz, harekin lotua dago, baina ez da berekin nahastu behar. Beraz, Psikologia enpirikoa Metafisikatik osorik erbesteratu behar da, eta bere ideiaaren bitartez jadanik erabat baztertzen da. Hala ere, berari beti ere bertan lekutxo bat onartu beharko zaio eskolaren ohituraren arabera (nahiz behin behingoz besterik ez izan), eta gainera kausa ekonomikoengatik onartu beharko zaio, zeren ez baita oraindik berak bakarrik estudio bat osatzeko bezain aberatsa, nahiz eta bestalde bera osorik deuseztatzeko edo Metafisikarekin duena baino kidetasun gutxiago aurkituko lukeen beste nonbaiten atxikitzeko garrantzitsuegia den. Beraz, denbora baterako egona baino onartzen ez zaion arrotza da, harik eta Antropologia xehe batean (izadiaren irakaspen enpiriko baten parekoan) bere egoitza propioa lor dezakeen arte.

Hau da, beraz, Metafisikaren ideia orokorra. Hasieran bidezki eska liezaiokeena baino gehiago itxaroten zenez beretik eta denbora batez itxaropen atseginak dastatu dituenek, azkenean mesprezu orokorrean erori da, bere itxaropenean iruzurtua gertatu zelako. Gure kritikak egin duen bide guztia dela eta, honetaz aski konbentzitu izango ginateke: Metafisikak, Erljioaren oinarria izan ezin den arren, hala ere, bere defentsa-arma gisa iraun behar duela; jadanik bere izaeraren norabidearen indarrez dialektikoa den giza arrazoimenak bera balaztatzen duen halako zientzia bat inoiz ezin duela itzuri, eta zientifikoa eta osoki argigarria den norbere buruaren ezagutzaren bitartez arrazoimen espekulatibo legegabeak bestela Moralean eta Erljioan seguru egingo lituzkeen kalteak saihesten dituela. Beraz, honetaz seguru izan gaitezke: zientzia bat bere izaeraren arabera juzgatu beharrean bere beharbadako ondorioen arabera baino juzgatzen ez dakitenen axolagabekeria edo gutxiespena hainbestekoa izan arren, beti ere bertara itzuliko garela, maitalearengana itzultzen garen modu berean, berekin haserretxoa izan ondoren; zeren arrazoimenak, hemen funtsezko helburuekin zerikusia duenez, edo ikuskera zorrotzak lortzeko edo jadanik dauden ikuskera onen deuseztapena lortzeko lan egin behar baitu etengabe.

Guk egiazko adieran Filosofia dei diezaiokeguna Metafisikak osatzen du benetan, beraz, bai izadiarenak, baita ohiturarenak ere, eta bereziki bere hego propioekin ausartzen den arrazoimenaren kritikak, hots, *ariketa gisa* (propedeutikoki) aurretiaz doan kritikak. Honek dena jakinduriari lotzen dio, baina zientziaren bidearen bitartez, behin urratu ondoren inoiz ixten ez den eta desbideraketarik baimentzen ez duen bide bakarraren bitartez. Matematikak, Natur Zientziak, gizakien ezagutza enpiriko berak balio handia dute, gehienbat beharbadakoak diren baina azkenean beharrezkoak eta funtsezkoak gertatzen diren gizatasunaren helburuetarako baliabideak diren aldetik, baina, hainbestez, adigai soiletik abiatzen den arrazoimen-ezagutzaren arartekaritzaren bitartez besterik ez, nahi den moduan deitzen bazaio ere benetan Metafisika baino ez denaren bitartez.

Horregatik, Metafisika giza arrazoimenaren kultura ororen osaketa da, eta bera ezinbestekoa da, zientzia gisa helburu determinatu jakin batzuegan duen eragina alde batera utzi arren. Izan ere, arrazoimena kontsideratzen du zientzia batzuen *ahalgarritasuna* eta denen *erabileraren* oinarrian egon behar duten bere osagai eta maxima gorenaren arabera. Espekulazio soila den aldetik, ez dio kalterik egiten bere balioari errakuntzak saihesteko ezagutza hedatzeko baino gehiago balio izateak, baizik duintasuna eta autoritatea ematen dio zentsura-karguaren bitartez, zeinak ordena orokorra eta harmonia segurtatzen dituen, baita zerizan komun zientifikoaren ongizatea ere, eta bere landualdi ausarta eta emankorra zorion orokorraren helburu nagusitik urruntzea saihesten duen.

Metodoaren irakaspen transzendentalaren

Laugarren atalburua

Arrazoimen hutsaren historia

Izenburu hau sisteman geratzen den eta etorkizunean bete egin beharko den leku bat ezaugarritzeko dago hemen. Orain arte burututako lanaren osotasunari ikuspegi transzendentaletik, hots, arrazoimen hutsaren izaeratik abiatzen denetik laburki begi ematea besterik ez dut egin, eta osoki honek nire begiei eraikinak aurkeztu dizkio, baina eraikin hondatuak.

Oso ohargarria da Filosofiaren haurtzaroan, berezko eran bestela gertatu izan ezin zen arren, gure helmuga bihur dadila nahi dugun tokitik hasi zirela, hots, Jainkoaren eta itxaropenaren ezagutza estudiatzetik, baita beste munduaren antolaera estudiatzetik ere. Herrien egoera zakarrean zirauten usadio zaharrek sartu nahi izan zituzten Erljio-adigaiak hain traukilak baziren ere, honek ez zuen eragotzi ilustratuek objektu hauei buruzko ikerkuntza askea jorratzea, eta laster ikusi zen modu

errazean mundua eraentzen duen botere ikustezinari atsegina emateko modu sakon eta seguruena jokabide zuzena dela, horrela beste munduan bederen zoriontsu izateko. Horregatik, Teologia eta Morala izan ziren ondoren beti jorratu diren arrazoimenaren ikerketa eratorri ororen eragileak edo, hobeto, harreman-guneak. Lehen a izan zen benetan, ordea, espekulatiboa baino ez den arrazoimena pixkanaka ondoren Metafisika izenarekin hain sonatua bihurtuko zen zereginera bideratu zuena.

Ez dut nahi orain bereiztu Metafisikaren aldaketa hau edo bestea noiz gertatu ziren, baizik eta iraultza nagusienek sortu dituzten ideien ezberdintasuna aurkeztu nahi dut azaleko zirrimarra batean. Eta gatazkaren antzeztokian gertatutako aldaketa izendagarrienak hiru asmorekin egin direla aurkitzen dut.

1. Gure arrazoimen-ezagutza ororen *objektuari begira* filosofo batzuk *sentsualista* soilak izan dira, besteak, *filosofo intelektualista* soilak. Epikurori sentimenaren filosofo nagusia dei dakioke, Platoni, alderdi intelektualarena. Eskolen bereizketa hau, sotila izan arren, lehenengo garaietan hasi zen eta luzaro iraun du etenik gabe. Lehenengoez errealitatea sentsuen objektuetan baino ez zegoela baieztatzen zuten, gainerako guztia irudipena izaki; bigarrenek, aitzitik, zera zioten: «sentsuetan itxura besterik ez dago, adimenak baino ez du ezagutzen egia». Honek ez du esan nahi lehenengoez adimenaren adigai errealitatea ukatzen zietenik, baizik eta hura haientzat *logikoa* baino ez zela, besteentzat, ordea, *mistikoa*. Haiek *adigai intelektualak* onesten zituzten, baina *objektu* sentsibleak baino ez zituzten onartzen. Hauek benetako objektuak intelektualak besterik ez izatea eskatzen zuten, eta begiespena adimen hutsaren bidez baieztatzen zuten sentsuen laguntzarik gabe, hauek beren iritziz adimen hutsa nahastu baino ez baitzuten egiten.

2. Arrazoimen-ezagutza hutsen *jatorriari begira* kontua da ea hauek esperientziatik eratorri diren edo honetatik beregainki beren iturriak arrazoimenean dituzten. *Aristoteles* har daiteke *enpiristen* buru gisa, *Platon* noologistena. *Locke* garai berrietan lehenengoari jarraiki zaio, eta *Leibniz*, ordea, bigarrenari (nahiz bere sistema mistikotik aski urrunduta), baina gatazka honetan ez dira oraindik erabaki batera iritsi. *Epikurok* bederen bere sistema sentsualaren arabera *Aristotelesek* eta *Lockek* baino kontsekuentekiago jokatu zuen (bere inferentziek ez baitzuten inoiz esperientziaren muga gainditu), batez ere Lockeren aldean, adigai eta oinarri-esakune guztiak esperientziatik eratorri ondoren beren erabilerari dagokionez zera baieztatzen baitu: «Jainkoaren izatea eta arimaren hilezkortasuna Matematikako edozein teoremaren ebidentzia berberarekin froga daitezkeela» (nahiz eta bi objektuak guztiz esperientziaren mugetatik at dauden).

3. *Metodoari begira*. Zerbaitek metodoaren izena merezi izateko *oinarri-esakuneen* arabera jardunbidea izan behar du. Izadiaren ikerkuntzaren sail honetan orain gailentzen diren metodoak metodo *naturalistan* eta *zientifikoan* sailka ditzakegu. Arrazoimen hutsaren *naturalistak* ondorengo oinarri-esakunea hartzen du: «arrazoimen arruntaren bitartez (berak arrazoimen sendoa deitzen diona) zientziarik gabe gehiago lor daiteke espekulazioaren bitartez baino Metafisikaren eginkizuna osatzen duten galdekizun bikainenei dagokienez». Beraz, Ilargiaren handitasuna eta urruntasuna begiaren indarrez baliabide matematikoen bitartez baino hobeki determina dezakegula baieztatzen du. Hau oinarri-esakune bihurtutako misologia soil da, eta burugabekoena zera da: ezagutza hedatzeko baliabide artifizial guztiez duen axolagabezia *metodo propio* gisa goresten duela. Benetan naturalistei ezin zaie ezer leporatu, ikuskera hobeagoren *gabezia* dela eta. Beraiek arrazoimen arruntari jarraiki zaizkio, baina beren ezjakintasuna Demokritoren osin sakonetik egia ateratzeko sekretua barnebiltzen duen metodo gisa goretsi gabe. Persioren «*quod sapio, satis est mihi; non ergo curo, esse quod Arcesilas aerumnosique Solones*»¹⁴⁹ hartu dute ikurritz gisa, eta berekin gogara eta era txalogarrian bizi daitezke zientziaz arduratu gabe eta bere zereginean nahastu gabe.

Metodo *zientifikoaren* jarraitzaileei dagokienez, hauek metodo *dogmatikoaren* edo *eszeptikoaren* arteko aukera dute, nahiz eta edozein kasutan *sistematikoki* jokatzeko beharra duten. Lehenari begira, Wolff sonatua, bigarrenean, David Hume aipatzen baditut, orduan gainerakoak aipatugabe utz ditzaket nire oraingo asmoen arabera. Bide *kritikoak* baino ez dirau oraindik irekita. Irakurleak hura nirekin zeharribiltzeko adikortasuna eta egonarrria izan badu, orduan orain juzga dezake ea oinezkoen zaldain hau errege-bide bihurtzen lagundu nahiko lukeen, horrela mendea bukatu aurretik mende askotan oraindik erdietsi ez dena lortzeko, hots, giza arrazoimenari gogobete osoa ematea bere jakin-nahia beti nahiz eta orain arte alferrik piztu duten gauzei dagokienez¹⁵⁰.

Oharrak

¹ Arrazoimen hutsaren kritika

Immanuel Kant
Königsbergen irakaslea
Berlingo Zientzien Errege Akademiaren kidea
Bigarren argitaraldi hobetua
Riga, Johann Friedrich Hartknochengan
1787.

[Bigarren argitaraldiko lehen plama (hemendik aurrera bigarren argitaraldia B hizkiaz adieraziko da)(Itz. oh.)].

² Baco Verulamgoa

Instauratio magna. Aitzinsolasa.

«Geure buruaz mutu geratzen gara. Hemen lantzen den gaiaz, berriz, zera eskatzen dugu: gizakiek beharrezko zeregintzat har dezatela eta ez iritzi soiltzat; eta segurutzat jo dezatela sekta edo doktrinaren baten oinarritzapenik ez dugula sortzen, gizakien ongizatea eta duintasunarena baizik. Beraz, beren onerako, (...) ongi orokorraz pentsa dezatela (...) eta lan horretan parte har dezatela eskatzen diegu. Horrez gain, itxaropentsu izan daitezela eta gure berrikuntza hau ez dezatela errepresenta eta senti amaigabea den eta hilkorra denaren gainetik dagoen zerbait balitz bezala, zeren benetan errakuntza amaigabe baten

amaiera eta bidezko bukaera baita». [Baconen aipamen hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

³ Bere desira neurrituen barnean bizimodu espekulatiboa maite duenarentzat epaile ilustratu eta duin baten onespina bere ahaleginen suspergarri indartsua da, ahalegin hauen onura handia baina urruna baita, eta horregatik, begirada arruntek osoro ezezagutzen baitute. [Lehenengo argitaraldian (hemendik aurrera A hizkiaren bidez adieraziko denean) paragrafo berri hau dator jarraian (Itz. oh.)].

⁴ Halako epaile bati eta bere begiramendu ongileari eskaintzen diot, bada, idazki hau, eta nire literatura ekimenen beste alderdi guztiak bere babespean jartzen ditut. [Paragrafo honen A-ko aldaera da (Itz. oh.)].

⁵ Königsbergen, 1781eko martxoaren 29an. [A-ko aldaera (Itz. oh.)].

⁶ [A-ko aitzinsolasa da (Itz. oh.)].

⁷ «Orain arte, guztiaren gain handiena, hainbat suhi eta semeen artean nagusi; orain, erbestera baztertua, ene zoritxarrekoa». [Ovidio, *Metamorfo-sia*, XIII 508-510 (Itz. oh.)].

⁸ Noizean behin gure garaiko pentsamoldearen arinkeriarik eta zientzia zehatzaren hondamenari buruzko arrangurak entzuten dira. Nolanahi ere, nik ez dut ikusten oinarria ondo ezarria duten zientziek, hau da, Matematikak, izadiaren irakaspenak, eta abarren gisakoek, gaitzespen hori batere merezi dutenik, baizik, aitzitik, zehaztasunaren ospe zahar osoa egiaztatzen dutela eta azkenengoan hau gaingaitu ere egiten dela iruditzen zait. Espiritu bera beste ezagueretan ere eragingarria izango litzateke, lehen-lehenik beren printzipioen zuzenketaz arduratuko bagina. Zuzenketarik ez badago, axolagabekeria eta zalantza eta, azkenik, kritika zorrotza pentsamolde zehatz baten frogak dira batik bat. Gure garaia dena menperatu behar zaion *kritikaren* benetako garaia da. *Erlizjioa* bere *santutasunaren* bitartez eta *lege-ematea* bere *maiestatearen* bitartez kritika honetatik itzuri nahi dira eskuarki. Hau egitean, ordea, beren aurkako susmoa erakartzen dute bidezki eta ezin dute egiazko begirune bat lortzeko uzirik izan, hau arrazoimenak bere etsamina askea eta agerikoa gaingaitu ahal izan duenari soilik esleitzen baitio.

⁹ [Gure itzulpenean 128-129 orriak (Itz. oh.)].

¹⁰ «Zure kontuez ardura zaitez, eta zure baliabideen urritasunaz ohartuko zara» [Persio, Sat. IV, 52 (Itz. oh.)].

¹¹ [Gue itzulpenean 341 orrian (Itz. oh.)].

¹² [Gure itzulpenean 371-391 orriak (Itz. oh.)].

¹³ Hemen ez narraio zehazki metodo esperimentalaren historiaren hariari, bere hastapenak ez baitira oraindik ongi ezagutzen.

¹⁴ Honetan datza, beraz, izadiaren ikertzaileari imitatu diogun metodo hau: arrazoimen hutsaren osagaiak *esperimentu baten bidez egiazta edo gezurta daitekeenean bilatzea*. Halere, arrazoimen hutsaren esakuneak etsaminatu nahi badira, batez ere hauek esperientzia ahalgarriaren muga guztiez goiti ausartzen direnean, orduan ezin daiteke esperimenturik egin bere *objektuekin* (Natur Zientzian egiten den legez); beraz, *esperimentu hori a priori onartutako adigai eta oinarri-esakuneekin* soilik izango da egingarria, hauek honela antolatzen diren heinean: objektu berak, beraz, bi alderdiotatik kontsidera daitezkeela, *batetik*, sentsuen eta adimenaren objektu gisa esperientziarentzat, *bestetik*, ordea, pentsatzen diren objektu gisa soilik esperientziaren mugaz goiti lehiatzen den arrazoimen bakartuarentzat. Eta aurkitzen baldin badugu, ikuspegi bikoitz honetatik behatuz gero, arrazoimenaren printzipioarekin adostasunik badagoela, ikuspegi bakunetik behatuta, berriz, arrazoimenaren bere buruarekiko ezinbesteko aurkakotasuna sortzen dela, orduan esperimentuak bereizkuntza haren zuzentasunaren alde erabakitzen du.

¹⁵ Arrazoimen hutsaren *esperimentu* honek *kimikariak* egiten duenaren antza handia du, noizbehin *erredukzioaren* saialdia baina *eskuarki jardunbide sintetikoa* deitzen dioten *esperimentuaren* antza du beraz. *Metafisikariaren analisiak* bi osagai oso ez-uniformeetan banatzen zuen apriorizko ezagutza hutsa, hots, gauzen osagaiak agerpenak diren aldetik eta gauzen osagaiak berbaitan diren aldetik. *Dialektikak*, berriz, biok lotzen ditu berriro, honela *baldintzatugabekiaren* beharrezko arrazoimen-ideiarekin *ados daitezen*, eta horrela aurkitzen du adostasun hori ez dela inoiz gertatzen, bereizkuntza haren bidez izan ezik, zeinak, beraz, egiazkoa izan behar duen.

¹⁶ Zeruko gorputzen higiduren lege nagusiek erabateko ziurtasuna eman zioten *Kopernikok* hasieran hipotesizat soilik hartu zuenari, eta aldi berean mundu-eraikina lotzen duen indar ikustezina frogatzen zuten (*Newtonen* erakarpena), betiko ezkutuan geratuko zatekeen indarra, baldin eta lehena ausartu izan ez balitz, sentsuei kontrajarritako baina egiazko era batean, behatutako higidurak begiralearengan bilatzera, hori zeruko gorputzetan egin beharrean. Nik ere aitzinsolas honetan era berean hipotesi soil gisa aurkezten dut kritikan hipotesi harekin analogian azaldutako pentsakera-eraldaketa, nahiz eta tratatuan barrena gure espazioaren eta denboraren errepresentazioen antolaeraren bi- dez eta gure arrazoimenaren oinarrizko adigaien bidez hipotetikoki ez ezik, apodiktikoki ere frogatua izango den, beti ere honela hipotetikoak diren halako eraldaketa baten lehendabiziko saialdiak ohargarriak bihurtzearren.

¹⁷ «Ez du ezer burututzat jotzen egitekorik geratzen den bitartean».

¹⁸ Objektu bat *ezagutu* ahal izateko bere ahalgarritasuna frogatu ahal izan behar dut (esperientziaren lekukotasunaren arabera bere errealitatetik abiatuz, edo a priori arrazoimenaren bidez). Baina *pentsatu*, nahi dudana guztia pentsa dezaket, neure buruarekin kontraesanean gertatzen ez naizen bitartean, h. d., nire adigaia pentsamendu ahalgarri bat besterik ez den bitartean, adigai horri ahalgarritasun guztien multzoan ea objekturik dagokion ez jakin arren. Halere, halako adigai bati baliotasun objektiboa esleitzeko (ahalgarritasun erreala, lehena logikoa baino ez baitzen) zerbait gehiago behar dut. Hala ere, behar den hori ezagutzaren iturburu teoretikoetan bilatzeko beharrik ez dago, iturburu praktikoetan ere egon daiteke.

¹⁹ «Nirekin batera ez dakiena berak bakarrik jakitearen itxura egin nahi du».

²⁰ Benetako eransketa 275 orrian [hemen 237-8] idealismo psikologikoaren errefusapen berriaz eta kanpoko begiespenaren errealitate objektiboaren frogaren hertsiaz (izan daitekeen bakarra, ene iduriko) egin dudanari baino ez nioke deituko, frogatzeko erari soilik badagokio ere. Idealismoa hain errugabetzat har badaiteke ere (egitatean errugabe ez izan arren) Metafisikaren funtsezko

helburuei dagokienez, dena dela, Filosofia eta giza arrazoimen orokorraren eskandalua dirau gugandik kanpoko gauzen izatea sinesmenaz soilik onartu behar izateak (nahiz eta ezagutzen ekai guztia, baita gure barneko sentsuarentzat ere, kanpoko gauza haien eskutik hartzen dugun) eta, era berean, inori izate hori zalantzan jartzea bururatuz gero, froga gogobetegarrik ezin kontrajarri izateak. Froga erabilitako adierazpenetan hirugarren lerrotik seigarrena arte zenbait iluntasun aurkitzen ditudanez, pasarte hori honela aldatzea eskatuko nuke: «*Baina iraunkorki honek ezin du nire barneko begiespen bat izan. Izan ere, nigan topa daitezkeen nire izatearen determinazio-oinarri guztiak errepresentazioak dira eta errepresentazioak diren aldetik beraietatik ezberdintzen den iraunkorkia behar dute, zeinaren arabera errepresentazio haien aldakuntza, eta beraz, haiek aldatzen diren denboran dudan izatea ere determinatuak izan daitezkeen*». Agian zera esango du norbaitek froga honen aurka: ni neure baitan dagoenaz, hots, kanpoko gauzen nire errepresentazioaz besterik ez naiz kontziente zuzenki; ondorioz, erabaki gabe geratzen da oraindik ea nigandik at hari dagokion ezer baden ala ez den. Nik badut, ordea, denboran izateaz kontzientzia (ondorioz, baita neure izatea denboran determinatu ahal izateaz kontzientzia ere) barneko *esperientziaren* bitartez, eta azken hau nire errepresentazioaz soilik kontziente izatea baino gehiago da, baina bat dator *nire izatearen kontzientzia empirikoarekin*, zeina *nigandik* at eta nire izatearekin loturik dagoen zerbaiten arabera baino ezin den determinatu. Denboran izateaz dudan kontzientzia, beraz, identikoki loturik dago nigandik kanpoko zerbaitekin dudan hartuemanaren kontzientziarekin, eta beraz, esperientzia da, ez asmakizuna, sentsua da, ez irudimena, kanpoko nire barneko sentsuarekin bereiztezinki elkarlotzen duen kontzientzia da; izan ere, kanpoko sentsua bere baitan begiespenak nigandik kanpoko errealkiarekin duen harremana da jadanik, eta bere errealtatea, irudimenaren kasuan ez bezala, barneko esperientzia berarekin bereiztezinki loturik izatean besterik ez da funtsatzen honen ahalgarritasunerako baldintza gisa, hemen gertatzen den legez. Ni gai banintz neure izatearen *kontzientzia intelektualari* «banaiz» errepresentazioan, hots, nire judizio eta adimen-ekintza guztiei lagun egiten dien errepresentazioan, aldi berean *begiespen intelektualaren* bidezko nire izatearen determinazio bat lotzeko, orduan ez litzateke beharrezkoa izango azken honek nigandik kanpoko zerbaitekin duen hartuemanaren kontzientziarik edukitzea. Kontzientzia intelektual hura aurretik badoa ere, nire izatea determina dezakeen bakarra den begiespena, berriz, sentsuei eta denbora-baldintzari loturik dago, eta determinazio hau, eta beraz, barneko esperientzia bera ere nire baitan ez dagoen zerbait iraunkorkiaren menpean, eta ondorioz, nigandik at dagoen zerbaiten menpean dagoenez gero, neure burua honekin erlazioan egonik kontsideratu behar dudala, orduan kanpoko sentsuaren errealtatea halabeharrez dago lotuta barneko sentsuaren errealtatearekin, esperientzia izan badaiteke oro har, h. d., nire sentsuari lotzen zaizkion nigandik kanpoko gauzen izateaz ni neu denboran existitzeaz bezain seguru naiz kontziente. Halere, zein begiespen jakini dagozkion benetan nigandik kanpoko objektuak, eta beraz, zein begiespen diren kanpoko sentsuen arabera, zein egozten zaizkion kanpoko *sentsuari* eta ez irudimenari, hau guztia kasu bakoitzean erabaki beharko da esperientzia oro har (baita barnekoa ere) irudimenetik ezberdintzen duten erregelei jarraiki, eta honen oinarrian beti ondoko esakunea datza, alegia, badagoela benetan kanpoko esperientzia. Hemen ohar bat erants daiteke oraindik: ez direla gauza bera izatean *iraunkorra* den zerbaiten errepresentazioa eta *errepresentazio iraunkorra*; izan ere, hura oso aldakorra eta ezegonkorra izan daiteke, gure errepresentazio guztiak diren bezala, baita materia beraren errepresentazioa ere, eta hala ere, iraunkorra den zerbaiti datzekio, beraz, nire errepresentazio guztietatik ezberdintzen den eta kanpoan dagoen gauza bat izan behar duenari, zeinaren existentzia halabeharrez nire izatearen *determinazioan* jasotzen den honekin batera esperientzia bakar bat osatuz, hau da, barnean ere ahalgarria izango ez litzatekeen esperientzia, aldi berean (alde) kanpoko ere izango ez balitz. Hemen ezin daiteke zehazkiago argitu hori nola gertatzen den, denboran oro har geldi irauten duena pentsatzeko modua ere argitu ezin daitekeen legez, honek aldakorrekin duen aldiberekotasuna izaki aldaketaren adigaita sortzen duena.

²¹ I. Filosofia transzendentelaren ideia.

Esperientzia adimenak sortzen duen lehen produktua da ezbairik gabe, sentsuzko sentsazioen ekai soila lantzen duen heinean. Horregatik, lehen irakaspena da eta aurrerabidean informazio berritan hain agorrezina da, ezen etorkizuneko sorkarien elkar-kateatutako bizitzak inoiz ez baitu izango lur honen gainean bilduak izan daitezkeen ezagutza berrien gabeziarik. Hala eta guztiz ere, gure adimena ezin daiteke inolaz ere esperientziaren alorrera soilik zedarritzatu.

Esperientziak esaten digu bai zer dagoen, baina ez honek halabeharrez honela eta ez bestela izan behar duenik. Beraz, ez digu ematen egiazko orokortasunik, eta halako ezagueraz hain irrika dagoen arrazoimena gehiago da zirraratua gogobetea baino. Aldi berean barneko beharrezkotasuna duten halako ezagutza orokorrekin esperientziatik beregainak, berez argiak eta ziurrak izan behar dute; horregatik, apriorizko ezagutzak deitzen diegu, zeren, bestalde, esperientziatik soilik mailegatzun dena, adierazten den moduan, a posteriori edo enpirikoki baino ez baita ezagutzen.

Gure esperientzien artean ere beren jatorria a priori duten eta agian gure sentsuen errepresentazioetan bilkura sortzeko baino balio ez duten ezagutzak pilatzen direla gertatzen da, benetan ohargarria dena. Izan ere, lehenengoetatik sentsuei dagokien guztia alde batera utziz gero, nolana ere jatorrizko adigai jakinek eta hauetatik sortutako judizioek diraute oraindik, eta hauek osoki a priori esperientziatik beregainki sortuak izan behar dute, zeren sentsuei agertzen zaizkien objektuez esperientzia soilak irakatsiko lukeena baino gehiago esan ahal izatea eragiten baitute, edo behinik behin gehiago esan daitekeela sinestarazten baitute, eta era berean, baieztapenek ezagutza enpiriko soilak ezin eskain dezakeen egiazko orokortasuna eta beharrezkotasun hertsia barnebiltzea ere bai. [Honela dio A-n sarreraren hasierak orain artekoaren ordean (Itz. oh.)].

²² [Azkenengo bi esaldiek B-ko eransketa bat biltzen dute (Itz. oh.)].

²³ [B-ko eransketa (Itz. oh.)].

²⁴ Hemendik abiatuta zera argitzen da: 1) Judizio analitikoaren bitartez gure ezagutza ez dela batere hedatzen, baizik eta nik jadanik daukadan adigaiak xehetzen dudala eta niretzat ulargarria bihurtzen dela; 2) Judizio sintetikoetan subjektuaren adigaiak gain beste zerbait (X) izan behar dudala, non adimena eusten den adigai hartan ez dagoen predikatua, hala ere, berea bailitz bezala ezagutzeko.

Judizio enpirikoetan edo esperientzia-judizioetan honek ez digu batere zailtasunik sortzen. Izan ere, X hori esperientzia honen zati bat besterik osatzen ez duen A adigaiaren bidez pentsatzen duan objektuaren esperientzia osoa baita. Izan ere, ... [Honela dio A-n paragrafoaren hasierak puntu honetarako (Itz. oh.)].

²⁵ Beraz, A adigaitik at geratzen den X haren esperientzia honetan oinarritzen da B pisuaren predikatuaren eta A adigaiaren arteko sintesiaren ahalgarritasuna. [A-n paragrafoa honela bukatzen da. Testu nagusiko paragrafoaren jarraipena B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

²⁶ Hemen, beraz, sekretu jakin bat dago ezkutuan*, eta bere argiketak soilik bihur dezake aurrerapena segurua eta fidagarria adimen-ezagutza hutsaren alor mugagabea, hots, apriorizko judizio sintetikoaren ahalgarritasunaren oinarria erakustea orokortasun askiaz, hauen modu bakoitza ahalbidetzen duten baldintzak aditzea eta ezagutza oso hau (bere genero propioa osatzen duena) sistema batean bere jatorrizko iturburu, atal, hedapen eta mugen arabera osoki eta erabilera orotarako ere aski determinatzea, azaleko marrazketa baten bitartez ezaugarritua izan beharrean. Nahikoa esan dugu honekin, oraingoz, judizio sintetikoek beren baitan duten izaera bereziaz.

*Antzinako artean norbaiti otu balitzaio galdekizun bakar hau egitea, orduan bera bakarrik kontrajarriko litzaieke indartsuki gaurdainoko arrazoimen hutsaren sistema guztiei, eta horrela, autugaia zein den jakin gabeitsu-itsuan egindako alferrikako saialdiak saihestu ahal izango lituzke. [A-n jarraian datorren paragrafoa (Itz. oh.)].

²⁷ Norbaitek zalantzatan jar lezake azkenengo puntu hau Natur Zientzia hutsari dagokionez. Hala eta guztiz ere, benetako Fisikaren (enpirikoaren) hasieran agertzen diren hainbat esakune begiratzea baino ez da egin behar: materiaren kantitatearen iraunkortasunarena, inertziarena, efektua eta aurkako efektuaren arteko berdintasunarena, eta abar; orduan, berehala lortzen dugu hauek physica pura bat (edo rationalis) osatzen dutelako uste osoa, zeinak ongi merezi duen zientzia propio gisa bereizita aurkeztua izatea bere hedapen txikian edo handian, baina, dena dela, osoan.

²⁸ [V eta VI atalek B-ko eransketa bat biltzen dute (Itz. oh.)].

²⁹ Aurreko guztiaren emaitza arrazoimen hutsaren kritikarako baliagarria izan daitekeen zientzia berezi baten ideia da. Ezagutza hutsa izena du, berriz, ezer arrotzik nahastuta ez duenak.

Bereziki, ordea, ezagutza bat huts-hutsa deitzen da ezein esperientziarik edo sentsaziorik ez badu nahastuta, eta beraz, osorik a priori ahalgarria dena. Hortaz,... [Paragrafoaren hasieraren A-ko aldaera (Itz. oh.)].

³⁰ II. Filosofia transzendentalararen sailkaketa. [A-n jarraian datorren izenburu berria. Aurreko bi esaldiek B-ko eransketa bat biltzen dute (Itz. oh.)].

³¹ [Esaldi hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

³² [«... egiatan ... gisa.» pasartea B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

³³ [Estetika eta Analitikako paragrafoen zenbaketa B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

³⁴ Alemanak dira besteek gustamenaren kritika deitzen diotena ezaugarritzko orain «estetika» hitza erabiltzen duten bakarrak. Honen oinarrian Baumgarten analista bikainak bildu zuen itxaropen erratua datza, ederraren juzgaketa arrazoimenaren printzipioera ekartzeko eta bere erregelak zientzia bihurtzeko itxaropena, alegia. Halere, ahalegin hau alferrikakoa da. Izan ere, aipatutako erregelak edo irizpideak beren iturburu garaienen arabera enpirikoak besterik ez dira eta hauek ezin dute inoiz gure gustamenaren judizioa gidatzen duten apriorizko lege determinatuetarako balio; aitzitik, azken honek osatzen du lehenaren zuzentasunaren frogarria. Hortaz, gomendagarria da, edo izendapena uztea eta benetako zientzia den irakaspenarentzat gordetzea (honekin antzinakoen hizkuntzara eta zentzura hurbilduz, zeinengan ezagutzaren sailkaketa αἰσθητὰ καὶ νοητὰ artean oso entzutetsua baitzen), edo izendapena Filosofia espekulatiboarekin partekatzea eta Estetika, aldeez, zentzu transzendentalean, aldeez, esanahi psikologikoan ulertzea. [Parentesiaren ondorengoa B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

³⁵ [Izenburu hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

³⁶ [Paragrafoaren bukaera artekoa B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

³⁷ 3. Apriorizko beharrezkotasun honetan oinarritzen da oinarri-esakune geometriko ororen ziurtasun apodiktikoa eta hauen apriorizko eraikinen ahalgarritasuna. Espazioaren errepresentazio hau a posteriori bereganatutako adigaia balitz, kanpoko esperientzia orokorretik sortua balitz, orduan determinazio matematikoaren lehen oinarri-esakuneak hautemapenak besterik ez lirerateke. Hauek, beraz, hautemapenaren beharbadakotasun osoa edukiko lukete eta ez litzateke beharrezkoa izango bi punturen artean lerro zuzen bakarra izatea, baizik eta hori esperientziak irakatsiko luke beti. Esperien-tziatik jasotakoak orokortasun alderagarria besterik ez du, hots, indukzioaren bitartez lortutako orokortasuna. Beraz, hau besterik ezingo litzateke esan: orain arte ohartutakoaren arabera hiru dimentsio baino gehiago lituzkeen espaziorik ez dela aurkitu. [A-ko paragrafo gehigarria (Itz. oh.)].

³⁸ 4. [A-ko zenbaketa (Itz. oh.)].

³⁹ 5. Espazioa emana den handitasun amaigabe gisa errepresentatzen da. Espazioaren adigai orokor batek (hanka bati eta beso bati komuna zaiena) ezin du handitasunari dagokion ezer determinatu. Begiespenaren aurrerabidean mugagabetasunik ez balego, orduan hartuemanen ezein adigaik ere ez luke bere amaigabetasunaren printzipiorik ekarriko aldean. [5 paragrafoaren A-ko aldaera (Itz. oh.)].

⁴⁰ [Hirugarren atal oso hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

⁴¹ Horregatik, kanpoko agerpen ororen baldintza subjektibo hau ezin da beste ezein baldintzarekin alderatu. Ardoaren gustu ona ez da ardoaren determinazio objektiboetako bat, ezta objektu batena ere agerpen gisa kontsideratuta, bera gozatzen duen subjektuaren sentsuen antolaera bereziarena baizik. Koloreak ez dira gorputzen begiespenari lotzen zaizkion antolaerak, baizik eta argiagatik modu jakin batean afektatua den ikusmenaren sentsuaren modifikazioak besterik ez. Aitzitik, espazioa, kanpoko objektuen baldintza denez, halabeharrez dagokio hauen agerpenari edo begiespenari. Gustamena eta koloreak ez dira objektuak (Gegenstände) sentsuen objektu (Objekt) bihurtzea ahalbidetzen duten beharrezko baldintzak. Hauek organizazio bereziari ausaz eransten zaizkion efektuak direlako baino ez daude agerpenei lotuta. Horregatik, ez dira ezein apriorizko errepresentaziorik, baizik eta sentsazioan oinarritzen dira, eta gustu ona areago sentsazioaren eragina den (atsegin eta ezatseginaren) sentimenduan oinarritzen da. Inork ezin du, era berean, a priori kolore baten edo gusturen baten errepresentaziorik izan; espazioa, ordea, begiespenaren forma hutsari baino ez dagokio, ez du

ezein sentsaziorik (ezer enpirikorik) biltzen beregan, eta espazioaren modu eta determinazio guztiak a priori errepresentatu ahal eta behar dira, baldin eta tankeren adigaiak eta hartuemanak sortu behar badira. Espazioak soilik ahalbidetzen du gauzak kanpoko objektuak izatea. [Azken bi esaldien ordezeko testua A-n (Itz. oh.)].

⁴² [Izenburu hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

⁴³ [Bosgarren puntu oso hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

⁴⁴ Nik esan dezaket bai nire errepresentazioak elkarren segidan doazela; baina honek hau besterik ez du esan nahi: beraiez denborazko segida batean, h. d., barneko sentsuaren formaren arabera garela kontziente. Denbora ez da horregatik berbaitango zerbait, ezta gauzei objektiboki atxikitzen zaien determinaziorik ere.

⁴⁵ [Zenbaketa B-ko eransketa da, bertan Kantek A-ko paragrafo bakarrari beste hiru gaineratu baitzizkion (Itz. oh.)].

⁴⁶ [Azkenengo koma ondoren datozen hitzek B-ko eransketa bat biltzen dute (Itz. oh.)].

⁴⁷ Agerpenaren predikatuak ob- jek tua berari egotz diezazkiokegu gure sentsuarekin hartuemanean, adibidez, arrosari kolore gorria edo usaina; baina itxura ezin zaie inoiz objektuei predikatu gisa atxiki, zeren honek objektuari bere baitan egozten baitio sentsuekin hartuemanean edo oro har subjektuarekin hartuemanean dagokiona, adibidez, Saturnori hasiera batean atxikitzen zitzaizkion bi hagak. Objektuan bere baitan inolaz ere ez, baina beti subjektuarekin hartuemanean aurki daitekeena eta lehenengoaren errepresentaziotik bereiztezina dena agerpena da, eta horrela, espazioaren eta denboraren predikatuak sentsuen objektuei halakoak diren aldetik egozten zaizkie bidezki, eta hemen ez dago ezein itxurarik. Aitzitik, arrosari bere baitan gorrikia, Saturnori hagak edo kanpoko objektu orori bere baitan hedadura egotziz gero objektu horiek subjektuarekin duten hartueman determinaturik kontuan hartu gabe eta nire judizioa horretara zedarritzatu gabe, bada, orduan sortzen da lehen-lehenik itxura.

⁴⁸ [II, III eta IV zatiak eta ebazpena B-ko eransketak dira (Itz. oh.)].

⁴⁹ Pentsatzea lehenengo kasuan *adimenaren* funtzioa, bigarrenengoan *juzgamenarena*, eta hirugarrenengoan *arrazoimenarena* izango balitz bezala. Ohar honek jarraian izango du lehen-lehenik bere argiztapena.

⁵⁰ [11 eta 12 paragrafoek B-ko eransketa bat biltzen dute (Itz. oh.)].

⁵¹ *Natur Zientziaren Hastapen Metafisikoak*.

⁵² [Zati hau zenbakirik gabe agertzen bada ere, honek Kant beraren edo argitaratzailearen xalokeria izan behar du, aurretik 13a eta ondoren 15a baitauzkagu (Itz. oh.)].

⁵³ Hiru dira, ordea, esperientzia ororen ahalgarritasunaren baldintzak barnebiltzen dituzten jatorrizko iturburuak (arimaren gaitasunak edo ahalmenak), gogamenaren beste ezein ahalmenetik eratorri ezin direnak, hots, sentsua, irudimena eta apertzepzioa. Beraietan oinarritzen da 1) anizkunkiaren sinopsia a priori sentsuaren bitartez; 2) anizkunki honen sintesia irudimenaren bitartez; eta azkenik, 3) sintesi honen batasuna jatorrizko apertzepzioaren bitartez. Ahalmen hauek guztiek erabilera enpirikoaz gain transzendentala ere badute, formari besterik ez dagokiona eta a priori ahalgarria dena. Honetaz gorago hitz egin dugu lehen zatian sentsuei dagokienez, baina orain beste bien izaera aditzea saiatu nahi dugu. [A-ko aldaera ondorengo hiru paragrafoen ordezkio (Itz. oh.)].

⁵⁴ [Ondorengo zatia (§15-27) B-ko dedukzio transzendentala da (Itz. oh.)].

⁵⁵ Hemen ez da kontsideratzen ea errepresentazioak berak identikoak diren eta bata bestearen bitartez analitikoki pentsa daitekeen. Solasgaia anizkunkia den heinean, bataren kontzientzia beti bestearen kontzientziatik bereizi behar da, eta hemen kontua kontzientzia (ahalgarri) honen sintesia da.

⁵⁶ Kontzientziaren batasun analitikoa adigai komun guztiei datxekizkie adigaiak diren aldetik, adibidez, nik oro har gorria pentsatzen badut, orduan horren bitartez antolaera bat errerepresentatzen dut, zeina (ezaugarri gisa) nonbait aurki daitekeen edo beste errepresentazioekin lotua egon daitekeen; beraz, aldeztu aurretik pentsatutako batasun sintetiko ahalgarriaren bitartez baino ezin errepresenta dezaket batasun analitikoa. *Errepresentazio*

ezberdinetan komuna izanik pentsatua izan behar den errepresentazioa bere baitan beraz gain oraindik zerbait *ezberdina* duen errerepresentaziotzat begiztatzen da, eta ondorioz, bera aldezturik besteekin batasun sintetikoan egonik pentsatu behar da (beste hauek errerepresentazio ahalgarriak baino ez izan arren) bertan *conceptus communis* bihurtzen dituen kontzientziaren batasun analitikoa pentsatu ahal izan baino lehenago. Eta horrela, apertzepzioaren batasun sintetikoa puntu gorena da eta honi atxiki behar zaio adimenaren erabilera oro, baita Logika osoa ere, eta honen ondoren Filosofia transzendentala, eta ahalmen hau adimena bera da.

⁵⁷ Espazioa eta denbora eta beren zati guztiak begiespenak dira, eta beraz, banakako errerepresentazioak, beren baitan barnebiltzen duten anizkunkiarekin batera (ikus *Estetika transzendentala*), eta beraz, ez adigai soilak, hauen bitartez kontzientzia berbera errerepresentazio askotan barnebilduta legokeela, baizik eta errerepresentazio asko beren kontzientzia bakarrean barnebilduta balego bezala, eta beraz, elkarketazkoa balitz bezala, eta ondorioz, kontzientziaren batasuna sintetikoa baina jatorrizkoa da. Espazioaren eta denboraren banakotasun hau esanguratsua da aplikazioan (ikus § 25).

⁵⁸ Lau figura silogistikoen irakaspen zabala arrazoimen-inferentzia kategorikoei baino ez dagokie, eta hau lehen figuran dauden baino inferentzia-era gehiagoren itxura inferentzia zuzenen (*consequentiae immediatae*) estalketaren bitartez arrazoimen-inferentzia hutsaren premisapean amarruz onartzeko antzea baino ez den arren, hala ere, irakaspenak horrekin bakarrik ez luke ezer berezirik lortu izango, baldin eta judizio kategorikoarentzat ospe eskusiboa erakarri ez balu, beste denak lotu behar zaizkion judizioa den aldetik, baina hau § 9ri jarraiki faltua da.

⁵⁹ [Edukiaren arabera § 10 aipatu nahi zuela dirudi, ez § 13 (Itz. oh.)].

⁶⁰ Froga-oinarria aurkeztutako begiespenaren batasunean funtsatzen da, eta batasun honen bitartez objektu bat ematen da, zeinak begiespen batean emandako anizkunki jakin baten sintesia biltzen duen beti bere baitan eta anizkunki jakin honek apertzepzioaren batasunarekin duen harremana ere barnebiltzen duen.

⁶¹ Objektu baten higadura espazioan ez dagokio zientzia huts bati, ezta, beraz, Geometriari ere, zerbait higikorra dela esperientziaz baino ezin jakin baitezakegu, ez a priori. Ostera, higadura, espazio baten deskribapen gisa, irudimen produktiboaren bitartez oro har kanpoko begiespenean egiten den anizkunkiaren hurrenez hurrengo sintesiaren ekintza hutsa da, eta Geometriari soilik ez ezik, Filosofia transzental berari ere badagokio.

⁶² Ez dut ulertzen nola aurki daitekeen hain zailtasun handia barneko sentsua gu geuk afektatzeko egitatean. Arretaren ekintza bakoitzak eman diezaguke horren adibidea. Bertan, adimenak beti determinatzen du barneko sentsua berak pentsatzen duen loturaren arabera, eta adimenaren sintesian anizkunkiari dagokion barneko begiespenarentzat determinatzen du. Edonork hauteman ahal izango du bere baitan zein sarri den afektatua gogamena honela arrunki.

⁶³ Nik pentsatzen dut'-ek nire izatea determinatzeko ekintza adierazten du. Izatea jadanik emana da horren bitartez, baina nik hura determinatu beharko nukeen era, h. d., berari dagokion anizkunkia nigan ezartzeko era oraindik ez. Horretarako norbere buruaren begiespena behar da, eta honek a priori emandako forma, h. d., denbora du oinarrian, sentsuzkoa dena eta determinagarrikiaren harmenari dagokiona. Baldin eta neure buruaren beste begiespenik ez badut, alegia, nigan determinatzailea dena (zeinaren berezkotasunaz kontziente besterik ez bainaiz) determinatzearen ekintzaren aurretik ematen didan begiespenik ez badut, denborak determinagarriki ematen duen legez, orduan ezin dut nire izatea berenez ekilea den zerizan gisa determinatu, baizik eta neure pentsatzearen, h. d., neure determinatzearen berezkotasuna errepresentatzen dut, eta nire izateak beti ere sentsuzkoa den aldetik dirau determinagarri, h. d., agerpen baten izate gisa besterik ez. Hala ere, berezkotasun honegatik deitzen diot neure buruari *inteligentzia*.

⁶⁴ Espazioak objektu gisa errerepresentatuta (Geometriari benetan behar den moduan) begiespenaren forma soila baino gehiago barnebiltzen du, hots, anizkunkiaren *bilkura*, sentimenaren formaren arabera ematen dena errerepresentazio *begietsian*, eta horrela, *begiespenaren* formak anizkunki soila ematen du, *begiespen formalak*, ostera, errerepresentazioaren batasuna. Batasun hau Estetikan sentimenari soilik egotzi nion, adigai ororen aurretik doala oharrarazteko, nahiz eta sentsuei

ez dagokien, baizik espazioaren eta denboraren adigai oro lehen-lehenik ahalbidetzen duen sintesia aurreuposatzen duen. Izan ere, sintesi honen bitartez ematen direnez lehen-lehenik espazioa eta denbora begiespen gisa (adimenak sentimena determinatzen duen heinean), orduan apriorizko begiespen horren batasuna espazioari eta denborari dagokie, eta ez adimenaren adigaiari (§ 24).

⁶⁵ Honela frogatzen da: atzematearen sintesi enpirikoa halabeharrez a priori kategorian barnebildua dagoen apertzepzioaren sintesi intelektualari egokitu behar zaiola osorik. Berezkotasun bat eta berbera da han irudimenaren izenarekin eta hemen adimenaren izenarekin begiespenaren anizkunkiari lotura ezartzen diona.

⁶⁶ Esakune honen ondorio arduragarriak eta kaltegarriak azkarregi ez topatzearren, kategoriak *pentsatzean* gure sentsuzko begiespenaren baldintzen bitartez zedarritzatuak ez daudela gogorarazi nahi dut, baizik eta alor mugagabe bat dutela, eta guk pentsatzen dugun horren *ezagutzak*, hots, objektuaren determinatzeak baino ez duela behar begiespena, non, azkenaren gabezia, objektuaren pentsamenduak oraindik beti ere benetakoak eta onuragarriak diren ondorioak izan ditzakeen subjektuaren *arrazoimen-erabileran*, baina hau hemen oraindik ezin da azaldu, arrazoimen-erabileraren jomuga ez baita beti objektuaren determinazioa, eta beraz, ezagutza, baizik eta subjektuaren eta bere nahimenaren determinazioa ere bai.

⁶⁷ [B-ko dedukzioaren bigarren atal honek (§15-27) ondoren datozen A-ko dedukzioa osatzen duten bigarren eta hirugarren atalak ordezkatu zituen (Itz. oh.)].

⁶⁸ Esakune honi arreta eskaini behar zaio, garrantzi handikoa baita. Errepresentazio orok beharrezko harremana du kontzientzia enpiriko ahalgarri batekin; izan ere, ez balu, eta erabat ezinezkoa balitz errepresentazioez kontziente bihurtzea, orduan honek haiek existitzen ez direla adina esan nahiko luke. Kontzientzia enpiriko orok, ordea, kontzientzia transzendentala batekin du beharrezko harremana (esperientzia berezi ororen aurretik doana), hots, neure kontzientziarekin jatorrizko apertzepzio gisa. Behar-beharrezkoa da, beraz, kontzientzia oro nire ezagutza kontzientzia bati egokitzea (nireari). Hemen, anizkunkiaren batasun sintetiko bat dago (kontzientzia), a priori ezagutzen dena, eta horrela, pentsatze hutsari dagozkion apriorizko esakune sintetikoetarako oinarriak ematen dituen, espazioak eta denborak begiespen soilaren formaz aritzen diren esakuneetat oinarriak eskuratzen dituzten bezala. «Kontzientzia enpiriko ezberdin oro autokontzientzia bakarrean lotu behar da» esakune sintetikoa oro har gure pentsatzearen oinarri-esakune lehen-lehena eta sintetikoa da. Ez da ahaztu behar, ordea, nia errepresentazio soila beste guztiekin (zeinen batasun kolektiboa berak ahalbidetzen duen) harremanean dela kontzientzia transzendentala. Errepresentazio hau argia (kontzientzia enpirikoa) edo iluna izan daiteke, hau ez da kontua hemen, ezta erreala denik ere; baizik eta ezagutza ororen forma logikoaren ahalgarritasuna apertzepzioarekiko hartuemanen funtsatzen dela halabeharrez, hau ahalmen bat den aldetik.

⁶⁹ Psikologo bakar batek ere ez du oraindik pentsatu irudimena hautemapenaren beharrezko osagaia denik. Hau, aldez, ahalmen hau birproduktora zedarritzatzetik dator, aldez, sentsuek zirrarak eman ez ezik, haiek elkartu ere egiten dituztela eta objektuen irudiak sortzen dituztela usteagatik; halere, honetarako zirraren harmenaz gain zerbait gehiago behar da ezbairik gabe, hots, zirraren sintesiaren funtzioa.

⁷⁰ Juzgamenaren gabezia ergeltasuna deritzaiona da benetan eta halako gabezia ezin da osatu. Adimenaren maila egokia eta bere adigai propioak besterik falta ez zaizkion buru kamuts edo murriztu bat ikastearen ikastez ederki irits daiteke erudiziora ere. Baina kasu hauetan eskuarki juzgamenaren falta denez gero (secunda Petri), orduan ez da ezohikoa beren zientziaren erabileran inoiz hobetu ezin daitekeen gabezia hura maiz erakusten duten gizon oso ikasiak aurkitzea.

⁷¹ Lotura oro (coniunctio) edo *elkarketa* (compositio) edo *elkarlotura* (nexus) da. Lehena, anizkunkiaren sintesia da, bere osagaiak *elkarri halabeharrez* egokitzen ez direnean, adibidez, lauiki bat diagonalean moztu duten bi hirukiak berez elkarri egokitzen ez diren moduan, eta halakoa da matematikoki kontsidera daitekeen orotan *homogeneoa* denaren sintesia (sintesi hau berriro *agregazioa* eta *koalizioarenean* bana daiteke, lehena, handitasun hedatuei doakiela, bigarrena, handitasun intentsiboei). Bigarren lotura (nexus) anizkunkiaren sintesia da, bere

osagaiak *halabeharrez* elkarri egokitzen diren heinean, adibidez, akzidentea substantzia bati bezala, edo efektua kausari, eta beraz, *heterogeneoa* izanik ere a priori lotua errepresentatzen da, eta lotura honi, hautazkoa ez denez gero, *dinamikoa* deitzen diot, zeren anizkunkiaren *izatearen* loturari baitagokio (zeina, era berean, agerpenen elkarrekiko lotura *fisikoan* eta apriorizko ezagumenean gertatzen den lotura *metafisikoan* sailka daitekeen). [Oin-ohar hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

⁷² Adimen hutsaren oinarri-esakunea: agerpen oro handitasun hedatua da bere begiespenari dagokionez. [A-ko aldaera (Itz. oh.)].

⁷³ [Axiomen lehen paragrafo hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

⁷⁴ Hautemapen guztiak hautemapenak diren aldetik aitzinatzen dituen oinarri-esakuneak honela dio: agerpen orotan sentsazioak eta berari objektuan dagokion errealkiak (realitas phaenomenon) handitasun intentsiboa du, h. d., maila bat du. [A-ko aldaera (Itz. oh.)].

⁷⁵ [Aitzinapenen lehen paragrafo hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

⁷⁶ [Nabarmena da hau errakuntza dela eta «a posteriori» izan behar duela (Itz. oh.)].

⁷⁷ Beren oinarri-esakune orokorra honakoa da: agerpen guztiak beren izatearen arabera a priori elkarren artean denboran duten determinazioaren erregelapean daude. [A-ko aldaera (Itz. oh.)].

⁷⁸ [Analogien lehen paragrafo hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

⁷⁹ Agerpen orok iraunkorkia (substantzia) barnebiltzen du objektua bera gisa eta aldagarrikia haren determinazio soil gisa, h. d., objektuaren existentzia-era baten gisara. [A-ko aldaera (Itz. oh.)].

⁸⁰ Agerpen oro denboran dago. Honek b eratan determina dezake agerpenek izatean duten hartueman, bata bestearen ondoren edo aldi berean diren heinean. Lehenari dagokionez, denbora denbora-ilara gisa kontsideratzen da, bigarrenari dagokionez, denbora-hedapen gisa. [Lehen analogiaren lehen paragrafo honen A-ko aldaera (Itz. oh.)].

⁸¹ «Ezerezetik ez da ezer sortzen, ezerezera ezin da ezer itzuli».

⁸² Sorketaren oinarri-esakunea.

Gertatzen den guztiak (izaten haste orok) zerbait auresuposatzen du, zeinari erregela baten arabera jarraiki zaion. [A-ko aldaera (Itz. oh.)].

⁸³ [Bigarren analogiaren lehen bi paragrafo hauek B-ko eransketa bat biltzen dute (Itz. oh.)].

⁸⁴ Zera ohartu behar da: ez dudala oro har erlazio jakinen aldaketaz hitz egiten, egoeraren aldaketaz baizik. Horregatik, gorputz bat erregulariki higitzen bada, orduan (higiduraren) bere egoera ez da inolaz ere aldatzen; baina bai, noski, bere higidura gehitu edo gutxitzen denean.

⁸⁵ Komunitatearen oinarri-esakunea.

Substantzia guztiak, aldi berean diren heinean, komunitate osoan daude (h. d., elkarrekintzan). [A-ko aldaera (Itz. oh.)].

⁸⁶ [Hirugarren analogiaren lehen paragrafo hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

⁸⁷ Agerpen denak elkartotuta jaso beharko lituzkeen mundu-osokiaren batasuna nabarmenki aldi berean diren substantzia ororen komunitatearen ezkutuzko oinarri-esakunearen ondorioztapen soil da; izan ere, bakartuak baleude, orduan ez lukete zati gisa osoki bat osatuko, eta beren elkarlotura (anizkunkiaren elkarrekintza) aldi berean izateagatik jadanik beharrezkoa ez balitz, orduan ezingo litzateke honetatik, ideala besterik ez den hartuemanetik, beste hura inferitu, hots, hartueman erreala inferitu. Bere lekuan azaldu dugu komunitatea benetan izankidetasunaren ezagutza enpirikoaren ahalgarritasunaren oinarria dela, eta beraz, benetan izankidetasun honetatik soilik inferitzen dela komunitate hura bere baldintza gisa.

⁸⁸ [Azken esaldi hau B-ko eransketa da eta berak iragartzen duen ondorengo idealismoaren errefusapenaren atal osoa ere bai (Itz. oh.)].

⁸⁹ Baina iraunkorki honek ezin du nire barneko begiespen bat izan. Izan ere, nigan topa daitezkeen nire izatearen determinazio-oinarri guztiak errepresentazioak dira, eta

errepresentazioak diren aldetik beraietatik ezberdintzen den iraunkorkia behar dute, zeinaren arabera errepresentazio haien aldakuntza, eta beraz, haiek aldatzen diren denboran dudak izatea ere determinatuak izan daitezkeen. [Esaldiaren berridazketa B-ko aitzinsolasaren arabera (Itz. oh.)].

⁹⁰ Kanpoko gauzen izatearen kontzientzia zuzena ez da auresuposatzen aurreko teoreman, baizik frogatu egiten da, kontzientzia honen ahalgarritasuna aditzeko gai izan ala ez izan. Azkenengoari dagokionez, galdekizuna zera litzateke: ea barneko sentsua bai, baina kanpoko sentsurik ez genukeen, baizik kanpoko irudikapena besterik ez. Argi dago, ordea, guk jadanik kanpoko sentsua ere badugula zerbait kanpokotzat soilik irudikatzeko, h. d., sentsuari begiespenean aurkezteko, eta honen bitartez kanpoko begiespenaren harmen soila irudikapen bakoitza ezaugarritzen duen berezkotasunetik zuzenki bereiztu behar dugula. Izan ere, kanpoko sentsua irudikatu baino ez egiteak irudimenak determinatzen duen begiespen-ahalmen bera deuseztatuko luke.

⁹¹ Gauza baten *errealitatearen bidez* ahalgarritasunaren bitartez baino gehiago ezartzen dut, noski, baina ez *gauzan*; izan ere, honek ezin du inoiz errealitatean bere ahalgarritasun osatuan barnebilduta zegoena baino gehiago barnebildu. Aitzitik, ahalgarritasuna gauzak adimenari begira duen kokalekua besterik ez zenez gero (adimenaren erabilera enpirikoari begira), orduan errealitatea gauzak aldi berean hautemapenarekin duen elkarlotura da.

⁹² [Atal hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

⁹³ Erraz pentsa daiteke materiaren ez izatea, baina antzinakoek ez zuten hortik bere beharbadakotasuna ondorioztatzen. Gauza baten egoera jakinaren izatea eta ez izatearen aldakuntzak, hots, aldaketak, ez du inolaz ere frogatzen egoera horren beharbadakotasuna, nolabait esateko, higidurari jarraiki zaion bere aurkakaren errealitateetik, adibidez, gorputz baten gelditasunetik ez da ondorioztatzen higidura beraren beharbadakotasuna, lehena azkenaren aurkakoa delako soilik. Izan ere, aurkako hau hemen logikoki besterik ez da aurkakoa, ez realiter besteari *kontrajarria*. Aurreko denbora-uneko higiduraren ordez gorputza orduan geldirik egon zitekeela frogatu behar zen, bere higiduraren beharbadakotasuna frogatzearren, ez *ondoren* geldirik dagoela; izan ere, honela aurkako biak batera izan baitaitezke.

⁹⁴ Gorago kategorien taularen aurkezpenean hauetako bakoitzaren definizioa ematea alde batera utzi genuen, beren erabilera sintetikora soilik zuzentzen zen gure asmoak ez duelako beharrezkoa egiten, eta beharrezkoa ez den jardunaren erantzukizunik ez delako hartu behar hau utz daitekeenean. Hau ez zen aitzakia, baizik berehala definitzera eta adigaien determinazioan osotasuna eta zehaztasuna saiatzera edo hori uste izatera ez ausartzeko zuhurtasun-erregela garrantzitsua, beren ezaugarri bat edo bestea aski izan ahal zaigunean, horretarako adigaiak osatzen dituzten ezaugarri guztien kontaketa osoa egiteko beharrik izan gabe. Orain, ordea, hau gertatzen da: zuhurtasun honen oinarria sakonagoa dela, hots, nahi izanez gero ere ezingo genituela definitu*, baizik sentimenaren baldintza guztiak alde batera uzten baldin badira, haiek erabilera enpiriko ahalgarritarako ezaugarritzen dituzten baldintzak, hain zuzen, eta oro har gauzen adigaitzat hartzen baditugu, orduan beraietan ezin direla judizioetako funtzio logikoak gauzen ahalgarritasunaren baldintzak balira bezala baino kontsideratu, baina inolaz ere ezin daitekeela azaldu ea non duten beren aplikazioa eta objektua, eta beraz, nola izan dezaketen esanahia eta baliotasun objektiboa adimen hutsean sentimenik gabe.

*Hemen definizio erreala ari naiz, gauza baten izena beste hitz ulergarriagoen ordez aldatu ez ezik, beti objektua (definitum) ezagutarazten duen ezaugarri argia eta aplikaziorako erabilgarria bihurtzen duen adigai argitua ere barnebiltzen duena. Argipen erreala, beraz, adigaia nabaria bihurtzen duena ez ezik, bere errealitate objektiboa ere nabaria bihurtzen duena da. Azken era honetakoak dira argipen matematikoak, objektua adigaiaren arabera begiespenean aurkezten dutenak. [A-ko paragrafoaren jarraipena (Itz. oh.)].

⁹⁵ Hitz batean, adigai hauek guztiek ez dute ezer beren berme gisa, horrela beren ahalgarritasun erreala frogatzeko, sentsuzko begiespena (guk dugun bakarra) kenduz gero, eta orduan, ahalgarritasun logikoa soilik geratzen da, h. d., adigaia (pentsamendua) ahalgarria dela, hemen solasgaia ez dena, ordea, baizik eta ea adigaia objektu bati lotzen zaion, eta beraz, zerbait esan nahi duen. [Oin-ohar hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

Zerbait bitxia eta absurdua du bere baitan esanahi bat izan behar duen baina argipenik jaso ezin duen adigaiak izan beharrak. Hemen, ordea, gauza berezi hau gertatzen da kategoriekin: sentsuzko baldintza orokorpean baino ezin dezaketela izan esanahi determinatua eta objekturen batekin harremana. Kategoria hutsetik baldintza hau kenduz gero, orduan honek anizkunkia adigai bati menperatzeko funtzio logikoa baino ezin du barnebildu. Funtzio honetatik, h. d., adigaiaren formatik soilik abiatuta ezin da ezer ezagutu edo berari zein objektu dagokion bereizi, zeren objektuak oro har berari egokitu ahal izateko sentsuzko baldintzaz abstraitu baita. Horregatik, kategoriek adimenaren adigaiaz gain oraindik oro har sentimenari aplikatzeko determinazioa (eskema) behar dute eta hauek gabe ez dira objektu bat ezagutu eta besteetatik bereiz dezaketen adigairik, baizik begiespen ahalgarrietarako objektu bat pentsatzeko eta berari adimenaren funtzioaren baten arabera bere esanahia emateko (oraindik behar diren baldintzapean), h. d., beraiek definitzeko erak besterik ez; kategoriak berak, beraz, ezin dira definitu. Judizioen funtzio logikoak oro har, hots, batasuna eta askotasuna, baieztapena eta ukapena, subjektua eta predikatua, ezin dira definitu zirkulu bat egin gabe, zeren definizioa bera judizio bat baita, eta beraz, funtzio horiek barnebildu beharko bailituzke. Kategoria hutsak, ordea, oro harrezko gauzen errepresentazioak baino ez dira, beren begiespenaren anizkunkia funtzio logiko bat edo bestearen bitartez pentsatu behar den heinean: handitasuna, kantitatea soilik duen judizioaren (iudicium commune) bitartezko determinazioa da; errealitatea, judizio baieztale baten bitartez soilik pentsatua dena; substantzia, begiespenarekin harremanean beste determinazio denen azken subjektua izan behar duena. Hala ere, hemen indeterminatua geratzen da ea zein gauzen aurrean erabili behar den funtzio bat beste baten aldean, eta beraz, sentsuzko begiespenaren baldintzarik gabe hauentzako sintesia barnebiltzen duten kategoriek ezin dute ezein objektu determinaturekin harremanik izan, eta beraz, ezin dute bat bera ere definitu, eta ondorioz, ez dute beren baitan adigai objektiboen baliotasunik. [A-ko testu nagusiko paragrafo berria (Itz. oh.)].

⁹⁶ Agerpenek, kategorien batasunaren arabera objektu gisa pentsatzen diren heinean, fenomenoak izena dute. Baina adimenaren objektu soilak diren gauzak onartzen baditut, gainera begiespen bati eman ahal zaizkionak, hau sentsuzkoa izan arren (coram intuitu intellectuali gisa), orduan halako gauzak noumeno (inteligibleak) deituko lirатеke.

Orduan, zera pentsatu beharko litzateke: Estetika transzentalaren bitartez zedarritzatutako agerpenaren adigaiak jadanik berez ematen duela eskura noumenoen errealitate objektiboa, eta objektuen sailkaketa legeztatzen duela fenomenoetan eta noumenoetan, eta beraz, munduarena ere bai sentsuen munduan eta adimenaren munduan (mundus sensibilis et intelligibilis); eta gainera, honela egiten du: bereizketa ez da hemen gauza bat eta bakarraren ezagutza ez nabari eta nabariaren forma logikoa soilik, baizik bereizketak ezberdintasun hau ukitzen du: ea bi munduak gure ezagutzari jatorriz nola eman ahal zaizkion, eta ondorioz hauek beren baitan generoaren arabera beren artean bereizten ditu. Izan ere, sentsuek Zerbait agertzen den moduan errepresentatzen badute, orduan honek bere baitan gauza bat izan behar du, eta sentsuzkoa ez den begiespen baten objektua, h. d., adimenarena, h. d., sentimenik gabeko ezagutzak ahalgarria izan behar du, eta honek soilik du absolutuki errealitate objektiboa, eta bere bitartez errepresentatzen ditugu, hain zuzen, objektuak hauek diren moduan; gure adimenaren erabilera enpirikoan, oster, gauzak beraiek agertzen diren moduan ezagutzen dira. Beraz, kategorien erabilera enpirikoaz gain (sentsuzko baldintzetara zedarritzatzen dena) erabilera hutsa eta objektiboki baliaduna egongo litzateke, eta ezingo genuke baieztatu orain arte onartutakoa, alegia, gure adimenaren ezagutza hutsak agerpenen esposizioaren printzipioak baino ez lirатеkeela, zeinak a priori ere esperientziaren ahalgarritasun formalera baino ez lirатеkeen iritsiko, zeren hemen gure aurrean erabat bestelako alorra irekiko bailituzateke, nolabait esateko, espirituan pentsatutako mundua (agian baita begietsia ere), zeinak gure adimena, gutxiago ez, baizik agian era askoz nobleagoan ere bete ahal izango lukeen.

Egitatean, gure adimenak gure errepresentazio guztiak objekturen bati lotzen dizkio, eta agerpenak errepresentazioak besterik ez direnez gero, orduan adimenak Zerbaiti lotzen dizkio, sentsuzko begiespenaren objektua den Zerbaiti; baina Zerbait hau, hainbestez, objektu transzental besterik ez da. Honek, ordea, Zerbait = X bat izan behar du, baina ez dakigu ezer honetaz, jakin ere ezin dugu egin oro har (gure adimenaren antolaketaren arabera), baizik hau apertzepzioaren batasunaren korrelato gisa soilik izan daiteke baliagarria anizkunkiaren

batasunerako sentsuzko begiespenean, eta horren bitartez adimenak hura objektu baten adigaian bateratzen du. Objektu transzendentala hau sentsuzko datuetatik ezin da bereizi, zeren orduan ez baita ezer geratzen horren bitartez hura pentsatzeko. Ez da, beraz, ezagutzaren objekturik bere baitan, baizik agerpenen errepresentazioa besterik ez oro harrezko objektu baten adigaiaren menpean, alegia, agerpenen anizkunkiaren bitartez determinagarria den objektua.

Horregatik, kategoriek ez dute adimenari baino ematen ez zaion objektu berezirik errepresentatzen, baizik eta kategoriak objektu transzendentala (zerbaiten adigaia oro har) sentimenean ematen denaren bitartez determinatzeko besterik ez dira erabilgarriak, horren bitartez agerpenak objektuen adigaiaren menpean enpirikoki ezagutzearren.

Sentimenaren substratuak gu ez gogobetetzearren eta fenomenoari adimen hutsak soilik pentsa ditzakeen noumenoak gaineratzearen zergatia honetan besterik ez da funtsatzen. Sentimena eta bere alorra, hots, agerpenen alorra, adimenak honetara zedarritzatzen du: haiek berbaitango gauzez ez, baina gauzak guri agertzen zaizkigun eraz besterik ez dira aritzen gure antolaera subjektiboari esker. Hau zen Estetika transzendentala osoaren emaitza, eta berezko eran ondorioztatzen da oro harrezko agerpen baten adigaitik berari bere baitan agerpena ez den zerbait egokitu behar zaiola, zeren agerpena ezin baita ezer izan bere aurretik eta gure errepresentatzeko eratik at, eta beraz, gorpil zoro batean gertatu nahi ez badugu, orduan agerpen hitzak Zerbaitekin harremana azaltzen du, zeinaren errepresentazio zuzena sentsuzkoa den, baina gure sentimenaren antolaera hori gabe ere (gure begiespenaren forma bertan oinarritzen dela) Zerbait izan behar duen, h. d., sentimenetik beregaina den objektua.

Hemendik sortzen da noumenoaren adigaia, baina honek ez du esanahi positiborik, gauzaren baten ezagutza determinatua ere ez du adierazten, baizik oro harrezko Zerbait pentsatzea besterik ez, non nik sentsuzko begiespen oroz abstraitzen dudana. Noumenoak fenomeno guztietatik bereizi behar den egiazko objektuaren esanahia izatearren, ordea, ez da aski nik nire pentsamendua sentsuzko begiespenen baldintza orotatik askatzea, horretaz gain oinarri bat izan behar dut sentsuzkoa ez den beste begiespen-era onartzeko, eta horrela, halako objektua honen menpean eman ahal izateko; bestela, izan ere, nire pentsamendua kaskala da, nahiz kontraesanik gabekoa izan. Lehenago ezin izan genuen frogatu sentsuzko begiespena begiespen ahalgarri bakarra dela oro har, baizik guretzat besterik ez dela; baina ezin izan genuen frogatu era berean beste begiespen era bat izan daitekeenik, eta gure pentsatzeak sentimen oroz abstrai badezake ere, dena dela, galdekizun hau geratzen da: ea ez den adigai baten forma soilak, eta ea banaketa hau egin ondoren objekturik geratzen den.

Oro harrezko agerpenari dagokion objektua objektu transzendentala da, h. d., oro har Zerbaiten pentsamendu osoro indeterminatua. Honi ezin zaio noumeno deitu; izan ere, ez dakit ezer bere baitan denaz eta ez dut bere adigairik, oro harrezko sentsuzko begiespenaren objektuarena izan ezik, zeina, beraz, agerpen ororentzat berbera den. Hau ezin dut ezein kategoriaren bitartez pentsatu; izan ere, honek begiespen enpirikoaz balio du, hau oro har objektu baten adigaiari menperatzeko. Kategoriaren erabilera huts soilak ahalgarria da bai, h. d., kontraesanik gabekoa da, baina ez du ezein baliotasun objektiborik, bere bitartez objektuaren batasuna lortuko lukeen ezein begiespeni ez baitzaio lotzen; izan ere, kategoria pentsatzearen funtzio soilak da eta bere eskutik ez zait ezein objekturik ematen, aitzitik, begiespenean eman ahal zaidana pentsatzen dut. [Azken lau paragrafoen A-ko ordezkoa (Itz. oh.)].

⁹⁷ «Adierazpen horren ordez ez da mundu intelektualarena erabili behar, azalpen alemanetan eskuarki egiten den moduan; izan ere, intelektualak edo sensitiboak ezagutzak besterik ez dira. Begiespen-era bat edo bestearen objektua (Gegenstand) baino ezin izan daitekeenari, objektuei (Objekte), beraz, (gogorra badirudi ere) intelijibleak edo sensibleak deitzen zaie». [Oin-ohar hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

⁹⁸ Hemen realitates noumena hauek elkarren aurka ekiten ez dutela dioen ohiko ihesbidea erabili nahi izanez gero, orduan halako errealtate hutsetik eta sentsuetatik askea denaren adibidea aurkeztu beharko litzateke, errealtate horrek zerbait oro har ala ezer ez duen errepresentatzen ulertu ahal izateko. Adibidea, ordea, ezin da esperientziatik baino hartu, fenomenoak baino eskaintzen ez dituen esperientziatik, eta orduan, esakune honek ez du hau baino esan nahi:

«baieztapen soilak barnebiltzen dituen adigaiak ezeztalea den ezer ez duela barnebiltzen»; guk esakune hau ez dugu inoiz zalantzatan jarri.

⁹⁹ Sentimena adimenari menperatua, honek bere funtzioa aplikatzeko duen objektu gisa, ezagutza errealean iturburua da. Sentimena bera, ordea, errakuntzaren oinarria da, adimenaren ekintzan eragiten duen heinean eta bera juzgatzera determinatzen duen heinean.

¹⁰⁰ Noski, bere adigaiak ezagutza espekulatiboetara ere hedatu zituen, baldin eta hutsak eta erabat a priori emanak baziren, baita Matematikara ere, nahiz honek bere objektua esperientzia *ahalgarrian* baino ez izan. Honi dagokionez ezin natzaio Platoni jarraiki, ideia hauen dedukzio mistikoan jarraiki natzaion bezain gutxi, ezta haiek, nolabait esateko, hipostasiatzeko gehiegikerian ere ez; nahiz eta alor honetan erabiltzen zuen hizkuntza bikaina leunagoa eta gauzen izaerari egokiagoa den interpretazioa jasotzeko gai den.

¹⁰¹ Metafisikak hiru ideia besterik ez ditu bere ikerkuntzaren benetako helburu gisa: *Jainkoa*, *askatasuna* eta *hilezkortasuna*, bigarren adigaiak lehenarekin lotuta hirugarrenera gidatu behar duela beharrezko konklusio gisa. Zientzia honek lantzen duen beste guztia hiru ideia hauetara eta beren errealtatera iristeko baliabide modura baino ez zaio baliagarria. Metafisikak ez ditu ideiak behar Natur Zientziaren mesedetan, baizik izadiatz goiti joateko. Bere ikuskerak *Teologia*, *Morala*, eta bien loturaren bidez, *Erljioa*, eta beraz, gure izatearen helburu gorenak arrazoimenaren ahalmen espekulatiboaren menpean jarriko lituzke, eta ez beste ezeren menpean. Ideia haien errepresentazio sistematiko batean aipatutako ordena *sintetikoa* litzateke egokiena; baina bere aurretik halabeharrez joan behar duen landualdian alderantzizko ordena *analitikoa* egokiagoa litzateke helburuei, esperientziak zuzenki eskura ematen digunetik abiatuta *arimaren irakaspenera*, *munduaren irakaspenera*, eta hortik, *Jainkoaren* ezagutzara aurrera egiten dugun heinean, honela gure egitasmoko handia osatzearren. [Oin-ohar hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

¹⁰² Adierazpen hauetatik abiatuta beren abstrakzio transzendentalagatik beren zentzu psikologikoa eta arimaren azken atributua *existentziaren* kategoriari egokitzearen arrazoiak hain erraz asmatzen ez duen irakurleak arrazoi hori jarraian aurkituko du aski argitua eta legeztatua. Bestalde, esanahi bera duten adierazpen alemanen ordeztatu gustu oneko idazkeraren aurka bai atal honetan, baita lan osoan ere erabili diren latindarrei buruz zera esan behar dut desenkusa gisa: usaia pedagogikoa ulertezintasun txikiarekin zailtzea baino nahiago izan dudala hizkuntzari dotorezia pixka bat kentzea.

¹⁰³ [Hemendik aurrerakoa B-ko paralogismoen teoria da. A-koa ondoren dator (Itz. oh.)].

¹⁰⁴ Pentsatzea bi premisetan esanahi erabat ezberdinean hartzen da: esakune nagusian, oro harrezko objektu bati lotzen zaion moduan (eta beraz, begiespenean emana izan daitekeela); esakune txikian, autokontzientziarekin harremanean da- goen moduan besterik ez, eta beraz, ez da ezein objektutan pentsatzen, baizik norberarekin harremanean soilik errepresentatzen da subjektu gisa (pentsatzearen forma gisa). Lehenengoan, subjektu gisa baino ezin pentsa daitezkeen objektuez hitz egiten da; bigarrenetan, *gauzez* ez, baina *pentsatzeaz* (objektu oroz abstraitzen den heinean), bertan nia beti kontzientziaren subjektu gisa erabilgarria delarik; horregatik, konklusioan ezin da honela ondorioztatu: ezin dut subjektu gisa baino existitu; baizik honela besterik ez: nire existentzia pentsatzearen neure burua judizioaren subjektu gisa erabil dezaket, eta hau nire izatearen eraz ezer ere argitzen ez duen esakune identikoa da.

¹⁰⁵ Argitasuna ez da errepresentazio baten kontzientzia, logikariek esaten duten bezala; izan ere, zenbait errepresentazio ilunetan kontzientziaren maila jakin bat aurkitu behar da, maila hau oroitzapenerako aski ez izan arren, zeren batere kontzientziarik gabe ezingo baikenuke bereizketarik egin errepresentazio ilunetan, zenbait adigairen ezaugarrietan egin dezakegun bitartean (zuzenbidea eta zuzentasunaren adigaietan bezala, eta musikoarenean, honek musikatzearen nota asko aldi berean hartzen dituenen). Aitzitik, errepresentazio bat argia da bere kontzientzia aski bada berak besteetatik duen *bereizketaren kontzientzia* izateko. Hau bereizkuntzarako aski baina ezberdinketaren kontzientziarako aski ez bada, orduan errepresentazioari oraindik ere iluna deitu beharko litzaioke. Beraz, kontzientziaren maila amaigabe asko daude desagerketa arte.

¹⁰⁶ Ahalgarritasun berri bat abian jartzeko unean beren auresuposizioetan ezein kontraesanik erakutsi ezin zaiela tematzearekin aski egin dutela uste dutenak (pentsatzearen ahalgarritasuna

bizitza bukatzean ere aditzea uste dutenekin gertatzen den moduan osotara, giza bizitzaren begiespen enpirikoan besterik ez dagoenean honen adibidea) estuasun handian gerta daitezke, inolaz ere ausardia handiagokoak ez diren beste ahalgarritasunak direla eta. Halakoa da *substantzia bakun* bat *substantzia askotan* zatitzeko ahalgarritasuna, eta alderantziz, *substantzia anizkunen* uztardura (koalizioa) *substantzia bakun* batean. Izan ere, zatigarritasunak elkartuki bat auresuposatzen badu ere, ez du halabeharrez *substantzien* elkartukirik eskatzen, baizik *substantzia* bat eta bakarraren (ahalmen ezberdinen) mailena besterik ez. Arimaren indar eta ahalmen guztiak, baita kontzientzia berarenak ere, erdiraino ahulduta pentsa daitezkeen era berean, nahiz arimak beti ere *substantzia* iraun; orduan xahututako erdi hori gordetzat errepresenta daiteke kontraesanik gabe, baina ez bertan, baizik bertatik kanpo, eta bertan erreala den guztia erdibitzen baldin bada, eta ondorioz, maila bat duena, eta beraz, bere existentzia osoa, ezer falta ez zaiola, orduan *substantzia berezia* sortuko litzateke bertatik kanpo. Izan ere, zatitua izan den askotasuna aurretik zegoen, baina ez *substantzien* askotasuna balitz bezala, baizik errealtate bakoitzaren askotasuna bertako existentziaren quantum gisa, eta *substantziaren* batasuna existitzeko era bat besterik ez zen, zeina zatiketa horren bitartez soilik eraldatuko zen *subsistentziaren* anizkuntasunean. Horrela, hainbat *substantzia bakun* bakar batean uztartu ahal izango lirateke era berean, eta *subsistentziaren* anizkuntasuna baino ez da galtzen horrela, batak aurreko denen errealtatearen maila bere baitan barnebiltzen duen heinean, eta agian materia baten agerpena eskuratzen diguten *substantzia bakunek* (noski, ez elkar eragin mekaniko edo kimikoaren bitartez, baina bai ezezaguna zaigun baten bitartez, hura honen agerpena soilik litzatekeela) *handitasun intentsiboa* duten gurasoen arimaren halako zatiketa *dinamikoaren* bitartez semeen arimak sor ditzakete gurasoen arimek utzitakoa osatuz ekai berriekin koalizioan batzearen bitartez. Ez noa halako ameskeriei balore edo baliotasun txikiarik ere onartzera: gorago Analitikako printzipioek aski erakutsi dute kategoriez (*substantziaren* bezala) esperientzian egiten den erabilera besterik ezin dela egin. Baina *arrazionalista* apertzepzioaren batasunak pentsatzean elkartukitik abiatutako argipenik baimentzen ez diolako soilik pentsamenduaren ahalmen soila objektu bat eman ahal izango lukeen begiespen iraunkorrik gabe berez dirauen zerizana bihurtzeko bezain ausarta bada, horren ordez hobe lukeenean izaera pentsatzaile baten ahalgarritasuna argitzen ez dakiela aitortzea, orduan zergatik ez luke *materialistak* ausardia berbera izateko baimena, nahiz eta bere ahalgarritasunen mesedetan era berean esperientzia oso gutxi aldarrika dezakeen, honela bere oinarri-esakuneaz kontrajarritako erabilera egiteko bere batasun formala gordez?

¹⁰⁷ «Nik pentsatzen dut» esakune enpirikoa da, jadanik esan den moduan, eta «ni existitzen naiz» esakunea barnebiltzen du. Baina ezin dut esan: «pentsatzen duen gauza oro existitzen da»; izan ere, pentsatzearen berekitasunak bera duten zerizan denak beharrezko zerizan bihurtuko lituzke. Horregatik, nire existentzia ezin dut hartu «nik pentsatzen dut» esakunetik ondorioztatua balitz bezala, Descartesek uste zuen legez (zeren, bestela, «pentsatzen duen gauza oro existitzen da» esakune nagusiak aurretik joan beharko bailuke), baizik berekin identikoa da. Begiespen enpiriko indeterminatua adierazten du, h. d., hautemapena (eta beraz, existentzia-esakune horren oinarrian sentsazioa dagoela frogatzen du, zeina, ondorioz, sentimenari dagokion), baina hautemapenaren objektua kategoriaren bitartez denboraren arabera determinatu behar duen esperientziaren aurretik doa, eta existentzia hemen ez da oraindik ezein kategoriarik, ez baitauka indeterminatuki emandako objektu batekin harremanik, baizik objektu batekin bere adigaia dugun heinean, eta honetaz ea adigai horretatik kanpo ezarria dagoen ala ez jakin nahi da. Hautemapen indeterminatuak hemen emana izan den errealkia besterik ez du adierazten, eta gainera, oro har pentsatzeari soilik emana, eta beraz, ez agerpen gisa, ezta berbaitango gauza gisa ere (noumenon), baizik egitatean existitzen den Zerbait gisa, eta halakoa den aldetik «nik pentsatzen dut» esakunean ezaugarritzen den zerbait gisa. Izan ere, oharrarazi behar da «nik pentsatzen dut» esakuneari esakune enpirikoa deitu diodanean ez nuela esan nahi izan esakune honetako *nia* errepresentazio enpirikoa denik; aitzitik, errepresentazio intelektual hutsa da, zerren pentsatzeari baitagokio oro har. Halere, pentsatzeari ekaia ematen dion errepresentazio enpirikorik gabe «nik pentsatzen dut» ekintza ez litzateke gertatuko, eta enpirikoa dena ahalmen intelektual hutsaren aplikazioaren edo erabileraren baldintza besterik ez da.

¹⁰⁸ [Jarraian paralogismoen atalaren A-ko aldaera dator (Itz. oh.)].

¹⁰⁹ Oso erraza da froga honi ohiko egokitasun akademikoaren janzkera ematea. Baina nire helbururako askigarria da froga-oinarri soila begi-bistan jartzea, era herrikoian bada ere.

¹¹⁰ Bola elastiko batek zuzen-zuzenean bola berdin batekin talka egiten badu, honi komunikatzen dio bere higidura osoa, eta beraz, bere egoera osoa (espazioaren kokalekuak baino ez badira hartzen aintzat). Halako gorputzekin analogian, har itzazue orain errepresentazioak eta hauen kontzientzia elkar trukatzeko duten substantziak, eta orduan, substantzien ilara osoa pentsa daiteke, lehenak bere egoera honen kontzientziarekin batera bigarrenari komunikatzen diola, honek bere egoera eta aurreko substantziarena hirugarrenari, eta honek aurreko egoera denak eta berea bere kontzientziarekin komunikatzen duela. Azkenengo substantzia hau, beraz, bere aurretik aldatu diren substantzia ororen egoerez kontziente izango litzateke, bereak balira bezala, zeren haiek kontzientziarekin batera bertara igorriak izango bailirateke, eta, dena dela, bera ez litzateke pertsona bera izango egoera hauetan guztietan zehar.

¹¹¹ Esakune paradoxal baina zuzen hau oharrarazi behar da: «espazioan bertan errerepresentatutakoa besterik ez dagoela». Izan ere, espazioa ez da errepresentazioa baino, eta ondorioz, bertan dagoenak errepresentazioan barnebildua egon behar du, eta espazioan ez dago ezer, bertan errealki errerepresentatua dena izan ezik. «Gauza bat bere errepresentazioan besterik ez dela existitzen» dioten esakuneak bitxia dirudi, baina hemen bitxitasuna galtzen du, zeren hemen gure autugaia diren gauzak ez baitira berbaitango gauzak, baizik agerpenak besterik ez, h. d., errepresentazioak.

¹¹² Orain ezin dut erakutsi nola dagokion hemen bakunkia era berean erreallitatearen kategoriari, baizik eta hau ondorengo atalburuan frogatuko da arrazoimenak duen adigai beraren beste erabilera bat aztertzean.

¹¹³ Baldintzatuki jakin baten baldintzen ilararen osoki absolutua beti baldintzatugabea da; zeren bertatik at ez baitago baldintzatua izan litekeen baldintza gehiagorik. Baina halako ilara baten osoki absolutua ideia besterik ez da edo, are gehiago, adigai problematikoa da, eta ondorioz, bere ahalgarritasuna aztertu behar da, eta gainera hemen gaia osatzen duen baldintzatugabekia, benetako ideia transzendentala den aldetik, bertan barnebildua egon daitekeen erarekin harremanean.

¹¹⁴ Izadiak (Natur), adiective hartuta (formaliter), kausalitatearen barneko printzipio baten arabera gauza baten determinazioen bilkura esan nahi du. Aitzitik, izadiak, substantive (materialiter), agerpenen multzoa ulertzen da, hauek kausalitatearen barneko printzipioari esker osorik bilduak dauden heinean. Lehen adieran materia jariakorraren izaeraz (Natur) hitz egiten da, suaz, eta abarrez, eta hitza adiective soilik erabiltzen da; aitzitik, izadiko (Natur) gauzez hitz egiten denean, orduan osoki egonkor bat dugu gogoan.

¹¹⁵ Antinomiak elkarren ondoren datoz gorago aipatutako ideia transzendentaleen ordenaren arabera.

¹¹⁶ Quantum indeterminatua osoki bat balitz bezala begiets dezakegu, baldin eta mugen barnean itxia badago, bere totalitatea neurketaren bitartez, h. d., bere zatien hurrenez hurrengo sintesia eraikitzeke beharrik gabe. Izan ere, mugek jadanik osotasuna determinatzen dute, bera beste guztitik banatzen duten heinean.

¹¹⁷ Totalitatearen adigaia kasu honetan ez da bere zatien sintesi osatuaren errepresentazioa baino, zeren adigaia osokiaren begiespenetik ezin atera dezakegunez gero (kasu honetan ezinezkoa denez), orduan hau zatien sintesiaren bitartez soilik uler dezakegu, harik eta amaigabekiaren osaketa lortu arte ideian bederen.

¹¹⁸ Espazioa kanpoko begiespenaren forma besterik ez da (begiespen formala), baina ez kanpotik begiets daitekeen objektu erreala. Espazioa bera determinatzen (betetzen edo mugatzen) duen edo, are gehiago, bere formari egokia zaion *begiespen empirikoa* ematen duen gauza ororen aurretik espazio absolutuaren izenpean kanpoko agerpenen ahalgarritasun soila baino ez da, agerpenok, edo bere baitan existitzen diren, edo agerpen jakinei gaineratu ahal zitzaizkien heinean. Begiespen empirikoa, beraz, ez dago agerpenez eta espazioaz osatua (hautemapen eta begiespen kaskalez). Bata ez da bestearen sintesiaren korrelatua, baizik begiespen empiriko bat eta bakarrean baino ez dago lotua, bere materia eta forma den aldetik. Bi zati hauetako bat bestetik at ezarri nahi bada (espazioa agerpen denetatik at), orduan era guztietakoak diren eta kaskalak diren kanpoko begiespenen determinazioak sortzen dira hortik, begiespen ahalgarriak ez diren determinazioak. Adibidez, munduaren higidura edo gelditasuna espazio kaskal amaigabearen bien arteko hartuemanaren determinazioa da, hots, inoiz hauteman ezin den, eta beraz, pentsamen-gauza soil baten predikatua den determinazioa.

¹¹⁹ Honek, hainbestez, zenbaki oro baino handiagoa den (batasun jakinaren) kopuru bat barnebiltzen du, eta hau amaigabekiaren adigai matematikoa da.

¹²⁰ Erraz ohartzen da honekin hau esan nahi dela: *espazio kaskalak, agerpenen bitartez mugatua den heinean*, eta beraz, *munduaren barnekoa denak*, printzipio transzendentalak ez dituela kontraesaten bederen, eta onartua izan daitekeela hauei dagokienez (horregatik bere ahalgarritasuna berehala baieztatzen ez den arren).

¹²¹ [Badirudi «tesiari» idatzi beharko litzatekeela hemen (Itz. oh.)].

¹²² Aldaketen ahalgarritasunaren baldintza formala den denbora ahalgarritasun honen aurretik doa objektiboki, baina errepresentazio hori subjektiboki eta kontzientziaren errealitatean hautemapenen bidez da emana, beste denak bezala.

¹²³ «Hasi» hitza esanahi bikoitzean hartzen da. Lehena, *aktiboa* da, kausak egoeren ilara bat hasten baitu bere efektu gisa (infit). Bigarrena, *pasiboa*, kausalitatea kausa bertan hasten baita. Hemen, bigarrena lehenengotik abiatuta inferitzen dut.

¹²⁴ Hala ere, Epikurok oinarri-esakune hauek ea baieztapen objektibo gisa inoiz azaldu zituen galdetu behar da oraindik. Arrazoimenaren erabilera espekulatiboaren maximak baino ez balira, orduan Epikurok bertan antzinako edozein filosofoarena (Weltweise) baino espiritu filosofiko egiazkoagoa erakutsiko luke. Agerpenen argipenean azterketaren alorra munduaren ezein mugak edo hasierak moztuko ez balu bezala aritu behar badugu; munduaren ekaia esperientziaren bitartez irakatsiak gareneko eran izan behar duen moduan onartzen badugu; jazoeren beste sorrerarik ez badugu onartzen, izadiaren lege aldaezinen bitartez determinatua izan ezik, eta azkenik, mundutik ezberdina den kausarik onartzen ez bada, orduan hauek oraindik ere Filosofia espekulatiboa hedatzeko oinarri-esakune oso zuzenak dira, nahiz gutxi jarraituak, halaber, moralaren printzipioak iturri laguntzaile arrotzetatik beregainki bilatzeko oinarri-esakuneak dira, baina honek ez du esan nahi horregatik, espekulazio soilaz jarduten dugun heinean, esakune dogmatiko haiek *alde batera uztea* eskatzen duena, hortaz, haiek *ukatu* nahi izateaz sala daitekeenik.

¹²⁵ Ea objektu transzendental batek zer antolaera duen, hots, *bera zer ote den*, galdekizunari ezin zaio erantzunik eman baina *galdekizuna* bera *ezer* ez dela esan dezakegu, bere objekturik ez zaigulako eman. Horregatik, arimaren irakaspen transzendentalaren galdekizun guztiak erantzungarriak dira eta benetan erantzunak izan dira; izan ere, barneko agerpen ororen subjektu transzendentalarekin dute zerikusia, zeina agerpenik ez den, eta beraz, *objektu* gisa ez den ematen, eta bertan ezein kategoriak (galdekizuna benetan hauei buruzkoa baita) ez ditu aurkitzen bere aplikazioaren baldintzarik. Beraz, hemen ohiko adierazpen honek balio duela gertatzen da: erantzunik ez ematea erantzun bat dela, hots, ezein predikatu determinaturen bitartez pentsa ezin daitekeen Zerbait haren antolaeraz galdekizuna guztiz hutsala dela, guri eman ahal zaizkigun objektuen esferatik erabat at ezarria baitago.

¹²⁶ Artean idealismo *formala* ere deitu diot bera *materialetik*, h. d., kanpoko gauzen existentzia bera zalantzan jarri edo ukatzen duen idealismo arruntetik bereizteko. Kasu batzuetan gomendagarria dirudi adierazpen hauek gorago aipatutakoen ordeztu erabiltzea, honela sasi-interpretazio oro saihestearren. [Oin-ohar hau B-ko eransketa da (Itz. oh.)].

¹²⁷ Mundu-ilara hau, beraz, ezin da izan itzulera enpiriko ahalgarria baino, ez handiagoa ezta txikiagoa ere, eta bertan soilik funtsatzen da bere adigaia. Eta honek amaigabeki determinaturik eman ezin duenez, ezta orobat amaidunki determinaturik ere (absolutuki mugatua), hortik argi gertatzen da guk munduaren handitasuna ez amaiduntzat ezta amaigabetzat ere ezin onar dezakegula, zeren itzulerak (honen bidez errepresentatzen baita hura) bietako bat ere ez baitu baimentzen.

¹²⁸ Hemen frogatzen da gorago lehen antinomiaren antitesian erabilitako era dogmatikoaren aldean erabat ezberdina den modu batean egin dela ohartuko da. Bertan, sentsuen mundua bere baitan itzulera ororen aurretik bere osotasunari dagokionez emana zen gauzatzat hartu genuen errepresentazio era arruntaren eta dogmatikoaren arabera, eta espazioan eta denboran edozein leku hartzea ukatu genion oro har, denbora oro eta espazio oro hartu ezean. Horregatik, ondorioztapena ere hemengoaren aldean beste bat izan zen, hots, bere amaigabetasun erreala inferitu zen.

¹²⁹ Izan ere, adimenak ez du baimentzen *agerpenen artean* enpirikoki baldintzatugabea litzatekeen baldintzarik. Baina baldintzatuki batentzako (agerpenean) baldintza *inteligiblea* pentsatu ahal baliteke, beraz, agerpenen ilaran osakide gisa kokatuko ez litzatekeen baldintza, horregatik baldintza enpirikoen ilara inolaz ere moztu gabe, orduan halako baldintza onar liteke enpirikoki baldintzatugabeko baldintza gisa, horren bitartez itzulera enpiriko jarraitua inon moztu gabe.

¹³⁰ Ekintzen benetako moralitasuna (merezimendua eta kulpak), beraz, erabat ezkutuan geratzen zaigu, baita geure jokaerarena ere. Gure egozpena izaera enpirikoari soilik lotzen zaio. Inork ezin du oinarritu, ordea, zenbat egozten zaion askatasunaren efektu hutsari, zenbat izadi soilari eta adiurrearen akats errugabeari, edo bere antolaera zoriontsuari (merito fortunae), eta hainbestez, inork ezin du zuzentasun osoaren arabera epaitu.

¹³¹ Oinarri-esakune honen bitartez, beraz, gauza bakoitza korrelato komunarekin harremanean jartzen da, hots, ahalgarritasun osoarekin, zeinak (h. d., predikatu ahalgarri ororentzako ekaiak), gauza bakarraren ideian aurkitzen bada, gauza ahalgarri ororen afinitatea frogatuko lukeen bere determinazio osoaren oinarriaren identitatearen bitartez. Halako *adigai* bakoitzaren *determinagarritasuna* kontrajarritako bi predikaturen artean legokeen erdiko baten bazterketaren oinarri-esakunearen *orokortasunari* (universalitas) menperatzen zaio; gauza baten *determinazioa*, *ostera*, *orotasunari* (universitas), edo predikatu ahalgarri ororen multzoari.

¹³² Izarren aztertzaileen behaketek eta zenbaketek hainbat gauza miresgarri irakatsi digute, baina garrantzitsuena *ezjakintasunaren* amildegia erakutsi digutela izan da, giza arrazoimenak ezagupen hauek gabe inoiz hain handia errepresentatu ezin izango lukeen amildegia, eta berari buruzko gogoetak aldaketa handia sortu behar du gure arrazoimenaren erabileraren azken asmoen determinazioan.

¹³³ Izaki oroerrealaren ideal hau errepresentazio soilak den arren, lehenik, *egikaritua* da, h. d., objektua bihurtzen da, gainera *hipostasiatua* da, azkenik, batasunaren osaketarantz doan arrazoimenaren berezko aurrerapen baten bitartez pertsonifikatua ere bada laster ikusiko dugun moduan; zeren esperientziaren batasun erregulatzailea (soilik sentimenaren) agerpen beraietan ez baita funtsatzen, baizik *adimenaren* bidezko bere anizkunkiaren elkarloturan (apertzepzio batean), eta beraz, errealtate gorenaren batasuna eta gauza guztien determinagarritasun (ahalgarritasun) osoa adimen goren batean, eta beraz, inteligentzia batean dautzala dirudi.

¹³⁴ Adigaia beti ahalgarria da, baldin eta bere burua kontraesaten ez badu. Hau da ahalgarritasunaren ezaugarri logikoa eta horren bitartez bere objektua nihil negativum-etik bereizten da. Baina, hainbestez, adigai kaskala izan daiteke, baldin eta adigaia sortzen duen sintesiaren errealtate objektiboa bereziki erakusten ez bada; zeina, ordea, gorago azaldu dugun bezala beti esperientzia ahalgarriaren printzipioetan funtsatzen den eta ez analisiaren oinarri-esakunean (kontraesanaren esakunean). Adigaien ahalgarritasunetik (logikoa) berehala gauzen ahalgarritasunera (errela) ez inferitzeko oharkizuna da hau.

¹³⁵ Inferentzia-ondorio hau ezagunegia da eta beraz ez da beharrezkoa hemen bera zabalean azaltzea. Ustez transzendentala den kausalitatearen izadi-legean funtsatzen da, «*beharbadako* gauza orok bere kausa du», zeinak, berriro ere beharbadakoa baldin bada, era berdinean kausa bat izan behar duen, harik eta elkarri menperatutako kausen ilara behar-beharrezko kausa batera iritsi arte, zeren hau gabe ilarak ez bailuke osotasunik izango.

¹³⁶ Ez Moral teologikoa; izan ere, honek munduaren gobernari goren baten izatea *auresuposatzen* duten lege etikoak barnebiltzen ditu; Teologia moralak, ostera, lege etikoetan oinarritzen den izaki goren baten izatearen uste osoa da.

¹³⁷ Lurraren tankera esferikoak sortzen duen abantaila aski ezaguna da; baina gutxi dakite, esferoide batek duenaren antzeko zapalketak soilik galarazten duela lur irmoaren goraketek edo agian lurrikarek sortutako mendi txikiagoek ere lurraren ardatza jarraituki eta luze gabe nabarmenki higiaraztea, hau gertatuko baitzen, ekuadorreko lurraren puztuketa hain mendi izugarria ez balitz, non beste edozein mendiren bultzadak inoiz ohargarriki ardatzari begira duen kokapenetik higitu ezingo lukeen modukoa baita. Eta egoera zuhur hau lehenago isurkaria zen lurraren masaren orekatatik argitzen da ezbairik gabe.

¹³⁸ Horrela deitzen zioten antzinako dialektikoek inferentzia iruzurtti honi: zure patuak berekin badakar gaisotasun hori gaingaituko duzula, orduan hori gertatuko da, mediku bat deitu ala ez

deitu. Cicerok dioenez inferitzeko era honi hemendik datorkio bere izena: berari jarraikiz gero, bizitzan arrazoimena gehiago erabiltzerik ez dagoelako. Hau da arrazoimen hutsaren argumentu sofistikoari nik izen bera ematearen zergatia.

¹³⁹ Lehen ideia psikologikoaz eta honek arrazoimenaren erabilera erregulatzailerako printzipioa den aldetik duen benetako determinazioaz esandakoak barneko sentsuaren anizkuntasun ororen batasun sistematikoa hipostatikoki errepresentatzeko ilusio transzendentala oraindik bereziki azalduz luzatzeko lana aurrezten dit. Bertako jardunbidea kritikak ideal teologikoan erabili duenaren oso antzekoa da.

¹⁴⁰ Ondo dakit eskolaren hizkuntzan *diziplina* izena irakaskuntzaren (Unterweisung) baliokide bezala erabiltzen dela. Baina, bestalde, lehen adierazpena *hezkuntza* gisa (Zucht) bigarrenetik *irakaspen* gisa (Belehrung) arretaz ezberdintzen duten beste hainbat kasu daude, eta gauzen izaera berak eskatzen du bereizketa honetarako adierazpen egoki bakarrak gordetzea, ezen desiratzen baitut inoiz ez baimentzea hitz hura esanahi negatiboa ez denean erabiltzea.

¹⁴¹ Kausaren adigaiaren bitartez jazoera baten adigai enpirikotik benetan irteten naiz (zerbait gertatzen dela), baina ez kausaren adigaia in concreto aurkezten duen begiespenera, baizik denboraren baldintzetara oro har, zeinak esperientzian kausaren adigaiaren arabera aurki daitezkeen. Beraz, adigaien arabera baino ez dut jokatzeko, eta ezin dut adigaien eraikuntzaren bidez jokatu, zeren adigaia begiespen hutsak ez diren, eta beraz, a priori eman ezin diren hautemapenen sintesiaren erregela baita.

¹⁴² *Xehetasunak* ezaugarrien argitasuna eta askitasuna esan nahi du; *mugak* adigai xeheari dagozkionak baino ezaugarri gehiago ez egotearen zehaztasuna; *jatorrizkoa* izatea mugaren determinazioa nonbaitetik eratorria ez izatea, eta beraz, oraindik frogarik behar ez izatea da, honek ustezko argiketa objektu batez egindako judizio ororen buruan egoteko ezgaia bihurtuko bailuke.

¹⁴³ Filosofia definizio akasdunetz betea dago, bereziki benetan definiziorako osagaiak barnebildu bai baina era ez osoan egiten dutenez betea. Adigai bat ezingo balitz erabili hura definitu arte, orduan filosofatze oro oso zaila litzateke. Halere, (analisiaren) osagaiez, hauek balio duten artean, beti erabilera on eta segurua egin daitekeenez gero, orduan definizio akasdunak ere, h. d., benetan oraindik definizioak ez diren, baina egiazkoak diren eta definizioetara hurbiltzen diren esakuneak onura handiz erabil daitezke. Matematikari definizioa ad esse dagokio, Filosofiari ad melius esse. Ederra da bertara iristea, baina oso zaila gertatzen da maiz. Juristak oraindik ere eskubidez duten adigaiarentzat definizioa bilatzen ari dira.

¹⁴⁴ [Testuak «keine» dioen arren, irakurketa horrek zentzurik ez duenez, hau akatsa dela eta «reine» irakurri behar dela dirudit (Itz. oh.)].

¹⁴⁵ Adigai praktikoko orok ongi edo gaizki sentitzearen objektuekin, h. d., atsegina edo ezatseginarekin du zerikusia, eta beraz, zeharka bederen gure sentimenduen objektuekin. Hau, ordea, gauzen indar errepresentatzailerik ez denez, baizik indar ezagutzaile osotik at datzanez gero, orduan, gure judizioaren osagaiak atsegina eta ezatseginari, eta beraz, judizio praktikolari lotzen zaizkien heinean, osagai hauek ez dira apriorizko ezagutza hutsez soilik arduratzen den Filosofia transzentalaren multzokoak.

¹⁴⁶ Giza gogamenak berezko interesa hartzen du moralitasunean (edozein izaki arrazoidunengan halabeharrez gertatzen den bezala, sinesten dudanez), nahiz eta interesa zatitua dagoen eta praktikoki garailea ez den. Interes hau finkatu eta handitzen baduzue, arrazoimena oso esanekoa eta ilustratuagoa aurkituko duzue, interes praktikoa eta espekulatiboa bateratzeko. Ez bazarete arduratzen, ordea, aldeztu aurretik bide-erdian bederen gizaki onak egiteaz, orduan haiek ez dituzue inoiz gizaki sinistun jatorrak bihurtuko!.

¹⁴⁷ Hemen *mundu-adigaia* izena du halabeharrez edonoren interesa ukitzen duenak; eta beraz, zientzia baten asmoa *eskolako adigaien* arabera determinatzen dut, bera hautazko helburu jakinetarako ditugun trebetasunetako bat soilik balitz bezala begiztatzen denean.

¹⁴⁸ Ez da pentsatu behar honetaz eskuarki *physica generalis* deitzen zaiona ulertzen dudarik, izadiaren Filosofia baino gehiago Matematika dena. Izan ere, izadiaren Metafisika

Matematikatik osorik bakartzen da, inolaz ere ez ditu eskaintzen gainera honek bezain ikuskera hedatzaileak; oso garrantzitsua da, ostera, oro har izadiari aplikatzen zaion adimenaren ezagutza hutsaren kritikari dagokionez; honen gabezia matematikariek beraiek ere, ohikoak baina egitatean metafisikoak diren adigaiei atxikitzen zaizkien heinean, izadiaren irakaspene hipotesiez bete dute oharkabea, alegia, printzipio hauen kritika batekin desagertzen diren hipotesiez, horren bitartez Matematikak alor honetan duen erabilerari (erabat ezinbestekoa denari) batere kalterik egin gabe.

¹⁴⁹ Dakidana nahikoa zait; ez naiz arduratzen Arkesilaos eta Solon jasankorra direna izateaz. [Persio, Sat. III 78 (Itz. oh.)].

¹⁵⁰ [Terminologiari buruzko ohar orokorra. Kanten hizkuntza filosofikoak oso adierazpen bereziak ditu, hala nola, berbaitango gauza (Ding an sich) eta antzekoak; oro harrezko objektua (Gegenstand überhaupt) eta antzekoak; gainera, izenlagunetatik adigai orokorrak sortzeko duen joera aipatu behar da bereziki: osokia (das Ganze), anizkunkia (das Mannigfaltige), eta era honetan sortutako hainbat hitz (Itz. oh.)].

Aurkibidea

Hitzaurrea	7
OHARRAK	19
BIBLIOGRAFIA	23
Egilearen hitzaurrea lehenengo argitaraldiari	29
Egilearen hitzaurrea bigarren argitaraldiari	37
sarrera	55
I. Osagaien irakaspen transzendentala	73
Lehen zatia. Estetika transzendentala	75
1. atala. Espazioaz	77
2. atala. Denboraz	82
Bigarren zatia. Logika transzendentala	99
1. saila. Analitika transzendentala bi liburuetan eta hauen zenbait atalburu eta ataletan	108
2. saila. Dialektika transzendentala bi liburuetan eta hauen zenbait atalburu eta ataletan	279
II. Metodoaren irakaspen transzendentala	527
1. atalburua. Arrazoimen hutsaren diziplina	530
2. atalburua. Arrazoimen hutsaren kanona	572
3. atalburua. Arrazoimen hutsaren arkitektonika	598
4. atalburua. Arrazoimen hutsaren historia	609
Oharrak	613

